


1.0 bertsioa

# *Lazarraga eskuizkribua: Edizioa eta azterketa*

A testua

GIDOR BILBAO, RICARDO GÓMEZ, JOSEBA A. LAKARRA,  
JULEN MANTEROLA, CÉLINE MOUNOLE, BLANCA URGELL



Vitoria-Gasteiz  
2010eko uztaila

## AL

### Artzain-liburua

Lazarragaren eskuizkribuan artzain-liburuaren hasierako eta bukaerako orrialdeak galdu direnez, ez dakigu osorik zein luzera zuen. Hasierako zatiari dagokionean, ezin da inolako kalkulurik egin galdu denaren luzerari buruz; amaieran, ordea, pentsa genezake ez dela zati luzea galdu: gehienez ere lau orri (1155-1158), zortzi orrialde. Gainera, hasierako 1138-1141 orriak apurtuta daude, eta hor ere ez dugu testu osoa ezagutzen; are testu barruan ere galdu dira orri batzuk (1148, 1149 eta 1150). Hortaz, zatika baino ez dugu ezagutzen testua.

Patri Urkizuk *Dianea* izenburua proposatu zuen artzain-liburuarentzat, Jorge Montemayorren gaztelaniazko *Los siete libros de la Diana* (1559) liburan oinarritua delakoan, eta eskuizkribuko poema batean *dianea* forma agertzen delakoan (izatez *dianeas* ‘doanean’ aditza da poema horretan agertzen dena, eta ez izena); ez dugu uste hautu egokia izan zenik. Patxi Salaberri Muñoak, berriz, *Sirena*, *Silbero*, *Silbia* eta *Doristeo* izenburu gure ustez egokiagoa hobetsi du, nobelako pertsonaia nagusien izenak hartuta. Guk, oraingoz, *artzain-liburua* izen generikoarekin aipatuko dugu eskuizkribuko hasierako zati hau.

Artzain-liburuak genero arrakastatsua izan ziren Europan XVI. mendean, eta Jorge Montemayorren gaztelaniazko *Los siete libros de la Diana* (1559) Europa osoan itzuli eta imitatu zuten; badirudi ildo horretan kokatu behar dela Lazarragaren lana ere, batik bat ezagutzen den zatia kontuan hartuta, zati honetan nagusi direlako artzain-giroko pasarteak. Baina, funtsean, amodio nahasien istorioa kontatzen da (*Silberok Sirena maite du*, *Sirenak Doristeo*, *Doristeko Silbia*, eta *Silbiak Silbero*, eta amodio-kateak ez du beste alderako biderik), eta pertsonaia nagusi horiek ez dira artzainak, hiri-giroan bizi diren morroioneskame zerbitzariak (*Silbero*, *Sirena* eta *Silbia*) eta zaldunak baino (*Doristeo*). Baina egia da guregana iritsi den testuaren zati handi batean laurak agertzen direla artzain-jantziekin, artzain bihurtuta, dela amodioaren nekeetatik ihes egiteko (*Silbero*), dela artzain joan den amodioaren atzetik joateko (beste hirurak). Testuaren azterketa sakonagoak erakutsi beharko du norainoko garrantzia duten testu honetan garai hartan arrakastatsu ziren beste genero edo elementu batzuek (nobela bizantziarra, zaldungo-nobela, nobela sentimental...).

Nolanahi ere den, *Silbero* morroia eta *Sirena* neskamearen arteko harremanekin hasten da liburua: amodio-gutunak, elkarri zuzenduriko kantuak (bihuela eta arparekin)... Baina *Sirenak Silberori* nahi duen erantzuna ematen ez dionez, *Silbero* gaixotu egiten da. Nagusiak *Silbiari*, *Sirenaren* neskame-lagunari, eskatzen dio *Silberoren* ardura hartzeko; *Silberok Silbiari* eskatzen dio *Sirena* beregana eramateko, eta hala egiten du *Silbiak*, bera *Silberorekin* maitemindua den arren. Baina saio berrietan ere ez du *Silberok Sirenarekin* arrakastarik; ezta musikari-talde bat serenata bat eskaintzeko kontratatuta ere.

Orduan, Italiako Arzileo hirira doaz morroi-neskame guztiak, nagusiekin batera; han laugarren pertsonaia agertzen da: Doristeo zalduna, Silbiaz maitemindua, Sirenak maitatua; horrela, maitemin neketsuen katea osatzen da: gorago esan dugun moduan, Silberok Sirena maite du, Sirenak Doristeo, Doristeok Silbia, eta Silbiak Silbero.

Silberok, maitemina ezin pairatuz, hiritik landa-girora ihes egitea erabakitzentzu du, eta, horretarako, artzain bihurtzea erabakitzentzu du; eta hala, Sirenari bere asmoa jakinarazi ondoren, Dueroren ibaialdera iristen da, artzain-lanetan jarduteko. Silbiak ezin du Silbero ikusi gabe bizi, eta haren bila joatea erabakitzentzu du, artzain-mutil jantzita (Clarian izen berriarekin); beste bi artzainekein elkartzen da bidean; haiek ematen diote Silberoren berri eta hirurak abiatzen dira Silbero omen dagoen ingurantz. Gero, Doristeo da Silbia gabe ezin bizi dena eta haren atzetik joatea erabakitzentzu duena, hau ere artzain; eta Doristeorekin Sirena doa, zaldunaren gogoaren kontra bada ere.

Egun batean, ustekabean, laurak elkartzen dira iturri fresko baten aldean, bakoitza bere ardiekin. Elkar ezagutzean, banan-banan geratzen dira laurak konorterik gabe, maitasunaren maitasunez eta minaren minez.

Orduan, bi izaki basati beldurgarri agertzen dira, eta neska biak bahitzen dituzte. Bi mutilek erabakitzentzu du elkarrekin saiatzea neskak askatzen, eta, handik bi egunera, Marteren mandataria agertzen zaie; esaten die bi bahitzaileak Narbaez gaiztoaren mutilak direla eta Konfisioko Etxera eraman dituztela Sirena eta Silbia; maiteak askatzeko zer egin behar duten ere agintzen die: berak emandako ezpatekin eta ispiluarekin joan behar dute Konfisioko Etxera, eta, belauniko jarririk, soilik ispilura begiratuz, bera agertu arte itxaron behar dute.

Hala egiten dute, eta, lau maitemindua berbetan ari direla, Marteren mandataria bera agertzen da ezpata zorrotzarekin, eta Narbaezen mutil basatiak ihesean joatea lortzen du. Orduan, Kupido dakarren segizioa agertzen da... eta eskuizkribua mozten da, istorioa zelan amaitzen den jakin gabe.

Testua gehienbat prosan idatzia da, baina kantu ugari tartekatu dira bertsotan, XVI-XVII. mendeetako artzain-liburuetan ohi bezala; gainera, hiru lekutan aurkitu ditugu narratzailearen hitzak bertsotan (AL: 1145r, AL: 1147r eta AL: 1154r-1154v).

<1138r>

bero e[

edan egu[

bere ugaça[

tiac bere [v  
pensadu eu[  
bada Silver[  
idoro bagu[e  
du eben car[t<sup>1</sup>  
manera on[<sup>2</sup>

ainbat eta [  
neure begui[o  
daucadan [p  
carta oneta[  
uste dot dau[  
nau eçautu[  
badau bere  
orri mila bider na]u  
causea dan azquero[<sup>3</sup>  
ri remedio emun jagui[<sup>4</sup>

<sup>1</sup> *carft*: Zaldungo-nobeletatik eta nobela sentimentalatik hartu zuen artzain-nobelak amodio-gutuna literatura-baliabide gisa.

<sup>2</sup> *manera on[*: Estilo zuzenean idatziriko diskurtsoa (monologoa, elkarrizketako zati luzea, gutuna...) aurkezteko, halako aurkezpenak erabiltzen dira gaztelaniazko nobeletan eta artzain-liburueta: “comenzó a hablar desta manera”, “decía desta manera”, “comenzó a decir desta manera”...

Hemen, *manera on[etan]* horrekin, Silberok Sirenarentzat idatziriko amodio-gutunaren hasiera markatzen da, eta, hurrengo lerroan, gutunaren edukia estilo zuzenean hasten da.

<sup>3</sup> *dan azquero[*: ‘denez gero’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumental + -quero” eta “partizipio + azquero” egiturak erabiltzen dira. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n azquero* horietako bat da hau.

Artzain-liburuko kasu hauei formaren eta egituraren araberako interpretazioa eman diegu, eskuizkribuaren egoera eskasak perpaus osoa irakurtzen uzten ez badu ere.

<sup>4</sup> *emun jagui[*: *Jagui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa aditz nagusitzat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Jri remedio emun jagui[* (AL: 1138r), *Nachaçu suplicaetan nay daquiçula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguiten* (AL: 1152r), *eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean* (AL: 1152v), *cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidoreric; / oy alcançadu daiqueano / ez artu jaguin celoric* (A14: 99-102), *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebagaea; / oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / eguin deustan mesedeac / servidu jaguin artean* (A24: 131-136), *Jaun Cerucoac / çuri bidaldo jaguinic; / adietaco / badeçu miramenturic, / ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric* (A28: 165-170), *Aren aoti berba oa /*

ain andia dan azqueroedo bes[  
ric içango ezpada bere nai begui[  
escu delicaduocaz carta orri eranç[  
nai ezpadau ni çure mesedeorr]<sup>5</sup>  
il nadin nagoan lecurea[  
<1138v>

]orren<sup>6</sup>

]ea Sirena<sup>7</sup>  
]on joean<sup>8</sup> a-  
]nac iracu-  
]n buruan

---

*neguianean aditu, / reberencia jaguiteco / belaunoc neben incadu* (B14: 13-16), *Apea nindin çaldirean / guchi bat apartaduric; / berba neguion lurrerean, / neurau nengoan lecurean / reberencia jaguinic* (B18: 66-70), *Beti nabil casoau dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo jaguiteco sendoro* (B18: 111-115), *guztiay berba jaguinic* (B29: 50), *modu onetan / oyta berba jaguinic* (B29: 79-80). Edozein kasutan, beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NORK-NORI-NOR) ezkutatzten dela.

<sup>5</sup> *çure mesedeorr*: ‘berori’, gaztelaniazko ‘(Su, vuesa, vuestra) merced’ alegia. OEHn bildutako adibide guztiekin (s.v. *mesede* 2) aurretik edo posesiboa (*zure, zeure*), edo erakuslea (*orren, aren*) dute, hemen bezala. Ikusi, eskuizkribu honetan, *Aen Mesedea* (AL: 1142v), eta posesiborik gabe *mesedeori* (A23: 29).

<sup>6</sup> *Jorren*: Ziur aski, hau da gutunaren azken lerroa, eta ondoren berriz hasiko da estilo narratiboan idatzitako kontakizuna.

<sup>7</sup> *Sirena*: *Silvero* eta *Sirena* izenek ezinbestean gogorarazten dituzte Jorge de Montemayorren *La Diana* artzain-nobelako lehenengo liburuko *Sireno* eta *Sylvano*; liburu hartan, biak dira Dianarekin maitemindurik diren artzainak. Generoaren ezaugarrietakoa bat da izenak berrerabilitza, bere-berean edo zertxobait aldatuta, eta izen hauen antzekoak aurkitu ditugu beste lan batzuetan ere: *el pastor Silvero* (Lope de Vega, 1588-1595, *El ganso de oro*), *Sirena* (Jerónimo Fernández, 1547, *Belianís de Grecia*), *Silvera* (Luis Gálvez de Montalvo, 1582, *El pastor de Fílida*).

<sup>8</sup> *joean*: ‘zihoan’; Lazarragaren testuan, *joan* aditzaren iraganeko formek *j-* aurrikzia daramate subjektua 3. pertsonakoa delarik (cf. *joean* AL: 1138v, B30: 70, 74, *joeala* AL: 1147r). Gisa horretako formak artzain-liburuan eta B testuan baizik ez ditugu bildu.

Bestalde, mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuaren bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatuetan ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doeana* (RS), *daroa + -an > daroeanean* (VJ) (cf. FHV 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138r), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B17: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B18: 31, B18: 44), *guinean* (A7: 8, B18: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B18: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroela* (B18: 16). Ohar gaitezen Landuccik ez duela aldaketa horren arrastorik aditzean (“antecedente, *aurrera doana*”).

] urteten ebela  
]eaz ceña ecu-  
]enaçan ez  
]i ez leguian  
b]ada mundu  
]ric andiae-  
]ui eben car-  
]urric eçautu  
]nic ecin esan  
] aseguin artu  
]bio historieac<sup>9</sup> ber-  
]renac cartea idoro eben  
]u eben manera artan  
]ori bere ecer esan baga Silbe-  
]a ebiliric utra<sup>10</sup> jaquiteco deseo an-  
]irenac cartea artu eben ala ez sar-  
]chi eben lecura nun idoro eben  
] ichi eben maneran bertan

<1139r>

cegaz utra aseguin guchi Silveroc [  
ben bere biocean ecusiric ai[  
bere gauçaetan çala ai[  
Silveroren asecabea an[d  
buruco cençuna bencidu[  
artu eben ain<sup>11</sup> maneraz [  
di batean irazarri ez çan [  
setan eibilela Sirenagaz [  
cidin utra espantaduric<sup>12</sup> [e

<sup>9</sup> *historieac*: ‘historiak’; *historia* izena, mugatzaile ergatibo singulararekin. Lazarragarenan, -ia bukaera duten izenek -iea bukaerarekin egiten dute forma mugatua: *historieac* (AL: 1138v), *sentencia* (AL: 1153v), *gueraciea* (A6: 30), *licencia* (A10: 19).

<sup>10</sup> *utra*: ‘oso’; gutxienez Kapanagari eta Oihenarten atsotitzei esker ezagutzen genuen (cf. *OEH*, s.v.).

<sup>11</sup> *ain*: ‘halako’.

<sup>12</sup> *espantaduric*: ‘harriturik, miraz gelditurik’; cf. *DAut*, s.v. *espantarse*: “asombrarse”.

bere pensamentua beti ber[

la eta probaetarren<sup>13</sup> pe[

ganic apartadu aleian<sup>14</sup> [

biguela<sup>15</sup> bat ceña<sup>16</sup> [

au esaten ebel[<sup>17</sup>

o[

[...]

[...]

[...]

[...]

o[

egu[

ceur[

Silve[

<1139v>

S]irenaren berbea cegaz utra  
] artu eben esan cituan

<sup>13</sup> *probaetarren*: ‘probatearren’; *-arren* atzizkiak hiru aldaera ditu eskuizkribuan, *-gatik* atzizkiaren baliokide gisa aditz-izenari gehituta, mendebaldeko tradizioaren arabera: *-tearren*, *-tarren* eta *-t(z)erren*. Ikusi *etortearren* (A3: 13); *probaetarren* (AL: 1139r), *castaetarren* (A14: 77), *contaetarren* (B3: 47); eta *ecusterren* (AL: 1142r, AL: 1145r, AL: 1147v), *iragaiterren* (AL: 1146r), *alabacerren* (A6: 41), *iracasterren* (A14: 47), *servicerren* (A14: 115), *ebilterren* (B18: 120). Izenari gehituta ere aurkitu dugu, *-gatik* atzizkiaren baliokide, lau bider: *amorearren* (AL: 1143v, A7: 89, B22: 14), *dirurren* (B17: 60).

<sup>14</sup> *apartadu aleian*: ‘apartadu al leian, aparta ahal lezan’ dukegu ziur aski, esan nahi baita potentzial hipotetikoko forma bat. Beherago *inorc pensadu ecin leian* (AL: 1143v) bildu dugu.

<sup>15</sup> *biguela*: ‘bihuela’; irakur bedi *biguela*, *-u-* eta guzti. Gitarraren antzeko hari-instrumentua da, eta hain zuzen XVI. mendean izan zuen loraldia Iberiar Penintsulan. Cf. AL: 1139r, AL: 1140v, AL: 1141v, AL: 1143v, A24: 18 eta A25: 18.

Lazarragaren artzain-liburu hotzetan, bihuela, harpa, zanpoina eta arrabita aipatzen dira, denak ere oso musika-tresna ohikoak gaztelaniazko artzain-liburuetan.

<sup>16</sup> *ceña*: Artzain-liburuan askotan dago *cena-* erlatibozkoa, palatalaren markarik gabe; poematan, ordea, behin bakarrik (A6: 50) agertzen da. Beti aldatu dugu *ceña-* idatziaz, oharrean jakinarazita.

<sup>17</sup> *au esaten ebel*: Estilo zuzena aurkezteko erabiltzen den formula baten itzulpena da hau ere: “acabó su canción diciendo”, “cortesmente les saludó diciendo”, “comenzó a hablar diciendo”... Silbero da, dirudienez, kantatzen hasiko dena. Ikusi 1138r ataleko oharra, s.v. *manera onf.*

]c ençun ebelaco bada e-  
]an Silvero egoala Sirena  
]ilveroren aposentura utra  
]az ceñac an egoan silla  
] berba oec esaten asi

]n Silvero<sup>18</sup> nagoçu<sup>19</sup> leen<sup>20</sup>  
]rso oriec<sup>21</sup> osteango<sup>22</sup> da  
]pel baten ceure escuz  
] deguidaçula cegati<sup>23</sup>  
]n baçu<sup>24</sup> nic bere  
]goçu erregutan<sup>25</sup>

---

<sup>18</sup> *Silvero*: Lazarragak Sirenaren ahoan ipini ditu hemendik aurrerako hitzak, estilo zuzenean.

<sup>19</sup> *nagoçu*: ‘nagokizu’; irakur bedi *nagozu*, txistukari frikariarekin (eta ez \**nagotzu*, afrikatuarekin). Eskuizkribuan sei aldiz aurkitu dugu *nagoçu-* (AL: 1139v, AL: 1152v, A16: 45, B3: 73, B3: 88, B22: 24) eta behin *egon* aditzaren NOR-NORI forma trinkoen sail honetako *gagoçu* (AL: 1147v). *Arrasateko Erreketan* (TAV 3.1.7) ere badago aditz hau: *Çaurietan curadu eta, / ama, nagoçu oera*.

<sup>20</sup> *leen*: *Leen* hitzak beti agertzen du bokal bikoitzza eskuizkribuan: *leen* (AL: 1139v, AL: 1143v, AL: 1144v, AL: 1145v; AL: 1151r, A7: 17), *leengo* (AL: 1154r), baina *astelen* (B32: 8). Landuccik ez dakar bokal bikoitzik: “antes que, *len*”. Cf. *OEH*, s.v.: “*Len* es la variante meridional hasta el s. XX excepto para gran parte de los autores vizcaínos; hay *leen* en Capanaga (103), *Acto* (267), J.J. Mogel (*BasEsc* 34), Astarloa (II 117), fray Bartolomé (*Ic III* 270), Añibarro (*EL*<sup>2</sup> 145), *CatLlo* (75), Uriarte (*MarII* 73), Iturzaeta (*Azald* 128) y Erkiaga (*Arran* 162)”.

<sup>21</sup> *oriec*: Eskuizkribuan hitz honek hitz-hasierako zeinua duenez, aurrekotik bereizita (hots, erakusle moduan) idaztea erabaki dugu, testuingururik ezean beste irizpiderik ezin izan dugulako erabili.

<sup>22</sup> *osteango*: Eskuizkribuan beste bi lekutan aurkitu dugu: *osteango* ‘gainerako, bestelako’ (AL: 1142v) eta *osteangoan* ‘hurrengoan’ (A7: 27).

<sup>23</sup> *cegati*: Artzain-liburuan *cegati* eta *cegaiti* formak txandakatzen dira, biak antzeko proportzioan, baina poementan ez dugu aurkitu *cegati* behin ere.

<sup>24</sup> *baçu*: Badirudi eskuizkribuan *batzu* dela oinarrizko gisa erabiltzen den forma. Absolutibozkoetan *batzu* forma bakarrik darabil (AL: 1139v, AL: 1141v, AL: 1146v, AL: 1154v), Hegoa deko testu zaharretan agertzen ez dena; ikusi *OEH*k zer dioen (s.v. *batzu*): “Los autores septentrionales de los ss. XVI-XVII distinguen formalmente los casos absoluto y ergativo; hay dos sistemas: *batzu* / *batzuk* es el de Leizarreta (Dechepare usa *batzu* para el caso absoluto, pero no hay ej. de ergativo), y *batzuk* / *batzuek* el de Axular y Etcheberri de Ziburu; Pouvreau utiliza ambos: *batzu*, *batzuk* / *batzuk*, *batzuek*. [...] Al Sur no hay diferenciación formal: en los textos guipuzcoanos, desde el s. XVIII, se encuentra *batzuek* para ambos casos, y en los vizcaínos —ya desde Capanaga— *batzuk*”. Soziatibozko forma (*baçugaz*) horren gainean eraikia dela dirudi, -*gaz* gehituta; genitiboari dagokionez, *baçuen* da darabilen forma bakarra. Hauxe dakar *OEH*k: “*Batzuen* es casi la única forma para el genitivo: *batzuren* sólo se encuentra en Leizarreta (junto a *batzuen*), Oihenart y unos pocos autores meridionales del s. XX”.

<sup>25</sup> *erregutan*: Hemen amaitzen dira Sirenaren hitzak.

]au esan da  
]n eben Si-  
]ean lecu  
]n baga  
]ti Sirenac  
]ten acorda  
] bat escrevie-

]di ece ecin<sup>26</sup>  
ç]uc  
]jura

<1140r>

gura doğun ni emplea nadin çure servicioan, suplicaetan nachaçu,<sup>27</sup> Sirena ene laztana, nai daquicula<sup>28</sup> gaur gabean ceure aposentuco bentanara joaten,<sup>29</sup> ece an gura dot neuronec emun çuc aguindu deustaçun hobrea[

<sup>26</sup> *ece ecin*: Hemen berriz ari da Silbero estilo zuzenean, Sirenarentzako gutuna idazten; dirudienez, Sirenak eskatu dio bere zortzi bertso-lerroak (AL: 1139r) paperean idazteko (*[be]rso oriec [...] [pa]pel baten ceure escuz*, AL: 1139v), eta Silberok hitzordua nahi du Sirenaren leihopean, bertso-papera eskura emateko. Literatura-topikoa da, jakina, maitemindua neska maitatuaren leihopera joatea.

<sup>27</sup> *suplicaetan nachaçu*: ‘suplikatzen natzaizu, erregutzen dizut’; testurik zaharrenetan, *suplikatu* aditza beste behin baizik ez zaigu agertzen iragangaitz bipertsonal gisa jokaturik, Haraneder (1635: 92) lapurtarraren testuan hain zuzen: *hala suplikatzen natzaitzu, eta entzun nazazu*. Eskuizkribuan bost bider aurkitu dugu *suplicaetan nachaçu* (AL: 1140r, AL: 1146v, AL: 1151r, AL: 1152r, AL: 1152v) eta behin *suplicaetan liçatela* (AL: 1154v); ikusten denez, beti artzain-liburuan. Honekin erlazionaturik, ikusi *eskatu* aditzari buruzko oharra, AL: 1142v atalean, s.v. *escatu cidin*.

<sup>28</sup> *nai daquicula*: ‘nahi dakizula, nahi izan dezazula’; mendebaldeko eta erdialdeko testu zaharretan *nahi izan* aditz-lokuzioak balentzia berezia du: experimentatzalea (edo subjektua) datiboa du eta estimulua absolutiboa: *Verba orri nay ez daquiola valia* (Olasoko kantua, TAV 88-90); *Iaun goicoari nai eztaquiola* (Kapanaga 129). Orain arte ezagutzen genituen testuetan balentzia berezi hori jusibozko eta botibozko perpausetan baizik ez bazen lekukotua, Lazarragak, bi ingurune horiez gain, indikatiboan ere erabiltzen du, iragan ez-burutuan hain zuzen: *nay equion nic aren contra / oy ez neducan quexaric; / ez eben gura nic aren causaz / eguin neguian negarric* (B23: 31-34). Cf. halaber: *suplicaetan nachaçu*, *Sirena ene / laztana, nai daquicula* gaur gabean / ceure aposentuco bentanara joaten (AL: 1140r), *Jaicoari nai ec daquiola* çu joan da ni eben guera nadila (AL: 1151v), *Nachaçu suplicaetan nay daquicula*, *ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguite* (AL: 1152r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Enparaetan bardin bajaçu / beste çaguita çorrocic, / onen bioçau nay bequici / efini señaladuric* (B23: 101-104). Beste inguruneetan Lazarragak ere \*edun hobesten du: *Bada bere, nai ez neuque, / mundu guztiagaitirren, / çuregaz ene secretoa / descubri lidin bapere* (AL: 1144v), *Bioçau jo deustaçu anech flechaz, / nigaz conturic eguin nay ez doçu* (A17: 3-4).

baduric<sup>30</sup> bada carteal  
eben egoan lecurean<sup>31</sup> e[  
teti gueldixe<sup>32</sup> iramo<sup>33</sup> [  
ren aposentura nun [  
rri eben Silveroren [  
ric an cioana<sup>34</sup> u[fr  
eta Silverori [e  
urtengo le[  
uero bad[  
siric sir[  
nadur[  
Silvero[  
eta jarr[  
ric Siren[  
azpian [  
netan eg[  
Sirena bent[  
ançat Silver[  
<1140v>

artu eben biguelea,<sup>35</sup> eta, utra<sup>36</sup> boz amorosoaz, asi çan manera onetan cantaetan:<sup>37</sup>

<sup>29</sup> *joaten*: Beste aditz batzuekin gertatzen den moduan, *nahi izan* aditzaren osagarria ere inesiboan dago (-ten), eta ez absolutiboa (-tea) gaurko erabileran bezala.

<sup>30</sup> *Jbaduric*: Hemen berriro hasten da estilo narratiboan idatziriko kontakizuna.

<sup>31</sup> *lecurean*: ‘lekutik’.

<sup>32</sup> *gueldixe*: ‘nahikoa geldi’; Lazarragaren eskuizkribuan, -txo atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; -xe atzizkiak, berriz, hiru balio hartzen ditu: 1) Txikigarria (-xe = -txo), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *esecoxeo* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxear* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). 2) Izenondo eta aditzondoen intentsitate markatzailea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). 3) Indartzalea (izenordain indartuekin, eta *eben / arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3. 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

<sup>33</sup> *iramo*: ‘jaurtiki’; eskuizkribuan beste toki batzuetan ere agertzen da, lau aldiz (AL: 1140r, AL: 1142r, A23: 65 eta B11: 11). *OEHK* ez dakar forma hau, baina bai *iramona*, Landucciren lekukotasunarekin; Landuccik *yramon* dakar “esparzir”, “derribar” eta “botar (la pelota)” sarreretan.

<sup>34</sup> *cioana*: ‘zioena, esaten zuena’.

Poeta gacha<sup>38</sup> idoro doçu,  
Sirena, ene laztana,  
r]e bentajaoc<sup>39</sup> esateco,  
ça]toz nigana

[...]

] utra tristeric<sup>40</sup>  
i]c eztacarte  
]ztioc ifiniric  
ic]hadu dei detizque<sup>41</sup>  
] etorriric  
]ate  
u]guiric.

[...]

[...]

[...]

<sup>35</sup> *biguelea*: ‘bihuela’; cf. AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *biguelea*.

<sup>36</sup> *utra*: ‘oso’.

<sup>37</sup> *artu eben biguelea ... manera onetan cantaetan*: Ohikoa da gaztelaniazko artzain-liburuetan, poemak txertatzen direnean, honen moldeko esaldieze aurkeztea: “Y tomando X su harpa / vihuela / zampoña / rabel comienza a cantar desta manera”. Hemen, Silberot Sirenaren leihopetik ari da kantuan, bihuelarekin; gero, Sirenak leihotik erantzungo dio, zanpoinarekin; eta Silberok berriz kantatuko du, bigarren honetan harparekin.

<sup>38</sup> *gacha*: ‘txarra’; testuinguruaren arabera, ez da ezinezkoa esanahi positiboarekin ulertzea (‘bikaina’), baina bi argudio dira horren aurka: batetik, adiera positiboa ipar-ekialdeko tradizioari dagokio gehienbat (cf. *OEH*, s.v.), eta bestetik, eskuizkribuko agerraldi guzietan du esanahi negatiboa, eta hau litzateke bakarra esanahi positiboarekin. Gainera, testuinguruak ez du esanahi negatiboa ere ezinezko egiten, apaltasun erreteriko gisa ulertzten bada.

<sup>39</sup> *bentajaoc*: ‘abantailok, bikaintasunok’.

<sup>40</sup> *tristeric*: Artzain-liburuan txertaturiko poema gehienak lau bertso-lerroko ahapaldiz osatuak diren arren, badira beste egitura batzuk ere: bat zortzi bertso-lerrokoa (AL: 1145v) eta bertso-lerro segida bat (AL: 1144r-v). Hemen, AL: 1141r atalean bezala, dirudienez, lau bertso-lerroko ahapaldiaren ondoren, zortzi bertso-lerrokoa dator, errimak eta lerroarteeek aditzeria ematen dutenez. Ondoren, beste lauko birentzako lekua dago, gutxi gorabehera. Eta azkenik, osorik ezagutzen dugun serbentesio asonantatua (lau endekasilabo, *ABAB* errima asonantearekin).

<sup>41</sup> *dei detizque*: ‘deitu daitezke’; iduri luke oraineko potentziala dela; *detizque* forma ez dugu beste inon bildu, baina ikusi, eskuizkribu honetan, *osatu çatezqueala* (AL: 1151r), *joan çatezque* (B18: 149).

[...]

]oa  
]çuçu  
]chizcoac  
]açu.

<1141r>

Ala bada, nic orain, Jaungoicoa,  
esango dot nola tratadu nauçun.  
Sirena, utra birtute andizcoa,  
eguiçu silenciaz<sup>42</sup> escuchadu.

Silveroren<sup>43</sup> cantu dulceaz ai[  
tu Sirenac arçaite<sup>44</sup> eben e[  
sentuan eucan çanpoña<sup>45</sup> [  
utra dulcemente jaiten<sup>46</sup> al[  
au esaten ebela:<sup>47</sup>

Cañadaetan arça leguez,  
oi,<sup>48</sup> nago congoxaduric,<sup>49</sup>

<sup>42</sup> *silenciaz*: ‘isilik’; CORDEN soilik hiru aldiz (bi autoretan) aurkitu dugu *silencia*, 1600era arteko gaztelaniazko dokumentuetan: “con gran **silencia** salieron de la ciudad un día antes que amaneciese” (Jerónimo Zurita, 1562, *Anales de la corona de Aragón*), “mas los soldados no tuvieron el **silencia** que convenía, y fueron sentidos por los moros” (Luis de Mármol Carvajal, 1600, *Rebelión y castigo de los moriscos*), “Llegó el arma con **silencia** y temor de los nuestros al marqués de la Favara” (*ibidem*).

<sup>43</sup> *Silveroren*: Hemen berriz hartuko da estilo narratiboa, baina soilik Silberoren kantutik Sirenaren kanturako trantsizioa markatzeko.

<sup>44</sup> *arçaite*: ‘hartzaiten, hartzen’; -n galdu da testuinguru fonetikoarengatik.

<sup>45</sup> *çanpoña*: ‘zanpoina, artzain-txirula’; ohikoa da XVI. mendeko artzain-liburuetan, hain zuzen artzainen musika-tresnatza zeukatelako. Cf. DAUT, s.v. *zampoña*: “Instrumento rústico pastoril a modo de flauta, o compuesto de muchas flautas”. Gorago ere esan dugun bezala (AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *biguela*), Lazarragaren eskuizkribuan, zanpoina, harpa, bihueta eta arrabita agertzen dira.

<sup>46</sup> *jaiten*: ‘jotzen’.

<sup>47</sup> *au esaten ebela*: Formula honekin (ikusi AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *au esaten ebela*), kasu honetan, Sirenaren kantuaren hitzak aurkezten dira.

<sup>48</sup> *oi*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak, bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

ecusi inorc ez nagui[  
çugaz eguiten ber[

Silvero, çuc bad[<sup>50</sup>  
nola çure ag[  
contalque<sup>51</sup> neu[  
ucutu<sup>52</sup> ez daguid[a  
Alace<sup>53</sup> beti leguez [  
çuc erraz dasaqueçu<sup>54</sup> [  
çure contra cegati [  
ecer eguinic ez na[

Sirenac<sup>55</sup> bere cantu[

<1141v>

] eben burua bere besoaen<sup>56</sup> gañean<sup>57</sup> eta Sil-  
] bigueleari ichi<sup>58</sup> ta artu eben berequin<sup>59</sup>

<sup>49</sup> *congoxaduric*: ‘estuturik, larriturik’.

<sup>50</sup> *bad[*: Hemen, AL: 1140v atalean bezala, dirudinez, lau bertso-lerroko ahapaldiaren ondoren, zortzi bertso-lerrokoa dator. Artzain-liburuko ahapaldien egituraz, ikusi AL: 1140v ataleko oharra, s.v. *tristeric*.

<sup>51</sup> *contalque*: ‘hainbestez’; gaztelaniazko *con tal que* lokailua da.

<sup>52</sup> *ucutu*: ‘ukitu’; *ukutu-* forma dago Betolatzarenean ere (Bet 16).

<sup>53</sup> *Alace*: ‘hala ze, hortaz’; bi bider dago eskuizkribuan: *alaze* (AL: 1141r) eta *alaze bada* (AL: 1154r).

<sup>54</sup> *erraz dasaqueçu*: ‘erraz esango duzu, erraz esan dezakezu’; *esan* aditzaren geroaldi edo ahalera trinkoa; testuinguru urriak ez du aukerarik ematen bietatik zein den erabakitzeko. Cf. *Berbaric asco erraz dasaquet* (A27: 17).

<sup>55</sup> *Sirenac*: Berriz ere, estilo narratiboan, ondoko lerroak trantsizioko hitzak baino ez dira, orain Sirenaren kantuari Silberok eman dion erantzuna aurkezteko.

<sup>56</sup> *besoaen*: ‘besoaren’.

<sup>57</sup> *gañean*: Hitz honetan, eskuizkribuan lau aldiz agertzen da <ñ> sabaikaria markaturik (*gañe-* A4: 18, A17: 82, A24: 31, B18: 5) eta hiru bider sabaikaritasuna markatu gabe (*gane-* AL: 1141v, A11: 7, A28: 44); *muin* ‘musu’ hitzean, behin markatu da sabaikaritasuna (*muñ* ‘musu’ A27: 38) eta behin ez (*mun* ‘musu’ A27a: 51); aipatu behar da badela *muyña* ‘funtsa, aberastasuna’ (B33: 2) ere, sabaikaritasuna markaturik. Uste dugu testuan *gane-* > *gañe-* eta *mun* > *muñ* aldatzea dela egokiena, jakinik eskuizkribu honetan bestelakoetan ere markatu gabe direla kontsonante sudurkari sabaikari batzuk, eta kontuan izanik Landuccirenean ere —Mitxelenak ohartarazi zuen moduan— sistematikoki *-ain* eta *-uin* bukaerak *-ayn* / *-añ* eta *-uyn* / *-uñ* idazten direla (cf. Lcc “ençima, gaynean”, “neruio, raiz, çayna”, “nuera muger; yerno, errayna”, “nauaja, labayña”, “cola de animal, vuztayña”, eta “beso, muyn”, “besar, muyn eguin”), eta ez *-an(e)* edo *-un* bizkaieraz bezala.

] arpa bat, eta asi çan bere mina Sil-  
de]claraetan, manera onetan:

N]ic esango ditudan berbaoc  
]go dira guchi baçu,<sup>60</sup>  
jeau dodan azquero<sup>61</sup>  
]ditut nic començadu.

e]ngo ene penea  
]ingo doçu doncellea  
]n erexteagati  
da]la catega

b]ai içango  
] atean  
]an guero  
]a

]z banaguiçu  
]tati  
]ne laztana  
d]ot çugaiti

]c Silveroren berva<sup>62</sup>

<sup>58</sup> *bigueleari ichi*: ‘bihuela utzi’; eskuzkribuan, *ichi* ‘utzi, abandonatu’ aditzak beti hartzen du osagarria datiboan: *bigueleari ichita* (AL: 1141v), *destenpleac ichi eguion* (AL: 1143r), *ai ichita* (AL: 1144v), *erriari ichiric* (AL: 1147v), *Clariani bacarric ichita* (AL: 1151r), *niri bacarric ichiric* (AL: 1151v), *ecin ichi neidiçu* (AL: 1151v), *nic ichico eçteuçut* (AL: 1151v), *ichi eguioçu orreyn curello trataetan çabenorri* (AL: 1152r), *ez alcarri ichi jaguiteco* (AL: 1153r), *Sirenari eta Silviari ichiric* (AL: 1154v), *ichi neusan* (A7: 117).

Musika-tresnez, cf. AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *biguela*.

<sup>59</sup> *berequin*: ‘berekin, berarekin’; eskuzkribuan bitan dago *beregaz* (AL: 1143v, AL: 1144v) eta bitan *berequin* (AL: 1141v, A14: 26); guzietan da singularra.

<sup>60</sup> *baçu*: *baçu*, *baçuen*, *baçugaz* formeit buruz, ikusi AL: 1139v ataleko oharra, s.v. *baçu*.

<sup>61</sup> *dodan azquero*: *gero adberbioa oinarri duten egiturei buruz*, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *dan azquero*.

] bentanea, eta, Silverori  
 <1142r> ecer esan baga, sartu çan barrura. Silveroc, ecusiric çala Sirena enojadu, escuetan eucan arpea iramo<sup>63</sup> eben, ain furia andiaz ece utra<sup>64</sup> pedaçu asco eguin çan.

Eta, ala, tristeza andiaz, Silvero joan çan bere aposentura, nun asi çan llantu andi bat eguiten, ain tristeza andiaz ece ençun eguien<sup>65</sup> guztiai emun eioan<sup>66</sup> tristeza andia.<sup>67</sup> Ainbat sentidu eben, bada, Silveroc Sirenac agaz eguin eben caso guchia,<sup>68</sup> ece etorri çan erioçaco puntura.

Egun batean, bada, Silveroren ugaçabac,<sup>69</sup> icasiric<sup>70</sup> nola egoan Silvero gaxoric, erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala<sup>71</sup> contu andia Silverori bear ebena emaiteaz, cegaiti çan utra queridua bere ugaçabaren esean; eta esecoandreac eguin eben ala.

<sup>62</sup> *berva*: Lerro hau eta hurrengoa, eskuzkribuan mozturik izan arren, prosako paragrafoari dagozkio, Sirenak leihoa itxi ondoren berriz ekingo baitzaio estilo narratiboan idatzitako kontakizunari.

<sup>63</sup> *iramo*: ‘jaurtiki’; *iramo* aditzari buruz, ikusi AL: 1140r ataleko oharra, s.v.

<sup>64</sup> *utra*: ‘oso’.

<sup>65</sup> *ençun eguien*: ‘entzun zuten’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>66</sup> *emun eioan*: ‘eman zion’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. Ez du datibo pluraleko komunztadura (*guztiai-rekin*), ziur aski inpertsonala delako; edozein kasutan ere, ez dugu beste halako komunztadura-faltarik aurkitu eskuzkribuan.

<sup>67</sup> *ençun eguien guztiai emun eioan tristeza andia*: ‘entzun zuten guztiei sartu zitzaien tristeza handia’.

<sup>68</sup> *caso guchia*: ‘kasu txikia’; testuan beste behin agertzen da *gutxi* izenondo moduan: *gauça guchiagaiti* (A14: 93). Bietan pentsa daiteke gaztelaniaren kalkoak direla (“el poco caso”, “por poca cosa”).

<sup>69</sup> *Silveroren ugaçabac*: Honen arabera, badakigu izatez Silbero ugazaba baten morroi edo zerbitzari zela, eta ez artzain.

<sup>70</sup> *icasiric*: ‘jabeturik, oharturik’; cf. Beriain, *apud OEH*, s.v. *ikasi*: “[...] enterarse de. [...] *Ikasirik nola berzea ill zen*. Ber *Trat* 111v”.

<sup>71</sup> *eugui leguiala*: ‘eduki zezala’; XVI. mendeko autore gehienek *l-* aurritzidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletiboa, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emaiteaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bidei joleala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundi eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequielu lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan errequa, / arren, osatu nenguala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 9-13), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdu* (Etx III, 17), *Fray Vicente esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

Silvero, bada, obato<sup>72</sup> erregidu<sup>73</sup> cegati çan,<sup>74</sup> eseco andreac aguindu eusan Silviari, ceña çan Sirenaren conpañian egoana,<sup>76</sup> eugui leguiala utra contu andia Silvero erregieteaz; cegaz utra aseguin andia artu eben ala Silveroc nola Silviac, cegati utra on alcarri erexten.<sup>77</sup>

Egun batean, bada, Silvia joan çan Silvero bisitaetan, beti costunbreçat eucana leguez,<sup>78</sup> ceñagaz aseguin andia Silveroc artu eben, cegati ayn contu andia agaz eguiten eben. Aynbat çan Silveroen deseoa Sirena ecusterren,<sup>79</sup> <1142v> ece erregutu eusan Silviari leguiola<sup>80</sup> ain mesede andia, ece<sup>81</sup> leguiola bere partez Sirenari erregutu bisitaetan etorri lequiola, cegati leucala<sup>82</sup> esperança andia Jaun Cerucoagan, ece,<sup>83</sup> Aen Mesedea<sup>84</sup> servidu içaten liçala,<sup>85</sup> Sirenac bisitadu balegui,<sup>86</sup> bertati<sup>87</sup> osatua çala.

<sup>72</sup> *obato*: ‘ondotxo, ongi samar’, konparatzaire absolutua da, ez erlatiboa.

<sup>73</sup> *erregidu*: ‘gobernatu, zaindu’; cf. Lcc “*regir, erregidu*”.

<sup>74</sup> *obato erregidu cegati çan*: ‘ongi samar zaindua zelako’; kausazko perpausa da, goiko *cegaiti çan utra queridua* perpausaren antzera. Helburuzko perpaus gisa ulertzea baztertu dugu (orduan *obato* konparatzaire erlatiboa litzateke), XVI. mendeko testuetan oro har, baina baita Lazarragaren idatzian ere, iraganeko subjuntibozko adizkiek *l-* aurritzka hartu ohi dutelako iragangaitzetako subjektua edo iragankorretako objektua 3. pertsonakoak direlarik: *ecusiric Silveroc ain cruelmente bere Sirenac trataetan lebela, ez eben gura inorc bervaric leguion* (AL: 1143r), *Garcilaso traidoreac aguindu eben undaetan; / az chiriqura vioçagaz lecarroela señaletan, / gumutatu ez lequion bere ayta escaetan* (A25: 35-37), *Aren aldean jasarri ninçan / cerren ez lidin uçatu* (B14: 49-50).

<sup>75</sup> *Silviari*: *Silvia* izena asko erabili da literatura bukolikoan; ikusi, adibidez, Miguel de Cervantesen *La Galatea* (1585), Luis Gálvez de Montalvoreen *El pastor de Fílida* (1582) edo Cristobal Suárez de Figueroaren *La constante Amarilis* (1609). Jorge de Montemayoren *Los siete libros de la Diana* artzain-nobelaren ere badira *Silvia* izeneko bi pertsonaia txiki, eta *Selvagia* izeneko pertsonaia nagusi bat (eta, Sannazaroren *Arcadian*, *Selvaggio* izeneko artzaina).

<sup>76</sup> *aguindu eusan Silviari, ceña çan Sirenaren conpañian egoana*: Hemen, eta gero argiago AL: 1143v atalean (*Sirena eta Silvia, bere donzellaac*), jakinarazten da Silbia eta Sirena ere zerbitzariak direla, Silberoz bezala.

<sup>77</sup> *utra on alcarri erexten*: ‘asko estimatzen zuten elkar’; hemen, dirudienez, kontakizunaren hariari kasu egiten badiogu, zentzu etimologikoan ulertu behar da *on erextea* ‘estimatzea, onestea, ondo gura izatea’, eta ez eskuizkribuan zehar ohikoa duen ‘maitatzea’ esanahiarekin.

*erexten*: ‘irizten zioten’; *eretxi* aditzaren NOR-NORI-NORK iraganaldi trinkoa.

<sup>78</sup> *eucana leguez*: ‘zeukan legez, zeukan bezala’; behin baino gehiagotan dago eskuizkribuan “aditza + -na leguez” (AL: 1142r, 1151v, A17: 109, B5: 27); baina badago “aditza + -n leguez” ere (B4: 1, B18: 74).

<sup>79</sup> *ecusterren*: ‘ikustearren, ikusteagatik, ikusteko’; *-arren* atzikari dagokionean, ikusi AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *probaetarren*.

<sup>80</sup> *leguiola*: ‘egin ziezaiola’.

<sup>81</sup> *ece*: Aurreko perpauseko *leguiola mesede andia* esaldiak eskatzen duen osagarri esplikatzairearen menderagailua da: ‘egin ziezaiola mesede handia ezen erregutu ziezaiola’, hots, ‘egin ziezaiola mesede handia: Sirenari erregutzea’.

<sup>82</sup> *leucala*: ‘zeukala’.

Silviac, bada, eçauturic Silveroen borondatea, prometidu eusan ece, biaramunean, sinfalta, Sirena eroango leusala bere aposentura. Ainbat aseguin Silveroc artu eben Silviac egun eusan promeseaz, ece casi eucan gax<sup>88</sup> guztia quendu jacon.

Biaramun goxean, joan cidin<sup>89</sup> Silvia Sirena bisitacen, eta, osteango<sup>90</sup> beste bervaen artean, egion erregutu leguiola conpañía<sup>91</sup> Silvero egoan aposentura joaten; eta Sirenac esan eusan ece aseguin lebela; ceinçuc, alcarri escuetaric<sup>92</sup> eustela,<sup>93</sup> joan cirean Silveroen camarara,<sup>94</sup> nun, sar citecenean, utra cortesmente Silverori berva egun eusaen; ceñac, al eguijan<sup>95</sup> cortesia eta mesura guztiaz, saludadu cituan eta escatu cidin<sup>96</sup>

<sup>83</sup> *ece*: Aurreko perpuseko *leucala esperança andia* esaldiak eskatzen duen osagarri esplikatzailearen menderagailua da: ‘zeukala esperantza handia ezen osatua izango zela’, hots, ‘esperantza handia zeukan: osatua izango zela’.

<sup>84</sup> *Aen Mesedea*: ‘hura’ errespetuzkoa, gaztelaniazko ‘Su Merced’ alegia. Ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *cure mesedeorr[...]*.

<sup>85</sup> *servidu içaten liçala*: ‘(Jaun Zerukoak) zerbitzen zelarik, (Jaun Zerukoak) nahi zuelarik’, hots, ‘Haren Mesedeak (Jaun Zerukoak) hala nahi zuelarik’; cf. *DAut*, s.v. *servirse*: “Agradarse de alguna cosa, quererla o admitirla con gusto. Úsase en el estilo cortesano, quando se suplica o pide a alguno que execute algo”. Eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu ditugu halako esamoldeak: *servidu içaten liçala* (AL: 1142v), *çu baçarade servicen* (AL: 1144v), *servicen bada* (AL: 1147r, A3: 25), *servidu jaguin artean* (A24: 136), *servidu bada* (B4: 5), *çu baçarade serbietan* (B18: 91).

Gaztelaniaz forma pasiboak ere erabiltzen dira: “...a Dios le diese lo que tanto deseaba. **El cual fue servido**, vistos sus continuos ruegos y oraciones, que [...] se hiciese preñada” (Jorge de Montemayor, 1558, *Los siete libros de la Diana*); halako kalkoa da, ziur aski, Lazarragaren *serbidu izan*.

<sup>86</sup> *bisitadu balegui*: ‘bisitatuko balu’.

<sup>87</sup> *bertati*: ‘berehala’.

<sup>88</sup> *gax*: Hiru aldiz aurkitu dugu testuan <-x> grafia soinu afrikatua adierazteko: *gax* (AL: 1142v), *bacox* (A17: 62, A25: 39).

<sup>89</sup> *joan cidin*: ‘joan zen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>90</sup> *osteango*: ‘gainerako, bestelako’.

<sup>91</sup> *leguiola conpañía*: ‘lagun egin ziezaiola’.

<sup>92</sup> *escuetaric*: Eskuizkribuan lau bider aurkitu dugu -*etic* ablatibo/prolatibo plurala; horietako hirutan da ablatiboa: *escuetaric* (AL: 1142v), *beguietaric* (AL: 1152r, AL: 1152v); eta behin prolatiboa: *aetric* (AL: 1146r). Hamahiru bider aurkitu dugu, ordea, -*etati* desinentzia (*passim*, bai artzain-liburuan eta bai poematan), eta behin ere ez -*etatic*.

<sup>93</sup> *eustela*: ‘eusten ziotelarik’; *eutsi* aditzaren iraganaldi trinkoa. Cf. *Ese banatan bici cirean / ceñac eusten alcarri* (A11: 13-14).

<sup>94</sup> *camarara*: ‘ganbarara, logelara’; cf. Lcc “camaras, *camarac*”, “çelda, o camara, *camarea*, *ynistrea*, *guelea*”. Eskuarki leihorik gabeko gela da, barrura ematen duena.

<sup>95</sup> *al eguijan*: ‘ahal izan zuen’; hemen balio burutua du, baina ikusi *al eguienac* (A28: 97), non iduri bailuke *egin* aditzak bi irakurketak har ditzakeela, burutua eta burutugabea. Ez da harritzeko, kontuan hartzen badugu XVI. mendeko testuetan aditz telikoen iraganeko forma trinkoak bi balio aspektualak adieraz zitzakeela testuinguruaren arabera. Bestalde, testu zaharrenetan, *egin* aditza erabiltzen da gaur

arpa bat, ceña utra dulcero jaiten<sup>97</sup> asi çan, manera onetan cantaetan ebela:

Donzellea, cegati çaoz<sup>98</sup>  
enegaz enojaduric,  
çurequin ene<sup>99</sup> aitasuna<sup>100</sup>  
orrela anci jaquinic?<sup>101</sup>

<1143r> Donzellacho linda damea,<sup>102</sup>  
flordelisea<sup>103</sup> cara cu;

egun \*edun erabiliko genukeen lekuan ahalera —zentzu zabalenean— adierazteko (*al egienak = al zutenak*).

<sup>96</sup> *escatu cidin*: ‘eskatu zuen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. Eskuizkribuan *eskatu* aditzak NOR edo NOR-NORI erregimena du, beste euskal testu zaharretan bezala (RS, Leiz, Zalg).

<sup>97</sup> *jaiten*: ‘jotzen’.

<sup>98</sup> *caoz*: 'zagoz zaude'

<sup>99</sup> *curequin ene*: ‘zure eta nire’: “Xrekintz Y” egitura da ‘X eta Y’ adierazteko

<sup>100</sup> *aitasuna*: ‘ahaidetasuna’: Landuccik ere badakar: “parentesco *aytasuna*”

<sup>101</sup> *anci jaquinic*: ‘zuri ahantzirik, zuri ahaztutik’; batetik *ancituren* aditzoina daukagu, eta bestetik *jaki-*. Eskuizkribuan, *ancitu-* (AL: 1146v, AL: 1151r, AL: 1152r, AL: 1152v bis, A7: 12, A17: 23, B3: 59), *anci jaquinic* (AL: 1142v, AL: 1145v) eta *ancietea* (A24: 134, A24: 144) formak agertzen dira. *OEH* ez dago forma hauen lekukotasunik mendebaldean, ez bada Azkuerenetik harturiko “*antzitu V-al*”. Cf. *OEH*, s.v. *ahaztu*: “El participio en V ant parece ser *aztu* con *a* nasal, escrita normalmente *aztu* y una vez (*RS* 156) *antztu*. Respecto al sust. vbal. ines., Lcc *azketan erreza* s.v. “olvidadizo” y Mic *ta aztuten badozu / eztozu ondo eiten* (*TAV* 3.1.27).”

*Jaqui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa edo aditzoina aditz nagusitzat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Donzellea, cegati çaoz / enegaz enojaduric, / çurequin ene aitasuna / horrela anci jaquinic?* (AL: 1142v), *Sirena bere ainbeste dabil, / besteoc leguez galduric, / Doristeori on derechala, / Silvero anci jaquinic* (AL: 1145v), *Esperancea galdu jaquinic / bici çan, aseguin bague* (AL: 1145v), *Acorda çatez ceyn on derechudan, eta bay nola çabilcen engañaduric, igui çabenaren acean, ene amorioau ancitu jaquinic* (AL: 1152v), *Tortolachoa ebilten da / bacochic maiaz ilean, / bere laguna galdu jaquin da / tristeric soledadean* (A16: 73-76), *Jaun Cerucoay emaiten jagot / oy asco gueraciaric, / deseo neben ocasio / cerren nagoan jaquinic* (A23: 1-4), *Oyta capa bat emunagaiti / ez nax gueratu piloxic; / inori emun bajagot bere, / ez nago damu jaquinic* (A23: 57-60), *Donzella batec joci ceban / Iruneco calean, / niri ondo costa jaquin / Guipuscoaco lurrean* (B32: 21-24). Beti iragangaitz gisa agertzen da eta beti datibozko argumentu batekin. Gure ustez, \*edin aditzaren aldaera bipersonala (NOR-NORI) baizik ez da.

<sup>102</sup> *linda damea*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa (ikusi CORDE); euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan. Lazarragaren eskuizkribuan, zortzi aldiz aurkitu dugu: AL: 1143r, AL: 1144r, A1: 3, A4: 13, A5: 1, A16: 35, A23: 27, A23: 73.

<sup>103</sup> *flordelisea*: Eskuizkribuan bost bider agertzen da, hitz eder gisa dama edo dontzeilei egokitua: AL: 1143r, AL: 1144r, A1: 25, A7: 61, B15: 2. Euskaraz ez dugu beste inon aurkitu *flor de lis* hala erabilia,

ene penea dacusun guero,<sup>104</sup>  
arren, berva bat esaçu.

Ecusiric Sirenac Silveroen platiuea, artu eben Silveroc escuetan eucan arpea, ceña jaite<sup>105</sup> ebela erançun eguiion, manera onetan:

Jentil honbre penadua,  
enegaiti cautibua,<sup>106</sup>  
çure llantu dolorosooc  
emaiten deustae contentua.<sup>107</sup>

Bere cantaeta Sirenac acabaduric, urten eben ain laster Silvero egoan lecurean,<sup>108</sup> ece ez çan bastadu<sup>109</sup> inor bere biurquetan.<sup>110</sup> Silveroc aynbat sentidu eben, bada, Sirenac esan eben bervaac,<sup>111</sup> ece erori cidin<sup>112</sup> jarriric egoan silla baterean, ain aguiz<sup>113</sup> ece,

baina bai gaztelaniaz (*apud CORDE*): “sagrada María, blanca flor de lis, clara como el día” (Izengabea, 1420-1520, *Cancionero de Juan Fernández de Ízar*), “de los vientos tramuntana, / de flores la flor de lis, / de las colores la grana, / de las damas Beatriz” (Juan de Simoneda, 1561, *Cancionero llamado Sarao de amor*), “diamantes no son tales, ni rubís, floresta de flor de lis” (Fray Ambrosio Montesino, 1508, *Cancionero*), “más lindas que flor de lis” (*ibidem*). Gogoan izan, bestalde, *Orlando Furioson* (Lazarragak Jerónimo de Urrearen 1549ko itzulpena ezagutu bide zuen) Brandimarteren maitearen izena dela *Flordelís*.

<sup>104</sup> *dacusun guero*: ‘ikusten baituzu, ikusten duzunez’; irakur bedi *dakutsun*. Bestalde, *gero* adberbioa oinarri duten egiturei buruz, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *dan azquero*.

<sup>105</sup> *jaite*: ‘jaiten, jotzen’; *-n* galdu da, testuinguru fonetikoarengatik.

<sup>106</sup> *enegaiti cautibua*: ‘enegatik gatibua, enegatik esklaboa’; egitura hau (sasi)-pasibo gisa ulertzea (= ‘nik gatibatua’) baztertu dugu, *cautibua* adjektiboa edo izena baita, eta ez partizipioa. Gainera, XVI. mendeko testuetako egitura pasiboen agenteak aztertu ondoan, ikusi dugu hau litzatekeela kasu bakarra non agentea motibatiboan markatzen den. Hortaz, uste dugu bi argumentu horiek aski direla pentsatzeko ez dela egitura pasiboa, baizik eta “motibatibo + adjektibo/izen” egitura.

*Cautibua* izenaren formari dagokionean, gogoan izan Landuccik “prender, *gatigu artu*”, “prendimiento, *gatigua*” eta “preso, *gatigua*” dakarrela, baina “catiudad, *cautiuidadea*”.

<sup>107</sup> *çure llantu dolorosooc / emaiten deustae contentua*: Maitasun gortetiarraren ezaugarriak dira hala maiteminduaren mendekotasuna nola maitasuna sufrikario gisa bizi izatea.

<sup>108</sup> *lecurean*: ‘lekutik’.

<sup>109</sup> *bastadu*: ‘nahikoa izan, gai izan’.

<sup>110</sup> *bere biurquetan*: ‘bera bihurketako, bera itzularazteko’; *bere*, hemen, TO-GEN deiturikoa da, hots, *bihurquetan* aditz iragankorraren objektua, genitiboan.

<sup>111</sup> *bervaac*: Mendebaldeko zenbait testu zaharretan (Kapanagarena eta Frai Bartolomerenak, kasurako inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko markak (-an eta -ak) izenari erabat asimilatu gabe geratzen dira. Lazarragaren eskuizkribuan ere hala gertatzen da, -a amaiera duten hitzek agerian uzten dutenez, bokal bikoitz grafikoak agertzen baitituzte. Aurkitu ditugun salbuespen bakarrak *ezpatac* (AL:

Silvia isasi ez ballaco,<sup>114</sup> ez çatean miracuru an ila.<sup>115</sup> Baegoan, bada, Silvero ain acordu<sup>116</sup> guchigaz, ece Silviac uste eben ece escuartean ilgo liçacala,<sup>117</sup> arean da beregan biurtu ceitean artean;<sup>118</sup> eta, destenpleac<sup>119</sup> ichi eguion<sup>120</sup> orduan, asi çan Silvia Silvero consolaetan; bada bere,<sup>121</sup> ecusiric Silveroc ain cruelmente bere Sirenac trataetan lebela, ez eben gura inorc bervaric leguion, salvo bacochic egon baxe;<sup>122</sup> eta,

<sup>1153v</sup> eta *bervac* (AL: 1154v) dira; *canpaac* (A28: 57) salbuespen den ala ez ezin da ziur baiezttatu, ez baitakigu oinarrizko forma *canpa* ala *campaa* den (Landuccik *campae* dakar: “badajo de campana, *campae mia*”).

<sup>112</sup> *erori cidin*: Konortegabetzea maitasun gortetiarrari lotua da, negarrak, malkoak eta hasperenak bezala. AL: 1152r-1152v atalean iristen da baliabide hau gorenera, lau pertsonaia nagusiak zorabiatzen direnean: *Onela lauac eocela desmayaduric* (AL: 1152v).

Eskuizkribuan *erori* (AL: 1152r) eta *erorteco* (A24: 82) aurkitu ditugu, eta *OEHn* ez dago *erorri* bat ere; gainera, eskuizkribuan sarri dago alderantzizko nahasketa: -r- bakarra dardarkari gogorra adierazteko. Hortaz, uste dugu *erori* eman behar dela testuan, eskuizkribuko *erorri* zuzenduta.

Bestalde, esanahiari dagoionean, iduri luke hemen ez dela erabat ‘jausi’, baizik eta ‘makurtu’, ia-ia jausteraino; hori eskatzen du gero datorren *aguiz* ‘asko’ modifikatzialeak.

<sup>113</sup> *aguiz*: ‘asko’; *erori* aditza modifikatzen du, hots, ‘hain asko erori zen, hain asko makurtu zen’; eskuizkribuan bi aldiz aurkitu dugu (AL: 1143r eta AL: 1154v). Cf. *OEH*, s.v. *hagitz*: “General en la tradición labortana, también en la guipuzcoana (aunque parece que falta en autores como J. B. Aguirre, y Lardizabal); no aparece ni en vizcaíno ni en suletino”.

<sup>114</sup> *Silvia isasi ez ballaco*: ‘Silbia lotu ez balitzao, Silbiak heldu ez balio’; *isasi* aditz nagusiari dagokionean, cf. *OEH*, s.v. *itsatsi*: “Documentado en autores meridionales desde mediados del s. XVIII”; *ballaco* aditz laguntzaileari dagokionean, aipatu behar da Lazarragaren testuan, hipotetikoan, hirugarren pertsonak daraman *l-* aurritzka sabaikaritzen dela hurrengo *-i-* bokala asimilatuz: *ballaco* (AL: 1143r), *lloacen* (AL: 1147r), *lloaque* (AL: 1151v), *balloa* (A28: 68).

<sup>115</sup> *ez çatean miracuru an ila*: ‘ez zatekeen izango mirakulu han hiltzea’; “miracuru + izan aditzaren 3. pertsona singularra” egitura bi aldiz dago eskuizkribuan: *ez çatean miracuru an ila* (AL: 1143r) eta *ezta miracuru nigaç conturic eugui eça* (AL: 1151v). *OEHn* (s.v. *mirakulu*) egitura honen ekialdeko agerraldiak bildu dira. Egitura antzekoa da beste hau ere: *ez çatean asco an ila* (AL: 1147v); artikuludun partizipoari dagokionean, ikusi orobat beste hau: *ni ilagaz / çuc probechuric badoçu* (AL: 1144v).

<sup>116</sup> *acordu*: ‘konorte’.

<sup>117</sup> *liçacala*: ‘zitzaiola’.

<sup>118</sup> *arean da beregan biurtu ceitean artean*: ‘harik eta bere baitaratu zatekeen arte’; *biurtu* aditz nagusiari dagokionean, *OEH*ko lehenengo adibideak Kardaberazenak dira; cf. s.v. *bihurtu*: “(-gan/baitara bihurtu ‘volver en sí’).

Ceitean laguntzailea \*edin aditzekoa da, -te atzizkiduna. Uste dugu kasu honetan -te atzizkia erabiltzen dela denboran muga bat markatzeko.

*Arean da ... artean* ‘harik eta ... arte’ egiturari dagokionean, lau aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan (AL: 1143r, AL: 1147v, AL: 1152v, AL: 1153r). Honen antzeko beste egitura bat ere bada eskuizkribuan: *arean da ... -ano* (AL: 1152r, AL: 1153r).

<sup>119</sup> *destenpleac*: ‘ondoezak’.

<sup>120</sup> *ichi eguion*: *ichi* ‘utzi, abandonatu’ aditzarekin datiboa erabiltzeaz, ikusi AL: 1141v ataleko oharra, s.v. *bigueleari ichi*.

<sup>121</sup> *bada bere*: ‘hala ere’.

<sup>122</sup> *salvo bacochic egon baxe*: *OEHn* ez dugu aurkitu *salbo/u* eta *baxe/baixen/baizen...* batera dituen adibiderik.

ala, Silviac urten eben arean,<sup>123</sup> nun <1143v> Silvero gueratu cidin bacochic eta ain consuelo guchigaz nola inorc pensadu ecin leian; ceñac arturic biguela<sup>124</sup> bat asi çan cantaetan, manera onetan:

Esperanceau galdu jat,  
guztiz ez arren, parte bat;  
neure laztanaen amorearren<sup>125</sup>  
eguin gura dot negar bat.<sup>126</sup>

Ai, ene desdichadua,  
gaichez<sup>127</sup> rodeadua!  
Contentu uste neben orduan  
oy jatort discontentua.

Ene bioz penadua,  
egun<sup>128</sup> gaxqui curadua,

*baxe*: ‘baizen, baizik’; eskuizkribuan *baxe* eta *baize* formak agertzen dira (bakotza zazpi aldiz, eta behin *baje*). Formari buruz, cf. *OEH*, s.v. *baizen*: “La variante *baxen* (<-ix-> a veces en fray Bartolomé) es propia de la tradición vizcaína; no se encuentra *baizen* en textos de este dialecto hasta el s. XX. Las formas sin *-n* se documentan en textos meridionales antiguos: *baize* en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama; *baxe* y *bixin* en Micoleta; *baizin* en *BBizk*.”

<sup>123</sup> *arean*: ‘handik’.

<sup>124</sup> *biguela*: ‘bihuela’; cf. AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *biguela*.

<sup>125</sup> *amorearren*: ‘amoreagatik’; *-arren* atzizkia lau bider aurkitu dugu eskuizkribuan, izenari gehitura, *-gatik* atzizkiaren baliokide: *amorearren* (AL: 1143v, A7: 89, B22: 14), *dirurren* (B17: 60). Aditz-izenari gehitura ere agertzen da, *-tearren*, *-tarren* eta *-t(z)erren* aldaeretan.

<sup>126</sup> *negar bat*: ‘malko bat’; *OEHn* bilduriko lekukotasunen arabera, *negar/nigar* izena zenbatzailearekin dagoenean, ‘malko’ adiera du beti (Iparraldekoak dira guztiak), baina ez dago *nigar bat egin* esamoldearen lekukotasunik. Hemen, edozein kasutan ere, *negarra* izan edo *malkoa* izan, zentzua argia da.

Negarrak, malkoak eta hasperenak maitasun gortetiarri lotuak dira. Artzain-liburueta duten lekuaz, ikusi Jové (1988).

<sup>127</sup> *gaichez*: *gaich-* aldaeraren agerraldi bakarra da testuan. Gainerakoetan *gach-* eta behin *gax-* agertzen da.

<sup>128</sup> *egun*: ‘gaur (egun)’; cf. *OEH*, s.v. 2 *egun*: “Empleado de forma general por autores septentrionales y alto-navarros; en textos más occidentales se encuentra, por un lado, como término fosilizado en la oración del Padrenuestro, desde Capanaga hasta casi nuestros días; tbn. lo hallamos en unos versos vizcaínos de 1688 y en Barrutia. En textos guipuzcoanos es algo más frecuente: lo emplean Larramendi, Mendiburu (*IArg I* 91), Iturriaga (*Fab* 194) e Iztueta, y ya en el s. XX hay testimonios de

egun ascotan bearco doçu  
ceure aldean medicua.

Acabaduric, bada, Silveroc bere cantaeta, urten eben bere camararean<sup>129</sup> eta igo eben<sup>130</sup> bere ugaçabaren aposentura, ceña idoro eben isiric;<sup>131</sup> eta, itaunduric esecoai nun çan, esan eusaen nola emazteagaz joan cidin jardin<sup>132</sup> batera eta beregaz<sup>133</sup> eroan eben Sirena eta Silvia, bere donzellaac.<sup>134</sup>

Adituric,<sup>135</sup> bada, Silberoc leen esan <1144r> dogunau, joan cidin musico baçuen<sup>136</sup> esera, eta erregutu eusten<sup>137</sup> leguioela lagun musica bat emaitera<sup>138</sup> joaten; ceinçuc esan

bastantes más autores, especialmente desde 1950; Aguirre de Asteasu sólo emplea la expresión *egungo egun*”.

<sup>129</sup> *camararean*: ‘kamaratik, logelatik’; ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *camarara*.

<sup>130</sup> *igo eben*: *igo* aditza beti da iragankorra Lazarragaren eskuizkribuan: *igo eben* (AL: 1143v), *igo egin* ‘*igo ezan*’ (A25: 6, A25: 9), *igo neben* (A25: 10).

<sup>131</sup> *isiric*: ‘itxirik’; irakur bedi *itsirik*. Cf. Lcc “çerrar, ysçi”, “atrancar la puerta, ysçi atea” eta “embarrar, loyaquin ysçi”; cf. orobat OEH, s.v. *itxi*: “hay *itsi* en RS, Micoleta, Mendiburu (a menudo junto a su sin. *ertsi*; cf. *itsi-ertsi* en Mb IArg I 281) y Lardizabal (junto a *itxi* en el Antiguo Testamento; en el Nuevo Testamento sólo encontramos *itxi*”).

<sup>132</sup> *jardin*: XVI-XVII. mendeetako hirien laudorioetan, ingurueta baratzeak, lorategi ugariak eta arbolaz beteriko ibilbideak goraipatzen dira beste ezer baino gehiago, nolabait izadia hirira hurbiltzeko bidea eskaintzen dutelako (cf. Cámara 2008). Kasu honetan, jardina hiritik kanpo dago (ikus beherago *joan citecen ciudadera*, AL: 1144v), baina nolanahi ere, hiri-giroan garatzen da oraindik kontakizuna.

<sup>133</sup> *beregaz*: ‘beragaz, berekin, berarekin’; eskuizkribuan bitan dago *beregaz* (AL: 1143v, AL: 1144v) eta bitan *berequin* (AL: 1141v, A14: 26); guztietan da singularra. Soziatiboaren -gaz kasu-markarekin, hala genitiboarekin (-regaz) nola gabe (-gaz) erabiltzen dira pertsona-izenordainak eskuizkribuan: *neuregaz* (A14: 25) / *nigaz (passim)* / *neurgaz* (A16: 19), *aregaz* (A16: 15, A19: 25) / *agaz (passim)*, *beregaz* (AL: 1143v, AL: 1144v) / *beragaz* (B22: 61), *çuregaz* (AL: 1144v, A2: 2oh, A7: 15, A16: 20, A17: 95) / *çugaz* (AL: 1141r, A2: 2, A7: 26, A16: 9, A26: 134, B18: 143), *gugaz* (A1: 1).

<sup>134</sup> *donzellaac*: ‘neskameak’; cf. DAut: “Se llama también la criada de una casa, que sirve cerca de la señora, y de hacer labor”. Hortaz, bereziki etxeoandreamen neskame lirateke Silbia eta Sirena, baina, aurrerago ikusiko denez (AL: 1147r), Silbiak ugaçabari (eta ez etxeoandreamen) eskatzen dio baimena etxea uzteko. Eskuizkribuan agertzen den gainerako guztietan, *dontzeila* hitzak ‘neska gazte’ adiera du (ez ‘neskame’).

-aac / -aan bukaerei buruz, ikusi AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *bervaac*.

<sup>135</sup> *Adituric*: ‘entzunik’.

<sup>136</sup> *baçuen*: *baçu*, *baçuen*, *baçugaz* formeい buruz, ikusi AL: 1139v ataleko oharra, s.v. *baçu*.

<sup>137</sup> *eusten*: ‘zien’.

<sup>138</sup> *musica bat emaitera*: ‘serenata eskaintzera’; OEHn ez da honen antzeko egiturarik, baina *dar (una) música* esamoldea erabiltzen zen gaztelaniaz, XVI-XVII. mendeetan, galaia dontzeilarri leihopetik eskaintzen zion serenata aipatzeko. Hona hemen adibide batzuk (*apud CORDE*): “me dijo que si quería gozar de una música que en la calle se daba” (Jorge de Montemayor, 1556-1558, *Los siete libros de la Diana*), “Mas ¿sabes lo que querría? Dar una música agora aquí cerca a una señora” (Luis de Miranda, 1554, *Comedia Pródiga*), “Un portugués servía a una dama y acordó de darle una música, y llevó un

eusaen baiez. Eta, ala, bear even instrumentu guztiac arturic, joan cirean, eta, elduric Sirena eta Silvia eocen<sup>139</sup> lecuan,<sup>140</sup> asi cirean Silverogaz joacen<sup>141</sup> musicoac ain dulcemente jaiten euren istrumentuac, ece Silveroen ugaçaba eta agaz eocen guztiac citecen espantadu,<sup>142</sup> eta ecin pensadu even nogaiti edo norc emaite<sup>143</sup> eben musica oa;<sup>144</sup> eta, onetan eocela, ministrilac<sup>145</sup> ixilduric, asi cirean lau musico, utra conciertu andiaz,<sup>146</sup> manera onetan cantaetan:

Donzellacho linda damea,  
flordelisea cara çu;  
nic çuri on dereicut,<sup>147</sup> baina  
çuc ni erruqui ez nauçu.  
Amaren seme bacocha<sup>148</sup> naiz, ta,  
arren, ondo ar naroïçu.<sup>149</sup>

gran músico que tañese y cantase” (Melchor de Santa Cruz de Dueñas, 1574, *Floresta española*), “cerca de donde se da una música” (Juan Martí Mateo Luján de Saavedra, 1602, *Segunda parte de la vida del pícaro Guzmán de Alfarache*), “Si quiere dar una música, salir a rotular, a dar una matracas” (Mateo Alemán, 1604, *Segunda parte de la vida de Guzmán de Alfarache*), “yo quiero que vayas esta noche con Martínez a dar una música a doña Clara” (Izengabea, 1609, *Entremés de la dama fingida*).

<sup>139</sup> *eocen*: ‘egozen, zeuden’.

<sup>140</sup> *lecuan*: Lazarragaren eskuizkribuan, *el(du)* ‘iritsi’ aditzaren osagarria beti dago inesiboan (-n) eta ez adlatiboan (-ra).

<sup>141</sup> *joacen*: ‘zihoazen’.

<sup>142</sup> *citecen espantadu*: ‘harritu ziren, miraz gelditu ziren’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. *Espantadu* aditzaren esanahiari buruz, ikusi AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *espantaduric*.

<sup>143</sup> *emaite*: ‘emaiten, ematen’; -n galdu da, testuinguru fonetikoaren eraginez.

<sup>144</sup> *oa*: ‘hura’; *OEHk* ez dakar aldaera hau; cf. s.v. *hura*: “**hura** (G, AN, L, BN, S, R-uzt; SP, Urt I 495, Ht VocGr 373 y 337, Lar, Añ (G, AN), Gèze), **ure** (G-azp-goi-nav, AN-larr-5vill-ulz-erro-gulina, B), **hua** (G-to-bet-nav, BN-arb-ad, S), **ue** (G-goi, AN-larr), **aura** (V-gip, G-azp), **ga** (Ae), **gura, kura** (Sal, R), **ore** (AN-ulz-gulina). Ref.: Bon-Ond 169; A (*ura, kura, ga*); Iz *Ulz (ore)*; Etxba *Eib (aura)*; EAEL 147, 152”.

<sup>145</sup> *ministrilac*: ‘haize-istrumentuak jotzen zituzten musikariak’; cf. *DAut*, s.v. *ministril*: “Se llaman los instrumentos musicales de boca como chirimías, baxones y otros semejantes, que se suelen tocar en algunas procesiones y otras fiestas públicas [...]. Se llama también el que toca los instrumentos llamados ministriiles”.

<sup>146</sup> *utra conciertu andiaz*: ‘oso era harmoniatsuan, ahotsen bat etortze bikainean’; cf. *DAut*, s.v. *concierto*: “En la música es un concurso de más de dos voces ajustadas sobre un canto llano; y así pueden ser a tres, a cuatro, a cinco y más voces [...]”.

<sup>147</sup> *on dereicut*: ‘maite zaitut’; aditzaren formari dagokionean, badira honen kide gehiago testuan zehar: *on dereicut* (AL: 1144r), *ereiçan* (AL: 1145r), *nola ereiçun* (A7: 73), *ereyçan* (A11: 3), aditzaren bi adieretan (‘maitatu’ eta ‘izena izan’), baina ugariago dira palatalizaturiko adizkiak: *derechana, derechula, derechadan, derechudan, derecho...*

<sup>148</sup> *bacocha*: ‘bakarra’.

Ama enea seme baga  
çuc ifinico al<sup>150</sup> doçu.  
Ama eneaen seme bagueaz<sup>151</sup>  
oy çuc cer probechu doçu?  
Lau urtebete, euren gabaquin,<sup>152</sup>  
ceure oñetan nauçaçu.  
Ene laztana, ene lindea,  
nay doçuna eguiçu.  
<1144v> Ene laztana, ni ilagaz<sup>153</sup>  
çuc probechuric badoçu,  
ori<sup>154</sup> guerrico dagueau, eta  
bioceraño indaçu.<sup>155</sup>

Ene laztana, eriocea  
senticen<sup>156</sup> ez dot bapere,  
aseguin eta descansu baxe,<sup>157</sup>  
çu baçarade servicen.<sup>158</sup>

<sup>149</sup> *ar naroïçu*: ‘har nazazu hari, harengatik, haren mesedetan’ bide da, hots, ‘ondo har nazazu hari (amarí) minik ez egiteko’. Egitura perifrastiko hau oso iluna da. Iduri luke *hartu* aditzaren aditzoina dugula aditz nagusi gisa, eta jarraian duen laguntzailea *eragin*. Izan ere, azken forma ez da ez \**ezan* ezta \**iro* aditzen bidez azaltzen ahal, eta Lazarragak *egin* aditzaren forma faktitiboa erabiltzen du han-hemenka: cf. *Azaiteau galdu lerait / ardura usaçaqueac* (A24: 157-158). Horiek horrela, baliteke “zuk-hari-ni” gisako egitura izatea.

<sup>150</sup> *al*: ‘dirudienez, ziur aski’; *al* honek probabilitate handia adierazten du.

<sup>151</sup> *Ama eneaen seme bagueaz*: ‘ama enea seme gabe ipintzearekin’.

<sup>152</sup> *Lau urtebete, euren gabaquin*: Normalean egunak izaten dira beren gaeakin, baina gaztelaniaz ere aurkitu dugu honen antzeko bat: “diciendo que si hubiese de contar sus excelencias no acabaría en cincuenta años **con sus noches**” (Fray Prudencio de Sandoval, 1604-1618, *Historia de la vida y hechos del Emperador Carlos V. apud CORDE*).

<sup>153</sup> *ilagaz*: ‘hiltzearekin’; cf. honen antzeko erabilera: *ez çatean miracuru an ila* (AL: 1143r) eta *ez çatean asco an ila* (AL: 1147v).

<sup>154</sup> *ori*: ‘tori, hartu’; cf. Lar. *apud OEH*, s.v. *ori*: “Toma, tómalo, en modo ínfimo, al muchacho *to*, a la muchacha *no*, a ambos en modo más cortés *ori, orizu*”.

<sup>155</sup> *indacu*: ‘emaidazu’ esan nahi du, baina hemen ‘(bihotzeraino) sar iezadazu’ ulertu behar da.

<sup>156</sup> *senticen*: ‘sumatzen’ adierarekin hala eriocea nola *aseguin eta descansu* objektuak onartzen ditu *senticen ez dot* aditzak.

<sup>157</sup> *baxe*: ‘baizen bajizik’ formari buruz ikusi AJ: 1143r ataleko oharra s v. *baxe*.

<sup>158</sup> *çu başarıda servicen*: ‘zuk nahi baduzu, gogoko baduzu’; gaztelaniazko *servirse* aditzaren ordain diren esamoldee buruz, ikusi AL: 1142y ataleko oharra s.v. *servidu icaten licala*

Bada bere,<sup>159</sup> nai ez neuque,  
 mundu guztiagaitirren,<sup>160</sup>  
 çuregaz ene<sup>161</sup> secretoa  
 descubri lidin bapere.

Acabaduric, bada, Silveroc bere musiqueau, aynbat aseguin artu even jardinean eocenac, eze ez ostean gueiago,<sup>162</sup> especialmente Silviac, ceñac utra on erechan Silverori, cegati eçautu eben Silveroren cantaetaea.

Acabaduric leen esan dogun cantaeteau, Silvero eta bere lagunac joan citecen<sup>163</sup> ciudadera, nun Silberoc emun eusten<sup>164</sup> ayn colacio<sup>165</sup> andia beregaz<sup>166</sup> eroan cituan musicoay, ece ecin contadu al leidi<sup>167</sup> guiçonac gurearren<sup>168</sup> bere; eta, colaciona

Bestalde, Lazarragak, -de- morfema iragangaitzetako NOR argumentuaren pluralgile bezala erabiltzen du. Bost aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan: *çarade* (AL: 1144v, B18: 91), *dirade* (A1: 52), *çagode* (A5: 2), *çaucidenean* (A16: 86), *gabilçaden* (A17: 93), *çabilçade-* (B18: 147); -te- morfema, ordea, iragangaitzetako NORI eta iragankorretako NORK argumentuen pluralgile bezala agertzen da eskuizkribuan: *ecarten* (AL: 1153r, AL: 1154v, A1: 37), *liçatela* (AL: 1154v), *egotela* (AL: 1154v), *darabilte-* (A1: 47, A24: 87), *deustet* (A17: 9), *jate* (B3: 77), *eusten* (‘zien’ nahiz ‘zioten’, *passim*).

<sup>159</sup> *Bada bere*: ‘hala ere’.

<sup>160</sup> *mundu guztiagaitirren*: ‘mundu guztiagatik’; ikusi, eskuizkribu honetan bertan, *cegaitirren* (A23: 87). OEHk (s.v. *arren*) atzizki honen hiru adibide bildu ditu: “*arren. Añadido a -ga(i)ti: Begiak deutse egotzen biotzari kulpea, / Aganik jaio zala onerestea, / Ta agaitirren aditu zerren zirean / Errenkore andiak erne zitean.* TAV 3.1.22. [Elorrioko maitasun kanta, 1609] **Onegaiterren** erreguetan deutsat andrane Maria Birjineari, [...] eta zuri aita espiritual orri, erregutu dagizula nigaitik Iaungoikoari. Cap 20. **Beragaterren** trukadu nei pozik mundu guztia. Acto 306”.

<sup>161</sup> *çuregaz ene*: ‘zure eta ene, zure eta nire’; ‘Xgaz Y’ egitura da, ‘Xrekin Y’ egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko. Soziatiboaren -gaz kasu-marka genitiboarekin edo genitiborik gabe erabiltzeaz, ikusi AL: 1143v ataleko oharra, s.v. *beregaz*.

<sup>162</sup> *eze ez ostean gueiago*: Irakur bedi *aynbat... eze...* Hots, ‘egun horretan hartu zuten besteko atsegina ez zuten geroztik inoiz hartuko’.

<sup>163</sup> *joan citecen*: ‘joan ziren’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>164</sup> *emun eusten*: ‘eman zien’.

<sup>165</sup> *colacio*: ‘otordu arin’; cf. DAUT, s.v. *colación*: “El agasajo que se da por las tardes para beber, que ordinariamente consta de dulces y algunas veces se extiende a otras cosas comestibles, como son ensaladas, fiambres, pasteles, etc.”

<sup>166</sup> *beregaz*: ‘beragaz, berekin, berarekin’; cf. AL: 1143v ataleko oharra, s.v. *beregaz*.

<sup>167</sup> *ecin contadu al leidi*: ‘ezin kontatu lezake’; \*-idi- erroko adizkia da, balio potentzialarekin.

\*-idi- aditza *egin* aditzaren erro supletibotzat jo ohi da (Lafon 1944 eta gerotzikako lanak). Izan ere, testu arkaikoenetan, *egin-ek* ez du potentzialeko forma trinkorik erakusten, eta haren ordez \*-idi- erabiltzen da. Mendebalde zein ekialdeko testuetan aurkitzen da.

\*-idi- aditza trinkoki (*Arbore gaichtoac fructu onic ecin daidi*, Leiz Mat. VII, 18), zein “participioa + \*-idi-” gisako perifrasiaaren laguntzaile gisa agertzen zaigu. Azken erabilera hau mendebaldeko testuetan baizik ez da lekukotzen; eta hori da, hain zuzen ere, espero duguna, *egin* eta \*-idi- banaketa osagarrian

acabaduric, despedidu cituan musicoac, eta, ai ichi<sup>169</sup> ta joan cidin bere esera, nun asi çan bere erropaac<sup>170</sup> contuz maleta baten <1145r> sarçaen, cegaiti esan eusan ugaçabac ece biaramunean joango cireala euren biajera, ceña çan Italiaco ciudadate batera, ceñari ereiçan<sup>171</sup> Arcileo.<sup>172</sup>

Arcileoco ciudadean<sup>173</sup>  
 Silvero el cidinean,  
 bicico çala uste ez eben  
 oy inor[c]<sup>174</sup> ordú batean.

Ainbat çan, bada, Silveroren

badira, eta “partizipioa + *egin*” perifrasia mendebaldekoa bada: *Mayacean berarra luce da eta sendo, eguitayaren orçac ebagui leydi ondo* (RS 268); *Esan senguida beste gatic / esneydysula trucadu* (Mik TAV 3.1.27).

Lazarragaren eskuizkribuan, bost aldiz agertzen zaigu trinkoki jokaturik, eta gehienetan aditz-lokuzio bateko aditza da: *Ecin faltaric neydio / nic on derechadanari* (A3: 9-10), *apa bat baneydiçu ao goçoan; / bacusu ene fedea firmea dana* (A17: 19-20), *Baneidio bati berba, / palagadu al banegui* (A19: 62-63), *beronec bere ezteidio falta gueago damari* (B27), *Mendi altuan erurra daydi, / aran baxuan eguzqui* (B31: 1-2). Gainerateko kasuetan, perifrastikoki erabilia da, partizipioa aditz nagusitzat harturik.

Balioari dagokionez, lau baliorekin agertzen zaigu. Gehienetan potentziala adierazten du (zortzi aldiz), baina geroaldiaren balioa ere har dezake (bi aldiz). Behin baldintza irreal bateko apodosian agertzen zaigu, baina hori ez zaigu harrigarria iduritzen, kontuan harturik apodosiak potentzialeko formetarik erator daitezkeela. Azkenik, orain arte ezagutzen ez genuen erabilera batean aurkitu dugu bi aldiz: aginteraren balioarekin; bizkitartean, ez dira agintera “normalak”: orainaldiko forma iragankorren *d-*aurrizkia daramate, baina horrekin batera aginterazko formetan erabili ohi den ezeztapenaren partikula: *ze*. Pentsa daiteke geroaldiko formak direla aginteraren balioarekin erabiliak (oroit Leizarragaren mandamentuko *ez duk hilen* tipoko formak).

<sup>168</sup> *gurearren*: ‘gura arren, nahi izan arren’; eskuizkribuan, *gura izan* aditzean, beti agertzen da *gura* forma; izenari artikulua erantsi zaionean, *gurea* bihurtu da, jakina: *senargureac* (A19: 13), *ecusgurea* (B22: 36). Hemen ere, horien antzera gertatu da *guraa- > gurea-*.

<sup>169</sup> *ai ichi*: ‘haiet utzi, haiet utzi’; *ichi* ‘utzi, abandonatu’ aditzarekin datiboa erabiltzeaz, ikusi AL: 1141v ataleko oharra, s.v. *bigueleari ichi*; baina hemen bakarrik aurkitu dugu *ai* erakusle datibo plurala.

<sup>170</sup> *erropaac*: *-aac / -aan* bukaerei buruz, ikusi AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *bervaac*.

<sup>171</sup> *ereiçan*: ‘izena zuen, deitzen zen’; aditzaren formari dagokionean, ikusi AL: 1144r ataleko oharra, s.v. *on dereiçut*.

<sup>172</sup> *Arcileo*: Ez dugu ezagutzen *Arcileo* edo *Arsileo* izeneko hiririk (ez baitugu uste Toscanako *Arcille* herrixkak hemen zerikusirik duenik). *Arsileo* izeneko pertsonaia agertzen da, ordea, *Belianís de Grecia* (1547) eta *Los siete libros de la Diana* (1559) liburuetan.

<sup>173</sup> *Arcileoco ciudadean*: Hemen, ustekabeen eta ageriko arrazoi berezirik gabe, narratzailearen ahotsa, orain arte prosan ari zena, bertsotan hasi da. Hiru lekutan aurkitu ditugu narratzailearen hitzak bertsotan (AL: 1145r, AL: 1147r eta AL: 1154r-1154v).

<sup>174</sup> *inor[c]*: Ergatibo-faltari dagokionean, cf. *inor[c]* (AL: 1145r, A28: 147), *ni[c]* (A7: 38, A17: 107, B3: 34), *neur[c]* (A9: 19), eta *ar[c]* Sasiolakoarenan (B30: 86).

amoremina<sup>175</sup> andia,  
ece, ez inor ecusterren,<sup>176</sup>  
isaiten<sup>177</sup> eben beguiac.

Remedioric ecin lebela,<sup>178</sup>  
utra gaxoric ebilen;  
fortunearen esai çala  
ya asi çan senticen.

Silvia, dama galantori,  
pena andiaz bici çan;  
Silverori on derechana<sup>179</sup>  
acordacen da ascotan.

Doristeo,<sup>180</sup> çaldun gazte bat,  
ebilen penaz beteric,  
<1145v> cegaiti utra on erechan  
Silvia donzelleari.

<sup>175</sup> amoremina: ‘maitemina’; Berpizkundeko poesian topiko ezaguna da “amorez minduta” egotea (Petrarca, Garcilaso...): maitalea “amoreminez” dago, ezin duelako lortu maitatuaren amodia (arrazoia askotarikoak izan daitezke). Testuan hitz honek dituen agerraldi batzuetan esanahia hurbil bide dago etimologiatik (AL: 1145r, A7: 78, A16: 47, B10: 12, B21: 2 eta B23: 118); aldiz, A11: 8 lerroko egun maiteminak duen adiera arruntari dagokio.

<sup>176</sup> ecusterren: ‘ikustearren, ikusteagatik, ikusteko’; -arren atzizkiari dagokionean, ikusi AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *probaetarren*.

<sup>177</sup> isaiten: ‘ixten’; irakur bedi *itsaiten*. Adi aditz-izenaren formari, *OEHn* ez baita agertzen, s.v. *itxi*.

<sup>178</sup> ecin lebela: ‘ezin ukан zuelarik’; *lebela* adizki trinkoa da, \**edun* aditzarena.

<sup>179</sup> derechana: -na konpletiboa da.

<sup>180</sup> Doristeo: Doristeo izeneko zaldunari (Doristeo zalduna baita, Silbero, Sirena eta Silbia zerbitzariak diren arren) izena aldatu dio egileak AL: 1152r atalean, ziur aski errakuntzaz; hortik aurrera beti deitzen dio *Dorido*.

Lope de Vegak lan askotan erabili zuen *Doristeo* izena: *El mármol de Felisardo* (1594-1598), *El amante agradecido* (1602), *La discreta enamorada* (1606-1608)... Antonio de los Caramanchesen *La pastora de Mançanares* (XVII. mendea) artzain-liburuan ere bada izen hori duen artzain bat.

*Dorido* izena, berriz, Mateo Alemánek erabili zuen *Guzman de Alfarachen* (1599-1604). Montemayorren *Los siete libros de la Dianan*, azkenik, *Dórida* izeneko ninfa agertzen da; izen femeninoa greziar mitologiatik dator, eta erabilia zuen Sannazarok ere *Arcadian* (1504); *Dorida* izeneko andrazkoa dago 1526ko *Polindo* zaldun-liburuan ere.

Sirena bere ainbeste dabil  
besteoc leguez galduric,<sup>181</sup>  
Doristeori on derechala,  
Silvero anci jaquinic.<sup>182</sup>

Cupido,<sup>183</sup> nola doçu orrein<sup>184</sup> gaxqui<sup>185</sup>  
ceure matraz<sup>186</sup> doraduoc gobernaetan?  
Cegaiti lauoi bardin<sup>187</sup> on erechi  
ez derausteçu<sup>188</sup> euren amoreetan?  
Dago Sirenagaiti Silvero ilic,  
Sirenac Doristeori on erechan,

<sup>181</sup> *ainbeste dabil / besteoc leguez galduric*: ‘besteok bezainbeste galdurik dabil’; *ainbeste galduric* ulertu behar da.

<sup>182</sup> *anci jaquinic*: ‘hari ahantzirik, hari ahazturik’; cf. AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *anci jaquinic*.

<sup>183</sup> *Cupido*: Zortzi bertso-lerro hauek neurri desberdinakoak dira, aurretik eta ondotik dituztenen aldean. Aurretik eta ondotik datozenak launaka bildu behar dira, 9/10 - 8a - 9/10 - 8a egiturarekin; zortzi bertso-lerro hauek, ordea, luzeagoak dira (11/12 silaba, eta are 14) eta errimak zortzikoa biltzen du (ez lauko bi).

<sup>184</sup> *orrein*: ‘horren’; hiru graduko adberbioa dago eskuizkribuan: *oneyn/onein, orreyn/orrein, ayn/ain*. Cf.: *oneyn curello tratadu* (AL: 1151r), *ene peneau oneyn andia dan azquero* (AL: 1152r), *estaguiçu[la] / guiçona onein amorad[u]* (B30: 35-36); *orreyn curello trataetan* (AL: 1152r), *orrein gaxqui* (AL: 1145v); *orrein curela* (A17: 34), *eneçat orrein gogor* (A17: 40), *orrein cruel içaten enegana* (A17: 67); *ain furia andiaz* (AL: 1142r), *urten eben ain laster* (AL: 1143r), *ain aguiz* (AL: 1143r), *ain cruelmente* (AL: 1143r) eta *passim*.

<sup>185</sup> *gaxqui*: Literatura-topikoa da Kupido itsuak geziak jaurtitzean huts egitea.

<sup>186</sup> *matraz*: ‘gezi’; cf. *OEH*, s.v.: “**matraz** (SP), **matrazu** (V arc. ap. A; Lar Sup). Urdeen buztanez *matrazu onik ez*. “Virote”. RS 51 (tbn. 485, con la var. *txarri*). *Matrazu orrek urte ezeban karkax orretarean*. Ib. 228. Arku bandatutik desarraturik dohazin *matrazak*. Harb 254s. *Halzez matraz hunik ez*. Bela 28”.

<sup>187</sup> *bardin*: ‘berdin’; Lazarragaren eskuizkribuan 11 aldiz aurkitu dugu *bardin*. Horietako batean bakarrik (AL: 1145v, hemen hain zuzen) du zalantzariak gabe gaurko ‘berdin’ esanahia, ‘berdintasuna’ adierazten duena; hiru aldiz (AL: 1151r, A25: 8, A27b: 7) ‘dena den, nonbait, beharbada, seguru aski’ adierazten du, gure ustez (cf. *OEH*, s.v., “de todas maneras, en cualquier caso” eta “probablemente, quizás”); behin (A12: 11) zalantza dugu bi adiera horietako zein ote duen; eta, azkenik, sei bider adierazten du baldintza (AL: 1172r, A24: 5, B17: 82, B18: 93, B18: 98, B23: 101).

<sup>188</sup> *on erechi / ez derausteçu*: ‘oniriztarazi ez diezu, mitarazi ez diezu’; *derusteçu* aditz laguntzailearen bidez adierazi da faktitibotasuna, *\*eradutsi* aditzaren forma horrek balio faktitiboa baitu hemen. *\*Eradutsi* aditza lau aldiz agertzen da Lazarragaren testuan, beti laguntzaile gisa. Horietatik bitan (A24: 11 eta B22: 71) aplikatibotasuna adierazteko erabiltzen da, hots, laguntzaile hirupersonal arrunta da (*eutsi, \*eradun, \*i-ren parekoa*). Beste bitan (AL: 1145v eta A27: 5) faktitibotasunaren adierazteko erabiltzen da; gisa horretako faktitibozko formak ezezagunak ziren Lazarragaren testua agertu arte, baina iduri luke erabilera zabala zutela Arabako euskara zaharrean, Lazarragak indikatibotik kanpo ere faktitibotasuna laguntzailean markatzen baitu, *egin-en* ordez *eragin* erabiliz (*galdu lerait* A24: 157).

Doristeoc Silviagati asco dauco minic,  
Silviac Silverori eusan erreguetan.<sup>189</sup>

Silveroc, bada, ecusiric  
bere desdicha andia,  
negar eguiten prometidu dau,<sup>190</sup>  
bici dan arte<sup>191</sup> guztian.

Esperancea galdu jaquinic<sup>192</sup>  
bici çan, aseguin bague;  
joan gura dau lecureanic<sup>193</sup>  
canpura<sup>194</sup> bici içaaten.<sup>195</sup>

<sup>189</sup> *erreguetan*: ‘erregutzen’; *erreguetan* irakurri behar da (ez *erregetan*), jakina.

<sup>190</sup> *negar eguiten prometidu dau*: Bi aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan *prometidu* aditza aditz-izenarekin; batean -*tzen* forma hartu du aditz-izenak (*negar egiten prometidu dau* AL: 1145v) eta bestean -*zeko* forma (*prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco* AL: 1153v), gaur -*tzea* erabiliko genukeen lekuan.

<sup>191</sup> *arte*: ‘tarte’; izena da.

<sup>192</sup> *galdu jaquinic*: ‘hari galdurik, harentzat galdurik’; *jaki-* adizkiari dagokionean, ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *anci jaquinic*.

<sup>193</sup> *lecureanic*: ‘herrixkatik’; cf. Lcc “aldea, *lequa*, *aldea*”. Eskuizkribuan gutxienez zortzi aldiz aurkitu dugu *lecu* esanahi horrekin (AL: 1145v, A7: 61, A17: 52, A23: 69, A23: 75, A23: 82, A23: 84, B25: 23). Beste askotan, jakina, ‘toki’ esanahiarekin.

Bestalde, -*reanic* ablatibo pleonastikoa behin baino gehiagotan agertzen da eskuizkribuan: *lecureanic* (AL: 1145v, B23: 82), *arereanic* (A24: 130, B6: 33, B7: 1), *altureanic* (B23: 80), *O[e]reanic* (B32: 7).

<sup>194</sup> *lecureanic / canpura*: *lecureanic canpura* ‘herrixkatik edo hiritik landara’ joatea Berpizkundean hain maite zuten *beatus ille* topikoaren hemengo formulazioa da: erantzunik gabeko maitasunak sorturiko kezken tokia da herrixka (*bici lazeradua*), eta Silberok, horiei ihes egiteko, landara alde egin nahi du. *canpura*: ‘landara’; eskuizkribuan beti dago *canpu* forma, Landuccirenean eta Gamizenean bezala (eta ez *kanpo*, beste autore guztiak erabiltzen duten bezala, *OEHk* dioenaren arabera). Esanahiari dagokionean, behin bakarrik esan nahi du ‘kanpo’ (vs ‘barru’, A26: 82), eta, ñabardurekin bada ere, bost aldiz dauka Landucciren erabilerara hurbiltzen den ‘landa’ adiera: bitan ‘landa’ (vs ‘hiria’, AL: 1145v eta B17: 67), beste bitan ‘landa zabala’ (vs ‘leku txikia, leku jakin bat, erreferentziako lekua’, AL: 1152v, AL: 1153v), eta behin ‘zelaia, jokalekua’ (zehazkiago ‘justetako zelaia’ A1: 10).

<sup>195</sup> *ığaaten*: *Jan* eta *izan* aditzek aditz-izena osatzeko -*te* atzikzia hartzen dutenean, -*aa-* bokal bikoitzak gertatzen da. Aditz horiek beroriek bestelako formetan (*izango, jango, izan, jan, janda*) ez dute inoiz bokal bikoitzik agertzen. Itxura guztien arabera fenomeno morfologikoa da oinarrian. Honelaxe dio *OEHk jan* aditzarentzari dagokionean (*izan* aditzari dagokionean, *OEHk* ez dakar bokal bikoitzeko adibiderik): “Documentado en todas las épocas y dialectos. La forma *jan* es general; *jaana, jaate-* (aunque no *jaan*) se documentan en Capanaga, Zuzaeta (88), Moguel (*PAb* 164), V. Moguel (12), J.J. Moguel (*BasEsc* 261) y fray Bartolomé (*Ic III* 273)”.

Leen esan dogun conquistan<sup>196</sup> lau amadore oec <1146r> egonic, çan lastima andia norc bere biocean eucan tristeza ecusten;<sup>197</sup> especialmente Silveroc, ceñac, ecusiric Sirenac besteri on erechala, acordadu eben joaten<sup>198</sup> arçai<sup>199</sup> baten figuran<sup>200</sup> erri<sup>201</sup> aetaric,<sup>202</sup> ez ain bici lazeradua iragaiterren.<sup>203</sup>

Eta, ala, egun baten, bere ugaçabari licencia escatu jaca<sup>204</sup> bere errira<sup>205</sup> joateco, ceñac utra<sup>206</sup> damu andia artu eben Silveroen joateaz.<sup>207</sup> Silveroc, bada, bere ugaçabari licencia escatu equionean, joan cidin Sirenagana, ceñari negarrez egoala despedidu equion;<sup>208</sup> eta, ya joateco egoan puntuau, atera eben rabel<sup>209</sup> bat bere maucarean,<sup>210</sup> ceña jaiten ebela asi çan negar eguiten, onela:

<sup>196</sup> *conquistan*: ‘lehan’.

<sup>197</sup> *ecusten*: Eskuizkribuan askotan dago aditz-izena inesiboan (-tzen), gaur absolutiboa erabiliko genukeen lekuaren (-tzea).

<sup>198</sup> *acordadu eben joaten*: ‘erabaki zuen joatea’; *acordadu* ‘erabaki, onartu’ aditzak bi joskerak (-tzea eta -tzen) onartzentz ditu eskuizkribuan. Bost bider aurkitu dugu osagarria -tzen forman: *acordadu eben joaten* (AL: 1146r), *acordadu eben arçai aberaspatequin jarten arçaiçat* (AL: 1146v), *acordadu eben aen esque joaten* (AL: 1151r, AL: 1151v), *acordadu dot erietan* (B18: 118). Bi bider erabili du osagarria -tzea forman: *acordaetan ez dodala / ain laster ezconquetea* (A24: 173-174), *acorda badeçaçu ucacea* (B3: 89).

<sup>199</sup> *arçai*: ‘artzain’; halakoetan -n gabeko formak erabiltzen ditu beti: *arçai (passim)*, *seychoa* (A25: 53), *sei* (B3: 13, B23: 62), *array* (A25: 53) eta *arraitan* B2: 12). Landuccik ere -n gabeko formak bildu zituen: “ouejero, pastor, *arçaya*”; “niño, *segui mutila*”; “peçe, pescado, *arraya*”.

<sup>200</sup> *arçai baten figuran*: ‘artzain gisa, artzain itxura hartuta’; cf. Covarrubias, s.v. *figura*: “Vale talle, parecer, semejança, como dize el romance viejo: *En figura de romero / No le conozca Galván*”.

Izatez liburuko pertsonaia nagusiak ez dira artzainak, artzainen itxura eta jantziak hartzten dituzten hirikumeak baino.

<sup>201</sup> *erri*: ‘lurralde, herrialde’; cf. Lcc “conquistar tierras, *erriac yrabaçı*”.

<sup>202</sup> *aetaric*: -etaric prolatibo/ablatibo pluraleko desinentziari buruz, ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *escuetaric*.

<sup>203</sup> *iragaiterren*: ‘iragatearen, irigateagatik, iragateko’; -arren atzizkiari dagokionean, ikusi AL: 1139r ataleko oharra (s.v. *probaetarren*). *Iago* aditzari buruz, ikusi AL: 1153r ataleko oharra (s.v.).

<sup>204</sup> *escatu jaca*: ‘eskatu zion’; eskuizkribuan *eskatu* aditzak NOR edo NOR-NORI erregimena du, beste euskal testu zaharretan bezala (RS, Leiz, Zalg.).

<sup>205</sup> *errira*: ‘herrialdera’; ikusi lerro batzuk goragoko oharra.

<sup>206</sup> *utra*: ‘oso’.

<sup>207</sup> *Silveroen joateaz*: ‘Silbero joateagaz’; *Silveroen* genitiboa *joateaz* aditz-izenaren subjektua da.

<sup>208</sup> *despedidu equion*: ‘agur egin zion’; eskuizkribuan *despedidu* aditza bi aldiz agertzen da jokaturik; honetan NOR-NORI erregimena du; bestean (*despedidu cituan*, AL: 1144v) NOR-NORK erregimena.

<sup>209</sup> *rabel*: ‘arrabita’; askotan agertzen da XVI. mendeko gaztelaniazko artzain-liburueta. Cf. DAut, s.v. *rabel*: “Instrumento músico pastoril. Es pequeño, de hechura como la del laúd. Compónese de tres cuerdas solas, que se tocan con arco y forman un sonido muy alto y agudo”.

<sup>210</sup> *maucarean*: ‘mahukatik’; agian ‘zorrotik’; cf. Lcc: “manga de vestidura, *mauquea jançiana*”, baina soinekoak mahuka zabala izan behar du hortik arrabita ateratzeko; horregatik pentsatu dugu agian arrabitaren mahuka dela, arrabita gordetzeko zorroa alegia, gaztelaniaz *manga* hitzak zituen adieretako

Ordu onean guera çatez,  
donzella linda erana;<sup>211</sup>  
noxbait-noxbait<sup>212</sup> acorda çatez  
çurea nola naxana.<sup>213</sup>

Esaitasun parebaguea  
nigaz cegaiti dauçaç?  
Muguer-arritzco<sup>214</sup> bioça baño  
gogorragoa çuc doçu.

Ni onerean<sup>215</sup> joateco  
causea oyta<sup>216</sup> çara çu;  
Jaun Cerucoac, ene laztana,  
oy deguiçula parcatu.

<1146v> Arren, Sirena, ene bioça,

---

bati erreparatuta (cf. *DAut*, s.v. *manga*: “Se llama también cierto género de coxín o maleta, abierta por las dos cabeceras, por donde se cierra y assegura con unos cordones”).

<sup>211</sup> *erana*: Ez dakigu zer esan nahi duen (ez euskaratik ez gaztelaniatik abiatuta), eta, akatsa balitz, zelan zuzendu beharko litzatekeen, eskuizkribuan argi-argi irakurtzen baita; ez dirudi *errana* edo *eranan* transkribatzeak ere ezer konponduko lukeenik. Bertso-lerroaren silaba-kopurua eta errima kontuan izanik, *Sirena* zuzentzea litzateke aukera bat, baina ez dago horretarako ere oinarri sendorik.

<sup>212</sup> *noxbait-noxbait*: ‘behingoz’; dirudienez, ‘noizbait’ (*noxbait*, *noxbayt*, *noxpait*) bi zentzurekin erabiltzen da Lazarragaren eskuizkribuan: ‘behingoz’ (hiru aldiz) eta ‘egunen batean’ (behin, A8: 6). ‘Behingoz’ zentzua dutenetan (AL: 1146r, A17: 88 eta B27: 15) aginterazko aditz-formak dituzte beti ondotik, eta horietako batean (*noxbait-noxbait*, AL: 1146r) errepikapen indargarria (halakoetarako cf. Agirre Asteasukoaren adibideak, 1808 ingurukoak, *apud OEH*: “*Idiki itzatzu bada noizbait-noizbait, kristaua, zure begiak*. AA III 349. *Noizbait, noizbait* asitzera noa [...] kristau aziai dotrina azaltzen. Ib. 399”).

<sup>213</sup> *nola naxana*: *Acorda(du)* ‘gogoratu’ aditzak bi eratara egituratzen du mendeko perpaus osagarria eskuizkribuan: 1) “Izenordain galdetzailea + aditza + -n”, hiru aldiz: *Acorda çatez ceyn on derechudan* (AL: 1152r), *Orduan acordaduço çara / oy nola esan niçun nic* (A8: 17-18), *Acorda çatez / oy eta çarriz contuan / cinbat joacen / ebili pobre munduan* (A26: 77-80). 2) “aditza + -na”, behin: *Silverori onderechana / acordacen da ascotan* (AL: 1145r). Kasu honetan, bien nahastea dugu, ziur aski bertso-lerroaren neurriak eta errimak hartaratuta.

<sup>214</sup> *Muguer-arritzco*: ‘suharritzko’.

<sup>215</sup> *onerean*: ‘hemendik’.

<sup>216</sup> *oyta*: Eskuizkribuko poematan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak, bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

suplicaetan nachaçu,<sup>217</sup>  
nic merecidu ez badot bere,  
ez naguiçula ancitu.<sup>218</sup>

Ceruco Jaunaz<sup>219</sup> oyta, Sirena,  
gueratu, bada, çatez çu;  
ni onorean banoa bere,  
ene bioça çuc doçu.

Neure beguioc guaduco dot  
tristezea dan errira,  
aseguinic sar ez daquidan  
oy biozeti barrura.

Despediduric, bada, Silvero bere Sirenaganic, artu eben arçaaiaen jazteco baçu,<sup>220</sup> eta asi  
çan bere biajea arçaen,<sup>221</sup> ponienteoco aldeetara; eta, bere bidea ecarrela, el cidin<sup>222</sup> ribera  
utra caudaloso baten,<sup>223</sup> ceñari erechan Duero,<sup>224</sup> Gaztelaco probincian, nun cirean utra

---

<sup>217</sup> *suplicaetan nachaçu*: ‘suplikatzen natzaizu, erregutzen dizut’; ikusi AL: 1140r ataleko oharra, s.v. *suplicaetan nachaçu*.

<sup>218</sup> *ancitu*: ‘ahantzi, ahaztu’; *anci(tu)* aditzari buruz, ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *anci*.

<sup>219</sup> *Jaunaz*: ‘Jaunagaz, Jaunarekin’; hemen -az bukaerak soziatiboaren balioa du.

<sup>220</sup> *baçu*: *baçu, baçuen, baçugaz* formeい buruz, ikusi AL: 1139v ataleko oharra, s.v. *baçu*.

<sup>221</sup> *asi çan bere biajea arçaen*: ‘bere bidaian abiatu zen’; *OEHn bidaia hartu esapidearen adibide bakarra aurkitu dugu*, eta oso berankorra: *Egun oro nago orkitan orren karta erranez noiz arten dion bidajia; ezdud nai arrapa dazatadan uste bagerik*. Mendigatxa, 152. Bestalde, *CORDEn* badira *tomar el viaje* esapidearen agerraldi batzuk XV-XVI. mendeetan: “Con este acuerdo, a plazer de todos los de la nave, **tomaron el viaje** de Constantinopla con viento bueno y endereçado” (Garci Rodríguez de Montalvo, 1482-1492, *Amadís de Gaula, libros I y II*), “En ocio allí la gente se detuvo / Un delicioso mes, el cual pasado, / Con todos los caballos y bagaje / A Mapochó **tomaron el viaje**” (Pedro de Oña, 1596, *Arauco domado*), “y assi, estando la peña donde está el caçador cerca de las cabras, sera cossa cierta llegarse a ella, mas si **tomaren viaje** para hirse a otra parte, mire el camino que lleuan y las peñas que ay en aquel derecho..” (Luis Barahona de Soto, c. 1580 - 1600, *Diálogos de la montería*). Cf. baita frantsesezko *prendre la route*.

<sup>222</sup> *el cidin*: ‘heldu zen, iritsi zen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra da.

<sup>223</sup> *baten*: *el(du)* ‘iritsi’ aditza inesiboarekin erabiltzeaz, ikusi AL: 1144r ataleko oharra, s.v. *lecuan*.

<sup>224</sup> *Duero*: Bidaia Italiatik abiatu bada, ondo da *ponienteoco aldeetara bere bidea ecarrela* Dueroren ibaialdera iristea, lerro gutxitan jauzi handia egin duen arren. Gogoratu, bestalde, Jorge de Montemayorren *La Dianako Selvagia* ere horkoa zela: “Yo vivía en una aldea que está junto al caudaloso Duero” (*La Diana*, Libro primero).

arçai aberasac. Ecusiric, bada, Silveroc egoala utra urrun bere errirean,<sup>225</sup> acordadu<sup>226</sup> eben arçai aberaspatequin<sup>227</sup> jarten<sup>228</sup> arçaiçat. Eta ala egun eben, cegaiti, biaramunean, Ascanio<sup>229</sup> erechan guiçon aberaspategaz<sup>230</sup> jarri çan, nun bere ganadua goardaetan eben.

<1147r>                    Silveroren<sup>231</sup> partierea<sup>232</sup>  
                               oy adituric,<sup>233</sup> Silviac  
                               damu andia oy eben artu  
                               bioz berean,<sup>234</sup> menetan.<sup>235</sup>

Silvero baga bici içaaten<sup>236</sup>  
                               oy ecin eben sufridu;  
                               aren acean joateco  
                               da licencia escatu.<sup>237</sup>

Silviac bere ugaçabari  
                               onela esan deuso:  
                               —Romeria<sup>238</sup> bat eguiteco,

<sup>225</sup> *errirean*: ‘herrialdetik’; *erri* izenari buruz, cf. gorago AL: 1146r ataleko oharra, s.v. *erri*.

<sup>226</sup> *acordadu*: ‘erabaki’.

<sup>227</sup> *aberaspatequin*: ‘aberats batekin’; cf. baita *aberaspategaz* (*ibidem*) eta *garrazpi* (A14: 72).

<sup>228</sup> *jarten*: *Acordadu* ‘erabaki, onartu’ aditzak bi joskerak (-tzea eta -tzen) onartzen ditu eskuizkribuan. Horri buruz ikusi AL: 1146r ataleko oharra, s.v. *acordadu eben joaten*.

<sup>229</sup> *Ascanio*: Askanio izen ezaguna da, jakina, Eneasen semearen izena delako, baina literatura-tradizioan ez dugu aurkitu izen hori duen artzain askorik; bada bat Lope de Vegaren *Los amores de Albalio y Ismenia* (1590-1595) komedian.

<sup>230</sup> *aberaspategaz*: ‘aberats bategaz’; cf. gorago *aberaspatequin*, eta horri dagokion oharra.

<sup>231</sup> *Silveroren*: Hemen, ageriko arrazoirk gabe, bertsoan jarri dira narratzailearen hitzak. Horri buruz, ikusi AL: 1145r ataleko oharra.

<sup>232</sup> *partierea*: ‘partida, abiatzea; abiatuko zela’; *OEH*ko lehen agerraldiak Txirritarenak dira.

<sup>233</sup> *adituric*: ‘entzunik’.

<sup>234</sup> *bioz berean*: ‘bere bihotzean’; adi hitz-ordenari.

<sup>235</sup> *menetan*: ‘benetan’; cf. *OEH*: “BENETAN, MENETAN. Documentado en la tradición meridional desde principios del s. XIX; hay también algún ejemplo septentrional moderno. Formas con *m-* inicial se encuentran en *CatLlo* (*menetako*, pero *benetan*), Iztueta, Lardizabal y Antia”.

<sup>236</sup> *içaaten*: -n defektiboa da, baina inesiboaren aldeko aukeraren alde, ikusi honen oso antzeko esaldia: *Amoradua amorez ilten / ecin leite sufridu* (B13: 9-10).

Bokal bikoitzari dagokionean (-aa-), ikusi AL: 1145v ataleko oharra, s.v. *içaaten*.

<sup>237</sup> *da licencia escatu*: ‘baimena eskatu du’; eskuizkribuan *eskatu* aditzak NOR edo NOR-NORI erregimena du, beste euskal testu zaharretan bezala (RS, Leiz, Zalg).

jauna, daucat nic gogo.

Onegati, servicen bada,<sup>239</sup>  
 arren, bear deust parcatu,  
 cegaiti biur nadinean  
 serviduco çaut,<sup>240</sup> jauna, çu.

Silvia despediduric bere ugaçabaganic, inorc eçautu ez leguiancat,<sup>241</sup> quendu eben bere jaztecoac eta artu eben arçai baten jaztecoac, eta asi çan bere biajea arçaen, Silvero joeala<sup>242</sup> equian<sup>243</sup> lecuetati.

Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen,<sup>244</sup> ceñac erançun eusten manera onetan:

—Arçai polita,<sup>245</sup> ic jaquingo doc<sup>246</sup> ece guec<sup>247</sup> goacela Dueroco riberara, cegaiti ençun dogu ece Silvero derechan arçai batec dabela lucha<sup>248</sup> <1147v> andiac armatu

<sup>238</sup> *Romeria*: ‘erromesaldia’; zentzu figuratuan ‘bidaia’ esan nahi du, baina hemen, ziur aski, jatorrizko zentzuan ulertu behar da.

<sup>239</sup> *servicen bada*: ‘(berorrek) nahi badu, gogoko badu’; gaztelaniazko *servirse* aditzaren ordain diren esamoldee buruz, ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *servidu içaten liçala*. Bestalde, ahapaldiaren bukaeran *berori-tik zu-ra* aldatzten da.

<sup>240</sup> *çaut*: ‘zaitut’; *çaut* pluralgile gabeko forma. Eskuizkribuan ondoko hauek aurkitu ditugu: *çaut* (AL: 1147r, A17: 23, 92), *çabenorri* (AL: 1152r), *çabenaren* (AL: 1152r) eta *çau* (A8: 22).

<sup>241</sup> *leguiancat*: ‘zezan’; prolatibozko *-tzat* desinenzia, subjuntiboko aditzari erantsirik, helburuzko perpausak osatzeko erabili da mendebaldeko euskaraz. Lazarragarenean halako bakarra da, baina honekin lotuta da *cerençat* ‘zertarako’ (A19: 43) ere.

<sup>242</sup> *joeala*: ‘zihoala’; aditz-formari buruz, ikusi AL: 1138v ataleko oharra, s.v. *joean*.

<sup>243</sup> *equian*: ‘zekien’.

<sup>244</sup> *lloacen*: ‘zihoazen’; *l-* aurritzidun hipotetikoko formei buruz, ikusi AL: 1142r ataleko oharra, s.v. *eugui leguiala*; *l-* aurritzia sabaikaritzeaz, ikusi AL 1143r ataleko oharra, s.v. *ballaco*.

<sup>245</sup> *polit*: ‘dotorea, txukuna, ondo apaindua’; *polit* adjektiboaren lehen agerraldia da euskarazko testu batean; lehenago Landucciren hiztegikoa besterik ez dago: “polida cosa, *gauça polita*”. Eskuizkribuan behin agertzen da *polido*, gaztelaniazko poema batean: *No es razón de hablar contigo, / que ya yo tengo otro amigo / más polido y más cortés* (A15: 54-56). Adierari buruz, cf. *DAut*, s.v. *pulirse*: “Vale adornarse, aderezarse, componerse; especialmente las mugeres”, eta s.v. *pulido*: “Se toma también por agraciado y de buen parecer”; ildo beretik, Covarrubiasek beste hau zekarren, s.v. *pulido*: “el curioso”. Bestalde, artzain bati *polido / pulido* deitzea ez da ezezaguna XVI. mendeko Spainiako literaturan. Agerraldi hauek aurkitu ditugu *CORDEn*: “Yo soy Danes desdichado, / sin dicha, triste nacido, / en las silvas muy nombrado / **pastor** de galán ganado, yo, galán muy más **polido**” (Juan del Encina, 1496, *Traducción de las Bucólicas de Virgilio*), “De ser zagal tú entendido / bien certificada estó, / y **pastor**,

comarcaetaco<sup>249</sup> arçai guztaquin, eta dagoala denporea asignadur[ic] egun<sup>250</sup> seigarren eguneco;<sup>251</sup> eta, ala, ene lagunau eta ni goaç<sup>252</sup> ara, Silveroren jentilezac<sup>253</sup> ecusterren,<sup>254</sup> cegaiti utra manera andian daçauen<sup>255</sup> guztioc alabadu deuscue.

Silviac Silveroren icena ençun eguijan orduan, asi çan negar eguiten, ain sentimentu andiaz ece, an eocen<sup>256</sup> arçaiagati<sup>257</sup> içan ez baliz, ez çatean asco an ila.<sup>258</sup> Ecusiric,

cierto, **polido** / y sabido” (Lucas Fernández, 1514, *Farsa o quasi comedia... vna donzella y vn pastor y vn cauallero*), “Vic. Atiende, señora, no tengas tal fuego, / que ves lo do viene Cremon Repicado; / aqueste sobra lo que me has preguntado; / quies que lo llame? que venga aca lluego. / Don. Harasme, por cierto, merced muy valiente / si aquesto hizieres, **polido pastor**” (Juan de París, 1536, *Égloga nuevamente compuesta*), “Digas, el **pastorcico**, / galán y tan **pulido**, / ¿cúyas eran las vacas que pastan par del río?” (Juan Vásquez, 1560, *Recopilación de sonetos y villancicos a cuatro y a cinco*), “Esta Pastora vn **Pastor** / diz que tiene por marido, / caudaloso, y muy **polido** que es de España gran señor / Hijo fue de Emperador, / que en el mundo no ay su yugal / y es padre de esta Zagala” (Izengabea, 1573, *Romance [Rosa real. Cuarta parte de romances de Joan Timoneda]*).

<sup>246</sup> Arçai polita, ic jaquingo doc: Artzain-lagunek gizonezkoari bezala hitz egiten diote toka (*doc*), baina zerbait berezia ikusten diote, eta horregatik esaten diote arçai polita. Gizonezkoz janzen diren andrazkoen trabestismoa literatura-motibo ezaguna da XVI-XVII. mendeetako liburuetan (ez, ordea, alderantzikoa bezain ezaguna); bada halako bat, besteak beste, Montemayorren *La Diana* artzain-nobelako bigarren liburuan (*Felismena > Valerio*).

<sup>247</sup> *guec*: ‘gu’; lau bider aurkitu dugu *guec* forma Lazarragaren eskuizkribuan: bitan absolutiboa da (AL: 1147r, A26: 72) eta bitan ergatiboa (AL: 1147v, AL: 1154v).

<sup>248</sup> *lucha*: ‘buruz burukako borroka’; lasterketa, jauzia, makila- edo haya-jaurtiketa eta buruz burukako borroka dira artzain-joko ohikoak artzain-liburuetan, Sannazaroren *Arcadia*-tik hasi eta Montemayorren *La Diana*-raino.

<sup>249</sup> *comarcaetaco*: ‘ingurumarietako’; cf. *comarcaetan* (A28: 67 eta 87).

<sup>250</sup> *egun*: ‘gaur’; cf. AL: 1143v ataleko oharra, s.v. *egun*.

<sup>251</sup> *egun seigarren eguneco*: ‘gaurtik hasita seigarren egunerako, sei egun barrurako’; ez dugu aurkitu egitura honen beste lekukotasunik.

<sup>252</sup> *goaç*: Hitz-bukaeran -z erabili da eskuizkribuan orain arte; hemendik hasi eta artzain-liburua amaitu arte, hala -z nola -ç erabiltzen dira; eta poematan, berriz, oso bakanak dira hitz-bukaerako -ç grafiak.

<sup>253</sup> *gentilezac*: ‘trebetasunak, ausardia, kemena’; cf. *DAut*, s.v. *gentileza*: “Gallardía, buen aire y disposición del cuerpo, bizarría, donaire y garbo”.

<sup>254</sup> *ecusterren*: ‘ikustearren, ikusteagatik’; -arren atzizkiari dagokionean, ikusi AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *probaetarren*.

<sup>255</sup> *daçauen*: ‘dazaguzkiten, ezagutzen dituzten’; *ezagutu* aditzaren forma trinkoa; *gentilezac* da osagarri zuzena, numero-komunzadurarak izan ez arren.

<sup>256</sup> *eocen*: ‘egozen, zeuden’.

<sup>257</sup> *arçaiagati*: Bi lekutan aurkitu dugu motibatibo plurala -ega(i)ti bukaerarekin: *arçaiagati* (AL: 1147v) eta çuegaiti (A10: 41).

<sup>258</sup> *ez çatean asco an ila*: ‘ez zen harrigarri izango (Silbia) han hiltzea’; bi lekutan aurkitu dugu egitura ia berdina: *ez çatean miracuru an ila* (AL: 1143r) eta *ez çatean asco an ila* (AL: 1147v); ikusi orobat oso antzekoa den beste hau: *ni ilagaz / çuc probechuric badoçu* (AL: 1144v).

bada, Silviagaz eocen arçaiac egoala negarrez, citecen espantadu,<sup>259</sup> eta ecin pensadu even cer al çaaean<sup>260</sup> causea, arean da<sup>261</sup> itaundu eyoen artean. Ceñac manera onetan erançun eusten:

—Çuec jaquingo doçu<sup>262</sup> ece Silvero çuec esan doçun arçai orregaz egon nax ni denpora andian, eta, ain da nic deusadan amorioa andia, ece, neure erriari ichiric,<sup>263</sup> nator aen esque, eta, aynbat aseguin artu dot nun dagoan icasiaz,<sup>264</sup> eze, munduan direan riqueza guztiac emun baleustae<sup>265</sup> bere, ezin gueiago artu ney.

—Sus,<sup>266</sup> bada, —esan eben arçai batac—<sup>267</sup> orrela dan azquero,<sup>268</sup> goacen guztioc batera, ece guec al daigun lagundasunic onaena eguingo deusugu; bada bere, erregutan gagoçu<sup>269</sup> esan deiguçula çure icena, cegaiti<sup>270</sup> obato alcar aditu<sup>271</sup> daygun.

<sup>259</sup> *citecen espantadu*: ‘harritu ziren, miraz gelditu ziren’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. *Espantadu* aditzaren esanahiari buruz, ikusi AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *espantaduric*.

<sup>260</sup> *çaaean*: ‘zatekeen’; *izan* aditzaren *çatean* adizkia *a* bakunarekin (*çatean* lau aldiz) eta *a* bikoitzarekin (*çaaean* behin) aurkitu dugu testuan. Eskuizkribuko lau adizkitan aurkitu dugu bokal bikoitza absolutiboaren markaren ondotik: *çaaean* (AL: 1147v), *çaaquit* (A6: 2), *gaacustenac* (A7: 115) eta *ezpanaagui* (A19: 56). Erran behar da Lazarragaz gain Kapanagaren testuan ere bildu dugula *çaaean* adizkiaren adibide bat: *zelan iaio alçaatean Maria Virgineaeganic* (30).

<sup>261</sup> *arean da*: ‘harik eta ... arte’, *arean da* ... artean egitura baita; cf. AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *arean da...*

<sup>262</sup> *jaquingo doçu*: ‘jakingo duzue’; eskuizkribuan askotan agertzen da *zu-ri* dagokion aditz-morfema bere jatorrizko plural balioarekin.

<sup>263</sup> *erriari ichiric*: ‘herrialdea utzirik’; *erri* izenaz, ikusi gorago AL: 1146r ataleko oharra; *ichi* ‘utzi, abandonatu’ aditzarekin datiboa erabiltzeaz, ikusi AL: 1141v ataleko oharra, s.v. *bigueleari ichi*.

<sup>264</sup> *icasiaz*: ‘jabetuaz, ohartuaz, jakitun eginaz’; *icasia* aditzaren adiera honi buruz, ikusi AL: 1142r ataleko oharra, s.v. *icasirc*.

<sup>265</sup> *emun baleustae*: ‘eman balizkidate’.

<sup>266</sup> *Sus*: ‘aiei, ai ene’; gaztelaniazko interjekzioa da. Cf. *DAut*, s.v. *sus*: “Género de aspiración, que se usa como interjección, para alentar, provocar o mover a otro a ejecutar alguna cosa prontamente o con vigor. LAT. *Eja*, *Heus*. ERCILL. Arauc. Cant. 9, Oct. 103: *Y dandoles en esto mucha priessa,/ El beber los caballos les defiende, / Diciendo: Sus, salid, salid a fuera, / Que yo os mantendré campo en la ribera*”.

<sup>267</sup> *arçai batac*: ‘artzainetariko batek’; mugatua da, talde ezagun bateko *bata* delako, kasu honetan Silbiarekin elkartu diren bi artzainetako bat.

<sup>268</sup> *orrela dan azquero*: ‘horrela baita, horrela denez’; *gero* adberbioa oinarri duten egiturez, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *dan azquero*. Kasu honetan, bestalde, badirudi *orrela dan azquero / onela dan azquero* bezalako esamoldeak aski eihartuak direla, baina horiek oro, azalpenezko perpaus kausal gisa interpreta daitezke.

<sup>269</sup> *erregutan gagoçu*: *Erregutan egon* lokuzioa bi aldiz dago eskuizkribuan: *Jgoçu erregutan* (AL: 1139v) eta *erregutan gagoçu* (AL: 1147v); honen egitura berekoa da *oraziotan egon* (cf. *oraciotan beti nago*, A19: 39).

Onetan erançun eben Silbiac:

—Çuec jaquingo dozu, arçay nobleac, ece ni najala<sup>272</sup> Marsellaco<sup>273</sup> naturale,<sup>274</sup> eta ene icena da<sup>275</sup> Clarian.<sup>276</sup>

—Orrela dan azquero,—esan eben arçay batac<sup>277</sup> [...]

[...]

<1151r> ]ren conpañian dagoan doncella bateq, ceñari derechan Silvia, derechula utra on, eta aynbat graduan ce, çu ona etorri çareala icasi ta etorri gura dau çure esque;

*gagozu*: ‘gaude gu zuri’; irakur bedi *gagozu*, txistukari frikariarekin (eta ez \**gagotzu*, afrikatuarekin). *Egon* aditzaren NOR-NORI forma trinkoen sailari buruz, ikusi AL: 1139v ataleko oharra, s.v. *nagoçu*.

<sup>270</sup> *cegaiti*: “*Cegaiti + subjuntiboa*” egiturak helburuzko perpausa adierazi ohi du Lazarragarenean: *cegaiti obato alcar aditu daigun* (AL: 1147v), *cegaiti artu ez daiquean* (A14: 99), *Beguioc irecaçu guchi baten, / eta inca eçaçuorrerean / ceure sierbo onen biocean, / cegaiti dacusun nola dagoan / ya bici onegaz aspertua, minez mila lecutan çulatua, / cegaiti daquiçun, ceurc ecusita, / ez naxana min baga quexaeten* (B3: 79-86).

<sup>271</sup> *aditu*: ‘ulertu’.

<sup>272</sup> *najala*: ‘naxala, naizela’; <j> grafia bost aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan txistukari sabaikariaren balioarekin: *najala* (AL: 1147v), *baje* (AL: 1153r), *bijeac* (A11: 35), *urteje* (A14: 6) eta *beajaco* (A16: 46).

<sup>273</sup> *Marsellaco*: Marsella ez da askotan agertzen XVI. mendeko gaztelaniazko narratiba-lanetan. Francisco Delicadoren *La Lozana Andaluzan* (1528) dauka nolabaiteko presentzia, eta Lope de Vegaren *El peregrino en su patria liburuan* hain zuzen Marsellara erromesaldian doa Nise neska, mutil jantzita, baina liburua 1604an argitaratu zen.

<sup>274</sup> *naturale*: Hitz-bukaeran -e paragogikoa duen -le bukaerarekin, gutxienez hiru hitz aurkitu ditugu eskuizkribuan: *naturale* (AL: 1147v), *arbole* (AL: 1153r) eta *rosale* (B18: 87), baina bada *naturala* (B18: 78) ere. Cf. baita Lcc “naturalmente, *naturalea leguez*”, “animal, *animaleda*”, “árbol, *arbolea*”, “brotar los árboles, *arboreac brotadu*”, “canal de tejado, *telladuco canalea*”...

<sup>275</sup> *ene icena da*: Izen berria hartzeak pertsonaiaren eraldaketa markatzen du XVI-XVII. mendeetako literaturako trabestismo kasuetan.

<sup>276</sup> *Clarian*: *Clarián* izena ez da askotan agertzen pertsonaia-izen gisa, *Clarián de Landanís*-en zaldungo-liburuetan ez bada; ziklo horretako zaldungo-liburuek (1518, 1522, 1524, 1528) arrakasta lortu zuten XVI. mendean zehar.

<sup>277</sup> *batac*: Mugatzaileari buruz, ikusi goragoko oharra, s.v. *arçai batac*.

ceñari çuc gura badeusaçu on erechi, eta ancitu<sup>278</sup> Sirena, on ez derechun azquero,<sup>279</sup> nic prometietan deusut ece laster osatu çatezqueala<sup>280</sup> daucaçun gaxaesun<sup>281</sup> orretaric.

Silveroc leen esan dogun bervaoc ençun eguianean,<sup>282</sup> cidin andiro enojadu, eta, egoan lecurean<sup>283</sup> jaguiric, joan cidin floresta<sup>284</sup> bateti aurrera, Clariani bacarric ichita,<sup>285</sup>

<sup>278</sup> *ancitu*: ‘ahantzi, ahaztu’; *anci(tu)* aditzari buruz, ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *anci*.

<sup>279</sup> *on ez derechun azquero*: Esan bezala, *-n guero* eta *-n azquero* egiturak dituzten perpausak azalpenezko kausal gisa interpreta daitezke. Bi egiturok adierazten duten balioaren kidetasuna agerkoa suertatzen da adibide hau A12: 11koaren ondoan jarritz gero.

<sup>280</sup> *osatu çatezqueala*: ‘osa zaitezkeela, osatuko zarela’; Lazarragak “partizipioa + \**edin* + *-ke*” perifrasia behin baizik ez du erabiltzen geroaldia adierazteko. Erabilera hori testu arkaikoetan baizik ez dugu aukitzenten, RS eta Oihenarten errefraueta, hain zuzen, azken honek “aditzoina + \**ezan* + *-ke*” kide iragankorraren adibideak ere eskaintzen dituelarik: *Eguin ta aguindu ta ez ayte galdu* (RS 462) “Manda y az y no te perderás”, *Ardi bilha adi, nahiz bake, otsoak jan ezake* (Oih Prov. 545) “Fais-toi brebis pour l’amour du repos: le loup te mangera”.

<sup>281</sup> *gaxaesun*: ‘gaixotasun’; hitz honek bi agerraldi ditu eskuizkribuan (AL: 1151r eta B18: 38), baina hemendik kanpo ez dugu beste inon aurkitu. Dena den, hitzaren historia asmatzea ez da zaila: *gaxo + asun > gaxasun > gaxaesun*.

<sup>282</sup> *ençun eguianean*: ‘entzun zuenean, entzun zituenean’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>283</sup> *lecurean*: ‘lekutik’.

<sup>284</sup> *floresta*: ‘baso sarria’; zaldungo-liburuetan zabaldu zen, gaztelaniaz, *floresta* hitzaren erabilera.

<sup>285</sup> *ichita*: Hiru tokitan erabaki dugu *-ta* partizipioari lotuta idaztea: *joan cidin floresta bateti aurrera, Clariani bacarric ichita, ceñac, bacarric gueratu çala ecusen orduan, asi çan, negarrez beteric bere beguiac eucala, berva oec esaten* (AL: 1151r), *ceurc ecusita / ez naxana min baga quexaetan, / baice justo naxala escaetan* (B3: 85-87) eta *Conbento guztia generalm[en]te / saludacen dot nic agur eguinda; / belaurico, barriz, çu, ene lind[a]* (B17: 13-15). Partizipioari atxikitako atzizki gisa agertzea berrikuntza bat da, eta XVIII. mendera arte adibide bakanak aurkitzen ditugu euskal testuetan. Horregatik, Lazarraga eskuizkribuan hiru adibide seguro horiek baino ez ditugu halakotzat hartu; gainerakoetan, aldiz, usadio zaharra hartu dugu kontuan eta, ondorioz, [partizipioa + *ta*] segida bereizita idaztea erabaki dugu, haietan guztietan *ta* juntagailu arrunt gisa ulertzeko eragozpenik ez dagoelako, alegia. Eskuizkribuan *-ta* gehienak partizipioari lotuta agertzeak ez du balio erabaki horren kontra, zalantzak gabe kopula denean ere hala idazten baitu Lazarragak; ikusi hau, adibidez, eskuizkribuan idatzita dagoen moduan: *Silvero eta Silvia, Doristeota Sirena* (AL: 1152r). Cf. OEH, s.v. *eta*: “2. (SP, Dv, H). (Precedido de participio o de radical verbal). Generalmente tiene un sentido temporal. A menudo también con valor condicional: *Halakoa utzi eta, non dukegu berzia?* E 91. *Iainko bat baizen ez izan eta, zergatik hirur aiphatzen dituk?* Lç Ins C 1r. Cuando se emplean las variantes *da* o *ta*, resulta difícil diferenciar este uso de *eta* del uso adverbial del participio con sufijo *-ta* (*izanda, etorrita*, sinónimo del general *izanik, etorririk*) propio de los dialectos meridionales. Cf.: *Mila urte igaro eta ura bere bidean*. RG 60; pero en el ms. A 25: *mila urte igarota*. De hecho, parece seguro que estos participios con sufijo *-ta* se derivaron del uso de *eta* que aquí tratamos. Cf. las expresiones temporales del tipo *egin eta gero, egin eta berehala, etc.*”

Bestalde, *ichi* ‘utzi, abandonatu’ aditzarekin datiboa erabiltzeaz, ikusi AL: 1141v ataleko oharra, *biguelari ichi*.

ceñac, bacarric gueratu çala ecusen orduan,<sup>286</sup> asi çan, negarrez beteric bere beguiac eucala, berva oec esaten:

## CLARIAN

Çorigachean oy neuretaco  
amorea dot eçautu,  
bardin<sup>287</sup> gura naben azquero  
oneyn<sup>288</sup> curelدو<sup>289</sup> tratadu.

Oy, amorezco erregue jauna,<sup>290</sup>  
suplicaetan nachazu<sup>291</sup>  
deguioçula oy Silverori  
on derextala<sup>292</sup> aguindu.

Doristeoc, bada, ecusiric bacarric gueratu çala, bere Silvia baga, acordadu eben aen esque joaten;<sup>293</sup> ceñac, partietaco egoan egunean, Sirenari berva oec eguin eusan:

—Ondo uste dot,<sup>294</sup> Sirena, <1151v> dauçaçula adituric<sup>295</sup> Silviac, bere joateagaz, niri bacarric ichiric emun deustan pena;<sup>296</sup> ceña dan ayn andia, ece uste dot, iraungo baleu

<sup>286</sup> *ecusen orduan*: ‘ikusi zuen orduan, ikusi zuenean’; aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.

<sup>287</sup> *bardin*: ‘nonbait, dirudienez’; *bardin* hitzaren adierei buruz, ikusi AL: 1145v ataleko oharra, s.v. *bardin*.

<sup>288</sup> *oneyn*: ‘honen’; hiru graduko adberbioaz (*honein, horrein, hain*), ikusi AL: 1145v ataleko oharra, s.v. *orrein*.

<sup>289</sup> *curelدو*: ‘krudelki’; Landuccik ere badakar *curela* adjektiboa, baina *kurelدو* izenondoa ez dugu aurkitu eskuizkribu honetan baino (AL: 1151r, AL: 1152r, A28: 128).

<sup>290</sup> *amorezco erregue jauna*: Ziurrenik Kupidoz ari da, eskuizkribuko beste leku batean *amoriozco erregue jauna* (A1: 33) deitzen duenaz.

<sup>291</sup> *suplicaetan nachazu*: ‘suplikatzen natzaizu, erregutzen dizut’; *suplicadu* aditzaren erregimenaz, ikusi AL: 1140r ataleko oharra, s.v. *suplicaetan nachaçu*.

<sup>292</sup> *on derextala*: ‘maita nazala’; subjuntibo trinkoa da.

<sup>293</sup> *joaten*: *acordadu* ‘erabaki, onartu’ aditzak bi joskerak (-*tzea* eta -*tzen*) onartzen ditu eskuizkribuan. Horri buruz ikusi AL: 1146r ataleko oharra, s.v. *acordadu eben joaten*.

<sup>294</sup> *Ondo uste dot*: ‘uste dut’; gaztelianazko *bien pensar* (eta bereziki *bien pienso*) esamoldearen itzulpena da; gaztelianaz hain zuzen XVI-XVII. mendeetan erabili zen gehien (*CORDEn bien pienso* formaren 44 agerraldi dira 1500-1650 tartean, soilik 15 aurretik eta bat ere ez ondotik. Lazarragaren eskuizkribuan bi bider dago (AL: 1151v eta A25: 34).

<sup>295</sup> *adituric*: ‘ulerturik’.

denpora ascotan, liçateala parte<sup>297</sup> niri eriocea laster emayteco; eta, causa oec guztiocnic ecusiric, dot acordadu aen esque joaten, ceina<sup>298</sup> deustae esan dagoala Silvero dagoan lecuan. Onegati, çuc ecer gura badoçu erri<sup>299</sup> aetaruç,<sup>300</sup> esan eguidaçu, cegati utra borondate oneç eguin daudit.<sup>301</sup>

SIRENA —Ciertu<sup>302</sup> baceequi<sup>303</sup> esan doçun berbaocaç eguin deustaçun asecabea, sin[i]squetan dot eç cebela<sup>304</sup> esango. Bada vere, ceure borondate<sup>305</sup> ori<sup>306</sup> bestegan dauçaçuna legueç,<sup>307</sup> ezta miracuru<sup>308</sup> nigaç conturic eugui eça. Bada bere, nic çuri deusudan amorioa<sup>309</sup> ayn firmea dan azquero, baçoac munduen cabura bere, ecin ichi neidiçu.<sup>310</sup>

<sup>296</sup> pena: *penea* mugatua espero genezakeen hemen, baina *pena* artikulugabea dago, agian *pena emun* lokuzioa delako.

<sup>297</sup> liçateala parte: ‘lagunduko lukeela, bide emango lukeela’; gaztelaniazko *ser parte para* (eta bereziki *sería parte para*) esamoldearen itzulpena da. Gaztelaniaz, *CORDEN, es parte para* edo *sería parte para* segidaren hainbat agerraldi dira hain zuzen XVI-XVII. mendeetan; ikusi ondokoa, adibidez: “las pastoras le daban cuenta de sus amores por ver si **sería parte para** ablandar su pena” (Jorge de Montemayor, 1559, *Los siete libros de La Diana*).

Aditzaren formari dagokioenean, ez dirudi *liçateala* hau eta beheragoko *liçatela* (AL: 1154v) gauza bera direnik, hemen -te- morfemak hipotetikotasuna adierazten baitu, eta han pluraltasuna.

<sup>298</sup> ceina: Aurrekaria aen da, Silbia alegia.

<sup>299</sup> erri: ‘lurralde, herrialde’; *erri* izenari buruz, cf. gorago AL: 1146r ataleko oharra, s.v. *erri*.

<sup>300</sup> aetaruç: Ez dago argi zerik eragin duen hemen adlatibo direktiboa erabiltzea; agian ulertu behar da *ezer herri haietaran* [eramatea].

<sup>301</sup> eguin daudit: ‘egingo dut’; -\*idi- erroko adizkia da eta geroaldia adierazten du. Erro horri buruz, ikusi AL: 1144v ataleko oharra, s.v. *ecin contadu al leidi*.

<sup>302</sup> Cierto: ‘benetan, egiazki’; cf. Lcc “ciertamente, cierto”.

<sup>303</sup> baceequi: ‘bazeneki’; eskuizkribuan aditz bat baino gehiago dira *cee-* < *cene-*. Cf. *baceequi* (AL: 1151v), *ezpaceeguit* (A7: 99), *ceeguidan* (A26: 59) eta, bilakabidea aurrerago eramanda (*ce-* <*cee-*> *cene-*), *cebela* ‘zenuela’ (AL: 1151v), *ceben* ‘zenuen’ (AL: 1153r), *ceguian* ‘zenegian, zenezan’ (AL: 1153v), *ceucala* ‘zeneukala’ (A26: 96, 98) eta *ceucan* ‘zeneukan’ (A26: 106).

<sup>304</sup> cebela: ‘zenituela’; cf. *ecusi ceben* (AL: 1153r) eta, *cene-* > *cee-* > *ce-* aldaketari buruz, ikusi goragoko oharra, s.v. *baceequi*.

<sup>305</sup> borondate: ‘maitasun’; cf. *DAut. s.v. voluntad*: “Significa también amor, cariño, afición, benevolencia u afecto”.

<sup>306</sup> ori: Halako egituretan (“edutezko izenordain + izen + erakusle/artikulu”), artikulua aurreko izenari lotua ageri da kasu gehienetan, eta halaxe eman dugu. Baina adibide honetan autoreak esplizituki markatzen du bi elementuen arteko berezketa, eta bereizita eman dugu gure testuan ere. Antzeko adibidea da, izenaren mota ezberdina bada ere, *ceure sierbo onen* (B3: 81).

<sup>307</sup> dauçaçuna legueç: ‘daukazunez’; ‘aditza + -na leguez’ eta ‘aditza + -n leguez’ egiturei buruz, ikusi AL: 1142r, s.v. *eucana leguez*.

<sup>308</sup> ezta miracuru: ‘miracuru + izan aditzaren 3. pertsona singularra’ egiturari buruz, ikusi AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *ez çatean miracuru*.

<sup>309</sup> deusudan amorioa: ‘dizudan amodioa’; \*edutsi aditzaren erabilera trinkoaren adibideak bakanak dira eskuizkribuan. Cf. orobat *ain da nic deusudan amorioa andia* (AL: 1147v). Eta, ‘eman’ adieran, beste

DORISTEO —Eçtoçu cerren berva oriec esan, Sirena, cegati dave utra provechu guichi<sup>311</sup> eguiten, ala çuretaco nola enetaco, cegati nigaç ecin inor lloaque.<sup>312</sup>

SIRENA —Jaicoari<sup>313</sup> nai eç daquiola<sup>314</sup> çu joan da<sup>315</sup> ni eben<sup>316</sup> guera nadila. Orregati, Doristeo, çoaç nora ta nundi gura doçun,<sup>317</sup> ece nic ichico eçteusut.<sup>318</sup>

Doristeoc ecusiric çala inpossible Sirena bereganic apartaetaea, asi çan bere bidea arçayten, ceinac, bere beguiac negarretan eucala, asi çan berba oec esaten:

#### DORISTEO

Oi,<sup>319</sup> Sirena, cegaiti çatoz  
oy eta ene acean,  
inpossible oy dan azquero<sup>320</sup>  
nic çuri onerextea?

hauek: *asco deusut esquerric* (A14: 14) eta *Linda damea, asco deusut / nic aregaiti esquerric* (A23: 27-28).

<sup>310</sup> *ecin ichi neidiçu*: ‘ezin utz niezazuke’; \*-idi- erroko adizkia da, NORK-NORI-NOR sailekoa, balio potentzialarekin. Erro horri buruz, ikusi AL: 1144v ataleko oharra, s.v. *ecin contadu al leidi*.

<sup>311</sup> *guichi*: Eskuizkribuan soilik bi lekutan aukitu dugu *gitxi* forma (AL: 1151v eta A26: 88), eta 17 aldiz *gutxi*.

<sup>312</sup> *ecin inor lloaque*: ‘ezin izango litzateke inor joan’; *lloaque* adizkia *joan* aditzaren forma hipotetiko trinkoa da; hipotetikoko formez, ikusi AL: 1142r ataleko oharra (s.v. *eugui leguiala*), eta *l-* aurritzka sabaikaritzeaz ikusi AL: 1143r ataleko oharra (s.v. *ballaco*).

<sup>313</sup> *Jaicoari*: ‘Jainkoari’; *Jaico-* hitza hiru aldiz dago eskuizkribuan, beti *-n-* gabe: *Jaicoari* (AL: 1151v), *jaicoac* (AL: 1153v), *Jaicoac* (AL: 1154v). Kontsonante belarearen aurrean sudurkaria erortzea posible denez, ulertu dugu sudurkaririk gabeko formaren lekukotasuna dugula Lazarragarenan.

<sup>314</sup> *Jaicoari nai eç daquiola*: ‘Jainkoak ez dezala nahi izan’; *nahi izan* aditz-lokuzioaren erabilera, ikusi AL: 1140r ataleko oharra, s.v. *nai daquicula*.

<sup>315</sup> *da*: ‘eta’.

<sup>316</sup> *eben*: ‘hemen’.

<sup>317</sup> *nora ta nundi gura doçun*: ‘nahi duzun tokira eta nahi duzun tokitik’; erlatibozko esaldia da.

<sup>318</sup> *eçteusut*: *eçteuçut* > *eçteusut* zuzendu dugu, aurreko silabako -ç- letraren eraginez sorturiko errata dela ulertu dugulako, eskuizkribuan aditz-sail honetako txistukari bizkarkari bakarra bailitzateke.

<sup>319</sup> *Oi*: Eskuizkribuko poematan maiz erabiltzen dira *oy*, *oya* eta *oy eta* betegarriak, bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>320</sup> *dan azquero*: ‘baita, denez’; *gero* adberbioa oinarri duten egiturei buruz, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *dan azquero*.

## SIRENA

Doristeo, cegaiti çoaz  
ceurori, bada, galduric,  
<1152r> Silviac oyta dacusun guero<sup>321</sup>  
on derechana besteri?

Onela, bada, Doristeoc eta Sirenac eguin even euren biajea, arean da Silvero egoan lecuan<sup>322</sup> el citezqueano,<sup>323</sup> nun, nor bere<sup>324</sup> ugaçaba banaquin<sup>325</sup> [...]

Egun baten, bada, Silvero eta Silvia, Doristeo ta Sirena, lauoc batera nor bere ardiaquin joacela, topadu cirean iturri fresco<sup>326</sup> baten aldean, nun guztiac alcar eçauturic<sup>327</sup> berva eguin eusaen;<sup>328</sup> especialmente Silveroc, Sirena ecusen orduan, esan eben:

<sup>321</sup> *dacusun guero*: ‘ikusten baituzu, ikusten duzunez’; irakur bedi *dakutsun*.

<sup>322</sup> *lecuan*: *el(du)* ‘iritsi’ aditza inesiboarekin erabiltzeaz, ikusi AL: 1144r ataleko oharra, s.v. *lecuan*.

<sup>323</sup> *arean da Silvero egoan lecuan el citezqueano*: ‘harik eta Silbero zegoen herrira heldu ziren arte’; aditz laguntzaileari dagokionean, testu zaharrenetan (Leizarraga, Lazarraga, Oihenart), *-no* atzizkiak denbora-tartearen azken muga adierazten du eta trinkoei eta “aditzoina + \*edin, \*ezan”, “aditzoina + \*iro” (ekialdean) eta “partizipioa + egin” (mendebaldean) perifrasietako laguntzaileei gehitzen zaie. Azken bi perifrasietan izan ezik, beste egituretan *-ke* atzizkia beti agertzen da menderatzailea aitzin. Lazarragaren testuan, “aditzoina / partizipioa + \*edin / egin” egitura perifrástikoak baliatzen dira *-no* menderatzailearekin, orainaldian zein iraganaldian. *-ke* atzizkiari dagokionez, nahitaezkoa da \*edin-ekin, baina hautuzkoa *egin*-ekin. Askotan, hemen bezala, idazle arabarrak *arean da* preposizioa erabiltzen du denborazko perpaus horren hastapenean, segur aski denbora-tartearen zedarritzeko: *arean da Doridoc, burua goratuta, ecusi eyano salbaje terrible bien figurea* (AL: 1153r); baina ez beti: *alcançadu daiqueano* (A14: 101); hauen ondoan bada *arean da ... artean* egitura ere (cf. AL: 1143r).

<sup>324</sup> *nor bere*: ‘nor ere, bakoitz’; uste dugu eskuizkribuko bi lekutan dagoela *bere* partikula izenordain galdetzaileen indargarri gisa: *arean da Silvero egoan lecuan el citezqueano, nun, nor bere ugaçaba banaquin* (AL: 1152r) eta *ceynçuc gueratu citecen espantu eta tristeza andiaz, norc bere even onorechia galduagaiti* (AL: 1153r). *OEHn* (s.v. *ere*) ekialdeko erabileratzat aipatzen da, adibide ugarirekin, Leizarragarena besteak beste: *Zertara ere aplika baikaitez, betiere gure fin eta intenzione prinzipala den hire heldurrean bizitzera* (Leiz ABC A 8r).

<sup>325</sup> *banaquin*: Eskuizkribuan dena jarraian idatzita dago (ez dago zulorik, ez dago orbanik, ez dago urraturik...), baina zerbaiz (ziur aski aditza soilik) falta da testua ulergarri egiteko.

<sup>326</sup> *iturri fresco*: Iturri freskoa *locus amoenus* topikoa da literaturan, eta bereziki artzain-liburueta; batetik, *iturria* bera da topikoa elkartzeko gune gisa, eta bestetik *freskoa* izatea ere *locus amoenus* topikoaren ezaugarria da. Literatura-motibo honi buruz ikusi Lasso de la Vega (1960).

<sup>327</sup> *guztiac alcar eçauturic*: Anagnorisis edo elkar-ezagutzea (eta, hemen bezala, berriz biltzea) baliabide ezaguna da kontakizunak aurrera egin dezan laguntzeko eta pasarte berriei bidea emateko.

<sup>328</sup> *berva eguin eusaen*: ‘berba egin zioten elkarri’; objektua ez dago adierazita, baina *elkarri* hitz egin ziotela ulertu behar da.

—Oy, Jaun Cerucoa! Ni nun ete nago? Lo ete naç?<sup>329</sup> Ala iraçarriric<sup>330</sup> nago? Ecin sinistu dut<sup>331</sup> neure Sirenaen aldean nagoala.

Berva oec esan da joan cidin Sirenaren aurrera, nun belaurico jarri çan, negarrez egoala, berva oec eguite<sup>332</sup> lebela:

—Oy, Sirena, ceñaen beguioc direan norteagaz<sup>333</sup> comparaduac! Nachaçu suplicaetan<sup>334</sup> nay daquçula,<sup>335</sup> ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguiten.<sup>336</sup>

Sirenac, Silvero bere aurrean ecusen orduan, utra<sup>337</sup> enojaduric esan eusan:

—Quen çatez ene beguietaric,<sup>338</sup> cegayıti nic ezterechut on çuri bapere baño gueiago, cegaiti ene bioça Doridogan dago.

<sup>329</sup> naç: ‘natza’; hitz-amaierako <-ç> grafiak hemen txistikari afrikatua adierazten du eta *natz* irakurri behar da, hain zuzen *etzan* aditzaren forma trinkoa; honen antzekoa da, baina hirugarren pertsona singularreko, *Arrasateko Erreketa*ko beste hora: *an daz Presebal ylic* (TAV 3.1.7). Bi arrazoi dira erabakitzeko ez dela *naz* ‘naiz’, hain zuzen ez dela *izan* aditza: batetik, XVIII. mendera arte ez dago *naz* formaren agerraldirik, eta eskuzkribu honetan ere bakarra litzateke (cf. *nax* eta *naiz*, ez bada Martin Lopez Bikuñaren eskuz idatzitako lerro batzuetan); bestetik, XX. mendera arte, *lo izan* aditz-lokuzioa soilik ekialdean erabili da, eta soilik XIX. mendeaz geroztik (cf. *OEH*, s.v. *lo izan*). Azkenik, aipatu behar da eskuzkribuan lau aldiz dagoela *etzin* aditza forma jokatugabeen (*ecin* AL: 1152v, *ecinic* A1: 36, *ecingo* A14: 85, *ezin* A24: 53) eta bi aldiz forma trinkoan (*naç* AL: 1152r, *caucidenean* A16: 86). Bukaerako -a galtzeaz, jakin behar da mendebalde zein erdialdeko testuetan adizkien erroko -a askotan galtzen dela bukaera absolutuan gertatzen delarik (cf. *FHV* §6.4). Lazarragaren testuan, \**ezan* (protasietan edo *b-* aurrizkidun jusibozko formetan) eta *etzan* aditzek pairatzen dute erorketa: *lo ete naç* (AL: 1152r), *goarda badez* (A17: 14), *sufri[du] valez* (B10: 6).

<sup>330</sup> *iraçarriric*: Eskuzkribuan bi aldiz aurkitu dugu *iraçarriric* forma (AL: 1152r, B23: 16) eta hiru aldiz *iraçarric* (A16: 72, A23: 36 eta A28: 160).

<sup>331</sup> *dut*: *du-* moldeko \**edun* aditzaren formak hiru baino ez dira eskuzkribuan: *dut* (AL: 1152r), *duçu* (A27b: 5), *duen* (A27 b: 40). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *deu-* moldeetakoak.

<sup>332</sup> *eguite*: ‘egiten’; -n galdu du, testuinguru fonetikoarengatik (*l-* hurrengo silaban).

<sup>333</sup> *norteagaz*: ‘norte-izarragaz, iparrizarrarekin’.

<sup>334</sup> *Nachaçu suplicaetan*: ‘suplikatzen natzaizu, erregutzen dizut’; *suplicadu* aditzaren erregimenaz, ikusi AL: 1140r ataleko oharra, s.v. *suplicaetan nachaçu*.

<sup>335</sup> *nay daquçula*: ‘nahi dakizula, nahi izan dezazula’; *nahi izan* aditz-lokuzioaren erabilera, ikusi AL: 1140r ataleko oharra, s.v. *nai daquçula*.

<sup>336</sup> *remedioa emun jaguiten*: ‘(suplikatzen dizut nahi dezazula) niri erremedioa eman egiten, niri erremedioa ematea’; *jaguiten* aditzkiari buruz, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *emun jagui[.]*.

<sup>337</sup> *utra*: ‘oso’.

<sup>338</sup> *beguietaric*: -etaric ablatibo/prolatibo pluraleko desinentziari buruz, ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *escuetaric*.

Silveroc, au ençun eguian orduan, bere buruari ichi eusan lurrera jausten,<sup>339</sup> ceñagana Silvia joan cidin lasterca, esaten eusala:

—Jagui çatez, Silvero, orrean,<sup>340</sup> eta ichi eguiçou<sup>341</sup> orreyn<sup>342</sup> cureldo<sup>343</sup> trataetan çabenorri,<sup>344</sup> eta çatoz nigana.

Silveroc erançun eusan:

—Silvia, quen aquit orrean, cegaiti nic ecin ancitu<sup>345</sup> neydi<sup>346</sup> aynbat denpora<sup>347</sup> on derechadan gaucea.

Silviac au ençun eguianean, desmayaduric erori çan, ceñagana joan cidin laster Dorido, eta esan eusan:

—Ay, Silvia, ene laztana! Acorda çatez ceyn on derechudan, eta bay nola çabilcen engañaduric igui çabenaren<sup>348</sup> <1152v> acean, ene amorioau ancitu jaquinic.<sup>349</sup> Suplicaetan nachaçu<sup>350</sup> deguidaçula remedioa emun, medecinea çu çarean guero.<sup>351</sup>

<sup>339</sup> *bere buruari ichi eusan lurrera jausten*: Konortegabetzea, gorago esan den bezala, maitasun gortetiarrari lotua da. Hemen hasita, liburuko lau pertsonaia nagusiak zorabiatuko dira banan banan.

<sup>340</sup> *orrean*: ‘hortik’.

<sup>341</sup> *ichi eguiçou*: *ichi* ‘utzi, abandonatu’ aditzarekin datiboa erabiltzeaz, ikusi AL: 1141v ataleko oharra, s.v. *bigueleari ichi*.

<sup>342</sup> *orreyn*: ‘horren’; hiru graduoko adberbioaz (*honein, horrein, hain*), ikusi AL: 1145v ataleko oharra, s.v. *orreyn*.

<sup>343</sup> *cureldo*: ‘krudelki’; Landuccik ere badakar *curela* adjektiboa, baina *kureldo* izenondoa ez dugu aurkitu eskuizkribu honetan baino (AL: 1151r, AL: 1152r, A28: 128).

<sup>344</sup> *çabenorri*: ‘zaituen horri’; pluralgile gabeko forma honi buruz, ikusi AL: 1147r ataleko oharra, s.v. *çaut*.

<sup>345</sup> *ancitu*: ‘ahantzi, ahaztu’; *anci(tu)* aditzari buruz, ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *anci*.

<sup>346</sup> *ecin ancitu neydi*: ‘ezin ahantz nezake, ezin izango nuke ahaztu’; \*-idi- erroko adizkia da, balio potentzialarekin. Erro horri buruz, ikusi AL: 1144v ataleko oharra, s.v. *ecin contadu al leidi*.

<sup>347</sup> *aynbat denpora*: ‘hainbat denboratan’; absolutiboa inesiboaren ordez bide dago, “noiz” adierazteko, gaztelaniazkoaren antzera: “he amado tanto tiempo”; honen antzekoa izan litekeen beste bat aurkitu dugu eskuizkribuan: *eguaztena ifini nauçu / obligacioz beteric* (A14: 119-120).

<sup>348</sup> *igui çabenaren*: ‘higui zaituenaren, gorrotatzen zaituenaren’; irakur bedi *igui*, -u- eta guzti.; cf. *OEH*, s.v. *higui*: “La forma meridional *igui*, documentada ya desde *RS*, va siendo sustituida por *iguin* a lo largo del s. XIX, y no se encuentra en el XX”. *çabenaren* pluralgile gabeko laguntzaileari buruz, ikusi AL: 1147r ataleko oharra, s.v. *çaut*.

<sup>349</sup> *ancitu jaquinic*: ‘zuri ahantzirik, zuri ahazturik’; cf. AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *anci jaquinic*.

Silviac, Doridoren bervaoc adituric,<sup>352</sup> esa<sup>353</sup> eusan:

—Esan ce eguidaçu berva oriec, cegayti gurago dot Silverori on derechadala il, ece eç a ancitu ta bici içan.

Doridoc eucan esporçu<sup>354</sup> guztia galduric, ecin<sup>355</sup> çan lurrera, utra negar asco bere beguietati eşarten ebela.<sup>356</sup> Sirenac, bada, Dori[d]o lurrean negarrez ecusi eguijan orduan,<sup>357</sup> joan cidin agana, confiaduric respuesta obea idoroco ebela agan arc Silverori emun eusan<sup>358</sup> baño, eta esaten asi jacon:

—Egun ascotan, Dorido, esan deusut cegayti çabilcen on ez derechunorren acean galduoric, eta ez doçu sinistu içan nay, arean da<sup>359</sup> ceure beguiocaz ecusi doçun artean. Bada, onela dan azquero, ceure buruori desengañaduric, nagoçu<sup>360</sup> mesede esque onerean<sup>361</sup> aurrera on erechi deguidaçula.

Doridoc utra enojaduric erançun eusan:

<sup>350</sup> *Suplicaetan nachaçu*: ‘suplikatzen natzaizu, erregutzen dizut’; ikusi AL: 1140r ataleko oharra, s.v. *suplicaetan nachaçu*.

<sup>351</sup> *çarean guero*: ‘zareanez’; *gero* adberbioa oinarri duten egiturei buruz, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *dan azquero*.

<sup>352</sup> *adituric*: ‘entzunik’.

<sup>353</sup> *esa*: ‘esan’; -n galdu du, testuinguru fonetikoarengatik.

<sup>354</sup> *esporçu*: ‘adore, indar’; cf. *OEH*, s.v. *esportzu*: “Ánimo, fuerza, apoyo, consuelo”.

<sup>355</sup> *ecin*: ‘etzin, etzan’, eta hemen, adlatiboarekin, ‘erori’; *etzin* aditzaren formei buruz, ikusi AL: 1152r ataleko oharra, s.v. *naç*.

<sup>356</sup> *eşarten ebela*: ‘jaurtitzen zuelarik, isurtzen zuelarik’; *OEHn ezarri* aditzaren lekukotasun ugari bildu dira ‘echar’ adierarekin; ikusi, adibidez, Añibarrorena: “*Zer balio dau negar anpulutxo bi ezartea*. Añ LoraS 52” (*apud OEH*, s.v. *ezarri*. 3); Lazarragaren eskuzkribuan ere bada beste bat: *ceinçuc ciruidien sua aoetati eşarten evela* (AL: 1153r). Bestalde, testu osoan -la atzizkia erabiltzen da moduzko perpausetan, perpaus nagusien osagarri zirkunstantzial gisa. Cf. *Nic laztan baçaitut, agaz beragaz / pagatu bear doçu ceure çorra, / tenplacen doçula vioz gogorra / Amore jaunaren precetuagaz* (B22: 61-64), *alcar daraçagula besoetan* (A17: 96).

<sup>357</sup> *ecusi eguijan orduan*: ‘ikusi zuen orduan, ikusi zuenean’; aorista edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>358</sup> *eusan*: Erlatibozko perpausari erantsita artikulua izatea espero genezakeen (*eusana*), baina agian hitz-ordenak eragin du halakorik ez izatea.

<sup>359</sup> *arean da*: *arean da ... artean* egitura da, hots ‘harik eta ... arte’; cf. AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *arean da...*

<sup>360</sup> *nagoçu*: ‘nagokizu’; aditz-formari buruz, ikusi AL: 1139v ataleko oharra, s.v. *nagoçu*.

<sup>361</sup> *onerean*: ‘hemendik’.

—O, falsa traydorea! Quen aquit neure beguietaric,<sup>362</sup> ene desdicheonen causea i axan azquero; cegati ic Silverori on erechi baeuso,<sup>363</sup> Silviac bere niri ecin ucatu eidan<sup>364</sup> neure remedioa. Bada, oneinbat<sup>365</sup> gach ire causaz eterri dan azquero, cegayti ezton<sup>366</sup> losaric berva oriec esaten gure aurrean?

Enojuzco verva oec Sirenac<sup>367</sup> bere Doridoren aorean<sup>368</sup> ençunic, cidin desmayaduric lurrera jausi. Onela lauac eocela desmayaduric, Silveroc esan eben:

SILVERO —Naguin, Sirena, remediadu!<sup>369</sup>

SIRENA —Ni Doridogaiti gaxo nax.

DORIDO —Silviac catigaturic nauco.

<sup>362</sup> *beguietaric*: -etaric ablatibo/prolatibo pluraleko desinentziari buruz, ikusi AL: 1142v ataleko oharra, s.v. *escuetaric*.

<sup>363</sup> *on erechi baeuso*: ‘oniritzi bahio, maitatu bahu’.

<sup>364</sup> *ecin ucatu eidan*: ‘ezin ukatuko zidan [alokutiboa]’; *egin* aditz laguntzailea da, potentzial irrealia.

<sup>365</sup> *oneinbat*: ‘honenbat, honenbeste’; hiru graduko adberbioa dago eskuizkribuan, batzuetan monoptongaturik eta beste batzuetan monoptongatu gabe: *oneinbat/oninbat, orrinbat, aynbat/ainbat*. Cf. *oneinbat* (AL: 1152v, A3: 23, B3: 51), *oneinbategaz* (B2: 7, B7: 17), *oneinbatenaz* (A24: 9), baina *oninbatenaz* (A23: 33 eta 85); *orrinbat* (A26: 70); eta *ainbat/aynbat (passim)*; monoptongazio horien antzekoa da orobat *cinbat* (A26:79).

<sup>366</sup> *ezton*: Hikako formak ez dira gutxi eskuizkribuan, baina soilik bi pasartetan dago aditzean markaturik genero femeninoa: hemen eta A25 poeman. Hona hemen pasarte horiek:

*cegayti ezton losaric?* (AL: 1152v), **Naguin, Sirena, remediadu** (AL: 1152v),

—*Eyz ona ichi dinat menaetan.*

*Igo eguin da asi adi mocietan;*

*ni banajoan salsearen aurquietan.—*

—*Ez al deustac bardin egquia contaetan.—*

—*Igo eguin laster, ece eurc dacusquen erietan.—* (A25: 5-9).

Lazarragarenak genero femeninoaren marka daramaten lehenengo adizkietakoak bide dira, Leizarragarenekin batera.

<sup>367</sup> *Sirenac*: Eskuizkribuan *Silbiac* dakar, baina Silbia aurreko orrialdean zorabiatu da, eta Sirena oraindik ez, eta Sirena da falta den bakarra *lauac desmayaduric* izan daitezen.

<sup>368</sup> *aorean*: ‘ahotik’.

<sup>369</sup> *Naguin, Sirena, remediadu!*: ‘Sirena, erremediadu nagin!’, ‘Sirena, erremediatu nazan hik ni!’, ‘Sirena, lagundu hik niri!'; ikusi baita *remediadu ezpanadi* (A19: 32). Cf. *DAut*, s.v. *remediar*: “Vale también socorrer o subvenir a alguna necesidad o urgencia”.

Aditz laguntzaileari dagokionean, Lazarragak, *-la* atzizkirik gabeko formak erabiltzen ditu objektua 1. pertsonakoa delarik: *ezcondu nagui* (A19: 4), *il nagui* (A3: 26), *ifini nagui* (A28: 33), *ecusi nagui* (B17: 18), eta hemen *naguin (...) remediadu [hik-ni]* (AL: 1152v). Aldiz, objektua 2. pertsonakoa delarik, bere garaikideek bezala *-la* atzizkidun formak erabiltzen ditu: *Jaun Cerucoac, ene laztana, oy deguiçula parcatu* (AL: 1146r).

SILVIA —Oyta Silveroc ni il nau.

Platica oetan lauoc eocela, aditu<sup>370</sup> even os andi bat canputi<sup>371</sup> etorrena, ain andia ece utra espantaduric<sup>372</sup> eocen<sup>373</sup> cer al çatean<sup>374</sup> <1153r> ecin pensaduric, arean da Doridoc burua goratu ta ecusi eyano<sup>375</sup> salbaje<sup>376</sup> terrible bien figurea, ceinçuc cirudien sua aoetati eçarten<sup>377</sup> evela; eta euren escuetan ecarten<sup>378</sup> arco bana, flecha çorroçacaz armaturic; eta Doridoc ecusi eguijan orduan, esan eusan Silverori:

—Jagui çatez orrean<sup>379</sup> laster, Silvero, cegayti eben<sup>380</sup> datozi salbaje andi bi ondo armaturic, guri bicioc edetera.<sup>381</sup>

Silveroc ençun eguijan orduan Doridoen bervaac,<sup>382</sup> utra espantaduric jagui cidin,<sup>383</sup> eta artu even norc bere armac. Bada bere, aec ondo beguiratu orduco, salvaje biac arrebatadu cituen Sirena ta Silvia, ceinçuc utra laster ta errotyu<sup>384</sup> andiaz eroan cituen

<sup>370</sup> *aditu*: ‘entzun’.

<sup>371</sup> *canputi*: ‘landa zabalean zehar’; *canpu* izenaren adierei buruz, ikusi AL: 1145v ataleko oharra, s.v. *canpura*.

<sup>372</sup> *espantaduric*: ‘harriturik, miraz gelditurik’; *espantadu* aditzaren esanahiari buruz, ikusi AL: 1139r ataleko oharra, s.v. *espantadu*.

<sup>373</sup> *eocen*: ‘egozen, zeuden’.

<sup>374</sup> *çatean*: ‘zatekeen’.

<sup>375</sup> *arean da Doridoc, burua goratu ta ecusi eyano*: ‘harik eta Doridok, burua goratu eta ikusi zuen arte’; *arean da ... -ano* egitura eta aditz laguntzaileari buruz, ikusi AL: 1152r ataleko oharra, s.v. *arean da...* *eyano* formari dagokionean, *eyano* <*egian* + *-no* dugu.

<sup>376</sup> *salbaje*: Basagizona mendebaldeko folklorean eta ikonografian ere asko agertzen da, baina bereziki XVI-XVII. mendeetako literaturan literatura-motibo bihurtzen da, askotan bigarren mailako pertsonaia gisa eta eginkizun jakin batekin: kasu honetan, “dontzeilak harrapatzet dituzten basagizonak” dira, zaldungo-liburu eta artzain-liburu askotan agertzen direnak bezalakoak.

<sup>377</sup> *eçarten*: ‘jaurtitzen’; *ezarri* aditza ‘jaurti’ adierarekin erabiltzeaz, ikusi AL: 1152v ataleko oharra, s.v. *eçarten ebela*.

<sup>378</sup> *eçarten*: ‘zekartea’; *-te-* morfema pluralgileari buruz, ikusi AL: 1144v ataleko oharra, s.v. *çarade*.

<sup>379</sup> *orrean*: ‘hortik’.

<sup>380</sup> *eben*: ‘hemen’.

<sup>381</sup> *edetera*: ‘edekitzera, kentzera’; aditz-izenaren formaz, ikusi *OEH*, s.v. *edeki*: “hay tbn. *edete* en Axular e *idete* en *BBizk*”. Eskuizkribuan bost aldiz aurkitu dugu aditz hau: *donzella batec edegui cidan / oy neure bioz coytadua* (A21: 3-4), *guri bicioc edetera* (AL: 1153r), *buruac edetera* (AL: 1153v), bai eta *oy neure bioz amorosoau / idogui cidan bertati* (A14: 23-24), edo *nidocaçu nagoan penarean* (B3: 66).

<sup>382</sup> *bervaac*: *-aac* / *-aan* bukaerei buruz, ikusi AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *bervaac*.

<sup>383</sup> *jagui cidin*: ‘jagi zen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>384</sup> *errotyu*: ‘zarata’; cf. Lcc “bollicio, *errotyua*”, “bollicioso, *errotyosoa*”, “despartir ruido, *despartidu errotyua*”, “roido de gente, *gentean errotyua*”. Cf. orobat *OEH*, s.v. *arroitu*: “**arroitu** (AN, Sal, R; Dv,

florestati beera,<sup>385</sup> Silveroc eta Doridoc remedioric emun al baga; ceynçuc gueratu citecen espantu eta tristeza andiaz, norc bere<sup>386</sup> even onorechia galduagaiti, eta ecin pensadu even nuen<sup>387</sup> aguinez edo nora salbaje aec eroan al euqueen;<sup>388</sup> eta prometidu even biac ez alcarri ichi<sup>389</sup> jaguiteco,<sup>390</sup> arean da<sup>391</sup> Sirena ta Silvia idoro artean.

Onetan egun bat eta gau bat irago<sup>392</sup> even, solamente negar baje<sup>393</sup> beste gauçaric eguite<sup>394</sup> ez evela; ceinçuc, bigarren egunean, cerbait jan da<sup>395</sup> loac artu cituan arbole<sup>396</sup>

H), *erroidu* (Lar, Añ, H), *erruitu* (Lcc), *arreitu*. Ref.: A; Iz R 284. [...] Palabra propia de Navarra peninsular, donde la forma más extendida es *arroitu*. La emplean tbn. Ochoa de Arin y Arrue (*erroidu*)”.

<sup>385</sup> *beera*: Hitz honetan jatorrizko bokal arteko kontsonantea galdu da; bitan ageri zaigu hitz hau testuan, bietan bokal bikoitza gordeta (AL: 1153r, A25: 41). Landuccik ez dakar bokal bikoitzik: “acatar abaxo, *joan bera*”, “cabeça abaxo, *buruaz bera*”. Cf. *OEH*, s.v. *behe*: “Entre los autores meridionales, la variante más empleada es *bee* (escrito *bē* en textos, sobre todo de poesía, de comienzos del s. XX). *Be* es algo más frecuente en autores guipuzcoanos (Larramendi, Cardaberaz, Guerrico, Iturriaga, etc.), aunque aparece tbn. en Añibarro (*bee-* en la 2.<sup>a</sup> ed. del *Esku-liburua*), Zavala, Uriarte, etc. No es infrecuente encontrar ambas variantes en un mismo autor”.

<sup>386</sup> *norc bere*: ‘nork ere, bakoitzak’; *bere* ‘ere’ galdetzailearen indargarri gisa erabiltzeaz, ikusi AL: 1152r ataleko oharra, s.v. *nor bere*.

<sup>387</sup> *nuen*: ‘noren’; galdetzailearen forma hau bitan agertzen da testuan: *nuen agintez* (AL: 1153r) eta *nuen contra ta nola* (A17: 6). *OEH*ren arabera (s.v. *nor*), hau bezalako formak ez dira lekukotzen oso berandu arte: *noen* (Añibarro eta Astarloa).

<sup>388</sup> *euqueen*: ‘zukeen’.

<sup>389</sup> *alcarri ichi*: *ichi* ‘utzi, abandonatu’ aditzarekin datiboa erabiltzeaz, ikusi AL: 1141v ataleko oharra, s.v. *bigueleari ichi*.

<sup>390</sup> *jaguiteco*: ‘(prometidu eben biek) ez elkarri utzi egitea, ez elkar abandonatzea’; *jaguiteco* adizkiari buruz, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *emun jaguiſ*.

Bestalde, bi aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan *prometidu* aditza aditz-izenarekin; batean *-tzen* forma hartu du aditz-izenak (*negar egiten prometidu dau* AL: 1145v) eta bestean *-tzeke* forma (*prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco* AL: 1153v), gaur *-tzea* erabiliko genukeen lekuau.

<sup>391</sup> *arean da*: *arean da* ... artean egitura da,hots ‘harik eta ... arte’; cf. AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *arean da...*

<sup>392</sup> *irago*: *Irango* partizipioa bi aldiz dago eskuizkribuan (AL: 1153r eta A14: 97); aditz-izena beti (lau aldiz) da *iragaite-*: *iragaiteren* (AL: 1146r), *iragaiten* (A2: 19, A17: 70, B17: 44); baina testuko aditz trinko bakarrak kontsonanteen metatesia dauka: *naygaran* (B30: 37). *OEH*ko sarrera (s.v. *igaro*) interesgarria da, hala *igaro* / *irago* alternantziari dagokionean, nola aditz trinkoari dagokionean: “La forma *igaro* es casi general en guipuzcoano, y en vizcaíno es prácticamente la única documentada hasta finales del s. XVII y frecuente desde entonces. *Irago* (documentado ya en Landuccio y Nicolás de Zubia), es la única variante que encontramos en el s. XVIII (*msOñ* (235r), Arzadun, Barrutia, Urquiza, Gamiz (206)); en el XIX es bastante frecuente: Moguel (tbn. *igaro*), fray Bartolomé, Astarloa, Arrese Beitia (tbn. un ej. de *iragotu* (*AmaE* 449)), Iturzaeta; en el s. XX sólo se encuentra en Lauaxeta (AB 58); pero cf. *infra* IGAROKO. Fuera del vizcaíno, emplean *irago* Larramendi (*Cor* 300), Xenpelar (191), F. Goñi y E. Arrese. **Se encuentran formas fuertes en los Refranes de Garibay y Bertso Bizkaitarrak (en ambos aigara), y en Refranes y Sentencias (digaran (231), con suf. de relativo)**; en el s. XX algunos autores (Lauxeta (*BBa* 76), L. Jauregi (*Biozk* 4), Gaztelu (*MusIx* 83)) recrean formas

fresco baçuen<sup>397</sup> azpian, nun, loric goçoenagaz eocen orduan, aditu even cantaetaz<sup>398</sup> etorrela odeietati figura eder bat, ceña ecusiac emun eusten<sup>399</sup> bildur andi bat; eta uste even ce Sirena eta Silbia eroan evenac letocela,<sup>400</sup> aec bere eroatera. Bada bere, odeietati eterrenac verba eguin eusten, manera onetan:

—Ez bildurric ceuren<sup>401</sup> biocetan artu, arçay amoraduac,<sup>402</sup> cegaiti ni ez nator çuey gachic eguiten, dauçaçun<sup>403</sup> gach orrendaco remedio emayten baxe,<sup>404</sup> eta, ala, atencio andiagaz aditu eguidaçu esan gura deusudan bervaoc. Çuec jaquingo doçu ece araenegun<sup>405</sup> ecusi ceben<sup>406</sup> salbajeac direala Narbaeç<sup>407</sup> encantadorearen mutilac,<sup>408</sup>

fuertes como *digaro*. El sust. vbal. *igaraite-* lo emplea Capanaga (part. *igaro*), e *iragaite-* Urquizu (tbn. *iragote-* (57); part. *irago*); hay *igaroite-* en *CatLlo* (96) y *CatBus* (57), siendo en ambos *igaro* el part. En *DFrec* hay 156 ejs. de *igaro*".

<sup>393</sup> *baje*: ‘baxe, baizen, baizik’; formari buruz, ikusi AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *baxe*.

Bestalde, <j> grafia txistukari sabaikariaren balioarekin erabiltzeaz, ikusi AL: 1147v ataleko oharra, s.v. *najala*.

<sup>394</sup> *eguite*: ‘egiten’; -n galdu du, testuinguru fonetikoarengatik.

<sup>395</sup> *da*: ‘eta’.

<sup>396</sup> *arbole*: Hitz-bukaeran -e paragogikoa duen -le bukaerari buruz, ikusi AL: 1147v ataleko oharra, s.v. *naturale*.

<sup>397</sup> *baçuen*: *baçu*, *baçuen*, *baçugaz* formeい buruz, ikusi AL: 1139v ataleko oharra, s.v. *baçu*.

<sup>398</sup> *cantaetaz*: Lazarragaren testuan aditz-izena hiru aldiz baizik ez da agertzen kasu instrumentalean, hiruretan *kantadu* aditzarekin: *aditu even cantaetaz etorrela odeietati figura eder bat* (AL: 1153r), *ençun even aen alderuç cantaetaz etocela guiçon baçu* (AL: 1154v), *Cegaiti beguiratu gura ez doçu / çugaiti nola nagoan cantaetaz?* (A17: 1-2). Gaur egun, gisa horretako moduzko perpaus jokatugabeak zubereraz baizik ez dira erabiltzen.

<sup>399</sup> *eusten*: ‘zien’.

<sup>400</sup> *letocela*: ‘zetozela’; l- aurritzidun hipotetikoko formeい buruz, ikusi AL: 1142r ataleko oharra, s.v. *eugui leguiala*.

<sup>401</sup> *ceuren*: ‘zeuen’; *ceuren* bi aldiz dago eskuizkribuan (AL: 1153r eta AL: 1153v) eta *ceuen* behin (AL: 1154v); bien arteko alternantziari buruz, cf. *OEH*, s.v. *zeuen*: “Además del gral. *zeuen*, hay *zeuren* en el cantar de la quema de Mondragón, Lizarraga de Elcano, J. Etchepare (*Ber* 47, único ej. del autor) y un ej. de Orixé (*in Gaztelu MusIx* 46)”.

<sup>402</sup> *amoraduac*: ‘maiteminduak’.

<sup>403</sup> *dauçaçun*: ‘daukazuen’; zu-ri dagokion aditz-morfema bere jatorrizko plural balioarekin erabiliko da hemendik aurrerako solasean, eskuizkribuan beste askotan bezala.

<sup>404</sup> *baxe*: ‘baizen, baizik’; formari buruz, ikusi AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *baxe*.

<sup>405</sup> *araenegun*: ‘herenegun’; *OEH* ez dakar aldaera hau; cf. Lcc “oy ha tres días, *erenegun*”.

<sup>406</sup> *ceben*: ‘zenituzten’; cf. *eç cebela esango* (AL: 1151v); *cene- > cee- > ce-* aldaketari buruz, ikusi AL: 1151v ataleko oharra, s.v. *baceequi*.

<sup>407</sup> *Narbaeç*: Rodrigo de Narváez, *Historia del Abencerraje y la hermosa Jarifa* (c. 1560-1565) liburuko protagonista da XVI-XVII. mendeetako literaturako Narváez ezagunena, baina haren irudi positiboa ez dator bat hemengoarekin, *Abencerrajeko* Narváez heroikristau zuzen eta onbera baita, eta Lazarragaren Narbaez azti-sorgin bahitzaile gaiztoa. Pánfilo de Narváez (c.1470-1528), Indietako konkistatzaileetako bat, aipatu dute Urkizuk (2004) eta Salaberrik (2004) izen honekin erlazionaturik, izan ere zinez gaizto-

ceñac bere encantamentu andiaz <1153v> icasi eben<sup>409</sup> nola eben<sup>410</sup> eocen<sup>411</sup> çuen causaç; eta, cegaiti çuec eta aec aseguinic artu ez ceguan,<sup>412</sup> eroan dau Confusioco Esera,<sup>413</sup> nun utra catea andiacaz daucan; eta, onerean<sup>414</sup> irugarren egunean ateraco ditu buruac edetera,<sup>415</sup> çuec socorridu ez badaguiçu,<sup>416</sup> nic esango deusudan manera onetan. Çuec jaquingo doçu<sup>417</sup> ece ni bidaldu nabela batalla eta guerrataco jaicoac,<sup>418</sup> ceñari derechan Marte; eta arc emun deust ezpata oec çuendaco, espiluonegaz<sup>419</sup> batetan;<sup>420</sup> eta dio joan çatecela Confusioco Esera, eta, an el çatecenean, ceuren ezpataoc escuetan artu ta, belaurico jarri[ri]c,<sup>421</sup> espiluonetara<sup>422</sup> beguirea çaoçela;<sup>423</sup> eta dacusqueçun<sup>424</sup>

irudia baitu hark, indigena artean eragindako sarraskiengatik; baina ez dugu aurkitu XVI. mendearen amaieran irudi negatibo hori hedatua zela egiaztatzen duen froga ziurrik.

<sup>408</sup> *mutilac*: ‘morroia, zerbitzariak’.

<sup>409</sup> *icasi eben*: ‘jabetu ziren, ohartu ziren’; *icasi* aditzaren adiera honi buruz, ikusi 1142r ataleko oharra, s.v. *icasiric*.

<sup>410</sup> *eben*: ‘hemen’.

<sup>411</sup> *eocen*: ‘egozen, zeuden’, Sirena eta Silbia, alegia.

<sup>412</sup> *cegaiti çuec eta aec aseguinic artu ez ceguan*: ‘zuek eta haien atseginik hartu ez zenezaten’; *cene-* > *cee-* > *ce-* aldaketari buruz, ikusi AL: 1151v ataleko oharra, s.v. *baceequi*.

<sup>413</sup> *Confusioco Esera*: *Casa de Confusión* sintagma ez dugu askotan aurkitu XVI-XVII mendeetako literaturan, baina erabili dute gutxienez Lope de Vegak, Fray Luis de Granadak eta Antonio de Guevarak. Ziur aski Babilonia biblikoarekin lotu behar da hemen, zaldungo-liburu askotan agertzen baitira Babilonia eta Soldán de Babilonia basagizon edo erraldoi dontzeila-bahitzaileekin loturik.

<sup>414</sup> *onerean*: ‘hemendik’, Konfusioko Etxetik, alegia.

<sup>415</sup> *edetera*: ‘edekitzera, kentzera’; *edete-* aditz-izenari buruz ikusi AL: 1153r, s.v. *edetera*.

<sup>416</sup> *socorridu ez badaguiçu*: ‘sokorritzen ez badituzue, laguntzen ez badituzue’.

<sup>417</sup> *Çuec jaquingo doçu*: Pasarte honek Pertseo eta Medusaren mito grekoa gogorarazten du: Pertseo heroikak Medusa munstroa hil behar du, baina haren aurpeigira zuzenean begiratu gabe, harri bihurtzen baititu bere begietara begiratzen dutenak; arazo hori gainditzeko, Ateneak ispilua bezain distiratsua den ezkutua ematen dio Pertseori, eta, Medusa bizi den lekura (Gorgonen Jauregira) joanik, ispiluaren laguntzaz lortzen du Medusaren burua moztea, ispilutik zeharka begiratuta.

<sup>418</sup> *jaicoac*: ‘jainkoak’; *jaico-* hitzaren formari buruz, ikusi AL: 1151v ataleko oharra, s.v. *Jaicoari*.

<sup>419</sup> *espiluonegaz*: *Espilu* hitzaren erreferentea zein den ez da argi pasarte honetan: badirudi ezpata bezainbeste ispilu eskaintzen zaizkiela protagonistei, zeini berea, nahiz eta hemen singularrean agertu. Horregatik, izan lezakeen balio banakaria aintzat hartuta, bere horretan utzi dugu, *espilu* hitzari lotua, bestela erakusle gisa interpreta zitekeen *onegaz*.

<sup>420</sup> *batetan*: Eskuizkribuan behin baizik ez da ageri *batetan* forma, *batean* eta *baten* formen ondoan; esanguratsua izan liteke, adibide gehiagoren faltan, egitura jakin batean agertzea, “X-(r)ekin batean” moduko egituraren. Badirudi *OEHk* dakarren orokortzearen aurka dagoela eskuizkribuko hau: “Tras sintagma nominal con -(r)ekin o -gaz, como señala A. Irigoien (*Eusk* 1978, 752 ss.), sólo se documenta, salvo en Belapeyre, *batean*”; *batetan* bera bezala, egitura hau behin baizik ez da ageri eskuizkribuan.

<sup>421</sup> *jarri[ri]c*: Eskuizkribuan hamar aldiz dago *jarriric*, eta hau litzateke *jarric* bakarra; gainera, erraz ulertzen da idaztean akats hori egitea (-rric pro -rriric); hortaz, testua zuzentzea erabaki dugu.

<sup>422</sup> *espiluonetara*: Hemen ere gorago aipatutako arazoa dugu *espilu* hitzaren erreferentea bilatu nahi dugunean; izan liteke jatorrizko erakusleak balio bereziren hartu izana (arestian aipatutako banakaria edo) bere gramatikalizazio bidean; hartara, eskuizkribuan dagoen bezala utzi dugu *onetara* erakuslea, *espilu* hitzari lotua, balizko ñabardura horien adierazle.

gauçagayti ez beguioc espilurean quendu, cegayti bertati<sup>425</sup> galduco cara, eta, barriz, quendu ez badaguiçu, ni joango nax bear doçun orduan<sup>426</sup> lagunquetara.<sup>427</sup>

Silveroc eta Doridoc leengo bervaoc ençun eguien orduan, utra aseguin andia artu even euren biocetan; ceinçuc, bertati norc bere espiliac eta ezpatac<sup>428</sup> arturic, joan cirean Confusioco Esera, nun eldu cirean irugarren egunean, nox Sirenac eta Silbiac il bear even. Eta, an elduric,<sup>429</sup> jarri citecen beguira canpuruç,<sup>430</sup> nun ecusi even egoala Confusioco Esea, ayn fuerte eta galanto labraduric nola ecin aynbeste munduan al çatean.<sup>431</sup> Onetan eocela, aditu<sup>432</sup> even etocela jente asco deadarrez, ceynçuen erditan etocen Sirena ta Silvia, soca bategaz escu delicaduac loturic lepora,<sup>433</sup> euren guardaçat sey salvaje aldeetati ecartela, ceñac pregonaetan eben Narbaezec aen contra emun eben sentencia,<sup>434</sup> manera onetan:

Narbaez guiçon sabioac  
oyta egun<sup>435</sup> dau aguindu  
<1154r> erioceaz doncellaoac  
oy daguiela pagatu,

onezquero<sup>436</sup> ez ditecen  
amoreagaz<sup>437</sup> burladu,

<sup>423</sup> *çaocela*: ‘zaude(te)la, egon zaitez(t)ela’; *egon* aditzaren subjuntibo trinkoa da.

<sup>424</sup> *dacusqueçun*: ‘ikus dezakezu(e)n’; *ekusi* aditzaren ahalera trinkoa.

<sup>425</sup> *bertati*: ‘berehala’.

<sup>426</sup> *orduan*: ‘momentuan bertan’.

<sup>427</sup> *lagunquetara*: ‘laguntzera’.

<sup>428</sup> *ezpatac*: -aac / -aan bukaerei buruz, ikusi AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *bervaac*.

<sup>429</sup> *an elduric*: *el(du)* ‘iritsi’ aditza inesiboarekin erabiltzeaz, ikusi AL: 1144r ataleko oharra, s.v. *lecuan*.

<sup>430</sup> *canpuruç*: ‘landa zabalerantz’; *canpu* izenaren adierei buruz, ikusi AL: 1145v ataleko oharra, s.v. *canpura*.

<sup>431</sup> *çatean*: ‘zatekeen’.

<sup>432</sup> *aditu*: ‘entzun’.

<sup>433</sup> *lepora*: ‘bizkarrera’; Landuccirenean ‘lepondoa’ da (cf. “çerviz, *lepoa*”, “pescueço, *lepoa*” eta “espalda, *erraya*”), baina ez dirudi eskuak lepondora lotuta eraman daitezkeenik.

<sup>434</sup> *sentencia*: -iea bukaerari buruz, ikusi AL: 1138v ataleko oharra, s.v. *historieac*.

<sup>435</sup> *egun*: ‘gaur’; ikusi AL: 1143v ataleko oharra, s.v. *egun*.

<sup>436</sup> *onezquero*: ‘hemendik aurrera’; *gero* adberbia oinarri duten egiturei buruz, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *dan azquero*. Hemen erakuslean oinarritutako forma dugu.

oençat castigua<sup>438</sup> dan<sup>439</sup> eta  
besteoençat exenplu.

Bioen contra probancea<sup>440</sup>  
clarua dago, ciertu,<sup>441</sup>  
Doridogaz Silveroren bervac<sup>442</sup>  
cerren ez even sinistu.

Alace bada,<sup>443</sup> çuec batera  
guztioc esan eguiçu:  
Amorequin cruel dan[a]c  
onela begui pagatu.

Ençun doçun pregoeau<sup>444</sup>  
eguienean aditu,<sup>445</sup>  
Doridoc eta Silveroc bere  
oy ecin even çufridi.<sup>446</sup>

<sup>437</sup> *amoreagaz*: ‘amoreaz’; Lazarragaren eskuizkribuan bi aldiz aurkitu dugu *-gaz* bukaera instrumentalaren balioarekin: *onezquero ez ditecen / amoreagaz burladu* (AL: 1154r), *Doncellachoa, orain çaoz / soberviagaz beteric* (A8: 1-2). Alderantzizkoa (*-az* bukaera soziatiboaren balioarekin) askoz ugariagoa da, jakina.

<sup>438</sup> *castigua*: ‘zigorra’, eta ez ‘abisua’; dirudienez, Lazarragaren eskuizkribuan *gaztigatu* aditzak beti ‘abisatu’ esan nahi du (cf. A7: 70, A10: 70, A16: 60, A28: 24 eta *gaztigu* A28: 146), eta *castigua* ‘zigorra’ da hemen. Cf. *OEH*, s.v.: “Al Sur se da la distribución de variantes *gaztigatu* ‘avisar’ / *kastigatu* ‘castigar’; hay pocas excepciones —Refranes de Garibay, Beriayn, Iturriaga e Iza— en que *gaztigatu* se emplee para ‘castigar’.”

<sup>439</sup> *dan*: ‘izan dadin’; *izan* aditzaren subjuntivo trinkoa.

<sup>440</sup> *probancea*: ‘frogantza, frogá’; cf. Lcc “probança, probança” eta *DAut*, s.v. *probanza*: “la averiguación o prueba que jurídicamente se hace de una cosa”.

<sup>441</sup> *ciertu*: ‘benetan, egiazki’; cf. Lcc “ciertamente, cierto”.

<sup>442</sup> *Doridogaz Silveroren bervac*: ‘Doridoren eta Silberoren berbak’; “Xgaz Y” egitura da, ‘X eta Y’ adierazteko.

*bervac*: -aac / -aan bukaerei buruz, ikusi AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *bervaac*.

<sup>443</sup> *Alace bada*: ‘hala ze, hortaz’; bi bider dago eskuizkribuan: *alaze* (AL: 1141r) eta *alaze bada* (AL: 1154r).

<sup>444</sup> *Ençun doçun pregoeau*: Hemen, ageriko arrazoi nabarmenik gabe, bertsotan jarri dira narratzailearen hitzak. Beste bitan ere hala egin du (AL: 1145r eta AL: 1147r), baina hau kasu apur bat desberdina da, bera ari zelako *pregoea* bertsotan esaten (beste bietan prosatik bertsotara pasatu da).

<sup>445</sup> *eguienean aditu*: ‘entzun zutenean’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

Belarico<sup>447</sup> jarri cirean;  
 laster citecen armatu;  
 espiluac arçaiteraco<sup>448</sup>  
 oy dira determinadu;<sup>449</sup>

Ceruetaco Erregueari  
 oy dira encomendadu  
 <1154v> suplicaetan liçatela<sup>450</sup>  
 nay lequiela lagundu.<sup>451</sup>

Silvero ta Dorido onela eocela, baetocen Narbaecen jentea<sup>452</sup> euren pregoea declaraetan evela. Donzella desdichaduac euren amoreac an ecusten orduan,<sup>453</sup> ecin çufridu even negar eguin baga egoten, ceñac berva amorosoacaz esan even berva oec:

<sup>446</sup> *çufridu*: ç da, zalantzak gabe, lehenengo letra. Gaztelaniaz ere horrela izan zitekeen; cf. *DAut*: “ZUFRIR. v.a. Lo mismo que *sufrir*, que es como se dice”. Eskuizkribuan hiru aldiz idazten da *çufri*- (AL: 1154r, AL 1154v eta A23: 11) eta hamabi aldiz *sufri*- (horietako bat gaztelaniazko testu batean).

<sup>447</sup> *Belarico*: Eskuizkribuan bost aldiz aurkitu dugu *belaurico* (AL: 1152r, AL: 1153v, A1: 36, A16: 44, B17: 15), eta hemen bakarrik *belarico*. *OEH*ren arabera (s.v. *belauniko*), mendebaldean ez dago forma honen lekukotasunik, *belauriko* baita mendebaldeko forma arrunta XVIII. mendera arte.

<sup>448</sup> *arçaiteraco*: ‘hartzerako, hartzeko’.

<sup>449</sup> *dira determinadu*: ‘erabaki dute’; NOR laguntzailea eta *-t(z)erako* osagarria izatea ez da testu zaharretan ohikoena, adlatibo hutsa baino (*-t(z)era*). Cf. *OEH*, s.v. *determinatu*: “Gralmte. con aux. trans. bipersonal; es intrans. en los ejs. suletinos y al menos una vez en Beriayn. Si lleva orac. subordinada, ésta gralmte. se construye con sust. verbal en alativo; hay tbn. un ej. de completiva con *-la*”.

<sup>450</sup> *suplicaetan liçatela*: ‘suplikatzen zirela, erregutzen zutela’; batetik, NOR erregimenean dago *suplicadu* aditza (horren inguruan, ikusi AL: 1140r ataleko oharra, s.v. *suplicaetan nachaçu*); bestetik, *l-* aurritzidun formei buruz, ikusi AL: 1142 ataleko oharra, s.v. *eugui leguiala*.

Aditzaren formari dagokioenean, ez dirudi *liçatela* hau eta goragoko *liçateala* (AL: 1151v) gauza bera direnik, han *-te-* morfemak hipotetikotasuna adierazten zuen, eta hemen pluraltasuna. *-te-* morfema pluralgileari buruz, ikusi AL: 1144v ataleko oharra, s.v. *baçarade*.

<sup>451</sup> *nay lequiela lagundu*: ‘lagundu nahi izan liezaiekeela’; *nahi izan* aditz-lokuzioaren erabilera, ikusi AL: 1140r ataleko oharra, s.v. *nai daquçula*.

<sup>452</sup> *baetocen Narbaecen jentea*: Dirudienez subjektuaren eta aditzaren arteko komunztadura *ad sensum* da; gaztelaniaz ere badira halako adibideak garaitsu honetan *apud CORDE*): “**venían gente** de todos aquellos pueblos” (Hernán Cortés, 1519-1526, *Cartas de relación*), “allí **venían gente** de otras islas” (Izengabea, 1492-1493, *Diario del primer viaje de Colón*).

<sup>453</sup> *ecusten orduan*: ‘ikusi zituzten orduan, ikusi zitutzenean’; *ekusi* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.

—A, guiçon doloraduac<sup>454</sup> eta cruelac ceuen bicioendaco! Nola açartu çara<sup>455</sup> çaoцен lecura etorten, claru dacusun azquero<sup>456</sup> biciocaz baño guchiagogaz pagatuco ez doçuna?<sup>457</sup> Eta, asiqueasi<sup>458</sup> ilgo çaituen azquero, inolaco maneraz defendidu al bagaguiçu emun gura deuscuen tormentu onetaric, çuen causaz arçaiten<sup>459</sup> dogun azquero, çuec bere libertaduco çara, edo, bestela, guec<sup>460</sup> eta çuec bearco dogu jente cruel oen escuetati eriocea gustadu.<sup>461</sup>

Berva oec arçay biac ençun eguienean, Jaicoac<sup>462</sup> daqui ce aseguin guchi euren biocetan artu even. Bada bere, Marteren mandatariac aguindu eustena ez ausaiterren,<sup>463</sup> ecin ecer eguiñ even; eta doncellac ecustenean euren<sup>464</sup> onerechiac remedioric emaite<sup>465</sup> ez eustela, ya eocen euren esperancea galduric. Bada bere, dios Marteren mandataria ezpata bategaz salvage aer arteti sartu çan, utra aguiz<sup>466</sup> emuten leustela bere ezpata çorroçagaz; ceinçuc ies<sup>467</sup> eguiñ even, Sirenari eta Silviari ichiric;<sup>468</sup> ceñay escuac ascaetan egotela<sup>469</sup> Silvero eta Dorido, ençun even aer alderuç cantaetaz<sup>470</sup> etocela

<sup>454</sup> *doloraduak*: ‘doloretuak, saminduak’.

<sup>455</sup> *açartu çara*: ‘ausartu zarete’.

<sup>456</sup> *dacusun azquero*: ‘ikusten baituzu(e), ikusten duzu(e)nez’; irakur bedi *dakutsun*. Bestalde, *gero adberbia oinarri duten egiturei buruz*, ikusi AL: 1138r ataleko oharra, s.v. *dan azquero*.

<sup>457</sup> *doçuna*: -na konpletiboa da.

<sup>458</sup> *asiqueasi*: ‘ezinbestean’; cf. *DAut.* s.v. *así*: “ASÍ QUE ASÍ o ASÍ COMO ASÍ. Modos de hablar que corresponden a COMO QUIERA QUE SEA. *Ut ut erit, utcumque erit*. Vale lo mismo que decir *ello es forzoso y en cualquiera acontecimiento necesario*”.

<sup>459</sup> *arçaiten*: ‘hartzen’.

<sup>460</sup> *guec*: ‘guk’; formari buruz, ikusi AL: 1147r ataleko oharra, s.v. *guec*.

<sup>461</sup> *gustadu*: ‘dastatu’.

<sup>462</sup> *Jaicoac*: ‘Jainkoak’; *Jaico-* hitzaren formari buruz, ikusi AL: 1151v ataleko oharra, s.v. *Jaicoari*.

<sup>463</sup> *ausaiterren*: ‘haustearren’.

<sup>464</sup> *euren*: Hemen eta beheraxeago (*euren esperancea*) dago eskuizkribuan *eueren*, bietan elkarren ondo-ondoan (eskuizkribuan bata bestearen azpi-azpian). Ez dugu aurkitu beste lekukotasunik ez *OEHn* ez beste inon, eta zuzendu egin dugu idazte-akatsa bide dela pentsatuta, bitan izan arren.

<sup>465</sup> *emaite*: ‘emaiten’; -n galdu du, testuinguru fonetikoarengatik.

<sup>466</sup> *aguiz*: ‘asko, bortizki’; ikusi AL: 1143r ataleko oharra, s.v. *aguiz*.

<sup>467</sup> *ies*: Eskuizkribuan *yes* dakar, baina zalantzarik gabe balio bokalikoa izan behar du (cf. *lerro batzuk gorago, ordea, ya euskaraz, erdikontsonantearen balioarekin*).

<sup>468</sup> *Sirenari eta Silviari ichiric*: *ichi* ‘utzi, abandonatu’ aditzarekin datiboa erabiltzeaz, ikusi AL: 1141v ataleko oharra, s.v. *bigueleari ichi*.

<sup>469</sup> *ceñay escuac ascaetan egotela*: ‘zeinei eskuak askatzen zegozkielarik, zeinei eskuak askatzen zeudelarik’; ‘haiak-haiak egon’ adierazten du aditzak; cf. *Mendiburuk, Ubillosek, Agirrek eta Uriartek erabiltzen duten zegoten*.

-te- morfema pluralgileari buruz, ikusi AL: 1144v ataleko oharra, s.v. *baçarade*.

guiçon baçu,<sup>471</sup> ceñac ecarten<sup>472</sup> multilcho bat,<sup>473</sup> sill a baten jarriric, utra ponpa andiaz, ceñac eucan tafetaezco<sup>474</sup> benda bategaz beguiac isiric eta escuetan arco bat, saeta corroz bategaz armaturic; ceinçuc esaten even utra concer[

## OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**1138r** 1138-1141 orriak apurtuta daude eta testu-zatiak baino ez dituzte. Testu-zati horiek paperean duten disposizioan ematen ahalegindu gara, eskuizkribuko lerroak ere errespetatuta, prosan eta bertsotan diren zatiak ere bereizteko moduan. Galdu dena kalkulatzeko, kontuan izan orrialde hauetako prosako zatian, batez beste, 35-40 karaktere (espazioak barne) eta bost-sei-zazpi hitz sartu ohi direla eskuizkribuko lerro bakoitzean; orrialde hauetako poema gehienak 9/10-, 8a, 9/10-, 8a egiturakoak dira, baina badira zazpi silabako lerroak ere, eta are hamaika, hamabi edo hamalauko gutxi batzuk ere. Kako zuzenekin markatu dugu non apurtu den papera, eta kako zuzen horien ondotik idatzi ditugu erdi-apurtuta geratu diren letrak, erabat ziurrak ez direlako; apurturiko zatietan, ez dugu ezer osatu *ope ingenii*. Lerroaren ezkerreko urratuaren ondorioz, aurreko lerroaren amaieran hitza osatu gabe geratu denean, gidoia erantsi diogu hitzari etenaren lekuan; urratua lerroaren eskuinean denean, hurrengo lerroaren hasieran, hitza nabarmenki moztuta dagoenean ere, ez dugu erantsi gidoirik. || jagui] beste zerbaiten gainean idatzita dago *j-*.   **1138v** ebiliric] -*r*- baten gainean esku berak idatzita dago *-l-*.   **1139r** aleian] esk. *aleia*. || ceña] esk. *cena*. || o-) dirudienez zortzi bertso-lerro zeuden hemendik aurrera.   **1139v** deguidaçula] esk. *dequidaçula*.   **1140v** cantaetan] esk. *cantaeta*. || Sirena] lehenago *Silbia* idatzi eta ezabatu du esku berak.   **1141r** cantu] esk. *çantu*. || çanpoña] esk. *çanpona*. || ucutu] *u-* ez da ondo ikusten, gainean orbana duelako. || daguida] esk. *daquida*.   **1141v** gañean] esk. *ganean*. || catea] *cateea* idatzi du lehenengo, baina bigarren *-e-* ezabaturik dago; gainera, sabaikaritasuna adierazteko erabili ohi duen lakioa dago *-eea* multzoaren gainean.   **1142r** Sirenac] *-en-* lerroartean. || conpañian] esk. *companian*. || ceñagaz] esk. *cenagaz*. || ayn] esk. *ay*. || Aynbat] esk. *ay bat*.   **1142v** conpañia] esk. *compania*. || ceinçuc] *-a-* baten gainean esku berak idatzita dago *-u-*. || alcarri] esk. *alcari*.   **1143r** Ecusiric Sirenac] testu nagusia amaituta zegoela, beste letra-mota batez, bigarren aldiz idatzi da zuriune batean, ondotik datozen bertsoen ezkerretara. || biurquetan] esk. *biurqueta*. || erori] esk. *erorri*.   **1143v** ceñac] esk. *cenac*. || Ene bioz] hitz hasierako *e-* ez da normala; dirudienez *a-* egiten hasi da lehenago, ziurrenik *ai ene* idazteko. ||

<sup>470</sup> *cantaetaz*: Aditz-izena kasu instrumentalean erabiltzeaz, ikusi AL: 1153r ataleko oharra, s.v. *cantaetaz*.

<sup>471</sup> *baçu*: *baçu, baçuen, baçugaz* formei buruz, ikusi AL: 1139v ataleko oharra, s.v. *baçu*.

<sup>472</sup> *ecarten*: ‘zekarten’; *-te-* morfema pluralgileari buruz, ikusi AL: 1144v ataleko oharra, s.v. *çarade*.

<sup>473</sup> *multilcho bat*: Kupidoren irudi topikoa deskribatzen du, begiak itxita maitasunaren irrazionaltasuna adierazteko.

<sup>474</sup> *tafetaezco*: ‘tafetazko’; oihal mota honentzat, *tafetae* (AL: 1154v) eta *tafetan* (B23: 65) formak erabili ditu Lazarragak.

beregaz eroan] *beregaz eugui eroan* idatzi du lehenengo; esku berak idatzi eta ezabatuta dago *eugui*. || Silvia] lehenengo *Silvero* idatzi du, eta gero, gainetik, esku berak *Silvia*. **1144r** asi cirean lau musico] *cirean-en*, -a- baten gainean esku berak idatzita dago -i-. || oñetan] esk. *onetan*. **1144v** despedidu] esk. *despedicu*. **1145r** inorc] esk. *inor*. **1145v** galduric] lerroartean idatzita dago, ziurrenik esku berak beste zerbait (*trucaduric*) ezabatu ondoren. || doçu] beste zerbait (ç.....)ezabatu ondoren, gainean, lerroartean, idatzita. || *Silviac*] *Silviac e zegoen idatzita*; esku berak ezabatuta dago *e hori*. || canpura] tinta-mantxa dago -ra hitz-bukaeraren gainean, eta ez da ondo irakurtzen. **1146r** Silveroc, ceñac] esk. *cenac*. || joateco, ceñac] esk. *cenac*. || Sirenagana] esk. *Silveragana*. || ceñari] esk. *cenari*. || ceña] esk. *cena*. || baño] esk. *bano*. **1146v** ceñari] esk. *cenari*. || erechan] esk. *erecha*. || aberaspatequin] esk. *aberaspatequin*. Cf. hurrengo lerroan (eskuizkribuan biak lerro bukaeran) *aberaspategaz*. **1147r** partiera] *partiera zegoen idatzita*, eta esku berak zuzendu du. || *Silviac siluerac zegoen idatzita*, eta esku berak zuzendu du. || içaaten] esk. *içaate*. || çaut] *çautt zegoen idatzita*, eta esku berak ezabatu du hitzbukaerako -t. || quendu eben] *eben-en*, -i- baten gainean esku berak idatzita dago lehenengo -e-. || ceñac] esk. *cenac*. **1147v** asignaduric] esk. *asignadur*. || *Silviac marra bertikal batez erdiezabatuta dago -c*. || arçaiagati] -t- baten gainean idatzita dago -g-. || Ceñac] esk. *cenac*. || erançun eben] Idatzialdia aldatu da hemen: tinta eta letramolde desberdinak hasten dira. || arçay batac] 1148, 1149 eta 1150 orriak galdu egin dira eta ez daude eskuizkribuan. **1151r** conpañian] esk. *companian*. || bateq] lerroartean beranduago sartuta dago -eq. || ceñari] esk. *cenari*. || eta] ç- baten gainean idatzita dago *e-*. || ta] beste zerbaiten gainean idatzita dago *t-*. || ceñari] esk. *cenari*. || çala] lerroartean beranduago esku berak sartuta dago bigarren -a-. || negarrez] esk. *negarez*. || beguiac] lerroartean beranduago esku berak sartuta dago *-egu-*. **1151v** erri] geroago idatzita dago lehenengo -r-. || sinisquetan] esk. *sinsqueta*. || cerren] esk. *ceren*. || eçteusut] esk. *eçteuçut*. || arçayten] esk. *arçayte*. || negarretan] esk. *negaretan*. || berba] lerroartean idatzita dago -r-. **1152r** *Silviac oytal* *Silviaoyta zegoen idatzita*, eta -c geroago erantsi du, ziurrenik esku berak. || arean da] beste zerbaiten gainean idatzita dago -n-. || sinistu] esk. *sinisti*. || ceñaen] esk. *cenaen*. || jaguiten] esk. *jaguïte*. Beste zerbaiten gainean (agian -c-) idatzita dago j-. || baño] esk. *bano*. || aynbat] esk. *anybat*. || denpora] beste zerbaiten gainean (agian -d-) idatzita dago -p-. || ceñagana] esk. *cenagana*. || engañaduric] esk. *engañaduric*. **1152v** Dorido] esk. *Dorio*. || baño] esk. *bano*. || ascotan, Dorido] *ascotan Silvero Dorido idatzi du*, baina esku berak (idatzi ahala, nonbait) ezabatuta dago *Silvero*. || desengañaduric] esk. *desenganaduric*. || cegati ic] esk. *cegaiyc*. || eidan] beste bi edo hiru letra (agian -iri) daude ondoren, taxtatuta. || Sirenac] esk. *Silbiac*. || lurrera] esk. *lurera*. || Silveroc esan eben] Eskuizkribuan, bi bider idatzita dago lauen arteko elkarrizketa. Lehenengoan lerro-banaketa gabe, eta bigarrenean lerroak elkarrizketaren arabera antolatuta. Testuari dagokionean, bietan da testu berbera, bi ñabardurarekin: solaskideen izenen laburdurak eta *Silbiac / Silviac*. **1153r** arrebatadu cituen] tintaz orbanduta dago -e-, eta -a- ere izan liteke. || ceñac] esk. *cenac*. **1153v** badaguiçu] -çu beste zerbaiten gainean idatzita dago. || arc] esk. *arca*. || jarriric] esk. *jarric*. || eguien] badirudi *eguian* idatzi duela lehenengo. || ayn] esk. *ay*. || bategaz] lerroartean esku berak idatzita dago -te-. || ceñac] esk. *cenac*. **1154r** danac] esk. *danc*. **1154v** regimienturic] -mien- silabako -i- letra azkena erantsi da, -men- idatzi baitu lehenago. || ecusten] -t- letrak ez dauka marratxo horizontala. || ceñac] esk. *cenac*. || amorosoacaz] lerroartean esku berak idatzita dago -az. || baño] esk. *bano*. || arçaiten] esk. *arçaitie*. || ausaiterren] esk.

ausaiteren. || euren] esk. *eueren*. || euren] esk. *eueren*. || ceñay] esk. *cenay*. || ceñac ecarten] esk. *cenac ecarten*. || utra concer] 1155, 1156, 1157 eta 1158 orriak galdu egin dira eta ez daude eskuizkribuan.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “AL – Artzain-liburua” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A1

### Gugaz etorri nai badoçu...

1155-1158 eta 1160-1163 orriak ia osorik galdu direnez, ez dakigu poema hau hemen hasten den ala, hasiera hain zuzenak susmarazten duen bezala, lehenengo lau lerroak aurretik hasiriko elkarritzeta baten zati diren; gauza nahiko ziurra da poema ez zela amaitzen guk ezagutzen dugun moduan.

Baserri giroko nobleziaren jaia aurkezten da poeman, Lazarragaren jaioterritik hurbilekoa. Aipatzen diren herri guztiak dira Aguraingo eskualdekoak eta denak dira bederatzi kilometroren barruan; gaur egun batzuk Barrundiako udalerrian dira (Ozeta, Gebara eta Heredia) eta bat Iruraitz-Gaunako udalerrian (Ezkerekotxa).

Dama ederrak ikustearren doa narratzailea jai horretara, eta gorte giroko jaietan bezala antolaturik aurkitzen ditu hala dontzeilak nola zaldunak, bakoitzak bere herriko bandera eta jantziekin. Zaldun arteko justa edo borrokak aipatzen dira, dama galanten bihotzak irabazteko lehia gisa, baina jai horretako protagonista nagusiak damak eurak dira, eta jaiaren ikusgarritasuna, jantzi, bandera, errotulu eta desfileekin.

<1159r> [...]

—Gugaz etorri nai badoçu,  
erraz daiçu ecusi<sup>1</sup>  
doncella linda damaric<sup>2</sup> asco  
munduan pare bagaric.—  
Joan ninçan da<sup>3</sup> ecusi neben

5

<sup>1</sup> *daiçu ecusi*: ‘dagizu ikusi, ikusiko duzu’; geroaldi zaharra da. Bizkaierazko testu zaharrenetan “partizipioa + egin” perifrasia askotan agertzen da geroaldia adierazteko, baina ez genuen erabilera horren lekukotasunik Arabako euskaran: *çagoquez exilik ta ençun eztayçu guextoric* (RS 18), *Echoçu, eta iaquin daguiçü* (Kap 140), *Edandaysu ostera* (Mik 25), *Baçaquioz virtuteari beti jarraitu / santuçat Iaungoicoa ecussi daiçu* (*Egiaren Kanta* 190-91). Halere, Lazarragak lau aldiz baizik ez du egitura horretara jotzen testu osoan: *gugaz etorri nai badoçu / erraz daiçu ecusi* (A1: 1-2), *Jaun Ceruhoa, nic errazoaz / beti çaidaz loadu* (A6: 11-12), *isasoorec horve guztiaz / beti çaguie laudatu* (A6: 15-16), *Alfer ifini naiçu purgaetan / ozpin-baracacetan seculaco: / ez deraustae besteric ateraco, / salvo bay çaitudala amaetan* (B22: 69-72).

<sup>2</sup> *linda damaric*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa (ikusi CORDE); euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan. Lazarragaren eskuizkribuan, zortzi aldiz aurkitu dugu: AL: 1143r, AL: 1144r, A1: 3, A4: 13, A5: 1, A16: 35, A23: 27, A23: 73.

asco donzella galantic,<sup>4</sup>  
 conciertu concertaduaz  
 oyta<sup>5</sup> guztiac jarriric.<sup>6</sup>  
 Retulo<sup>7</sup> bat ecusi neben  
 canpuaen<sup>8</sup> alde bateti,  
 10  
 urregorrizco letra baçugaz<sup>9</sup>

<sup>3</sup> *da*: ‘eta’.<sup>4</sup> *asco donzella galantic*: ‘dontzeila galant asko’.<sup>5</sup> *oyta*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.<sup>6</sup> *conciertu concertaduaz / oyta guztiac jarriric*: ‘adostu edo hitzartu bezala, behar bezala guztiak jarrik, apaindurik’; justak bezalako ekitaldiek protokolo zehatza zuten; dirudienez, testu honetan adierazpide honek esan nahi du dama guztiak behar bezala jarrita daudela. Ikusi baita A20: 35: *Bivid, por vida vuestra, con concierto*. Cf. *OEH*, s.v. *kontziero*: “Concierto, pacto, acuerdo. “Concierto” Lcc. “Desconvenir, konziertorean irten” Ib.”, eta s.v. *kontzertatu*: “Concertar. “Concertarse”, “concordar uno con otro, bata besteakin konzertadu” Lcc”. Ikusi *El Romance de Calisto y Melibea*, 309. bertso-lerroa: “El concierto concertado ordena de lo tomar” (Carlos Mota, “*La Celestina*, de la comedia humanística al pliego suelto. Sobre el *Romance de Calisto y Melibea*”, *Criticón* 87-89, 2003, 519-535). Ikusi, orobat, Diego de San Pedreno *Tractado de amores de Arnalte y Lucenda* (c. 1480): “Pero después que el tal concierto concertado fuese, del rey sobre mi quedada muy importunado fui”. Ikusi, azkenik, Alonso de Santa Cruz-en *Crónica del Emperador Carlos V* (c. 1550): “Y así mismo no dejan de su parte y de sus allegados yendo contra sus promesas y juramentos y homenajes, y no tan solamente contra los puntos y pactos y conciertos concertados para nos menospreciar”.<sup>7</sup> *Retulo*: ‘errotulu’; justetan parte hartzen zuten zaldunek testu labur bat agertu ohi zuten, gaztelaniaz “rótulo” izenekoa, justa egiteko beren asmo edo helburua laburbiltzen zuena; ziurrenik, hemengo errotuluak halako bati erreferentzia egiten dio.<sup>8</sup> *canpuaen*: ‘jokalekuaren, justa-zeliaaren, justa egiten zen tokiaren’; cf. *DAut*, s.v. *campo*: “El sitio que se destina y escoge para salir a reñir algún desafío entre dos o más personas”. Eskuizkribuan beti dago *canpu* forma, Landuccirenean eta Gamizenean bezala (eta ez *kanpo*, beste autore guztiekin erabiltzen duten bezala, *OEHk* dioenaren arabera). Esanahiari dagokionean, behin bakarrik esan nahi du ‘kanpo’ (vs ‘barru’, A26: 82), eta, ñabardurekin bada ere, bost aldiz dauka Landucciren erabilerara hurbiltzen den ‘landa’ adiera: bitan ‘landa’ (vs ‘hiria’, AL: 1145v eta B17: 67), beste bitan ‘landa zabala’ (vs ‘leku txikia, leku jakin bat, erreferentziako lekua’, AL: 1152v, AL: 1153v), eta behin, hemen, ‘zelaia, jokaleku’ (zehazkiago ‘justetako zelaia’, A1: 10).<sup>9</sup> *baçugaz*: Badirudi eskuizkribuan *batzu* dela oinarrizko gisa erabiltzen den forma. Absolutibozkoetan *batzu* forma bakarrik darabil (AL: 1139v, AL: 1141v, AL: 1146v, AL: 1154v), Hegaoaldeko testu zaharretan agertzen ez dena; ikusi *OEHk* zer dioen (s.v. *batzu*): “Los autores septentrionales de los ss. XVI-XVII distinguen formalmente los casos absoluto y ergativo; hay dos sistemas: *batzu / batzuk* es el de Leïçarraga (Dechepare usa *batzu* para el caso absoluto, pero no hay ej. de ergativo), y *batzuk / batzuek* el de Axular y Etcheberri de Ziburu; Pouvreau utiliza ambos: *batzu, batzuk / batzuk, batzuek*. [...] Al Sur no hay diferenciación formal: en los textos guipuzcoanos, desde el s. XVIII, se encuentra *batzuek* para ambos casos, y en los vizcaínos —ya desde Capanaga— *batzuk*”. Soziatibozko forma (*baçugaz*) horren gainean eraikia dela dirudi, -gaz gehituta; genitiboari dagokionez, *baçuen* da darabilen forma bakarra. Hauxe dakar *OEHk*: “*Batzuen* es casi la única forma para el genitivo: *batzuren* sólo se encuentra en Leïçarraga (junto a *batzuen*), Oihenart y unos pocos autores meridionales del s. XX”.

egoan escreviduric.

Eocen<sup>10</sup> begui ederric asco

aren aldean jarriric;

nungo<sup>11</sup> direan<sup>12</sup> esaten dave

15

alcarri beguiraturic:

—Oçaetaco bandereagaz

oyta gu gara etorri,

iguzquiaren aldean<sup>13</sup> dago

20

gure onrea jarriric,<sup>14</sup>

gueure acean guc darabilgu

mundua catigaturic.—<sup>15</sup>

Goitixeago<sup>16</sup> ecusi neben,

beste alderuz eguinic,

doncella flordelisaric<sup>17</sup> asco

25

<sup>10</sup> *Eocen*: ‘(ba)egozen, (ba)zeuden’.

<sup>11</sup> *nungo*: Eskuizkribuko beste leku batzuetan ere aurkitu dugu predikatiboa artikulurik gabe (cf. B17: 67-69).

<sup>12</sup> *direan*: Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuak bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatuetan ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doeán* (RS), *daroa + -an > daroeanean* (VJ) (cf. FHV 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138r), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B17: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B18: 31, B18: 44), *guinean* (A7: 8, B18: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B18: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *nerouala* (B18: 16). Ohar gaitezen Landuccik ez duela aldaketa horren arrastorik aditzean (“antecedente, *aurrera doana*”).

<sup>13</sup> *iguzquiaren aldean*: Beharbada erreferentzia egin liezaioke justa-kanpoaren alderdi bati, eguzkiaren aldean zegoen alderdiari alegia; izan ere, justetan abantaila izaten zuen eguzkia atzean zuenak, egungo partida askotan bezalatsu. *Canpuauen* hitzari eman zaion adierarekin lotuta dago hau.

<sup>14</sup> *iguzquiaren... gure onrea jarriric*: Ozetako damek adierazten dute beren alde borrokatzeko duten zaldunak justa-kanpoan eguzkiaren aldean jarrita daudela.

<sup>15</sup> *catigaturic*: ‘gatibaturik’; Landuccik *catibadu* dakar.

<sup>16</sup> *Goitixeago*: ‘piska bat gorago’; Lazarragaren eskuizkribuan, *-txo* atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; *-xe* atzizkiak, berriz, hiru balio hartzen ditu: **1)** Txikigarria (*-xe = -txo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *esecoxeo* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxear* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). **2)** Izenondo eta aditzondoen intentsitate-markatzailea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). **3)** Indartzailea (izenordain indartuekin, eta *eben / arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

	guztiac gorriz jancircic:	
	—Gaztelu Guebaracoan gara	
	gu bici defendiduric, <sup>18</sup>	
<1159v>	gure jazteco gorrioc dira	30
	contentuagaz josiric,	
	justaric <sup>19</sup> asco çaldun guztioc	
	eguiten dave gugayti.—	
	Amoriozco erregue jauna <sup>20</sup>	
	ecusi neben bertati, <sup>21</sup>	
	dama baçuen <sup>22</sup> oñetara	35
	oy belaurico ecinic, <sup>23</sup>	
	ceinçuc ecarten <sup>24</sup> deviseagaz	
	eçautu ditut, bada, nic. <sup>25</sup>	

<sup>17</sup> *flordelisaric*: Eskuizkribuan bost bider agertzen da, *flordelisa* hitz eder gisa dama edo dontzeilei egokitua: AL: 1143r, AL: 1144r, A1: 25, A7: 61, B15: 2. Euskaraz ez dugu beste inon aurkitu *flor de lis* hala erabilia, baina bai gaztelaniaz (*apud CORDE*): “sagrada María, blanca flor de lis, clara como el día” (Izengabea, 1420-1520, *Cancionero de Juan Fernández de Ízar*), “de los vientos tramuntana, / de flores la flor de lis, / de las colores la grana, / de las damas Beatriz” (Juan de Simoneda, 1561, *Cancionero llamado Sarao de amor*), “diamantes no son tales, ni rubíes, floresta de flor de lis” (Fray Ambrosio Montesino, 1508, *Cancionero*), “más lindas que flor de lis” (*ibidem*). Gogoan izan, bestalde, *Orlando Furioson* (Lazarragak Jerónimo de Urrearen 1549ko itzulpena ezagutu bide zuen) Brandimarteren maitearen izena dela *Flordelís*.

<sup>18</sup> *Gaztelu Guebaracoan gara / gu bici defendiduric*: ‘Gebarako gazteluan babesturik bizi gara gu’.

<sup>19</sup> *justaric*: ‘zaldunen arteko borrokarik’; cf. Lcc “justa, justea”. Cf., orobat, *DAut*, s.v. *justa*: “Se llama también el juego o ejercicio festivo de caballeros, armados de punta en blanco, en que a modo de alarde ejecutan las acciones del combate con lanzas”.

<sup>20</sup> *Amoriozco erregue jauna*: Ziurrenik Kupidoz ari da, eskuizkribuko beste leku batean *amorezco erregue jauna* (AL: 1151r) deitzen duenaz.

<sup>21</sup> *bertati*: ‘berehala’.

<sup>22</sup> *baçuen*: *baçu*, *baçuen*, *baçugaz* formei buruz, ikusi A1: 11 bertso-lerroko oharra.

<sup>23</sup> *ecinic*: ‘etzinik, etzanik’; eskuizkribuan lau aldiz dago *etzin* aditza forma jokatugabean (*ecin* AL: 1152v, *ecinic* A1: 36, *ecingo* A14: 85, *ezin* A24: 53) eta bi aldiz forma trinkoan (*naç* AL: 1152r, *çaucidenean* A16: 86).

<sup>24</sup> *ecarten*: ‘zekartentzat’; Lazarraga eskuizkribuan, -te- morfema iragangaitzetako NORI eta iragankorretako NORK argumentuen pluralgile bezala agertzen da: *ecarten* (AL: 1153r, AL: 1154v, A1: 37), *liçatela* (AL: 1154v), *egotela* (AL: 1154v), *darabilte-* (A1: 47, A24: 87), *deustet* (A17: 9), *jate* (B3: 77), *eusten* (‘zien’ nahiz ‘zioten’, *passim*); -de- morfema, ordea, iragangaitzetako NOR argumentuaren pluralgile bezala erabiltzen du. Bost aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan: *çarade* (AL: 1144v, B18: 91), *dirade* (A1: 52), *çagode* (A5: 2), *çaucidenean* (A16: 86), *gabilçaden* (A17: 93), *çabilçade-* (B18: 147).

<sup>25</sup> *bada, nic*: Hasieran zalantza egin genuen batera idatzi behar ote zen (*badanic*), baina erabaki genuen ezetz, gainerako *badanic* guztiekin bere ondoren baitakarte (A6: 43, A10: 61, A24: 51, A26: 13, A27a: 7, B5: 27 eta B14: 51).

D'Erediaco galea <sup>26</sup> dator	
ponpa andiaz beteric;	40
oy, ainbat <sup>27</sup> dira ederrac ece	
ni nago admiraduric.	
Çaldunic asco ecusi neben,	
guztiac oriz janciric,	
ceña dan utra <sup>28</sup> librea <sup>29</sup> gacha, <sup>30</sup>	45
desesperançaz <sup>31</sup> beteric;	
Ezquerecochan oy darabilte, <sup>32</sup>	
pensamentuac galduric,	
cegaiti ango larrosachoac	
eztau piedaderic, <sup>33</sup>	50
libreric eta ardura baga	
oyta dirade <sup>34</sup> ebili,	
cegayti ez dau amorioac	
bere flecheaz iregui <sup>35</sup>	

<sup>26</sup> *galea*: ‘bikainena, gorena’; cf. Lcc “*gala, galea*”. Cf., orobat, *OEH*, s.v. *gala*: “GALAREN GALAKO. Excelente, soberbio”. Cf., azkenik, *DAut*, s.v. *gala*: “Se toma assímismo por lo más esmerado, exquisito y selecto de alguna cosa: y assí se dice que uno es la gala del pueblo, lugar, ciudad, etc.”

<sup>27</sup> *ainbat*: ‘hainbat, hain’; eskuizkribuan dakarren *ain bayt* horren ordez *ainbat* zuzendu dugu, eskuizkribu osoan ez dagoelako beste *bait-* bat ere, eta artzain-liburuan usu agertzen delako *ainbat ... ece ...* egitura (artzain-liburuan bakarrik, ordea): *Ainbat sentidu eben ... ece ...* (AL: 1142r), *Aynbat çan ... ece ...* (*ibid.*), etab.

<sup>28</sup> *utra*: ‘oso’; gutxienez Kapanagari eta Oihenarten atsotitzei esker ezagutzen genuen (cf. *OEH*, s.v.).

<sup>29</sup> *librea*: ‘zaldun taldeek jendaurreko ospakizunetan erabiltzen zuten uniformea’; cf. Lcc “*librea, librea, jançia*”. Cf., orobat, *OEH*: “**libriaia** (SP, Urt II 39), **librea** (Lcc, Lar), **libreia**. ♦ *Librea*”. Cf., azkenik, *DAut*, s.v. *librea*: “se llama el vestido uniforme que sacan las quadrillas de caballeros en los festejos públicos como cañas [‘justak’], máscaras, etc.”

<sup>30</sup> *gacha*: ‘txarra’; irudi luke hori kolorearen sinbologiagatik dela txarra, eta horregatik dagoela “desesperantzaz beteric”. Hala ere, horia traizioarekin eta zorotasunarekin lotu ohi da, eta ez dugu aurkitu horia eta etsipena garbi lotzen dituen erreferentziarik.

<sup>31</sup> *desesperançaz*: Eskuizkribuan *desesperanças* (A1: 46) eta *esperanças* (A17: 31) aurkitu ditugu, instrumentalaren markatzat <-s> txistukari apikaria dutela; apikari/bizkarkari neutralizazioa hitz berean bi aldiz gertatzea bitxia bada ere, ez dugu aurkitu hori azalduko duen ezer, eta testuan <-z> bizkarkariarekin ematea erabaki dugu.

<sup>32</sup> *darabilte*: Librea horia darabilte, alegia; -*te-* pluralgileari buruz, ikusi A1: 37 lerroko oharra.

<sup>33</sup> *piedaderic*: Eskuizkribuan hiru aldiagokoa agertzen da *piedade* forma (A1: 50, A16: 6, A16: 33) eta bi aldiagokoa *piadade* (A17: 41 eta A28: 80). Landuccik ere *piadade* (gaztelaniazko “clemençia” eta “piadad”); gaztelaniaz ugari agertzen da CORDEN 1600 arte, eta gero nekez (azkena 1646koa da).

<sup>34</sup> *dirade*: ‘dira’; -*de-* pluralgileari buruz, ikusi A1: 37 lerroko oharra.

aen bioç utra gogorrac,  
bularrac erdiraturic  
[...]

55

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**37** ceinçuc] esk. *ceinçun*.    **41** ainbat] esk. *ain bayt*.    **46** desesperançaz] esk. *desesperanças*; -er-  
leroartean erantsita.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A1 – Gugaz etorri nai badoçu...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

---

<sup>35</sup> *iregui*: ‘ireki, zabaldu’.

## A2

### Çu ecusi ta beste gauçaric...

1160-1163 orriak ia osorik galdu direnez, ez dakigu ziur poema hau hemen hasten den. 1-4 lerroen letrakera gainerakoena baino biribilagoa eta beste eite batekoa denez (letrakera-aldaketa bera dago eskuizkribuko beste leku batzuetan ere, 1147v-1148r orrialdeetan adibidez), pentsa daiteke idatzaldi batean idatzia dela ahapaldi hori (1-4), eta esku berak beste idatzaldi batean idatziak gainerakoak (zorrotzagoa eta etzanagoa da 5-24 lerroetako letrakera). Hala dela onartzen badugu, are beharrezkoago egiten da aurretik zerbait galdu dela pentsatzea, galduriko ahapaldi-segida baten bukaera bailirateke 1-4 lerroak.

Zalantzak gabe, guk ezagutzen dugun moduan amaitzen zen poema hau. Azken ahapaldi hori da, hain zuzen, poemaren gaia laburbiltzen duena: maitea ikustearakin bat maitemindu da harekin, lehen begikolpeko maitasunez, eta, erantzun onik hartu ez duenez, zorigaitzean bizi da harrezkero. Maitasunak nekea eta nahigabea dakar, baina ezin zaio ihes egin. Ez dakigu gaztelaniazko lerroak beste gaztelaniazko poema batekoak diren eta euskarazko hau haren glosa gisa egin den, ala, besterik gabe, euskarazkoan gaztelaniazkoak txertatu diren. Hizkuntza-txandakatzearen errekursoa eskuizkribuko beste poema batean ere erabili da (*Barri onac dacart...* A13).

<1164r>      [...]

Çu ecusi ta beste gauçaric  
oy<sup>1</sup> ezta cerren<sup>2</sup> ecusi,  
cegaiti alegriaric ez da  
munduan çure pareric.

Ain contenturic nago ni çugaz<sup>3</sup>

5

<sup>1</sup> *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>2</sup> *ezta cerren*: ‘ez da zertan, ez da zergatik’; zehar-galdera da, ez kausazko perpausa. Halako hiru aurkitu ditugu eskuizkribuan: *Çu ecusita, beste gauçaric / oy ezta cerren ecusi* (A2: 1-2), *Oi eztot cerren azquero janci / seda finozco calcea* (A24: 29-30), *Oy arrezquero nic ez dot cerren / estudiadu dancea* (A24: 33-34).

<sup>3</sup> *çugaz*: Esanguratsua da eskuizkribuan egin den zuzenketa: *çuregaz* > *çugaz*; izan ere, *-gaz* kasumarkarekin, hala genitiboarekin (-*regaz*) nola gabe (-*gaz*) erabiltzen dira pertsona-izenordainak eskuizkribuan: *neuregaz* (A14: 25) / *nigaz (passim)* / *neurgaz* (A16: 19), *aregaz* (A16: 15, A19: 24) /

nola çu nigaz gaxtoto,<sup>4</sup>  
 cegaiti Jaunac eguin ez naben  
 çure contentamentuco.<sup>5</sup>

Çure beguioc necusenean,  
 bertati<sup>6</sup> neben eçautu  
 oi eta ecin ceindidala  
 neure bician gozadu.<sup>7</sup>

10

Ene laztana, ce daidiçu  
 ceure gogoan pensadu<sup>8</sup>

*agaz* (passim), *beregaz* (AL: 1143v, AL: 1144v) / *beragaz* (B22: 61), *çuregaz* (AL: 1144v, A2: 2oh, A7: 15, A16: 20, A17: 95) / *çugaz* (AL: 1141r, A2: 2, A7: 26, A16: 9, A26: 134, B18: 143), *gugaz* (A1: 1).

<sup>4</sup> *gaxtoto*: ‘gaizto, gaizki’; cf. Lcc “mal, o malamente, *gaystotoro*; malestar, *gaystoto eguon*; maldezir, *gaystoto essan*”.

<sup>5</sup> *contentamentuco*: ‘gozamenerako’; cf. Lcc “plazer o deleyte, *contentamētua*”.

<sup>6</sup> *bertati*: ‘berehalia’.

<sup>7</sup> *ecin ceindidala / neure bician gozadu*: ‘ezin izango zintudala neure bizian gozatu’; \*-idi- erroko adizkia da, balio potentzialarekin.

\*-idi- aditza *egin* aditzaren erro supletibotzat jo ohi da (Lafon 1944 eta geroztikako lanak). Izan ere, testu arkaikoetan, *egin*-ek ez du potentzialeko forma trinkorik erakusten, eta haren ordez \*-idi- erabiltzen da. Mendebalde zein Ekialdeko testuetan aurkitzen da.

\*-idi- aditza trinkoki (*Arbore gaichtoac fructu onic ecin daidi*, Leiz Mat. VII, 18), zein “partizipioa + \*-idi-” gisako perifrasiaaren laguntzaile gisa agertzen zaigu. Azken erabilera hau Mendebaldeko testuetan baizik ez da lekukotzen; eta hori da, hain zuzen ere, espero duguna, *egin* eta \*-idi- banaketa osagarrian badira, eta “partizipioa + *egin*” perifrasia Mendebaldekoa bada: *Mayacean berarra luce da eta sendo, eguitayaren orçac ebagui leydi ondo* (RS 268), *Esan senguida beste gatic / esneydysula trucadu* (Mik TAV 3.1.27).

Lazarraga eskuizkribuan, bost aldiz agertzen zaigu trinkoki jokaturik, eta gehienetan aditz-lokuzio bateko aditza da: *Ecin faltaric neydio / nic on derechadanari* (A3: 9-10), *apa bat baneydiçu ao goçoan; / bacusu ene fedea firmea dana* (A17: 19-20), *Baneidio bati berba, / palagadu al banegui* (A19: 62-63), *beronec bere ezteidio falta gueiago damari* (B27), *Mendi altuan erurra daydi, / aran baxuan eguzqui* (B31: 1-2). Gainerateko kasuetan, perifrasistikoki erabilia da, partizipioa aditz nagusitzat harturik.

Balioari dagokionez, lau baliorekin agertzen zaigu. Gehienetan potentziala adierazten du (zortzi aldiz), baina geroaldiaren balioa ere har dezake (bi aldiz). Behin baldintza irreal bateko apodosian agertzen zaigu, baina hori ez zaigu harrigarria iduritzen, kontuan harturik apodosiak potentzialeko formetarik erator daitezkeela. Azkenik, orain arte ezagutzen ez genuen erabilera batean aurkitu dugu bi aldiz: aginteraren balioarekin; bizkitartean, ez dira agintera “normalak”: orainaldiko forma iragankorren *d-* aurritzka daramate, baina horrekin batera aginterazko formetan erabili ohi den ezeztapenaren partikula: *ze*. Pentsa daiteke geroaldiko formak direla aginteraren balioarekin erabiliak (oroit Leizaragaren mandamentuko *ez duk hilien* tipoko formak).

çuc ni gaxqui tratadu arren  
oy ni naxala aspertu.<sup>9</sup>

15

Cegaiti emayten deustaçu  
çuc onelaco vicia?<sup>10</sup>  
Bici naxala iragaiten<sup>11</sup> dot  
munduco pena guztiac.

20

*Penado de tanta pena*  
nago çu ecusizquero,<sup>12</sup>  
*y ninguna cosa buena*  
oy enetaco ez dago.

<sup>8</sup> *ce daidicu / ceure gogoan pensadu*: ‘ez dezakezu, ez ezazu zeure gogoan pentsatu’; \*-idi- erroko adizkia da (ikusi 11. lerroko oharra) eta agintera adierazten du.

<sup>9</sup> *aspertu*: ‘nekatu, adorea galdu’; cf. Lcc “cansar, aspertu”. Cf. orobat, OEH, s.v. *aspertu*: “2. [...] Cansar(se); desanimar(se); aburrir(se)”.

<sup>10</sup> *Cegaiti emayten deustaçu / çuc onelaco vicia?*: Beste aukera bat da, galdera zuzena dela pentsatu beharrean, kausazko mendeko gisa ulertzea, hainbat baitira taiu honetakoak ere, agian gehiago. Halere, hitz-ordenaren arabera erabaki dugu errazago dela galdera izatea: “galdera + ondorioa” vs. “perpaus nagusia + kausazko mendekoa”; cf., adibidez: *Doristeo, çaldun gazte bat, / ebilen penaz beteric, / cegaiti utra on erechan / Silvia donzelleari* (AL: 1145v).

<sup>11</sup> *iragaiten*: Aditz honen partizipioa beti (bi aldiz) da *irago* eskuizkribuan (AL: 1153r eta A14: 97); aditz-izena beti (lau aldiz) da *iragaite-*: *iragaiterren* (AL: 1146r), *iragaiten* (A2: 19, A17: 70, B17: 44); baina testuko aditz trinko bakarrak kontsonanteen metatesia dauka: *naygaran* (B30: 37). OEHko sarrera (s.v. *igaro*) interesarria da, hala *igaro / irago* alternantziari dagokionean, nola aditz trinkoari dagokionean: “La forma *igaro* es casi general en guipuzcoano, y en vizcaíno es prácticamente la única documentada hasta finales del s. XVII y frecuente desde entonces. **Irago (documentado ya en Landuccio y Nicolás de Zubia)**, es la única variante que encontramos en el s. XVIII (*msOñ* (235r), Arzadun, Barrutia, Urquizu, Gamiz (206)); en el XIX es bastante frecuente: Moguel (tbn. *igaro*), fray Bartolomé, Astarloa, Arrese Beitia (tbn. un ej. de *iragotu* (*AmaE* 449)), Iturzaeta; en el s. XX sólo se encuentra en Lauaxeta (AB 58); pero cf. *infra* IGAROKO. Fuera del vizcaíno, emplean *irago* Larramendi (*Cor* 300), Xenpelar (191), F. Goñi y E. Arrese. **Se encuentran formas fuertes en los Refranes de Garibay y Bertso Bizkaitarrak (en ambos aigara), y en Refranes y Sentencias (digaran (231), con suf. de relativo)**; en el s. XX algunos autores (Lauxeta (BBa 76), L. Jauregi (*Biozk* 4), Gaztelu (*MusIx* 83)) recrean formas fuertes como *digaro*. El sust. vbal. *igaraite-* lo emplea Capanaga (part. *igaro*), e *iragaite-* Urquizu (tbn. *iragote-* (57); part. *irago*); hay *igaroite-* en *CatLlo* (96) y *CatBus* (57), siendo en ambos *igaro* el part. En DFrec hay 156 ejs. de *igaro*”.

<sup>12</sup> *çu ecusizquero*: ‘ikustean’; gero adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumental + -quero” eta “partizipio + azquero” egiturak erabiltzen dira. Hemen “partizipioa + zquero” dugu. Perpaus honetan baldintzazko ñabardura ere antzeman daiteke, beharbada.

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

5 Ain contenturic nago ni çugaz] *curegaz ainbat* idatzi du lehenengo, baina erdiezabatu eta hutsetik hasi du berriz ahalaldia.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A2 – Çu ecusi ta beste gauçaric...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

A3

## **Joan gura dot ecusteria...**

Beste editore batzuek bestelakorik egin badute ere, ez dago zalantzarik hau dela poemaren ahapaldi-banaketa. Poema bat baino gehiago dira eskuizkribuan egitura bera dutenak (ikusi, adibidez, A5, A8 eta A9): lehenengo ahapaldiak lau lerro ditu, eta horietako hirugarrena eta laugarrena errepika dira; gero, zortzi lerroko ahapaldiak datoz, eta horietako zapzigarrenean eta zortzigarrenean agertzen da berriz errepika. Errepikak berak ematen du, jakina, poemaren giltzarria: maitearen mespretxuak oinazea (eta heriotza!) dakarkion arren, maitea ikusi eta haren aurrean izan nahi du.

<1164v> Joan gura dot ecustera  
nic on derechadanari;<sup>1</sup>  
joan gura dot ecustera,  
arc ilte<sup>2</sup> naben guero<sup>3</sup> ni.

Lastimaduric joango nax  
amoreaz da<sup>4</sup> fedeaz,  
beti bere erruqui naben<sup>5</sup>  
munduac eta genteac.  
Ecin faltaric neydio<sup>6</sup>

<sup>1</sup> *on derechadanari*: ‘maite dudanari’; pazientea datiboa markatzen du: ‘nik-hari ikustera joan gura dut’. Aditz iragankorren berregituratzearren lekukotasunik (NORK NOR > NORK NORI) ez dugu euskara arkaikoan, ez eta Lazarragaren testuan ere, eta, hortaz, zuhurrena da pentsatzea datiboa errimarengatik agertzen dela adibide honetan, eta, beharbada, horretan lagundu du *on erechi* aditzaren beraren erregimenak ere.

<sup>2</sup> ilte: -n galdu du, testuinguru fonetikoarengatik (n- hurrengo silaban) leloaren agerraldi guztieta.

<sup>3</sup> *ilte naben guero*: ‘hiltzen bainau, hiltzen nauenez’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n guero* hau horietako bat da.

<sup>4</sup> *da: 'eta'*

<sup>5</sup> *erruqui naben*: ‘nitaz erruki izan dezan’; *naben*, \**edun* aditzaren subjuntibozko forma trinkoa da (hark-ni).

<sup>6</sup> *Ecin faltaric nevdio;* ‘faltarik ezin egin niezaioke’; \*-idi- erroko adizkia da, balio potentzialarekin.

\*-idi- aditza *egin* aditzaren erro supletibotzat jo ohi da (Lafon 1944 eta geroztikako lanak). Izan ere, testu arkaikoetan, *egin*-ek ez du potentzialeko forma trinkorik erakusten, eta haren ordez \*-idi- erabiltzen da. Mendebalde zein ekieldeko testuetan aurkitzen da.

nic on derechadanari.

10

Joan gura dot ecustera

arc ilte naben guero ni.

—Cu ecustera etortearren,<sup>7</sup>

ene lindacho maitea,

penaric asco iragaro<sup>8</sup> dot

15

egunean da gabean.—

Ona eterri naxan azquero,<sup>9</sup>

esquerric asco Jaunari.

Joan gura dot ecustera

\*-idi- aditza trinkoki (*Arbore gaichtoac fructu onic ecin daidi*, Leiz Mat. VII, 18), zein “partizipioa + \*-idi-” gisako perifrasaren laguntzaile gisa agertzen zaigu. Azken erabilera hau mendebaldeko testuetan baizik ez da lekukotzen; eta hori da, hain zuzen ere, espero duguna, *egin* eta \*-idi- banaketa osagarrian badira, eta “partizipioa + *egin*” perifrasia mendebaldekoa bada: *Mayacean berarra luce da eta sendo, eguitayaren orçac ebagui leydi ondo* (RS 268), *Esan senguida beste gatic / esneydysula trucadu* (Mik TAV 3.1.27).

Lazarragaren eskuzkribuan, bost aldiz agertzen zaigu trinkoki jokaturik, eta gehienetan aditz-lokuzio bateko aditza da: *Ecin faltaric neydio / nic on derechadanari* (A3: 9-10), *apa bat baneydiçu ao goçoan; / bacusu ene fedea firmea dana* (A17: 19-20), *Baneidio bati berba, / palagadu al banegui* (A19: 62-63), *beronec bere ezteidio falta gueiago damari* (B27), *Mendi altuan erurra daydi, / aran baxuan eguzqui* (B31: 1-2). Gainerateko kasuetan, perifrastikoki erabilia da, partizipioa aditz nagusitzat harturik.

Balioari dagokionez, lau baliorekin agertzen zaigu. Gehienetan potentziala adierazten du (zortzi aldiz), baina geroaldiaren balioa ere har dezake (bi aldiz). Behin baldintza irreal bateko apodosian agertzen zaigu, baina hori ez zaigu harrigarria iduritzen, kontuan harturik apodosiak potentzialeko formetarik erator daitezkeela. Azkenik, orain arte ezagutzen ez genuen erabilera batean aurkitu dugu bi aldiz: aginteraren balioarekin; bizkitartean, ez dira agintera “normalak”: orainaldiko forma iragankorren *d-aurrizkia* daramate, baina horrekin batera aginterazko formetan erabili ohi den ezeztapenaren partikula: *ze*. Pentsa daiteke geroaldiko formak direla aginteraren balioarekin erabiliak (oroit Leizarragaren mandamentuko *ez duk hilen* tipoko formak).

<sup>7</sup> *etortearren*: ‘etortzearren, etortzeagatik’; *-arren* atzizkiak hiru aldaera ditu eskuzkribuan, *-gatik* atzizkiaren baliokide gisa aditz-izenari gehituta, mendebaldeko tradizioaren arabera: *-tearren*, *-etarren* eta *-t(z)erren*. Ikusi *etortearren* (A3: 13); *probaetarren* (AL: 1139r), *castaetarren* (A14: 77), *contaetarren* (B3: 47); eta *ecusterren* (AL: 1142r, AL: 1145r, AL: 1147v), *iragaiterren* (AL: 1146r), *iracasterren* (A14: 47), *ebilterren* (B18: 120), *alabacerren* (A6: 41), *servicerren* (A14: 115). Izenari gehituta ere aurkitu dugu, *-gatik* atzizkiaren baliokide, lau bider: *amorearren* (AL: 1143v, A7: 89, B22: 14), *dirurren* (B17: 60).

<sup>8</sup> *iragaro*: ‘igaro, sufritu, jasan’; berez *igaro*-ren kausatiboa da. *OEHk* ez dakar.

<sup>9</sup> *naxan azquero*: ‘eterri bainaiz, eterri naizenez’; *gero* adberbia oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzeten ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n azquero* horietako bat da hau.

arc ilte naben guero ni.

20

	—Ene fedreau andia da ta ondo tratadu naguiçu; oneinbat <sup>10</sup> bider eriocea cerren <sup>11</sup> emaiten didaçu?—	
<1165r>	Ene lindea servicen bada, <sup>12</sup> colpe batean il nagui. <sup>13</sup> Joan gura dot ecustera arc ilte naben guero ni.	25

---

## OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**9** Ecin] esk. *ezcin*. Bai testuan, bai kanpoan *cz* grafia ezezaguna da /s/ adierazteko. Bietara idazten du, *ecin* eta *ezin*, baina lehena da ugariena alde handiz.   **13** etortearren] esk. *etortearren*.   **25** servicen] aurrean *g* tatxatuta.

<sup>10</sup> *oneinbat*: ‘honenbat, honenbeste’; hiru graduoko adberbioa dago eskuizkribuan, batzuetan monoptongaturik eta beste batzuetan monoptongatu gabe: *oneinbat/oninbat, orrinbat, aynbat/ainbat*. Cf. *oneinbat* (AL: 1152v, A3: 23, B3: 51), *oneinbategaz* (B2: 7, B7: 17), *oneinbatenaz* (A24: 9), baina *oninbatenaz* (A23: 33 eta 85); *orrinbat* (A26: 70); eta *ainbat/aynbat (passim)*; monoptongazio horien antzekoa da orobat *cinbat* (A26:79).

<sup>11</sup> *cerren*: ‘zergatik’.

<sup>12</sup> *servicen bada*: ‘egin nahi badu, egitea gogoko badu’; cf. *DAut*, s.v. *servirse*: “Agradarse de alguna cosa, quererla, o admitirla con gusto. Úsase en el estilo cortesano, quando se suplica, o pide a alguno que execute algo”. Eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu ditugu halako esamoldeak: *servidu içaten liçala* (AL: 1142v), *çu baçarade servicen* (AL: 1144v), *servicen bada* (AL: 1147r, A3: 25), *servidu jaguin artean* (A24: 136), *servidu bada* (B4: 5), *çu baçarade serbietan* (B18: 91).

<sup>13</sup> *il nagui*: ‘hil nazala’; euskara historikoan, jusiboa *b-* aurritzidun (*besa, esan beza...*) edo *-la* atzizkidun (*datorrela, etor dadila...*) formen bidez adierazi ohi da. Lazarragak erabilera ezezagun baten berri ekartzen digu iragankorretan. Izan ere, subjektua 3. pertsonakoa duten formak, aginterazko forma arruntak bezala eratu ditzake, aurritzki edo atzizkirik gehitu gabe: *il nagui* (A3: 26), *ezcondu nagui* (A19: 4), *ifini nagui* (A28: 33), *ecusi nagui* (B17: 18). Azpimarratu behar da bildutako forma guztiak 1. pertsonako objektua dutela, eta objektua 2. pertsonakoa dutenekin *-la* atzizkidun formak erabiltzen dituela: *Jaun cerucoac, ene laztana, oy deguiçula parcatu* (AL: 1146r).

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A3 – Joan gura dot ecustera...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.),

*Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A4

### Otras: Arren, egua bat çarrezt...

XV-XVI. mendeetako gaztelaniazko *cancionero* motako bildumetan ohikoa zen poema baten izenburua izatea “Canción [...]”, eta gero, hurrengo batzuen aurrean, “Otras” jartzea, “Otras canciones” osorik idatzi beharrean; edo “Copla [...]”, eta gero “Otras”, “Otras coplas” idatzi beharrean. Pentsatu behar dugu galdu diren orrietakoren batean (1155-1158 edo 1160-1163 orriak) zegoela horietako “kanzio” edo koplaren bat, eta ondoren datozen bost ahapaldiak direla “Otras”. Bostak dira molde tradizionaleko kopla luzeak eta ahozko literaturaren oihartzuna dute (bereziki hirugarrenak eta bosgarrenak: bi partetan banatuak, sarrera estilizatuan irudi ordezkarria eta bertso-azken figuratiboan irudi fokala). Bostetan aipatzen dira maitasun kontuak.

<1165r>

*Otras*

—Arren, egua bat çarrezt:<sup>1</sup>

on dereiztaçun<sup>2</sup> ala ez.—

—Aoan laztan çaitudaz,<sup>3</sup> baña

gogoan baterere<sup>4</sup> ez.

Doncellacho atrevidea,<sup>5</sup>

5

<sup>1</sup> *çarrezt*: ‘erran iezadazu, esaidazu’; *erran* aditzaren agintera trinkoa, NOR-NORI jokoan erabilia. Esanahia argitzat daukagu, baita jokoa NOR-NORI dela ere (zu-niri). *Erran*-en adizkitzat jotza dugu, formalki, irtenbide bakarra, joko iragangaitzak sortzen digun zalantza gorabehera. Araban haren arrastorik bada (cf. Landucci “sacerdote, *meçarralea*”). Bestalde, aintzat hartu *esan* eta *erran* ez direla nahitaez elkarren aldaerak (cf. Lakarra 2008).

<sup>2</sup> *on dereiztaçun*: ‘maite nauzun’; aditzaren formari dagokionean, badira honen kide gehiago testuan zehar: *on dereiçut* (AL: 1144r), *ereiçan* (AL: 1145r), *nola ereiçun* (A7: 73), *ereyçan* (A11: 3), aditzaren bi adieretan, baina ugariago dira palatalizaturiko adizkiak: *derechana*, *derechula*, *derechadan*, *derechudan*, *derecho...*

<sup>3</sup> *laztan çaitudaz*: ‘maite zaitut’; cf. *OEH*, s.v. *laztan*: “LAZTAN IZAN (trans.) (V-ger-arr-oroz, G ap. A; Añ, Izt). Amar, querer”.

<sup>4</sup> *baterere*: ‘batere’; cf. *OEH*, s.v. *batere*: “Hemos encontrado algún ej. de *baterere* en Etcheberri de Ziburu, Beriayn y Lizarraga de Elcano”.

<sup>5</sup> *atrevidea*: ‘errespetu gabea, lotsagabea’; cf. *Mari Lopezco atrebidea* (A27b: 1). Ik. Urt Gram (*apud OEH*, s.v. *atrebitu* 2): “Insolent, *inpudenta*, *insolenta*, *atrebitua*, *ahalkegabeea*”. Ik. orobat *DAut*, s.v. *atrevido*: “Se suele tomar por descompuesto, demasiadamente libre y arrojado, falto de respeto, inconsiderado y desatento”.

ez çabilç ene gogoan, ez,  
bestela ondo deiçut,<sup>6</sup> baña  
ezcondu baxinbatean<sup>7</sup> ez.

Gure ortuan madari,  
guraçauric<sup>8</sup> amabi,  
beste amore bilatuco nax  
amore bear banadi.<sup>9</sup>

10

Ene laztancho linda damea,<sup>10</sup>  
esporçu<sup>11</sup> artu eguiçu;

<sup>6</sup> *ondo deiçut*: ‘ondo egingo dizut, on egingo dizut’ adierazi nahi duela ematen du. Honen antzeko beste adibide bat dago eskuizkribuan: *neure buruau ez nei ondo / andratan confiacea* (A24: 169).

Cf. orobat *OEH*, s.v. *ondo*: “ONDO EGIN (Lcc). **a**) Hacer (el) bien; beneficiar, favorecer. “Bien hacer, *ondo egin*” Lcc. “Bienhechor, *ondo egiten deuena*” Ib. v. ON EGIN. • *Tr.* Documentado en RS y, desde principios del s. XIX, en autores occidentales, principalmente vizcaínos. ★ *Ondo egiok landerrari, Iainkoak dikek donari*. “Haz bien al pobre”. RS 265”. Eskuizkribuan *egin* aditzaren edo laguntzailearen hiru pertsonako adizki gehienek *degui-* hasiera dute; salbuespenak hemengo hau eta AL: 1147v ataleko *deiguçula* dira.

Aitortu behar da testuinguruan *ondo de(r)itzut* errazago ulertuko litzakeela, baina formaz aski zaila da azaltzen, zeren eta *dereiçut* edo *derechut* behar bailuke (cf. gorago *dereizaçun* (A4: 2) formari egindako oharra), eta *on, ez ondo*.

Aditz-formari dagokionean, geroaldi zaharra da. Mendebaldeko testu arkaikoetan *egin* trinkoaren orainaldiko forma biluziak (atzizki edo aurritzirik gabeak) beti geroaldiaren balioa du (cf. *Eztay eseric eztauenac aurfrjic* (RS 463) “Casa no hará quien hijos no ha”; *Astoagaz adi quirolan, ta deyc buztanaz biçarrean* (RS 116) “Regozijate con el asno, darte ha en la barba con el rabo”). Lazarragarenean *egin* biluziaren bi adibide aurkitu ditugu, eta bietan adierazten da geroaldia: *Doncellacho atrevidea, / ez çabilç ene gogoan, ez, / bestela ondo deiçut, baña / ezcondu baxinbatean ez* (A4: 5-8) eta *Oy eseguino lagun deycut / badoçu borondateric* (A7: 111-112).

<sup>7</sup> *ezcondu baxinbatean*: ‘ezkontzeko bezainbeste, ezkontzeko adina’.

<sup>8</sup> *guraçauric*: ‘gurazaoak, friskuak’; mertxikaren familiako arbolari eta fruituari esaten zaio *gurazaua*. Cf. Larramendiren hiztegi hiruelekoan: “Durazno, arbol, fruta, *gurazaoa, friscua*. Lat. Malus Persica duracina, Malum Persicum duracinum”.

<sup>9</sup> *beste amore bilatuco nax / amore bear banadi*: ‘beste amore bat bilatuko dut, amorea behar badut’; Lazarragaren testuan *bilatu* aditza iragangaitza da, agertzen den hiru lekuetan: *beste amore bilatuco nax* (A4: 11), *Pensamentuac leuacela / dolerez manteniduric, / remedioa bila citecen, / eurençat gora costaric* (A11: 31-34), *bila ce çatez besteric* (A27: 34).

<sup>10</sup> *linda damea*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa (ikusi CORDE); euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan. Lazarragaren eskuizkribuan, zortzi aldiz aurkitu dugu: AL: 1143r, AL: 1144r, A1: 3, A4: 13, A5: 1, A16: 35, A23: 27 eta A23: 73.

<sup>11</sup> *esporçu*: ‘adore’; cf. *OEH*, s.v. *esportzu*: “Ánimo, fuerza, apoyo, consuelo”.

uste guchien doçun orduan,  
enegaz bearco doçu.

15

Urtan<sup>12</sup> eder arria,  
aen gañean choria,  
amorantian lequidanari<sup>13</sup>  
atera neio beguiac.<sup>14</sup>

20

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**1** Arren] esk. *ARen*. || çarrezt] esk. *çarezt*.    **2** dereiztaçun] esk. *dereiztaquin*. Aurreko *ain bayt-en* kasuan bezala, diptongoaren oihartzunez egindako akatsa bide da.    **3** baña] esk. *bana*.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A4 – *Otras: Arren, egua bat çarrezt...*” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

---

<sup>12</sup> *Urtan*: ‘uretan’; -e- bokal epentetikorik gabeko forma lekukotua zen, besteak beste, Landuccirenian: “remojo, *urtan egutea*”, “cozido en agua, *urtan egossia*” (baina “çambullir, *urean stali*?”). Ikuusi, bestalde, *OEHk* zer dakarren (s.v. *ur*): “*Urta-*, además de en los septentrionales Etcheberri de Ziburu y Gasteluçar (158), se documenta en la tradición meridional, con frecuencia relativamente decreciente: *RS*, *RIs* (85), Micoleta, Cardaberaz (*Eg* III 336), Ubillos, Aguirre de Asteasu (III 600), Iztueta (*C* 128), Bilintx (157), Urruzuno (*Urz* 60), Arrue (*May* 34), Barandiaran (*ELG* 44), Basarri (99) y Gandiaga (*Elorri* 209)”. Hurbiltasun semantikoarengatik, eta hau ere monosilaboa baita, aipagarria da *su* hitzaren leku-kasuetako *surtar*- forma.

<sup>13</sup> *amorantian lequidanari*: ‘gorteiatzen, limurtzen arituko litzaidakeenari, ibil lekidakeenari; ni gorteiatzen ibil dadinari’; *lequidanari*, \**edin* aditzaren NOR-NORI forma da (hura-niri), hipotetikoan. Bestalde, cf. *OEH*, s.v. *amorantia*: “Galanteo. SP traduce Ax 177 como “amourette” y remite a Ax 517. “Enamoramiento”, “galanteo”, “galantear, *amorantian, amurusian ibilli*” Lar”. Gogoan izan izena *amorantia* dela, eta ez *amorantea*, eskuizkribuan ez baita inoiz *ea > ia* gauzatzen.

<sup>14</sup> *atera neio beguiac*: ‘aterako nizkioke begiak’.



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A5

### Linda damachoa...

A3, A8 eta A9ren ahapaldi-egitura bera du poema honek. Lau lerroko ahapaldian aurkezten da errepika (hirugarren eta laugarren lerroetan), eta, ondoren, zortzi lerroko hiru ahapaldietan, zazpigarren eta zortzigarren lerroetan biltzen da lelo hori. Horren arabera, esango genuke poema osoa ezagutzen dugula, esan nahi baita ez dela poema-bukaera galdu, eskuizkribuko 1166-1168 orriak galdu diren arren. Leloak argitu beharko luke poemaren gai nagusia, baina hain zuen bi lerro horiek dira, hitz guztiak ezagunak izan arren, poema honetako esaldirik ilunena; dirudienez (gure interpretazio bat da, inola ere ez ziurra), mutilak ez du lortzen nesken gogoan geratzea, ahaztu egiten dute beti (pentsamenduan galdu), eta “linda damatxoaren” buruan zer dabilen jakin nahi du mutilak; neskak zein kezka duen jakin nahi du, eta ea berak maite duen moduan maiteko duen.

<1165v> Linda damachoa,<sup>1</sup>  
nola çagode?<sup>2</sup>  
Beti pensamentuan  
galçaen çaytue.<sup>3</sup>

<sup>1</sup> *Linda damachoa*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa (ikusi CORDE); euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan. Lazarragaren eskuizkribuan, zortzi aldiz aurkitu dugu: AL: 1143r, AL: 1144r, A1: 3, A4: 13, A5: 1, A16: 35, A23: 27 eta A23: 73.

<sup>2</sup> *çagode*: ‘zaude’; testuan *çaoz(a)* ugari agertzen dira, hala indikatiboan nola aginteran, baina *çagode* formaren kidekorik bat ere ez. *Egon* aditzaren *-ago-* erroa beste hauetan ere bada: *gagoçu* (AL: 1147v), *nagoçu-* (AL: 1139v, AL: 1152v, A16: 45, B3: 73, B3: 88, B22: 24).

Lazarragak *-de-* morfema iragangaitzetako NOR argumentuaren pluralgile bezala erabiltzen du. Bost aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan: *çarade* (AL: 1144v, B18: 91), *dirade* (A1: 52), *çagode* (A5: 2), *çaucidenean* (A16: 86), *gabilçaden* (A17: 93), *çabilçade-* (B18: 147). *-te-* morfema, ordea, iragangaitzetako NORI eta iragankorretako NORK argumentuen pluralgile bezala agertzen da eskuizkribuan: *ecarten* (AL: 1153r, AL: 1154v, A1: 37), *liçatela* (AL: 1154v), *egotela* (AL: 1154v), *darabilte-* (A1: 47, A24: 87), *deustet* (A17: 9), *jate* (B3: 77), *eusten* (‘zien’ nahiz ‘zioten’, *passim*).

<sup>3</sup> *çaytue*: Leloan lau aldiz agertzen da orotara, eta lauretan berdin jokatu du zuzentzaileak: *çaytuez* idatzi da lehenengo idatzaldian, eta gero -z marratxo batez ezabatu da. Beste agerraldi bat baino ez dago, eta hura -z gabekoa: ...[zuek] *ilgo çaituen azquero* (AL: 1154v). -z pleonastiko horiek ez dira ezinezkoak, noski, nahiz hain zaharrak izan zitezkeenik ez zen pentsatzen. Aipagarria da, gainera, Martin Lopez Bikuñak bertso-lerroak aldamenean kopiatu dituenean *çaituez* kopiatu duela, aldaketarik gabe (ik. 1-5 lerroetako ohar paleografikoa).

Ecer trabajuric <sup>4</sup>	5
oyta <sup>5</sup> badoçu,	
ene laztanchoa,	
arren, esaçu;	
guztiau çurea nax ta	
erraz daguiquet. <sup>6</sup>	10
Beti pensamentuan	
galçaen çaytue.	
Ene laztanorrec,	
arren, esaçu	
laztan ninduquezun <sup>7</sup>	15
on banerechu; <sup>8</sup>	
çure mutil ninçan <sup>9</sup>	
gura cenduque?	
Beti pensamentuan	
galçaen çaitue.	20
Inoen bildur baga,	
arren, esaçu	
ceure pensamentuan	
cer daducaçun;	
çurequin ene <sup>10</sup> faltaoc	25
estalico det. <sup>11</sup>	

<sup>4</sup> *trabajuric*: ‘trabarik, arazorik’.

<sup>5</sup> *oyta*: Eskuizkribuko poematan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertsolerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>6</sup> *erraz daguiquet*: ‘erraz egingo dut, erraz egin dezaket’; kolokazio bera dago beste leku batean ere: *Nic au erraz daiquet neure partez* (A17: 15).

<sup>7</sup> *laztan ninduquezun*: ‘maitatuko nindukezun’; cf. *OEH*, s.v. *laztan*: “LAZTAN IZAN (trans.) (V-ger-arrozo, G ap. A; Añ, Izt). Amar, querer”.

<sup>8</sup> *on banerechu*: ‘maitatuko bazintut’.

<sup>9</sup> *ninçan*: ‘izan nendin’; *izan* aditzaren subjuntivo trinkoa.

<sup>10</sup> *çurequin ene*: ‘zure eta nire’; “Xrekin Y” egitura da, ‘X eta Y’ adierazteko.

<sup>11</sup> *det*: *de-* moldeko \**edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan (eta gehienak Estibaliz Sasiolakoaren poeman agertzen dira): *det* (A5: 26, B30: 12, B30: 14, B30: 20, B30: 45, B30: 60), *dedan*

Beti pensamentuan  
galçaen çaitue.

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**1** Linda damachoa] *Linda damachoa nola çanode* idatzi du lehenengo, lerro bakarrean.    **1-5** Linda damachoa ... ecer trabajuric] lehenengo ahapaldi osoa eta bigarren ahapaldiaren lehenengo bertsolarroa beste esku batek (Martin Lopez Bikuñak, ziur aski) kopiatu ditu, bigarrenez, testu nagusiaren eskuinetara; testu berbera da, aldaera bakar batekin: *trabajuric / travaxa*.    **2** çagode] esk. *çanode*, beharbada aurreko *no-* horren oihartzunez.    **3** çaytue] *çaytuez* idatzi du, eta gero -*z* marratxo batez ezabatu, berak edo beste norbaitek.    **10** daguiquet] esk. *daquiquet*.    **12** çaytue] *çaytuez* idatzi du, eta gero -*z* marratxo batez ezabatu, berak edo beste norbaitek.    **18** cenduque] *cenduquez* idatzi du, eta gero -*z* marratxo batez ezabatu, berak edo beste norbaitek.    **20** çaitue] *çaituez* idatzi du, eta gero -*z* marratxo batez ezabatu, berak edo beste norbaitek.    **28** çaitue] *çaituez* idatzi du, eta gero -*z* marratxo batez ezabatu, berak edo beste norbaitek.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A5 – Linda damachoa...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen mende](#) dago

---

(B30: 82), *badeçu* (A16: 70, A28: 168), *deçun* (A26: 90). Gutxi dira, orobat, *du-* eta *deu-* moldeetakoak.

## A6

### *Loa de las damas y galanes bascongados*

Hurrengoa bezala, errima lerro bikoitietan duten distikoen (10 -, 8 a) segida da poema hau. Izenburua gardena da: Euskal Herriko (*Eusquel Erria*) eta Arabako gizon eta emakumeak goraipatu gura ditu, poema arranditsuan. Jaun Zerukoa da dohain eta grazia guztiak eman dituena, eta liburu zaharrak dira esaten duenaren berme. Euskal Herriak eta Arabak goraipagarri dituzte jende noblea, dama ederrak eta gizon galantak, hizkuntza (euskarra) eta Zeruko Jaunaren fedea. Beldur da ezingo dituela hainbesteko edertasunak behar bezala laudatu eta era guztiako laguntza eskatzen du: Famak lagundu behar dio zabalkundean, txoriek lagunduko diote kantuan, eta herriko andre-gizonek (Joan Perez Lazarragakoaren jaioterriaren inguruko herriak dira Barrundia eta Asparrena) eta nobleek emango diote ausardia, indarra eta gaitasuna.

<1169r>

*Loa de las damas y galanes bascongados. El autor*

Fama andia, çatoz nigana;  
arren, çaaquit lagundu,<sup>1</sup>  
mundu guztico erreñuetan  
laster eguiçu famadu.

Choriac eta tortolachoac,  
gura deusut<sup>2</sup> aguindu  
gure errico abantajaoc<sup>3</sup>  
daiqueçula cantadu<sup>4</sup>

5

<sup>1</sup> *çaaquit lagundu*: ‘lagundu zakizkit’; euskara zaharrean ohikoa zen bezala, Lazarragaren testuan *lagundu* aditza iragangaitza da, eta bipertsonala (NOR-NORI). Laguntzailearen *çaaquit* formari dagokionez, eskuizkribuko lau adizkitan aurkitu dugu bokal bikoitza absolutiboaren markaren ondotik: *çaaean* (AL: 1147v), *çaaquit* (A6: 2), *gaacustenac* (A7: 115) eta *ezpanaagui* (A19: 56).

<sup>2</sup> *gura deusut*: ‘gura deutsuet, gura dizuet’; poeman gehiagotan agertzen da *zu-ri* dagokion aditz-morfema bere jatorrizko plural balioarekin.

<sup>3</sup> *abantajaoc*: ‘abantailok, bikaintasunok’.

<sup>4</sup> *daiqueçula cantadu*: ‘geroan kantatu ditzazuela’; geroaldiko subjuntiboa. Cf. orobat *cegaiti artu ez daiquean* (A14: 99), *Conjuraetan oy eta çaitut, / oean çaucidenean, / gogaberatu çaquezquedala / beguioz nacusunean* (A16: 85-88), *Conjuraetan oyta diçut, / gorpuceango araguioc, / nigana manso dacarqueçula / ceure beguicho lindo bioc* (A16: 97-100), *Arren aguir çaytes[que] / sacusquedan leyotic* (B30: 39-40). Lazarragaren testutik kanpo, beste behin baizik ez da lekukotzen geroaldiko

oy <sup>5</sup> onezquero <sup>6</sup> gox ocetan da <sup>7</sup> cantu dulceaz loadu.  Jaun Cerucoa, nic errazoaz beti çaidaz loadu; <sup>8</sup> cerua eta içarrac bere oyta ce bitez ixildu; <sup>9</sup> isasoorec horve guztiaz <sup>10</sup> beti çaguiie laudatu, <sup>11</sup> cegaiti doçun Eusquel Erria aynbat bentajaz <sup>12</sup> dotadu.  Isasoori tinta balidi, ceru çabala liburu, <sup>13</sup>	10  15  20
---	------------------------

---

subjuntiboaren erabilera, beste arabar baten testuan, Perutxoren kantan hain zuzen: *Esso[c] amor[e]ari / gajo nachala / y penas naçala / jatorquedala* (TAV 102-104).

<sup>5</sup> *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>6</sup> *onezquero*: ‘hemendik aurrera’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumental + -quero” eta “partizipio + azquero” egiturak erabiltzen dira. Hemen erakuslean oinarritutako forma dugu.

<sup>7</sup> *da*: ‘eta’; pasarte honetan, hasiera batean, *loadu* aditzaren laguntzaile aurreratua zela pentsatu genuen, baina gero juntagailutzat hartea hobetsi dugu; esan behar da testu guztian ez dela beti erraza lehen begi kolpean *da* aditza edo laguntzailea eta *da* ‘eta’ juntagailua bereiztea. Hortaz, pasarte guztia honelaxe ulertu dugu: ‘Txoriak eta usapaltxoak, agindu nahi dizuet gure herriko bikaintasunok honezkero goiz hotzeten kantatu ditzazueta eta kantu gozoaz goraipatu ditzazueta’.

<sup>8</sup> *çaidaz loadu*: ‘zagidaz loadu, loaduko zaitut, laudatuko zaitut’; geroaldi zaharra da. Bizkaierazko testu zaharrenetan “partizipioa + *egin*” perifrasia askotan agertzen da geroaldia adierazteko, baina ez genuen erabilera horren lekukotasunik Arabako euskaran: *çagoquez exilic ta ençun eztayçu guextoric* (RS 18), *Echoçu, eta iaquin daguiçü* (Kap 140), *Edandaysu ostera* (Mik 25), *Baçaquioz virtuteari beti jarraitu / santuçat Iaungoicoa ecussi daiçu* (*Egiaren Kanta* 190-91). Halere, Lazarragak lau aldiz baizik ez du egitura horretara jotzen testu osoan: *gugaz etorri nai badoçu / erraz daiçu ecusi* (A1: 1-2), *Jaun Cerucoa, nic errazoaz / beti çaidaz loadu* (A6: 11-12), *isasoorec horve guztiaz / beti çaguiie laudatu* (A6: 15-16), *Alfer ifini naiçu purgaetan / ozpin-baracacetan seculaco: / ez deraustae besteric ateraco, / salvo bay çaitudala amaetan* (B22: 69-72).

<sup>9</sup> *ce bitez ixildu*: ‘ez bitez isildu’.

<sup>10</sup> *isasoorec horve guztiaz*: ‘itsaso horrek orbe guztiagaz, itsaso horrek eta orbe guztiak’; ‘X Y(ga)z’ egitura da, ‘Xrekin Y’ egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko.

<sup>11</sup> *çaguiie laudatu*: ‘zagiez laudatu, laudatuko zaituzte’; geroaldi zaharrari buruz, ikusi goragoko oharra (A6: 12).

<sup>12</sup> *bentajaz*: ‘abantailaz, bikaintasunez’.

<sup>13</sup> *Isasoori tinta balidi, / ceru çabala liburu*: ‘Itsaso hori tinta bihurtuko balitz, eta zero zabala liburu (bihurtuko balitz)’; hemen, \**edin* trinkoki jokatua da eta ‘bihurtu, bilakatu’ esanahia du. Erabilera horren adibide apurrik testu arkaikoetan baizik ez dira lekukotzen: *asto dina zordun* (RS 249) “el que

oy Arabaco abantajaoc <sup>14</sup> ecin litezque contadu. Jente noblea, ecin nesaque, <sup>15</sup> bear deustaçu parcatu; flaquezeonen bildur nax, baya oyta gura dot açartu. <sup>16</sup> Barrundiaco dama galantac, esaten iracastaçu; <sup>17</sup> Axparreneco larrosachoac, gueraciea <sup>18</sup> indaçu; <sup>19</sup> morroe <sup>20</sup> galant estiraduac, <sup>21</sup> oy defendidu naguiçu; oy Gaztelaco erregue jauna, erreguiagaz <sup>22</sup> icasu <sup>23</sup> ceure cortean dama ederric nola bapere ez doçun,	25
	30

se haze fiador, deudor”, *Lotsaga nindin, oguiz ase nindin* (RS 263) ”Sinvergüenza me hize, y artéme de pan”, *Jesus sidin guizon* (VJ 5).

<sup>14</sup> *abantajaoc*: ‘abantailok, bikaintasunok’; gauza bera da goiko *bentaja* (18. lerroa) eta hemengo *abantaja*.

<sup>15</sup> *nesaque*: ‘esan nezake’; *esan* aditzaren forma hipotetiko trinkoa.

<sup>16</sup> *açartu*: ‘ausartu’.

<sup>17</sup> *iracastaçu*: ‘irakats iezadazue’.

<sup>18</sup> *gueraciea*: ‘grazia, trebetasuna’; ikusi baita *asco gueraciari* ‘eskerrik asko’ (A23: 2 eta A28: 140). Barrutia etako Landuccik darabilte *gerazia* aldaera, bakoitzak behin. Cf. *OEH*, s.v. *grazia*: “3. [...] Gracia, arte, habilidad natural; atractivo, encanto; cualidad de divertir o hacer reír”. Cf., orobat, *DAut*, s.v. *gracia*: “Significa también garbo, gallardía, donaire y despejo en la ejecución de alguna cosa, como en el cantar, danzar, etc.”

Lazaragarenean, -ia bukaera duten izenek -iea bukaerarekin egiten dute forma mugatua: *historieac* (AL: 1138v), *sentencia* (AL: 1153v), *gueraciea* (A6: 30), *licenciea* (A10: 19).

<sup>19</sup> *indaçu*: ‘emaidazue, eman iezadazue’; \*-in- erro zaharreko adizkia.

<sup>20</sup> *morroe*: ‘mutil gazte ezkongabe’; eskuizkribuan hiru aldiz agertzen da *morroe* izena, eta hiruretan du esanahi bera, eta ez ‘zerbitzaria’: *morroe galant estiraduac* (A6: 31), *doncelleari Lora ereyçan / morroerri Don Martin* (A11: 3-4), *ezta munduan morroeric / norc desaquedan “nola ago?”* (A19: 37-38).

<sup>21</sup> *estiraduac*: ‘prestuak, estimatuak’; adiera positiboa du. Cf. *DAut*, s.v. *estirado*: “Metáforicamente vale grave, autorizado, principal, noble y digno de estimación y aprecio”. Adiera negatiboa (‘harroputz’) ez da *DRAEn* 1869 arte agertzen: “el entonado y orgulloso en su trato con los demás”.

<sup>22</sup> *erreguiagaz*: ‘erreginagaz, ereginarekin’; litekeena da hemen ere “X Ygaz” egitura izatea, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko, hots: ‘errege jauna eta erregina’.

<sup>23</sup> *icasu*: ‘ikas ezazu(e)’; *ikatsu* letraldatuko litzateke gaurko grafian.

cegayti Eusquel Errian dira  
eder guztioc dotadu.<sup>24</sup>

Ene bervaoc, jente noblea,  
ce daidiçu pensadu<sup>25</sup> 40  
neure erria alabacerren<sup>26</sup>  
nic ditudala fingidu,<sup>27</sup>  
badanic bere,<sup>28</sup> jaquin eguiçu

<sup>24</sup> *dotadu*: ‘dohatu, dohainez hornitu’; cf. *DAut*, s.v. *dotar*: “Vale también adornar la naturaleza a uno, de sus dones y prerrogativas”.

<sup>25</sup> *ce daidiçu pensadu*: ‘ez ezazu(e) pentsatu’; \*-idi- erroko adizkia da eta agintera adierazten du. \*-idi- aditza *egin* aditzaren erro supletibotzat jo ohi da (Lafon 1944 eta geroztikako lanak). Izan ere, testu arkaikoetan, *egin*-ek ez du potentzialeko forma trinkorik erakusten, eta haren ordez \*-idi- erabiltzen da. Mendebalde zein ekialdeko testuetan aurkitzen da.

\*-idi- aditza trinkoki (*Arbore gaichtoac fructu onic ecin daidi*, Leiz Mat. VII, 18), zein “participioa + \*-idi-” gisako perifrasiaren laguntzaile gisa agertzen zaigu. Azken erabilera hau mendebaldeko testuetan baizik ez da lekukotzen; eta hori da, hain zuzen ere, espero duguna, *egin* eta \*-idi- banaketa osagarriaren badira, eta “participioa + *egin*” perifrasia mendebaldekoa bada: *Mayacean berarra luce da eta sendo, eguitayaren orçac ebagui leydi ondo* (RS 268), *Esan senguida beste gatic / esneydysula trucadu* (Mik TAV 3.1.27).

Lazarragaren eskuizkribuan, bost aldiz agertzen zaigu trinkoki jokaturik, eta gehienetan aditz-lokuzio bateko aditza da: *Ecin faltaric neydio / nic on derechadanari* (A3: 9-10), *apa bat baneydiçu ao goçoan; / bacusu ene fedea firmea dana* (A17: 19-20), *Baneidio bati berba, / palagadu al banegui* (A19: 63-64), *beronec bere ezteidio falta gueiago damari* (B27), *Mendi altuan erurra daydi, / aran baxuan eguzqui* (B31: 1-2). Gainerateko kasuetan, perifrastikoki erabilia da, participioa aditz nagusitzat harturik.

Balioari dagokionez, lau baliorekin agertzen zaigu. Gehienetan potentziala adierazten du (zortzi aldiz), baina geroaldiaren balioa ere har dezake (bi aldiz). Behin baldintza irreal bateko apodosian agertzen zaigu, baina hori ez zaigu harrigarria iduritzen, kontuan harturik apodosiak potentzialeko formetarik erator daitezkeela. Azkenik, orain arte ezagutzen ez genuen erabilera batean aurkitu dugu bi aldiz: aginteraren balioarekin; bizkitartean, ez dira agintera “normalak”: orainaldiko forma iragankorren *d-aurrizkia* daramate, baina horrekin batera aginterazko formetan erabili ohi den ezeztapenaren partikula: *ze*. Pentsa daiteke geroaldiko formak direla aginteraren balioarekin erabiliak (oroit Leizarragaren mandamentuko *ez duk hilen* tipoko formak).

<sup>26</sup> *alabacerren*: ‘alabatzearen, alabatzeagatik’; *-arren atzizkiak* hiru aldaera ditu eskuizkribuan, *-gatik* atzizkiaren baliokide gisa aditz-izenari gehituta, mendebaldeko tradizioaren arabera: *-tearren, -etarren* eta *-t(z)erren*. Ikusi *etortearren* (A3: 13); *probaetarren* (AL: 1139r), *castaetarren* (A14: 77), *contaetarren* (B3: 47); eta *ecusterren* (AL: 1142r, AL: 1145r, AL: 1147v), *iragaiterren* (AL: 1146r), *alabacerren* (A6: 41), *iracasterren* (A14: 47), *servicerren* (A14: 115), *ebilterren* (B18: 120). Izenari gehituta ere aurkitu dugu, *-gatik* atzizkiaren baliokide, lau bider: *amorearren* (AL: 1143v, A7: 89, B22: 14), *dirurren* (B17: 60).

<sup>27</sup> *fingidu*: ‘asmatu’.

<sup>28</sup> *badanic bere*: ‘aitzitik, hala ere’; *badanik bere OEHn* ez dago jasota, baina cf. *badarik* ‘hala ere’: funtsean Iparraldean lekukotzen bada ere, badago GN-zko adibiderik (1609ko poesietako batean, zehazki), eta Otxoa Arinek ere erabiltzen du. Lazarragaren eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu dugu: A6: 43, A10: 61, A24: 51, A26: 13, A27a: 7, B5: 27 eta B14: 51.

oyta naxala fundadu oy anchinaco liburueta, ceñetan ditut eçautu:  Eusquel Erriau oy nola eben erregue batec pobladu gente noblez da lenguageaz, <sup>29</sup> ceñac eusten aguindu <sup>30</sup>	45
Ceruco Jaunaren fede santua oy leguiela cunplidu. <sup>31</sup> Oy Salamonec <sup>32</sup> esribicen dau,  <1170r> jente noblea, jaquiçu, bere bician oy ez ebela gente obaric topadu.	50 55

<sup>29</sup> *Eusquel Erriau oy nola eben / erregue batec pobladu / gente noblez da lenguageaz:* Zein erregeri buruz ari da? Tubal ote? Ez dakigu poema hau zehazki zein urtetakoa den eta, beraz, ordurako egileak ezagutu zitzakeen Garibai (1571) edo Poza (1587) bezalako autoreen obrak. Hala ere, poemaren aurrekoak dira, zalantzak gabe, Erdi Arotik datorren tradizio tubalista, bai eta [Annio da Viterbo](#) faltsutzailaren Espainiako antzinako erregeen zerrenda ospetsua ere, haietako lehena Tubal izanik; orobat, Lucio Marineo Siculoren historia (1530), non baiezatzen den euskara Iberiar Penintsulako lehen hizkuntza izan zela. Euskarazko testuetan orain arte ezagutzen genuen Tubalen lehen aipamena Etxeberri Ziburukoaren *Elizara erabiltzeko liburuaren* (1638) “Dedikacionea”-n dago: *Bañan preza zazu zeren / Egina den Eskaraz, / Aita Tubalen baitharik / Dugun hitze zaharraz.*

<sup>30</sup> *ceñac eusten aguindu:* ‘zeinak agindu zien’; erregeak jendeari, alegia. Eskuizkribuan *eusten* laguntzaileak ‘zien’ zein ‘zioten’ balioa du; ikusi pasarte adierazgarri hau: *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten* [‘zien’] *nora lloacen, ceñac erançun eusten* [‘zioten’] *manera onetan* (AL: 1147r).

<sup>31</sup> *leguiela cunplidu:* ‘kunplitu zezatela’; XVI. mendeko autore gehienek *l-* aurritzidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emaiteaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequielo lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan erregua, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 9-13), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdu* (Etx III, 17), *Fray Vicente esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

<sup>32</sup> *Salamonec:* Gaztelaniaz bazen *Salamón* aldaera; CORDEn 380 aldiz dokumentatzen da, azkenekoz 1622an.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

4 famadu] *d* beste letra baten gainean zuzenduta. 18 aynbat] *y*-ren azpian *a.* 28 esaten] esk. *Asaten.* A-ren makila falta du, baina. 32 naguiçu] lakio antzeko ikurra ageri da *a*-ren gainean. Cf. baita *cagüie* (A6: 16). 50 ceñac] esk. *cenac.* 54 jente] hitzaren ondoren barra diagonala dago, eta honen azpian zerbait dago, antza. 56 topadu] aurretik hitz bat tatzaturik: agian *bildu.*

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A6 – Loa de las damas y galanes bascongados” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A7

### *Un caso que acaesció al autor en un camino con una dama*

Aurrekoa bezala, errima lerro bikoitietan duten distikoen (10 -, 8 a) segida da poema hau. Ustezko gertakizun baten kontakizun zehatza da. Dirudienez mutila (narratzailea) zaldi gainean doa (horregatik *apeadu* behar da 86. lerroan), San Joan bezpera egunean, Iruraizko baso batetik (Lazarragaren jaioterritik hurbil, hortaz) eta Katelinatxorekin elkartu da. Hizketan hasi dira eta mutilak zuzen-zuzen agertu dio bere maitasuna, eta azaldu dio ikusi duen egunetik dagoela maitemindurik. Neskak ez du egun horretan bizkorregi ibili gura (mutilak bai!), baina hitzordua eman dio egun gutxi barru leku berean elkartzeko. Hala mutilaren nola neskaren jarrerak, hitzak eta keinuak ereduzko gorteiatzeari dagozkio (95-96. lerroetan kenduta, hor metafora zakarraz baliatu baita mutila, neska ehiza gisa aipatuta).

<1170v>

*Un caso que acaesció al autor en un camino con una dama*

Jandoneanez vezpera<sup>1</sup> baten  
igaro ninçan basoti,  
Iruraizco hermandadean<sup>2</sup>  
lecu on baten aldeti.  
Dama bategaz t[o]padu ninçan,  
lindea parebagaric;<sup>3</sup> 5

<sup>1</sup> *Jandoneanez vezpera*: ‘San Joan bezpera’; *Jandoneanez* da izena forma absolutiboan; hala agertzen da eskuizkribuko hiru lekutan: *Jandoneanez vezpera* (A7: 2), *Jandoneanez calteric* (A28: 56), *Jandoneanez Bautistea* (B25: 13). Azkoitian ere bada *Jandonianiz* toponimoa.

<sup>2</sup> *Iruraizco hermandadean*: Iruraizko ermandadea 18 herrik osatzen zuten: Alaitza, Arrieta, Azilu, Erentxun, Ezkererekotxa, Gazeo, Gauna, Gereñu, Jauregi, Langarika, Trokoniz (hamaika hauek egungo Iruraitz-Gauna udalerria osatzen dute), Dulantzi (ermandadeko herriburua), Egileta, Luskando, Burgu, Arbulu, Argomaiz, Gazeta eta Añua. Lehenengo ermandadeak XIII. mendean sortu ziren, herriak gaizkileetatik eta nobleziaren bidegabekerietatik defendatzeko. XVI. mendearren lehen erdian Arabako lurraldea 53 ermandadetan antolatu zen, sei kuadrilatan bilduta (eraketa horrek 1840 arte iraun zuen, Gasteizko kuadrila bitan banatu baitzen).

<sup>3</sup> *lindea parebagaric*: Hiru aldiz dago *lindea parebag-* eskuizkribuan: *Dama bategaz t[o]padu ninçan, / lindea parebagaric* (A7: 5-6), *Donzellacho bat ecusi neben, / lindea parebagaric* (A14: 21-22) eta *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebaguea* (A24: 131-132). Hirugarrenean errimak eskatu du bukaera aldatzea. Gaztelaniaz, 1543ko lan anonimo batean aurkitu dugu ondokoa: “Pues una reina excelente / **linda sin comparación** / viene y trae a la serpiente” (*apud CORDE*). Eskuizkribuan, beste bi lekutan ere badago *parebagaric* erabilera adberbialean: *Donzellacho bat ecusi neben, / lindea parebagaric* (A14: 21-22), *Oy jente asco / egoan parebagaric* (A28: 73-74).

berva eguiten asi ninçacan,<sup>4</sup>  
 jarri guinean<sup>5</sup> gueldiric;  
 neure bician ecusi ez dot  
 ayn gauça abisaduric.<sup>6</sup> 10  
 Forma onetan berva neguion,<sup>7</sup>  
 ez jat ancitu<sup>8</sup> bervaric:  
 —Alabacen dot ceruan Jauna,  
 bide dodana eguinic,<sup>9</sup>  
 cegaiti naben çuregaz<sup>10</sup> batu, 15  
 lindea, eben<sup>11</sup> bacarric.  
 Edola bere, joan baño leen,<sup>12</sup>

<sup>4</sup> *ninçacan*: ‘nintzaion’.<sup>5</sup> *guinean*: Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuau bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatuetan ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doeán* (RS), *daroa + -an > daroeanean* (VJ) (cf. FHV 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138r), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B17: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B18: 31, B18: 44), *guinean* (A7: 8, B18: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B18: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *nerouala* (B18: 16). Ohar gaitezen Landuccik ez duela aldaketa horren arrastorik aditzean (“antecedente, *aurrera doana*”).<sup>6</sup> *abisaduric*: ‘zuhurrik’; cf. DAut, s.v. *avisado*: “Vale también advertido, discreto, sabio y capaz”.<sup>7</sup> *berva neguion*: ‘berba egin nion’.<sup>8</sup> *ancitu*: ‘ahantzi, ahaztu’; *ancitu-* (AL: 1146v, AL: 1151r, AL: 1152r, AL: 1152v bis, A7: 12, A17: 23, B3: 59), *anci jaquinic* (AL: 1142v, AL: 1145v) eta *ancietea* (A24: 134, A24: 144) formak agertzen dira eskuizkribuan. OEHn ez dago forma hauen lekukotasunik mendebaldean, ez bada Azkuerenetik harturiko “*antzitu V-al*”. Cf. OEH, s.v. *ahaztu*: “El participio en V ant parece ser *aztu* con *a* nasal, escrita normalmente *aztu* y una vez (RS 156) *anztu*. Respecto al sust. vb. ines., Lcc *azketan erreza* s.v. “olvidadizo” y Mic ta *aztuten badozu / eztozu onto eiten* (TAV 3.1.27)”.<sup>9</sup> *bide dodana eguinic*: ‘bidezkoa dudana egunik’; cf. OEH, s.v. *bide*: “BIDE IZAN [...] (Aux. intrans. unipersonal y bipersonal con sujeto de 3.<sup>a</sup> persona). Ser (lo) justo, debido, lícito; (aux. trans.) tener obligación, deber en justicia”. Beste modu batez uler liteke, beheko lerroko *naben* laguntzailearen subjektutzat zein hartzen den: *Jauna* izan beharrean, subjektua *bidea* izanez gero, ‘eginik dudan *bidea*’ esanahia izan lezake; nolanahi ere den, bigarren ulerkera honek arazo gramatikalak planteatzan ditu.<sup>10</sup> *çuregaz*: Soziatiboaren *-gaz* kasu-markarekin, hala genitiboarekin (*-regaz*) nola gabe (*-gaz*) erabiltzen dira pertsona-izenordainak eskuizkribuan: *neuregaz* (A14: 25) / *nigaz* (passim) / *neurgaz* (A16: 19), *aregaz* (A16: 15, A19: 24) / *agaz* (passim), *beregaz* (AL: 1143v, AL: 1144v) / *beragaz* (B22: 61), *çuregaz* (AL: 1144v, A2: 2oh, A7: 15, A16: 20, A17: 95) / *çugaz* (AL: 1141r, A2: 2, A7: 26, A16: 9, A26: 134, B18: 143), *gugaz* (A1: 1).<sup>11</sup> *eben*: ‘hemen’.<sup>12</sup> *leen*: *Leen* hitzak beti agertzen du bokal bikoitza eskuizkribuan: *leen* (AL: 1139v, AL: 1143v, AL: 1144v, AL: 1145v; AL: 1151r, A7: 17), *leengo* (AL: 1154r), baina *astelen* (B32: 8). Landuccik ez dakar bokal bikoitzik: “antes que, *len*”. Cf. OEH, s.v.: “*Len* es la variante meridional hasta el s. XX excepto

oy <sup>13</sup> bear doçu icasi çure amorez, ene laztana, nola nagoan galduric.— Erançun cidan <sup>14</sup> utra <sup>15</sup> cortesdo, <sup>16</sup> beguiac abajaduric: —Neure buruau erraz daudit nic dichosaçat edugui, <sup>17</sup> jentil honbrea, cegaiti naxan eguin ni çugaz topadiz; <sup>18</sup>	20 25
--	----------

para gran parte de los autores vizcaínos; hay *leen* en Capanaga (103), *Acto* (267), J.J. Mogel (*BasEsc* 34), Astarloa (II 117), fray Bartolomé (*Ic III* 270), Añibarro (*EL*<sup>2</sup> 145), *CatLlo* (75), Uriarte (*MarII* 73), Iturzaeta (*Azald* 128) y Erkiaga (*Arran* 162)”.

<sup>13</sup> *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>14</sup> *cidan*: *Cidan* forma ez da hain bakana eskuizkribuan (cf. *cidan* 9 aldiz eta *eustan* 3 aldiz).

<sup>15</sup> *utra*: ‘oso’; gutxienez Kapanagari eta Oihenarten atsotitzei esker ezagutzen genuen (cf. *OEH*, s.v.).

<sup>16</sup> *cortesdo*: ‘korteski, adeitsuki’.

<sup>17</sup> *erraz daudit / nic dichosaçat edugui*: ‘erraz eduki nezake ditxosatzat’; \*-idi- erroko adizkia da, balio potentzialarekin.

\*-idi- aditza *egin* aditzaren erro supletibotzat jo ohi da (Lafon 1944 eta geroztikako lanak). Izan ere, testu arkaikoenetan, *egin*-ek ez du potentzialeko forma trinkorik erakusten, eta haren ordez \*-idi- erabiltzen da. Mendebalde zein ekialdeko testuetan aurkitzen da.

\*-idi- aditza trinkoki (*Arbore gaichtoac fructu onic ecin daudi*, Leiz Mat. VII, 18), zein “participio + \*-idi-” gisako perifrasiaaren laguntzaile gisa agertzen zaigu. Azken erabilera hau mendebaldeko testuetan baizik ez da leukotzen; eta hori da, hain zuzen ere, espero duguna, *egin* eta \*-idi- banaketa osagarrian badira, eta “participio + *egin*” perifrasia mendebaldekoa bada: *Mayacean berarra luce da eta sendo, eguitayaren orçac ebagui leydi ondo* (RS 268), *Esan senguida beste gatic / esneydysula trucadu* (Mik TAV 3.1.27).

Lazarragaren eskuizkribuan, bost aldiz agertzen zaigu trinkoki jokaturik, eta gehienetan aditz-lokuzio bateko aditza da: *Ecin faltaric neydio / nic on derechadanari* (A3: 9-10), *apa bat baneysiçu ao goçoan; / bacusu ene fedea firmea dana* (A17: 19-20), *Baneidio bati berba, / palagadu al banegui* (A19: 63-64), *beronec bere ezteidio falta gueiago damari* (B27), *Mendi altuan erurra daydi, / aran baxuan eguzqui* (B31: 1-2). Gainerateko kasuetan, perifrastikoki erabilia da, participioa aditz nagusitzat harturik.

Balioari dagokionez, lau baliorekin agertzen zaigu. Gehienetan potentziala adierazten du (zortzi aldiz), baina geroaldiaren balioa ere har dezake (bi aldiz). Behin baldintza irreal bateko apodosian agertzen zaigu, baina hori ez zaigu harrigarria iduritzen, kontuan harturik apodosiak potentzialeko formetarik erator daitezkeela. Azkenik, orain arte ezagutzen ez genuen erabilera batean aurkitu dugu bi aldiz: aginteraren balioarekin; bizkitartean, ez dira agintera “normalak”: orainaldiiko forma iragankorren *d-*aurrizkia daramate, baina horrekin batera aginterazko formetan erabili ohi den ezeztapenaren partikula: *ze*. Pentsa daiteke geroaldiko formak direla aginteraren balioarekin erabilia (oroit Leizarragaren mandamentuko *ez duk hilen* tipoko formak).

<sup>18</sup> *cegaiti naxan / eguin ni çugaz topadiz*: ‘bestela bezala topo egin dudalako zurekin’; cf. *DAut*, s.v. *topadizo, za*: “Lo mismo que encontradizo. Tiene mucho menos uso”. Hain zuzen ere, *CORDEn*

<1171r>	<p>oy eta barriz osteangoan,<sup>19</sup>  arren, ce beguit<sup>20</sup> burlaric.—</p> <p>—Ene laztana, ene fedea,  ez dot eguiten burlaric.</p> <p>Egun ascotan ni ebili naiz,  ez dot edugui dicharic,  ene lindea, çu ecusteco;  banago sepultaduric.—<sup>21</sup></p> <p>—Oy, arren, jauna, ixilic bego,  ce besat<sup>22</sup> orrelacoric,  oyta cegayti çu erayteco<sup>23</sup>  ni[c]<sup>24</sup> eztot poderioric.—</p> <p>—Poderioa andia doçu,  Ceruco Jaunac emunic;  çure beguioc ecusizquero,<sup>25</sup>  banago catigaturic.<sup>26</sup></p> <p>Pensamentuoc altuan ditut.<sup>27</sup></p>
	30 35 40

birritan bakarrik dokumentatzen da, eta bietan testu honetakoaren antzeko adierazpide batean: “Al tercero día que hobo este hecho pasado, hízose topadizo” (Fray Bartolomé de las Casas, 1527-1550, *Apologética historia sumaria*) eta “Resuelto a todo, el pérvido se hizo / Con aquellos pastores topadizo” (Miguel Antonio Caro, 1873-1876, *Traducción de Eneida de Virgilio*).

<sup>19</sup> *osteangoan*: ‘hurrengoan’.

<sup>20</sup> *ce beguit*: ‘ez biezat egin, ez diezadala egin (berorrekin)’; dama berorika ari zaio gizonari, nahiz eta lehentxoago *cugaz* esan duen. Hurrengo lerroetan antzera jarraitzen du, zuka eta berorika nahasian erabiliz, eta poemako azken lerroetan (119-120) gizonezkoak ere berorika egiten dio damari.

<sup>21</sup> *sepultaduric*: ‘ehortzirik’; hemen erabilera metonimikoa du eta ‘hilik’ esan nahi du; ikusi beheraxeago neskaren erantzuna. Cf. *enterraduric* (A10: 74), itxuraz adjera bertsua duena.

<sup>22</sup> *ce besat*: ‘ez biezat esan, ez diezadala esan’; *esan* aditzaren NOR-NORI-NORK agintera trinkoa.

<sup>23</sup> *erayteco*: ‘hiltzeko’: *ero* aditzaren aditz-izena da

<sup>24</sup> *ni[c]*: Ergatibo-faltari dagokionean, cf. *inor[c]* (AL: 1145r, A28: 147), *ni[c]* (A7: 38, A17: 107, B3: 34), *neur[c]* (A9: 19), eta *ar[c]* Sasiolakoarenean (B30: 86).

<sup>25</sup> *ecusizquiero*: ‘ikusten ditudan momentutik’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumental + -quiero” eta “participio + azquiero” egiturak erabiltzen dira. Hemen “participioa + -zquiero” dugu. Perpaus honetan baldintzazko ñabardura ere antzeman daiteke, beharbada.

<sup>26</sup> *catigaturic*: ‘gatibaturik’; garai hartako maitasun-poesietan “begiek gatibatzea” topiko arrunta izan zitekeen; cf. “Zure begi ederrok, / ene lastana, / katibaturik nabe / librea ninzana” (1615; TAV, 3.1.23). Landuccik “catiuar a otro, *catiuadu*” dakar.

	çuc ala meresciduric, oy eta ez dot abajaduco neure bician punturic.— —Çure bervaoç adietaco <sup>28</sup> ez dot entendimenturic; claruxeago <sup>29</sup> berva eguiçu, edo çaoza <sup>30</sup> ixilic.—	45
	—Ene laztana, çure bildur nax, ezin eguin dot bervaric. Nic claruago banesaqueçu, <sup>31</sup> oy baneu licenciaric.	
<1171v>	Ene laztana, ençun naguiçu; arren, ez artu penaric; neure peneau esan bear dot, ezin neongue <sup>32</sup> ixilic. <sup>33</sup> Donzellachoa, egun batean oy eta ninçan etorri	55
	çure lecura, <sup>34</sup> flordelisea, <sup>35</sup>	60

<sup>27</sup> *Pensamentuoc altuan ditut*: ‘helburuak oso goian ditut’; bi lerro berak aurkitu ditugu beste poema batean: *Pensamentuoc altuan ditut / arc ala meresciduric* (A10: 77-78).

<sup>28</sup> *adietaco*: ‘aditzeko, ulertzeko’.

<sup>29</sup> *claruxeago*: ‘piska bat klaruago, argiago’; Lazarragaren eskuizkribuan, *-txo* atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; *-xe* atzizkiak, berriz, hiru balio hartzen ditu: **1)** Txikigarria (*-xe = -txo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *esecoxeoç* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxear* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). **2)** Izenondo eta aditzondoen intentsitate markatzalea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). **3)** Indartzailea (izenordain indartuekin, eta *eben / arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

<sup>30</sup> *çaoza*: ‘zaude, egon zaitez’, agintera; *çaoz* eta *çaoça*, bietara erabiltzen du.

<sup>31</sup> *banesaqueçu*: ‘esango nizuke, esan niezazuke’; *esan* aditzaren NOR-NORI-NORK hipotetiko trinkoa.

<sup>32</sup> *neongue*: ‘nengoke’.

<sup>33</sup> *neure peneau esan bear dot, / ezin neongue ixilic*: Esaldi bera dago eskuizkribuko bi lekutan: *neure peneau esan bear dot / ezin neongue exilic* (A7: 57-58) eta *doncellachoac, esan bear dot / ezin neongue exilic* (A10: 25-26).

<sup>34</sup> *çure lecura*: ‘zure herrixkara’; cf. Lcc “aldea, lequa, aldea”. Eskuzkribuan gutxienez zortzi aldiz aurkitu dugu *lecu* esanahi horrekin (AL: 1145v, A7: 61, A17: 52, A23: 69, A23: 75, A23: 82, A23: 84, B25: 23). Beste askotan, jakina, ‘toki’ esanahiarekin.

oy inor baga bacarric. Ceure eseco portaleetan oyta ceoncen <sup>36</sup> jarriric; neure beguioc goratu neben; ez neben pensamenturic, <sup>37</sup> dama galanta, an ceoncela oyta ceurori bacarric. Atrevimentuz usadu <sup>38</sup> neben, banago gaztigaturic, <sup>39</sup> itaundu nagon <sup>40</sup> poridadean <sup>41</sup> beste donzella bateri nola ereiçun <sup>42</sup> ceure icenaz; erançun cidan: Catalin. Oy, arrezquero, <sup>43</sup> Jaun Cerucoac	65 70 75
--	----------------

<sup>35</sup> *flordelisea*: Eskuizkribuan bost bider agertzen da *flordelisea* hitz eder gisa dama edo dontzeilei egokitua: AL: 1143r, AL: 1144r, A1: 25, A7: 61, B15: 2. Euskaraz ez dugu beste inon aurkitu *flor de lis* hala erabilia, baina bai gaztelaniaz (*apud CORDE*): “sagrada María, blanca flor de lis, clara como el día” (Izengabea, 1420-1520, *Cancionero de Juan Fernández de Íxar*), “de los vientos tramuntana, / de flores la flor de lis, / de las colores la grana, / de las damas Beatriz” (Juan de Simoneda, 1561, *Cancionero llamado Sarao de amor*), “diamantes no son tales, ni rubís, floresta de flor de lis” (Fray Ambrosio Montesino, 1508, *Cancionero*), “más lindas que flor de lis” (*ibidem*). Gogoan izan, bestalde, *Orlando Furioson* (Lazarragak Jerónimo de Urrearen 1549ko itzulpena ezagutu bide zuen) Brandimarteren maitearen izena dela *Flordelís*.

<sup>36</sup> *ceoncen*: ‘zeunden’.

<sup>37</sup> *ez neben pensamenturic*: ‘ez nuen esperantzarik, ez nuen uste, ez nuen espero’.

<sup>38</sup> *Atrevimentuz usadu*: ‘ausardia hartu’; ez dugu aurkitu gaztelaniaz “usar de atrevimiento” edo euskal kalkoaren jatorria izan zitekeenaren antzeko lokuziorik, ez *DRAE*ntz eta *CORDE*ntz ere.

<sup>39</sup> *banago gaztigaturic*: ‘jakinaren gainean nago’; dirudienez, Lazarragaren eskuizkribuan *gaztigatu* aditzak beti ‘abisatu’ esan nahi du (cf. A7: 70, A10: 70, A16: 60, A28: 24 eta *gaztigu* A28: 146), eta *castigua* ‘zigorra’ da (AL: 1154r). Cf. *OEH*, s.v.: “Al Sur se da la distribución de variantes *gaztigatu* ‘avisar’ / *kastigatu* ‘castigar’; hay pocas excepciones —Refranes de Garibay, Beriayn, Iturriaga e Iza— en que *gaztigatu* se emplee para ‘castigar’.”

<sup>40</sup> *nagon*: ‘nion’.

<sup>41</sup> *poridadean*: ‘sekretuki, isilpean’; gaztelaniaz *poridad / puridad* hitzak bi adiera ditu: ‘sekretuki, isilpean’ eta ‘argi eta garbi, itzulingururik gabe’; ez daude kontrajarrita, baina badirudi testu honetan lehenengoari dagokiola.

<sup>42</sup> *nola ereiçun*: ‘nola zeritzun, zein izen zenuen’; aditzaren formari dagokionean, badira honen kide gehiago testuan zehar: *on dereiçut* (AL: 1144r), *ereiçan* (AL: 1145r), *nola ereiçun* (A7: 73), *ereyçan* (A11: 3), aditzaren bi adieretan (‘maitatu’ eta ‘izena izan’), baina ugariago dira palatalizaturiko adizkiak: *derechana, derechula, derechadan, derechudan, derecho...*

	bercheac <sup>44</sup> daqui bacarric, Catelinacho, nola nagoan amoreminez <sup>45</sup> gaxoric. Çuc baxe <sup>46</sup> inorc ezin liquet <sup>47</sup> munduan remedioric;	80
	ene laztana, osa naçaçu, ez eguin beste gauçaric.	
<1172r>	Lecu onean topadu gara, Jaun Cerucoac guraric; oy apeadu <sup>48</sup> bear neuque, badoçu borondateric.	85
	Ene laztana, solas daigun <sup>49</sup> gueurcheoc <sup>50</sup> vioc bacarric.— —Jaun Cerucoaen amorearren, <sup>51</sup> jauna, çaoça <sup>52</sup> gueldiric;	
	basoan neurau bacarric nago, ce beguit <sup>53</sup> agravioric.—	90

<sup>43</sup> *arrezquero*: ‘geroztik’; *gero* adberbioa oinarri duten egiturez, ikusi A7: 41 lerroko oharra. Hemen erakuslean oinarritutako forma dugu.

<sup>44</sup> *bercheac*: ‘berberak’; *berak*-en forma indartua da; -xe atzizkiaz, ikusi A7: 49 lerroko oharra.

<sup>45</sup> *amoreminez*: ‘maiteminez’; Berpizkundeko poesian topiko ezaguna da “amorez minduta” egotea (Petrarca, Garcilaso...): maitalea “amoreminez” dago, ezin duelako lortu maitatuaren amodioa (arrazoia askotarikoak izan daitezke). Testuan hitz honek dituen agerraldi batzuetan esanahia hurbil bide dago etimologiatik (AL: 1145r, A7: 78, A16: 47, B10: 12, B21: 2 eta B23: 118); aldiz, A11: 8 lerrokoa egun maiteminak duen adiera arruntari dagokio.

<sup>46</sup> *baxe*: ‘baizen, baizik’; eskuizkribuan *baxe* eta *baize* formak agertzen dira (bakoitzaz zazpi aldiz, eta behin *baje*). Formari buruz, cf. *OEH*, s.v. *baizen*: “La variante *baxen* (<-ix-> a veces en fray Bartolomé) es propia de la tradición vizcaína; no se encuentra *baizen* en textos de este dialecto hasta el s. XX. Las formas sin -n se documentan en textos meridionales antiguos: *baize* en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama; *baxe* y *bixin* en Micoleta; *baizin* en BBizk.”

<sup>47</sup> *ezin liquet*: ‘ezin eman liezadake’.

<sup>48</sup> *apeadu*: ‘zalditik jaitsi’; poeman lehenago aipatu ez bada ere, mutila zaldi gainean doa.

<sup>49</sup> *solas daigun*: ‘solas egin dezagun’.

<sup>50</sup> *gueurcheoc*: ‘guk geuk’, izenordainaren forma indartua da; -xe atzizkiaz, ikusi A7: 49 lerroko oharra.

<sup>51</sup> *amorearren*: ‘amoreagatik’; -arren atzizkia lau bider aurkitu dugu eskuizkribuan, izenari gehitura, -gatik atzizkiaren baliokide: *amorearren* (AL: 1143v, A7: 89, B22: 14) eta *dirurren* (B17: 60). Aditz-izenari gehitura ere agertzen da, -tearren, -etarren eta -t(z)erren aldaeretan.

<sup>52</sup> *çaoça*: ‘egon zaitez’, agintera; *çaoz* eta *çaoça*, bietara erabiltzen du.

<sup>53</sup> *ce beguit*: ‘ez biezat egin, ez diezadala egin (berorrek)’.

—Ene laztana, ezin neyque<sup>54</sup>  
 nic orrelaco gauçaric;  
 culpa andia eçarri leydae,<sup>55</sup> 95  
 eyça galdu banegui.—<sup>56</sup>

—Jentil onbrea, ez neyqueçu<sup>57</sup>  
 neure bician bervaric,  
 oy eta bardin<sup>58</sup> ezpaceeguit  
 oy orain ichi<sup>59</sup> libreric. 100

Biar-eciacurrean datozi;  
 arren, betorque ebeti.<sup>60</sup>

Al daguidana nic eguingo dot,  
 ez artu asecabaric.—

—Orrela gura doçun azquero,<sup>61</sup> 105  
 ezin neyque<sup>62</sup> besteric.

Domecaan<sup>63</sup> etorrico naiz,

<sup>54</sup> *ezin neyque*: ‘ezin egin nezake’.

<sup>55</sup> *eçarri leydae*: ‘ezarrisko lidakete, ezar liezadakete’.

<sup>56</sup> *eyça galdu banegui*: Ehiza neska da, dudarik gabe. Izan ere, neskak erantzuten dionagatik, argi dago mutila gehiegi hurbiltzen ausartu zaiola, agian heldu ere heldu diola. Mutilaren azken hitzak ere alde honetatik datozi: *berori defendidu jat eta / ni gueratu nax galduric* (A7: 119-120).

<sup>57</sup> *ez neyqueçu*: ‘ez nizuke egingo’.

<sup>58</sup> *bardin*: ‘baldin’; Lazarragaren eskuizkribuan 11 aldiz aurkitu dugu *bardin*. Horietako batean bakarrik (AL: 1145v) du zalantzarik gabe gaurko ‘berdin’ esanahia, ‘berdintasuna’ adierazten duena; hiru aldiz (AL: 1151r, A25: 8, A27b: 7) ‘dena den, nonbait, beharbada, seguru aski’ adierazten du, gure ustez (cf. *OEH*, s.v., “de todas maneras, en cualquier caso” eta “probablemente, quizás”); behin (A12: 11) zalantza dugu bi adiera horietako zein ote duen; eta, azkenik, sei bider adierazten du baldintza (AL: 1172r, A24: 5, B17: 82, B18: 93, B18: 98, B23: 101).

<sup>59</sup> *ezpaceeguit / oy orain ichi*: ‘orain utzi ez bazeiezat, orain utziko ez bazeenit’; eskuizkribuan aditz bat baino gehiago dira *cee- < cene-*. Cf. *baceequi* (AL: 1151v), *ezpaceeguit* (A7: 99), *ceeguidan* (A26: 59) eta, bilakabidea aurrerago eramanda (*ce- <cee- < cene-*), *cebela* ‘zenuela’ (AL: 1151v), *ceben* ‘zenuen’ (AL: 1153r), *ceguian* ‘zenegian, zenezan’ (AL: 1153v), *ceucala* ‘zeneukala’ (A26: 96, 98) eta *ceucan* ‘zeneukan’ (A26: 106).

Bestalde, *ichi* aditzaren argumentu-egituraz, ikusi poema honetako 117. lerroari dagokion oharra.

<sup>60</sup> *ebeti*: ‘hemendik’.

<sup>61</sup> *gura doçun azquero*: ‘nahi baituzu, nahi duyunez’; *gero* adberbioa oinarri duten egiturez, ikusi A7: 41 lerroko oharra.

<sup>62</sup> *ezin neyque*: ‘ezin egin nezake’.

<sup>63</sup> *Domecaan*: Mendebaldeko zenbait testu zaharretan (Kapanagarena eta Frai Bartolomerenak, kasurako) inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko markak (-an eta -ak) izenari erabat asimilatu gabe geratzen dira. Lazarragaren eskuizkribuan ere hala gertatzen da, -a amaiera duten hitzek agerian uzten dutenez, bokal bikoitz grafikoak agertzen baitituzte. Aurkitu ditugun salbuespen bakarrak *ezpatac* (AL:

	eztot eguingo faltaric.	
	Ascotan ondo gueratu çatez,	
	ene lindea, bacarric. <sup>64</sup>	110
<1172v>	Oy eseguino lagun deyçut, <sup>65</sup>	
	badoçu borondateric.—	
	—Esquerric asco, jentil onbrea,	
	ez dot ardura lagunic, <sup>66</sup>	
	gaacustenac <sup>67</sup> oy ez daguien	115
	pensadu beste gauçaric.—	
	Ichi neusan, <sup>68</sup> bervaxe oec <sup>69</sup>	
	neure laztanaz <sup>70</sup> eguinic:	

---

1153v) eta *bervac* (AL: 1154v) dira; *canpaac* (A28: 57) salbuespen den ala ez ezin da ziur baiezttatu, ez baitakigu oinarrizko forma *canpa* ala *canpaa* den (Landuccik *campae* dakar: “badajo de campana, *campae mia*”).

<sup>64</sup> *Ascotan ondo gueratu çatez, / ene lindea, bacarric:* ‘Ondo geratu zaitez bakarrik, ene lindea, askotan’.

<sup>65</sup> *lagun deyçut:* ‘lagunduko dizut’; geroaldi zaharra. Mendebaldeko testu arkaikoetan *egin* trinkoaren orainaldiko forma biluziak (atzizki edo aurrizkirkir gabeak) beti geroaldiaren balioa du (cf. *Eztay eseric eztau enac aur[r]ic* (RS 463) “Casa no hará quien hijos no ha”; *Astoagaz adi quirolan, ta deyc buztanaz biçarrean* (RS 116) “Regozijate con el asno, darte ha en la barba con el rabo”). Lazarragarenean *egin* biluziaren bi adibide aurkitu ditugu, eta bietan adierazten da geroaldia: *Doncellacho atrevidea, / ez çabilç ene gogoan, ez, / bestela ondo deicut, baña / ezcondu baxinbatean ez* (A4: 5-8) eta *Oy eseguino lagun deyçut / badoçu borondateric* (A7: 111-112).

<sup>66</sup> *ez dot ardura lagunic:* ‘ez dut nahi lagunik, ez zait interesatzen inork lagun egitea’ adiera bide du. Esaldi bera dago beste poema batean ere: *eztot ardura lagunic* (A23: 64).

<sup>67</sup> *gaacustenac:* ‘ikusten gaituztenek’; bokal bikoitzari dagokionean, esan behar da *ikusi* aditzaren NORK-NOR adizki trinkoek eskuizkribuan askotan dutela *a* bakuna: *dacus-* (*passim*), *nacusunean* (A16: 88), *nacusu* (B23: 47), *sacusquedan* (B30: 40). Baina, bestalde, eskuizkribuko lau adizkitan aurkitu dugu bokal bikoitza absolutiboaren markaren ondotik: *çaatean* (AL: 1147v), *çaaquit* (A6: 2), *gaacustenac* (A7: 115) eta *ezpanaagui* (A19: 56).

<sup>68</sup> *Ichi neusan:* ‘utzi nuen’; eskuizkribuan, *ichi* ‘utzi, abandonatu’ aditzak beti hartzen du osagarria datiboan: *bigueleari ichita* (AL: 1141v), *destenpleac ichi eguion* (AL: 1143r), *ai ichita* (AL: 1144v), *erriari ichiric* (AL: 1147v), *Clariani bacarric ichita* (AL: 1151r), *niri bacarric ichiric* (AL: 1151v), *ecin ichi neidiçu* (AL: 1151v), *nic ichico eçteuçut* (AL: 1151v), *ichi eguioçu orreyn curello trataetan çabenorri* (AL: 1152r), *ez alcarri ichi jaguiteco* (AL: 1153r), *Sirenari eta Silviari ichiric* (AL: 1154v), *ichi neusan* (A7: 117).

<sup>69</sup> *bervaxe oec:* ‘berbatxo hauek’; -xe atzizkiaz, ikusi A7: 49 lerroko oharra.

<sup>70</sup> *laztanaz:* ‘laztanagaz, laztanarekin’; hemen -az bukaerak soziatiboaren balioa du.

—Berori<sup>71</sup> defendidu<sup>72</sup> jat eta  
ni gueratu nax galduric.—

120

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**1** Un caso ... dama] gaztelaniazko izenburua tinta meheago batez idatzita dago eta, agian, beste luma batez. Badirudi aurreko orrialdeko (1170r) tinta eta luma berak direla. **5** topadu] *t* eta *p* artean zulo bat dago paperean. **17** baño] esk. *bano*. **20** galduric] esk. *galduric*, baina *a*-ren azpian *e* (ala alderantziz?). Uste dugu *galduric* zuzentzeko asmoa izan zuela, eta bukatu ez. **25** naxan] bigarren *a* mantxa batek estalita. **38** nic] esk. *ni*. **45** abajaduco] *-jad-* zerbaiten gainean idatzita; agian, lehen *abatiduco* zegoen. **57** peneau] aurrean tatxadura bat. **60** nincan] esk. *nincan*. **77** Catelinacho] ondoren *ene lind* hiru marraz tatxaturik. **82** ez] aurrean tatxadura bat. **92** ce] aurrean *arren* hiru marraz tatxaturik. **98** bervaric] aurrean *burlaric* hiru marraz tatxaturik. **115** gaacustenac] esk. *gaaçustenac*. **117** ichi] aurrean *apar* hiru marraz tatxaturik.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A7 – *Un caso que acaesció al autor en un camino con una dama*” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

<sup>71</sup> *Berori*: Lazarragaren eskuizkribukoak *berori*-ren lehen agerraldiak bide dira (A7: 119, A23: 95), eta bietan erabili da errespetuzko tratamendu gisa. *OEH*ren arabera, XVII. mendearen erdialdetik dokumentatzen da, bai 3. pertsonako erakusle bezala (1622), baita errespetuzko tratamendu bezala ere (1653). Bestalde, aipatu behar da *zutik berorira* aldatu dela, solaskidea aldatu gabe; gauza bera egiten du hiru poematan: A7: 119, A16: 35 eta A23: 37.

<sup>72</sup> *defendidu*: ‘kontra egin’; cf. *DAut*, s.v. *defender*: “Suele usarse por resistir el conceder o franquear lo que se pretende o solicita”.

## A8

### Coplac: Doncellachoa, orain çaoz...

A3, A5 eta A9 poemen ahapaldi-egitura ikusirik, argi dago galdurik 1174 orrian jarraitu behar zuela poema honek, eta lau lerro galdu direla; lau horietako azken bi lerroak, dena den, errepikarenak izan behar ziren, zalantzarak gabe. Errepika da, hain zuzen, gaia azaltzen duena: neskarentzat hobe da ez ezkontzea, ezkontzak mantsotu egindo baitu, eta askatasuna kendu.

Ezkontzaren bidez mantsotzeari dagokionez, eskuizkribuan bertan bada gai hori aipatzen duen beste poema bat ere, B27 hain zuzen (*Jaquiçu bada, gura badoçu...*). Poema hori zatika baino ez dugu ezagutzen, baina argi irakurtzen da, euskalazko ahapaldian integraturik, gaztelaniazko atsotitz ezaguna: *Casarás y amansarás*.

Iñaki Aldekoak (Aldekoa 2009: 101-102) Gutierre de Cetina (1520-1557) idazle sevillarraren glosa batekin erlazionatu du poema hau, eta azpimarratu du Gutierre de Cetinaren glosa hori eskuizkribu bidez baino ez dela ezagutu XX. mendera arte. Andaluziarraren poemak glosatzen duen letran, hain zuzen, *casarás y amansarás* hori agertzen da, eta hori da glosako zortziko guztiako errepika. Hona hemen gaztelaniazko poema, *Cancionero sevillano de Toledo* (Labrador, DiFranco & Montero 2006: 154-155) bildumaren ediziotik hartua, eta parean Lazarragarena, bietan agertzen diren elementuak letrakera lodiz nabarmenduta:

#### [LETRA]

*Zagala, quán libre estás,  
quán soberbia, dura y fría;  
pues yo 'spero que algún día  
casarás y amansarás.*

#### Coplac

**Doncellachoa, orain çaoz  
soberviagaz beteric;  
ezcon baçatez, eongo çara  
ardia leguez mansaric.**

#### GLOSA

**De no tener subjeción**  
ni de amor ni de marido  
tienes tan endurecido  
el rebelde coraçon.  
**Pero siempre no estarás**  
tan libre de **fantasía**:  
[e]spero en Dios que algún día  
*casarás y amansarás.*

**Egun baçaoz libertadeaz,**  
oy noxbayt galduco doçu;  
fortunea curela dana  
aldi bat pensa eçaçu.  
Onezquero fia ce çatez,  
ez artu **fantasiaric**;  
**ezcon baçatez, eongo çara  
ardia leguez mansaric.**

Si el miedo de ser amada  
de libre nada te aprieta,  
bien es que prueves subjeta  
si es más graue el de casada.  
En fin, al yugo vendrás,  
**y entonces**, señora mía  
dirás: “Ay del que dezía:  
*casarás y amansarás*”.

Las yras, las asperezas,  
desdenes, desabrimientos,  
novedades, movimientos,  
los desgustos y estrañezas,  
mientra que libre serás,  
vsa dellos todavía;  
que yo espero que algún día  
*casarás y amansarás*.

Allí me veré vengado,  
y tú quedarás pagada;  
yo, de verte mal cazada,  
tú, de averme mal tratado.  
Allí, traidora, dirás.  
llorando la noche y día:  
“Triste de aquel que dezía:  
*casarás y amansarás*”.

Beste bategaz ezcondu arren,  
uste badoçu oba dala,  
errazoaz desaqueçue:  
*la bella mal maridada*.  
**Orduan acordaduço çara**  
**oy nola esan niçun nic:**  
**ezcon baçatez, eongo çara**  
**ardia leguez mansaric.**

Ala çara mudaduco, ce  
ez çau inorc eçautuco;  
bici beste bat artuco doçu  
condiciooc quençaiteco.  
[...]  
[...]  
**[ezcon baçatez, eongo çara**  
**ardia leguez mansaric.]**

*Cancionero sevillano de Toledo* eskuizkribuaren editoreek (Labrador, DiFranco & Montero 2006: 479) zehazten dute *Zagala, quán libre estás...* letrak badituela beste glosa batzuk ere (*Cancioneiro de Évora* 58 eta, Gutierre de Cetinaren honen aldaera, *Cancionero sevillano de Nueva York* 651), baina zalantzarak gabe Toledoko eskuizkribukoa da oraingoz ezagutzen dugun hurbilekoena.

Dena den, ez da ahaztu behar nolabait *La bella mal maridada* gaztelaniazko poemaren glosa ere badela, Lazarragaren 16. lerroak adierazten duenez. Hona hemen glosa horiei buruzko aipu argigarri bat: “Es de sobra conocido que la canción más traída y llevada por glosadores buenos y malos en el siglo XVI fue *La bella malmaridada*. Es una de las viejas canciones que forma el entramado de la nueva poesía del Siglo de Oro. Entró —como *Vive leda*, *Las tristes lágrimas mías*, y muchas otras letras del XV— en los folios que el recopilador del MP 617 [*Cancionero de poesías varias*, ca. 1570] apartara para las glosas hechas a

las poesías heredadas de los viejos tiempos y que, en definitiva, son parte del cuerpo de los nuevos poemas del XVI. Esa canción, que por sus vestigios parece remontarse al siglo XIII y que cientos de años después, en 1596, Lope transformara en comedia, andaba por el siglo XV en Castilla” (Labrador & Difranco 2001).

<1173v>

Coplac

Doncellachoa, orain çaoz  
soberviagaz<sup>1</sup> beteric;  
ezcon baçatez, eongo çara  
ardia leguez mansaric.<sup>2</sup>

Egun<sup>3</sup> baçaoz libertadeaz, 5  
oy<sup>4</sup> noxbayt<sup>5</sup> galduco doçu;  
fortunea curela dana  
aldi bat<sup>6</sup> pensa eçaçu.

<sup>1</sup> *soberviagaz*: ‘soberbiaz, harrokeriaz’; Lazarragaren eskuizkribuan bi aldiz aurkitu dugu *-gaz* bukaera instrumentalaren balioarekin: *onezquero ez ditecen / amoreagaz burladu* (AL: 1154r), *Doncellachoa, orain çaoz / soberviagaz beteric* (A8: 1-2). Alderantzizkoa (*-az* bukaera soziatiboaren balioarekin) askoz ugariagoa da, jakina.

<sup>2</sup> *mansaric*: Adjektiboak genero femeninoaren marka hartzen du, baita *-ric* morfema eransten zaionean ere. Ikusi *mansaric* (A8: 4, A8: 12, A8: 26, A10: 70), *lindaric* (A17: 50), *enojadadic* (A17: 58) eta *satisfiecharic* (A23: 32).

<sup>3</sup> *Egun*: ‘gaur (egun)’; cf. *OEH*, s.v. 2 *egun*: “Empleado de forma general por autores septentrionales y alto-navarros; en textos más occidentales se encuentra, por un lado, como término fosilizado en la oración del Padrenuestro, desde Capanaga hasta casi nuestros días; tbn. lo hallamos en unos versos vizcaínos de 1688 y en Barrutia. En textos guipuzcoanos es algo más frecuente: lo emplean Larramendi, Mendiburu (*IArg I* 91), Iturriaga (*Fab* 194) e Iztueta, y ya en el s. XX hay testimonios de bastantes más autores, especialmente desde 1950; Aguirre de Asteasu sólo emplea la expresión *egungo egun*”.

<sup>4</sup> *oy*: Eskuizkribuko poemas maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>5</sup> *noxbayt*: ‘egunen batean’; dirudienez, “noizbait” (*noxbait, noxbayt, noxpait*) bi zentzurekin erabiltzen da Lazarragaren eskuizkribuan: ‘behingoz’ (hiru aldiz) eta ‘egunen batean’ (hemen bakarrik). ‘Behingoz’ zentza dutenetan (AL: 1146r, A17: 88 eta B27: 15) aginterazko aditz-formak dituzte beti ondotik, eta horietako batean (*noxbait-noxbait*, AL: 1146r) errepiaken indargarria (halakoetarako cf. Agirre Asteasukoaren adibideak, 1808 ingurukoak, *apud OEH*: “*Idiki itzatzu bada nozbait-nozbait, kristaua, zure begiak*. AA III 349. *Nozbait, nozbait* asitzera noa [...] kristau azai dotrina azaltzen. Ib. 399”).

<sup>6</sup> *aldi bat*: ‘aldi batez, une batez, memento batez, istaño batez’; *OEH* dioenaren kontra, ez dugu uste Lazarragarenan ‘vez, turno’ esan nahi duenik, ‘istaño, memento, une’ baino. Eskuizkribuan lau aldiz

Onezquero<sup>7</sup> fia ce çatez,<sup>8</sup>  
ez artu fantasiaric; 10  
ezcon baçatez, eongo çara  
ardia leguez mansaric.<sup>9</sup>

Beste bategaz ezcondu arren,  
uste badoçu oba dala,  
errazoaz desaqueçue.<sup>10</sup> 15  
*la bella mal maridada.*  
Orduan acordaduco çara  
oy nola esan niçun nic:  
ezcon baçatez, eongo çara  
ardia leguez mansaric. 20

Ala çara mudaduco, ce  
ez çau<sup>11</sup> inorc eçautuco;  
bici beste bat<sup>12</sup> artuco doçu  
condiciooc quençaiteco.<sup>13</sup>  
[...]  
[...]

---

aurkitu dugu: A8: 8, A17: 48, A17: 61 eta B14: 9. Cf. *OEH*, s.v. *aldi*: “Salvo en ciertos ejs. anómalos de *RS*, donde no aparece *denpora*, en los textos antiguos es equivalente a ‘vez, turno’. Va ampliando su campo semántico significando tbn. ‘tiempo concreto’. A partir de Azkue se comienza a emplear tbn. como sustitutivo de *denbora*”.

<sup>7</sup> *Onezquero*: ‘hemendik aurrera’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumental + -quero” eta “participio + azquero” egiturak erabiltzen dira. Hemen erakuslean oinarritutako forma dugu.

<sup>8</sup> *fia ce çatez*: ‘ez zaitez fida’.

<sup>9</sup> *mansaric*: Orotara hiru aldiz errepiatzen da lelo hau gorde dugun poema zatian. Bitan, lehenengoan eta azkenean (A9: 4 eta A9: 20), zuzenduta dago, eta erdikoan ez. Egilearen zuzenketa dirudi, eta interpretatu dugu agerraldi guzietan zuzendu nahi zukeela.

<sup>10</sup> *desaqueçue*: ‘esango dizute, esan diezazukete’; *esan* aditzaren NOR-NORI-NORK forma trinkoa da.

<sup>11</sup> *çau*: ‘zaitu’.

<sup>12</sup> *bici beste bat*: ‘beste bizi bat’, hitz-ordena ezohikoan.

<sup>13</sup> *quençaiteco*: ‘kentzeko’.

[ezcon baçatez, eongo çara  
ardia leguez mansaric.]

25

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Coplac] goian bi lerro tatxaturik: *doncellachoa libreric çaoz / ..ç. bioça* (azkenaurreko hitzean ç bigarren letra ere izan liteke, hurrengo lerroko *donçellachoa*-ren arabera; azken hitzetan *o* eta *a* ez dira argi ikusten); *coplac*, itxuraz, lerroartean idatzi da gero. **2** soberviagaz] *b-e* artean letra bat tatxaturik (agian *r*). **4** mansaric] *o* batí *a*-ren hankatxoa erantsi zaio; esk. *masaric*. **5** baçaoz] lehenik *çaoça* idatzi zuen, gero *ba-* lerroartean idatzi zuen, eta azken *a* tatxatu. **6** noxbayt] y letra baten gainean (agian *t*). **12** mansaric] esk. *mansoric*. **17** acordaduco çara] aurrean *eçautuco docu* hiru marraz tatxaturik. **20** mansaric] *o* batí *a*-ren hankatxoa erantsi zaio.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A8 – Coplac: Doncellachoa, orain çaoz...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A9

### Canción: Iragarri oy ez naguiçun...

A3, A5 eta A8 poemen ahapaldi-egitura berekoa da. Baino, poema honetan, maite-solasa da elementu garrantzitsuena, neskaren eta “jentil honbrea”ren arteko elkarrizketa, hain zuzen, “*bildur nax*” / “[ni] *bildurrago nax*” jokoan oinarrituta. Kasu honetan, elkarrizketan txertaturik dago errepika, beti gizonaren ahotan. Neska da gizonarekin harremana izan nahi duena (tentuz hasi arren, nabarmen), baina gizonaren ustez andrazkoak ez dira aski zuhurak eta, ondorioz, ez du ezer nahi neskarekin. Errepika solasaren barruan sartzen duten poemak ezagunak dira gaztelaniazko herri-poiesian; Carlos Eustoliak aztertu ditu horietako batzuk, “El diálogo amoroso en la antigua lírica popula hispánica” artikuluan (Eustolia 2007).

<1175r>

*Canción*

—Iragarri<sup>1</sup> oy<sup>2</sup> ez naguiçun,

jentil honbrea, *bildur nax*.

—Neurc<sup>3</sup> ecusiric nola çarean,

nesquea, *bildurrago nax*.

—Nola andraen *bildur cara*,

5

aec baga onic ez badoçu?

—Aen obraen oyta *bildur nax*;

çure<sup>4</sup> bere bay, badaguiçu.

—Ez dot eguingo gauça gaxtoric,

oy ez dasaçun<sup>5</sup> “*bildur nax*”.

10

—Neurc ecusiric nola çarean,

nesquea, *bildurrago nax*.

<sup>1</sup> *Iragarri*: ‘salatu’ adiera bide du.

<sup>2</sup> *oy*: Eskuzkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>3</sup> *Neurc*: ‘neuk’, izenordainaren forma zaharrean.

<sup>4</sup> *çure*: ‘zure obren *bildur*’ alegia.

<sup>5</sup> *ez dasaçun*: ‘esan ez dezazun’; *esan* aditzaren subjuntivo trinkoa.

- Cerren<sup>6</sup> dioçu secretoric  
oy andraetan ez dala?  
—Cerren causea beguiraçaca<sup>7</sup> 15  
ifinten dave obratan.<sup>8</sup>  
—Faltaduco jaçulaco  
cençuna<sup>9</sup> goganbear nax.<sup>10</sup>  
—Neur[c]<sup>11</sup> ecusiric nola çarean,  
nesquea, bildurrago nax. 20
- Andraetan discrecioric  
ez dala uste al doçu?  
—Bay, baya daven cençucho ori  
gaxqui daroae guiadu.<sup>12</sup>  
—Oyta bildurrac icara nabil, 25  
ez daquit neurau nor naxan.  
—Neurc icusiric nola çarean,  
nesquea, bildurrago nax.

Fin

<sup>6</sup> Cerren: ‘zergatik’; galdetzailea da hemen.

<sup>7</sup> beguiraçaca: ‘begiratzeko, begiratu gabe’.

<sup>8</sup> ifinten dave obratan: ‘horrexetan hasten dira’; cf. DAUT, s.v. *obra*: “Poner por *obra*. Phrase que significa passar a executar alguna cosa y dar principio a ella”.

<sup>9</sup> Faltaduco jaçulaco / cençuna: ‘Zentzuna faltatuko jatzulako’, hitz-ordena ezohikoa.

<sup>10</sup> goganbear nax: ‘beldur naiz, kezkaturik nago’; cf. OEH, s.v. *goganbear*: “I. Sospecha, recelo, inquietud. “Inquiétude intérieure, soupçon” Dv. ● Tr. Al Norte hay ejemplos de Dechepare, Etcheberri de Ziburu, Haramburu, Axular y Oihenart; al Sur, aunque lo emplean Mendiburu y Ubillos, no vuelve a aparecer hasta el s. XX. ★ [...] Handik zerbait kalte ethor zekion gogan beharrez eta beldurrez. Ax 27 (V 15). [...] Zenbait herritarren kezkak eta goganbeharrak arindu nahi nituzke orain. MIH 367”.

<sup>11</sup> Neur[c]: Ergatibo-faltari dagokionean, cf. *inor[c]* (AL: 1145r, A28: 147), *ni[c]* (A7: 38, A17: 107, B3: 34), *neur[c]* (A9: 19), eta *ar[c]* Sasiolakoarenan (B30: 86).

<sup>12</sup> daroae guiadu: ‘daroe gidatu, gidatu ohi dute’; “partizipioa + *joan / eroan*” perifrásia testu zaharretan usu agertzen zaigu ohitura adierazteko. Lazarragak ere behin baino gehiagotan erabiltzen du; cf., besteak beste, *Ene capaac egon doaz / ayn ondo toleztaguric* (A23: 53) eta *ascotan sarri nic neroean / requeridu ta seguidu* (B14: 7-8).

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** 1174 orria falta da. Bigarren zenbakuntza batean 37tik (=1173) 39ra (=1175) pasatzen da (nahiz goian ezkerrean 38 ere agertu), baina hirugarren zenbakuntza bat jarraia da, 22 (=1173) eta 23 (=1175), berriagoa den seinale. **4** bildurrago] esk. *bildurago*; cf. *bildurric* (1153r), *bildurrac* (poema honetan berean, A9: 25), etab. **12** bildurrago] esk. *bildurago*. **17** jaçulaco] ondoren *çençuna* tatxaturik. **18** nax] azken *a*-ren azpian letra bat, antza. **19** neurc] esk. *neur*. **20** bildurrago] esk. *bildurago*. **28** bildurrago] esk. *bildurago*.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A9 – *Canción: Iragarri oy ez naguiçun...*” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A10

### *Canción y copla echa por Laçarraga en servicio de Madalena*

1176 eta 1178 orriak galdu direnez, ez dakigu ziur poema guk aurkeztu dugun moduan idatzia den. Gure proposamenaren arabera, 1175v, 1176 osorik eta 1177 osorik hartzen zituen poema honek, eskuizkribua osorik zegoenean. Hori pentsarazten digute poemaren ezaugarri metrikoek eta gaiaren garapenak. Ezaugarri metrikoei dagokienean, 10 silabako eta 8 silabako lerroak txandakatzen dira, eta lerro bikoitietan (*r*)ik errima dago (A11 poeman, berriz, errima ez da hain erabatekoa). Gaiari dagokionean, zerbait handia eta garrantzizkoa esan behar duela iragartzen du 1175v orrialdean, eta badirudi 1177v orrialdearen amaieran esaten duela, azkenik, esan beharrekoa: Magdalena da maitearen izena (hortaz, uste dugu 1178. orrian ez zuela poema honek jarraitzen).

Dena den, poema osoan aurkezten den argudio-lerroa ez da erraz ulertzen, besteak beste erdiko zati handi bat (1176. orria) galdu delako. Poemaren aurretik beste tinta batez erantsitako izenburuaren arabera, Lazarragak Magdalena izeneko Diego Bikuñakoaren alabarentzat eginiko poema da, 1567ko Santiago eguneko gauean Bikuñako elizpean jarria eta Pedro Saenz apaizak kopiatua; hortaz, Bikuñako dama galantak eta “jentil honbreak” gogoan harturik idatziriko lerro hauek garrantzizkoak dira Lazarragaren lanaren dataziorako.

Ez dakigu ziur zer den idazlea haserreturik (*enojaduric* eta *afrontaduric*) daukana, baina badirudi mutilek ez dituztela Bikuñako neskak behar bezala zerbitzatzen. Aldiz, Lazarraga han biziko balitz (*ciudadecho chiquir batean neurcheau bacar-bacarric* bizi dela dio; Erdoñan, Ozetan eta Larrean bizi izan zen, garai desberdinan), ondo zerbitzatuko lituzke, bizitza laburraren topikoak agintzen duen moduan (*on derechunay on erechaçu, [...] cegaiti laster orraco gara*). Bainaz Lazarragak dontzeila bakar bat maite du: Magdalena.

<1175v> *Canción y copla echa por Laçarraga en servicio de Madalena, hija de M. Diego de Bicuña, barbero, el qual puso en un poste del portegado<sup>1</sup> de la iglesia de Vicuña la noche de Santiago, a 25 de julio de 1567, y tomó el dicho traslado Pedro Saenz, clérigo de Bicuña, que lo supe yo después.*

---

<sup>1</sup> *portegado*: ‘ataria’.

Arren, choriac, exilic çaoz,<sup>2</sup>  
badoçu miramenturic;  
mundu guztia isasoagaz<sup>3</sup>  
nançu,<sup>4</sup> çaoz gueldiric.<sup>5</sup>

Dama galantac, ni ez nax digno,<sup>5</sup> 5  
ez dot merescimenturic,  
çuetan<sup>6</sup> miiau<sup>7</sup> ifinteraco;<sup>8</sup>

<sup>2</sup> çaoz: ‘egon zaitez(te)’, agintera; çaoz eta çaoça, bietara erabiltzen du. Poeman gehiagotan agertzen da zu-ri dagokion aditz-morfema bere jatorrizko plural balioarekin.

<sup>3</sup> mundu guztia isasoagaz: ‘mundu guztia eta itsasoa’ edo ‘mundu guztia itsasoarekin’. Bi aukerak dira posible, kasu honetan zaila baita ziur jakitea “Xrekin Y” erako egitura bat den ala soziatibo arrunt baten aurrean gauden; izan ere, halakoetan erabakigarria gertatzen da aditzaren pertsonari begiratzea, eta hemen ez dago jakiterik hurrengo lerroko nançu eta çaoz adizkiak zu ala zuek pertsonarekin komunztatzen diren.

<sup>4</sup> nançu: ‘entzun nazazu(e)’; entzun aditzaren agintera trinkoa. Gisa horretako aginterazko forma trinkoak ez ziren ongi ezagutzen Lazarragaren testua agertu arte. Izan ere, historikoki, euskararen hizkera desberdinak egitura perifrastikoetara jotzen dute iragankorretako objektua 1. edo 2. pertsonakoa delarik. Cf. adibidez *Hiri cionat allaua, ençun neçan allauaiçuna* (Zalgize 131). Lazarragak, aldiz, forma trinkoak nasaiki erabiltzen ditu objektu mota hauekin ere: nançu (A10: 4), erruqui nauca (A16: 35, berorika), naraçaçu (A17: 48), ce nafinçu (A17: 60), nacusu (B23: 47). Arabarraren erabilera emankor horien ondoan, euskaraz ezagutzen den corpusean ez dugu beste bi aldiz baizik aurkitu objektua 1. pertsonakoa duen aginterazko forma trinkorik: bata *Arrasateko Erreketa* (*[An]dra urena Butroecoa nançu, Butr A,6*), eta bestea Oihenarten poesietan (*galdez nauzun horrez ukenduru negizu, Poes. XXIV, 5*).

<sup>5</sup> nançu, çaoz gueldiric: Antzeko formula aurkitu dugu eskuizkribuko lau lekutan, ondoren datorren solasari adi izateko arreta eskatzen duen funtzio kataforikoan: nançu, çaoz gueldiric (A10: 4), oy lenaengo abantajea / dasadan, çaoz exilic (A14: 49-50), Asi gura dot; / nançu, çaoz exilic (A28: 39-40), Arren, nançu, / Jaun Cerucoaen amorez, / conta deçadan / Pasio Santua dolorez (B29: 17-20).

<sup>6</sup> çuetan: ‘zuengan’, bizidun markarik gabe. Oro har, bizidunekin, Lazarragak -gan erabiltzen du leku-postposizioa aitzin; horrek balio du hala izenentzat nola izenordainentzat. Baino eskuizkribuan bi aldiz aurkitu ditugu (salbuespen gisa) izenordainetan -gan-ik gabeko formak: *Cuetara / joan joacen orduan / limosna esque / Jaungoicoaren contuan* (A26: 83) eta *Dama galantac, ni ez nax digno,/ ez dot merescimenturic, / çuetan miiau ifinteraco* (A10: 8).

<sup>7</sup> miiau: Birritan bakarrik aurkitu dugu hitza eskuizkribuan eta bietan bokal bikoitzarekin dago: *miiau* (A10: 7), *miirc* (A27: 41). Landuccirenean bokal bikoitzik gabe dago: “lengua, mia”. Cf. *OEH*, s.v. *mihi*: “De uso general en la tradición septentrional. Al Sur apenas se documenta en autores guipuzcoanos (hay *mi* en los refranes de Isasti (*mingañ* en C), en Cardaberaz (*Eg III 370*) y Ubillos; *mi(h)i* en Moguel (CC), Aguirre de Asteasu, Orixe y N. Etxaniz (*LBB 188*), y *mihin* en Aresti (*Tobera 287*)). Es más frecuente entre los vizcaínos, cuya forma es *mi(i)n* desde el s. XVII. En los refranes recogidos por Garibay y en RS las formas documentadas son sin -n, pero seguramente con nasalización de la vocal. Para el dialecto alto-navarro hay *mi* en Beriayn, Lizarraga de Elcano, en un texto de Larrasoña del s. XVIII (*ETZ 58*) y en Zubiri (en éste junto a *mihi*), y *mi(h)i* en Mendiburu y en un texto baztanés del s. XVIII (*BOEans 799*). En DFrec hay 13 ej. de *mihi* y 1 de *miin*”.

banago losaz beteric.

Oy,<sup>9</sup> bada bere,<sup>10</sup> borondateau

daducat utra<sup>11</sup> osoric,

10

ceñac ixilic egoteraco

ez dit emayten lecuric.<sup>12</sup>

Obligacioz bete ninduçun,<sup>13</sup>

guztioc ala guraric;

15

pagaetaco ezin neyque<sup>14</sup>

bapere servicioric.

Oy, bada bere, presentecho au

artu eguiçu niganic;

licenciea,<sup>15</sup> arren, indaçu,

20

badoçu borondateric,

daquidancheau<sup>16</sup> esateraco,

<sup>8</sup> *çuetan miiau ifinteraco*: ‘zuetaz gaizki esaka aritzeko’; cf. *DAut*, s.v. *lengua*: “Poner *lengua* en alguno. Significa murmurar y hablar mal de él”. Ikuusi baita *nigan miiric badafinçu* (A27: 41). Ohar bedi adibide batean bividunaren marka erantsi diola izenordainari eta bestean ez.

<sup>9</sup> *Oy*: Eskuizkribuko poematan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>10</sup> *bada bere*: ‘gutxienez, bederen’.

<sup>11</sup> *utra*: ‘oso’; gutxienez Kapanagari eta Oihenarten atsotitzei esker ezagutzen genuen (cf. *OEH*, s.v.).

<sup>12</sup> *ez dit emayten lecuric*: ‘ez dit ematen aukerarik’; eskuizkribuan bost lekutan dago antzeko egitura: *ez dit emayten lecuric* (A10: 12, A10: 62), *eztit emaiten / iguitaiac lecuric* (A23: 87-88), *ez diçu emun lecuric* (A27: 12), *eztit emayten lecuric* (A28: 30). cf. *OEHn LEKU(A) EMAN*, s.v. *leku*: “Dar lugar, consentir, dar consentimiento; dar ocasión, dar tiempo”.

<sup>13</sup> *Obligacioz bete ninduçun*: ‘zure zordun egin ninduzun’; cf. *DAut*, s.v. *obligación*: “Se toma también por la correspondencia que uno debe manifestar y dar a entender tiene al beneficio que ha recibido de otro”.

<sup>14</sup> *ezin neyque*: ‘ezin egin nezake’.

<sup>15</sup> *licenciea*: Lazarragarenan, -ia bukaera duten izenek -iea bukaerarekin egiten dute forma mugatua: *historieac* (AL: 1138v), *sentenciae* (AL: 1153v), *gueraciea* (A6: 30), *licenciea* (A10: 19).

<sup>16</sup> *daquidancheau*: ‘dakidantxo hau’; Lazarragaren eskuizkribuan, -txo atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; -xe atzizkiak, berriz, hiru balio hartzen ditu: **1)** Txikigarria (-xe = -txo), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *esecoxeo* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxear* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). **2)** Izenondo eta aditzondoien intentsitate markatzailea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). **3)** Indartzailea (izenordain indartuekin, eta *eben* / *arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

-au lehen pertsonako artikulua dela ulertu dugu, erabat argia ez bada ere.

	ez eguiñ beste gauçaric:	
	gauçaxe <sup>17</sup> batec oyta nauco	
	andiro enojaduric;	
	doncellachoac, esan bear dot,	25
	ezin neongue <sup>18</sup> exilic. <sup>19</sup>	
	[...]	
<1177r>	Çuegaz, <sup>20</sup> barriz, ez eucaen	
	oyta bapere conturic;	
	ene bicia! gueratu ninçan	
	andiro afrontaduric. <sup>21</sup>	30
	Ceruco Jaunac oy ez diela <sup>22</sup>	
	amoreoquin dicharic,	
	cerren da <sup>23</sup> ceuroc servietaco	
	ez daven constanciaric.	
	Dama galantac, sinis naçaçu,	35
	oy ceuçaçu <sup>24</sup> dudaric,	
	lecu onetan bicico baninz,	
	ez neyala <sup>25</sup> besteric	
	gabaz-egunaz servidu baxe, <sup>26</sup>	

<sup>17</sup> *gauçaxe*: ‘gauzatxo’; -xe atzizkiaz, ikusi 21. lerroko oharra.

<sup>18</sup> *neongue*: ‘nengoke’.

<sup>19</sup> *ezin neongue exilic*: Esaldi bera dago eskuizkribuko bi lekutan: *neure peneau esan bear dot / ezin neongue exilic* (A7: 57-58) eta *doncellachoac, esan bear dot / ezin neongue exilic* (A10: 25-26).

<sup>20</sup> *Çuegaz*: ‘zuekaz, zuekin’; eskuizkribuan lau aldiz aurkitu dugu -egaz soziatibo plurala: *çuegaz* (A10: 27), *oegaz* (A26: 87), *oriegaz* (B7: 33) eta *guiçonegaz* (B18: 128); eta bitan -ogaz soziatibo plurala: *escuogaz* (A17: 64) eta *damaogaz* (B2: 10). Plurala da orobat *baçugaz*: *urregorrizco letra baçugaz / egoan escreviduric* (A1: 11-12), *Egun batean leucala/beste baçugaz cabildu, / aen artera içan ninçan / exil-exilic coladu* (B14: 45-48), *baçugaz consultaduric* (B23: 22). Horien ondoan, bada -ocaz/-ocaç ere: *delicaduocaz* (AL: 1138r), *berbaocaç* (AL: 1151v), *beguiocaz* (AL: 1152v), *biciocaz* (AL: 1154v); eta -equin: *oequin* (A11: 2), *matalotequin* (B30: 69).

<sup>21</sup> *afrontaduric*: ‘iraindurik, haserreturik’; cf. *DRAE H* 1933, s.v. *afrontar*: “5. ant. y vulg. Afrentar, causar afronta”. Cf. baita *afrontadu* ‘iraindu, haserretu’ (A26: 4), baina *afrontadu* ‘iraindurik sentitu, lotsatu’ (B14: 26), eta *afrontua* ‘kargu-hartzea, errieta’ (A21: 13).

<sup>22</sup> *ez diela*: ‘ez diezauela eman’; \*-in- erro zaharreko adizkia.

<sup>23</sup> *cerren da*: ‘zeren eta’; testuko kasu bakarra da.

<sup>24</sup> *ceuçaçu*: ‘ze eukazu, ez ezazu(e) eduki’.

<sup>25</sup> *ez neyala*: ‘ez negiala, ez nuela egingo’; adizki hau gainerakoetan -g-rekin kausitzen dugu: *neguijan* (A23: 23, B14: 22), *neguianean* (B14: 14), *neguiala* (B27: 106), etab., baina badira g gabeko formak testuan zehar: *eyoen* (AL: 1147v), *eyano* (AL: 1153r), *leyan* (A26: 32), *neyo* (B30: 27)...

	secula asperçacaric; <sup>27</sup>	40
	au çuegaiti <sup>28</sup> eguitaraco	
	asco da errazoaric.	
	Oy, bada bere, bici oy nax,	
	Jaun Cerucoac guraric,	
	ciudadecho chiquir batean <sup>29</sup>	45
	neurcheau <sup>30</sup> bacar-bacarric.	
	Ene icena letra <sup>31</sup> onetan      LÇRGÀ	
	oy dago escreviduric.	
	Oy onegayti, jentil onbreac,	
	ez egon enojaduric,	50
	cegaiti çuec enojaceco	
	ez dot nic borondateric;	
<1177v>	guzti-guztioc serviceraco	
	nago ni obligaduric.	
	Oy, bada bere, ciertamente	55
	banago enojaduric,	
	cerren damaoc servietaco	
	ez doçun miramenturic.	
	Gueixeago <sup>32</sup> esango neben,	
	eugui baneu astiric;	60
	badanic bere, <sup>33</sup> amoreonec	

<sup>26</sup> *baxe*: ‘baizen, baizik’; eskuizkribuan *baxe* eta *baize* formak agertzen dira (bakoitza zazpi aldiz, eta behin *baje*). Formari buruz, cf. *OEH*, s.v. *baizen*: “La variante *baxen* (<-ix-> a veces en fray Bartolomé) es propia de la tradición vizcaína; no se encuentra *baizen* en textos de este dialecto hasta el s. XX. Las formas sin -n se documentan en textos meridionales antiguos: *baize* en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama; *baxe* y *bixin* en Micoleta; *baizin* en *BBizk*.”

<sup>27</sup> *asperçacaric*: ‘aspertu gabek, nekatu gabek’.

<sup>28</sup> *çuegaiti*: Bi lekutan aurkitu dugu motibatibo plurala *-ega(i)ti* bukaerarekin: *arçaiategati* (AL: 1147v) eta *çuegaiti* (A10: 41).

<sup>29</sup> *ciudadecho chiquir batean*: Joan Perez Lazarragak lehen haurtzaroa Ozetan egin zuen; familia 1562 inguruan aldatu zen Erdoñara; 1576az gerotzik Larrean bizi izan zen emaztearekin.

<sup>30</sup> *neurcheau*: *neurau-ren* forma indartua da; *-xe* atzizkiaz, ikusi 21. lerroko oharra.

<sup>31</sup> *letra*: ‘monograma’.

<sup>32</sup> *Gueixeago*: ‘apur bat gehiago’; *-xe* atzizkiaz, ikusi 21. lerroko oharra.

ez dit emayten lecuric. <sup>34</sup>	65
On derechunay on erechaçu, <sup>35</sup>	
ez artu soberviaric,	
cegaiti laster orraco gara	70
oetan acabaduric. <sup>36</sup>	
Amorea ta bioc gabilça,	
ez dogu beste lagunic;	
dama curela <sup>37</sup> ifinten dogu	
gaztigadu <sup>38</sup> ta mansaric. <sup>39</sup>	75
Abisaetan çaitudan guero, <sup>40</sup>	
ez eguin beste gauçaric,	
çuen arteco doncella batec	
nauco enterraduric; <sup>41</sup>	
aen icena letra onetan	MGDLNA
oy dago relataduric;	
pensamentuoc altuan ditut,	
arc ala meresciduric. <sup>42</sup>	

<sup>33</sup> *badanic bere*: ‘hala ere’; *badanik bere OEHn* ez dago jasota, baina cf. *badarik* ‘hala ere’: funtsean Iparraldean lekukotzen bada ere, badago GN-zko adibiderik (1609ko poesietako batean, zehazki), eta Otxoa Arinek ere erabiltzen du. Lazarragaren eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu dugu: A6: 43, A10: 61, A24: 51, A26: 13, A27a: 7, B5: 27 eta B14: 51.

<sup>34</sup> *ez dit emayten lecuric*: Esamoldeari buruz, ikusi 12. Ierroko oharra.

<sup>35</sup> *On derechunay on erechaçu*: ‘maite zaitu(zt)ena maite ezazu(e)’.

<sup>36</sup> *laster orraco gara / oetan acabaduric*: ‘laster beste mundurako gara, hauetan (hemengo kontuetan) amaiturik’; bizitza laburraren topikoaz ari da.

<sup>37</sup> *dama curela*: ‘dama krudela’, hots, Herioa.

<sup>38</sup> *gaztigadu*: ‘abisatu’; ohar bedi hurrengo lerroan *abisaetan* dagoela. Dirudienez, Lazarragaren eskuizkribuan *gaztigatu* aditzak beti ‘abisatu’ esan nahi du (cf. A7: 70, A10: 70, A16: 60, A28: 24 eta *gaztigu* A28: 146), eta *castigua* ‘zigorra’ da (AL: 1154r). Cf. *OEH*, s.v.: “Al Sur se da la distribución de variantes *gaztigatu* ‘avisar’ / *kastigatu* ‘castigar’; hay pocas excepciones —Refranes de Garibay, Beriayn, Iturriaga e Iza— en que *gaztigatu* se emplee para ‘castigar’.”

<sup>39</sup> *mansaric*: Adjektiboak genero femeninoaren marka hartzen du, baita *-ric* morfema eransten zaionean ere. Ikusi *mansaric* (A8: 4, A8: 12, A8: 26, A10: 70), *lindaric* (A17: 50), *enojadadic* (A17: 58) eta *satisfiecharic* (A23: 32).

<sup>40</sup> *Abisaetan çaitudan guero*: ‘abisatzen baitzaitut, abisatzen zaitudanez’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n guero* hau horietako bat da.

<sup>41</sup> *enterraduric*: ‘ehortzirik’; hemen erabilera metonimikoa du eta ‘hilik’ esan nahi du. Cf. *sepultaduric* (A7: 34), itxuraz adiera bertsua duena.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Orrialde honetako testu guztia marra batek inguratzen du eskuinaldetik, eta txirikorda batek ezkerraldetik. Eskuinaldeko marra ertzean goitik behera idatzita dagoenaren gainetik igarotzen da beheko aldean, beranduago egina delako seinale. || Canción ... después] azalgarri hau, bestetan bezala, beranduago erantsia da, beste tinta batez, poemaren nondik norakoak kontatu beharrez. Gero gainetik zirriborratua da, eta hitz batzuk besteak baino tatxatuago daude, batez ere neskaren eta aitaren izenak. || Laçarraga] esk. LÇRGA monograma. || Bicuña] esk. bicuna. || Vicuña] esk. Vicuna. || Bicuña] esk. bicuna. **27** 1176 orria falta da. Gainerako orrialde-zenbakuntzek 41 eta 24 ematen dute. **31** diela] hitzaren gainean mantxa bat; beheragoko beste batzuk bezala, ez dirudi nahita egindakoa denik. **32** amoreoquin] lehen *amoreoquien; e* marra bertikal batez tatxaturik dago. **47** onetan] alboan Lazarragaren monograma, eta horren ondoan *Lazarraga*, beste tinta batez eta agian beste letrakera batez erantsita. **65** orraco] *a*-ren azpian letra bat dago, *e* agian (gaineke puntu nahasgarri da, baina hainbat puntu daude lerroetan zehar arrazoik gabe). **75** onetan] bestetan agertzen diren marra diagonalen ordez, *o*-ren aurreko ikurrak oraingoan ſ forma garbia du. **78** arc] aurrean hitz bat tatxaturik: ç{...}. Ez da kasualitatea izango esaldiaren beste agerraldian (A7: 44) çuc *ala meresciduric* izatea: baliteke, bada, lehenik edo çuc hura bera, edo (agian errazago, tarteari begira) çuc jartzea.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A10 – Canción y copla echa por Laçarraga en servicio de Madalena” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

<sup>42</sup> *pensamentuoc altuan ditut, / arc ala meresciduric*: ‘helburuak oso goian ditut’; bi lerro berak aurkitu ditugu beste poema batean: *Pensamentuoc altuan ditut / çuc ala meresciduric* (A7: 43-44).

## A11

### Jaio citecen maiaz ilean...

1178. orria galdua den arren, ez dirudi poema honen zatirik galdu denik; ondo ulertzen da, behintzat, ezagutzen ditugun hasiera eta amaierarekin. Martin eta Flora (edo *Lora*) gazteak elkarrekin hazi dira, adin berekoak baitira eta horma hormaren kontra diren etxeetan bizi baitira. Hazi ahala, maitasuna sortu da bien artean, eta, susmo txarrei bidea ixteko, Floraren gurasoek etxean giltzaperatu dute alaba. Gazteek laster aurkitu dute erremedioa: etxe bien arteko horman zuloa egitea, bien arteko komunikazioa errazteko. Berez, Piramo eta Tisbe Babiloniako maitaleen fabula mitologikoaren hasieraren aldaera da, Piramo eta Tisbe ere elkarren ondoko etxeetan bizi baitziren, eta, harremanaren debekua gainditzeko, hormako pitzadura bat erabiltzen baitzuten. XVI-XVII. mendeetan kontakizun horren bertsio asko egin ziren gaztelaniaz (Gongorarena da ezagunenetako) eta Europako mendebaldeko beste literatura batzuetan, horietako batzuk irrigariak.

<1179r> Jaio citecen<sup>1</sup> maiaz ilean,  
amorioa oequin;<sup>2</sup>  
doncelleari Lora ereyçan,<sup>3</sup>  
morroeorri<sup>4</sup> Don Martin.  
Egun batean jaio citecen,  
Jaun Cerucoac gurasic,  
oen gañean<sup>5</sup> jasarri cidin<sup>6</sup> 5

<sup>1</sup> *Jaio citecen*: ‘jaio ziren’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. Lehenengo hiru lerroak bigarren goz kopiatu dituenak (ziur aski Martin Lopez Bikuñak) aldaketa interesgarriak egin ditu. Kasu honetan ondokoa: *citecen* > *cirean*.

<sup>2</sup> *amorioa oequin*: ‘amorioa (jaio zen) horiekin’. Hona Martin Lopez Bikuñaren kopiako aldaketa: *amorioa* > *amorioau*.

<sup>3</sup> *Lora ereyçan*: ‘Lora zeritzon, Lora izena zuen’; aditzaren formari dagokionean, badira honen kide gehiago testuan zehar: *on dereicut* (AL: 1144r), *ereiçan* (AL: 1145r), *nola ereiçun* (A7: 73), *ereyçan* (A11: 3), aditzaren bi adieretan (‘maitatu’ eta ‘izena izan’), baina ugariago dira palatalizaturiko adizkiak: *derechana*, *derechula*, *derechadan*, *derekudan*, *derecho...* Martin Lopez Bikuñak apur bat aldatu du bere kopian: *ereyçan* > *eriçan*.

<sup>4</sup> *morroeorri*: ‘mutil gazte ezkongabeari’; eskuizkribuan hiru aldiz agertzen da *morroe* izena, eta hiruretan du esanahi bera, eta ez ‘zerbitzaria’: **morroe** galant estiraduac (A6: 31), *doncelleari Lora ereyçan / morroeorri Don Martin* (A11: 3-4), *ezta munduan morroeric / norc desaquedan “nola ago?”* (A19: 37-38).

<sup>5</sup> *gañean*: Hitz honetan, eskuizkribuan lau aldiz agertzen da <ñ> sabaikaria markaturik (*gañe-* A4: 18, A17: 82, A24: 31, B18: 5) eta hiru bider sabaikaritasuna markatu gabe (*gane-* AL: 1141v, A11: 7, A28:

amoremina<sup>7</sup> dulceric.

Mundua mundu formaduzquero,<sup>8</sup>

oy<sup>9</sup> ez da jaio semeric

10

ene ostean nor içan dan<sup>10</sup>

au baño guiçon firmeric.<sup>11</sup>

Ese banatan bici cirean,<sup>12</sup>

ceñac eusten alcarri;<sup>13</sup>

---

44); *muin* ‘musu’ hitzean, behin markatu da sabaikaritasuna (*muñ* ‘musu’ A27: 38) eta behin ez (*mun* ‘musu’ A27a: 51); aipatu behar da badela *muyña* ‘funtsa, aberastasuna’ (B33: 2) ere, sabaikaritasuna markaturik. Uste dugu testuan *gane-* > *gañe-* eta *mun* > *muñ* aldatzea dela egokiena, jakinik eskuzkribu honetan bestelakoetan ere markatu gabe direla kontsonante sudurkari sabaikari batzuk, eta kontuan izanik Landuccirenean ere —Mitxelenak ohartarazi zuen moduan— sistematikoki *-ain* eta *-uin* bukaerak *-ayn* / *-añ* eta *-uyñ* / *-uñ* idazten direla (cf. Lcc “ençima, gaynean”, “neruio, raiz, çayna”, “nuera muger; yerno, errayna”, “nauaja, labayña”, “cola de animal, vuztayña”, eta “beso, muyn”, “besar, muyn eguin”), eta ez *-an(e)* edo *-un* bizkaieraz bezala.

<sup>6</sup> *jasarri cidin*: ‘jesarri zen, jarri zen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. *Jasarri* aditzaren esanahiari dagokionean, badirudi hala ‘eseri’ (A17: 99, A26: 149, B14: 49) nola ‘jarri’ (A10: 7, B5: 13, B17: 63) esan nahi duela eskuizkribuan, testuinguruaren arabera. Gaztelaniaz ere aurkitu dugu honen parekoa, hain zuzen XVII. mendearen hasieran erabilia (*apud CORDE*): “cuando este amor se sentó en mí” (San Juan Bautista de la Concepción, c. 1605, *La llaga de amor*).

<sup>7</sup> *amoremina*: ‘maitemina’; Berpizkundeko poesian topiko ezaguna da “amorez minduta” egotea (Petrarca, Garcilaso...): maitalea “amoreminez” dago, ezin duelako lortu maitatuaren amodia (arrazoia askotarikoak izan daitezke). Testuan hitz honek dituen beste agerraldietan, esanahia hurbilago bide dago etimologiatik (AL: 1145r, A7: 78, A16: 47, B10: 12, B21: 2 eta B23: 118); aldiz, ematen du lerro honetan gaur egun maiteminak duen adiera arruntari dagokiola.

<sup>8</sup> *formaduzquero*: ‘formadu zenetik, sortu zenetik’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumental + -quero” eta “partizipio + azquero” egiturak erabiltzen dira. Hemen “partizipioa + -zquero” dugu.

<sup>9</sup> *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>10</sup> *nor içan dan*: ‘izan dena’; erlatibozko esaldia da.

<sup>11</sup> *firmeric*: ‘firmeagorik’; eskuizkribuan hiru lekutan aurkitu dugu “*baño* + adjektiboa gradu positiboan” egitura: *au baño guiçon firmeric* (A11: 12), *Mundu guzian ni baño ezta / oy amoradu firmeric* (A14: 111-112) eta *nicuste baño luce içan da* (B7: 19).

<sup>12</sup> *cirean*: Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a* > *-ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatuetan ere, *-an* / *-ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an* > *doean* (RS), *daroa + -an* > *daroeanean* (VJ) (cf. FHV 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138r), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B17: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B18: 31, B18: 44), *guinean* (A7: 8, B18: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B18: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroela* (B18: 16). Ohar gaitezen Landuccik ez duela aldaketa horren arrastorik aditzean (“antecedente, *aurrera doana*”).

	eurac biac oy ebilcen <sup>14</sup>	15
	bapere baga lagunic	
	gazte cirean artean, baña	
	azquero <sup>15</sup> beti loturic.	
	Cerren guztiac egon joacen <sup>16</sup>	
	andiro admiraduric	20
	oy nola beti ebilten diran <sup>17</sup>	
	Martin da <sup>18</sup> Flora bacarric,	
	ayta-amaoc efini dave	
	Flora oy encerraduric,	
	cerren bertati <sup>19</sup> jarri cirean	25
	sospecha gachez <sup>20</sup> beteric.	
<1179v>	Amoraduoc ecustenean <sup>21</sup>	
	euren buruac loturic,	
	aen bioçac nimberebaita <sup>22</sup>	
	egon joacen tristeric.	30

<sup>13</sup> *ceñac eusten alcarri*: ‘zeinek elkarri eusten zioten’; hau da, bi etxeak horma hormaren kontra zeuden. *Eusten adizkia eutsi* aditzaren iraganaldi trinkoa da; cf. *alcarri escuetaric eustela* (AL: 1142v).

<sup>14</sup> *ebilcen*: ‘ibiltzen ziren’.

<sup>15</sup> *azquero*: ‘geroztik’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko (*geroztik*, *momentu honetatik/hartatik...*) nagusiki “erakuslea + instrumentalala + -quero” eta “partizipio + azquero” egiturak erabiltzen dira. Hemen *azquero* hutsa dugu.

<sup>16</sup> *egon joacen*: ‘egon ohi ziren’.

<sup>17</sup> *diran*: Eskuzkribu honetan, *nola* eta *nun* galdetzaileak buru diren zehar-galderetan, markaturik izan ohi da aditz-jokatua -(e)n atzizkiarekin. Hemen eta agian A17: 33-34 bertso-lerroetan legoke salbuespina, kontua palegrafiko hutsa ez balitz, hain zuzen, -n idatzi gabe izan arren irakurri behar izatea; -n defektiboa dagoela pentsatu dugu, hain zuzen.

<sup>18</sup> *da*: ‘eta’.

<sup>19</sup> *bertati*: ‘berehala’.

<sup>20</sup> *gachez*: ‘txarrez’.

<sup>21</sup> *ecustenean*: ‘ikusten zituztenean, ikusten zituztelarik’.

<sup>22</sup> *nimberebaita*: ‘edonon’; cf. A19: 35. Beharbada balio modala izan lezake, ‘segurki, itxuraz, dirudienez’ adiera alegia. Añibarrok *nonberebait* jaso zuen (“creo que”, ap. OEH, s.v. *nonerebait*) eta, leku-adieran, Beovidek erabili (Bv AsL 205). *OEH*k jaso ez arren, badira *nonerebait-en* adibideak Mendibururengan ere, Klasikoen gordailuaren arabera (*ta geldituko zen, etorkizunaren begira ta lenbaitlen bere seme Jesus nonerebait ekusteko nai andiarekin*). Formaren aldetik, cf. *zelanbaista* (RS) eta, jadanik garatuta, *nondik-nahi baita* ‘nondik-nahi’ zubereraz (OEH, *NONDIK-NAHI BAITA*, s.v. *nondik-nahi*). Landucciren formak hau baino bakunagoak dira: “nada, *çerbere*”, “nadie, *norbere*”, “ninguna cosa, *ezta çerbere*”, “nunca, *ezta noxbere*”...

Pensamentuac leucaela<sup>23</sup>  
dolorez mantenduric,  
remedioa bila citecen,<sup>24</sup>  
eurençat gora<sup>25</sup> costaric.  
Bijeac<sup>26</sup> alcar ecusteraco  
olçori<sup>27</sup> dave iregui;<sup>28</sup>  
ifini dave miraderoa,  
bioendaco cilegui.<sup>29</sup>

35

## OHAR PALEOGRAFIKOAK:

1 1178. orria falta da; bigarren zenbakuntzan 43 agertzen da (ezkerrean, goiko puntan, testuak ia estalita) eta hirugarren zen bakuntzan, 25. 3 doncelleari] lehen *l*-ren azpian letra bat, agian. || Jaio ... ereyçan] lehenengo hiru bertso-lerroak beste esku batek (Martin Lopez Bikuñak, ziur aski) kopiatu ditu, bigarrenez, testu nagusiaren ondoko zuriune batean; testu bera da, baina aldaera interesgarriekin: *Jaio cirean mayaz / ilean amorioau / oequin doncleari / Lora eriçan.* 7 gañean] esk. *ganean*. Beste tinta

<sup>23</sup> *leucaela*: ‘zeuzkatela’; XVI. mendeko autore gehienek *l*- aurrikidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzenten dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emaiteaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan errequa, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayt-aamaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 9-13), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdu* (Etx III, 17), *Fray Vicente esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

<sup>24</sup> *bila citecen*: ‘bilatu zuten’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra da. Bestalde, Lazarragaren testuan *bilatu* aditza iragangaitza da, agertzen den hiru lekuetan: *beste amore bilatuco nax* (A4: 11), *Pensamentuac leucaela / dolorez mantenduric, / remedioa bila citecen, / eurençat gora costaric* (A11: 31-34), *bila ce çatez besteric* (A27: 34).

<sup>25</sup> *gora*: ‘garesti’; cf. OEH, s.v. *gora*: “(c. sg. A; Lcc, Lr, Añ, H). Caro. “Cara cosa, gauza gorea” Lcc”.

<sup>26</sup> *Bijeac*: ‘bixeak, biak ala biak’; <j> grafia bost aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan txistukari sabaikariaren balioarekin: *najala* (AL: 1147v), *baje* (AL: 1153r), *bijeac* (A11: 35), *urteje* (A14: 6) eta *beajaco* (A16: 46).

<sup>27</sup> *olçori*: ‘holtz hori, horma hori, pareta hori’; cf. Lcc ‘Pared, olza’.

<sup>28</sup> *iregui*: ‘ireki, zabaldu’.

<sup>29</sup> *cilegui*: ‘eskura’.

batek *artean* zuzendu du, g *tatxatuz eta n itxuraldatuz*, baina ez dago garbi noren eskua den. **21** ebilten] esk. *ebilte.* || diran] esk. *dira.*

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A11 – Jaio citecen maiaz ilean...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen mende](#) dago

A12

## Gaztelatika jentil onbre bat...

Poemak bi zati ditu: lehenengo bi ahapaldietan, hirugarren bati gertaturikoaz dihardu narratzailearen ahotsak; hirugarren eta laugarren ahapaldietan, berriz, estilo zuzenean hitz egiten dio Joan Lopez Zuazukori. Bainaz ez dira zati lokabeak: Gaztelako “jentil onbrea”ren kasuak irakatsi behar dio Joan Lopez Zuazukori maitatuaren erantzun onik hartzen ez duenean komeni zaiola uztea.

<1180r> Gaztelatica<sup>1</sup> jentil onbre bat  
orayn eterri ey<sup>2</sup> jacu;  
etorrizquero<sup>3</sup> doncella batec  
amorez ey dau bencidu.

Doncelleorri on derecho,<sup>4</sup>  
doncelleorrec ez ari;  
au onela oy<sup>5</sup> dan azquero,<sup>6</sup>  
esquerric asco Jaunari.

<sup>7</sup>—Joan Lopez jauna Çuaçuco,

<sup>1</sup> *Gaztelatica*: ‘Gaztelatik’; -tika ablatiboa hemen baizik ez da agertzen testu osoan. Etxeparek eta Landuccik ere forma horren adibideak dituzte: *cerutica iayxi cedin harçaz amoraturic* (Etx III, 48), “de villa en villa, *lecutica lecura*” (Lcc).

<sup>2</sup> ey: ‘ei, omen’; partikula honen lehenenengo lekukotasuna *Arrasateko Erreketa* aurkitzen da (*Madalenaan an ei dauça*, TAV 3.1.7, 83), baina XIX. mendera arte oso gutxi lekukotzen da, ziur aski testu motengatik (dotrinalak, otoitzak...). Cf. *OEH*, s.v.: “Documentado sólo en textos vizcaínos. Atestiguado ya en los Cantares de la quema de Mondragón, hasta la segunda mitad del s. XIX los ejemplos son, sin embargo, muy poco frecuentes”. Lazarragarenean bederatzi aldiz aurkitu dugu: A12: 2, A12: 4, A23: 25, A24: 2oh, A27b: 5, A28: 2, A28: 10, B29: 10, B29: 24.

<sup>3</sup> *etorrizquiero*: ‘etorri denetik’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumental + -quiero” eta “partizipio + azquiero” egiturak erabiltzen dira. Hemen “partizipioa + -zquiero” dugu.

<sup>4</sup> *Doncelleorri on derecho*: ‘dontzeila hori maite du’.

<sup>5</sup> *oy*: Eskuzkribuko poematan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>6</sup> *onela oy dan azquero*: ‘honela baita, honela denez’; *gero adberbioa oinarri duten egiturez*, ikusi 3. jerroko oharra; hemen *-n azquero* horietako bat dugu.

ene esan<sup>8</sup> bat eguiçu: 10

bardin<sup>9</sup> on ez derechun guero,<sup>10</sup>  
doncelleorri<sup>11</sup> ichaçu.<sup>12</sup>

Çure adisquidea nax<sup>13</sup> ta  
gueiago<sup>14</sup> ez dot esango,  
cegaiti baquit<sup>15</sup> daqusunean 15  
nola<sup>16</sup> çarean<sup>17</sup> eongo.—

<sup>7</sup> *Joan Lopez jauna Çuaçuco*: Pertsona-izen berezien egiturari dagokionean, ikusi bi hauek: *Mari Lopezco* (A27: 1) eta *Joan Lopez jauna Çuaçuco* (A12: 9). Martin Lopez Bikuñaren eskuz idatziriko aldaeran *Çuaçuço* (<ç> pro <c>).

<sup>8</sup> *esan*: ‘agindu, aholku’.

<sup>9</sup> *bardin*: ‘dena den, seguru aski’ edo ‘berdin; berdin hark zuri, zuk hari bezala’. Lazarragaren eskuizkribuan 11 aldiz aurkitu dugu *bardin*. Horietako batean bakarrik (AL: 1145v) du zalantzariak gabe gaurko ‘berdin’ esanahia, ‘berdintasuna’ adierazten duena; hiru aldiz (AL: 1151r, A25: 8, A27b: 7) ‘dena den, nonbait, beharbada, seguru aski’ adierazten du, gure ustez (cf. *OEH*, s.v., “de todas maneras, en cualquier caso” eta “probablemente, quizás”); behin, hemen hain zuzen (A12: 11), zalantza dugu bi adiera horietako zein ote duen; eta, azkenik, sei bider adierazten du baldintza (AL: 1172r, A24: 5, B17: 82, B18: 93, B18: 98, B23: 101).

<sup>10</sup> *on ez derechun guero*: ‘ez baitzaitu maite, ez zaituenez maite’; *gero* adberbioa oinarri duten egiturez, ikusi 3. lerroko oharra. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu, eta *-n guero* horietako bat da hau.

Aipagarria da, balio kausala adierazten duten bi egitura horien baliokidetasunaren argigarri, adibide honen eta AL: 1151r atalekoaren arteko erabateko paralelismoa: *bardin gura naben azquero* (AL: 1151r). *OEHn* ez dago egitura honen adibiderik.

<sup>11</sup> *doncelleorri*: Martin Lopez Bikuñaren eskuz idatziriko aldaeran *doncelleori* (<r> pro <rr>).

<sup>12</sup> *ichaçu*: ‘utz iezaiozu’; eskuizkribuan, *ichi* ‘utzi, abandonatu’ aditzak beti hartzen du osagarria datiboan: *bigueleari ichita* (AL: 1141v), *destenpleac ichi eguion* (AL: 1143r), *ai ichita* (AL: 1144v), *erriari ichiric* (AL: 1147v), *Clariani bacarric ichita* (AL: 1151r), *niri bacarric ichiric* (AL: 1151v), *ecin ichi neidiçu* (AL: 1151v), *ichi eguioçu orreyn curello trataetan çabenorri* (AL: 1152r), *ez alcarri ichi jaguiteco* (AL: 1153r), *Sirenari eta Silviari ichiric* (AL: 1154v), *ichi neusan* (A7: 117).

<sup>13</sup> *nax*: Martin Lopez Bikuñaren eskuz idatziriko aldaeran *naz*. Kontuan izan behar da Martin Lopez Bikuñaren idazteko moldea bereziki axolagabea dela (lerro-antolaketa, hitz-banaketak...), eta, kasu honetan ere izan liteke <naz> grafiak *naiz* adieraztea, bestelakoetan *naiz* eta *nayz* idatzi baitu esku honek (B1: 1, B10: 1, B10: 3, B10: 19); bestela, eskuizkribuko bakarra litzateke, ustez XVIII. mendean aurkitu beharko genukeen forma hau.

<sup>14</sup> *gueiago*: Martin Lopez Bikuñaren eskuz idatziriko aldaeran *gueago*.

<sup>15</sup> *baquit*: ‘badakit’; eskuizkribuan ez dago behin ere *badaquit* forma osoa, horren kontrakzioz sorturiko *baquit* baino, lau aldiz (A12: 15, A17: 32, B7: 21, B29: 57).

<sup>16</sup> *nola*: Martin Lopez Bikuñaren eskuz idatziriko aldaeran *nolan*.

<sup>17</sup> *çarean*: Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatuetan ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doeан* (RS), *daroa + -an > daroeanean* (VJ) (cf. *FHV* 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138r), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B17: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16,

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**10** ene] aurrean letra batzuk ttxaturik. **12** Joan ... ichaçu] poemaren azpiko zuriunean, ziur aski Martin Lopez Bikuña Zuatzukoaren eskuz idatzita: *Christobal jauna Çuaçu[c]o ene adisquidea bardin on ez derechun guero doncelleor[r]ji ichaçu.* **16** Çure adisquidea ... eongo] poemaren azpiko zuriunean, ziur aski Martin Lopez Bikuña Zuatzukoaren eskuz idatzita: *Cure adisquidea naz ta gueago eztot esango cegaiti baquit nolan çarean eongo.*

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A12 – Gaztelatica jentil onbre bat...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

A17: 111, B18: 31, B18: 44), *guinean* (A7: 8, B18: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B18: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroela* (B18: 16). Ohar gaitezen Landuccik ez duela aldaketa horren arrastorik aditzean (“antecedente, *aurrera doana*”).

**A13****Barri onac dacart...**

Gabon-kanta elebidun honen edukia gardena da: aingeruek salbatzailea jaio dela jakinarazi diete Peritxo eta Anton artzainei.

Urkizuk (2004: 326. oin-oharra) ezagutzen eman zuen Francisco de Ocaña 1603an argitaraturiko liburuan (*Cancionero para cantar la noche de Navidad y las fiestas de Pascua*) dagoen gaztelaniazko gabon-kanta. Ez dago zalantzak horren oinordeko dela Lazarragaren eskuizkribuko, XVI-XVII. mendeetan beste hizkuntza batzuekin (katalana-gaztelania, gaztelania-latina, italiera-gaztelania, portugesa-gaztelania...) egiten ziren poema elebidunen erara taxutua, kasu honetan euskarazko eta gaztelaniazko lerroak aldizkatuz. Poemaren hasiera baino ez da landu elebitako bertsioan. Badira beste gabon-kanta batzuk ere euskara eta gaztelania horrela txandakatzen dutenak; ikusi, adibidez, Jose Antonio Arana Martixari esker ezagutzen ditugunak (Arana Martixa 1995: 74-77), Bilbon 1815ean argitaraturiko *Gabonetaco cantac bizcaitarentzat* (*Bigarren cantea* da elebiduna). Lazarragaren eskuizkribuan beste behin erabili da hizkuntza-txandakatzea: “*Penado de tanta pena / nago ḥu ecusizquero, / y ninguna cosa buena / oy enetaco ez dago*” (A2: 21-24).

Gaztelaniazko poemaren zatiak aurkitu ditugu 1530.ean argitaraturiko plegu batzuetan ere (*Coplas nuevas fechas por Enrrique de Oliva: de la natividad de nuestro señor Jesucristo, y cántanse al tono de “Abras me tu el hermitaño”*), baina bistan da, hiru poemak elkarren ondoan ikusiz gero, Lazarragarenaren jatorrizko zuzena ez bada, nabarmen hurbilagokoa dela Ocañaren bertsioa:

Lazarraga	Ocaña	Oliva
Barri onac dacart, <i>Pericho y Antón:</i> orayn jaio dala <i>nuestra salvación.</i>	<i>Otras al tono de “No me le digays mal madre a fray Anton”</i>	DESHECHA
Guztioc guenbilcela <i>en nuestro ganado,</i>	Buenas nuevas buenas Perucho y Anton, que oy es nacida nuestra salvación.	Nuevas de gozar Habemos sabido: Que Dios es nacido Para nos salvar.
	Allá repastando el nuestro ganado,	Allá repastando En nuestra majada,

<p>oy etorri jacu  <i>un ángel bolando.</i>          Esan deuscu guero  <i>aquesta canción:</i>          orain jaio dala  <i>nuestra salvación.</i></p> <p>Barria guençuanean,  <i>el ato dejamos</i>          guztioc alcarregaz  <i>y a Belén llegamos.</i>          Aynbat gauça egoan  <i>de admiración</i>          jaio çan lecuan  <i>nuestra salvación.</i></p>	<p>nos ha espantado          un Ángel bolando,          dixonos cantando          aquesta canción,          que oy es nacida          nuestra salvación.</p> <p>Y como le oymos          el hato dexamos,          luego caminamos          y a Bethlen venimos,          cosas allí vimos          de admiración,          donde era nacida          nuestra salvación.</p>	<p>Un ángel volando          Con gran relumbrada,          Con voz muy sonora          Dijo: ¡Aho, pastores,          Grandes y menores,          Via levantar:</p> <p>Catad que es nacido          Un claro lucero,          Cuyo apellido          Es Dios verdadero;          Soy su mensajero          Que os vengo á decir          Que, sin debatir          Le vais visitar!</p>
	<p>Estava el Cordero          puesto a aquel sereno,          cubierto de heno          y sin repostero,          un frio muy fiero          le dava passión,          al que es nuestra vida          y nuestra salvación.</p>	<p>Con esta señal          A Belen iréis,          Dentro en un portal          Pobre lo veréis.          Ende hallaréis          La Virgen su madre          Con un viejo padre          Mucho de acatar.</p>
	<p>Angeles del cielo          lo acompañavan,          unos altos estavan          y otros por el suelo,          cantan al moçuelo          con accordación,          que oy es nacida          nuestra salvación.</p>	<p>Mía fe, el hato          del todo dejamos:          Luego, en aquel rato          A Belén llegamos,          Y al Niño hallamos          Al frío sereno,          Envuelto en heno          En pobre lugar.</p>
	<p>Nosotros tañimos          y también cantamos,          dançamos, baylamos,          jugamos, rey whole,</p>	<p>Una moza llana          Estaba delante,          Juro a diez, galana,          De lindo semblante,</p>

mil cosas hezimos de consolación, porque oy es nacida nuestra salvación.	Muy más relumbrante qu el sol, y hermosa, Fresca y graciosa, Para a Dios loar.
Pascuala bayló con su desposado, y Mingo Chapado o qué bien cantó, luego baylé yo con mi primo Antón. porque oy es nacida nuestra salvación.	Esta se sonaba Haberlo parido, Esta l’empañaba Con grande sentido: To lo vide asido A los pechos d’esta, Y con faz honesta Le daba a mamar.
La Virgen reyá como yo baylava, y el niño mirava lo que yo hazía, y el viejo dezía o qué buen garçón que oy es nacida nuestra salvación.	Con ésta jugaba Estando mamando, A esta abrazaba Aficion mostrando; Juro a sant Fernando Qu’asmados venimos De lo que le vimos Con ésta pasar.
CABO	
	Pues en el ensay De su parto santo Nunca dijo: <i>/ay!</i> Parió sin quebranto, Y quedóse tanto hermosa y bella, Virgen y doncella, Entera y sin par.

Bestalde, iruzkin berezia merezi dute artzainen izenek. Izenen hautua ez dagokio Lazarragari, jakina, gaztelaniazkoari baino, baina aipatu behar da *Perucho* dela Gaspar Gómezén *Tercera parte de la tragicomedia Celestina* (1536) antzezlaneko morroi vizcaíno barregarriaren izena, eta, geroago, 1550.ean, *Perucho* eta *Antón* biak direla morroi irrigarriak, lehena bizkaitarra eta bigarrena beltza, Martín de Santanderren *La comedia Rosabella* antzezlanean; gogoratu behar da, gainera, Martin de Santanderren

Peruchok euskara (asko ez bada ere) eta gaztelania aldizkatzen dituela bere hitzetan. Gaur egun kantatzen den gabon-kanta batean ere (*Artzai buru-zuri bi*) *Anton eta Peru* dira artzainak.

Azkenik, zerbait esan behar da kantu honen musikaz. Enrique de Olivaren arabera, *Abras me tu el hermitaño* kantuaren doinuarekin kantatzekoak dira bere koplak; Francisco de Ocañaren arabera, *No me le digays madre a fray Anton* kantuaren doinuarekin kantatzekoak dira. Azken hori, Patri Urkizuk azaldu zuenaren arabera (*ibidem*), Francisco Salinasen *De musica libri septem* (Salamanca, 1577) liburuari esker ezagutzen da; Interneteko helbide honetan entzun daiteke:

<<http://funjiaz.cervantesvirtual.com/cdf13018.mp3>> [2010-06-05ean kontsultatua].

<1180v> Barri onac dacart,

*Pericho y Antón:*

orayn jaio dala

*nuestra salvación.*

Guztioc guenbilcela

5

*en nuestro ganado,*

oy<sup>1</sup> etorri jacu

*un ángel bolando.*

Esan deuscu guero

*aquesta canción:*

10

orain jaio dala

*nuestra salvación.*

Barria guençuanean,<sup>2</sup>

5

*el ato<sup>3</sup> dejamos*

guztioc alcarregaz<sup>4</sup>

15

<sup>1</sup> *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>2</sup> *guençuanean*: ‘entzun genuenean’; *entzun* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa.

<sup>3</sup> *ato*: ‘artalde’; cf. *DAut*, s.v. *hato*: “Se llama también el rebaño o manada que consta de muchas cabezas de ganado: como hato de ovejas, de carneros”.

<sup>4</sup> *alcarregaz*: Bitan agertzen zaigu testuan *elkar* bihurkaria soziatibozko *-gaz* postposizioarekin: batean *-e-* epentetikoarekin (*alcarregaz A13: 15*) eta beste batean *-e-* epentetikorik gabe (*alcargaz A17: 94*).

*y a Belén llegamos.*

Aynbat gauça egoan  
*de admiración*  
jaio çan lecuan  
*nuestra salvación.*

20

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**16** *llegamos*] aurrean *benimos* (?) tatxaturik. **20** *nuestra*] esk. *nra*; *a-ren* gainean puntu bat, agian aurrekoetako *r-ren* gaineko diakritikoaren ordez.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A13 – Barri onac dacart...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A14

### Mundu guztian orain ez dago...

Poema honetan lau zati bereizten dira: lehenengoan (1-50 lerroak), azpimarratzen da, damak mutilaren bihotza eta askatasuna idoki arren, azkenik mutilak lortu duela neska kateaz lotzea, eta, horregatik hain zuzen, maitaleak dama bat zerbitzeko zer egin behar duen irakasteko moduan dagoela. Bigarren partean (51-104 lerroak), “çaoz exilic” horren ondoren, hogeita lau aholku ematen ditu maitalearentzat, *Ars amatoria* gisa, maitatuaren baiezkoa lortzen laguntzeko. Hirugarren zatian dioenaren arabera (105-110 lerroak), gehiago ikasi nahi izanez gero maitearen borondateari egin behar zaio kasu. Azkenik, laugarren zatian (111-120 lerroak), berriz aipatzen du bere kasu partikularra; lerro horien mezua ez da gardena, baina badirudi hurrengo asteazkenerako ezarri duela hitzordua neskarekin. Edozelan ere, maitalearen helburua ez da inola ere platonikoa, sexuarekin lotua baino: *bera ezta ecingo oean çabal-çabalic* (85-86 lerroak) edo *artalastoa aguin egizu* (117. lerroa) adierazpideak argiak dira zentzu horretan.

<1181r>      Mundu guztian orain ez dago  
                  guiçon contentuagoric  
                  oyta<sup>1</sup> nola ni orain nagoan,  
                  Ceruco Jaunac gurasic,  
                  çazpigarren ilabetean  
                  urteje<sup>2</sup> onau<sup>3</sup> sarturic,  
                  iru egun cunplidu baga

5

<sup>1</sup> *oyta*: Eskuzkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>2</sup> *urteje*: ‘urtexe, urtetxo’; <j> grafia bost aldiz aurkitu dugu eskuzkribuan txistukari sabaikariaren balioarekin: *najala* (AL: 1147v), *baje* (AL: 1153r), *bijeac* (A11: 35), *urteje* (A14: 6) eta *beajaco* (A16: 46).

-xe atzizkiari dagokionean, hemen ez dakigu zehazki zein balio duen, baina, izenari erantsia denez, ziur aski nolabait txikigarria izan behar du. Izan ere, Lazarragaren eskuzkribuan, -xe atzizkiak, hiru balio hartzen ditu: **1)** Txikigarria (-xe = -txo), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *eexecoxeo* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxearu* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). **2)** Izenondo eta aditzondoen intentsitate markatzailea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). **3)** Indartzalea (izenordain indartuekin, eta *eben / arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Bestalde, eskuzkribu honetan -txo atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan.

<sup>3</sup> *onau*: -au erakusle garbi gisa interpretatzeko argudioak (eta ondorioz izen sintagmatik bereizita idazteko) ez dira kasu honetan argiak; ondorioz, nahiago izan dugu lotuta utzi.

oy setienbrec emunic, <sup>4</sup>	10
ceña çan egun aleguerea,	
ene laztanac guraric,	15
ene laztanac guraric eta <sup>5</sup>	
neurc <sup>6</sup> ala trabajaduric. <sup>7</sup>	
Amore poderosoa, jauna,	
asco deusut esquerric; <sup>8</sup>	
çu serbiceco ez jat faltaco	20
secula borondateric.	
Denpora baten lotu ninduçun	
catea fortiz <sup>9</sup> batequin;	
Jaun Ceruhoa alabadu, ce	
orain banago <sup>10</sup> libreric!	

<sup>4</sup> *çazpigarren ilabetean... oy setienbrec emunic*: ‘irailaren 3an’; iraila zapzigarren hilabetea zen erromatar egutegian (egutegi hori K. a. 46. urtera arte izan zen indarrean), eta Lazarragaren *setiembre* (latinez *septembris*) etimologikoki loturik dago *septem* “zazpi” zenbakarekin. Ez dakigu horregatik aipatzenten den *çazpigarren ilabetea*, ala akats baten ondorio den, iraila bederatzigarren hilabetea baita hala juliotar egutegian (zeina 1582ra arte izan baitzen indarrean) nola gregoriar egutegian (1582az geroztik gaur arte dugun egutegian). Eskuizkribuan bada antzeko esapide bat: *abuztu ilac / egun bat cunpliçacaric* (A28: 47-48).

<sup>5</sup> *ene laztanac guraric / ene laztanac guraric eta / neurc ala trabajaduric*: Ahozko literaturan sarri agertzen da anadiplosia: testu-zati baten azken zatia hurrengoaren hasieran errepikatzea eta kateatzea; *bihurkia* deitu zion Manuel Lekuonak ahozko euskal literatura aztertzean. Testuan behin baino gehiagotan agertzen da baliabide hori: *ene laztanac guraric, / ene laztanac guraric eta / neurc ala trabajaduric* (A14: 10-12), *Erregue baleu enojadu, / enojadu ta / asco maneraz afrontadu* (A26: 2-4), *Amea baleu ayn onradu, / onrada eta / bere semeaz concertaedu* (A26: 14-16), *cerren ecusten / even guzia galduric, / galduric eta / suorrec abrasaduric* (A28: 91-94), *Aurquitu eta / dey eguin deuso umilic, / umilic eta / lisonja ascoz beteric* (B29: 41-44).

<sup>6</sup> *neurc*: ‘neuk’, izenordainaren forma zaharrean.

<sup>7</sup> *trabajaduric*: ‘ahaleginak egunik’; cf. *DAut*, s.v. *trabajar*: “Vale assimismo solicitar, procurar o intentar alguna cosa con eficacia, actividad y cuidado; [...] Vale también aplicarse con desvelo y cuidado a la ejecución de alguna cosa”.

<sup>8</sup> *asco deusut esquerric*: ‘eskerrik asko ematen dizut’; bi aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan *\*edutsi* aditza ‘eman’ adieran: *asco deusut esquerric* (A14: 14) eta *Linda damea, asco deusut / nic aregaiti esquerric* (A23: 27-28), baina, funtsean, esapide bakarraren aldaerak dira. Lazarragarenetik kanpo, beste behin baizik ez dugu aurkitu lekukotua esanahi horrekin, Zumarragaren gutunean (1537) hain zuzen: *esquerric asco devstet* (*Contr. 99, 40.I.*). Adiera bera zuen *\*eradun-ek* ere antzina; cf. *Ceren hala daraucate emaztiari hoguenic* (Etx III, 34), *jatean drauco viçia* (M. Aldaz, Iruñea, 1609) edo *bere arimak derauka egiteko* (Ax 58), besteak beste.

<sup>9</sup> *fortiz*: ‘bortitz, sendo’; *OEH*ren arabera Gerriko dateke aldaera honen lehen agerraldia. Orain arte G eta GN-n zegoen dokumentaturik, eta ekialderago ere bai. Lazarragaren eskuizkribuan sei aldiz dago (A14: 18, A16: 81, A24: 153, A28: 50, B17: 97, B18: 9).

Donzellacho bat ecusi neben,  
linea parebagaric;<sup>11</sup>  
oy neure bioz amorosoau  
idogui<sup>12</sup> cidan<sup>13</sup> bertati.<sup>14</sup> 25  
Neuregaz<sup>15</sup> neben libertadea  
eroan cidan berequin;<sup>16</sup>  
ni aren minez<sup>17</sup> ilte<sup>18</sup> ninçan da<sup>19</sup>  
<1181v> a beti aleguereric.  
Nic aregayti<sup>20</sup> iragaro<sup>21</sup> dot  
munduan asco penaric; 30  
arc enegaiti oy oraingaño<sup>22</sup>

<sup>10</sup> *banago*: ‘nago’; *ba-*, Lazarragaren eskuizkribuan, aditz aurreko hutsa da batzuetan, eta ez du nahitaez galdegaia markatzen.

<sup>11</sup> *lindea parebagaric*: Hiru aldiz dago *lindea parebag-* eskuizkribuan: *Dama bategaz t[o]padu ninçan*, / *lindea parebagaric* (A7: 5-6), *Donzellacho bat ecusi neben*, / *lindea parebagaric* (A14: 21-22) eta *Orain dama bat servietan dot*, / *lindea parebaguea* (A24: 131-132). Hirugarrenean errimak eskatu du bukaera aldatzea. Gaztelaniaz, 1543ko lan anonimo batean aurkitu dugu ondokoa: “Pues una reina excelente / **linda sin comparación** / viene y trae a la serpiente” (*apud CORDE*). Eskuzkribuko beste bi lekutan ere badago *parebagaric* erabilera adberbialean: *Dama bategaz t[o]padu ninçan*, / *lindea parebagaric* (A7: 5-6), *Oy jente asco / egoan parebagaric* (A28: 73-74).

<sup>12</sup> *idogui*: ‘idoki, erauzi, kendu’; eskuizkribuan bost aldiz aurkitu dugu aditz hau, forma desberdinetan: *oy neure bioz amorosoau / idogui cidan bertati* (A14: 24) eta *nidocaçu nagoan penarean* (B3: 66), bai eta *guri bicioc edetera* (AL: 1153r), *buruac edetera* (AL: 1153v), *donzella batec edegui cidan / oy neure bioz coytadua* (A21: 3).

<sup>13</sup> *cidan*: *Cidan* forma ez da hain bakana eskuizkribuan (cf. *cidan* 9 aldiz eta *eustan* 3 aldiz).

<sup>14</sup> *bertati*: ‘berehala’

<sup>15</sup> *Neuregaz*: Soziatiboaren *-gaz* kasu-markarekin, hala genitiboarekin (*-regaz*) nola gabe (*-gaz*) erabiltzen dira pertsona-izenordainak eskuizkribuan: *neuregaz* (A14: 25) / *nigaz* (*passim*) / *neurgaz* (A16: 19); *aregaz* (A16: 15, A19: 24) / *agaz* (*passim*); *beregaz* (AL: 1143v, AL: 1144v) / *beragaz* (B22: 61); *curegaz* (AL: 1144v, A2: 2oh, A7: 15, A16: 20, A17: 95) / *çugaz* (AL: 1141r, A2: 2, A7: 26, A16: 9, A26: 134, B18: 143); *gugaz* (A1: 1).

<sup>16</sup> *berequin*: ‘berekin, berarekin’; eskuizkribuan bitan dago *beregaz* (AL: 1143v, AL: 1144v) eta bitan *berequin* (AL: 1141v, A14: 26); guzietan da singularra.

<sup>17</sup> *gren minez*: ‘haren irrikaz hura biziki desiratuz’

<sup>18</sup> *iltə:* -n galdu du testuinguru fonetikoarenengatik (*n-* hurrengo silaban)

<sup>19</sup> *da: 'eta'*

<sup>20</sup> *aregayti*: ‘harengatik’; testuan hiru lekutan agertzen da: *aregayti* (A14: 29) eta *aregaiti* (A23: 28 eta B7: 23). Ez dugu Lazarragarenez beste adibiderik aurkitu, ez *OEHn*, ez *OEHren* corpusean, ezta *Klasikoen Gordailuan* ere; badira *aregaitik* batzuk, baina denak XIX-XX ekoak.

<sup>21</sup> iragare; ‘igaro, sufritu, iasan’: berez igaro ran kausatiboa da. *OEHk* ez dakar.

<sup>22</sup> *oraingaño*: ‘oraindaino, orain arte, oraindik’; cf. Lcc “hasta aquí, *onino*, *orayngano*”. Eskuizkribuan hiru grafiarekin (<nn>, <n>, <ñ>) adierazita aurkitu dugu hitz honetako sudurkari palatala: *oraingaño* (A14: 31), *oraingaño* (A19: 15) eta *oraingaño* (A24: 41).

eztau edugui ansiric. <sup>23</sup> Oy orain, barriz, nic ifini dot bera cateaz loturic; oy, bada bere, <sup>24</sup> nic aregana asco dot borondateric. <sup>25</sup> EZ daquiçunoc jaquin eguiçu, <sup>26</sup> ce çaoz <sup>27</sup> engañaduric, cerren dama bat serbietaco asco bear da gauçaric; <sup>28</sup> amoraduac cer bear daben banago iracasiric. Oy ençu ta jaquin daguiçun, <sup>29</sup> badoçu borondateric, <sup>30</sup> cegaiti ascoc jaquin ez arren egon oi da <sup>31</sup> tristeric. Iracasterren <sup>32</sup> ez nago esque <sup>33</sup>	35 40 45
---	----------------

<sup>23</sup> *ansiric*: ‘ardurarik, desirarik’; hemengo testu zuzenduan bezala, *anse* (eta ez *ansi*) argia da beste agerraldi batean (B20: 3); hortaz, ziurtzat jo dezakegu bigarren bokalaren tinbrean zalantzak zituztela; *anse / ansi*.

<sup>24</sup> *bada bere*: ‘gutxienez, bederen’.

<sup>25</sup> *asco dot borondateric*: ‘borondate asko dot, maitasun handia dut’; *-rik asko* egitura da.

Borondate hitzaren esanahiari dagokionean, ohar bedi poema honetako 16. eta 44. lerroetan ere *borondate* hitza agertzen dela, baina horietan ‘borondate’ ohiko adiera arrunta duela; hemen, ordea, ‘maitasuna’ esan nahi du. Cf. DAut, s.v. *voluntad*: “Significa también amor, cariño, afición, benevolencia, u afecto”.

<sup>26</sup> *Ez daquiçunoc jaquin eguiçu*: ‘ez dakizuenok jakin ezazue’; poeman gehiagotan agertzen da *zu-ri* dagokion aditz-morfema bere jatorrizko plural balioarekin.

<sup>27</sup> *ce çaoz*: ‘ez zaitez(te) egon’, agintera; *çaoz* eta *çaoça*, bietara erabiltzen du.

<sup>28</sup> *asco bear da gauçaric*: Adierazpide berbera agertzen da beste poema batean: *Donzella eder juzgaetaco / asco bear da gauçaric* (A23: 77-78).

<sup>29</sup> *ençu ta jaquin daguiçun*: ‘entzun ezazu(e) eta jakingo duzu(e)’; hasiera batean, formaz subjuntibokoa den adizkiari balio finala egotzi genion, baina iduri luke zuzenena dela pentsatzea geroaldia adierazten duela. Mitxelenak (1954a) erakutsi zuen RS testuan subjuntiboko adizkiak erabiltzen zirela geroaldia adierazteko, beste hizkuntza askotan ohikoa den bezala (greziera zaharrean, besteak beste): *Ax adinhon ta axa hon* “Sé acomodado y serás bueno” (RS 31); *Yquedac ta diqueada* “Darásme y darte he” (RS 233). Erabilera horren hiru adibide bildu ditugu Lazarragaren testuan: *ençu ta jaquin daguiçun* (A14: 43), *Belarrioc irecaçu eta dançuun* (A17: 8) eta *Ençu eta diracasudan / ezconduaren dotea* (A24: 47-48). Hiruretan, irakurketa berriak *eta* juntagailuak hasierako interpretazioan ekartzen zuen traba konpontzen du.

<sup>30</sup> *badoçu borondateric*: ‘baldin baduzue borondaterik’.

<sup>31</sup> *egon oi da*: Amoradua egon ohi da tristerik, alegia.

	bapere intereseric; <sup>34</sup>	
	oy lenaengo abantajea <sup>35</sup>	
	dasadan, <sup>36</sup> çaoz exilic. <sup>37</sup>	50
<1182r>	Jentil honbre oytar bear dau, içango badau dicharic; <sup>38</sup> utra galanto ebili bidi, oy badau potestaderic; <sup>39</sup> bere aoa ifini begui palabra dulcez beteric; bere laztanaz ce beucaique <sup>40</sup>	55

<sup>32</sup> *Iracasterren*: ‘irakastearren, irakasteagatik, irakastearen truke’; *-arren* atzizkiak hiru aldaera ditu eskuizkribuan, *-gatik* atzizkiaren baliokide gisa aditz-izenari gehituta, mendebaldeko tradizioaren arabera: *-tearren*, *-etarren* eta *-t(z)erren*. Ikusi *etortearren* (A3: 13); *probaetarren* (AL: 1139r), *castaetarren* (A14: 77), *contaetarren* (B3: 47); eta *ecusterren* (AL: 1142r, AL: 1145r, AL: 1147v), *iragaiterren* (AL: 1146r), *alabacerren* (A6: 41), *iracasterren* (A14: 47), *servicerren* (A14: 115), *ebilterren* (B18: 120). Izenari gehituta ere aurkitu dugu, *-gatik* atzizkiaren baliokide, lau bider: *amorearren* (AL: 1143v, A7: 89, B22: 14), *dirurren* (B17: 60).

<sup>33</sup> *Iracasterren ez nago esque / bapere intereseric*: ‘irakastearren ez dut eskatuko batere interesik’; aholkuak musutruk emango dituela adierazi nahi du.

<sup>34</sup> *intereseric*: ‘interesik’; *intereseric* forma agertzen da berriz A23: 30 lerroan ere. Euskaraz ez dugu aurkitu forma horren beste lekukotasunik, baina gaztelaniaz *interese* hitza *interés* ezagunagoaren baliokidea da. Cf. *DAut*, s.v. *interese*: “Lo mismo que interés”.

<sup>35</sup> *abantajea*: ‘abantaila, bikaintasuna’.

<sup>36</sup> *dasadan*: ‘esan dezadan’; *esan* aditzaren subjuntibo trinkoa.

<sup>37</sup> *oy lenaengo abantajea / dasadan, çaoz exilic*: Antzeko formula aurkitu dugu eskuizkribuko lau lekutan, ondoren datorren solasari adi izateko arreta eskatzen duen funtzioko kataforikoan: *nançu, çaoz gueldirci* (A10: 4), *oy lenaengo abantajea / dasadan, çaoz exilic* (A14: 49-50), *Asi gura dot; / nançu, çaoz exilic* (A28: 39-40), *Arren, nançu, / Jaun Cerucoaen amorez, / conta deçadan / Pasio Santua dolorez* (B29: 17-20).

<sup>38</sup> *Jentil honbre oytar bear dau, / içango badau dicharic*: ‘jentil honbre (izan) behar du, ditxaren bat izateko’; XVI. mendeko testuetan, “*-tuko + izan / \*edun*” perifrasia oso gutxitan agertzen zaigu baldintza errealeko protasian. Lazarragarenean eta RSen aurkitzen dugu geroko prozesu baten adierazteko, apodosiak agindu bat adierazten duela: *Laztanagana joango bada ce beroaque lagunic* (A14: 90); *zuJre minez ilgo banaiz, / laudatu Jaun Cerucoa* (B30: 55-56), *Emongo badeustaçu luçatu çe eguidaçu* (RS 490). Bestalde, gaur egun bezala, *behar izan* aditz-lokuzioaren osagarri bezala erabiltzen da helburuaren adierazteko. Erabilera hori bera dugu pasarte honetan. Ohar gaitezen Lazarraga eta Zalgize erabilera horren berri ematen duten lehen autoreak direla: *Jentil honbre oytar bear dau, / içango badau dicharic* (A14: 51-52), *Iñor içango bada avisadu, / bear dau forçoso enamoradu* (B2: 8-9); *hitzez berceric behar da / haurrac haciren badira* (Zalg 66).

<sup>39</sup> *utra galanto ebili bidi, / oy badau potestaderic*: ‘oso dotore ibil bedi, ahalmenik badu’; *potestade* hitza dela-eta, zalantza izan dugu ea kargu bati dagokion (hots, ‘korregidore’), ‘botere’ esan nahi duen, ala ‘ahalmen, gaitasun’ adiera duen; azkenean, hirugarren aukera delakoan gaude.

<sup>40</sup> *ce beucaique*: ‘ez beza eduki’; *eduki* aditzaren jusiboko geroaldi trinkoa da. Zati honetan, *b-*aurrizkidun jusibozko adizki gehienek *-ke* atzizkia daramate. Gisa horretan, aginduaren betetzea geroan

secula fantasiaric;	
oy, barriz, cunpliduco <sup>41</sup> ez badau,	
ce begui alfer promesic; <sup>42</sup>	60
crueldaderic baderacuso <sup>43</sup>	
beoque <sup>44</sup> beti tristeric;	
dameac gaxqui esanagayti,	
ez galdu esperançaric;	
iñor beguira dagoanean,	65
ce beyqueo berbaric; <sup>45</sup>	
utra dulcero esan beguio	
bere penea exilic;	
presentexeac <sup>46</sup> emun beguio,	
gauça usaiz beteric; <sup>47</sup>	70
oy partietan danean, barriz,	

kokatzen da, solas unetik kanpo. Lazarragaren testua agertu aitzin ez genuen geroaldiko jusiboaren lekukotasunik (cf. Lafon [1970] 1999: 488). Sail honetako bi adizki aurkitu ditugu eskuizkribuan: *ce beucaique* (A14: 57), *ce eucaiqueçu* A27a: 24, A28: 155.

Bestalde, ematen du halakoak *eukaite-* formaren analogiaz eratutako adizkiak direla. Cf. Lazarragaren eskuizkribuan, goian aipaturikoez gain, *eucaiteco* (A28: 119) eta *baneucaique* (B22: 15). Ikusi, orobat, Lcc “fiesta de guardar, *eguçari euchayteco*”.

<sup>41</sup> *cunpliduco*: ‘promesa kunplitu’ ulertu behar da.

<sup>42</sup> *ce begui alfer promesic*: ‘ez beza egin alferrik promesik’; *alfer* aditzondoa bide da; cf. *Alfer ifini naiçu purgaetan* (B22: 69).

<sup>43</sup> *baderacuso*: ‘erakusten badio’; *erakutsi* aditzaren NOR-NORI-NORK forma trinkoa da.

<sup>44</sup> *beoque*: ‘bego, egon bedi’; *egon* aditzaren jusiboko geroaldi trinkoa da.

<sup>45</sup> *ce beyqueo berbaric*: ‘ez biezaio hitzik egin’; *beiqueo* adizkia, *egin* aditzaren jusiboko geroaldi trinkoa da.

<sup>46</sup> *presentexeac*: ‘oparitxoak’; Lazarragaren eskuizkribuan, -*xo* atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; -*xe* atzizkiak, berritz, hiru balio hartzen ditu: 1) Txikigarria (-*xe* = -*xo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *esecoxeo* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxear* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). 2) Izenondo eta aditzondoen intentsitate markatzalea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). 3) Indartzalea (izenordain indartuekin, eta *eben / arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

<sup>47</sup> *gauça usaiz beteric*: Esapide berbera agertzen da beste toki batean (A23: 56). Haren esanahiaz ez gaude seguru, baina baliteke ‘gustu oneko gauza baita, dotoretzat hartzen baita’ bezalako zerbait izatea. *Usai* izena ‘usain’ dela interpretatu dugu (cf. Lcc “olor, *usaia*” eta Bet *usai egitea*, etab.), ‘usaia, ohitura’ adiera baztertu ondoren; izan ere, *usaia* Iparraldeko tradizioko hitza izateaz gain, ez genuke espero berezko -*a* gabe agertzea.

	çuzpirioxē <sup>48</sup> garrazpi; <sup>49</sup>	
	coytaric esan oy badeguio,	
	ifini esporçaduric; <sup>50</sup>	
<1182v>	polsea, barriz, oy berabilque, <sup>51</sup>	75
	oy diruz adornaduric;	
	erreal <sup>52</sup> ori <sup>53</sup> castaetarren <sup>54</sup>	
	ez aceratu pausoric;	
	bere laztana dacusenean,	
	ebili utra graberic; <sup>55</sup>	80
	secula, barriz, ce besaqueo <sup>56</sup>	
	besteren abantajasic;	
	denporeorrec emun badagui, <sup>57</sup>	
	ez egon tentaçacaric, <sup>58</sup>	
	cegaiti bera ezta ecingo <sup>59</sup>	85
	oean çabal-çabalic;	
	gabaz-egunaz ce beracusque <sup>60</sup>	
	secula cobardiaric;	

<sup>48</sup> *çuzpirioxē*: ‘zuzpirotxo, hasperentxo’; *OEHn* oso berriki dokumentatu da *zuzpiro* (FBar), eta are berrikiago *zuzpirio* (Tx. Agirre), baina gogoratu latinezko forma *susprium* dela. Gaztelaniaz lekukotasun bakar bat aurkitu dugu *CORDEN*: 1490ko *Crónica troyana* (BNM 1733), Lazarragak ondo ezagutzen zuen liburua, bere *Relación histórica* idazteko erabili baitzuen.

Bestalde, -xe atzizkiari buruz ikusi 69. lerroko oharra.

<sup>49</sup> *garrazpi*: ‘garratz bi’; cf. *aberaspatequin* eta *aberaspategaz* (AL: 1446v).

<sup>50</sup> *ifini esporçaduric*: ‘ipini adoreturik, eman adorea’; *ifini nagui / oy arren esporçaduric* esamoldea dago A28: 33-34 bertso-lerroetan. Cf. *DAut*, s.v. *esforzado*: “Significa también valiente, animoso, de grande brío, corazón y espíritu, valeroso y denodado”.

<sup>51</sup> *berabilque*: ‘erabil beza’; *erabili* aditzaren jusiboko geroaldi trinkoa da.

<sup>52</sup> *erreal*: *Erreala* txanpon mota bat da, garaien arabera balio desberdina izan duena.

<sup>53</sup> *ori*: Erakusle gisa interpretatzea zaila badirudi ere, badirudi autoreak *ori* grafikoki bereizi nahi izan duela izenetik; halaxe eman dugu guk, bereizita, *erreal ori* sintagma.

<sup>54</sup> *castaetarren*: ‘gastatzearen, gastatzeagatik’; -*arren* atzizkiari buruz, ikusi A14: 47 lerroko oharra.

<sup>55</sup> *graberic*: ‘seriorik, zintzorik’; cf. *DAut*, s.v. *grave*: “Significa también circunspecto, que tiene entereza y causa respeto y veneración”.

<sup>56</sup> *ce besaqueo*: ‘ez biezaio esan’; *esan* aditzaren jusiboko geroaldi trinkoa da.

<sup>57</sup> *denporeorrec emun badagui*: ‘denborak eman badeza, aukera izanez gero’; cf. *DAut*, s.v. *tiempo*: “Vale assimismo oportunidad, ocasión o coyuntura de hacer algo”.

<sup>58</sup> *tentaçacaric*: ‘saiatzekerik, saiatu gaberik’; cf. *DAut*, s.v. *tentar*: “Vale assimismo intentar o procurar”.

<sup>59</sup> *ecingo*: ‘etzingo, etzango’; eskuizkribuan lau aldiz dago *etzin* aditza forma jokatugabean (*ecin* AL: 1152v, *ecinic* A1: 36, *ecingo* A14: 85, *ezin* A24: 53) eta behin forma trinkoa (*çaucidenean* A16: 86).

<sup>60</sup> *ce beracusque*: ‘ez beza erakuts’; *erakutsi* aditzaren jusiboko geroaldi trinkoa da.

laztanagana joango bada, <sup>61</sup>	
ce beroaque <sup>62</sup> lagunic;	90
bere beguiac oy berabilque <sup>63</sup>	
laztanchoagan josiric;	
secula gauça guchiagaiti <sup>64</sup>	
ce begui sentimenturic; <sup>65</sup>	
oy beaçatu badagui bere, <sup>66</sup>	95
ez eracusi bildurric;	
oyta irago ce bequiqueo <sup>67</sup>	

<sup>61</sup> *laztanagana joango bada*: ‘laztanagana joateko’; XVI. mendeko testuetan “-tuko + izan / \*edun” perifrasiaik hartzen zuen balioaz, ikusi A14: 52 lerroko oharra.

<sup>62</sup> *ce beroaque*: ‘ez beza eroan, ez beza eraman’; *eroan* aditzaren jusiboko geroaldi trinkoa da.

<sup>63</sup> *berabilque*: ‘erabil bitza’; *erabili* aditzaren jusiboko geroaldi trinkoa da.

<sup>64</sup> *gauça guchiagaiti*: ‘gauza txikiagatik’; testuan beste behin agertzen da *gutxi* izenondo moduan: *Ainbat sentidu eben, bada, Silveroc Sirenac agaz egun eben caso guchia, ece etorri çan erioçaco puntura* (AL: 1142r). Bietan pentsa daiteke gaztelaniaren kalkoak direla (“por poca cosa”, “el poco caso”). Cf. *OEH*, s.v. *gutxi*: “3. (V-gip), **guti** (SP, Dv, H), **gitxi** (V-gip; Lar). Ref.: Iz ArOñ; Etxba *Eib* (*gitxixa*). (Con art.). Poco, pequeño”; ondoko adibideetan gutxienak dira izen batu lotuta daudenak: “*Ansikabe direnek kontu gutia hunez eginen dutela. Lç ABC A 2v*” eta “*Hazia ongi eraitea ez da gauza gutia. Dv Lab 65* (v. tbn. Mat 166, EZ *Man II* 205, Harb 172, Gç 118, Ch III 10, 3, Monho 126, Lg I 200, Brtc 98, Dh 115, Jaur 204, Hb *Egia* 41, Jnn *SBi* 153 *gauza gutia*; CrIc 142 *gauza gitxia*)”.

<sup>65</sup> *ce begui sentimenturic*: ‘ez bedi atsekabetu, ez bedi kexatu’; cf. *DAut*, s.v. *sentimiento*: “Se toma también por pena o dolor que immuta gravemente” eta “Significa assimismo quexa que se tiene contra algún sugeto, que ha dado motivo de sentir”. *CORDEn hacer sentimiento* adierazpidearen hainbat adibide daude eta ez dago beti garbi zein den adiera zehatzta, biak hain hurbil egonik; erakusgarri bezala, hona Garibairen hau (*Memorias*, c. 1594): “ni de las lanzetadas **hizo sentimiento**, ni se quexó de nada”.

<sup>66</sup> *beaçatu badagui bere*: ‘mehatxatu badeza ere’; ikusi, zalantzazkoa bada ere, *beajaco bervaric* (A16: 46), eta Lcc “amenazar, *beça eguina*”.

<sup>67</sup> *irago ce bequiqueo*: ‘ez bekio igaro’; jusiboko geroaldia da. *Irago* partizipioa bi aldiz dago eskuizkribuan (AL: 1153r eta A14: 97); aditz-izena beti (lau aldiz) da *iragaite-*: *iragaitearen* (AL: 1146r), *iragaiten* (A2: 19, A17: 70, B17: 44); baina testuko aditz trinko bakarrak kontsonanteen metatesia dauka: *naygaran* (B30: 37). *OEH*ko sarrera (s.v. *igaro*) interesgarria da, hala *igaro* / *irago* alternantziari dagokionean, nola aditz trinkoari dagokionean: “La forma *igaro* es casi general en guipuzcoano, y en vizcaíno es prácticamente la única documentada hasta finales del s. XVII y frecuente desde entonces. **Irago (documentado ya en Landuccio y Nicolás de Zubia)**, es la única variante que encontramos en el s. XVIII (*msOñ* (235r), Arzadun, Barrutia, Urquiza, Gamiz (206)); en el XIX es bastante frecuente: Moguel (tbn. *igaro*), fray Bartolomé, Astarloa, Arrese Beitia (tbn. un ej. de *iragotu* (*AmaE* 449)), Iturzaeta; en el s. XX sólo se encuentra en Lauaxeta (AB 58); pero cf. *infra IGAROKO*. Fuera del vizcaíno, emplean *irago* Larramendi (*Cor* 300), Xenpelar (191), F. Goñi y E. Arrese. **Se encuentran formas fuertes en los Refranes de Garibay y Bertso Bizkaitarrak (en ambos aigara), y en Refranes y Sentencias (digaran (231), con suf. de relativo)**; en el s. XX algunos autores (Lauxeta (BBa 76), L. Jauregi (*Biozk* 4), Gaztelu (*MusIx* 83)) recrean formas fuertes como *digaro*. El sust. vbal. *igaraite-* lo emplea Capanaga (part. *igaro*), e *iragaite-* Urquiza (tbn. *iragote-* (57); part. *irago*); hay

	bisitaçaca <sup>68</sup> asteric,	
<1183r>	cegaiti artu ez daiquean <sup>69</sup>	
	oy beste servidoreric; <sup>70</sup>	100
	oy alcançadu daiqueano <sup>71</sup>	
	ez artu jaguin <sup>72</sup> celoric;	

*igaroite-* en *CatLlo* (96) y *CatBus* (57), siendo en ambos *igaro* el part. En *DFrec* hay 156 ejs. de *igaro*".

<sup>68</sup> *bisitaçaca*: ‘bisitatzeko, bisitatu gabe’.

<sup>69</sup> *cegaiti artu ez daiquean*: ‘geroan har ez dezan’; geroaldiko subjuntiboa. Cf. orobat *gura deusut aguindu / gure errico abantajaoc / daiqueçula cantadu* (A6: 6-8), *Conjuraetan oy eta çaitut, / oean çaucidenean, / gogaberatu çaquezquedala / beguioz nacusunean* (A16: 85-88), *Conjuraetan oyta diçut, / gorpuceango araguioc, / nigana manso dacarqueçula / ceure beguicho lindo bioc* (A16: 97-100), *Arren aguir çaytes[que] / sacusquedan leyotic* (B30: 39-40). Lazarragaren testutik kanpo, beste behin baizik ez da lekukotzen geroaldiko subjuntiboa erabilera, beste arabar baten testuan, Perutxoren kantan hain zuzen: *Esso[c] amor[e]ari / gajo nachala / y penas naçala / jatorquedala* (TAV 102-104). Bestalde, “*cegaiti + subjuntiboa*” egiturak helburuzko perpausa adierazi ohi du Lazarragarenean: *cegaiti obato alcar aditu daigun* (AL: 1147v), *cegaiti artu ez daiquean* (A14: 99), *Beguioc irecaçu guchi baten, / eta inca eçaçu orrerean / ceure sierbo onen biocean, / cegaiti dacusun nola dagoan / ya bici onegaz aspertua, minez mila lecutan çulatua, / cegaiti daquicun, ceurc ecusita, / ez naxana min baga quexaetan* (B3: 79-86).

<sup>70</sup> *servidoreric*: ‘adiskiderik, gorte-egilerik’; hau da, dama gorteatuko duen beste gizonik. Cf. *DAut*, s.v. *servidor*: “Se toma también por el que corteja o festeja alguna dama”.

<sup>71</sup> *alcançadu daiqueano*: ‘erdietsi arte’; *daiqueano* aditz laguntzaileari dagokionean, testu zaharrenetan (Leizarraga, Lazarraga, Oihenart), -no atzizkiak denbora-tartearen azken muga adierazten du eta trinkoei eta “aditzoina + \*edin, \*ezan”, “aditzoina + \*iro” (ekialdean) eta “partizipioa + egin” (mendebaldean) perifrasietako laguntzaileei gehitzen zaie. Azken bi perifrasietan izan ezik, beste egituretan -ke atzizkia beti agertzen da menderatzailea aitzin. Lazarragaren testuan, “aditzoina / partizipioa + \*edin / egin” egitura perifrástikoak baliatzen dira -no menderatzailearekin, orainaldian zein iraganaldian. -ke atzizkiai dagokionez, nahitaezkoa da \*edin-ekin, baina hautuzkoa egin-ekin. Askotan, idazle arabarrak *arean da* preposizioa erabiltzen du denborazko perpaus horren hastapenean, segur aski denbora-tartearen zedarritzeko: *arean da Silvero egoan lecuan el citezqueano* (AL: 1152r); *arean da Doridoc burua goratuta, ecusi eyano salbaje terrible bien figura* (AL: 1153r).

*Alcançadu* aditzaren esanahiari dagokionean, cf. *DAut*, s.v. *alcanzar*: “Significa assimismo conseguir, lograr, obtener lo que se desea, solicita o pretende por fuerza, armas o ruegos”.

<sup>72</sup> *ez artu jaguin*: ‘ez hari hartu egin, ez hari hartu’; *jagui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuzkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa aditz nagusitzat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Jri remedio emun jagui!* (AL: 1138r), *Nachaçu suplicaetan nay daquiçula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguiten* (AL: 1152r), *eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean* (AL: 1152v), *cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidoreric; / oy alcançadu daiqueano / ez artu jaguin celoric* (A14: 99-102), *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebagaea; / oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / eguin deustan mesedeac / servidu jaguin artean* (A24: 131-136), *Jaun Cerucoac / çuri bidaldo jaguin; / adietaco / badeçu miramenturic, / ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric* (A28: 165-170), *Aren aoti berba oa / neguianean aditu, / reberencia jaguiteco / belaunoc neben incadu* (B14: 13-16), *Apea nindin çaldirean / guchi bat apartaduric; / berba neguion lurrerean, / neurau nengoan lecurean / reberencia jaguin* (B18: 66-70), *Beti nabil casoau dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo jaguiteco sendoro* (B18: 111-115), guztiay

gabaz-egunaz servidu begui secula asperçacaric. <sup>73</sup>	
Oy gueyago gura badoçu, amoraduac, icasi, estudiadu, arren, eguiçu laztanaen borondateti, cerren bestela oyta ez jaçu probechaduco gauçaric.	105
Mundu guztian ni baño ezta oy amoradu firmeric. <sup>74</sup>	110
Ene laztanac merescidu dau oy asco abantajaric; a servicerren <sup>75</sup> aspertu <sup>76</sup> banax, banago descansaduric.	115
Artalastoa aguin eguiçu, nic al daguidan gauçaric; eguaztena ifini nauçu obligacioz beteric. <sup>77</sup>	120

---

*berba jaguinic* (B29: 50), *modu onetan / oyta berba jaguinic* (B29: 79-80). Edozein kasutan, beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NOR-NORI-NORK) ezkutatzen dela.

<sup>73</sup> *asperçacaric*: ‘nekatzekerik, nekatu gaberik’; cf. Lcc “cansar, *aspertu*”. Cf. orobat, *OEH*, s.v. *aspertu*: “2. [...] Cansar(se); desanimar(se); aburrir(se)”.

<sup>74</sup> *firmeric*: ‘firmeagorik’; eskuizkribuan hiru lekutan aurkitu dugu “*baño + adjektiboa gradu positiboan*” egitura: *au baño guiçon firmeric* (A11: 12), *Mundu guztian ni baño ezta / oy amoradu firmeric* (A14: 111-112) eta *nic uste baño luce içann da* (B7: 19).

<sup>75</sup> *servicerren*: ‘zerbitzatzearen, zerbitzatzeagatik’; -arron atzizkiari buruz, ikusi A14: 47 lerroko oharra.

<sup>76</sup> *aspertu*: ‘nekatu’.

<sup>77</sup> *Artalastoa aguin eguiçu, / ... obligacioz beteric*: Poemaren bukaera ilun samarra da, eta ez dugu uste erabateko interpretazio sendoa lortu dugunik. Lehenengo bi lerroak honela uler litezke: ‘Arto-lastoa enkarga ezazu, nik (egin) ahal dezadan gauzarik’; poetak arto-lastoa enkargatzen du ohea prestatzeko eta bertan sexuarekin lotutako *gauzak* egiteko. Azken bi lerroetan, asteazkenean neskarekin hitzordua duela adierazi nahi du seguruenik, baina *eguaztena* hitzak hurrengo arazo gramatikal hauek sortzen ditu, eta horien arabera interpretazioa aldarazten du: (a) *eguaztena* absolutibotzat hartuz gero, *ifini nauçu* NOR-NORK adizkia NOR-NORI-NORK baten ordez egongo litzateke —gaur egun ere batik bat kostaldean aurkitzen dugunaren antzera—, baina testuan adibide bakarra litzateke eta ez dirudi garai hartan solezismo hori gertatzen zenik; (b) bokatibotzat har liteke (‘asteazkena, ipini nauzu obligacioz beterik’), baina zer dela-eta hitz egiten dio poetak asteazkenari?; (c) azkenik, pentsa liteke *eguaztena* absolutiboa *eguaztenean* inesiboaren ordez dagoela, “noiz” adierazteko, gaztelaniazko “nos vemos el

## Fin

### OHAR PALEOGRAFIKOAK:

3 oyta] -ta lerroartean erantsita. 6 onau] -u lerroartean erantsita. 32 ansiric] lehenago *anseric*, e-ren gainean i zuzenduta; badirudi esku berak zuzendua dela. 38 çaoz] esk. *caoz.* || engañaduric] esk. *enganaduric.* 39 cerren] -n gero erantsia hitz artean. 45 ascoc] esk. *ascoo.* 51 honbre] -n-ren gainean letra bat idatzi da, n bera kopiaturik. 57 beucaique] esk. *beuçaique.* 71 partietan] esk. *partieta.* 73 coytaric] ondoren *oyta* tatxaturik. 76 oy] aurretik letra batzuk (agian *no-*) tatxaturik. 80 ebili] esk. *ebeli.* Eskuizkribuan maiz agertzen da *ebil-* forman, eta beste behin ere ez *ebel-*. 81 secula] s-ren azpian ç. 96 bildurric] esk. *bilduric.*

### Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A14 – Mundu guztian orain ez dago...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

miércoles” bezalako esaldietan legez (‘asteazkenean ipini nauzu obligazioz beterik?’); honen antzeko beste bat aurkitu dugu eskuizkribuan: *ecin ancitu neydi aynbat denpora on derechadan gaucea* (AL: 1152r).

## A15

### *Lo que acaeció a un galán con una dama en Álaba*

Poema eskatologikoak ez dira gutxi isekazko literaturan, eta horien artean badira batzuk uzkerren ingurukoak (gaztelaniazkoen artean Quevedorenak dira, seguruenik, ospetsuenak). Gaztelaniazko poema honen gai bera du euskaraz eskuizkribu honetako B14 (*Tenpora baten baneroean...*) poemak ere: neska eta mutila elkartu direnean, neskari ihes egin dio uzkerrak eta lotsatuta geratu da; neskak lotsatuta izateko arrazoirik izan ez dezan, mutilak ere uzkerra askatzen du neskaren aurrean. Gaztelaniazkoan barre egiten du neskak, baina mutilari jakinarazten dio baduela mutil-lagun gizalegezkoagoa.

<1183v>

*Lo que acaeció a un galán con una dama en Álaba.*

*Compuesto por Laçarraga.*

O, muy leales amadores

de aquesta tierra del Rey,  
consejadme qué aré,  
por vuestra bida, señores;  
que sin le azer errores  
perdí una señora mía,  
donde culpa no tenía;  
sed vosotros juzgadore.

5

Ansí fue, por mi pecado,<sup>1</sup>  
que un día la fuy a ver  
su muy lindo parecer,  
que me tenía conquistado;  
y por darle un abraçado,  
umilmente y muy quedo

10

<sup>1</sup> *por mi pecado*: ‘alajaina’; cf. *DAut*, s.v. *pecado*: ‘Por mis *pecados*. Phrase adverb. con que se significa el motivo o causa de haber sucedido mal alguna cosa, dando a entender que es en castigo de ellos. Algunos dicen por negros de mis *pecados*’.

soltósele un grande pedo, 15  
y aquesto fue sin su grado.<sup>2</sup>

Ella fue tan bergençosa  
que no me pudo ablar,  
y comienza de llorar  
diziendo triste cuytosa:<sup>3</sup> 20  
—Sienpre seré desdeñosa,  
y pues soys vos trobador,  
trobaréys de mi error  
y cómo pasó tal cosa.—

Yo la dixe: —Vida mía, 25  
sed segura, mi señora,  
que de vos no trobo agora  
i menos en ningún día,  
que yo descortés sería  
en trobar<sup>4</sup> de vuestro peer;<sup>5</sup> 30  
mas queredme prometer  
lo que sienpre os pedía.—

Ella con grande pesar  
se fue luego a esconder,  
e yo, por le azer plazer, 35  
fuy de allí y dexela estar.  
Y sabed que, sin burlar

<sup>2</sup> *sin su grado*: ‘nahi gabe’; cf. *DAut*, s.v. *grado*: “Vale también voluntad y gusto. Y assí, hacer una cosa de grado es hacerla de buena gana u de voluntad; y al contrario, hacerla de mal grado, o mal de su grado, es hacerla contra su voluntad y de mala gana”.

<sup>3</sup> *cuytosa*: ‘atsekabetuta, saminduta’.

<sup>4</sup> *trobar*: Lerro hauek 1186r orrialdean kopiatu dituenak (ziur aski Martin Lopez Bikuñak) *torvar* idatzi du honen lekuan.

<sup>5</sup> *peer*: ‘uzker egin’; cf. *DAut*, s.v. *peer*: “Arrojar, despedir la ventosidad del vientre por la parte posterior”.

y sin más yerro la azer,  
que nunca me quiso ber  
ni tan solamente ablar.

40

Después la vi en un portal<sup>6</sup>  
a la graciosa donzella,  
y fuyme a sentar cabo ella  
sin serle más desleal.

Y enpujé por mi gran mal  
un pedo mucho mayor,  
y díxile:<sup>7</sup> —Buen amor,  
ora estamos por igual.—

45

Y bolbiéndose al trabés,  
cubrió su rostro deprisa;  
tomola muy grande risa,  
llamándome descortés,  
deziendo con gran brabez:<sup>8</sup>  
—No es razón de hablar contigo,  
que ya yo tengo otro amigo  
más polido<sup>9</sup> y más cortés.—

50

55

Fin

<sup>6</sup> *portal*: ‘arkupe’; cf. *DAut*, s.v. *portal*: “Se llama también el lugar cubierto, construido regularmente sobre pilares, que se fabrica en las calles y plazas para passearse o preservarse del agua y el sol”.

<sup>7</sup> *díxile*: Zalantzazko forma da, *CORDEn* ez baitugu aurkitu honen lekukotasunik (*dixelete* agertzen da beti).

<sup>8</sup> *con gran brabez*: ‘suhartasunez’; *DAutek* ez dakar *bravez* forma (bai, ordea, *braveza*, jakina), baina *CORDEn* hiru agerraldi daude.

<sup>9</sup> *polido*: ‘polit, eder’; cf. *DAut*, s.v. *pulido*: “Se toma también por agraciado y de buen parecer”.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Laçarraga] esk. *LCRGA* monograma. **4** señores] esk. *senores*. **6** señora] esk. *senora*. **19** llorar] esk. *llorar*. **25-30** Yo la dixe ... trobar] lerro hauetako zati bat 1186r orrialdean kopiatu da beste idatzaldi batean (ziur aski Martin Lopez Bikuñaren eskuz): *Yo la dixe: bida mía, que yo descortés sería en torvar.* **26** señora] ñ ez da ziurra; diakritikoa izan litekeena puntu bat da, eta, beharbada, ez nahita idatzia. **27** i] aurrean *et* tatxaturik.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A15 – *Lo que acaeció a un galán con una dama en Álaba*” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen mende](#) dago

## A16

### Ene laztana, ene lindea...

1184. orriaren aurkian eta ifrentzuan idatzirik dago poema hau, baina dirudienez ez dago amaituta, gehiago idazteko lekua zegoen arren paperean. Hamar silabako eta zortzi silabako distikoen segidak dira, gure ustez, norbaitek lerroak launaka biltzen dituen zeinu bat idatzi duen arren; errima-aldaaketak (-ric 1-72 lerroetan, -ean 73-96 lerroetan eta -ioc 97-101 lerroetan) adierazten du nola bildu behar diren distiko-multzoak.

Ifrentzuko eskuineko aldean, bigarren zutabea idazteari ekin dio beste esku batek, poema honetako konjurua osatu nahian (89-96 lerroak); esku horrek aldatu du 83. lerroa ere. Litekeena da esku hori Francisco Lopez Luzuriagarena izatea, lerroen ondo-ondoan dagoen sinaduraren arabera; sinadura hori dago 1159r, 1161r eta 1177r orrialdeetan ere, baina ezin dugu ziurtatu testua beste inon aldatu duen ala ez. Argi dago ahapaldi berria aurrekoaren osagarri gisa idatzia dela, lehenengo testuaren egitura (“*tortolachoa ... conjuraetan çaitut*”; “*unicornio ... conjuraetan çaitut*”; “*pelicanoac ... conjuraetan çaitut*”) eta errima berarekin (-ean); horregatik tartekatu dugu errimaren arabera legokiokeen lekuan, letrakera etzanez bereizita.

Poemak lau parte ditu. Lehenengoan (1-42 lerroak), berak zerbitzen duen laztan krudelari hitz egiten dio mutilak, erruki eske; mutilak ezin du linda damea burutik kendu, eta neskak, berriz, ez dio batere kasurik egiten. Bigarrenean (43-68 lerroak), Amore Jaunari hitz egiten dio; mutila aldi berean damatxoaren eta Amore Jaunaren zerbitzari denez, dama krudelaren jarrera amodioaren aukako jokabidea dela deritzo eta hori konpontzen laguntzeko eskatzen dio. Hirugarren parteko hitzak (69-72) berriz ere damarentzat (*ene perlea*) dira, konjuruaren aurrean haren gogoa irekitzeo. Laugarren partean (73 hh.), konjuruko hitzak biltzen dira, usapala, adarbakarra eta pelikanoa eredu gisa aurkezturik.

Maitasun-konjuruek XVI. mendeko literaturan duten eginkizunaz, ikusi Vian Herrero (1997).

<1184r>      Ene laztana, ene lindea,  
                  banago beti gaxoric;  
                  ene negarrau ençun eguiçu,  
                  badoçu borondateric.  
                  Ceure bioça bera bequici,<sup>1</sup>

5

<sup>1</sup> *bera bequici*: ‘bigundu bekizu’; *beratu* aditza da.

badoçu piedaderic;	
oy <sup>2</sup> ni onela penaetan	
ez doçu errazoaric. <sup>3</sup>	
Ni çugaz amoraduagaiti	10
eztaucat nic bearric, <sup>4</sup>	
cegaiti ene escuan ez zan	
eguiten beste gauçaric. <sup>5</sup>	
Neure bioça or dauçaçu,	
ondo cateaz loturic.	
Libertadea aregaz <sup>6</sup> dago;	15
ni, barriz, beti bacarric.	
Pensamentuau daucadala	
çuregan enclabaduric,	
neurgaz secula eguiten ez dot	
çuregaz baxe <sup>7</sup> conturic. <sup>8</sup>	20

<sup>2</sup> oy: Eskuzkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>3</sup> *penaetan / ez doçu errazoaric*: *Errazoa (izan/eduki)* esamoldeak bi joskerak (-tzea eta -zen) onartzen ditu testuan, ohiko -tze(rako) daraman egituraz gainera: *onela penaetan* [azpian *penaetea*] / *ez doçu errazoaric* (A16: 7-8) eta *Errazoaric ez dauçaçu / niri ifinten coplaric* (A23: 47-48), *ez neuque errazoaric / icenau borraetea / ez gueiago ... ancietea* (A24: 141-144).

<sup>4</sup> *bearric*: ‘errurik’; ikusi baita A27a: 22. Cf. OEH, s.v. *bear*: ““Culpa, *bearra*”, “culpar, *bearr egotzi*” Lcc. *Odol bearbagea, agirtuko da egia eurea*. “Sangre sin ser necesaria [traducción incorrecta por ‘sin culpa’] descubrir se ha la tu verdad”. RS 208. *Ez dauko Peru Garziak bearrik / Ain gatx andia apukadua gatik*. “No tuvo culpa”. TAV 3.1.5, 17s. *Gu nagitzen bagera, gurea da bearra edo kulpa*. Mg CC 189 (CO 284 *geuria izango da erruba*).”

<sup>5</sup> *ene escuan ez zan / eguiten beste gauçaric*: ‘ene eskuan ez zegoen beste gauzarik egitea (maitemintzea baino)’.

<sup>6</sup> *aregaz*: Soziatiboaren -gaz kasu-markarekin, hala genitiboarekin (-regaz) nola gabe (-gaz) erabiltzen dira pertsona-izenordainak eskuzkribuan: *neuregaz* (A14: 25) / *nigaz* (*passim*) / *neurgaz* (A16: 19); *aregaz* (A16: 15, A19: 24) / *agaz* (*passim*); *beregaz* (AL: 1143v, AL: 1144v) / *beragaz* (B22: 61); *çuregaz* (AL: 1144v, A2: 2oh, A7: 15, A16: 20, A17: 95) / *çugaz* (AL: 1141r, A2: 2, A7: 26, A16: 9, A26: 134, B18: 143); *gugaz* (A1: 1).

<sup>7</sup> *baxe*: ‘baizen, baizik’; eskuzkribuan *baxe* eta *baize* formak agertzen dira (bakoitzaz zazpi aldiz, eta behin *baje*). Formari buruz, cf. OEH, s.v. *baizen*: “La variante *baxen* (<-ix-> a veces en fray Bartolomé) es propia de la tradición vizcaína; no se encuentra *baizen* en textos de este dialecto hasta el s. XX. Las formas sin -n se documentan en textos meridionales antiguos: *baize* en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama; *baxe* y *bixin* en Micoleta; *baizin* en BBizk.”

<sup>8</sup> *neurgaz secula eguiten ez dot / çuregaz baxe conturic*: ‘sekula ez dut neure buruaz ardura hartzen, zutaz baizik’.

Çuc, barriz, nigaz ez daucaçu  
bapere memoriaric  
secula, oyta ez badeusut  
eguiten serviciaric;  
causaetan dau<sup>9</sup> ez jaquiteac 25  
çure gogoco barriric;  
bestela bere nigan ez dago  
çurea ez dan gauçaric;  
çure icenaz oyta daucat  
guztiac<sup>10</sup> señaladuric; 30  
çugana deudan<sup>11</sup> amorioac  
oy iñon ez dau caburic;<sup>12</sup>  
oy çugan, barriz, piedadeac  
secula comiençuric:  
linda damea,<sup>13</sup> erruqui nauca,<sup>14</sup> 35  
ez dodan guero<sup>15</sup> culparic.

<sup>9</sup> *causaetan dau*: ‘egoera hau (nik zuri serbizio ez egitea) kausatzen du’; ulertu dugunaren arabera, esan nahi du neskak zer pentsatzen edo sentitzen duen jakin gabe ez dela ausartzen hari gorte egiten.

<sup>10</sup> *guztiac*: A16; 27-28 lerroetan aipatutako *gaucq* guztiak, alegia.

<sup>11</sup> *deudan*: *deu-* moldeko \**edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan, eta gainera poema gutxi batzuetan bildu dira: *deut* (A16: 66, A19: 3, A19: 5, A19: 43, A19: 47, A25: 20), *deudan* (A16: 31), *badeu* (A24: 99), *deuc* (A25: 4). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *du-* moldeetakoak.

<sup>12</sup> *caburic*: ‘akaburik amajierarik’

<sup>13</sup> *linda damea*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa (ikusi CORDE); euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan. Lazarragaren eskuizkribuan, zortzi aldiz aurkitu dugu: AL: 1143r, AL: 1144r, A1: 3, A4: 13, A5: 1, A16: 35, A23: 27, A23: 73.

<sup>14</sup> *erruqui nauca*: ‘Berorrek errukian eduki nazala, berorrek errukia eduki dezala niretzat’; gisa horretako aginterazko forma trinkoak ez ziren ongi ezagutzen Lazarragaren testua agertu arte. Izan ere, historikoki, euskararen hizkera desberdinek egitura perifrastikoetara jotzen dute iragankorretako objektua 1. edo 2. pertsonakoa delarik. Cf. adibidez *Hiri cionat allaua, ençun neçan allauaiçuna* (Zalgize 131). Lazarragak, aldiz, forma trinkoak nasaiki erabiltzen ditu objektu mota hauekin ere: *nançuçu* (A10: 4), *erruqui nauca* (A16: 35, berorika), *naraçaçu* (A17: 48), *ce nafinçu* (A17: 60), *nacusu* (B23: 47). Arabarraren erabilera emankor horien ondoan, euskaraz ezagutzen den corpusean ez dugu beste bi aldiz baizik aurkitu objektua 1. pertsonakoa duen aginterazko forma trinkorik: bata *Arrasateko Erreketan ([An]dra urena Butroecoa nançuçu, Butr A,6)*, eta bestea Oihenarten poesietan (*galdez nauzun horrez ukenduru negizu, Poes. XXIV, 5*).

Bestalde, poetak damari berorika egiten bide dio hemen, nahiz eta aurreko guztiak zu erabili duen. Gauza bera egiten du hiru poematan: A7: 119, A16: 35 eta A23: 37.

Çu lacoagan<sup>16</sup> ez leuque bear  
 crueldadeac parteric;<sup>17</sup>  
 Amoreorrec eguin ez oy dau  
 curelez confradiaric.<sup>18</sup> 40

Oy çuc ni ondo trataetaco  
 asco da nigan causaric.<sup>19</sup>

Amore poderosoa, jauna,  
 ni belaurico jarriric  
 mesede baten esque nagoçu,<sup>20</sup> 45  
 ez beajaco<sup>21</sup> bervaric;  
 damacho baten amoreminac<sup>22</sup>  
 narabil desterraduric.

<sup>15</sup> *ez dodan guero*: ‘ez baitut, ez dudanez’; *gero adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki*. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n guero* horietako bat da hau.

<sup>16</sup> *Çu lacoagan*: Lazarragak absolutiboarekin erabiltzen du gehienetan *laco* konparatzalea, pertsonaizenordainaren ondotik (*çu laco, ni laco...*); baina bada agerraldi bat genitiboarekin ere: *çure lacoooc* (B5: 19). Hemen egindako zuzenketa ere (*çure > çu*) bikoitzasun horren lekuko da.

<sup>17</sup> *parteric*: ‘indarrik, lekurik’; cf. *DAut. s.v. parte*: “*Tener parte, Ser parte*. Phrase que vale tener acción en alguna cosa, autoridad o poder para executarla”.

<sup>18</sup> *Amoreorrec eguin ez oy dau / curelez confradiaric*: ‘Amorea ez ohi da krudelekin elkartzen’; cf. egitura bereko *çure lecuan ez oy dala / ederrez confradiaric* (A23: 75-76). *DAutek* badakar *confradía* hitza, zaharkitutzat hartzen badu ere: “Lo mismo que *Cofradía*. Es voz antigua, y aunque más arreglada al origen del latino *Confraternitas*, ya comúnmente se usa sin la *n* para suavizar la pronunciación”.

<sup>19</sup> *asco da nigan causaric*: ‘kausa asko da nigan’.

<sup>20</sup> *nagoçu*: ‘nagokizu’; irakur bedi *nagozu*, txistukari frikariarekin (eta ez \**nagotzu*, afrikatuarekin). Eskuizkribuan sei aldiz aurkitu dugu *nagoçu-* (AL: 1139v, AL: 1152v, A16: 45, B3: 73, B3: 88, B22: 24) eta behin *egon* aditzaren NOR-NORI forma trinkoen sail honetako *gagoçu* (AL: 1147v). *Arrasateko Erreketan* (TAV 3.1.7) ere badago aditz hau: *Çaurietan curadu eta, / ama, nagoçu oera*.

<sup>21</sup> *beajaco*: ‘beaxako, beazako, mehatxuzko’; ez da irakurketa argia (<ucajaço> ere irakur liteke), baina, <beajaço> irakurriz gero, pentsa daiteke <j> dagoela <c> beharko lukeen leukan (eskuizkribuko beste leku batzuetan bezala), eta <j> grafiak txistukari sabaikaria adierazten duela, beste lau aldiz aurkitu baitugu eskuizkribuan grafia hori txistukari sabaikariaren balioarekin: *najala* (AL: 1147v), *baje* (AL: 1153r), *bijeac* (A11: 35) eta *urteje* (A14: 6).

*Beaza* ‘mehatxu’ hitzaren erabilerari dagokionean, ikusi *beaçatu badagui bere* (A14: 95), eta Lcc ‘amenazar, *beaça eguina*’.

<sup>22</sup> *amoreminac*: ‘maiteminak’; Berpizkundeko poesian topiko ezaguna da “amorez minduta” egotea (Petrarca, Garcilaso...): maitalea “amoreminez” dago, ezin duelako lortu maitatuaren amodia (arrazoia askotarikoak izan daitezke). Testuan hitz honek dituen agerraldi batzuetan esanahia hurbil bide dago etimologiatik (AL: 1145r, A7: 78, A16: 47, B10: 12, B21: 2 eta B23: 118); aldiz, A11: 8 lerrokoa egun maiteminak duen adiera arruntari dagokio.

Bestalde, kontuan izan *damachoa* dela amoremina sorrarazi duena, ez amoremina duena.

Ene bioçau a serviceco jarri çan obligaduric;	50
secula ondo arçaiten <sup>23</sup> eztau oy nic desodan <sup>24</sup> gauçaric;	
secula goardaetan eztau oi çure mandamenturic;	
estimaetan ezertan eztau oi çure serviçariric.	55
Onetan çuri eguiten jaçu oy asco agrabioric;	
dama curelau, arren, efinçu <sup>25</sup> oy ondo gaztigaturic. <sup>26</sup>	60
Secula bestec oy eztaguian artu atrevimenturic, conjuro gogor parebaga bat daucat ordenaduric.	
Otorgaduco deustaçula asco deut <sup>27</sup> esperançaric;	65
asi gura dot çuregan, jauna, oy baiez confiaduric.	
<1184v> Ene perlea, ençun eguiçu, badeçu <sup>28</sup> borondateric;	70

<sup>23</sup> *arçaiten*: ‘hartzen’.<sup>24</sup> *desodan*: ‘esaten diodan’; *esan* aditzaren NOR-NORI-NORK forma trinkoa da.<sup>25</sup> *efinçu*: ‘ipin ezazu’; *ipini* aditzaren agintera trinkoa. Halako hamaika aurkitu ditugu Lazarragaren eskuizkribuan: *efinçu* (A16: 59), *jafındaçu* (A17: 44, B18: 34), *ce nafinçu* (A17: 60), *dafinquet* (A24: 27), *ez difinçuen* (A27: 4), *badafinçu* (A27: 41), *ifinçu* (A28: 172), *dafinela* (A28: 175), *nafinçu* (B3: 70), *nafinela* (B4: 4), *ce efinçu* (B7: 13).<sup>26</sup> *gaztigaturic*: ‘abisaturik’; dirudinez, Lazarragaren eskuizkribuan *gaztigatu* aditzak beti ‘abisatu’ *esan* nahi du (cf. A7: 70, A10: 70, A16: 60, A28: 24 eta *gaztigu* A28: 146), eta *castigua* ‘zigorra’ da (AL: 1154r). Cf. *OEH*, s.v.: “Al Sur se da la distribución de variantes *gaztigatu* ‘avisar’ / *kastigatu* ‘castigar’; hay pocas excepciones —Refranes de Garibay, Beriayn, Iturriaga e Iza— en que *gaztigatu* se emplee para ‘castigar’.”<sup>27</sup> *deut*: *deu-* moldeko \**edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan, eta gainera poema gutxi batzuetan bildu dira: *deut* (A16: 66, A19: 3, A19: 5, A19: 43, A19: 47, A25: 20), *deudan* (A16: 31), *badeu* (A24: 99), *deuc* (A25: 4). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *du-* moldeetakoak.

çure entendimentua bego  
guchitan iraçarric.<sup>29</sup>

### *Conjuro*

Tortolachoa<sup>30</sup> ebilten da  
bacochic<sup>31</sup> maiaz ilean,  
bere laguna galdu jaquin<sup>32</sup> da<sup>33</sup>  
tristeric soledadean.  
  
Conjuraetan oy eta çaitut,  
curela,<sup>34</sup> poridadean,<sup>35</sup>  
gabaz-egunaz oy çabilcela<sup>36</sup>

75

<sup>28</sup> *badeçu*: *de-* moldeko \**edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan (eta gehienak Estibaliz Sasiolakoaren poeman agertzen dira): *det* (A5: 26, B30: 12, B30: 14, B30: 20, B30: 45, B30: 60), *dedan* (B30: 82), *badeçu* (A16: 70, A28: 168), *deçün* (A26: 90). Gutxi dira, orobat, *du-* eta *deu-* moldeetakoak.

<sup>29</sup> *çure entendimentua bego / guchitan iraçarric*: Adimena konjururako prest egon dadila esan nahi du, hipnotizatu moduan. Honen antzeko pasarte bat dago beste toki batean: *çure entendimentua bego / guchitan iraçarric* (A23: 35-36). *Iratzarrik* forma XIX. mendera arte ez zegoen lekukotua (cf. *OEH*, IRATZARRIRIK, s.v. *iratzarri*), baina eskuizkribuan hiru aldiz agertzen da (A16: 72, A23: 36 eta A28: 160), eta bi aldiz *iraçarriric* (AL: 1152r, B23: 16).

<sup>30</sup> *Tortolachoa*: ‘usapaltxoa’; Covarrubiasen arabera (1611, s.v. *tortola*), usapala emakume alargunaren sinboloa da, “laguna galdurik” kastitatea gorde behar duena.

<sup>31</sup> *bacochic*: ‘bakarrik’.

<sup>32</sup> *galdu jaquin*: ‘hari galdu’; *jaqui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa edo aditzoina aditz nagusitzat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Donzellea, cegati çaoz / enegaz enojaduric, / çurequinene aitasuna / horrela anci jaquinic?* (AL: 1142v), *Sirena bere ainbeste dabil, / besteoc leguez galduric, / Doristeori on derechala, / Silvero anci jaquinic* (AL: 1145v), *Esperancea galdu jaquinic / bici çan, aseguin bague* (AL: 1145v), *Acorda çatez ceyn on derechudan, eta bay nola çabilcen engañaduric, igui çabenaren acean, ene amorioau ancitu jaquinic* (AL: 1152v), *Tortolachoa ebilten da / bacochic maiaz ilean, / bere laguna galdu jaquin da / tristeric soledadean* (A16: 73-76), *Jaun Cerucoay emaiten jagot / oy asco gueraciari, / deseo neben ocasio / cerren nagoan jaquinic* (A23: 1-4), *Oyta capa bat emunagaiti / ez nax gueratu piloxic; / inori emun bajagot bere, / ez nago damu jaquinic* (A23: 57-60), *Donzella batec joci ceban / Iruneo calean, / niri ondo costa jaquin / Guipuscoaco lurrean* (B32: 21-24). Beti iragangaitz gisa agertzen da eta beti datibozko argumentu batekin. Gure ustez, \**edin* aditzaren aldaera bipersonala (NOR-NORI) baizik ez da.

<sup>33</sup> *da*: ‘eta’.

<sup>34</sup> *curela*: Bera maite ez duen dama krudelari zuzentzen dio poetak konjurua.

<sup>35</sup> *poridadean*: ‘argi eta garbi, itzulingurrik gabe’; gaztelaniaz *poridad / puridad* hitzak bi adiera ditu: ‘sekretuki, isilpean’ eta ‘argi eta garbi, itzulingurrik gabe’; ez daude kontrajarrita, baina badirudi oraingo honetan bigarrenari dagokiola; beste adierarako ik. A7: 71.

<sup>36</sup> *çabilcela*: ‘ibil zaitezela’; *ibili* aditzaren agintera trinkoa.

negarrez ene acean.	80
Unicornio, <sup>37</sup> animal fortiz <sup>38</sup>	
animal oen artean,	
umillaetan oy eta jaco	
dama bat <sup>39</sup> dacusenean.	
Conjuraetan oy eta çaitut,	85
oean çaucidenean <sup>40</sup>	
gogaberatu çaquezquedala <sup>41</sup>	

<sup>37</sup> *Unicornio*: Kastitatearen sinboloa da; cf. Covarrubias 1611, s.v. *unicornio*: “es un animal feroz, de la forma, y grandor de un caballo, el qual tiene enmedio de la frente un gran cuerno, de longitud de dos codos [...]. El vulgo tiene también recibido dél, que si vee una donzella, se le domestica, y se recuesta sobre sus faldas, y adormeciéndose en ellas, los caçadores llegan, y le prenden, y por esso es symbolo de la castidad”.

<sup>38</sup> *fortiz*: ‘bortitz, sendo’; *OEH*ren arabera Gerriko dateke aldaera honen lehen agerraldia. Orain arte G eta GN-n zegoen dokumentaturik, eta ekialderago ere bai. Lazarragaren eskuizkribuan sei aldiz dago (A14: 18, A16: 81, A24: 153, A28: 50, B17: 97, B18: 9).

<sup>39</sup> *dama bat*: Partitiboaren eta *bat* artikulu mugagabearen arteko banaketaren historiarako interesgarria da eskuizkribuan agertzen den zuzenketa: *dama bat dacusenean* > *damaric dacusenean*.

<sup>40</sup> *caucidenean*: ‘etzinik (etzanik) zaudenean’; *etzin* aditzaren forma trinkoa da: *z-autzi-de*, 2p-erroa-pl. Eskuzkribuan lau aldiz dago *etzin* aditza forma jokatugabean (*ecin* AL: 1152v, *ecinic* A1: 36, *ecingo* A14: 85, *ezin* A24: 53) eta bi aldiz forma trinkoan (*naç* AL: 1152r, *caucidenean* A16: 86).

Lazarragak -de- morfema iragangaitzetako NOR argumentuaren pluralgile bezala erabiltzen du. Bost aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan: *çarade* (AL: 1144v, B18: 91), *dirade* (A1: 52), *çagode* (A5: 2), *çaucidenean* (A16: 86), *gabilçaden* (A17: 93), *çabilçade-* (B18: 147). -te- morfema, ordea, iragangaitzetako NORI eta iragankorretako NORK argumentuen pluralgile bezala agertzen da eskuizkribuan: *ecarten* (AL: 1153r, AL: 1154v, A1: 37), *liçatela* (AL: 1154v), *egotela* (AL: 1154v), *darabilte-* (A1: 47, A24: 87), *deustet* (A17: 9), *jate* (B3: 77), *eusten* (‘zien’ nahiz ‘zioten’, *passim*).

<sup>41</sup> *gogaberatu çaquezquedala*: ‘gogabera zakizkidakeela, maitasunez hunkitu zakizkidakeela’; *çaquezquedala* geroaldiko subjuntiboko NOR-NORI forma laguntzailea da. Cf. orobat *gura deusut aguindu / gure errico abantajaoc / daiqueçula cantadu* (A6: 6-8), *cegaiti artu ez daiquean* (A14: 99), *Conjuraetan oyta diçut, / gorpuceango araguioc, / nigana manso dacarqueçula / ceure beguicho lindo bioc* (A16: 97-100), *Arren aguir çaytes[que] / sacusquedan leyotic* (B30: 39-40). Lazarragaren testutik kanpo, beste behin baizik ez da lekukotzen geroaldiko subjuntiboaren erabilera, beste arabar baten testuan, Perutxoren kantan hain zuzen: *Esso[c] amor[e]jari / gajo nachala / y penas naçala / jatorquedala* (TAV 102-104). Laguntzailearen lehen -que-a, \*edin aditzaren erroari dagokio. Lazarragaren testuan frankotan gertatzen den bezala, -i bokala ireki da eta -ebihurtu (cf. *anech* A17: 3). Bigarren -que atzikiaz den bezainbatean, ez dugu dudarik geroaldiko atzikzia dela. Batek pentsa zezakeen geroaldiko atzikzia baino pluraltasunaren marka izan zitekeela, gaur egun gertatzen den bezala (*zakizkit, gakizkizu-*). Bizkitartean pluraltasunarekin lotu ohi den -ki atzikzia berandu agertu bide da forma hauetan (cf. Etx I, 52: *Ni çugana nyatorqueçu bekhatore handia / Arimaren saluacera çu çaquitztan valia*, edo RS 361 *Sayra noçu, asper çaquidaz*). Lazarragak berak çaaquit eta çaquezt erabiltzen ditu: *arren, çaaquit lagundu* (A6: 2), *Jauna, barca çaquezt, si peco en esto* (B17: 93). XVI. mendeko autoreen artean, Leizarraga da bakarra çaquitzquo (zu-hari) eta gaquizquo (gu-hari) bezalako formak erakusten dituena.

<i>beguioz</i> <sup>42</sup> nacusunean. <sup>43</sup>	
<i>Pelicanoac</i> <sup>44</sup> amorioz	
<i>umeac daguianean,</i> <sup>45</sup>	90
<i>bere odolaz mantenicen dau</i>	
<i>guztiac aci artean.</i>	
<i>Conjuraetan caitut, laztan,</i>	
<i>ni ga borz nabilean,</i> <sup>46</sup>	
<i>ceure bularroc jan daguiçula</i> <sup>47</sup>	95
<i>ceurgana</i> <sup>48</sup> sartu artean. <sup>49</sup>	

*Prosigue*

<i>Conjuraetan oyta deusut</i>	
<i>gorpuceango</i> <sup>50</sup> araguioc, <sup>51</sup>	
<i>nigana manso dacarqueçula</i> <sup>52</sup>	
<i>ceure beguicho lindo bioc.</i>	100

*Gogaberatu* aditzaren esanahiari dagokionean, cf. *OEH*, s.v. *gogaberatu*: ““Enterñecerse de cariño” Lar.”

<sup>42</sup> *beguioz*: Artikulu hurbil pluralekoa instrumentalean; eskuizkribuko bakarra da.

<sup>43</sup> *nacusunean*: ‘ikusten nauzunean’; *ikusi* aditzaren NOR-NORK forma trinkoa. Irakur bedi *nakutsunean*.

<sup>44</sup> *Pelicanoac*: Pelikanoa maitasunaren sinboloa da Erdi Aroko Europan, eta hala agertzen da hala literaturan nola gainerako arteetan. Pentsatzen zen pelikano-amak bere bularra mokoka zabaldu eta hango odola ematen ziela kumeei, jateko.

<sup>45</sup> *umeac daguianean*: ‘umeak egiten dituenean’.

<sup>46</sup> *ni ga borz nabilean*: Testua palegrafikoki aski garbia iruditzen zaigu, baina ez dakigu zer esan nahi duen. Patri Urkizuk (Urkizu 2004) *ni gabaz nabilean* irakurri du.

<sup>47</sup> *jan daguiçula*: ‘jan ditzazula’.

<sup>48</sup> *ceurgana*: Eskuzkribuan bi aldiz aurkitu dugu *ceurg-* forma indartu zaharra: hau eta *ceurganic* (A17: 86); ugariago dira, jakina, *çugan-* eta *çuregan-* formak.

<sup>49</sup> *ceure bularroc jan daguiçula / ceurgana sartu artean*: Gure ustez, *bularrok jatea*, hemen, neskaren bularrok (edo altzoa, edo surrealdea) mutilarentzat maitasunez zabaltzea da (pelikanoak ere bularrok mokoka janez zabaltzen baitu bere paparra, kumeak elikatzeko); baina ez dakigu ziur *ceurgana sartu* behar dena neska bera den (pelikanoak ere paparra zabaltzen du bere mokoa barrura sartzearaino) ala mutila den neskaren barrura sartu behar dena (pelikanoaren kumeak ere agertzen dira irudi askotan amaren paparretik mokoka). Linschmann-Aresti legearen arabera, lehenengo irakurketa litzateke egokiena, *ceurgana* forma indartuak adierazten duenez.

<sup>50</sup> *gorpuceango*: ‘gorputzeko’; *-eango* bakarra da eskuizkribuan.

<sup>51</sup> *gorpuceango araguioc*: Formula ezaguna da, batez ere balada zaharretan: cf., adibidez, Peru Abendañokorena: *Jaun Peru Abendañokok esala: / Oñetako lurrau jabilt ikara, / Gorputzeko lau aragiok berala* (XV. m.; TAV 3.1.6.).

<sup>52</sup> *dacarqueçula*: ‘geroan ekar ditzazula’; geroaldiko subjuntibo trinkoa. Cf. gorago A16: 87.

*Prosigue*

Munduan ezta

[...]

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

1 Lehenengo eskuak 1184. orriaren aurkian bi zutabe eta ifrentzuan bat idatzi ditu. Aurkiko zutabe bakoitzaren hasieran eta konjurua hasten den lekuan, marra bana zirriborratu dira, idatzitakoa baliogabetzeko edo. Agian horregatik ez da amaitu poema, paperean gehiago idazteko lekua zegoen arren. Lerro-segida bakarra dago konjurura iritsi arte, baina norbaitek lerroak launaka bereizi ditu zeinu batez (<→). 3 negarau] *n-* zerbaiten gainean idatzita, agian *b-ren* gainean. || eguiçu] esk. *Eguicu*. 7 penaetan] lehen *penaetea*, edo alderantziz, ez baitago argi; gaineko zuzenketa (-ea / -an) beste tinta batez, baina ziurrenik esku beraz. 9 Ni] lehen *oy*; gaineko zuzenketa beste tinta batez, baina ziurrenik esku beraz. 13 dauçaçu] esk. *dauçaçu*. 17 Pensamentuau] lehenengo *e* bokala *a-ren* gainean zuzenduta. 18 çuregan] *a* bokala *e-ren* gainean zuzenduta. 22 bapere memoriaric] lehenago *ceure bician conturic* jartzen zuen, edo antzeko zerbaite. 30 señaladuric] esk. *senaladuric*. 35 nauça] esk. *nauça*. 37 Çu] ondoren *-re* tatxaturik. 46 beajaco] esk. *beajaço*. 52 oy] aurrean *ez dau* tatxaturik. 54 mandamenturic] esk. *mandamenduturic*. Liburuan beste zazpi aldiz agertzen da *mandamentu*, eta behin ere ez *mandamendu*. 57 eguiten] esk. *Equiten*. 72 iraçarric] behoko lerroan hitz bat ezabaturik. 83 umillaetan *oy* eta *jaco*] marra batez tatxaturik; beste esku batek, seguruenik 89-96 lerroak idatzi dituen eskuak, beste hau idatzi du lerroartean: *naturalezaz umillacen da*. 84 dama bat] *bat* marra batez tatxaturik; *-ric* lerroartean erantsita. || dacusenean] esk. *dacusenean*. 87 çaquezquedala] aurrean çateçela tatxaturik; *-dala* lerroaren azpian eta marra batez bildurik. 89-96 Pelicanoac ... sartu artean] Beste idatzaldi batean idatzi dira, geroago, 89-96 lerroak, paperaren zuriunean, beste zutabe batean, agian beste esku batez. 95 daguiçula] esk. *daguicula*, nahiz ez dagoen oso argi. 97 deusut] *diçut* ere idatzi du esku batek (seguruenik esku berak), gainean edo azpian, baina ez dago argiegi zein den azken idatzaldia. 100 lindo] *a-ren* gainean idatzita dago *-o*. **izenb.** *Prosigue*] ondoren zerbaite tatxaturik.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A16 – Ene laztana, ene lindea...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A17

**Cegaiti beguiratu gura ez doçu...**

Hamabost estrofa bildu ditugu poema honetan, hurrengo datorren gaztelaniazkoaren estrofa-egitura berekoak: zortzi lerro dodekasilabo (baten bat endekasilaboa eta baten bat hamahiru silabakoa ere bada), ABBAACCA errimarekin, gaztelaniazko metrikan *copla de arte mayor* edo *octava castellana* esaten zaiona hain zuzen, hau da, batik bat XV. mendean eta XVI. mendearen hasieran erabilitako estrofa mota bat. Dirudienez lehenengo 11 estrofak idatzi dira lehenengo idatzaldian, baina horien jarraipena dira zalantzak gabe ondokoak ere, horietan ideia berri bat agertzen den arren (*zu / ni* alderaketa, neskaren eta mutilaren ezaugarriak eta jarrerak paraleloan emanet); azken estrofa (hamabosgarrena) biribildu gabe dago, hala neurriari dagokionean nola errimari dagokionean.

Ideia nagusia beste poema batzuetan ere ikusi dugu: mutilak dontzeila kruzelaren edertasuna goraipatzen du, baina arrenguraz eskatzen dio kasu egiteko; poema honetan, Amorearen mandamentua (bigarren estrofan adierazia) da horretarako argudio nagusia.

<1185r>      Cegaiti<sup>1</sup> beguiratu gura ez doçu  
                   çugaiti nola nagoan cantaetaz?<sup>2</sup>  
                   Bioçau jo deustaçu anech<sup>3</sup> flechaz,  
                   nigaz conturic eguin nay ez doçu;  
                   beguira eguiçu cer eguiten doçun,  
                   nuen<sup>4</sup> contra ta nola oyta<sup>5</sup> çabilcen,      5

<sup>1</sup> *Cegaiti*: Galdetzaile gisa ulertzea ez da aukera bakarra, beharbada (*cegaiti* kausazkoa ere *-n* gabe joan baitaiteke), baina onena iruditzen zaigu, beste galdera zuzen batzuk ere badirelako poema honetan (A17: 39-40koa inolako zalantzak gabea).

<sup>2</sup> *cantaetaz*: Lazarragaren testuan aditz-izena hiru aldiz baizik ez da agertzen kasu instrumentalean, hiruretan *kantadu* aditzarekin: *aditu even cantaetaz etorrela oideietati figura eder bat* (AL: 1153r), *ençün even aen alderuç cantaetaz etocela guiçon baçu* (AL: 1154v), *Cegaiti beguiratu gura ez doçu / çugaiti nola nagoan cantaetaz?* (A17: 1-2). Gaur egun, gisa horretako moduzko perpaus jokatugabeak zubereraz baizik ez dira erabiltzen.

<sup>3</sup> *anech*: ‘anitz’; *OEHk* ez dakar aldaera hau; eskuizkribuan hemen bakarrik agertzen da. Bokal-ahultze honen beste adibide bat ere bada testuan: *çaquezquedala* (A16: 87).

<sup>4</sup> *nuen*: ‘noren’; galdetzailearen forma hau bitan agertzen da testuan: *nuen agintez* (AL: 1153r) eta *nuen contra ta nola* (A17: 6). *OEHren* arabera (s.v. *nor*), hau bezalako formak ez dira lekukotzen oso berandu arte: *noen* (Añibarro eta Astarloa).

<sup>5</sup> *oyta*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

amoreac cer deusun çuri aguincen.

Belarrioc irecaçu eta dançuun:<sup>6</sup>

—Doncella guztioi deustet aguinquetan<sup>7</sup>

daguiela amoraduoc ondo artu;

10

onegaz linda guztioc beucae contu,<sup>8</sup>

cerren joango nax neurau escaetan;<sup>9</sup>

curela ifinico dot estuetan,<sup>10</sup>

baldin da<sup>11</sup> mandamentu au goarda ez badez.<sup>12</sup>

Nic au erraz daiquet<sup>13</sup> neure partez,

15

asi banadi amorez conbatietan.—

Amoreac ençun doçu, ene laztana,

oy bere mandamentuan cer dioan;<sup>14</sup>

<sup>6</sup> *Belarrioc irecaçu eta dançuun*: ‘belarriok ireki itzazu eta entzungo duzu’; hasiera batean, formaz subjuntibokoa den adizkiari balio finala egotzi genion, baina irudi luke zuzenena dela pentsatzea geroaldia adierazten duela. Mitxelenak (1954a) erakutsi zuen RS testuan subjuntiboko adizkiak erabiltzen zirela geroaldia adierazteko, beste hizkuntza askotan ohikoa den bezala (greziera zaharrean, bestek beste): *Ax adinhon ta axa hon* “Sé acomodado y serás bueno” (RS 31); *Yquedac ta diqueada* “Darásme y darte he” (RS 233). Erabilera horren hiru adibide bildu ditugu Lazarragaren testuan: *ençuçu ta jaquin daguiçun* (A14: 43), *Belarrioc irecaçu eta dançuun* (A17: 8) eta *Ençuçu eta diracasudan / ezconduaren dotea* (A24: 47-48). Hiruretan, irakurketa berriak *eta* juntagailuak hasierako interpretazioan ekartzen zuen traba konpontzen du.

<sup>7</sup> *deustet aguinquetan*: ‘agintzen diet’; Lazarragaren eskuizkribuan, -te- morfema iragangaitzetako NORI eta iragankorretako NORK argumentuen pluralgile bezala agertzen da: *ecarten* (AL: 1153r, AL: 1154v, A1: 37), *liçatela* (AL: 1154v), *egotela* (AL: 1154v), *darabil-* (A1: 47, A24: 87), *deustet* (A17: 9), *jate* (B3: 77), *eusten* (‘zien’ nahiz ‘zioten’, *passim*); -de- morfema, ordea, iragangaitzetako NOR argumentuaren pluralgile bezala erabiltzen du. Bost aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan: *çarade* (AL: 1144v, B18: 91), *dirade* (A1: 52), *çagode* (A5: 2), *çaucidenean* (A16: 86), *gabilçaden* (A17: 93), *çabilçade-* (B18: 147).

<sup>8</sup> *beucae contu*: ‘eduki bezate kontu’; *eduki* aditzaren jusibo trinkoa.

<sup>9</sup> *escaetan*: ‘eskatzen’; kontu eskatzera, alegia.

<sup>10</sup> *ifinico dot estuetan*: ‘estuasunean ipiniko dut, kinka larrian jarriko dut’; gaztelaniazko *poner en aprietos-en* kalkoa da.

<sup>11</sup> *baldin da*: ‘baldin eta’.

<sup>12</sup> *goarda ez badez*: ‘gorde ez badeza’; mendebalde zein erdialdeko testuetan adizkien erroko -a askotan galtzen da bukaera absolutuan gertatzen delarik (cf. FHV §6.4). Lazarragaren testuan, \**ezan* (protasietan edo b- aurrizkidun jusibozko formetan) eta *etzan* aditzek pairatzen dute erorketa: *lo ete naç* (AL: 1152r), *goarda badez* (A17: 14), *sufri[du] valez* (B10: 6).

<sup>13</sup> *erraz daiquet*: ‘erraz egingo dut’.

20

apa bat baneydiçu<sup>15</sup> ao goçoan;  
 bacusu<sup>16</sup> ene fedea firmea dana.<sup>17</sup>  
 Doncellea, arren, eguiçu ene esana,  
 <1185v> cegaiti çuc ez doçu ecer galduo;  
 neure bician ez çaut ancituco,<sup>18</sup>  
 çureçat içango da nic dodana.

<sup>14</sup> *Amoreac ençun doçu, ene laztana, / oy bere mandamentuan cer dioan:* ‘ene laztana, entzun duzu Amoreak bere mandamenduan zer dioen’; ohiz kanpoko hitz-ordena darabil; latindar literaturan ohikoak dira halakoak, eta euskal idazleen artean Etxeberri Ziburukoa aipa genezake eredu klasiko horren jarraitzaile. Lazarragareneng adibide bakanetakoa dugu hau, eta ez da kontu argia eredu jakin bat segika egindakoa ote den.

<sup>15</sup> *apa bat baneydiçu:* ‘musu bat egin (eman) ahalko nizuke’; \*-idi- erroko adizkia da, balio potentzialarekin.

\*-idi- aditza *egin* aditzaren erro supletibotzat jo ohi da (Lafon 1944 eta geroztikako lanak). Izan ere, testu arkaikoenetan, *egin*-ek ez du potentzialeko forma trinkorik erakusten, eta haren ordez \*-idi- erabiltzen da. Mendebalde zein ekialdeko testuetan aurkitzen da.

\*-idi- aditza trinkoki (*Arbore gaichtoac fructu onic ecin daidi*, Leiz Mat. VII, 18), zein “partizipioa + \*-idi-” gisako perifrasiaaren laguntzaile gisa agertzen zaigu. Azken erabilera hau mendebaldeko testuetan baizik ez da lekukotzen; eta hori da, hain zuzen ere, espero duguna, *egin* eta \*-idi- banaketa osagarrian badira, eta “partizipioa + *egin*” perifrasia mendebaldekoa bada: *Mayacean berarra luce da eta sendo, eguitayaren orçac ebagui leydi ondo* (RS 268), *Esan senguida beste gatic / esneydysula trucadu* (Mik TAV 3.1.27).

Lazarragaren eskuizkribuan, bost aldiz agertzen zaigu trinkoki jokaturik, eta gehienetan aditz-lokuzio bateko aditza da: *Ecin faltaric neydio / nic on derechadanari* (A3: 9-10), *apa bat baneydiçu ao goçoan; / bacusu ene fedea firmea dana* (A17: 19-20), *Baneidio bati berba, / palagadu al banegui* (A19: 63-64), *beronec bere ezteidio falta gueiago damari* (B27), *Mendi altuan erurra daydi, / aran baxuan eguzqui* (B31: 1-2). Gainerateko kasuetan, perifrastikoki erabilia da, partizipioa aditz nagusitzat harturik.

Balioari dagokionez, lau baliorekin agertzen zaigu. Gehienetan potentziala adierazten du (zortzi aldiz), baina geroaldiaren balioa ere har dezake (bi aldiz). Behin baldintza irreal bateko apodosian agertzen zaigu, baina hori ez zaigu harrigarria iduritzen, kontuan harturik apodosiak potentzialeko formetarik erator daitezkeela. Azkenik, orain arte ezagutzen ez genuen erabilera batean aurkitu dugu bi aldiz: aginteraren balioarekin; bizkitartean, ez dira agintera “normalak”: orainaldiko forma iragankorren *d-*aurrizkia daramate, baina horrekin batera aginterazko formetan erabili ohi den ezeztapenaren partikula: *ze*. Pentsa daiteke geroaldiko formak direla aginteraren balioarekin erabiliak (oroit Leizarragaren mandamentuko *ez duk hilen* tipoko formak).

<sup>16</sup> *bacusu:* ‘badakutsu, ikusten duzu’; irakur bedi *bakutsu*.

<sup>17</sup> *dana:* ‘dela’; -na konpletiboa.

<sup>18</sup> *ez çaut ancituco:* ‘ez zaitut ahantziko, ahaztuko’; çaut pluralgile gabeko forma da, eta *ancitu* partizipio-forma pleonastikoa. *ancitu-* (AL: 1146v, AL: 1151r, AL: 1152r, AL: 1152v bis, A7: 12, A17: 23, B3: 59), *anci jaquinic* (AL: 1142v, AL: 1145v) eta *ancietea* (A24: 134, A24: 144) formak agertzen dira eskuizkribuan. *OEHn* ez dago forma hauen lekukotasunik mendebaldean, ez bada Azkuerenetik harturiko “*antzitu V-al*”. Cf. *OEH*, s.v. *ahaztu*: “El participio en V ant parece ser *aztu* con *a* nasal, escrita normalmente *aztu* y una vez (RS 156) *antztu*. Respecto al sust. vbal. ines., Lcc *azketan erreza* s.v. “olvidadizo” y Mic *ta aztutene badozu / eztozu ondo eiten* (TAV 3.1.27).”

Çu cara eder guztioen capitana,  
ceruco irargui curia dirudiçu;  
ene guztiau ceure eguin eguiçu,  
inor baño ederrago çareana.<sup>19</sup>

Libertadeau joan jatan çuregana,  
ni bici içaatea<sup>20</sup> çure escuan dago,  
remedioaren esperançaz<sup>21</sup> beti nago,  
ceña baquit,<sup>22</sup> larrosachoa, çugan dana.

Espantaduric<sup>23</sup> nago, donzellea:  
vioçoy nola doçu orrein<sup>24</sup> curela?<sup>25</sup>

25

30

<sup>19</sup> *çareana*: Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatuetan ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doeán* (RS), *daroa + -an > daroeanean* (VJ) (cf. FHV 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138r), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B17: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B18: 31, B18: 44), *guinean* (A7: 8, B18: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B18: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroerala* (B18: 16). Ohar gaitezen Landuccik ez duela aldaketa horren arrastorik aditzean (“antecedente, *aurrera doana*”).

<sup>20</sup> *içaatea*: *Jan* eta *izan* aditzek aditz-izena osatzeko *-te* atzizkia hartzen dutenean, *-aa-* bokal bikoitzza gertatzen da. Aditz horiek beroriek bestelako formetan (*izango, jango, izan, jan, janda*) ez dute inoiz bokal bikoitzik agertzen. Itxura guztien arabera fenomeno morfologikoa da oinarrian. Honelaxe dio OEHk *jan* aditzarentzari dagokionean (*izan* aditzari dagokionean, OEHk ez dakar bokal bikoitzeko adibiderik): “Documentado en todas las épocas y dialectos. La forma *jan* es general; *jaana, jaate-* (aunque no *jaan*) se documentan en Capanaga, Zuzeta (88), Moguel (*PAb* 164), V. Moguel (12), J.J. Moguel (*BasEsc* 261) y fray Bartolomé (*Ic III* 273).”

<sup>21</sup> *esperançaz*: Eskuizkribuan *desesperanças* (A1: 46) eta *esperanças* (A17: 31) aurkitu ditugu, instrumentalaren markatzat <-s> txistukari apikaria dutela; apikari/bizkarkari neutralizazioa hitz berean bi aldiz gertatzea bitxia bada ere, ez dugu aurkitu hori azalduko duen ezer, eta testuan <-z> bizkarkariarekin ematea erabaki dugu.

<sup>22</sup> *baquit*: ‘badakit’; eskuizkribuan ez dago behin ere *badaquit* forma osoa, horren kontrakzioz sorturiko *baquit* baino, lau aldiz (A12: 15, A17: 32, B7: 21, B29: 57).

<sup>23</sup> *Espantaduric*: ‘harriturik, miraz gelditurik’; cf. DAut, s.v. *espantarse*: “asombrarse”.

<sup>24</sup> *orrein*: ‘horren’; hiru graduoko adberbioa dago eskuizkribuan: *oneyn/onein, orreyn/orrein, ayn/ain*. Cf.: *oneyn* *curello tratadu* (AL: 1151r), *ene peneau oneyn andia dan azquero* (AL: 1152r), *estaguiçu[la] / guijona onein amorad[u]* (B30: 35-36); *orreyn* *curello trataetan* (AL: 1152r), *orrein* *gaxqui* (AL: 1145v); *orrein* *curela* (A17: 34), *eneçat orrein gogor* (A17: 40), *orrein* *cruel içaten enegana* (A17: 67); *ain* *furia andiaz* (AL: 1142r), *urten eben ain laster* (AL: 1143r), *ain* *aguiz* (AL: 1143r), *ain* *cruelmente* (AL: 1143r) eta *passim*.

<sup>25</sup> *Espantaduric nago, donzellea: / vioçoy nola doçu orrein curela?*: Beste era batean ere puntuatu liteke: *Espantaduric nago, donzellea, / vioçoy nola doçu orrein curela*. Kontua da, hain zuzen, galdera zuzena nahiz zehar-galdera izan litekeela. Baino ez dugu bigarren aukera hori lehenetsi, batetik, eskuizkribu

	Tratadu ce naguiçu <sup>26</sup> beti onela;	35
	ençetu, dama guztioen estrellea:	
	gura dot relajadu <sup>27</sup> querellea; <sup>28</sup>	
	osatu ene llagueau, nay badoçu.	
	Larrosa maiacecoa, nola doçu	
	eneçat orrein gogor murallea?	40
	Donzellea, piadadez <sup>29</sup> ar naçaçu;	
	barriz gura deusut erregutu:	
	catea gueiagogaz ez ni lotu,	
	neure bioçau libre jafindaçu; <sup>30</sup>	
<1186r>	biurtu libertadea eguidaçu, <sup>31</sup>	45
	alegueratu didin ene gogoa.	
	Çu serviceco andi dot deseoa;	
	aldi bat <sup>32</sup> ceure besoan naraçaçu. <sup>33</sup>	

honetan, *nola* eta *nun* galdetzaileak buru diren zehar-galderetan, aditz-jokatua -(e)n atzizkiarekin markaturik izan ohi delako; hau zehar-galdera dela onartuko bagenu, hemen eta A11: 19-22 bertso-lerroetan legoke salbuespna, kontua palegrafiko hutsa ez balitz behintzat, hain zuzen, -n defektiboa izatea, idatzi gabe izan arren irakurri beharrekoa (sc. *doçun*). Bestetik, beste galdera zuzen batzuk ere badirelako poema honetan (A17: 39-40koa inolako zalantzak gabea), eta horrek pentsarazten du hau ere halakoa bide dela.

<sup>26</sup> *Tratadu ce naguiçu*: ‘ez nazazu tratatu’.

<sup>27</sup> *relajadu*: ‘apaldu’.

<sup>28</sup> *querellea*: ‘kexa’; cf. *OEH*, s.v. *kereila*: “KEREILA EGON [...] *Biotza begien dago kerella* (Canción vizcaína, 1609). TAV 3.1.22.”

<sup>29</sup> *piadadez*: Eskuzkribuan bi aldiz agertzen da *piadade* forma (A17: 41 eta A28: 80) eta hiru aldiz *piedade* (A1: 50, A16: 6, A16: 33). Landuccik ere *piadade* dakar (gaztelaniazko “clemencia” eta “piadad”). Gaztelaniaz ugari agertzen da *CORDEN* 1600 arte, eta gero nekez (azkena 1646koa).

<sup>30</sup> *jafindaçu*: ‘ipin iezadazu’; *ifini* aditzaren NOR-NORI-NORK agintera trinkoa. Halako hamaika aurkitu ditugu Lazarragaren eskuzkribuan: *efinçu* (A16: 59), *jafindaçu* (A17: 44, B18: 34), *ce nafinçu* (A17: 60), *dafinquet* (A24: 27), *ez difinquent* (A27: 4), *badafinçu* (A27: 41), *ifinçu* (A28: 172), *dafinela* (A28: 175), *nafinçu* (B3: 70), *nafinela* (B4: 4), *ce efinçu* (B7: 13).

<sup>31</sup> *biurtu libertadea eguidaçu*: ‘libertatea bihurtu iezadazu’; ohiz kanpoko hitz-ordena.

<sup>32</sup> *aldi bat*: ‘aldi batez, une batez, memento batez, istaño batez’; *OEH* dioenaren kontra, ez duguuste Lazarragarenean ‘vez, turno’ esan nahi duenik, ‘istaño, memento, une’ baino. Eskuzkribuan lau aldiz aurkitu dugu: A8: 8, A17: 48, A17: 61 eta B14: 9. Cf. *OEH*, s.v. *aldi*: “Salvo en ciertos ejes. anómalos de RS, donde no aparece *denpora*, en los textos antiguos es equivalente a ‘vez, turno’. Va ampliando su campo semántico significando tbn. ‘tiempo concreto’. A partir de Azkue se comienza a emplear tbn. como sustitutivo de *denbora*”.

<sup>33</sup> *naraçaçu*: ‘eratzan nazazu’; *eratzan* aditzaren NOR-NORK agintera trinkoa. Gisa horretako aginterazko forma trinkoak ez ziren ongi ezagutzen Lazarragaren testua agertu arte. Izan ere,

Edirayten<sup>34</sup> eztau inorc munduan  
çu laco<sup>35</sup> donzella bat ain lindaric;<sup>36</sup> 50  
secula jaio ez da amoraduric  
ni duin<sup>37</sup> firmeric ene lecuan.<sup>38</sup>  
Enegaz jarri çatez partiduan,<sup>39</sup>  
cegaiti onezquero<sup>40</sup> da denporea;  
berva vat eguidaçu, traídorea,  
plazaz edo bestela estalduan.<sup>41</sup> 55

historikoki, euskararen hizkera desberdinek egitura perifrastikoetara jotzen dute iragankorretako objektua 1. edo 2. pertsonakoa delarik. Cf. adibidez *Hiri cionat allaua, ençun neçan allauaiçuna* (Zalgize 131). Lazarragak, aldiz, forma trinkoak nasaiki erabiltzen ditu objektu mota hauekin ere: *nançu* (A10: 4), *erruqui nauca* (A16: 35, berorika), *naraçaçu* (A17: 48), *ce nafinçu* (A17: 60), *nacusu* (B23: 47). Arabarraren erabilera emankor horien ondoan, euskaraz ezagutzen den corpusean ez dugu beste bi aldiz baizik aurkitu objektua 1. pertsonakoa duen aginterazko forma trinkorik: bata *Arrasateko Erreketa* (*[An]dra urena Butroecoa nançu, Butr A,6*), eta bestea Oihenarten poesietan (*galdez nauzun horrez ukenduru negizu, Poes. XXIV, 5*).

*Eratzan* aditzari dagokionean, lau adizki trinko aurkitu ditugu eskuizkribuan: *naraçaçu* (A17: 48), *daracagula* (A17: 96), *eracala* (A25: 46) eta *daracanean* (B17: 46).

<sup>34</sup> Edirayten: ‘edireten, aurkitzen’; cf. *ideraiten* (B3: 59). Cf. OEH, s.v. *ediren*: “En cuanto al sust. verbal, entre los vizcaínos, frente a los más frecuentes *idorote*, *idorotze*, son de destacar las formas *edaraite* e *ideraite* en RS, *idaraite* en Micoleta, Capanaga, Urquiza y Arzadun 38 (todos ellos emplean *idoro*), *idarate* en ConTAV 5.2.11, y *eridaite* en F.J. de Zumarraga”.

<sup>35</sup> *cu laco*: Lazarragak absolutiboarekin erabiltzen du gehienetan *laco* konparatzalea, pertsona-izenordainaren ondotik (*cu laco, ni laco...*); baina badira bi agerraldi genitiboarekin ere: *çure laco* (A16: 37oh), *cure lacooc* (B5: 19).

<sup>36</sup> *lindaric*: Adjektiboak genero femeninoaren marka hartzen du, baita *-ric* morfema eransten zaionean ere. Ikusi *mansaric* (A8: 4, A8: 12, A8: 26, A10: 70), *lindaric* (A17: 50), *enojadadic* (A17: 58) eta *satisfiecharic* (A23: 32).

<sup>37</sup> *duin*: ‘bezain’; hitz honen agerraldi bakarra da eskuizkribuan. *OEHn* adiera honetako ia agerraldi guztiek *msQ9* koak dira.

<sup>38</sup> *ene lecuan*: ‘ene herrixkan’; alegia, ahapaldiko lehen lerroko *munduan*-i kontrajarriaz. Cf. Lcc “aldea, lequa, aldea”. Eskuizkribuan gutxienez zortzi aldiz aurkitu dugu *lecu* esanahi horrekin (AL: 1145v, A7: 61, A17; 52, A23; 69, A23; 75, A23; 82, A23; 84, B25; 23). Beste askotan, jakina, ‘toki’ esanahiarekin.

<sup>39</sup> *jarri çatez partiduan*: ‘jar zaitez harremanetan’; gaztelaniazko *poner en partido* esamoldearen kalkoada. DAuten ez dugu aurkitu, baina CORDEN agerraldi bat aurkitu dugu: “Después de comer: como vieron los mercaderes que aquel mancebo hauia comprado aquella mercaduria: la qual dezia querria lleuar a su tierra: por que no la lleuasse: **pusieron se en partido conel**: & mercaron jela por diez mil florines” (Izengabea, 1493).

Bestalde, testu osoan bi aldiz agertzen da *jarri çatez* (A17: 53, A25: 15) eta beste bi aldiz *çarriz* (A26: 78, A26: 113).

<sup>40</sup> *onezquiero*: ‘dagoeneko’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoen artean, azpimultzo batek ‘jada, berehalako dagoeneko’ balioa du. Erakuslean oinarritutako formak dira.

Nigana çaoçela dirudiçu  
enojadari<sup>42</sup> beti causa baga;  
ascotan egote nax<sup>43</sup> berva baga;  
orain, edola bere, ce nafinçu;<sup>44</sup> 60  
aldi bat,<sup>45</sup> perla lindea, eguin eguiçu  
nigaz, ordu bacox<sup>46</sup> bat cunplidua.<sup>47</sup>  
Çu çara ene beguioen espiriu;  
azquero<sup>48</sup> ceure escuogaz<sup>49</sup> il naguiçu.

Jaunorrec ez dindala<sup>50</sup> ondasunic, 65  
gogoau baldin badot bestegana;

<sup>41</sup> *plazaz edo bestela estalduan*: ‘agerian edo bestela ezkutuan’; deigarria gertatzen da kasu instrumentalean dagoen *plazaz* sintagmaren erabilera, *estalduan* inesibodunaren ondoan.

<sup>42</sup> *enojadari*: Adjektiboak genero femeninoaren marka hartu du. Ikusi gorago A17: 50 lerroko oharra.

<sup>43</sup> *egote nax*: -n galdu du, testuinguru fonetikoarenengatik (n- hurrengo silaban). Bestalde, testu zaharrenetan jokabide sintetikoa duten aditzak biziki nekez agertuko zaizkigu perifrastikoki jokaturik. Gainera, perifrastikoki erabiltzen direlarik, ñabardura aspektual berezi baten ekartzeko da. *Egon* aditza trinkoki erabilia da burutugabetasunaren adierazteko XVI. mendeko testu guzietan. Behin baizik ez zaigu agertzen perifrastikoki jokaturik, Lazarragaren adibide honetan hain zuzen: *ascotan egote nax berva baga*. Forma horrek maiztasuna adierazten du.

<sup>44</sup> *ce nafinçu*: ‘ez nazazu ipini (berba gabe)’; *ifini* aditzaren NOR-NORK agintera trinkoa; halakoei buruz ikusi A17: 44 bertso-lerroko oharra.

<sup>45</sup> *aldi bat*: ‘une bat, denbora bat, instant bat’; ikusi A17: 48 bertso-lerroko oharra.

<sup>46</sup> *bacox*: ‘bakar’; hiru aldiz aurkitu dugu testuan <-x> grafia soinu afrikatua (-tx) adierazteko: *gax* (AL: 1142v), *bacox* (A17: 62, A25: 39).

<sup>47</sup> *cunplidua*: Ordubete baino gehiago, alegia.

<sup>48</sup> *azquero*: ‘beraz’; autoreak *gero* adberbioan oinarriturik erabiltzen dituen egituren artean, kasu hau berezi xamarra da: ez dirudi ez denborazko ez causazko ñabardurarak adierazten duenik. Azalpenezko kausal izatekotan, gainera, bakarra litzateke -n *guero* edo -n *azquero* egitura erabiltzen ez duena. Hortaz, *azquero* hutsa duen perpaus hau ondoriozko perpaus gisa hobeki ulertzen dela iruditzen zaigu.

<sup>49</sup> *escuogaz*: ‘esku hauekin/horiekin’; eskuizkribuan bitan aurkitu dugu -ogaz soziatibo plurala: *escuogaz* (A17: 64) eta *damaogaz* (B2: 10); eta lau aldiz -egaz soziatibo plurala: *çuegaz* (A10: 27), *oegaz* (A26: 87), *oriegaz* (B7: 33) eta *guiçonegaz* (B18: 128). Plurala da orobat *baçugaz*: *urregorrizco letra baçugaz / egoan escreviduric* (A1: 11-12), *Egun batean leucala / beste baçugaz cabildu, / aen artera içan ninçan / exil-exilic coladu* (B14: 45-48), *baçugaz consultaduric* (B23: 22). Horien ondoan, bada -ocaz/-ocaç ere: *delicaduocaz* (AL: 1138r), *berbaocaç* (AL: 1151v), *beguiocaz* (AL: 1152v), *biciocaz* (AL: 1154v); eta -equin: *oequin* (A11: 2), *matalotequin* (B30: 69).

<sup>50</sup> *ez dindala*: ‘eman ez diezadala’; \*-in- erro zaharreko adizkia. Jusibozko forma hauek *ez* ezeztapenezko partikularekin baizik ez daitezke ager, *b-* aurritzidun formek beti ze partikula hartzen dutelarik: *Bada bere, Jaunac ez nafinela, / servidu bada, ni pauso laz artan* (B4: 4) vs *Oy oni luce derechanori / ce bego ene ustean* (A24: 120). Ikusi halaber *Hora il daguien mendian Guiçona idoro ez didila* (Garibai 139-52).

orrein cruel içaten<sup>51</sup> enegana  
nic merescidu ez dot çureganic.  
Secula nic ez oy dot beste lanic,  
onela iragaiten<sup>52</sup> jat gau-egunac;  
ain dira ene beguioc elçaydunac,<sup>53</sup>  
çugana laster doaz eneganic.

70

<1186v> Beti beguira nago çuregana,  
ezin açartu<sup>54</sup> nax ecer esaten;  
contentu-descontentuac puntu baten<sup>55</sup>  
laster etorten dira enegana.  
  
Badoçu ceure gogoa bestegana,  
alferric engañadu ce naguiçu,  
ceure gogoco barria esan eguiçu,  
icasi nic daguidan çugan dana.

75

80

<sup>51</sup> *içaten*: *merezidu* aditzarekin -*tzea* aditz-izena ohikoagoa da (cf. *oy eztauco meresciduric / niganic ancietea*, A24: 133-134). Litekeena da bertsot-lerroetan izandako aldaketen ondoren nahi gabe geratua izatea hemengo -*ten* forma (*içaten*).

<sup>52</sup> *iragaiten*: Aditz honen partizipioa beti (bi aldiz) da *irago* eskuizkribuan (AL: 1153r eta A14: 97); aditz-izena beti (lau aldiz) da *iragaite-*; *iragaitez* (AL: 1146r), *iragaiten* (A2: 19, A17: 70, B17: 44); baina testuko aditz trinko bakarrak kontsonanteen metatesia dauka: *naygaran* (B30: 37). *OEHko* sarrera (s.v. *igaro*) interesgarria da, hala *igaro / irago* alternantziari dagokionean, nola aditz trinkoari dagokionean: “La forma *igaro* es casi general en guipuzcoano, y en vizcaíno es prácticamente la única documentada hasta finales del s. XVII y frecuente desde entonces. ***Irago (documentado ya en Landuccio y Nicolás de Zubia)***, es la única variante que encontramos en el s. XVIII (*msOñ* (235r), Arzadun, Barrutia, Urquiza, Gamiz (206)); en el XIX es bastante frecuente: Moguel (tbn. *igaro*), fray Bartolomé, Astarloa, Arrese Beitia (tbn. un ej. de *iragotu* (*AmaE* 449)), Iturzaeta; en el s. XX sólo se encuentra en Lauxeta (AB 58); pero cf. *infra* IGAROKO. Fuera del vizcaíno, emplean *irago* Larramendi (*Cor* 300), Xenpelar (191), F. Goñi y E. Arrese. **Se encuentran formas fuertes en los Refranes de Garibay y Bertso Bizkaitarrak (en ambos *aigara*), y en Refranes y Sentencias (digaran (231), con suf. de relativo)**; en el s. XX algunos autores (Lauxeta (BBa 76), L. Jauregi (*Biozk* 4), Gaztelu (*MusIx* 83)) recrean formas fuertes como *digaro*. El sust. vbal. *igaraite-* lo emplea Capanaga (part. *igaro*), e *iragaite-* Urquiza (tbn. *iragote-* (57); part. *irago*); hay *igaroite-* en *CatLlo* (96) y *CatBus* (57), siendo en ambos *igaro* el part. En *DFrec* hay 156 ejs. de *igaro*”.

<sup>53</sup> *elçaydunac*: ‘heltzeko edo atxikitzeko gaitasuna duten (begiak)’, edo ‘(begi) harrapariak’, edo halako zerbaite bide dira. Hapaxa da eta ez dakigu ziur zer esan nahi duen, baina *heldu* aditzetik eratorria bide da; cf. “**Eltzaiera** (B-t̄s), acogida, recibimiento : *accueil, réception*” (Azkue 1905-1906, s.v.).

<sup>54</sup> açartu: ‘ausartu’.

<sup>55</sup> *puntu baten*: ‘une batean, berehala’; cf. *OEH*, s.v. *puntu*: “PUNTU BATEAN. Al instante” eta, gorago, “Atsegīn-kontentuak *puntu batekoak* [...] izango zaizkitzu. Arr May 88”. Cf., orobat, *DAut*, s.v. *punto*: “Al *punto*. Modo adverb. que vale prontamente, sin la menor dilación”.

Pareric eztoçuna al<sup>56</sup> daquiçu,  
guztioen gañetico larrosea,  
eguzqui ederraren esposea;<sup>57</sup>  
agaiti çuc onela narabilçu.  
Cundicio cureloc nai bequiçu<sup>58</sup>  
onezquero<sup>59</sup> ceurganic quençaita;<sup>60</sup>  
beraro<sup>61</sup> ar naçaçu, traídorea,  
edo bestela noxbait<sup>62</sup> il naguiçu.

85

Donzellea, çuc banoçu sentietan,<sup>63</sup>  
senticen çaitut, bay, ceurori bere;

90

<sup>56</sup> *al*: ‘dirudienez, ziur aski’; *al* honek probabilitate handia adierazten du.

<sup>57</sup> *eguzqui ederraren esposea*: Erromatar mitologian, betiere bertsio batzuetan, Diana jainkosa zen eguzkiaren emaztea, eta ilargiarekin identifikatzen zen (cf. 26. lerroko *ceruco irargui curia*).

<sup>58</sup> *Cundicio cureloc nai bequiçu / onezquero ceurganic quençaita*: ‘nahi bekizkizu/itzazu (ezarri dizkidazun) baldintza krudel horiek berehala zeugandik kendu’. Mendebaldeko eta erdialdeko testu zaharretan *nahi izan* aditz-lokuzioak balentzia berezia du: experimentatzalea (edo subjektua) datiboa du eta estimulua absolutiboa. Cf. *Verba orri nay ez daquiola valia* (Olasoko kantua, TAV 88-90); *Iaun goicoari nai eztaquiola* (Kapanaga 129). Orain arte ezagutzen genituen testuetan balentzia berezi hori jusibozko eta botibozko perpausetan baizik ez bazen lekukotua, Lazarragak, bi ingurune horiez gain, indikatiboan ere erabiltzen du, iragan ez-burutuan hain zuzen: ***nay equion nic aren contra / oy ez neducan quexaric; / ez eben gura nic aren causaz / eguin neguijan negarric*** (B23: 31-34). Cf. halaber: *suplicaetan nachaçu, Sirena ene / laztana, nai daquiçula gaur gabean / ceure aposentuko bentanara joaten* (AL: 1140r), *Jaicoari nai eç daquiola çu joan da ni eben guera nadila* (AL: 1151v), *Nachaçu suplicaetan nay daquiçula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguite* (AL: 1152r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequielo lagundu* (AL: 1154v), *Enparaetan bardin bajaçu / beste çaguita çorrocic, / onen bioçau nay bequiçu / efini señaladuric* (B23: 101-104). Beste inguruneetan Lazarragak ere \*edun hobesten du: *Bada bere, nai ez neuque, / mundu guztiagaitirren, / çuregaz ene secretoa / descubri lidin bapere* (AL: 1144v), *Bioçau jo deustaçu anech flechaz, / nigaz conturic eguin nay ez doçu* (A17: 3-4).

<sup>59</sup> *onezquero*: ‘berehala’; halakoei buruz ikusi A17: 54 bertso-lerroko oharra.

<sup>60</sup> *quençaita*: ‘kentzea’.

<sup>61</sup> *beraro*: ‘bigunki, leunki’; cf. *OEH*, s.v.: “1 **beraro, beraaro** (Lar). 1. ‘Blandamente’ Lar. 2. ‘(V-och), cómodamente’ A”.

<sup>62</sup> *noxbait*: ‘behingoz’; dirudienez, ‘noizbait’ (*noxbait, nobayt, noxpait*) bi zentzurekin erabiltzen da Lazarragaren eskuzkribuan: ‘behingoz’ (hiru aldiz) eta ‘egunen batean’ (behin, A8: 6). ‘Behingoz’ zentzia dutenetan (AL: 1146r, A17: 88 eta B27: 15) aginterazko aditz-formak dituzte beti ondotik, eta horietako batean (*noxbait-noxbait*, AL: 1146r) errepikapen indargarria (halakoetarako cf. Agirre Asteasukoaren adibideak, 1808 ingurukoak, *apud OEH*: “*Idiki itzatzu bada noizbait-noizbait, kristaua, zure begiak*. AA III 349. ***Noizbait, noizbait*** asitzera noa [...] kristau aziai doctrina azaltzen. Ib. 399”).

<sup>63</sup> *banoçu sentietan*: ‘sentitzen banauzu’.

çuc banaçauçu<sup>64</sup> ni, bay nic çu bere;  
 çuc ni leguez, nic çu çaut adietan.<sup>65</sup>  
 Ce gabilçaden beti puntueta,<sup>66</sup>  
 daguigun conbersadu alcargaz;<sup>67</sup>  
 çu nigaz confesadu, ni çuregaz,<sup>68</sup>  
 alcar daraçagula besoetan.<sup>69</sup>

95

Nic negar daguidanean,<sup>70</sup> çu çaoz<sup>71</sup> barrez;  
 nic barre daguidanean, çu tristeric.  
 Banago çure aldean jasarriric,<sup>72</sup>  
 içulten dozu buruoy grabedadez;<sup>73</sup>  
 berbaric badeguiçut<sup>74</sup> poridadez,<sup>75</sup>

100

<1187r>

<sup>64</sup> *banaçauçu*: ‘banazaguzu, ezagutzen banauzu’; *ezagutu* aditzaren NOR-NORK forma trinkoa.

<sup>65</sup> *çaut adietan*: ‘aditzen zaitut, ulertzen zaitut’; *çaut* pluralgile gabeko laguntzailea.

<sup>66</sup> *Ce gabilçaden beti puntueta*: ‘ez gaitezen ibili beti eztabaidan’; *ibili* aditzaren jusibo trinkoa da; *-de-* morfema pluralgileari buruz, ikusi A17: 9 bertso-lerroko oharra.

*Puntueta ibili* esamoldeari dagokionean, cf. gazi. *andar en puntos* ‘andar en diferencias’ (DRAE, s.v. *punto*).

<sup>67</sup> *alcargaz*: Bitan agertzen zaigu testuan *elkar* bihurkaria soziatibozko *-gaz* postposizioarekin: batean *-e-* epentetikoarekin (*alcarregaz* A13: 15) eta beste batean *-e-* epentetikorik gabe (*alcargaz* A17: 94).

<sup>68</sup> *çuregaz*: Soziatiboen *-gaz* kasu-markarekin, hala genitiboa (*-regaz*) nola gabe (*-gaz*) erabiltzen dira pertsona-izenordainak eskuizkribuan: *neuregaz* (A14: 25) / *nigaz (passim)* / *neurgaz* (A16: 19); *aregaz* (A16: 15, A19: 24) / *agaz (passim)*; *beregaz* (AL: 1143v, AL: 1144v) / *beragaz* (B22: 61); *çuregaz* (AL: 1144v, A2: 2oh, A7: 15, A16: 20, A17: 95) / *çugaz* (AL: 1141r, A2: 2, A7: 26, A16: 9, A26: 134, B18: 143); *gugaz* (A1: 1).

<sup>69</sup> *alcar daraçagula besoetan*: ‘elkarren besoetan eratzanik (besarkaturik) gaudelarik’; *eratzan* aditzaren forma trinkoa da. Gorago (A17: 48) lerroan bildu dira halako forma guztiak, baina adierari dagokionean, B17: 46koa da honen antzekoena.

Bestalde, testu osoan *-la* atzikzia erabiltzen da moduzko perpausetan, perpaus nagusien osagarri zirkunstantzial gisa. Cf. *Doridoc eucan esporcu guzia galduric, ecin çan lurrera, utra negar asco bere beguietati eşarten ebela* (AL: 1152v); *Nic laztan baçaitut, agaz beragaz / pagatu bear doçu ceure çorra, / tenplacen doçula vioz gogorra / Amore jaunaren precetuagaz* (B22: 63).

<sup>70</sup> *negar daguidanean*: ‘negar egiten dudanean’.

<sup>71</sup> *çaoz*: ‘zagoz, zaude’.

<sup>72</sup> *jasarriric*: ‘jesarririk, eseririk’; *jasarri* aditzaren esanahiari dagokionean, badirudi hala ‘eseri’ (A17: 99, A26: 149, B14: 49) nola ‘jarri’ (A10: 7, B5: 13, B17: 63) esan nahi duela eskuizkribuan, testuinguruaren arabera.

<sup>73</sup> *grabedadez*: ‘seriotasunez’.

<sup>74</sup> *berbaric badeguiçut*: ‘berbarik, hitzik egiten badizut’.

<sup>75</sup> *poridadez*: ‘argi eta garbi, itzulinguruk gabe’; gaztelaniaz *poridad / puridad* hitzak bi adiera ditu: ‘sekretuki, isilpean’ eta ‘argi eta garbi, itzulinguruk gabe’; ez daude kontrajarrita, baina badirudi oraingo honetan bigarrenari dagokiola; beste adierarako ik. A7: 71.

gogorric jarten cara bereala.  
Ascotan, cu bacina pedernala,  
edo ni sufriceco baninz achez!<sup>76</sup>

Nesquea cara cu ta ni guiçona; çuc leguez ditut nic narru çuriac; <sup>77</sup> çuc bere bay ni[c] <sup>78</sup> leguez araguiac; çuc leguez nic bere dot gorpuz ona; narabilçuna leguez <sup>79</sup> orra-oná, axeac oy darabil beletea.	105
Çarean esadaçu, donzellea, castaz benturaetan <sup>80</sup> amazona. <sup>81</sup>	110

<sup>76</sup> *Ascotan, cu bacina pedernala, / edo ni sufriceco baninz achez!:* Esaldi botiboak dira, A17: 119-120 bertso-lerroetakoa bezala: ‘Askotan, oxala zu bazina pedernala bezain gogorra, eta ni pedernalaren kolpea sufritzeko haitzez(koa) banintz!’, A17: 118 bertso-leroarekin batera ulertu dugu esaldi hau, mutilak neskaren erdeinua eta krudeltasuna maiteko balitu bezala.

*achez:* ‘haitzezkoa’; -z / -zko baliokidetasunaren beste adibide bat aurkitu dugu, Oihenartena: *Eztoela latsara, gatzez duena oinzolara. / N'aillé à laver la lessive qui a les pieds faits de sel / Que no vaya al lavadero quien de sal tiene la planta del pie.* Hain zuzen horren ondotik, atsotitz horren baliokide edo, Isastiren 18 ematen dute Oihenarten testuaren paratzaileek: *Buztana lastozkoa duena suaren beldur.* Lazarragaren testuan bertan honen kideko izan litekeen bat gutxienez bada: *baba-zigorrez saldea* (A24: 64).

<sup>77</sup> *narru çuriac:* Irudi luke *narru çuriac* adierazpidea nobleen larruaren kolorearekin lotuta dagoela; nobleek ez zuten lanik egiten eta, beraz, eguzkiak ez zuen haien larruazala belzten. Hortik sortu bide zen gaztelaniazko *sangre azul* esapidea, gero beste hizkuntza batzuetara hedatu dena; izan ere, larria zuri-zuria izanik, zainak erraz ikusten baitira, halako eite urdinxa hartuz.

Testuan beste bi aldiz agertzen da *narru çuriac* sintagma, baina ez dago garbi esapide berberari dagozkion: *a[y] ay ay, ene narru çuri gazteac!* (B17: 57) eta *Silla onetan baegoan / sei eder bat jarriric; / narru çuriac estalceraco / ez eben bestiduraric* (B23: 61-64).

Cf. halaber OEHn LARRU-ZURI, L.-XURI, LARXURI, s.v. *larru*: “De piel blanca. *Ugatz gogor, lar-xuri, / leunez balus' iduri.* ‘Ses seins fermes, à la peau blanche’. O Po 37. **Jaun larru-xuriak. Balad 133. Jaun larru zuria. Bordel 95.** *Bilho holli, larri xuri eta begi ñabarra* [umen düzü agota]. ChantP 174. *Bata larruzuri, illegorri, bestea beltxeran.* Or QA 45. De raza blanca. *Larru zurien ostatuetan.* Larz Iru 64. “*Haritz larru zuria, chêne à écorce blanche*” H.”

<sup>78</sup> *ni[c]:* Ergatibo-faltari dagokionean, cf. *inor[c]* (AL: 1145r, A28: 147), *ni[c]* (A7: 38, A17: 107, B3: 34), *neur[c]* (A9: 19), eta *ar[c]* Sasiolakoarenan (B30: 86).

<sup>79</sup> *narabilçuna leguez:* ‘narabilzun legez, narabilzun bezala’; behin baino gehiagotan dago eskuizkribuan “aditza + -na leguez” (AL: 1142r, 1151v, A17: 109, B5: 27); baina badago “aditza + -n leguez” ere (B4: 1, B18: 74).

<sup>80</sup> *benturaetan:* ‘menturaz, beharbada’.

<sup>81</sup> *amazona:* Amazonek emakume gerlarien herria osatzen zuten, greziar mitologiaren arabera. Lazarragak zalantzarak gabe ezagutzen zuen *Crónica Troyana* (Lisboa, 1490) liburuan, hiru titulutan agertzen dira (36., 37. eta 80. tituluetan); orobat ezaguna bide zuen *Orlando Furioso* (1549) gaztelaniaratu ere

Amorea da onaco ez daquit cer bat,  
etorten da araco eztaquit nundi;  
eztaquit nola viocean sarçaiten da<sup>82</sup>  
çuc aguin daguiçuna eguiteco.

115

Dudacen badoçu, ene laztana,  
asco<sup>83</sup> da dichoso desdichaetan.<sup>84</sup>  
Nic ayn on baneu bozau,<sup>85</sup> cantaceco  
padescietan dodan doloreac!

120

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

1 Ahapaldiak zenbaki arabiarrez zenbatuta daude eskuizkribuan, ahapaldien ezkerreko alboan, “1”etik “15”erako segida bakarrean. Zortzigarren ahapaldia ez dago zenbakitura, zalantzariak gabe lehenago lekua hartua zuelako behetik gora idatzita dagoenak (*yo la dixe: bida mía, que yo descortés sería en torvar*, A15: 25 eta A15: 29-30ekoaren kopia, hain zuzen). 4 eguiñ] ondoren letra bat tatxaturik edo mantxa batez estalirik. 7 amoreac] amoreorren legueac idatzi zuen lehenengo eskuak. Beste tinta batek zuzendu du, -ac idatziz -or-en gainean eta -ren tatxatuz; legueac ezabatu edo tatxatu gabe geratu da ondoren. || cer deusun] lerroartean beste tinta batez idatzita; ondoren *cerdaben* lerroartean ere idatzita eta marra batez tatxatuta, eta, gero, *dau* tatxatuta. || çuri] lerroartean beste tinta batez idatzita. Azken hiru oharrutan ikusitakoak laburbilduz, badirudi hauxe izan dela lerro honetako testuaren bilakaera: (1) *amoreorren legueac dau aguinçen*; (2) *amoreorren legueac cer daben aguinçen*; (3) *amoreac cer deusun çuri aguinçen* (*legueac* ezabatzea ahazturik). 19 apa] ondoren -cho tatxaturik. 20 bacusu ene fedea firmea dana] lerroartean beste tinta eta letrakera batez idatzita. Lerroan *ene amorioau baquiçu garbia dana* tatxaturik. 29 çuregana] esk. *curegana*. 31 esperançaz] esk. *esperanças*. 33 Espantaduric] Hemendik beherakoa (5-15 ahapaldiak) beste idatzaldi batean beste luma batez erantsi da. 39 larrosa maiacecoa, nola doçu] lerroaren ezker ertzean gehiturik. Lerroan *dozella noblea* [...] *fama beti doçu*

---

agertzen dira; baina are gai topikoa zela ere esan daiteke XVI. mendeko literaturan orohar, eta bereziki zalduntza-liburuetan (cf. Marín Pina 1989).

<sup>82</sup> *sarçaiten da*: ‘sartzen da’.

<sup>83</sup> *asco*: ‘jende asko’ hain zuzen.

<sup>84</sup> *dichoso desdichaetan*: esaldi hau A17: 103-104 bertso-lerroekin batera ulertu dugu, neskaren erdeinua maiteko balu bezala. Cf. ap. CORDE: “Pues soy el príncipe de todo hombre atribulado, aunquequieres, no puedes escapar de mi señorío, porque si tú te quexas ser desdichado en dichas, yo me precio ser **dichoso en desdichas**” (Fr. Antonio de Guevara, 1528, *Libro áureo de Marco Aurelio*).

<sup>85</sup> *Nic ayn on baneu bozau*: ‘Oxala nik ahots ona banu!'; esaldi botiboa da, A17: 103 eta A17: 104 bezala.

tatxaturik; bestalde, *fama*-ren gainean, lerroartean, beste hitz bat (agian *capitana*). **42** deusut] *deusat* ere irakur daiteke, bigarren -*u*- goitik itxia delako eta aurreko -*u*-aren oso ezberdina. Halere, itxitura — halakoa balitz— oso ahula da, tinta gutxikoa-edo. **46** didin] -*n* tatxaturik edo mantxa batek estalirik. **49** Edirayten] -*y*- zerbaiten gainean idatzita. || eztau] aurrean *ynori* tatxaturik. || Edirayten eztau inorc munduan] lerro osoa lerroartean idatzita dago. Lerroan, tatxaturik: *munduan ideraiten eztau inorc*. Lehenago beste hitzordena batean idatzita zegoen: *munduan ideraiten inorc eztau*; baina *inorc* hori tatxatu eta esaldiaren amaieran idatzi du. **64** naguiçu] *n*-ren azpian *g*- dagoela dirudi. **67** orrein] aurretik *ez* tatxaturik. || içaten] *içan* idatzi du lehenago. -*te*- azpiko -*n* baten gainean idatzita, eta hitzbukaerako -*n* lerroartean tartekatuta. || orrein cruel içaten enegana / nic merescidu ez dot çureganic] bi lerroen artean tatxaturik: *Eguin gura badoçu or esanic*. Beraz, badirudi hauxe izan dela lerro hauetako testuaren bilakaera: (1) *ez orrein cruel içan enegana / eguin gura badoçu or esanic*; (2) *orrein cruel içaten enegana / nic merescidu ez dot çureganic*. **69** Secula] -*a* mantxa batez estalita. **77** Badoçu] -*doçu*-ren azpian beste zerbait (agian -*çaoz*). **79** eguiçu] -*ç*- letraren azpian beste zerbait (agian -*g*-). **80** icasi] esk. *içası*. **89** banoçu] *banauçu* idatzi du lehenago. -*o*- letra -*a*- baten gainean idatzita eta ondoren -*u*- tatxatuta. **92** çuc ni] esk. *çuc nic*. Lehenengo idatzaldian *çu nic* idatzi du, gero *çu-ri* -*c* erantsi dio, eta *nic-en* -*c* ezabatzea ahaztu zaio. **94** conbersadu] aurrean *a*, marra bertikal batez tatxaturik. *c*-ren formagatik, irudi luke *alcargaz* idazten hasi zela eta berehala zuzendu zuela. **97** çaoz] esk. *caoz*. **103** Ascotan] esk. *ascota*; *t* letra *l* baten gainean idatzi da, antza. **107** nic] esk. *ni*. **110** axeac oy darabil beletea] *niri emayteraco batallea* marra batez tatxaturik, behean. **114** etorten da araco eztaquit nundi] lerroartean idatzita. Lerroan *nundi edo nola eztaquit etorte[n]* da marra batez tatxaturik. **115** sarçaiten] esk. *sarçaite*. **116** çuc] hemendik poemaren amaierarakoa hirugarren idatzaldian idatzi da, beste luma batez. Azken hiru lerroak marra batez bereiziriko bi zutabetan idatzi dira (A17: 118 ezkerrean eta A17: 119-120 eskuinean), beheko erdarazko testua (*todo esto no es nada ... que las haze madurar*) jadanik hortxe zegoelako.

#### Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A17 – Cegaiti beguiratu gura ez doçu...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen mende](#) dago

## A18

### *Historia de la bienaventurada Magdalena*

Eskuizkribuan honen aurretik dagoen euskarazko poemaren estrofa-egitura bera du Maria Magdalenaren inguruko gaztelaniazko poema honek: zortzi lerro dodekasilabo (baten bat endekasilaboa eta baten bat hamahiru silabakoa ere bada), ABBAACCA errimarekin, gaztelaniazko metrikan *copla de arte mayor* edo *octava castellana* esaten zaiona.

Izenburua gardena da: Maria Magdalenaren istorioa kontatzen da 3-9 estrofetan; aurretik (1-2 estrofak) sarrera gisakoa baino ez dago, eta ondoren penitentziarako deia kristau pekatariantzat (10-11 estrofak) eta onbideratzeko laguntza-eskaria beretzat (12. estrofa).

Biblian bertan eta Jacobus de Voragineren *Legenda aurea*-tik datorren tradizioan oinarriturikoa da Maria Magdalenaren irudia; tradizio horrek lekukotasun asko utzi ditu espainiar literaturan; denetan aipagarriena Pedro Malón de Chaideren 1588ko *La conversión de la Magdalena* da, baina Magdalenaren inguruko lanak idatzi zituzten baita Pedro de Chaves, Lope de Vega eta Diego Mendes Quintelak ere, eta poema laburragoak (Lazarragaren antzera) Ambrosio Montesinok, Antonio Ferreirak edo Fray Luis de Leónek (ikusi Carneiro 2002: 196).

Dena den, literatur tradizioaz gain, beste arrazoi bi ere izan zitzakeen Lazarragak Maria Magdalenaren ohoretan poema bat idazteko eta Magdalena pekatari gisa baino gehiago andre eredugarri gisa aurkezteko. Lehenik, Magdalenaren adbokazioko bi leku dira Barrundiako eskualdean, eta hortaz ospakizun bereziren bat egin bide zen horietan, hain zuzen Joan Perez Lazarragaren haurtzaro eta gaztaroko bi herrietan: Magdalenaren ermita dago Ozaetan, eta San Lazaro eta Magdalenaren erromesen ospitala Erdoñan. Bigarrenik, eskuizkribuko beste poema baten arabera (A10 “Canción y copla echa por Laçarraga en servicio de Madalena”), *Magdalena* izeneko neska bat maite izan zuen idazleak.

<1187v> Historia de la bienaventurada Magdalena, para cantar el día de su santa fiesta.  
Conpuesta por Laçarraga.

*Comiença*

O Christo omnipotente, que quisiste

alumbrar a esta muguer<sup>1</sup> de grascia pura,  
ofendiendo contra ti muy sin mesura,  
a la qual de sus pecados la absolviste,  
dame<sup>2</sup> tanbién a mí, que me heziste                        5  
a la tu semejança, como a ella,  
para contar la vida d'esta estrella,  
que para espejo de penitencia la criaste.<sup>3</sup>

Que si yo de la tu gracia participo,  
podré aquesto muy bien yo declarallo.                        10  
Suplícote me des,<sup>4</sup> porque no hallo  
por dónde comenzar sin este ito;<sup>5</sup>  
yo quiero comenzar poco a poquito.  
Despierta, tú que duermes descuidado,  
pon atento el coraçón y sosegado,                                15  
no estés con el pecado echo bobito.

*La hobra*

<1188r> La Magdalena fue muguer mundana,  
hija de reyes fue de gran linage,  
andaba muy galana en el su trage,  
hermosa a marabilla y muy profana.                        20  
Siempre se dio al deleyte y bida umana,  
y plazeres d'este mundo conservaba,  
mientras su mocedad d'esto trataba,  
aunque agora la virtud de aquésta mana.

<sup>1</sup> *muguer*: Gaurko *mujer* erabili beharrean, beherago ere (A18: 17) forma berean dago, <-gue-> grafiarekin. CORDEn sei agerraldi daude grafia horrekin, urte-tarte zabal batean: 1285, 1500, 1582, 1622, 1655 eta 1741.

<sup>2</sup> *dame*: Objektu zuzena falta zaio, baina “grascia (pura)” ulertu behar da.

<sup>3</sup> *criaste*: ‘creaste’.

<sup>4</sup> *me des*: *me la des* beharko luke, hemen ere objektu zuzena falta baita, “la gracia” hain zuzen.

<sup>5</sup> *ito*: Gaurko *hito* ‘mugarria’.

Los sus antepasados descendieron de Magdalo, <sup>6</sup> un castillo ansí llamado, el qual la Magdalena ubo heredado después que su padre y madre fenescieron. Y ansí este sobrenombe le puesieron, <sup>7</sup> aunque María de antes se nombraba, y María Magdalena se llamaba, y otros la Enamorada le dixeron.	25  30  35  40
Mucho tiempo de su vida ansí pasaba sólo en los pasatiempos mundanales, haciendo los pecados muy mortales; <sup>8</sup> de otra cosa jamás se le acordaba. <sup>9</sup> Un día a dicha <sup>10</sup> oyó cómo andaba Jesús por allí cerca predicando y a los muy pecadores enseñando, a los quales con paciencia los tomaba.	35  40

<1188v> Y ella reconosció ser pecadora,

<sup>6</sup> *Magdalo*: *Magdalena* izenak ‘Magdalatarra’ esan nahi omen du. Magdala, Bibliaren arabera, Galileako hiri bat zen. Talmud-en ere bi Magdala aipatzen dira. Josueren liburuaren arabera (19: 34), hiri gotortua zen, eta badirudi hiriaren izenak berak ‘dorre’ edo ‘gotorleku’ esan nahi zuela. Beharbada, horregatik hiria izatetik gaztelu izatera pasatzea. Magdalo gazteluaren tradizioaren oinarria, antza denez, Jacobus de Voragine-ren *Legenda aurea* famatuan (c. 1275) dago: “Maria Magdalena a Magdalo castro cognominata clarissimis est orta natalibus, utpote ex regia stirpe descendantibus” (*apud* Graesse 1801: 408). Lan berean aipatzen da Magdalenak gaztelua heredatu zuelakoa ere.

Euskarazko testuetan Magdaloko gazteluaren aipamena gutxienez Lizarraga Elkanokoak (“eta partiturik haziendak, ta arri sortaturik kastelu deitzen zena Magdalo, ordik deitu omen zute Magdalena”) eta Agirre Asteasukoak (“eta Magdalenak beste ondasunen artean artu zuan Magdalako etxe, edo gaztelua” eta “Aspertu zan senideen atelekaz, eta joan zan Magdalako gaztelura”) dakarte.

<sup>7</sup> *puesieron*: CORDEn badira forma honen lau lekukotasun, denak 1499a baino lehen.

<sup>8</sup> *muy mortales*: ‘oso larriak’.

<sup>9</sup> *de otra cosa jamás se le acordaba*: ‘no se acordaba de otra cosa, no pensaba en otra cosa’.

<sup>10</sup> *a dicha*: ‘halabeharrez, kasualitatez’; DAutek ez dakar lokuzio hau, baina bai *por dicha*, esanahi berbera duena. CORDEn, aldiz, hainbat adibide daude, hala nola “Buen escudero, **a dicha**, por esse camino donde venís ¿auéys topado hasta diez caualleros en compañía de dos gigantes?” (Jerónimo Fernández, 1547, *Belianís de Grecia*).

y tanbién en el pecado aber herrado,  
y cómo con ello a Dios le abía ennojado  
cometiendo dos mill vicios cada hora.

Estando, pues, en esto a deshora, 45  
le bino un pensamiento saludable,  
que fue de ir al Señor y adorarle,  
y ansí luego lo puso muy por hobra.

Estas palabras dixo muy llorando:  
“Yo quiero ir al Señor, qu’es piadoso, 50  
y andaré siempre tras él muy con reposo;  
y ansí la voluntad le iré cobrando;  
y aquellos dulces pies le iré besando;  
y untar le he con ungüento muy preciado,  
que los tiene de polvo y tierra mal tratado; 55  
y me perdonará porqu’es muy blando”.

Aquel día, pues, Jesús fue convidado  
de un hombre que Simón por nombre abía,  
donde con devoción fuera María,  
y los pies con los cabellos le a limpiado; 60  
y allí con contrición se a demandado  
perdón de sus pecados al Cordero,  
el qual luego sintió ser berdadero  
el dolor con que el pecado a confesado.  
  
<1189r>

Jesús muy mansamente la otorgara 65  
el perdón que Madalena allí pedía,  
y con voz muy amorosa le dezía:  
“Tu fe te salvará, qu’es limpia y clara”.  
Y ansí después a Christo le servía,  
y la su sagrada madre aconpañaba, 70

y el ebangelo siempre predicaba,  
y a muchos a la fe los conbertía.

La penitencia hizo qual ninguna  
jamás después de Christo le a egscedido;  
al mundo y sus deleytes a bencido,  
más alta aún a subido que la luna.

Esta fue para nosotros la laguna  
y espejo d'esperança muy subida.<sup>11</sup>  
Tomemos, pues, exemplo d'esta linda,  
que en esto no ay igual a ella ninguna.

75

80

<1189v> Tomemos esperança, pecadores,  
que Dios perdonará nuestros pecados;  
hagamos penitencia los culpados,  
que así nos oyrá nuestros clamores.

Abrid, abrid los buestros corações,  
linpiad vuestras conciencias confesando;  
desechad todo temor, id confiando,  
que duecho<sup>12</sup> está a sanar nuestros dolores.

85

Y tú, que fuiste digna y meresciste  
aber gracia de Dios tan sublimada,  
suplícole que seas mi abogada  
y me enseñes a morir como moriste.  
Dame un poco d'esa gracia que tubiste,  
para que pueda yo mejor guiarne  
y salir del mi pecado, y alinpiarne,<sup>13</sup>

90

95

<sup>11</sup> *subida*: Cf. *DAut*, s.v. *subir*: “Metaphóricamente vale crecer en dignidad, lograr mayor empleo, aumentar el caudal, o la hacienda”.

<sup>12</sup> *duecho*: ‘prest’; *ducho-ren* aldaera da. *DAutek* dio adjektibo zaharkitua dela.

<sup>13</sup> *alinpiarne*: ‘garbitu’; cf. *DAut*, s.v. *alimpiar*: “Lo mismo que *Limpiar*. Los antiguos escribieron y pronunciaron así esta voz; pero oy no se usa sino entre gente rústica”.

según que<sup>14</sup> tú, señora, d’él saliste.

Fin

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Ahapaldiak zenbakituta daude eskuizkribuan, ahapaldien ezkerreko alboan, “1”etik “12”rako segida bakarrean, baina lehenengo bederatziak zenbaki erromatarrez (zortzigarrena beste zerbaiten gainean) eta azken hiruak zenbaki arabiarrez. || Laçarraga] esk. LÇRGA monograma. **5** me] lerroartean tartekatua. **22** y placeres deste mundo] lerroartean idatzita. Lerroan *la ley de los gentiles* tatxaturik. **28** su] lerroartean tartekatua. || fenescieron] -en- letren azpian -all-: *fallescieron* > *fenescieron* zuzendua, beraz. **30** aunque] *aun-* lerroaren ezkerrean erantsita. Lerroan *por* tatxaturik: *por que* > *aun que* zuzendua, beraz. **40** a] aurrean y *como* tatxaturik. Berdin etik berdinerako jauzi bat izan liteke, horrela hasten baita hurrengo ahapaldiko hirugarren bertso-lerroa. || *paciencia*] -a mantxa batek estalirik. || los] orbandua (zuzenketa ala mantxa?). **47** Señor] esk. senor. **50** Señor] esk. senor. **51** reposo] esk. *repoiso*. **55** tratado] -tado ez da ondo irakurtzen. **56** y] aurrean y *ansi* tatxaturik. **57** pues] ez da ondo irakurtzen, beste zerbaiten (agian *fue*) gainean idatzirik baitago. **59** devocion fuera] lerroartean idatzita. Lerroan *contricion lloro* tatxaturik. **60** limpiado] lerroartean idatzita. Lerroan *labado* tatxaturik. **68** salvara] s- zerbaiten gainean. **69** le] lerroartean idatzita. Lerroan *sienpre* eta beste hitz bat edo bi tatxaturik. **71** ebangelio siempre] lerroartean idatzita. Lerroan *testamento nuevo* tatxaturik. **76** la luna] lerroartean idatzita. Lerroan *ninguna* tatxaturik. **87** confiando] -on- ez da ondo ikusten, orbanduta edo zuzenduta baitago. **89** fuiste] esk. *fuieste*. **94** para] -r- mantxa batek estalirik. **96** señora] esk. senora, s- mantxa batek estalirik.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A18 – Historia de la bienaventurada Magdalena” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

---

<sup>14</sup> según que: ‘bezala, -n modu berean’; DAutek ez dakar, baina CORDEn erruz dokumentatzen da eta DRAEren edizio berriean labur-labur jasotzen da.



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A19

### Aitac ezcondu ezpanagui...

Goitik beherako marraz ezabaturik dago poema osoa, eta hitzen gaineko zirriborroz ezabatu dira hitz jakin batzuk, seguruenik norbaiti gordinegia iruditu zaiolako poema hau; horren ondorioz, eta bestela ere bigarren esanahiz kargaturiko pasarteak direlako, zaila da dena ulertzea. Baino mezu nagusia argia da, errepikan adierazten baita: hogei urteko neska gazteak ezkondu gura du, baina etxekoek ez diote uzten, gazteegi delakoan. Mutilekin harreman sexualak izaten uzten ez diotelako amorraturik dagoen neska gazte aberatsa da kantuan ari dena (esangura sexual eta erotikoarekin ulertu ditugu *atrenpea ancaetan, az andia cilonen artecean, beroetan jat iturria, lancetea, aurraldea eta içorradu*), eta dena (familia eta aberastasunak) uzteko prest dago mutil on batekin elkartzearen. Hemen, XVI. mendetik aurrera zabalduriko ikuspegian agertzen den bezala (cf. Morant Deusa 2002), andrazkoaren grina eta desio sexuala ezkontzaren bidez gauzatzea proposatzen da. Ikusi, honen ondoan, A24 poema (*Aide andioc bidaldu deustae...*): beste horretan gizonezkoaren ikuspegia agertzen da ezkontzaren aurrean.

Euskal kantu herrikoietan ere aipatzen da gaia. Azkuek *Cancionero popular vasco* ezagunean *Ama, ezkondu* kantuaren lau bertsio bildu zituen (Azkue 1968: 937-943); hona hemen Elgoibarren bildua:

—Ama, ezkondu; ama, ezkondu, gaztea naizenartean.

[Markiñan bilduriko bertsioan: “denporea danartean”]

—Neska, ago isilikan, etzion ogirik etxeán.

—Galburutxo bi gorde nituen garia genduenean,

eun anega atera nizkan irriarra batean:

Urra labirun labirun pena garia genduenean,

Urra labirun labirun pena irriarra batean.

—Ama, ezkondu; ama, ezkondu, gaztea naizenartean.

—Neska, ago isilikan, etzion ardorik etxeán.

—Masmordotxo bi gorde nituen matsa genduenean,

eun karga atera nizkan estetu-aldi batean:

Urra labirun labirun pena estetu-aldi batean,

urra labirun labirun pena matsa genduenean.

—Ama, ezkondu; ama, ezkondu, gaztea naizenartean.

—Neska, ago isilikan, etzion aragirik etxeán.

—Bein batean jarri nintzan josten labe-gainean,

txantxangorri bat etorri eta eseri aldamenean,

jaurti nion titara eta ausi nion bernea,  
eun erralde pisatu zuen aren bularraldeak:  
Urra labirun labirun pena estutu-aldi batean,  
urra labirun labirun pena eseri aldamenean.

Patri Urkizuk (Urkizu 2004: 149) ohartarazi zuenaren arabera, Aita Donostiak Azkainen bilduriko aldaera batean ere (Donostia 1994: 82-83) gai hori agertzen da. Kasu honetan, Lazarragarenean bezala, neskatoak aitari eskatzen dio ezkontza, eta ez amari:

—Aita, ezkonazi nezazu,  
Adina kitu danian.  
—Neska, othoi, hago ixilik!  
Ogirik ez diñat etxeana.

Ogi-ondo bat ikusi nuen  
Landaren erdi-erdian.  
Egun erregua botatzen zuen  
Lehen trailu-kolpian.

Beste lan bat ere aipatu zuen Urkizuk (*ibidem*), 1542an Karlos V.aren kantaria zen Cornelius Canis (Gante, c. 1506-1562) musikariaren hau, hain zuzen:

Mariez moy, mon pere,  
Il est temps ou jamais,  
Ou si vous ne le faites  
Contraict je serais  
De vous dire en deux mots  
Ma volonté feray  
EZ fault que je le face  
Cela je vous prometz.

Berpizkundeko musika polifonikora garamatza lan horrek, eta tradizio horretan, hain zuzen, bada beste kantu bat, Pierre de la Rue (c. 1492 - 1518) konpositore flandriarrak idatzia (*Ma mère, hélas, mariez-moi*), euskarazko *Ama ezkondu, ama ezkondu* gogorarazten duena, eta Frantziako hegoaldean herri-kantu moduan kantatzen dena:

Ma mère, enfin, mariez-moi,  
Je me languis dans la peine,

Ma mère enfin, mariez-moi...  
Ou dites-moi pourquoi!

—Ma fille, il faut attendre un an.  
—Hélas, maman!  
Encore un an!  
Ainsi me répondez chaqu'an.

Ma mère enfin, mariez-moi,  
Je me languis dans la peine,  
Ma mère enfin, mariez-moi...  
Ou dites-moi pourquoi!

—Ma fill', nous n'avons plus de pain.  
—Comment, de pain?  
Seigneur! De pain!  
En trouverai chez le voisin.

Ma mère enfin, mariez-moi,  
Je me languis dans la peine,  
Ma mère enfin, mariez-moi...  
Ou dites-moi pourquoi!

—Ma fill', nous n'avons plus de vin.  
—Comment, de vin?  
Seigneur! De vin!  
Puis'rons de l'eau dans le bassin.

Ma mère enfin, mariez-moi,  
Je me languis dans la peine,  
Ma mère enfin, mariez-moi...  
Ou dites-moi pourquoi!

—Ma fill', nous n'avons plus de sel.  
—Comment, de sel?  
Seigneur! De sel!  
Au saloir en est plein boissel.

Ma mère enfin, mariez-moi,  
Je me languis dans la peine,  
Ma mère enfin, mariez-moi...  
Ou dites-moi pourquoi!

Ma fill', nous n'avons plus d'argent.  
—Comment, d'argent?  
Seigneur! D'argent!  
En gagnerons en travaillant.

Ma mère enfin, mariez-moi,  
Je me languis dans la peine,  
Ma mère enfin, mariez-moi...  
Ou dites-moi pourquoi!

—Ma fill', nous n'avons pas d'anneau.  
—Comment, d'anneau?  
Seigneur! D'anneau!  
Prendrons un cercle du cuveau!

Ezkondu nahi duen neska (eta ez mutil) gaztearen gaia, edozein kasutan ere, sarri agertzen da herri-kantuetan. Ikusi zer dioten XVIII. mendeko *Berssous* eskuizkribuaren editoreek (<http://f.duchene.free.fr/berssous/76.htm>):

Le thème de la fille pubère, pressée de se marier, et que sa mère tutoie (tandis qu'elle est vouvoyée) en tentant d'abord de dissuader l'adolescente, se retrouve dans un grand nombre de chansons soit en français, soit en patois. On les rencontre dans les recueils de Tiersot, Ritz, Servettaz ou Vuarnet, et le premier prototype savoyard, remontant à 1555, est dû au célèbre Nicolas Martin. Mais, quoique le thème soit bien acclimaté en Savoie, Bladé (*Poésies populaires de la Gascogne*, Paris 1883) cite les auteurs en donnant des exemples similaires pour le Gers, la Gascogne, le Languedoc, la Haute Bretagne. M. Barbeau fait de même pour le Canada français. Et les *Rondes*, par Ballard, en 1724, nous en donnent aussi un dans un texte de langue classique. *L'entretien d'une fille avec sa mère* l'utilise itou dans un recueil de colportage (signé Raviot) imprimé à Dijon.

<1190r> Aitac ezcondu ezpanagui,<sup>1</sup>  
neurau ni<sup>2</sup> ezconduco nax sarri.<sup>3</sup>

Jaio azquero<sup>4</sup> serbidu deut:<sup>5</sup>  
ezcondu nagui<sup>6</sup> onezquero.<sup>7</sup>  
Ezconquetaco edadea deut,  
oguei urtean elduzquero;<sup>8</sup> 5  
çorigaxtoan jaio ninçan  
ezcondu baga il banadi.<sup>9</sup>  
Aytac ezcondu ezpanagui,  
neurau ni ezconduco nax sarri. 10

<sup>1</sup> *ezcondu ezpanagui*: ‘ezkon ez banaza, ezkontzen ez banau’.

<sup>2</sup> *neurau ni*: Cf. *ni neurau nago* (A23: 73); gainerakoan, *neurau* bakarrik erabiltzen da eskuizkribuan (sei aldiz: A7: 91, A9: 26, A17: 12, A19: 59, B18: 26, B18: 69). *Neurau* agertzen da orobat nafarrerazko idazleean (Mendiburu, Lizarraga Elkanokoa). *Neurau ni*, hemengo ordena berberean, Lizarragak erabiltzen du: *Jesus, ez nazála utzí / ezpaná faboratzén / libra ez naike neuráu ní* (LE Kop 148).

<sup>3</sup> *sarri*: ‘laster, berehala’; cf. *OEH*, s.v.: “Tr. Documentado en la tradición septentrional y en autores guipuzcoanos, de quienes no se encuentran ejs. en la segunda mitad del s. XX. Lo emplea tbn. el roncalés Hualde”.

<sup>4</sup> *Jaio azquero*: ‘jaio nintzenetik’; *gero adberbioa oinarri* duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumental + -quero” eta “partizipio + azquero” egiturak erabiltzen dira. Hemen “partizipioa + azquero” dugu.

<sup>5</sup> *deut*: *deu-* moldeko \**edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan, eta gainera poema gutxi batuetan bildu dira: *deut* (A16: 66, A19: 3, A19: 5, A19: 43, A19: 47, A25: 20), *deudan* (A16: 31), *badeu* (A24: 99), *deuc* (A25: 4). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *du-* moldeetakoak.

<sup>6</sup> *ezcondu nagui*: ‘ezkon nazala’; euskara historikoan, jusiboa *b-* aurritzidun (*besa, esan beza...*) edo *-la* atzizkidun (*datorrela, etor dadila...*) formen bidez adierazi ohi da. Lazarragak erabilera ezezagun baten berri ekartzen digu iragankorretan. Izan ere, subjektua 3. pertsonakoa duten formak, aginterazko forma arruntak bezala eratu ditzake, aurrizki edo atzizkirik gehitu gabe: *il nagui* (A3: 26), *ezcondu nagui* (A19: 4), *ifini nagui* (A28: 33), *ecusi nagui* (B17: 18). Azpimarratu behar da bildutako forma guztiekin 1. pertsonako objektua dutela, eta objektua 2. pertsonakoa dutenekin *-la* atzizkidun formak erabiltzen dituela: *Jaun cerucoac, ene laztana, oy deguiçula parcatu* (AL: 1146r).

<sup>7</sup> *onezquero*: ‘dagoeneko’; *gero adberbioan oinarrituriko egituretan*, denborazkoen artean, azpimultzo batek ‘jada, berehala, dagoeneko’ balioa du. Erakuslean oinarritutako formak dira.

<sup>8</sup> *oguei urtean elduzquero*: ‘hogei urteetara heltzen naizen momentutik’; *gero adberbioan oinarrituriko egiturez*, ikusi A19: 3 bertso-lerroko oharra. Hemen “partizipioa + -zquero” dugu.

Bestalde, Lazarragaren eskuizkribuan, *el(du)* ‘iritsi’ aditzaren osagarria beti dago inesiboan (-n) eta ez adlatiboa (-ra).

Ezkondou beharraz mintzo den beste pasarte batean ere adin bera aipatzen du (nahiz mutilak hitz egiten duen honetan): *oy oraingaño ez nax ni eldu / oy bada oguei urtean* (A24: 41-42).

<sup>9</sup> *il banadi*: ‘hiltzen banaiz’.

Gau-egunetan beti nago  
esecoquin deadarrez.

Senargureac ozta nago,<sup>10</sup>  
esecoxeoc<sup>11</sup> beti barrez:

—Oraingaño<sup>12</sup> gaztea ax ta,  
urtxe<sup>13</sup> baten goza adi.—

Aytac ezcondu ezpanagui,  
neurau ni ezconduco nax sarri.

15

Oy<sup>14</sup> nolaco atrenpea<sup>15</sup>  
irra<sup>16</sup> darabildan<sup>17</sup> ancaetan!<sup>18</sup>

20

<sup>10</sup> *Senargureac ozta nago*: Letraz letrako irakurketa erabat ziurra da; ez, ordea, interpretazioa. Azalpen bat eman nahian, honako hau iruditu zaigu onargarriena: ‘Senarguraz nagoen bezain laster, senarguraz agertzen naizenerako’; uste dugu *hotzak nago, goseak nago, beldurrak nago* egituren eredukoa izan litekeela *senargureac nago*; hots ‘senarguraz nago, senargura daukat’; bestalde, *OEHn* lekukotasun asko dituen ‘bezain laster’ adieran uler liteke *ozta*.

<sup>11</sup> *esecoxeoc*: ‘etxeko gizagaixo horiek’, mespretxuz edo trufaz. Lazarragaren eskuizkribuan, *-txo* atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; *-xe* atzizkiak, berriz, hiru balio hartzen ditu: 1) Txikigarria (*-xe = -txo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *esecoxeoc* (A19: 14), *urtxe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxearr* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). 2) Izenondo eta aditzondoen intentsitate markatzalea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). 3) Indartzailea (izenordaind artuekin, eta *eben / arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

<sup>12</sup> *Oraingaño*: ‘oraindaino, oraindik’; cf. Lcc “hasta aquí, *onino, orayngano*”. Eskuizkribuan hiru grafiarekin (<nn>, <ñ>, <ññ>) adierazita aurkitu dugu hitz honetako sudurkari palatala: *orainganno* (A14: 31), *oraingaño* (A19: 15) eta *oraingañño* (A24: 41).

<sup>13</sup> *urtxe*: ‘urtetxo’.

<sup>14</sup> *Oy*: Eskuizkribuko poematan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>15</sup> *atrenpea*: ‘berotasuna’; gaztelaniazko *trempar* ‘(sexualki) berotu’ aditzaren familiakide bide da; familia berekoa dukegu frantsesezko *attremper* ‘epeldu; (altzairua) gozatu’.

<sup>16</sup> *irra*: ‘arin, etenik gabe’. Onomatopeia gisa bildu zuen Azkuek. Hark emandako adibideen arabera, ematen du ‘arin, etenik gabe, suelto’ adierazteko erabiltzen dela. Cf. *OEH*, s.v. **irra** (Vc ap. A). 1. “Voz onomat. que indica el ruido que hace el hilo al formarse saliendo de la rueca” A. *Aldaztorrean nengoanean irra goruetan* (V-m). A *CPV* 932. 2. (V-ger-arr-och ap. A). “Onomat. de la acción de correr. *Irra igesi joan dira*” A. 3. “(G-to), onomat. de la siembra a pulso” A. *Alea sumaturik [usoak] eskutikan irra. Or Eus* 59. 4. “(V-ger-m), voz con que se llama a las gallinas” A. — *IRRAN* (V-m ap. A). (Sembrar) a pulso. “*Aurrera [erein]* bere esaten da, baita *irran* edo *zirran* bere *purran* bere bai” *Ezale* 1897, 326a.”

Banequique<sup>19</sup> goruetan<sup>20</sup>  
gonearequin atorrea;<sup>21</sup>  
saldu neique<sup>22</sup> gorguerea,<sup>23</sup>  
aregaz<sup>24</sup> ezer al banegui.<sup>25</sup>

Aytac ezcondu ezpanagui,  
neurau ni ezconduco nax sarri.

Ayn eguin jat az<sup>26</sup> andia  
neure cilonen<sup>27</sup> artecean;<sup>28</sup>  
jarri banadi sugatean,<sup>29</sup>  
beroetan jat<sup>30</sup> iturria;<sup>31</sup> 30  
eguingo jat min oria<sup>32</sup>

<sup>17</sup> *darabildan*: ‘ibilarazten ditudan’; *erabili* aditzaren adiera hau (‘Hacer andar, hacer mover(se); mover, revolver, usar (de)’ *OEHren* arabera) oso zabaldua da. Ikusi, besteak beste, Lcc “Cabecear, mover, burua erabili”.

<sup>18</sup> *Oy nolaco atrenpea / irra darabildan ancaetan!:* ‘Oi nolako berotasuna dudan, arin ibilarazten ditudan hanketan!’.

<sup>19</sup> *Banequique*: ‘jakingo nuke’ baiezkoa.

<sup>20</sup> *goruetan*: Goruetan aritzea etxean zintzo dagoen emakumeari dagokio, *versus* hor zehar aske dabilen neska; cf. CORDETik ateratako adibide hau, Errromantzerokoa: “Madre, sáqueme la rueca, / Que traigo ganas de hilar, / Que las armas, y el caballo / Bien lo supe manejar” (izengabea, 1978, *Canciones españolas*). Bertso-lerro honetan hasten da eskaintzen zer egingo lukeen ezkondua balego.

<sup>21</sup> *gonaarequin atorrea*: ‘gona eta atorra’; “Xrekin Y” egitura da, ‘X eta Y’ adierazteko.

<sup>22</sup> *saldu neique*: ‘*salduko nuke*’.

<sup>23</sup> *gorguerea*: *Gorgera* lepoko apaingarria zen. Ematen du aurreko ideiarekin lotuta dagoela, hau da, ez bakarrik berak goruetan egiteko, baizik eta, areago, daukan apaingarria ere saltzeko prest egongo litzateke, besteak beste ez duelako beharko, etxean zintzo egoteko prest dago eta.

<sup>24</sup> *aregaz*: Soziatiboaren *-gaz* kasu-markarekin, hala genitiboarekin (*-regaz*) nola gabe (*-gaz*) erabiltzen dira pertsona-izenordainak eskuizkribuan: *neuregaz* (A14: 25) / *nigaz (passim)* / *neurgaz* (A16: 19); *aregaz* (A16: 15, A19: 24) / *agaz (passim)*; *beregaz* (AL: 1143v, AL: 1144v) / *beragaz* (B22: 61); *çuregaz* (AL: 1144v, A2: 20h, A7: 15, A16: 20, A17: 95) / *çugaz* (AL: 1141r, A2: 2, A7: 26, A16: 9, A26: 134, B18: 143); *gugaz* (A1: 1).

<sup>25</sup> *al banegui*: ‘egin ahal baneza, egin ahalko banu’.

<sup>26</sup> *az:* ‘azkura’; cf. Lcc “comezón, asca” eta “rascar, asc eguin”, “rascadura, asca”.

<sup>27</sup> *cilonen*: ‘zil honen, zilbor honen’. Landucciren lekukotasunari (“ombligo, *çila*”), erants daki oke Gasteizko erdaran *el cil* esaten dela edo esaten zela bederen.

<sup>28</sup> *neure cilonen artecean*: ‘neure zilbor honen aldamenean’ edo ‘neure zilbor honen bertikalean’; edozein kasutan ere, neskak zilborraren azpian duenaz ari da. “Genitiboa + artecean” egitura ez dago zuzenean lekukotuta.

<sup>29</sup> *sugatean*: ‘sutean, sutondoan’; cf. Lcc “hogar lugar de fuego, *sugatea*”. Hemen erabilera metaforikoa bide du, *gizonezko* baita beroa ematen diona.

<sup>30</sup> *beroetan iat*: ‘berotzen zait’

<sup>31</sup> *iturria*: Erabilera metaforikoa seguruenik zilaren ondoan daukana adierazteko

remediadu ezpanadi.<sup>33</sup>

Aytac ezcondu ezpanagui,  
neurau ni ezconduco nax sarri.

Nunberebaita<sup>34</sup> asco dago  
enetaco doloreric;<sup>35</sup>  
ezta munduan morroeric<sup>36</sup>  
norc desaquedan<sup>37</sup> “nola ago?”.  
Oraciota beti nago:<sup>38</sup>  
osoac ayta jan balegui!<sup>39</sup>

35

40

<sup>32</sup> *min oria*: *OEH*ren arabera, *min-horia* erdaraz *amarillez* (edo *ictericia*) deitzen den gaixotasuna bide da, horrela bildu baitzuen Larramendiren *Hiztegi hirukoitzak*: “Tericia, *miñoria*”. Cf. *DAut*, s.v. *amarillez*: “El color del rostro, que **por melancolía** u otra enfermedad, susto o espanto, passa a ser amarillo y pálido”; hala da, seguru aski, Barriako monastegiko mojei buruzko poeman ere: *eurac daquie curaetan / min oria ta gorria* (B25: 11-12). Testuinguru hotetan, uste dugu egokia dela lotzea medikuntzan *chlorosis* (Hipokratesek emaniko izena da) eta *morbus virgineus* ‘birjinen gaixotasuna’ (cf. Johann Langeren *Medicinalium epistolarum miscellanea*, 1554koa) deitu zaion gaixotasunarekin, hain zuzen ezaugarri nagusi legez azaleko kolore horixka edo berdexka duen gaixotasuna baita, eta ezkontza baitzen medikuek aholkatzen zuten sendabide bakarra. Antzinate klasikoan hasita (cf. *palleat omnis amans, color hic est aptus amori*, Ovidioren *Ars amatoria*, I, 729), Mendebaldeko literatura guztian aurkitzen dira gaixotasun horren adibideak.

<sup>33</sup> *remediadu ezpanadi*: ‘erremediorik aurkitzen ez badut’; ikusi, halaber, *Naguin, Sirena, remediadu!* (AL: 1152v). Cf. *DAut*, s.v. *remediar*: “Vale también socorrer o subvenir a alguna necesidad o urgencia”.

<sup>34</sup> *Nunberebaita*: ‘edonon’; balio modala ere izan lezake, ‘segurki, itxuraz, dirudienez’ adiera alegia (cf. A11: 29), baina hemen ‘edonon’ adiera hobetsiko genuke. Añibarrok *nonberebait* jaso zuen (“creo que”, ap. *OEH*, s.v. *nonerebait*) eta, leku-adieran, Beovidek erabili (Bv *AsL* 205). *OEH*k jaso ez arren, badira *nonerebait-en* adibideak Mendibururengan ere, *Klasikoen gordailua*ren arabera (*ta geldituko zen, etorkizunaren begira ta lenbaitlen bere seme Jesus nonerebait ekusteko nai andiarekin*). Formaren aldetik, cf. *zelanbaista* (*RS*) eta, jadanik garatuta, *nondik-nahi baita* ‘nondik-nahi’ zubereraz (*OEH*, NONDIK-NAHI BAITA, s.v. *nondik-nahi*). Landucciren formak hau baino bakunagoak dira: “nada, *çerbere*”, “nadie, *norbere*”, “ninguna cosa, *ezta çerbere*”, “nunca, *ezta noxbere*”...

<sup>35</sup> *asco dago / enetaco doloreric*: ‘dolore asko dago niretzat’. -rik asko egitura da.

<sup>36</sup> *morroeric*: ‘mutil gazte ezkongaberik’; eskuzkribuan hiru aldiz agertzen da *morroe* izena, eta hiruretan du esanahi bera, eta ez ‘zerbitzaria’: **morroe** galant *estiraduac* (A6: 31), *donceleari Lora ereyçan / morroeorri Don Martin* (A11: 3-4), ezta munduan *morroeric / norc desaquedan* “nola ago?” (A19: 37-38).

<sup>37</sup> *desaquedan*: ‘esan diezadakeen’; *esan* aditzaren ahalerako NOR-NORI-NORK forma trinkoa.

<sup>38</sup> *Oraciota beti nago*: ‘beti nago otoiitzean, erreguka’; *oraciota egon* lokuzioaren egitura berekoa da *erregutan egon* Lazarragaren eskuzkribuan: *Jgoçu erregutan* (AL: 1139v) eta *erregutan gagoçu* (AL: 1147v).

<sup>39</sup> *Oraciota beti nago / osoac ayta jan balegui!*: ‘Beti ari naiz hau eskatzen: oxala otsoak aita jango balu’; esaldi botiboa da.

Aytac ezcondu ezpanagui,  
neurau ni ezconduco nax sarri.

Cerençat<sup>40</sup> deut<sup>41</sup> lau-bost gona,  
ez aseguinic arçaiteco?<sup>42</sup>

Gura dodana eguiteco  
ebilico nax orra-oná.

45

Artuco deut coipe ona,<sup>43</sup>  
denporatan el banadi.<sup>44</sup>

Aytac ezcondu ezpanagui,  
neurau ni ezconduco nax sarri.

50

Legue baliz<sup>45</sup> escaetan<sup>46</sup>  
guiçonari lancetea,<sup>47</sup>  
baniqueo nic aurrealdea<sup>48</sup>  
mocituric<sup>49</sup> escuetan;<sup>50</sup>

<sup>40</sup> *Cerençat*: ‘zertarako’; galdetzaile hau orain artean Iparraldean bakarrik lekukotuta zegoen, Larramendiren hiztegia alde batera utzita, edozein adieratan dela (*OEH*, s.v. *zerentzat*). Baino gogoan izan prolatibozko -tzat desinentzia erabili dela mendebaldeko euskaraz helburuzko perpausak osatzeko, subjuntiboko aditzari erantsirik. Cf. *eçautu ez leguiyançat* (AL: 1147r).

<sup>41</sup> *deut*: *deu-* moldeko \**edun* aditzaren formei buruz, ikusi A19: 3 lerroko oharra.

<sup>42</sup> *Cerençat deut lau-bost gona, / ez aseguinic arçaiteco?*: Arrenguraz da, lau-bost gonaren jabe izan arren (aberatsa izan arren) ez duelako horien probetxu hartzeko aukerarik, ezin dituelako gonak jende (mutil) artean erakutsi.  
*arçaiteco*: ‘hartzeko’.

<sup>43</sup> *coipe ona*: Koipe ona hartzeak, itxura ona hartzeak hemen esan nahi du ez duela min horia (cf. A19: 31), hots, ezkontzean kenduko zaiola gaixo-kolorea.

<sup>44</sup> *Artuco deut coipe ona, / denporatan el banadi*: ‘Ederra (mardula) jarriko naiz, sasoi onean heltzen (umotzen) banaiz’. Cf. *DAut* (s.v. *tiempo*): “En tiempo. Modo adverbial, que vale en ocasión” (*En ocasión* esapidea, berriz, ez da agertzen).

<sup>45</sup> *Legue baliz*: ‘zilegi balitz’; *lege da* (zen...) ‘zilegi da’ adierarekin ondo lekukotzen da XVIII. mendeaz geroz (cf. *OEH*, *LEGE DA*, s.v. *lege*).

<sup>46</sup> *escaetan*: ‘eskatzea’.

<sup>47</sup> *lancetea*: *lantzeta* odola ateratzeko edo larrua ebakitzeko erabiltzen den lanabes zorrotza da. Hemen (eta A21: 38 bertso-lerroan) metaforikoki erabilita dago, jakina, gizonezkoak hankartean duena adierazteko; erdaraz ere inoizka ondo lekukotzen da hala: “Como bárbaro me halaga / Para descubrir la vena, / Y á vuelta de sus blanduras / Mete la aguda lanceta” (izengabea, 1600-1604, *Romances*, en *Romancero general*, Agustín Durán, Rivadeneira (Madrid), 1851).

<sup>48</sup> *baniqueo nic aurrealdea*: ‘emango nioka nik aurrealdea’; *baniqueo* adizkia \*-in- erro zaharrekoa da. Emakumearen aurrealdea (zehazki hankartekoa) da gizonari ematen (eskaintzen) diona.

ucabilaz musuetan, <sup>51</sup> içorradu <sup>52</sup> ezpanaagui. <sup>53</sup> Aytac ezcondu ezpanagui, neurau ni ezconduco nax sarri. <sup>54</sup>	55
--	----

Neurau baño non ete da ederrago donzellaric? Mutil gose <sup>55</sup> onguraric mundu guztian ez ete da? Baneidio bati berba, <sup>56</sup>	60
---	----

<sup>49</sup> *mocituric*: Hiru eratara uler daitekeela uste dugu: 1) ‘mozturik’; *hotzitu*, *baltzitu* eta abarren antzera eratua; cf. *mocietan* (A25: 12). Horrela ulertuz gero, lantzetaren irudiarekin jarraituko luke: gizonaren lantzeta-zakilak lan erraza izango du, mozturik eta zabal-zabalik aurkituko baiu neskaren surrealdea. 2) ‘biluzik, agerian’; *moztu*, *motziu* aditzaren lehenengo esanahiarekin izango luke zerikusia: “Esquilar; rapar, cortar el pelo; “Desplumar” Lar y Añ.” (OEH. s.v. *moztu*). 3) ‘mutxiturik, lizundurik, urdindurik; heldu-helduta, alferrik galtzeko zorian’; maitasunerako adin egokia gizonik ezagutu gabe igarotzeak sortzen dion larritasunarekin loturik izango litzateke irakurketa hau; surrealdea heldu-helduta eskaintzen dio gizonari, fruta heldua bezala, puntu-puntuan.

<sup>50</sup> *escuetan*: ‘eskuan, eskura, erraztasun guztiekin’.

<sup>51</sup> *ucabilaz musuetan*: ‘emango nioke ukabilaz musuetan’; ziurrenik *baniqueo* berriro ulertu behar da, hots, *baniqueo* [...] *ucabilaz musuetan*; hortaz, ulertu behar da haurdun geratu nahi duela. Lerroan lehenengo idatzi duen testuak (*banequique leiaetan* ‘jakingo nuke lehiatzen, jakingo nuke grinaz jarduten’), ordea, kontrakoa adierazten du: haurdun ez uztekotan, jardungo lukeela grinaz gizonarekin.

<sup>52</sup> *içorradu*: ‘haurdundu’; cf. Lcc “Preñada, ycorrea”. *Izorratu* aditzak konnotazio txarrak izan bide ditu azken mendeotan (cf. “C'est un terme grossier et malhonnête” H. “Ponerse en cinta. Hoy, por lo menos en V, G y AN, disuenan estos términos” A., ap. OEH, s.v.); hala ere, ez dirudi beti hala izan denik, XIX. mendea arte usu erabiltzen baita, batik bat testuinguru erlijiosoetan (cf. *ibidem* Leizarraga, Axular eta Harizmendiren adibideak).

<sup>53</sup> *ezpanaagui*: Bokal bikoitzari dagokionean, esan behar da *nagui*- adizkia askotan dagoela eskuizkribuan *a* bakunarekin (ikusi poema honetan bertan, hainbat aldiz), eta agian *ezpanengui* > *ezpanaagui* zuzenketak zerikusia izan duela bokal bikoitza idaztearekin. Nolanahi den ere, eskuizkribuko lau adizkitan aurkitu dugu bokal bikoitza absolutiboaren markaren ondotik: *çaatean* (AL: 1147v), *çaaquit* (A6: 2), *gaucustenac* (A7: 115) eta *ezpanaagui* (A19: 56).

<sup>54</sup> *Legue baliz escaetan... / neurau ni ezconduco nax sarri*: Ahapaldi gaitz honentzat proposatzen dugun interpretazioa ondoko hau da, hortaz: ‘Zilegi balitz eskatzea gizonari lantzeta-zakila, eskainiko nioke nire surrealdea-hankartea irekita/heldu-helduta erraztasun guztiekin bere eskura; halere haurdun utzik ez banindu, ukabilaz joko nuke musuetan’. Lerroan ezabaturikoaren arabera, beste hau litzateke amaiera: ‘jakingo nuke harekin grinaz jarduten, haurdun utziko ez banindu’.

<sup>55</sup> *gose*: ‘goiseti’; izenondoa da. Bera bezalatsu gose den mutila nahi luke (kasu honetan “neska-gose” den mutila), baina aldi berean *ongura* edo borondate onekoia ere badena.

<sup>56</sup> *Baneidio bati berba*: ‘egingo nioke bati berba, batekin harreman sexuala izango nuke’; *baneidio* \*-idi-erroko adizkia da eta baldintza irrealeko apodosia adierazten du.

palagadu al banegui.<sup>57</sup>

Aytac ezcondu ezpanagui,

65

neurau ni ezconduco nax sarri.

#### OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**1** Testua bi zutabetan banatuta dago, eta biak tatxatuta daude, goitik behera sigi-sagan dabiltsan bi marrarekin. Honezaz gain, hainbat lerro ezker-eskuin ere tatxatu dira, eta zenbait hitz tintaz erabat estali, edo ia. Poema nabarmen xamarra denez, argi dago zentsuratua izan dela: hitzik nabarmenenak dira, hain zuzen, orbanduenak. Hirugarren ahapaldia (*Oy nolaco atrenpea...*) da eraso gehien jaso dituena. Ahapaldiak zenbaki arabiarrez zenbakitura daude eskuizkribuan, ahapaldien ezkerreko alboan, “1”etik “8”rako segida bakarrean (errepiraren lehenengo agerpena zenbaketan sartu gabe). **12** esecoquin deadarrez] azpian lerro oso bat dago, hiru marraz tatxatuta: *arren ezcondu naguiela*. Hasieran uste izan genuen bertso-lerro hori, poemako beste zenbait bezala, zentsuratua izan zelako tatxatu zela (cf. gorago 1.

\*-idi- aditza *egin* aditzaren erro supletibotzat jo ohi da (Lafon 1944 eta geroztikako lanak). Izen ere, testu arkaikoetan, *egin*-ek ez du potentzialeko forma trinkorik erakusten, eta haren ordez \*-idi- erabiltzen da. Mendebalde zein ekialdeko testuetan aurkitzen da.

\*-idi- aditza trinkoki (*Arbore gaichtoac fructu onic ecin daidi*, Leiz Mat. VII, 18), zein “partizipioa + \*-idi-” gisako perifrasiaren laguntzaile gisa agertzen zaigu. Azken erabilera hau mendebaldeko testuetan baizik ez da lekukotzen; eta hori da, hain zuzen ere, espero duguna, *egin* eta \*-idi- banaketa osagarrian badira, eta “partizipioa + *egin*” perifrasia mendebaldekoa bada: *Mayacean berarra luce da eta sendo, eguitayaren orçac ebagui leydi ondo* (RS 268), *Esan senguida beste gatic / esneydysula trucadu* (Mik TAV 3.1.27).

Lazarragaren eskuizkribuan, bost aldiz agertzen zaigu trinkoki jokaturik, eta gehienetan aditz-lokuzio bateko aditza da: *Ecin faltaric neydio / nic on derechadanari* (A3: 9-10), *apa bat baneydiçu ao goçoan; / bacusu ene fedea firmea dana* (A17: 19-20), *Baneidio bati berba, / palagadu al banegui* (A19: 63-64), *beronec bere ezteidio falta gueiago damari* (B27), *Mendi altuan erurra daydi, / aran baxuan eguzqui* (B31: 1-2). Gainerateko kasuetan, perifrastikoki erabilia da, partizipioa aditz nagusitzat harturik.

Balioari dagokionez, lau balioarekin agertzen zaigu. Gehienetan potentziala adierazten du (zortzi aldiz), baina geroaldiaren balioa ere har dezake (bi aldiz). Behin baldintza irreal bateko apodosian agertzen zaigu, baina hori ez zaigu harrigarria iduritzen, kontuan harturik apodosiak potentzialeko formetarik erator daitezkeela. Azkenik, orain arte ezagutzen ez genuen erabilera batean aurkitu dugu bi aldiz: aginteraren balioarekin; bizkitartean, ez dira agintera “normalak”: orainaldiako forma iragankorren *d-*aurrizkia daramate, baina horrekin batera aginterazko formetan erabili ohi den ezeztapenaren partikula: *ze*. Pentsa daiteke geroaldiko formak direla aginteraren balioarekin erabiliak (oroit Leizarragaren mandamentuko *ez duk hilien* tipoko formak).

Esanahiari dagokionean, gaztelaniaz *hablar* aditzaren adieretako bat oso esplizitua da, RAEren arabera. Cf. *Diccionario de la lengua española. Vigésima primera edición* (1992). s.v. *hablar* “Tener relaciones amorosas una persona con otra”.

<sup>57</sup> *palagadu al banegui*: ‘balakatu, limurtu, erakarri ahal banu’; ikusi baita *palagadu ta exildu* (B14: 30).

lerroko oharra); alabaina, poema honetako gainerako ahapaldien lerro-egiturak (zortzi bertso-lerro gehi errepika) eta errima-egiturak erakusten dute lehenengo idatzaldian ezabatu zela. **20** Oy nolaco] marra batez tatxatuta. **21** irra] esk. *ira*. -a zirriborratuxe dago, baina ziurra dirudi. || irra darabildan] marra zenbaitez tatxatuta. || ancaetan] tintaz ia osoki ezabatuta. **22** goruetan] *goru*- tintaz aski orbanduta. **23** atorrea] ezabatuta. **24** saldu neique gorguerea] lerro osoa tatxatuta; bereziki tatxatuta *saldu* eta *gorguerea*. **26** Aytac...] hemendik aurrerako estrofetan, errepikaren hasiera baino ez dago eskuizkribuan, etc. gehituta. **38** munduan] lerroartean erantsita; lerroan *eneçat*, marra batez tatxatuta. **40** Oraciota] esk. *oraciota*. **53** guiçonari] beste zerbait dago gainean idatzita; Urkizuren arabera (2004: 151) *amorosari*. Hala balitz, *amorosari* zuzenketa dateke, testua ematu nahian idatzia. **55** mocituric] ezabatuta. **56** ucabilaz musuetan] lerroartean. Lerroan: *banequique leiaetan*. **57** içorradu] ezabatuta. || ezpanaagui] -en- idatzi du lehenago, eta horren gainetik -aa- (*ezpanengui* > *ezpanaagui*). **60** non] -n mantxa batek ia osoki ezkutatzen du.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A19 – Aitac ezcondu ezpanagui...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A20

### *Soneto contra el mundano imundo*

Lan honek *soneto* izena duen arren, hainbat errima-egituratako zortzikoak dira: ABBAABAB (1. ahapaldia), ABABABAB (2. ahapaldia), ABBAABBA (3, 4, 5, 6 ahapaldiak), ABBAACCA (7, 8, 9, 10, 11, 12 ahapaldiak); funtsean kuartetoen eta serbentesioen konbinazioak dira, sonetoaren lehenengo bi estrofak hain zuzen (azken seiak *octava castellana* ereduakoak dira). Antzekoa gertatzen da eskuizkribuko beste bi lanetan ere: A22 *Sonetos para cantar el día del Corpus* eta B21 *Soneto: Estrella refulgente parescía...*).

Munduko plazerak eta aberastasunak bilatzeak dituen arriskuez ohartarazteko idatzia da. Lehenengo lau ahapaldietan, gaitz guztien pertsonifikazio den munduari berari hitz egiten dio, eta, bosgarrenetik aurrera, pekatariari zuzenean, gogorazteko heriotzako orduan Jainkoak epaituko gaituela, batzuk zigortzeko eta besteak saritzeko.

<1191r>

Soneto contra el mundano imundo.<sup>1</sup>

Hecho por Laçarraga.

Mal aya quien en ti, mundo, confía,  
maldito quien en ti se confiare,  
porque al que más alto tienes en el tu balle  
le hazes caer más presto, aunque porfía.<sup>2</sup>  
Por mí lo digo, triste, que halgund<sup>3</sup> día

5

<sup>1</sup> *imundo*: Jarrera kontserbatzailea hartu dugu, testua ez aldatzeko, paleografikoki argia baita, interpretazioa zalantzazkoa izan arren. Proposatu dugun irakurketaren arabera, *mundano* izena da (33. lerroan bezala), eta *imundo* adjektiboa (= *inmundo*; CORDEn, 1580era arte, bi *imundo* eta *zortzi immundo* aurkitu ditugu). Beste aukera zen *errata* bat dagoela pentsatzea: *mando* idatzi nahi zuela, eta ez *imundo*.

<sup>2</sup> *porfía*: Indikatiboa da hemen, subjuntiboa espero genezakeen arren: “aunque porfie”. *Porfiar*-ek ‘tematu, lehiatu’ esan nahi du (cf. DAut: “Disputar y altercar obstinadamente y con tenacidad alguna cosa”), eta testuinguru honetan agian egokiago litzateke ‘aurre egin, iharduki’ bezalako adiera batean pentsatzea.

<sup>3</sup> *halgund*: *algund* oso ondo lekukotzen da CORDEn: 1500-1600 artean 784 aldiz 139 dokumentutan, sarri *algund tiempo* bezalako izen aurreko egiturak. Lazarragak ia beti <h>-z idazten du: cf. *halguna vez*

me puse en halto grado con gran coraje,  
pero después, andando de día en día,  
beo que me deshonras de mal traje.<sup>4</sup>

Yo, con la esperanza que tenía  
de tus mundanos bienes y placeres, 10  
procuré de te agradar quanto podía,  
compliendo<sup>5</sup> en grand<sup>6</sup> manera con las gentes,  
haciendo muchas cosas que no devía  
hacer, ni aún pensar, ni parar mientes,<sup>7</sup>  
pensando que en ti siempre duraría 15  
mi vida mundanal y mis placeres.

¡O mundo, cómo traes a tus basallos  
mundanos, abrientos y perdidos!  
Contino<sup>8</sup> andan anbrientos y afligidos,  
y nunca acabas tú de contentallos. 20

<1191v> Prométesles estados sublimados,  
y ellos con esto ciegan sus sentidos;  
por la riqueza andan afligidos,  
con la qual tú los tienes sobornados.

Jamás se les acuerda lo infinito, 25  
los pensamientos fundan en lo bajo;  
buscan para ganar infierno atajo,<sup>9</sup>

---

(A20: 63), *injuria halguna* (A20: 66), baina behin bietara (zuriune batean erantsitako testu batean):  
...ban en halgunas coplas algunas autoridades (B26).

<sup>4</sup> *de mal traje*: ‘zakarki’ esan nahi duen esapidea. Cf. CORDE: “No ay corchapin que nauegue / de buen pelo ó **de mal traje**, / que no me rinda su gaje, / ni marquiça que le niegue / á mi marca vasallage” (Pedro Padilla, 1583, *Romancero*).

<sup>5</sup> *compliendo*: Cf. DAUT: “Complir. Lo mismo que Cumplir”.

<sup>6</sup> *grand*: Erabat arrunta da *grand* forma: 1540-1560 tartean CORDEN 1021 adibide agertzen dira, 34 dokumentutan.

<sup>7</sup> *parar mientes*: ‘hausnartu’; cf. DAUT: “Phrase, que significa considerar, meditar y recapacitar, con particular cuidado y atención, alguna cosa”.

<sup>8</sup> *Contino*: Cf. DAUT: “Lo mismo que Continuamente u De continuo”.

tienen al interés siempre por ito.<sup>10</sup>  
Con tanto<sup>11</sup>, ya fenesce lo finito,  
la pena ya es eterna y sin gasajo;<sup>12</sup> 30  
pidirnos an la qüenta a lo raso:<sup>13</sup>  
allí no habrá dezir “sabía poquito”.

Dezime los mundanos: ¿qué os paresce  
d'esto que aquí os he dicho, qu'es lo cierto?<sup>14</sup>  
Bivid, por vida vuestra, con concierto; 35  
mirad que la virtud nunca peresce,  
tanbién que la maldad Dios aborrece,  
y que a nuestra maldad dará castigo.  
Para nos abonar<sup>15</sup> no abrá testigos,  
porque Dios sin testigos nos conosce. 40

Mirad que las riquezas d'este mundo  
son cevo con que el diablo nos engaña.  
<1192r> Ganemos lo celeste sin maraña,<sup>16</sup>  
no bamos para siempre a lo profundo.<sup>17</sup>  
Todo esto no es mentira, ni yo lo fundo, 45

<sup>9</sup> buscan para ganar infierno atajo: ‘buscan atajo para ganar infierno’, hiperbatonarekin.

<sup>10</sup> ito: ‘mugarria, helburua’.

<sup>11</sup> Con tanto: ‘orduan’; gaztelaniaz ez da esapide adberbial ezaguna, baina dirudienez ez da oso desberdina euskarazko *hainbertzenarekin*; OEHk “entonces, en ese momento” itzultzen du (HAINBERTZENAREKIN, s.v. *hainbeste*), eta eransten du “Cf. occit, *ab tant*”.

<sup>12</sup> gasajo: agasajo-ren forma sinkopatua, zaharkitutakoa (cf. DRAE 1803). Sin gasajo CORDEn agertzen da (zehatzago *sin gasajo* y *sin placer* egiturau), hala Montemayor-en *Los siete libros de la Diana*-n (1559) nola beraren *Cancionero*-an (1554), eta ez da edonork darabilen esapide bat.

<sup>13</sup> a lo raso: ‘argi eta garbi, agerian’; cf. DAUT: “*Salir a lo raso*. Phrase que vale salir a cielo descubierto, dexando la casa o el pueblo”.

<sup>14</sup> ¿qué os paresce / d'esto que aquí os he dicho, qu'es lo cierto?: Galdera erretorikoa da, *qu'es lo cierto* erlatibozkoarekin ez baitu utzi lekuriak zalantzarako.

<sup>15</sup> Para nos abonar: ‘gure alde egiteko’; cf. DAUT, s.v. *abonar*: “*Abonar a otro*. Es salir por él, saneándole y fiándole para qualquiera dependencia o negocio”.

<sup>16</sup> sin maraña: ‘katramilarik eta nahasterik gabe’; cf. DAUT, s.v. *maraña*: “Metaphóricamente significa enredo, confusión y embuste, con que cautelosamente se pretende enredar y descomponer alguna dependencia o negociado”.

<sup>17</sup> a lo profundo: ‘infernura’, alegia.

sino berdad notoria y manifiesta.  
Día y noche belemos, sol y siesta<sup>19</sup>  
sirvamos a Jhesus que es trino y uno.

No pienses, tú, sobervio, qu'esto digo  
por solo el abariento y anbicioso: 50  
tanbién hablo contigo, luxurioso,  
que siempre en suziedad estás metido.  
¡O mundo orgulloso y fementido,<sup>20</sup>  
quánta maldad en ti se exercita!  
No sé a qual remedio me remita,  
sino sólo al de Dios, qu'es muy subido. 55

Miremos, pues, muy bien cómo bibieron  
appóstoles de Dios y ebangelistas.  
Bolved acá, logreros y pleitistas,  
mirad cómo la gloria merescieron, 60  
mirad a la abstinencia que tubieron,  
y si sólo un mandamiento traspasaron,  
y si a dicha<sup>21</sup> halguna vez ellos pecaron,  
mirad la penitencia que icieron.

<1192v> Mira que nuestra bida es muy breve, 65  
no cures de tener injuria halguna,  
agrada al que crió el sol y luna  
porque Él en un momento undirte puede.  
Conténtate con lo que Dios te diere,

<sup>18</sup> *lo fundo*: ‘bermatu, oinarritu’; ez da *fundar* aditzaren adiera ohikoena, baina cf. *DAut*: “Se toma también por apoyar con motivos y razones eficaces, u discursos, alguna cosa; como *fundar su opinión, dictamen, etc.*”

<sup>19</sup> *sol y siesta*: ‘beti, etengabe’; ez dugu esapide gisa aurkitu, baina *día y noche* esapidearen baliokide dela dirudi.

<sup>20</sup> *fementido*: ‘maltzurra’; cf. *DAut*: “Falto de fe y palabra”.

<sup>21</sup> *a dicha*: ‘menturaz’; cf. *DRAE* 1803: “*a dicha*. mod. adv. Lo mismo que *por dicha*: ‘por suerte, por ventura, por casualidad’”.

no cures de adquirir hacienda agena  
—muchas veces aquesto nos condena—,  
tened la vigilancia que requiere.

70

Quando un onbre se topa con su enemigo,  
pregunto si querría hallarse armado  
para guardarse d’él, si le a enojado,  
porque de otra manera está perdido.  
Mira pues, pecador, que yo te digo  
que la muerte saltea<sup>22</sup> nuestras bidas,  
y si a tu alma no la halla apercibida  
la llebará al infierno tu enemigo.

75

80

Mira que Dios te tiene prometido  
la gloria celestial, y aparejada;<sup>23</sup>  
procura de allá ir, no erres<sup>24</sup> puntada.  
Abiba tu memoria y tu sentido;  
no pierdas lo de allá, qu’es tan subido,  
por lo de acá, qu’es tierra, escoria y polvo;  
<1193r> no trueques oro fino por el lodo,  
procura de que<sup>25</sup> seas escogido.

85

Recuerda, pecador, que heres christiano,  
y que ansí, como christiano, prometiste,  
quando el sancto bautismo rescebiste,  
de sienpre obedecer al soberano;

90

<sup>22</sup> *saltea*: ‘ezustean erasotzen du’; cf. *DAut*, s.v. *saltear* (adiera nagusia): “Salir a los caminos, y robar a los pasajeros lo que llevan”; hots, egun gaztelaniaz *asalta* esango genukeena.

<sup>23</sup> *Dios te tiene prometido / la gloria celestial, y aparejada*: ‘Jainkoak zeruko loria dauka zuretzat aginduta eta prestatuta’.

<sup>24</sup> *erres*: *errar* aditzaren adizki analogikoa da, esperoko genukeen *yerres-en* ordez. Cf. *DAut*, s.v. *errar*: “Tiene la anomalía de recibir la y antes de la *e* inicial en algunos casos de los tiempos presentes: como Yo *yerro*, *yerra* tu, *yerre* aquel”.

<sup>25</sup> *procura de que*: *CORDEn* badira “procurar de que” egituraren adibideak, hain zuzen XVI. mendeko idatzietan.

y aunque siempre asta aquí le as enojado,  
demándale perdón, no desesperes,  
que si en lo benidero le servieres  
presto te librará de tu pecado.

95

Fin.

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Ahapaldiak zenbaki arabiarrez zenbakitura daude eskuizkribuan, ahapaldien ezkerreko alboan, “1”etik “12”rako segida bakarrean. Orrialdeen zenbakitzeari dagokionean, guk hautatu ez dugun orrialdezenbaketa zuzenduta dago: <54> → <55>. || Laçarraga] esk. *LÇRGA* monograma. **5** digo] lerroartean erantsita; azpian lerroan dagoen hitza-edo tatxatuta dago. **6** halto] badirudi -t- beste letra baten gainean idatzita dagoela. **9** tenía] ondoren *de* tatxatuta: badirudi hurrengo lerroko hasierako hitza bera dela. **12** conpliendo] aurrean *con las gentes*, tatxatuta; lerro bukaeran erantsi du gero. **30** eterna] aurrean pare bat letra tatxatuta (agian *ya* bera berriz). **31** raso] <ʃ> beste letra baten gainean idatzita bide dago. **36** mirad] aurretik letra bat (seguruenik *d*) tatxatuta. **42** engaña] esk. *engana*. **50** anbiçioso] *s* baten gainean idatzita bide dago ç. **55** No] aurretik hitz bat (*sino?*) gogoz tatxatuta. **59** Bolved] aurrean tatxatutako hiru letra daude (agian *log*). **66** cures] esk. *çures*. **68** puede] *p* beharbada letra baten gainean idatzita, edo tintaz berpasatuta. **70** adquirir] azpian *ganar*, tatxatuta. **71** aquesto] *aquel* bairarten gainean idatzita (agian *con*). **76** está] azpian *queda*, tatxatuta. **87** trueques] esk. *trueces*. **88** de] aurrean *q*, tatxatuta. **89** pecador] esk. *peçador*. || christiano] esk. *xpiano* laburtuta. **90** christiano] esk. *xpiano* laburtuta. **94** desesperes] aurrean beste hitz bat (agian *.engas*), tatxatuta. **96** librará] azpian *absoluera*, tatxatuta.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A20 – Soneto contra el mundano imundo” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A21

### Denpora baten içan ninçan...

Poema honetan bi parte bereizi behar dira: lehenengo 32 lerroetako estilo narratzailea, eta azken sei lerroetako estilo zuzena. Bainan estilo narratzailean kontaturikoa ere bi partetan banatu behar da: lehenengo 14 lerroetan kontatzen du bihotza zauritu dion dontzeilak ez diola eskatzen diona ematen (*bici nax bici penadua*); bigarren partean (15-32 lerroetan), bizkor aldatzen da egoera: dontzeilaren logelara doa eta, hitz goxoz limurtu ondoren, nahi zuena lortzen du (*pena artaric ascatu nau ta bici nax bici contentua*). Azken zatian (33-38 lerroak) jakingo du irakurleak dontzeilaren gelan zer gertatu den: haurdun utzi du (*doncelleoni eguin jacac izta-ondoan anditua*), baina orain ez du ezer hartaz jakin nahi eta beste mutil bat esaten dio haren ardura hartzeko. Neskaren ardura hartu behar duen mutila soldadu dago Donostian, eta seguruenik hartaz trufatzeko aipatzen dira lehenago balezta eta zagita, *militia amoris* gisakoan baitihardu protagonistak, dontzeilaren mutil-laguna benetako soldadutzan dagoen bitartean.

Mutil-laguna edo dena delakoa “Donostiacio San Franciscuan” dela soldadu aipatzeak eskuizkribuaren kronologiari buruz hausnartzera behartzen gaitu. Donostiako frantziskotarren komentu ezagunena 1606an sortu zen “El Churratal” lekuau, Atotxan, gaurko Zuhaitz orubean (cf. Amundaray 2003), eta kronologia hori ez dator bat, ustez, eskuizkribuari buruz dakigunarekin, Joan Perez Lazarragakoa 1605.ean zendu baitzen. Lehenago, 1512tik 1516ra (edo are 1539ra), frantziskotarrek Antiguo auzoan izan zuten eliza bat, baina ez dugu aurkitu inon eliza horri “San Frantzisko” deitu zitzzionik, “San Sebastian el Viejo” baino. Lazarragaren bizitzako datak kontuan hartuta, frantziskotarrek 1569an San Martin (Amara) inguruan zabaldu zuten eliza izan liteke poema honetan aipatzen dena, eta horrek 1569a ezarriko luke *post quem* data gisa, eskuizkribuko lerro horientzat behintzat (eta kontuan izan behar da lerro horiek eskuizkribuko lehenengo testu nagusikoak direla). José Ignacio Lasa frantziskotarrak azaltzen duenez (Lasa 1982: 48-69), 1569an frantziskotarrek bigarren saioa egin zuten Donostian komentua sortzeko, eta eliza zabaldu ere zabaldu zen 1569ko maiatzaren 4an, baina horren kontra agertu ziren zenbait erakunde, eta artillerialarien iritzia erabakigarria izan zen behin betiko ezetza emateko, zerka barruko hiribilduarentzat eraikin arriskugarria izan zitekeelakoan; frantziskotarrek eraikin hori utzi zutenean, hiriak hartu zuen beretzat etxeak, 1570eko abuztuaren 23ra arte, Donostiako alkateak egun horretan eman baitzizkion berriz giltzak lehengo jabeari; litekeena da 1569-1570 bitarte horretan soldaduak izatea barruan. Gainera, kasualitatea bada ere, Aguraingo seme bat (“Prudencio de Araya, vecino de Salvatierra”) agertzen da lekuko gisa elizaren eta hiriaren arteko auzian (Lasa 1982: 123-124); horrek erakusten du, gutxienez, bazela garai hartan Donostian Barrundia eskualdeko jendea.

amoreminez<sup>1</sup> tentadua;<sup>2</sup>  
 donzella batec edegui<sup>3</sup> cidan<sup>4</sup>  
 oy<sup>5</sup> neure bioz coytadua.  
 Egun ascotan nic eguin nagon<sup>6</sup>  
 modu ascotan erregua,  
 arren, osatu nenguiala<sup>7</sup>  
 a liçan<sup>8</sup> guero<sup>9</sup> medicua.

5

<sup>1</sup> amoreminez: ‘maiteminez’; Berpizkundeko poesian topiko ezaguna da “amorez minduta” egotea (Petrarca, Garcilaso...): maitalea “amoreminez” dago, ezin duelako lortu maitatuaren amodioa (arrazoia askotarikoak izan daitezke). Testuan hitz honek dituen agerraldi batzuetan esanahia hurbilago bide dago etimologiatik (AL: 1145r, A7: 78, A16: 47, B10: 12, B21: 2 eta B23: 118); aldiz, A11: 8 lerrokoa egun maiteminak duen adiera arruntari dagokio.

<sup>2</sup> içan ninçan / amoreminez tentadua: XVI. mendean, gisa horretako egitura pasibo birkonposatuak Betolatza eta Lazarragaren testuetan baizik ez dira lekukotzen: *denpora baten içan ninçan / amoreminez tentadua* (A21: 1-2), *Laztanagana oy içan ninçan / us eguin baga guiadua* (A21: 20-21), *neure aragui gaxtoaganic / içan ninçan ni tentadua* (A21: 28-29); *Sinistetan dot [...] gueure Iaunagâ, zeyna izan çan concebidua Espiritu Santuen obráz* (Bet 93). Izan ere, garai hartako ekialdeko testuetan egiturako aditz nagusiak (hots, partizipoak) ez du sekulan artikulurik eramatzen: *Orduan compli cedin Hieremias prophetáz erran içan cena* (Leiz Mat. XXVII, 9), (*co)nçebitu yçan baiçen Spiritu Sandu aren ...* (Credo zaharra, Satrustegi 1990). Lazarragaren testuan, artikulurik gabeko aldaera geroaldiko pasiboan baizik ez da lekukotzen: *Nic çu andiro laztan içana / an içango da probadu* (B13: 5-6), *ene parteti içango çara / justiciara citadu* (B13: 3-4).

Agenteari dagokionez, gehienetan instrumentalean da, bai Lazarragaren testuan, baita garai hartako gainerateko testuetan ere: *denpora baten içan ninçan / amoreminez tentadua* (A21: 1-2); *Iustificatu içan da sapientiá bere haourréz* (Leiz Mat. XI, 19) ‘la sapience a été justifiée par ses enfants’; noiztenka ablatiboa ere agertzen zaigu Lazarraga eta Leizarragaren testuetan: *neure aragui gaxtoaganic / içan ninçan ni tentadua* (A21: 28-29), *niganic ancietea* (A24: 134); *Cuhurretaric diligentqui informatu içan cen demboraren araura* (Leiz Mat. II, 16).

<sup>3</sup> edegui: ‘edeki, idoki, erauzi, kendu’; eskuizkribuan lau aldiz aurkitu dugu aditz hau, forma desberdinatan: *guri bicio edetera* (AL: 1153r), *buruac edetera* (AL: 1153v), bai eta oy neure bioz amoroosoau / *idogui* cidan bertati (A14: 23-24), *donzella batec edegui cidan / oy neure bioz coytadua* (A21: 3-4), edo *nidoçaçu nagoan penarean* (B3: 66).

<sup>4</sup> cidan: *Cidan* forma ez da hain bakana eskuizkribuan (cf. *cidan* 9 aldiz eta *eustan* 3 aldiz).

<sup>5</sup> oy: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira oy eta oyta betegarriak (bakanka oy eta), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>6</sup> eguin nagon: ‘egin nion’.

<sup>7</sup> osatu nenguiala: ‘osa edo senda nintzala (hark ni)’.

<sup>8</sup> liçan: ‘zen’; XVI. mendeko autore gehienek *l-* arrizkidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emaiteaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joleala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequielo lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan erregua, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Erresuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico*

Errespuesta emayten cidan liçala <sup>10</sup> nesca onestua, ayta-amaac <sup>11</sup> liqueoela <sup>12</sup> berebicico <sup>13</sup> afrontua. <sup>14</sup>  Ni, barriz, guiçon desdichaduau bici nax bici penadua. <sup>15</sup>  Egun batean artu neben neure ballesta armatua;	10  15
--	--------------

afrontua (A21: 9-13), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdatu* (Etx III, 17), *Fray Vicente esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

<sup>9</sup> *a liçan guero*: ‘hura baitzen, hura zenez’; *gero adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki*. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n guero* horietako bat da hau.

<sup>10</sup> *liçala*: ‘zela’; ikusi A21: 9 bertso-lerroko oharra.

<sup>11</sup> *ayta-amaac*: Mendebaldeko zenbait testu zaharretan (Kapanagarena eta Frai Bartolomerenak, kasurako) inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko markak (*-an* eta *-ak*) izenari erabat asimilatu gabe geratzen dira. Lazarragaren eskuizkribuan ere hala gertatzen da, *-a* amaiera duten hitzek agerian uzten dutenez, bokal bikoitz grafikoak agertzen baitituze. Aurkitu ditugun salbuespen bakarrak *ezpatac* (AL: 1153v) eta *bervac* (AL: 1154v) dira; *canpaac* (A28: 57) salbuespen den ala ez ezin da ziur baiezttatu, ez baitakigu oinarrizko forma *canpa* ala *canpaa* den (Landuccik *campae* dakar: “badajo de campana, *campae mia*”).

<sup>12</sup> *liqueoela*: ‘egingo ziotela’.

<sup>13</sup> *berebicico*: ‘oso handia’; cf. *OEH*ren iruzkina (s.v. *berebiziko*): “Documentado en textos meridionales desde finales del s. XIX”. Adiera honetan, Beovide da lehenengoa.

<sup>14</sup> *afrontua*: ‘kargu-hartzea, errieta’; cf. *DAut*, s.v. *afruenta o afrentu*: “Protesta, requerimiento y amonestación hecha judicialmente”. Cf. baita *afrontaduric* ‘iraindurik, haserreturik’ (A10: 30) eta *afrontadu* ‘iraindu, haserretu’ (A26: 4), baina *afrontadu* ‘iraindurik sentitu, lotsatu’ (B14: 26). *OEH*ren arabera gehienbat ekialdeko tradizioko hitza da; Kapanagak behin erabiltzen du (bestetan *afrenta*).

<sup>15</sup> *bici nax bici penadua*: Hiru lekutan dago eskuizkribuan egitura hau: *bici nax bici penadua* (A21: 15), *bici nax bici contentua* (A21: 33) eta *bici nax bici guztiz estrañua* (B17: 51). Bi eratara uler daitekeela uste dugu: 1) ‘bizi dut bizitza penadua / kontentua / estrainua’; *bizi* NOR jokabidean izan arren, horren objektua litzateke *bici penadua / bici contentua / bici guztiz estrañua*. 2) ‘bizi naiz penadurik / kontenturik / estrainurik’; interpretazio honetan, bigarren *bici* ere aditza litzateke, lehenengoaren errepikapen indargarria, eta ondoren datorrena aditzondoa; B17ko lekukotasunean zaila egiten zaigu bigarren interpretazio hau defendatzea, eta lehenengoa hobetsiko genuke, beste hauek ere kontuan izanik: 1) Eskuizkribuan badira beste aditz batzuk ere, gaur iragankorrak, NOR jokabidean baina objektuarekin (*beste amore bilatuco nax* A4: 11, *remedioa bila citecen* A11: 33, *escatu cidin arpa bat* AL: 1142v). 2) Gaztelaniaz ugari dira *CORDEn* aurkitu ditugun “vivo una vida + adjektiboa” ereduiko esaldiak: “vivo una vida enojosa y desesperada” (Fernando de Mena, 1587, *Traducción de la Historia etiopica de los amores de Teágenes*), “vivía una vida contenta y descuidada” (Miguel de Cervantes, 1605, *El ingenioso hidalgo don Quijote de la Mancha*), “vivo una vida desierta” (Juan Valladares de Valdelomar, 1617, *Caballero venturoso*), “vivía una vida bienaventurada” (Manuel Rodríguez, 1684, *El Maraño y Amazonas. Historia de los descubrimientos*).

çaguita <sup>16</sup> çorroz bat ifini nagon berar gaxtoaz <sup>17</sup> ganchitua. <sup>18</sup>	
Laztanagana oy içan ninçan us eguiña baga guiadua; <sup>19</sup>	20
camaraetan <sup>20</sup> idoro neben santua leguez pintadua. <sup>21</sup>	
Neure aoau ifini neben palabra dulcez ganchitua;	25
bere cençuna ifini nagon promesa ascoz poblado[a];	
neure aragui gaxtoaganic içan ninçan ni tentadua. <sup>22</sup>	
Ecin sufrido neyquean <sup>23</sup> biciagati <sup>24</sup> tormentua;	30
pena artaric ascatu nau ta bici nax bici contentua. <sup>25</sup>	

—Donostiacio San Franciscuan<sup>26</sup>

<sup>16</sup> çaguita: ‘gezi’; cf. lat. *sagita*. Hegaldoko lehen agerraldiak bide dira Lazarragaren eskuizkribukoak.

<sup>17</sup> berar gaxtoaz: ‘pozoinaz’; *OEHk* ez dakar adiera hori, baina *CORDEn* testu honetakoaren antzeko adibide batzuk aurkitu ditugu, denak Gonzalo Fernández de Oviedoren *Historia general y natural de las Indias* lanean (1535-1557): “mas entre aquestos indios, ningund oro se halló, sino **mala hierba en sus flechas**, e los indios del río Grande son muy guerreros e tienen **mala hierba en sus flechas** eta de muy **mala hierba en las flechas** que los indios allí usan”.

<sup>18</sup> ganchitua: ‘gantzutua, igurtzia’; cf. Lcc “Enseuada cosa, *gauça çias ganchitua*”.

<sup>19</sup> içan ninçan / us eguiña baga guiadua: Egitura pasiboaz ikusi A21: 1-2 lerroetako oharra.

<sup>20</sup> camaraetan: ‘ganbaran, logelan’; cf. Lcc “cámaras, *camarac*”, “çelda, o cámara, *camarea, ynistrea, guelea*”. Eskuarki leihorik gabeko gela da, barrura ematen duena.

<sup>21</sup> santua leguez pintadua: ‘aurpegia kosmetikoz margoturik, elizetako sainduen irudiak izaten diren moduan’. Ondo aztertu dira emakumeek XV-XVII. mendeetan aurpegiera aldatzeko erabiltzen zituzten apaintze-lanak: ilea argitu, aurpegia zuritu, ezpainak eta masailak gorritu, hortzak zuritu, betileak eta bekainak belztu eta apaindu... Hemen aditzera eman nahi du bere zain zegoela neskatoa, mutilaren gustukoa izateko apainduta.

<sup>22</sup> neure aragui gaxtoaganic / içan ninçan ni tentadua: ‘nire haragi gaiztoak tentatu ninduen’; Lazarragarenean bi bider aurkitu dugu ablatiboa subjektu lanetan: *neure aragui gaxtoaganic / içan ninçan ni tentadua* (A21: 28-29) eta *niganic ancietea* (A24: 134). Berriz ere, egitura pasiboaz ikusi A21: 1-2 lerroetako oharra.

<sup>23</sup> Ecin sufrido neyquean: ‘ezin izango nuen sufritu’.

<sup>24</sup> biciagati: ‘bizi guztiko’.

<sup>25</sup> bici nax bici contentua: Ikusi gorago (A: 15 bertso-lerroan) egitura bera, eta han emaniko azalpena.

agoan guiçon soldadua:	35
doncelleoni eguin jacac <sup>27</sup>	
izta-ondoan <sup>28</sup> anditua. <sup>29</sup>	
Nic lanceteaz jo diat <sup>30</sup> eta	
oy ic eçarroc enplastua.— <sup>31</sup>	

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**27** pobladua] esk. *poblado*. Irakurketa paleografikoki garbia eta zalantzarak gabea da, baina hala errimak nola sintaxiak eskatzen dute -a gehitzea. **39** oy] y zerbaiten gainean idatzita dago (azpian, agian, *ora*-). || Donostiac ... enplastua] azken sei lerroak eskuineko zutabeen idatzi dira, tinta berriarekin baina poemako gainerakoaren letrakera berdin-berdinarekin.

---

<sup>26</sup> *Donostiac San Franciscuan*: Donostiako frantziskotarren komentu ezagunena 1606an sortu zen “El Churratal” lekuan, Atotxan, gaurko Zuhaitz orubearen, baina Joan Perez Lazarragakoa 1605.ean zendu zen. Frantziskotarrek 1569an Donsotiako San Martin (Amara) inguruan zabaldu zuten eliza izan liteke poema honetan aipatzen dena.

*Franciscuan* formari dagokionean, izen berezi zenbaitek artikulua hartu izan du, mendebal-erdialdeko tradizioan, nagusiki. Erliejozko izenekin gertatzen dela dirudi, santu eta abarrenekin (*Jesusa, Frantziska, Satanasa...*). Lazarragarengandik hurbil, garaiz zein lurreldez, Betolatza aipa daiteke (*Jandone Periari...*). Eskuizkribuan bitan ditugu halakoak: honako hau eta *Jandone Periac* (B29: 87).

<sup>27</sup> *eguin jacac*: ‘egin zaiok’.

<sup>28</sup> *izta-ondoan*: ‘izterrondoan’; cf. *OEH*, s.v. *itzondo*: “**itzondo** (BN-baig ap. A), **istondo** (Sal, R ap. A; T-L). Ingle”.

<sup>29</sup> *anditua*: Haurdun dagoela adierazteko.

<sup>30</sup> *jo diat*: Hika ari da, gizonezkoa gizonezkoari.

<sup>31</sup> *Nic lanceteaz jo diat eta / oy ic eçarroc enplastua*: *lantzeta* odola ateratzeko edo larrua ebakitzeko erabiltzen den lanabes zorrotza da; hemen (eta A19: 52 bertso-lerroan) metaforikoki erabilita dago, jakina, gizonezkoak hankartearen duena adierazteko. Hortaz, berak jo badu lantzetaz, esaten ari da berak utzi duela haurdun, baina orain, zauria berak eragin ondoren, besteak sendatzea nahi duela (*ic eçarroc enplastua*), hots, soldaduak hartzea haurdun dagoen neskatoa.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A21 – Denpora baten içan ninçan...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A22

### *Sonetos para cantar el día del Corpus*

*Soneto* izenarekin aurkeztu dituen arren, *octava castellana* edo *copla de arte mayor* dira estrofa guztiak: ABBAACCA errima-egiturako dodekasilaboak (eta endekasilabo batzuk, eta are hamahiru silabakoak). Antzekoa gertatzen da eskuizkribuko beste bi lanetan ere: A20 *Soneto contra el mundano imundo* eta B21 *Soneto: Estrella refulgente parescía....*

Nadab eta Abihu anaien historia Biblian kontatuta dago (Lebitarrena 10, 1-3):

Aaronen seme Nadabek eta Abihuk, nork bere errautsontzia harturik, bertan sua egin eta intsentsua ezarri zuten; horrela, Jaunak agindu gabeko eskaintza aurkeztu zioten. Orduan, Jaunaren aurretik sua atera eta kiskali egin zituen; hantxe bertan hil ziren.

Moisesez Aaroni esan zion: “Horretaz ari zen Jauna hau esatean: Hurbiltzen zaizkidanek nire santutasuna errespetatu behar dute eta ni ohoratu herri osoaren aurrean”.

Moisesen hitz horien argitan, ondo ulertzen da poemaren helburua: Nadab eta Abihu anaien zigorra eredugarri izan behar da, bekatuen aitortza egin gabe meza esan eta ematen dutenentzat, eta Jauna hartzen dutenentzat. Mezua lotuta dago, jakina, Corpus eguna hain zuzen Eukaristiaaren eguna izatearekin.

Bestalde, Corpus eguna jaiegun handia da munduko herri askotan eta euskal herri askotan, eta leku askotan egiten dira egun horretan antzezpenak eta dantzak elizaren inguruan eta are eliza barruan. Spainian XV. mendeaz geroztik ezagutzen dira ikuskizun horiek, eta XVII. mendean hartu zuten indarrik handiena; 1560az geroztik dugu Oñatiako Corpus eguneko dantzarien berri, eta badakigu lehen inguruko herri askotan egiten zirela dantzak. Dirudienez halakoren batean kantatzeko idatzi zituen Lazarragak lerro hauek.

<1194r> Sonetos para cantar el día del Corpus, en el qual se celebra la fiesta del Sanctísimo Sacramento; y trata del acatamiento y grandísima reberencia que los cristianos devén tener quando acompañan al Santísimo Sacramento o le rescriben en sus cuerpos.

Echos y compuestos por Laçarraga.

*Comienza el primer soneto,  
y trata del castigo que dio Dios a los hijos de Aaron*

Nadab e Abiut, danbos<sup>1</sup> hermanos  
estaban en el templo a Dios honrando,  
y tanbién el pueblo allí sacrificando.  
Y ellos con el incienso en las sus manos,  
atoles la pereza pies y manos  
de no hacer fuego nuebo, como es mandado,  
mas encienden de aquel fuego qu'es bedado  
y allí echan del incienso muchos granos.

5

Por ser aquestos dos tan atrevidos,  
luego Dios permitió bisiblemente  
salir un fuego allí muy de repente,  
el qual quemó a los dos mal corregidos.<sup>2</sup>  
Turbóseles a todos los sentidos  
de ber cómo los ha Dios castigado.  
Por cierto<sup>3</sup> Dios lo a bien executado<sup>4</sup>  
y con justa causa fueron bien pugnidos.<sup>5</sup>

10

15

<1194v> No niego yo el pecado no fue grabe,  
pues qu'el castigo fue tan riguroso,  
pero diría yo qu'es más fragoso<sup>6</sup>

<sup>1</sup> *danbos*: ‘biak’; *ambos*-en aldaera da (*CORDEn* 53 aldiz lekokutzen da).

<sup>2</sup> *mal corregidos*: ‘gaizki bideratuak, gaizki hezitakoak (eta, beraz, zigorra merezi dutenak)’; *CORDEn* dozena bat adibide aurki daitezke; hauxe da garbienetako bat: “no tendría en paz al Perú porque la gente que en él vivía eran **mal corregidos**, absolutos en hacer su voluntad” (Pedro Cieza de León, c 1553 - a 1584, *Las guerras civiles peruanas*).

<sup>3</sup> *Por cierto*: ‘zinez’; cf. *DAut*, s.v. *cierto*: “Adverbio de que se suele usar cuando se alaba o vitupera alguna acción”.

<sup>4</sup> *lo a bien executado*: ‘lo ha ejecutado bien’, hitz-ordena aldatuta, aurreko lerroan bezala (*los ha Dios castigado*).

<sup>5</sup> *pugnidos*: ‘zigortuak’; lekukotasun ugari ditu *pugnir* ‘punir’ formak *CORDEn*.

<sup>6</sup> *fragoso*: ‘larria, latza’; cf. *DAut*, s.v.: “Áspero, intrincado, lleno de quebradas, malezas y breñas”. ‘Zaratatsu’ adiera *DRAE* 1803-n agertzen da lehenbizikoz (eta **fragor** sarrera *DRAE* 1791-n). *CORDEn* 1600 arteko lekukotasun gehienek adiera fisikoa dute (lekua, lurra, bidea, mendia, aldapa, ekaitza, itsasoa, ibaia, etab.); zenbaitetan ‘zaratatsu’ adiera du (gatazka, tximista), eta kasu bakan batzuetan ematen du irudizko zentzua duela, hala nola: “Sólo quiero, como digo, / que nadie vaya conmigo / (endemás tan mala casta); / y partir / y entre desiertos bivir, / pues lo quiere así mi suerte, / para mejor

pecado, y pecador intolerable, 20  
los que oy con gran malicia entrañable<sup>7</sup>  
consagran, dizen misa y se comulgan,  
y jamás de sus pecados no se purgan,  
y siempre en esto biven muy afables.

Por este atrevimiento ellos pagaron 25  
con sólo dar las vidas a Dios padre,  
el qual es poderoso e inefable,  
y ansí de pena eterna se libraron;  
y aunqu' estos para siempre se salvaron,  
no te condenes tú a perpetua pena: 30  
adrieça<sup>8</sup> tu conciencia y ponla buena,  
ten ojo y mira bien por qué pagaron.

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** acatamiento] esk. *acatami-* laburtua, laburdura dela adierazten duen zeinuarekin. || christianos] esk. *xpianos.* || Aaron] aurrean beste izen bat tatxatua; agian *aaroin.*      **8** muchos] aurrean beste zerbait tatxatuta; *ques* edo.      **11 un]** aurrean beste zerbait tatxatuta; *q* edo.      **17 el]** aurrean letra bat, tatxatuta. **21** malicia] ondoren letra bat, tatxatuta.      **22** consagran] aurrean hitz bat, tatxatuta; berriz *malic-*, agian. **24** esto] s beharbada beste letra baten gainean idatzita.      **25** atrevimiento] esk. *atrevimi-* laburtua, laburdura dela adierazten duen zeinuarekin.

---

despedir / la esperanza por servir / aquella **fragosa** muerte” (Martín de Santander, 1550, *Comedia Rosabella*).

<sup>7</sup> *entrañable*: ‘sakonekoia’; normalean zentzu positiboa izaten du (cf. *DAut*, s.v.: “Íntimo, mui estrecho y afectuoso”), baina *CORDEn* bada honen antzeko erabileraren bat edo beste: “con mas entrañable malicia de maliciosas entrañas” (Luis Escrivá, 1537, *Veneris tribunal*).

<sup>8</sup> *adrieça*: ‘senda ezazu, osa ezazu’; *adrezar* aditzetik. Cf. *DAut*: “Lo mismo que Aderezar. Véase. Es voz de poco uso, porque ya se dice Aderezar”. Eta s.v. *aderezar*: “Vale tambien remendar o componer alguna cosa, que estaba rota u descompuesta”.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A22 – Sonetos para cantar el día del Corpus” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A23

### Jaun Cerucoay emaiten jagot...

Hitzak ondo ulertzen diren arren, ez da erraza poema honen haria jarraitzea, batetik, erreferentziaren bat falta zaigulako (azaldu ez den zerbaiti buruz ari dira), eta, bestetik, zaila delako jakitea noiz ari den pertsonaia bakoitza hitz egiten. Dirudienez, poeta gaztearen eta Elena *dama galantaren* arteko elkarrizketa da. Gure interpretazioaren arabera, mutilak poema bat idatzi du neskaren inguruan, ziur aski haren kapa bat aipatuaz; neskari ez zaio batere gustatu eta gezurtitzat jo du poeta; baina mutilak ere kontua argitzeko gogoa du, zintzo jokatu duela uste baitu. Gainera, neska limurtzen ahalegintzen da, ingurueta ederrena dela esanez; neskak, ordea, ez du halakoetarako gogorik, eta mehatxu egiten dio, esanez berak ere idatz ditzakeela koplak. Mutilarenak dira lehenengo hitzak.

<1195r> —Jaun Cerucoay<sup>1</sup> emaiten jagot<sup>2</sup>  
oy<sup>3</sup> asco gueraciari,<sup>4</sup>  
deseo neben ocasio bat  
cerren nagoan jaquinic.<sup>5</sup>

Nic orain diot inox ez çala<sup>6</sup>

5

<sup>1</sup> *Cerucoay*: ‘Zerukoari’; -ai darabil datibo singularra adierazteko, Landuccik bezala.

<sup>2</sup> *emaiten jagot*: ‘ematen diot’.

<sup>3</sup> *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>4</sup> *asco gueraciari*: ‘eskerrik asko’; cf. forma bera baina beste adiera batekin, *gueraciea* ‘grazia, trebetasuna’ (A6: 30 eta A28: 140). Barrutiak eta Landuccik darabilte *gerazia* aldaera, bakoitzak behin.

<sup>5</sup> *deseo neben ocasio bat / cerren nagoan jaquinic*: ‘zeren etorri baitzait desio nuen aukera bat’.

*jaquinic*: ‘niretzat izanik, niretzat delarik’; *jaqui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa edo aditzoina aditz nagusitzat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Donzellea, cegati çaoz / enegaz enojaduric, / çurequin ene aitasuna / horrela anci jaquinic?* (AL: 1142v), *Sirena bere ainbeste dabil, / besteoc leguez galduric, / Doristeori on derechala, / Silvero anci jaquinic* (AL: 1145v), *Esperancea galdu jaquinic / bici çan, aseguin bague* (AL: 1145v), *Acorda çatez ceyn on derechudan, eta bay nola çabilcen engañaduric, igui çabenaren acean, ene amorioau ancitu jaquinic* (AL: 1152v), *Tortolachoa ebilten da / bacochic maiaz ilean, / bere laguna galdu jaquin da / tristeric soledadean* (A16: 73-76), *Jaun Cerucoay emaiten jagot / oy asco gueraciari, / deseо neben ocasio / cerren nagoan jaquinic* (A23: 1-4), *Oyta capa bat emunagaiti / ez nax gueratu piloxic; / inori emun bajagot bere, / ez nago damu jaquinic* (A23: 57-60), *Donzella batec joci ceban / Iruneco calean, / niri ondo costa jaquin / Guipuscoaco lurrean* (B32: 21-24). Beti iragangaitz gisa agertzen da eta beti datibozko argumentu batekin. Gure ustez, \*edin aditzaren aldaera bipersonala (NOR-NORI) baizik ez da.

<sup>6</sup> *çala*: ‘zela, dela izan’; XVI. mendeko testuetan, iraganeko aditz trinko telikoek balio burutu eta burutugabeak har ditzakete. Aditz estatiboak, berriz, gehienetan balio burutugabearekin agertzen

ipuiçarric, guçurric, <sup>7</sup> cegaiti gauça eguinic ezta munduan secretocoric.  Nic au onela esateraco <sup>8</sup> asco da errazoaric; oy gueiago çufrietaco <sup>9</sup> eztot nic pacenciaric. <sup>10</sup>  —Poeta gazte jaquinduna, <sup>11</sup> ce çaoz engañaduric <sup>12</sup> çu pagaceco <sup>13</sup> faltaco dala nigan entendimenturic.  Eguin doçuna eguiteraco <sup>14</sup> ez doçu errazoaric, cerren nic çuri eman ezticut artaco ocasioric, ez gueiago <sup>15</sup> nic eguin ez dot	10  15  20
--	------------------------

---

zaizkigu. Orain arte esan izan denaren kontra, euskara arkaikoko testu zenbaitetan iraganeko trinko estatibo batzuek balio burutu argia dute. Azpimarratu dugun adibidea horietarik bat da, perpaus honetan *izan* aditzak balio burutua baitu: “nik orain esaten dut inoiz ez zela / dela izan...”.

<sup>7</sup> *ipuiçarric, guçurric*: Bi interpretazio izan daitezkeela uste dugu: 1) Testuan eman dugun puntuazioarekin aditzera eman dena: *ipuiçarric* eta *guçurric* sinonimoak balira bezala; izan ere “cuento, embuste” da *OEHn ipuitzar* hitzarentzat bildu den esanahia. 2) Bi hitzen artean komarik ezarri gabe (*iñox ez çala ipuiçarric guçurric*) aditzera emango litzatekeena: ‘inoiz ez zela ipuintzarrik gezurrezkorik’; bigarren interpretazio honetan, *ipuiçarra ‘atsotitza’* litzateke, eta bat egingo luke gaztelaniazko zenbait atsotitzekin (“Cien refranes, cien verdades”, “No hay refrán que no diga una verdad, y una no, es porque dice dos”, “Quien habla por refranes, es un saco de verdades”, “Refranes que no sean verdaderos y febreros que no sean locos, pocos”).

<sup>8</sup> *esateraco*: ‘esateko’.

<sup>9</sup> *çufrietaco*: ‘sufritzeko’; ç da, zalantzarik gabe, lehenengo letra. Gaztelaniaz ere horrela izan zitekeen; cf. *DAut*: “ZUFRIR. v.a. Lo mismo que *sufrir*, que es como se dice”. Eskuizkribuan hiru aldiz idazten da *çufri-* (AL: 1154r, AL 1154v eta A23: 11) eta hamabi aldiz *sufri-* (horietako bat gaztelaniazko testu batean).

<sup>10</sup> *pacenciaric*: Euskaraz beti *pacencia-* forma (A23: 12, A27: 16 eta B10: 5) erabiltzen da Lazarragaren eskuizkribuan; erdaraz, ordea, *paciencia* (A18: 40).

<sup>11</sup> *jaquinduna*: ‘maltzurra’; cf. Lcc “Astuto, *jaquinduna, astutoa*”.

<sup>12</sup> *ce çaoz engañaduric*: ‘ez zaitez egon engainaturik’, agintera; *çaoz* eta *çaoça*, bietara erabiltzen du. Ikusi baita *Ez daquicunoc jaquin eguiçu, / ce çaoz engañaduric, / cerren [...]* (A14: 38).

<sup>13</sup> *çu pagaceco*: ‘(pentsatuaz) zuri ordainak emateko, zuri (merezi duzun moduan) erantzuteko’.

<sup>14</sup> *eguiteraco*: ‘egiteko’.

<sup>15</sup> *ez gueiago*: ‘ez eta ere’.

çure basoan egurric; <sup>16</sup>	
secula barriz nic ez neguian	
oy çure contra bervaric.	
—Obra barri bat ey <sup>17</sup> daucaçu	25
nigaiti conponiduric; <sup>18</sup>	
linda damea, <sup>19</sup> asco deusut	
nic aregaiti <sup>20</sup> esquerric. <sup>21</sup>	
—Mesedeori <sup>22</sup> serbietaco	
eztot nic intereseric. <sup>23</sup>	30
—Orretan, bertan <sup>24</sup> oy bear doçu	
gueratu satisfecharic. <sup>25</sup>	

<sup>16</sup> *nic eguin ez dot / çure basoan egurric*: ‘ez dut zurekin anker jokatu’, edo, agian, ‘ez naiz zure arazoetan sartu’. Gaztelaniazko “hacer leña del árbol caído” esamoldearekin lotuta ulertu dugu.

<sup>17</sup> *ey*: ‘ei, omen’; partikula honen lehenengo lekukotasuna *Arrasateko Erreketan* aurkitzen da (*Madalenaan an ei dauça*, TAV 3.1.7, 83), baina XIX. mendera arte oso gutxi lekukotzen da, ziur aski testu motengatik (dotrinak, otoitzak...). Cf. *OEH*, s.v.: “Documentado sólo en textos vizcaínos. Atestiguado ya en los Cantares de la quema de Mondragón, hasta la segunda mitad del s. XIX los ejemplos son, sin embargo, muy poco frecuentes”. Lazarragarenear bederatzia aldiz aurkitu dugu: A12: 2, A:12: 4, A23: 25, A24: 2oh, A27b: 5, A28: 2, A28: 10, B29: 10, B29: 24.

<sup>18</sup> *nigaiti conponiduric*: ‘niri buruz konponidurik’, eta ez ‘nik konponidurik’.

<sup>19</sup> *linda damea*: Gaztelaniazko XVI. mendeko literaturan askotan erabili da *linda dama* epitetoa (ikusi *CORDE*); euskaraz, ordea, ez da hain arrunta, baina behin baino gehiagotan agertzen da *Neska ontziratua* baladaren Foruko (ik. Lakarra et al. 1983: II, 135-136) eta Derioko (ik. Arejita et al. 1985: 45-46) aldaeretan. Lazarragaren eskuizkribuan, zortzi aldiz aurkitu dugu: AL: 1143r, AL: 1144r, A1: 3, A4: 13, A5: 1, A16: 35, A23: 27, A23: 73.

<sup>20</sup> *aregaiti*: ‘haregatik’; testuan hiru lekutan agertzen da: *aregayti* (A14: 29) eta *aregaiti* (A23: 28 eta B7: 23). Ez dugu Lazarragaren besta adibiderik aurkitu, ez *OEHn*, ez *OEHren* corpusean, ezta Klasikoen Gordailua ere; badira *aregaitik* batzuk, baina denak XIX-XX.ekoak.

<sup>21</sup> *asco deusut / nic aregaiti esquerric*: ‘eskerrik asko ematen dizut nik harengatik’; bi aldiz aurkitu dugu eskuizkribuan \**edutsi* aditza ‘eman’ adieran: *asco deusut esquerric* (A14: 14) eta *Linda damea, asco deusut / nic aregaiti esquerric* (A23: 27-28), baina, funtsean, esapide bakarraren aldaerak dira. Lazarragarenetik kanpo, beste behin baizik ez dugu aurkitu lekukotua esanahi horrekin, Zumarragaren gutunean (1537) hain zuzen: *esquerric asco devstet* (*Contr. 99, 40.I.*). Adiera bera zuen \**eradun-ek* ere antzina; cf. *Ceren hala daraucate emaztari hoguenic* (Etx III, 34), *jatean drauco viçia* (M. Aldaz, Iruñea, 1609) edo *bere arimak derauka egiteko* (Ax 58), besteak beste.

<sup>22</sup> *Mesedeori*: ‘berori’, gaztelaniazko ‘(su, vuesa, vuestra) merced’ alegia. *OEHn* bildutako adibide guztiekin (s.v. *mesede* 2) aurretek edo posesiboa (*zure, zeure*), edo erakuslea (*orren, aren*) dute, hemen ez bezala. Eskuizkribu honetan ere badira halako bi: *çure mesedeorr* (AL: 1138r), *Aen Mesedea* (AL: 1142v).

<sup>23</sup> *intereseric*: ‘interesik’; *intereseric* forma agertzen da A14: 48 bertso-lerroan ere. Euskaraz ez dugu aurkitu forma horren beste lekukotasunik, baina gaztelaniaz *interese* hitza *interés* ezagunagoaren baliokidea da. Cf. *DAut*, s.v. *interese*: “Lo mismo que *interés*”.

<sup>24</sup> *bertan*: ‘berehala’.

Oninbatenaz <sup>26</sup> adi naçaçu, badoçu sentimenturic; çure entendimentua bego guchitan iraçarric. <sup>27</sup> Bere burua oy bear leuque <sup>28</sup> efini corregiduric lenaengo, ta guero juzgadu bestegan baliz tacharic, edo, içanagayti bere, eugui encubriduric. Au eguiteco çugan asco da, dama galanta, causaric, çuri eguiten ez jaçun guero <sup>29</sup> ezertan agrabioric. —Errazoaric ez dauçaçu niri ifinten <sup>30</sup> coplaric. Ene capea oial ona da, neure diruac costaric,	35 40 45 50
--	----------------------

<sup>25</sup> *satisfiecharic*: Adjektiboak genero femeninoaren marka hartzen du, baita *-ric* morfema eransten zaionean ere. Ikusi *mansaric* (A8: 4, A8: 12, A8: 26, A10: 70), *lindaric* (A17: 50), *enojadadic* (A17: 58) eta *satisfiecharic* (A23: 32).

<sup>26</sup> *Oninbatenaz*: ‘honenbestez’; hiru formatan agertzen da halako monoptongazioa testuan zehar: *orrinbat* (A26: 70), *cinbat* (A26: 79), *oninbatenaz* (A23: 33 eta 85); baina *oneinbat* (AL: 1152v, A3: 23, B3: 51), *oneinbatenaz* (A24: 9) eta *oneinbategaz* (B2: 7, B7: 17). *OEHn oneinbestegaz* (*BulaAl* 307) besterik ez da agertzen.

<sup>27</sup> *çure entendimentua bego / guchitan iraçarric*: ‘izan burua zabalik, nik esaten dizudana onartzeko’; bi lerro hauetako hitzak berdin-berdin agertzen dira A16: 71-72 lerroetan ere.  
*iraçarric*: *Iratzarrik* forma XIX. mendera arte ez zegoen lekukotua (cf. *OEH*, *IRATZARRIRIK*, s.v. *iratzarri*), baina eskuizkribuan hiru aldiz agertzen da (A16: 72, A23: 36 eta A28: 160), eta bi aldiz *iraçarriric* (AL: 1152r, B23: 16).

<sup>28</sup> *Bere burua oy bear leuque*: zutik *berorira* aldatu da, solaskidea aldatu gabe. Gauza bera egiten du hiru poematan: A7: 119, A16: 35 eta A23: 37.

<sup>29</sup> *eguiten ez jaçun guero*: ‘ez baitzaizu, ez zaizunez’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n guero* horietako bat da hau.

<sup>30</sup> *Errazoaric ez dauçaçu / niri ifinten*: *Errazoa* (izan/eduki) esamoldeak bi joskerak (-*tzea* eta -*tzen*) onartzen ditu testuan, ohiko *-tze(ra)ko* daraman egituraz gainera: *onela penaetan* [azpian *penaetea*] / *ez doçu errazoaric* (A16: 7-8) eta *Errazoaric ez dauçaçu / niri ifinten coplaric* (A23: 47-48), *ez neuque errazoaric / icenau borraetea / ez gueiago ... ancietea* (A24: 141-144).

iñoenari ezteusala <sup>31</sup>	
bapere inbidiaric.	
Ene capaac <sup>32</sup> egon doaz <sup>33</sup>	
ayn ondo toleztaduric,	
nola baçuen <sup>34</sup> saboianea, <sup>35</sup>	55
gauça usayz beteric. <sup>36</sup>	
Oyta capa bat emunagaiti	
ez nax gueratu piloxic; <sup>37</sup>	
inori emun bajagot bere,	
ez nago damu jaquinic. <sup>38</sup>	60

<sup>31</sup> *ezteusala*: -la adberbiala.<sup>32</sup> *capaac*: Mendebaldeko zenbait testu zaharretan (Kapanagarena eta Frai Bartolomerenak, kasurako) inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko markak (-an eta -ak) izenari erabat asimilatu gabe geratzen dira. Lazarragaren eskuizkribuan ere hala gertatzen da, -a amaiera duten hitzek agerian uzten dutenez, bokal bikoitz grafikoak agertzen baitituzte. Aurrkitu ditugun salbuespen bakarrak *ezpatac* (AL: 1153v) eta *bervac* (AL: 1154v) dira; *canpaac* (A28: 57) salbuespen den ala ez ezin da ziur baiezttatu, ez baitakigu oinarrizko forma *canpa* ala *canpaa* den (Landuccik *campae* dakar: “badajo de campana, *campae mia*”).<sup>33</sup> *egon doaz*: ‘egon ohi dira’.<sup>34</sup> *baçuen*: Badirudi eskuizkribuan *batzu* dela oinarrizko gisa erabiltzen den forma. Absolutibozkoetan *batzu* forma bakarrik darabil (AL: 1139v, AL: 1141v, AL: 1146v, AL: 1154v), Hegoaldeko testu zaharretan agertzen ez dena; ikusi *OEHk* zer dioen (s.v. *batzu*): “Los autores septentrionales de los ss. XVI-XVII distinguen formalmente los casos absoluto y ergativo; hay dos sistemas: *batzu / batzuk* es el de Leizaraga (Dechepare usa *batzu* para el caso absoluto, pero no hay ej. de ergativo), y *batzuk / batzuek* el de Axular y Etcheberri de Ziburu; Pouvreau utiliza ambos: *batzu, batzuk / batzuk, batzuek*. [...] Al Sur no hay diferenciación formal: en los textos guipuzcoanos, desde el s. XVIII, se encuentra *batzuek* para ambos casos, y en los vizcaínos —ya desde Capanaga— *batzuk*”. Soziatibozko forma (*baçugaz*) horren gainean eraikia dela dirudi, -gaz gehitura; genitiboari dagokionez, *baçuen* da darabilen forma bakarra. Hauxe dakar *OEHk*: “*Batzuen* es casi la única forma para el genitivo: *batzuren* sólo se encuentra en Leizaraga (junto a *batzuen*), Oienart y unos pocos autores meridionales del s. XX”.<sup>35</sup> *saboianea*: Cf. *DAut*, s.v. *saboyana*: “Ropa exterior de que usaban las mugeres, a modo de basquiña abierta por delante”.<sup>36</sup> *gauça usayz beteric*: Esapide berbera agertzen da beste toki batean (A14: 70). Haren esanahiaz ez gaude seguru, baina baliteke ‘gustu oneko gauza baita, dotoretzat hartzan baita’ bezalako zerbait izatea. *Usai* izena ‘usain’ dela interpretatu dugu (cf. Lcc “olor, *usaia*” eta Bet *usai egitea*, etab.), ‘usaia, ohitura’ adiera baztertu ondoren; izan ere, *usaia* Iparraldeko tradizioko hitza izateaz gain, ez genuke espero berezko -a gabe agertzea.<sup>37</sup> *piloxic*: ‘biluzik’; forma hau agertzen da eskuizkribuko beste poema batean ere (B19 poeman, hiru aldiz), eta ondo lekukotuta dago *OEHn* ere, “V-gip” markarekin. Cf. *OEH*, s.v. *biluzik*: “(B, BN-arb), *bilosik* (V; Añ (V)), *biluxik* (AN-ulz, B), *bilutsik* (V-gip), *bilusik*, *bilotsik*, *biloizik* (A), *biloisik*, *biloixik*, *biloxik*, *bilozik*, *bi洛txik*, *buluzik*, *bulusik*, *pilotsik* (V-gip), *pilosik* (V-gip). Ref.: A (*billosik*); Etxba *Eib* (*billutsik*), Iz *ArOñ* (*pillósik*), *UrrAnz* (*pillo(t)sik*), *Ulz* (*billuxi*); Izeta *BHizt* (*biluxik*); Gte *Erd* 136 y 209”.

	—Ene erriti oyta cœurera badago bidacidorric; oy aetati paseaceco eztot ardura laguni[c]. <sup>39</sup>	
<1195v>	Bide artati iramo <sup>40</sup> badot çure calera guecircic, <sup>41</sup> ene laztana, oy utra <sup>42</sup> dago galanto enpleaduric.	65
	Çure lecuan <sup>43</sup> ederra nor dan, ceur ezpaçara, ez daquit: cegaiti inor ederra dala gurean ez da famaric.	70
	Linda damea, ni neurau nago galanto informaduric, çure lecuan ez oy dala ederrez confradiaric. <sup>44</sup>	75
	Donzella eder juzgaetaco <sup>45</sup> asco bear da gauçaric,	

<sup>38</sup> *damu jaquinic*: ‘(niri) damuturik’; *jaqui-* adizkiari buruz, ikusi A23: 4 bertso-lerroko oharra.

<sup>39</sup> *eztot ardura laguni[c]*: ‘ez dut nahi lagunik, ez zait interesatzen inork lagun egitea’ adiera bide du. Esaldi bera dago beste poema batean ere: *ez dot ardura lagunic* (A7: 114).

<sup>40</sup> *iramo*: ‘jaurtiki’; eskuizkribuan beste toki batzuetan ere agertzen da, lau aldiz (AL: 1140r, AL: 1142r, A23: 65 eta B11: 11). *OEH*k ez dakar forma hau, baina bai *iramón*, Landucciren lekukotasunarekin; Landuccik *yramon* dakar “esparzir”, “derribar” eta “botar (la pelota)” sarreretan.

<sup>41</sup> *iramo badot / çure calera guecircic*: ‘zure maitasuna lortzen saiatu banaiz’; gezia jaurtitzea maitasunaren gezia jaurtitzea litzateke; 1445-1645 urteetan 47 aldiz agertzen da *CORDEn flecha(s) de(l) amor*. Ez dakigu *iramo* ... *çure calera* loturik ote dagoen gaztelaniazko “echar alguna cosa en la calle Metaphoricamente es despreciarla, usar mal de ella y malbaratarla” (*DAut*, s.v. *calle*) esamoldearekin.

<sup>42</sup> *utra*: ‘oso’; gutxienez Kapanagari eta Oihenarten atsotitzei esker ezagutzen genuen (cf. *OEH*, s.v.).

<sup>43</sup> *lecuan*: ‘herrixkan’; hemen (eta beheragoko lerroetan) *lecua* ‘herrixka’ da. Cf. Lcc ‘aldea, *lequa*, *aldea*’. Eskuizkribuan gutxienez zortzi aldiz aurkitu dugu *lecu* esanahi horrekin (AL: 1145v, A7: 61, A17: 52, A23: 69, A23: 75, A23: 82, A23: 84, B25: 23). Beste askotan, jakina, ‘toki’ esanahiarekin.

<sup>44</sup> *ez oy dala / ederreza confradiaric*: ‘ez dela aurkitzen neska ederreza osaturiko talderik, ez dagoela neska eder askorik’; cf. egitura bereko *Amoreorrec eguin ez oy dau / curelez confradiaric* (A16: 40). *DAutek* badakar *confradía* hitza, zaharkitutzat hartzen badu ere: “Lo mismo que Cofradía. Es voz antigua, y aunque más arreglada al origen del latino *Confraternitas*, ya comúnmente se usa sin la *n* para suavizar la pronunciación”.

<sup>45</sup> *Donzella eder juzgaetaco*: ‘(norbait) dontzeila edertzat hartzeko’.

onestidade parebagaea fundamentuçat arturic.  Malpecado! <sup>46</sup> Fruta <sup>47</sup> au dago lecuorretan <sup>48</sup> galduric; limosneraoc <sup>49</sup> salçaen dave lecuan beste frutaric.  Oninbatenaz egon gura dot aldi onetan exilic, cegaitiarren <sup>50</sup> eztit emaiten iguitaiac lecuric. <sup>51</sup>  —Bada nipere <sup>52</sup> jarri badaguit secula barriz coplaric, poeta gazte, doña Elena ez nax egongo exilic; au nic onela esateraco asco dot errazoaric.	80  85  90
--	------------------------

<sup>46</sup> *Malpecado!:* ‘arraioa!'; gaztelaniazko harridura-esapide honen lekukotasun asko daude CORDEN.

<sup>47</sup> *Fruta:* Emakumeaz ari dela dirudi.

<sup>48</sup> *lecuorretan:* ‘herrixka ziztrin horretan’. Ez da erraza erabakitzten *-orretan* artikulua ala erakuslea den. Indar deiktikoa nabarmendu dezakegu, eta hartara erakusle gisa idatziko genuke, bereizita; edo, *zure lekuaren* ordain gisa ulertuta, artikulutik hurbilagoko zerbaitekin gisa uler daiteke. Zalantza izanik, eskuizkribuak dakarren moduan utzi dugu, batuta.

<sup>49</sup> *limosneraoc:* ‘andre limosnagileak, limosna-banatzailaileak’; adi, *limosnera* ez baita eskean dabilena, limosna banatzen duena baino. Ez dugu inon aurkitu limosnagileek ezer saltzen dutenik, baina, zentzu hertsian, hau ulertu beharko genuke: ‘neska hau ez dute eskaintzen herri txiki horretan, eta, limosna banatzen den bezala neskak banatzen/saltzen dituzten emakumeek hau barik beste neska batzuk eskaintzen dituzte’.

<sup>50</sup> *cegaitiarren:* ‘zergaitik, zeren eta’; eskuizkribuan bi hitz dira: *cegaiti arren*, baina ikusi, eskuizkribu honetan bertan, *mundu guztiagaitirren* (AL: 1144v). OEHk (s.v. *arren*) atzizki honen hiru adibide bildu ditu: “*arren. Añadido a -ga(i)ti: Begiak deutse egozten biotzari kulpea, / Aganik jaio zala onerestea, / Ta agaitirren aditu zerren zirean / Errenkore andia erne zitean.* TAV 3.1.22. [Elorrioko maitasun kanta, 1609] *Onegaiterren erreguetan deutsat andrane Maria Birjineari, [...] eta zuri aita espiritual orri, erregutu dagizula nigaitik Iaungoikoari.* Cap 20. *Beragaterren trukadu nei pozik mundu guztia.* Acto 306.”

<sup>51</sup> *eztit emaiten / iguitaiac lecuric:* Ez dakigu seguru zer esan nahi duen igitaiak esaldi horretan, baina baliteke adieraztea hitz egiteko aukera moztu diola. *Leku eman* ‘aukera eman’ egiturari dagokionean, eskuizkribuan bost lekutan dago antzeko egitura: *ez dit emayten lecuric* (A10: 12, A10: 62), *eztit emaiten / iguitaiac lecuric* (A23: 87-88), *ez diçu emun lecuric* (A27a: 12), *eztit emayten lecuric* (A28: 30). cf. OEHn LEKU(A) EMAN, s.v. *leku*: “Dar lugar, consentir, dar consentimiento; dar ocasión, dar tiempo”.

<sup>52</sup> *nipere:* ‘nik bere, nik ere’.

Berorren<sup>53</sup> serviçaria nax ta  
ez niri barriz burlaric.<sup>54</sup>

Fin.

---

95

#### OHAR PALEOGRAFIKOAK:

3 neben] *n-* tatxatuta dago, baina ez dirudi berariaz denik, goraxeago eta beheraxeago ere daudenak ikusita. 20 ocasioric] aurrean *err* ezabatuta. 25 dauçaçu] esk. *daucauçu*. 28 esquerric] esk. *esqueric*. 30 intereseric] *ynteresic* idatzi du lehenago. 43 çugan] ç- hitz artean txertatuta dago. 46 agrabioric] aurrean *pe-edo*, tatxatua. 63 aetati] -e- gainean erantsita dago. 64 lagunic] azken letra ez da ikusten, mantxa batek estalita dago. 65 artati] badirudi -ta- zuzenduta dagoela, azpiko -ti- baten gainean. || badot] badirudi -d- zuzenduta dagoela azpiko -t- baten gainean. 72 gurean] beste zerbaiten (ziurrenik -ti) gainean idatzita dago -an. 89 badaguit] esk. *badaquit*. 91 doña] esk. *donna*.

#### Nola aipatu testu hau:

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A23 – Jaun Cerucoay emaiten jagot...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

<sup>53</sup> Berorren: Lazarragaren eskuizkribukoak *berori*-ren lehen agerraldiak bide dira (A7: 119, A23: 95), eta bietan erabili da errespetuzko tratamendua gisa. *OEH*ren arabera, XVII. mendearren erdialdetik dokumentatzen da, bai 3. pertsonako erakusle bezala (1622), baita errespetuzko tratamendu bezala ere (1653).

<sup>54</sup> Berorren serviçaria nax ta / ez niri barriz burlaric: Bertso-lerro hauen kideak dira beste hauek: *Oy aren serviçaria nax ta / ... / ... / ez niri barriz burlaric* (A27a: 49-52).

## A24

### Aide andioc bidaldu deustae...

Beste poema batean (A19 *Aitac ezcondu ezpanagui...*), hogei urteko neska gazteak ezkontzan bilatzen zuen grina eta desio sexualentzako irtenbidea; poema honetan, berriz, adin bereko mutil gazteak ez du inola ere ezkontzerik nahi, hain zuzen ezkontza bizitza sexual askerako oztopo iruditzen zaiolako, besteak beste. Ezkontzen den mutilak ez du gehiago aukerarik izango dama-zerbitzean gozatzen diren plazerekin atsegin hartzeko (7-36), eta, horren ordez, kezkak, lanak eta nekeak baino ez zaizkio etorriko, emaztearekin eta seme-alabekin (43-102); ondorioz, gizonezkoak nahiago du dagoen bezala segitu askatasunean, *amoradua* eta *dama servietan*, baina amaren babespean (*onec sustenduco nau egunean da gabean*), eta ez du hain gazte ezkondu nahi (103-175).

Poema honetan bezala B27-n ere (*Jaquiçu bada, gura badoçu...*) ahaideak dira mutila ezkonarazten ahalegintzen direnak. Joan Perez Lazarragakoaren datu biografikoekin lotu dira poema biak, gauza ezaguna baita (Di Cesare 2009) 1575ean ezkondu zela Katalina Gonzalez Langarikakoarekin, eta ezkontza hori bi familien arteko erlazioaren jarraipena izan zela, Joanen osaba, bere izen berekoa, eta Katalinaren izeba Ana Gonzalez Langarikakoa ere elkarrekin ezkonduak baitziren, baina seme-alabarik gabe, eta Joani eta Katalinari utzi baitzieten ondoreta; pentsatzeko da, hortaz, bi familien artean adosturiko elkarketa izango zela, bi familien interesen araberakoa. Alde horretatik, bereziki interesgarriak dira ezabaturik agertzen diren lehenengo bi bertso-lerroak: *Arriolaric oita Larrara / jasi ei da cartea*. Arriolako jauregikoak ziren, hain zuzen, Gonzalez Langarikakoak, hots, Joanen emazte izango zenaren familiakoak, eta Larrakoa (esan nahi baita Larreakoa) zen Joanen osaba, bere izen berekoa, oinordetza utzik ziona (Joan Perez Lazarragakoa, idazlea, ezkondu ondoren aldatu zen Larreako dorrera bizitzera, 1576an); hortaz, Katalinaren gurasoek idazten diote Joanen osabari, ezkontza paratzeko eskatuaz.

<1195v>      Aide andioc<sup>1</sup> bidaldu deustae  
                  escreviduric cartea  
                  ezcondu gura ninduqueela.  
                  Ene gogoco tristea!

<sup>1</sup> *Aide andioc*: ‘ahaide hurkoek, hurbilek’; *OEH*ren arabera (s.v. *ahaide*), *ahaide handi* “pariente próximo” da (Mendibururen lekukotasun batekin), *ahaide txiki-ren* aurkakoa, alegia. Ezabaturiko bertsioan (*Arriolaric oita Larrara / jasi ei da cartea*) jatsi aditza erabili da, Arriola (635 m) gaintxoan dagoelako Larreatik (565 m) begiratuz gero.

Bertsio berrian (*Aide andioc bidaldu deustae / escreviduric cartea / ezcondu gura ninduqueela*), bi familien erreferentzia zuzena ezabatu da. Milia Lasturkoren eresiko lerro batzuk ez dira oso desberdinak: *Bidaldu dogu ceruetara cartea / Arren diguela gure andrea* (TAV 3.1.5).

Oy eta<sup>2</sup> bardin<sup>3</sup> onela bada, 5  
andia jatort caltea,  
cegaiti bein ezconduzquero<sup>4</sup>  
galdu dot libertadea.  
Oneinbatenaz<sup>5</sup> oy quenduco jat  
amoraduen<sup>6</sup> nonbrea; 10  
eragocico deraustae<sup>7</sup>  
damaoc servietea.  
Acordaduco secula ez jat  
calean paseacea;  
astiric barriz ez dot içango  
cear ifinten gorrea.<sup>8</sup> 15  
Gabetan barriz ez jagot joco  
laztanai<sup>9</sup> biguelea,<sup>10</sup>

---

<sup>2</sup> *Oy eta*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy eta* *oyta* betegarriak (bakanka hemengo *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>3</sup> *bardin*: ‘baldin’; Lazarragaren eskuizkribuan 11 aldiz aurkitu dugu *bardin*. Horietako batean bakarrik (AL: 1145v) du zalantzarik gabe gaurko ‘berdin’ esanahia, ‘berdintasuna’ adierazten duena; hiru aldiz (AL: 1151r, A27b: 7, A25: 8) ‘dena den, nonbait, beharbada, seguru aski’ adierazten du, gure ustez (cf. OEH, s.v., “de todas maneras, en cualquier caso” eta “probablemente, quizás”); behin (A12: 11) zalantza dugu bi adiera horietako zein ote duen; eta, azkenik, sei bider adierazten du baldintza (AL: 1172r, A24: 5, B17: 82, B18: 93, B23: 101).

<sup>4</sup> *ezconduzquero*: ‘behin ezkonduta, ezkondu eta gero’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumental + -quero” eta “participio + azquero” egiturak erabiltzen dira. Hemen “participio + -zquero” dugu.

<sup>5</sup> *Oneinbatenaz*: ‘honenbestez’; eskuizkribuko beste poema batean *oninbatenaz* (A23: 33 eta 85) agertzen da. Horiekin lotuak dira orobat beste hauek: *oneinbat* (AL: 1152v, A3: 23, B3: 51) eta *oneinbategaz* (B2: 7, B7: 17). OEHn *oneinbestegaz* (*BulaAl* 307) besterik ez da agertzen.

<sup>6</sup> *amoraduen*: ‘amoraduren’, genitibo singularrean.

<sup>7</sup> *derauстae*: ‘didate’; \**eradutsi* aditza lau aldiz agertzen da Lazarragaren testuan, beti laguntzaile gisa. Horietatik bitan (A24: 11 eta B22: 71) aplikatibotasuna adierazteko erabiltzen da, hots, laguntzaile hirupertsonal arrunta da (*eutsi*, \**eradun*, \**i-ren* parekoak). Beste bitan (AL: 1145v eta A27: 5) faktitibotasunaren adierazteko erabiltzen da; gisa horretako faktitibozko formak ezezagunak ziren Lazarragaren testua agertu arte, baina iduri luke erabilera zabala zutela Arabako euskara zaharrean, Lazarragak indikatibotik kanko ere faktitibotasuna laguntzailean markatzen baitu, *egin-en* ordez *eragin* erabiliz (*galdu lerait* A24: 157).

<sup>8</sup> *cear ifinten gorrea*: Badirudi txapela zehar ipintzeak damak gorteiatzeko prest egotea esan nahi duela.

<sup>9</sup> *laztanai*: ‘laztanari’; -ai datibo singularra da (bai eta hurrengo lerrokoa ere).

ez gueiago <sup>11</sup> onerechiai bentanarean <sup>12</sup> flautea.  Debecatuko <sup>13</sup> oy deustae ari eguiten apea; <sup>14</sup>  ez gueiago ez jagot joco contereagaz <sup>15</sup> atea.  Erraz daoque <sup>16</sup> azquero <sup>17</sup> gueldi oi ene errodelea; <sup>18</sup>  arcaan <sup>19</sup> barriz erraz dafinquet <sup>20</sup> malla finezco cotea. <sup>21</sup>	20  25
---	--------------

<sup>10</sup> *biguelea*: ‘bihuela’; irakur bedi *biguela*, -u- eta guzti. Gitarraren antzeko hari-instrumentua da, eta hain zuzen XVI. mendean izan zuen loraldia Iberiar Penintsulan. Cf. AL: 1139r, AL: 1140v, AL: 1141v, AL: 1143v, A24: 18 eta A25: 18.

<sup>11</sup> *ez gueiago*: ‘ez eta ere’; poema honetako beste *ez gueiago* guztiak ere horrela ulertu behar dira (A24: 23, 31, 35, 143).

<sup>12</sup> *bentanarean*: ‘bentanatik, leihotik’.

<sup>13</sup> *Debecatuko*: Beste aditz batzuekin gertatzen den moduan, *debecatu* aditzaren osagarria ere inesiboan dago (-ten), eta ez absolutiboan (-tea) gaurko erabileran bezala.

<sup>14</sup> *eguiten apea*: ‘musu ematea’; eskuirkibuan bi bider dago *apa egin* ‘musua eman’ (*eguiten apea* A17: 19 eta *apa bat baneydiçu* A24: 22) eta behin *apatu* (*oñ-escu çardenoc apacen diot* B17: 10).

<sup>15</sup> *contereagaz*: ‘ezpata-zorroaren muturreko atalarekin’; cf. *DAut*, s.v. *contera*: “El hierreuelo cóncavo o hueco que fenece en punta y se pone en la extremidad de la vaina de la espada, daga o puñal, para que no la rompa, ni pueda herir al que topare en ella”.

<sup>16</sup> *Erraz daoque*: ‘ziurrenik egongo da’; *erraz* ‘ziurrenik’, gaztelaniaz *fácil*-ek duen adieraren antzera; cf. *DRAE*-ren 2. adiera: “Que puede suceder con mucha probabilidad”. Hemen geroaldiaren balioa du, baina cf. *erraz daoque* (A28: 15), probabilitatearen balioarekin.

<sup>17</sup> *azquero*: ‘geroztik’; *gero* adberbioan oinarriturik erabiltzen dituen egiturez, ikusi A24: 7 lerroko oharra. Hemen *azquero* hutsa dugu.

<sup>18</sup> *errodelea*: ‘erredola’; cf. *DAut*, s.v. *rodeda*: “Escudo redondo y delgado que, embrazado en el brazo izquierdo, cubre el pecho al que pelea con espada”.

<sup>19</sup> *arcaan*: Mendebaldeko zenbait testu zaharretan (Kapanagarena eta Frai Bartolomerenak, kasurako) inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko markak (-an eta -ak) izenari erabat asimilatu gabe geratzen dira. Lazarragaren eskuizkribuan ere hala gertatzen da, -a amaiera duten hitzek agerian uzten dutenez, bokal bikoitz grafikoak agertzen baitituzte. Aurkitu ditugun salbuespen bakarrak *ezpatac* (AL: 1153v) eta *bervac* (AL: 1154v) dira; *canpaac* (A28: 57) salbuespen den ala ez ezin da ziur baiezttatu, ez baitakigu oinarrizko forma *canpa* ala *canpaa* den (Landuccik *campae* dakar: “badajo de campana, *campae mia*”).

<sup>20</sup> *dafinquet*: ‘ipiniko dut’; *ifini* aditzaren geroaldi trinkoa. Halako hamaika aurkitu ditugu Lazarragaren eskuizkribuan: *efinçu* (A16: 59), *jafindaçu* (A17: 44, B18: 34), *ce nafinçu* (A17: 60), *dafinquet* (A24: 27), *ez difinçuen* (A27: 4), *badafinçu* (A27: 41), *ifinçu* (A28: 172), *dafinela* (A28: 175), *nafinçu* (B3: 70), *nafinela* (B4: 4), *ce efinçu* (B7: 13).

<sup>21</sup> *Erraz daoque azquero gueldi / ... / ... / malla finezco cotea*: Bi esaldi hauek esan nahi dute mutil gazteak ez duela gehiago justetan parte hartuko, erabili gabe geratuko baitira horietako partehartzileen ezaugarri diren erredola eta kota-jantzia.

<p>Oi eztot cerren<sup>22</sup> azquero janci      seda finozco calcea,<sup>23</sup>      ez gueiago aren gañean      çapata cuchilladea.<sup>24</sup></p> <p>Oy arrezquero<sup>25</sup> nic ez dot cerren<sup>26</sup>      estudiadu dancea,      ez gueiago decoro jaquin<sup>27</sup>      pabaneagaz bajea.<sup>28</sup></p> <p>&lt;1196r&gt; Ondasun oec galdu badaguit,<sup>29</sup></p>	30 35
---	----------

*malla finezco cotea*: ‘sare finezko kota, sare finezko halakreta (gerritik gorako babes-jantzia)’; cf. Lcc “cota de malla, *cota mallazcoa*”.

<sup>22</sup> *eztot cerren*: ‘ez dut zertan / zergatik’; zehar galdera da, ez kausazko perpausa. Halako hiru aurkitu ditugu eskuizkribuan: *Çu ecusita, beste gauçaric / oy ezta cerren ecusi* (A2: 1-2), *Oi eztot cerren azquero janci / seda finozco calcea* (A24: 29-30), *Oy arrezquero nic ez dot cerren / estudiadu dancea* (A24: 33-34).

<sup>23</sup> *calcea*: ‘galtza zabal dotorea’; cf. *DAut*, s.v. *calza*: “La vestidura que cogía el muslo y la pierna, y eran mui huecas y bizarras”. Cf., orobat, Bernis (1962): “De las dos prendas que en el siglo XVI se usaban para cubrir las piernas y el cuerpo hasta la cintura, las calzas eran la propia de los hombres que vestían a la moda, mientras que los calzones o zaragüelles formaban parte del traje de labradores, artesanos y gentes de humilde condición en general”.

<sup>24</sup> *çapata cuchilladea*: ‘ebaki apaingarriak dituen oinetakoa’; Lazarragak *zapata* hitza oinetako generikoa adierazteko erabili badu (eta Landucciren hiztegian “çapato, çapata” agertzeak iradokitzten du hala bide dela), deigarria da *zapata* izenarekin adjektibo femeninoa erabiltzea (*cuchilladea*). Ez dakigu horrekin zerikusirik ote duen gaztelaniaz *zapato* eta *zapata* biak izateak. Cf. *DAut*, s.v. *zapata*: “Se llama assísmismo un calzado, especie de botín de color, que llega a media pierna, como el cothurno antiguo”. Ikusi orobat *DAut*, s.v. *acuchillar*: “Es también hacer pequeñas giras y aberturas, como cuchilladas, en alguna cosa, como en un vestido, mangas u otra ropa, como se usaba antiguamente en los trajes, assí de hombres, como de mugeres, que llamaban Acuchillados”. Gaztelaniaz ere erabiltzen da *cuchillada* forma, hasierako *a-* gabekoa (Quevedok, adibidez). Mikoletaren solasetan *acuchilladusco* agertzen da: *Yndasu fraca terciopelo acuchilladuscoac*. Dotoreziaren eta modara janztearen ezaugarri dira hala zeta finezko galtzak nola oinetako kutxilatuak.

<sup>25</sup> *arrezquero*: ‘ordutik aurrera’; *gero* adberbioan oinarriturik erabiltzen dituen egiturez, ikusi A24: 7 lerroko oharra. Hemen erakuslean oinarritutako forma dugu.

<sup>26</sup> *ez dot cerren*: ‘ez dut zertan / zergatik’; ikusi A24: 29 lerroko oharra.

<sup>27</sup> *decoro jaquin*: ‘buruz jakin’; cf. *DAut*, s.v. *coro*: “Se toma también por memoria. Úsase regularmente de esta voz con las phrases *saber, decir, o tomar de coro*”.

<sup>28</sup> *pabaneagaz bajea*: ‘pabana eta baja’; “Xgaz Y” egitura da, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko.

Hala *pabanea* nola *bajea* XVI. mendean modan izan ziren dantzen izenak dira. Ikusi Bennet (2003): “*Pavana*: Una danza señorrial cortesana del siglo XVI en la que las parejas avanzan en una procesión lenta y majestuosa. La música es en compás binario o cuaternario, de tempo lento a moderado” eta “*Baja danza*: Una danza lenta y majestuosa (en compás ternario o binario) muy popular a finales del siglo XVI. En sus pasos, los pies se deslizaban suavemente, casi sin separarse del suelo, de allí su nombre, danza baja, que contrasta con otras danzas que incluían saltos, brincos y cabriolas”.

40

semea dichabaguea;<sup>30</sup>  
 erruqui nauçu,<sup>31</sup> neure aideac,  
 cegaiti nax ni gaztea.

Oy oraingaño<sup>32</sup> ez nax ni eldu  
 oy bada oguei urtean,<sup>33</sup>  
 oy eta, barriz, andiegui da  
 ezconduaren carguea;

bertati<sup>34</sup> dacar/guiçonaençat  
 ardurea ta plaguea.<sup>35</sup>

45

Ençuçu eta diracasudan<sup>36</sup>

<sup>29</sup> *galdu badaguit*: ‘galtzen baditut’.

<sup>30</sup> *semea dichabaguea*: ‘zuen semea izango da ditxagabea’.

<sup>31</sup> *erruqui nauçu*: ‘erruki izan nazazue’; Lazarragaren testuan, \*edun-ek bere forma trinkoak mantentzen ditu aginteran. Bi adibide bildu ditugu: *erruqui nauçu* (A24: 39), *beguirauçu* (A28: 179). *Nauçu* gisako aginterazko forma trinkoak ez ziren ongi ezagutzen Lazarragaren testua agertu arte. Izan ere, historikoki, euskararen hizkera desberdinek egitura perifrastikoetara jotzen dute iragankorretako objektua 1. edo 2. pertsonakoa delarik. Cf. adibidez *Hiri cionat allaua, ençun neçan allauaiçuna* (Zalgize 131). Lazarragak, aldiz, forma trinkoak nasaiki erabiltzen ditu objektu mota hauekin ere: *nançuçu* (A10: 4), *erruqui nauca* (A16: 35, berorika), *naraçaçu* (A17: 48), *çe nafinçu* (A17: 60), *nacusu* (B23: 47). Arabarraren erabilera emankor horien ondoan, beste bi aldiz baizik ez dugu aurkitzen objektua 1. pertsonakoa duen aginterazko forma trinkorik: bata *Arrasateko Erreketa* ([An]dra urena Butroecoa nançuçu, Butr A,6), eta bestea Oihenarten poesietan (*galdez nauzun horrez ukenduru negizu, Poes. XXIV, 5*).

<sup>32</sup> *oraingaño*: ‘oraindaino, oraindik’; cf. Lcc “hasta aquí, *onino, orayngano*”. Eskuizkribuan hiru grafiarekin (<nn>, <ñ>, <ññ>) adierazita aurkitu dugu hitz honetako sudurkari palatala: *orainganno* (A14: 31), *oraingaño* (A19: 15) eta *oraingañno* (A24: 41).

<sup>33</sup> *oguei urtean*: ‘hogei urteetara’; ezkondu beharraz mintzo den beste pasarte batean ere adin bera aipatzen du (nahiz neskak hitz egiten duen beste honetan): *Ezconquetaco edadea deut, / oguei urtean elduzquero* (A19: 5-6).

Bestalde, Lazarragaren eskuizkribuan, *el(du)* ‘iritsi’ aditzaren osagarria beti dago inesiboan (-n) eta ez adlatiboa (-ra).

<sup>34</sup> *bertati*: ‘berehalia’.

<sup>35</sup> *plaguea*: ‘plaga, nekea’; *OEHk* jasotzen dituen adieretan, lehena bakarrik dagokio honi: ‘plaga’, alegia. DAutek laguntza gehiago ematen du, s.v. *plaga*: “En sentido moral se toma por cualquier infortunio, trabajo, pesar o contratiempo” edo “Por semejanza se toma por la copia o abundancia de alguna cosa nociva y perjudicial”.

<sup>36</sup> *Ençuçu eta diracasudan*: ‘entzun ezazu(e) eta irakatsiko dizu(e)t’; hasiera batean, formaz subjuntibokoa den adizkiari balio finala egotzi genion, baina iduri luke zuzenena dela pentsatzea geroaldia adierazten duela. Mitxelenak (1954a) erakutsi zuen RS testuan subjuntiboko adizkiak erabiltzen zirela geroaldia adierazteko, beste hizkuntza askotan ohikoa den bezala (greziera zaharrean, besteak beste): *Ax adinhon ta axa hon* “Sé acomodado y serás bueno” (RS 31); *Y quedac ta diqueada* “Darásme y darte he” (RS 233). Erabilera horren hitz adibide bildu ditugu Lazarragaren testuan: *ençuçu ta jaquin daguiçun* (A14: 43), *Belarrioc ireçaçu eta dançuçun* (A17: 8) eta *Ençuçu eta diracasudan /*

ezconduaren dotea:	
Ezcondu eta lenaengoa	
ona dau ilabetea;	50
badanic bere, <sup>37</sup> bertati dauco	
cargutan aziendea. <sup>38</sup>	
Berandu ezin <sup>39</sup> eta gox jagui,	
iruli <sup>40</sup> sarri oean,	
pensamentua darabilela	55
lecu ascotan, fedea! <sup>41</sup>	
Pobreza bada, cegaiti eztau	
cegaz sustendu <sup>42</sup> honrea,	
ascotan estu <sup>43</sup> oy bearco dau	
errelleagaz goldea; <sup>44</sup>	60

*ezconduaren dotea* (A24: 47-48). Hiruretan, irakurketa berriak *eta* juntagailuak hasierako interpretazioan ekartzen zuen traba konpontzen du.

Bestalde, poema honetan bada *irakatsi* aditzaren beste forma trinko bat: *liracasquet* (A24: 165); Lazarraga da *irakatsi* aditzaren forma trinkoak eskaintzen dituen lehen autorea, ez baitugu aditz horren erabilera trinkoen lekukotasunik aurkitu gainerateko XVI. mendeko testuetan.

<sup>37</sup> *badanic bere*: ‘hala ere’; *badanik bere* OEHn ez dago jasota, baina cf. *badarik* ‘hala ere’: funtsean Iparraldean lekukotzen bada ere, badago GN-zko adibiderik (1609ko poesietako batean, zehazki), eta Otxoa Arinek ere erabiltzen du. Lazarragaren eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu dugu: A6: 43, A10: 61, A24: 51, A26: 13, A27a: 7, B5: 27 eta B14: 51.

<sup>38</sup> *dauco / cargutan aziendea*: ‘aziendaren kargu egiten du, ondasunen ardura hartzen du’; cf. OEHn, s.v. *kargu*: ‘KARGUTAN EDUKI. Cuidarse (de), tener cuidado (de)’; baina cf., halaber, ‘KARGU(T)AN [...] b) A cargo (de), al cuidado (de)’, hemengo adierari hobeto dagokiona. Bestalde, *azienda* hitzak ‘ondasunak’ adiera du beti eskuizkribuan, eta ez ‘ganadua’; ikusi A24: 52, A28: 101, A28: 154 eta bereziki B5: 2: *Sentitu baga castacen da / andiro aziendea*.

<sup>39</sup> *ezin*: ‘etzin, etzan’; eskuizkribuan lau aldiz dago *etzin* aditza forma jokatugabeen (*ecin* AL: 1152v, *ecinic* A1: 36, *ecingo* A14: 85, *ezin* A24: 53) eta bi aldiz forma trinkoan (*naç* AL: 1152r, *caucidenean* A16: 86).

<sup>40</sup> *iruli*: ‘bueltak eman, mugitu’; OEHren arabera (s.v. *iraushi*), Lazarragarena litzateke aditz honen lehenengo agerraldia.

<sup>41</sup> *feda!*: ‘ala ene feda!'; OEHk hainbat formula biltzen ditu (*ene feda!*, *ala ene feda!*, *ezpabere ta feda...*), baina ez *feda!* bakarrik. Dena dela, ez du ematen bestela ulertzeko modurik dagoenik. Ikusi baita A24: 104.

<sup>42</sup> *sustendu*: ‘sustengatu, iraunarazi’; OEHn ez da forma honekin aditz bezala lekukotzen (cf. s.v. *sostengatu*, *sostenitu*, *sustentatu*). Ikusi beherago berriz *sustendu* (A24: 125) eta *sustentaceo* (A24: 80).

<sup>43</sup> *estu*: ‘estutu’; *estu* da *estutu* aditzaren aurrekaria. Ez dago adibide gehiago testuan, baina ezaguna da Hegoaldeko testu zahar (Azpeitiko gutunak, Kapanaga, Otxoa) eta modernoetan (Añibarro, Agirre Asteasukoa, etab.), OEHk dioenaren arabera (s.v. *estu*).

icerdi-orio<sup>45</sup> franco bear dau  
oy bere bular artean.  
  
Maira datorrenean, barriz,  
baba cigorrez<sup>46</sup> saldea;  
  
çazpi libraco tremes<sup>47</sup> andia  
faisaeçat<sup>48</sup> aldean;  
  
ardao çuri San Martingoa  
picherraz iturriorean.<sup>49</sup>  
  
Ume chipiric<sup>50</sup> oy eta badau,  
açaiquetaco<sup>51</sup> losea;<sup>52</sup>

<sup>44</sup> *errelleagaz goldea*: ‘erreila (golde-muturra) eta goldea’; “Xgaz Y” egitura da, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko. Bestalde, ikusi Lcc “reja de arar, *errellea*”.

<sup>45</sup> *icerdi-orio*: ‘izerdi’; ez dago *OEHn* jasota (s.v. *izerdi*), baina bai *izerdi-koipetan* “sudando abundantemente”.

<sup>46</sup> *cigorrez*: ‘lehorrez’; cf. *OEH*, s.v. *txigor* (ikusi, bereziki, Orixeren aipua): “2. (G, AN ap. A), **txior**, **xigol** (L ap. Lh; H), **xigoli** (H). Seco, desecado. ‘Sec, qui a perdu son humidité. Par ext., une personne sèche, maigre, efflanquée; id. parlant d’un animal’ H. ‘Seco, yerto’ A. *Zergatik maasti ugaritik batzuk igali guzia artzen, besteek ordea ondar-mondar txigorrak?* ‘Marc desséché’. Or Mi 85. **Baba-txior jaleak dira Aztizkoak.** Or Eus 63”.

<sup>47</sup> *tremes*: ‘ogi-irin hutsarekin egin beharrean, beste zerbait (zekalea, artoa, zahia...) nahasiz egindako ogia’; ogi merkea eta ez oso ona esateko erabilita dago; cf. *OEH*, s.v.: ““(Pan) bazo”, “comuña” Lar y Añ. [...] *Egin oi dira batzubetan iruogi mueta: bata garbija; bestia tremesa, ta zantarrenra ta txakurrentzat obia, birzaizkua. Mg PAb 151*”. Ikusi, orobat, Hernán Núñezek (*Refranes o proverbios en romance*, c. 1549) bilduriko atsotitza: “Pan tremés, ni lo guardes ni lo des, mas guárdalo para mayo y comerás de él buen bocado”.

<sup>48</sup> *faisaeca*: ‘faisaitzat, faisajaren ordez’: faisaja erosteko dirurik ez duenez, ogirik merkeena haren ordez.

<sup>49</sup> *ardao curi San Martingoa / picherraz iturriarean*: ‘San Martingo iturriko ura, ardo zuriaren ordez, pitxerrean’; ziur aski, hitz-jokoa egiten ari da: ezkonduarentzat, San Martingo iturrian hartzen duen ura da San Martingo ardo bakarra. Sarri agertzen da “vino de San Martín” espainiar literaturan (hamaiaka aldiz *CORDEn*, XVI-XVII. mendeetan), eta ez dakigu zehazki zein izan litekeen San Martingo iturria Lazarragaren eskualdean, baina aipatzekoak dira gutxienez Toursekoko San Martini dedikaturiko ermita ospetsua Hermuan (Larrea ondoan; Larreakoak urtero joaten dira hara uztailaren 4an, “El Barte” jai ospatzera, eta txistulariei ardo zuria ematen zaie), San Martingo ermita Agurainen (orain udaletxea dagoen lekuaren) eta Toursekoko San Martinen eliza Gazeon.

<sup>50</sup> *chipiric*: Eskuizkribuan beste behin agertzen da *chipi*: *Cerren cu chipi içanagaiti* (A27b: 25); gainerakoetan, eskuizkribuan *chiquer* agertzen da. Landucciren hiztegian *chipi* eta *chiquer* biak ditugu.

<sup>51</sup> *açaiquetaco*: ‘hazteko’.

<sup>52</sup> *losea*: ‘beldurra’; testuko adibideak urri dira, eta gehienak ‘lotsa’ adierako garbiak dira: *ezton losaric* (AL: 1152v), *banago losaz beteric* (A10: 8), *utra da nescac eguiteco / pregunta losabaguea* (B5: 25-26), *Traidoreac chu eguiten / deusae losabagueric* (B29: 111-112). Baino bada bat bereziki interesgarria, bi adieren hurbiltasuna erakusten duelako: *Eceren losa-bildur baga* (B18: 36). *OEHk* (s.v. *lotsa* 3) biltzen ditu pare bat lekukotasun baiezatzen dutenak ‘beldur’ adiera hori Hegaldean ere aurkitzen dela: “Aunque en el léxico común no significa ‘miedo’ como en Euskal Herria Norte, eso

aciazquero <sup>53</sup> ezconquetaco ozegui dago polsea.  Pobreonençat oy gachic asco, aberasonec doblea.	
Mutil-nescatoz lenaengoa <sup>54</sup> bete bear dau esea, oy eta aen gobernaceco <sup>55</sup> bear dau andi mañea. <sup>56</sup>	75
Pausoric asco eguin bea[r] dau sustentaceco <sup>57</sup> plazea; contu andia bear dau eguin ez erorteco arean. <sup>58</sup>	80
Emazteori ona ezpadau, esean erriertea.	
Alcar aditu ezpadaguie, <sup>59</sup> ez dabil ondo esea, capelaetan darabiltela <sup>60</sup>	85

---

parece significar en algunas frases hechas. *Amalau urte dauzka eta eztauka etxeko lanak eitteko lotsaik*” (Elexp Berg, apud OEH).

<sup>53</sup> *aciazquero*: ‘hazten denean, hazten den momentutik’; *gero* adberbioan oinarriturik erabiltzen dituen egiturez, ikusi A24: 7 lerroko oharra. Hemen “partizipioa + -zquero” dugu. Honakoan, eta baita 151. lerroan datorren *lotu azquero* horretan ere, berezko denborazko interpretazioari balio orokorra antzematen zaio, perpauson inpertsonaltasunaren eraginez, beharbada.

<sup>54</sup> *lenaengoa*: ‘lehenengo, lehenbizi’; artikulua erantsi zaion arren, adberbioa da.

<sup>55</sup> *aen gobernaceco*: ‘haien (mutil-neskatoak, umeak) gobernatzeko’; eskuizkribuan, *aen zazpi* aldiz da zalantzarak gabe genitibo singularra (‘haren’), eta beste zazpi aldiz da zalantzarak gabe genitibo plurala (‘haien’); horren arabera, hemen zalantzazkoa izan liteke aurrekaria *mutil-nescatoz* ala *esea* den; uste dugu zentzukoago dela lehenengo aukera.

Bestalde, *aen*, hemen, TO-GEN deiturikoa da, hots, *gobernaceco* aditz iragankorraren objektua, genitiboan.

<sup>56</sup> *bear dau andi mañea*: ‘handia behar du trebezia’; *mañea* da objektua, eta *andi* predikatiboa artikulurik gabe.

<sup>57</sup> *sustentaceco*: ‘sendo eusteko’; poema honetan bertan, gorago (A24: 58) *sustendu* erabili du, bai eta beherago ere (A24: 125). Ez dago testuan adibide gehiago. Dirudienez, gaztelaniazko aditz banari dagozkio formaz: *sustendu* : *sostener* eta *sustentatu* : *sustentar*.

<sup>58</sup> *arean*: ‘handik’.

<sup>59</sup> *Alcar aditu ezpadaguie*: ‘elkar ulertzen ez badute, elkarrekin ondo konpontzen ez badira’; OEHn Gasteluzarrena (1686) da *elkar aditu* lokuzioaren lehenengo agerraldia.

<sup>60</sup> *darabiltela*: Lazarragaren eskuizkribuan, *-te-* morfema iragangaitzetako NORI eta iragankorretako NORK argumentuen pluralgile bezala agertzen da: *ecarten* (AL: 1153r, AL: 1154v, A1: 37), *liçatela*

beti aragui errea; <sup>61</sup> araguionen <sup>62</sup> jaateraco <sup>63</sup> asecabazco salsea. <sup>64</sup>  Abenietan <sup>65</sup> badira bere, ezta fa[l]taco carguea: interesean beti darabil guiconac borondatea. <sup>66</sup>  Ama ascoren seme ascogaz <sup>67</sup> bear dau batu urtean; ordu ascotan oytar bear dau iregui <sup>68</sup> bere polsea.  Semeric badeu <sup>69</sup> esaten jago: <sup>70</sup>	90  95
---	--------------

---

(AL: 1154v), *egotela* (AL: 1154v), *darabilte-* (A1: 47, A24: 87), *deustet* (A17: 9), *jate* (B3: 77), *eusten* (‘zien’ nahiz ‘zioten’, *passim*); *-de-* morfema, ordea, iragangaitzetako NOR argumentuaren pluralgile bezala erabiltzen du. Bost aldiz aurkitu dugu eskuzkribuan: *çarade* (AL: 1144v, B18: 91), *dirade* (A1: 52), *çagode* (A5: 2), *çaucidenean* (A16: 86), *gabilçaden* (A17: 93), *çabilçade-* (B18: 147).

<sup>61</sup> *capelaetan darabiltela / beti aragui errea:* Gauzak behar ez den moduan egitea adierazi nahi du, dirudienez, haragi errea kapeletan (eta ez plateretan edo erretiluetan) erabiltzeak, baina ez dugu aurkitu irudi horren beste lekukotasunik.

<sup>62</sup> *araguionen:* Ez da erraza interpretazio egokiena zein den erabakitzten, artikuluarena ala erakuslearena. Eskuzkribuak sintagma osoa lotuta dakar, eta halaxe utzi dugu hemen.

Hemen ere, gorago *aen gobernaceco* (A24: 77) lerroan bezala, TO-GEN deituriko egitura da, hots, *araguionen da jaateraco* aditz iragankorraren objektua, genitiboan.

<sup>63</sup> *jaateraco:* *Jan* eta *izan* aditzek aditz-izena osatzeko *-te* atzizkia hartzen dutenean, *-aa-* bokal bikoitz gertatzen da. Aditz horiek beroriek bestelako formetan (*izango, jango, izan, jan, janda*) ez dute inoiz bokal bikoitzik agertzen. Itxura guztien arabera fenomeno morfológikoa da oinarrian. Honelaxe dio *OEHk jan* aditzarentzari dagokionean (*izan* aditzari dagokionean, *OEHk* ez dakar bokal bikoitzeko adibiderik): “Documentado en todas las épocas y dialectos. La forma *jan* es general; *jaana, jaate-* (aunque no *jaan*) se documentan en Capanaga, Zupaeta (88), Moguel (*PAb* 164), V. Moguel (12), J.J. Moguel (*BasEsc* 261) y fray Bartolomé (*Ic III* 273)”.

<sup>64</sup> *araguionen jaateraco / asecabazco salsea:* Aurreko bertso-lerroetako (A24: 85-88) irudiarekin jarraitzen du: gauzak txarto eginez gero, are atsekabe handiagoa sortzen da senar-emazteak txarto konpontzen diren etxeen. Antzeko hitz-jokoa dago hurrengo poeman: *ni banajoa salsearen aurquietan* (A25: 7).

<sup>65</sup> *Abenietan:* ‘ados jartzen’.

<sup>66</sup> *interesean beti darabil / guiconac borondatea:* ‘gizonak beti bilatzen du bere interesa’.

<sup>67</sup> *Ama ascoren seme ascogaz:* ‘jende askorekin’.

<sup>68</sup> *iregui:* ‘ireki, zabaldu’.

<sup>69</sup> *badeu:* *deu-* moldeko \**edun* aditzaren formak ez dira asko eskuzkribuan, eta gainera poema gutxi batzuetan bildu dira: *deut* (A16: 66, A19: 3, A19: 5, A19: 43, A19: 47, A25: 20), *deudan* (A16: 31), *badeu* (A24: 99), *deuc* (A25: 4). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *du-* moldeetakoak.

<sup>70</sup> *esaten jago:* ‘esaten dio’.

	“Aita, eguidac jaquea”;	100
	ari jaquea eguin orduco,	
	alabearrec gonea.	
	Oy ainbat dacust lazeria <sup>71</sup> ze eraetan jat, <sup>72</sup> fedea!	
	Oni aparta al daquiona, <sup>73</sup> dicha onezco semea.	105
<1196v>	Edola bere, urten artean <sup>74</sup> ogueta amar urtean, <sup>75</sup> neuronec ala eguin gura dot, bici al baninz artean.	110
	Jaun Cerucoac, arren, dindala <sup>76</sup> cunplietaco dichea.	
	Nigaz ezcondu gura dabena sosega bidi <sup>77</sup> baquean; oy onegaiti ichaden <sup>78</sup> begui dozenaxe <sup>79</sup> bat urtean;	115

<sup>71</sup> *lazeria*: ‘miseria, eskasia’; *OEH*ren arabera, Lazarragarena litzateke izen honen lehenengo agerraldia.

<sup>72</sup> *eraetan jat*: ‘erotzen naiz’; *eratu* “enloquecerse” Landuccik dakar, eta ondo lekukotzen da GN-zko testuetan (*TAV* 3.1.19, Beriain...), besteak beste. NOR-NORI laguntzailea Beriainek eta Agirre Asteasukoak erabiltzen dute (cf. *OEH*, s.v. *eretu*); *zoratu* aditza ere (cf. *OEH*, s.v. *zoratu*) hala NOR laguntzailearekin nola NOR-NORI laguntzailearekin erabiltzen dute bizkaierazko idazleek (gehi Iztuetak eta Arruek).

<sup>73</sup> *Oni aparta al daquiona*: ‘honi ihes egin ahal diezaiona’, hots ‘ezkontzetik eta ezkontzearen ondoriozko lazeriatik ihes egin ahal dezana’.

*daquiona*: Nahiz eta eskuizkribuan *daguiona* irakurtzen den, uste dugu *daquiona* gisa zuzendu behar dela. Lehenik, laguntzaile horrekin doan aditz nagusia aditzoina da, eta badakigu testu zaharrenetan *egin-ekiko* perifrasiazik kasik beti partizipioa hartzen duela aditz nagusi gisa. Bestalde, aditz hau *egin* gisa interpretatzek beste arazo bat ekarriko luke, argumentu egiturari dagokiona; izan ere, suposatuko luke NORK-NORI joko baten parean garela, gisa horretako patroiaik biziki nekez aurkitzen direlarik XVI. mendeko testuetan. Arrazoi horiengatik, nahiago dugu pentsatu idazleak akats bat egin duela, eta *egin-en* ordez, \**edin* laguntzailea idatzi nahi zuela. Hortaz, NOR-NORI joko bat genuke, *apartatu* aditzari egokiagoa dena, eta aditzoina, \**edin* laguntzailearen aditz nagusia, garai hartan espero den bezala.

<sup>74</sup> *urten artean*: ‘(ezkondurik etxetik) irten artean’ esan nahi du.

<sup>75</sup> *ogueta amar urtean*: ‘hogeita hamar urterekin’.

<sup>76</sup> *dindala*: ‘eman diezadala’; \*-in- erro zaharreko adizkia.

<sup>77</sup> *sosega bidi*: ‘lasaitu bedi’.

<sup>78</sup> *ichaden*: ‘itxaron’; *itxaden* aldaera Antzuolako dotrinan (c. 1678) eta *Egiaren Kantan* (c. 1638) ere lekukotzen da (cf. *OEH*, s.v. *itxaron*).

artean, barriz, goza deçadan oraingo libertadea.	
Oy oni luce derechanori <sup>80</sup> ce bego <sup>81</sup> ene ustean. <sup>82</sup>	120
Oy nitaucat <sup>83</sup> emazte on bat, ceña dan ama andrea; <sup>84</sup>	
Jaun Cerucoac oni demala <sup>85</sup> bici ona ta lucea,	
cegaiti onec sustenduco nau egunean da <sup>86</sup> gabean.	125
Gradu andian jarriric nago, ene eguitafedea; <sup>87</sup>	
oy orain ez letorquet <sup>88</sup> ondo	

<sup>79</sup> *dozenaxe*: ‘dozenatxo’; Lazarragaren eskuizkribuan, *-txo* atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; *-xe* atzizkiak, berriz, hiru balio hartzen ditu: 1) Txikigarria (*-xe* = *-txo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *esecoxeo* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxear* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). 2) Izenondo eta aditzondoen intentsitate markatzailea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). 3) Indartzalea (izenordain indartuekin, eta *eben / arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

<sup>80</sup> *oni luce derechanori*: Dozenatxo bat urte itxaroteari luze irizten dion hori, alegia.

<sup>81</sup> *ce bego*: ‘ez dadila egon’; *b-* aurritzidun jusibozko forma hauek beti *ze* partikula hartzen dute, eta *b-* ez beste morfemekin hasten direnak *ez* ezeptapenezko partikularekin baizik ez daitezke ager: *Jaunorrec ez dindala ondasunic* (A17: 65) eta *Bada bere, Jaunac ez nafinela, / servidu bada, ni pauso laz artan* (B4: 4). Ikusi halaber *Hora il daguien mendian Guiçona idoro ez didila* (Garibai 139-52).

<sup>82</sup> *ene ustean*: ‘ene zain, ene esperantzan’; adiera honetan ezaguna da lehendik ere (cf. *OEH*, USTEAN (c), s.v. *uste*), baina hauxe dugu adibiderik zaharrena (hurrengoa 1658koa: Iturbe, *ContAV* 5.1.5).

<sup>83</sup> *nitaucat*: ‘nik daukat’.

<sup>84</sup> *ama andrea*: ‘ama’, *Milia Lasturko-ren* eresitik, bederen. ‘Amona’ adieraren adibideak beranduagokoak dira (Mg *PAb...*), baina lehenago badakar Mikoletak hiztegitxoan. Ematen du poetak aita galdu duela (1564an hil zuen emaztearen senitarteko batek), ahaide hurkoek agintzen dutela bere ezkontzaz, eta ama bakarrik agertzen dela babes gisa.

<sup>85</sup> *demala*: ‘eman diezaiola’; *eman* aditzaren jusibo trinkoa. Mitxelenak (*SHLV* 795-796), RS-ko *eman* aditzaren forma trinkoak aztertzean erakutsi bezala, *demala* hirupertsonala da, ez bipertsonala. Bestela esanik, datibo komunzadura betetzen da, baina, aldaketa fonetikoen eraginez, datiboaren marka desagertu da (< \**demaola*).

<sup>86</sup> *da*: ‘eta’.

<sup>87</sup> *ene eguitafedea*: Cf. Asp *Leiz, egietafede* esapideari buruz: “Especie de juramento empleado por los niños para afirmar o prometer algo”. LE-k baditu adibideak (*egietafedea*, baita *egietafedes* ere), eta Azkuek aezkeran bildu zuen (A *EY II*, 124), *OEH*ren datuen arabera (EGIA ETA FEDE, s.v. *egia*).

arereanic <sup>89</sup> jastea. <sup>90</sup>	130
<p>Orain dama bat servietan dot,  lindea parebaguea;<sup>91</sup></p> <p>oy eztauco meresciduric  niganic<sup>92</sup> ancietea,<sup>93</sup></p> <p>eguin deustan mesedeac</p>	135
servidu jaguin artean, <sup>94</sup>	

<sup>88</sup> *letorquet*: ‘letorkidake’; -ki gabe.<sup>89</sup> *arereanic*: ‘handik’; ablatibo pleonastikoa behin baino gehiagotan agertzen da eskuizkribuan: *lecureanic* (AL: 1145v, B23: 82), *arereanic* (A24: 130, B6: 33, B7: 1), *altureanic* (B23: 80), *O[e]reanic* (B32: 7).<sup>90</sup> *jastea*: ‘jaistea’.<sup>91</sup> *lindea parebaguea*: Hiru aldiz dago *lindea parebag-* eskuizkribuan: *Dama bategaz t[o]padu nincan*, / *lindea parebagaric* (A7: 5-6), *Donzellacho bat ecusi neben*, / *lindea parebagaric* (A14: 21-22) eta *Orain dama bat servietan dot*, / *lindea parebaguea* (A24: 131-132). Hirugarrenean errimak eskatu du bukaera aldatzea. Gaztelaniaz, 1543ko lan anonimo batean aurkitu dugu ondokoa: “Pues una reina excelente / **linda sin comparación** / viene y trae a la serpiente” (*apud CORDE*). Eskuizkribuan, beste behin ere badago *parebagaric* erabilera adberbialean: *Oy jente asco / egoan parebagaric* (A28: 73-74).<sup>92</sup> *niganic*: ‘nik’; ablatiboa subjektu lanetan. Agentea gehienetan instrumentalean da, bai Lazarragaren testuan, baita garai hartako gainerateko testuetan ere: *denpora baten içan nincan / amoreminez tentadua* (A21: 1-2); *Iustificatu içan da sapientiá bere haourréz* (Leiz Mat. XI, 19) ‘la sapience a été justifiée par ses enfants’; noiztenka ablatiboa ere agertzen zaigu Lazarraga eta Leizarragaren testuetan: *neure aragui gaxtoaganic / içan nincan ni tentadua* (A21: 28-29), *niganic ancietea* (A24: 134); *Cuhurretaric diligentqui informatu içan cen demboraren araura* (Leiz Mat. II, 16).<sup>93</sup> *ancietea*: ‘ahaztea’; *ancitu-* (AL: 1146v, AL: 1151r, AL: 1152r, AL: 1152v bis, A7: 12, A17: 23, B3: 59), *anci jaquinic* (AL: 1142v, AL: 1145v) eta *ancietea* (A24: 134, A24: 144) formak agertzen dira eskuizkribuan. *OEHn* ez dago forma hauen lekukotasunik mendebaldean, ez bada Azkuerenetic harturiko “*antzitu V-al*”. Cf. *OEH*, s.v. *ahaztu*: “El participio en V ant parece ser *aztu* con *a* nasal, escrita normalmente *aztu* y una vez (RS 156) *antztu*. Respecto al sust. vbal. ines., Lcc *azketan erreza* s.v. “*olvidadizo*” y Mic ta *aztutene badozu / eztozu onto eiten* (TAV 3.1.27)”.<sup>94</sup> *servidu jaguin artean*: ‘niri serbidu egin artean, serbidu egiten dida(te)n artean, balio dida(te)n artean’; *servidu* aditzak hiru esanahi ditu eskuizkribuan, hirurak gaztelaniazkoen parekoak: 1) *DAut*, s.v. *servir*: “cortejar o festejar a alguna dama, solicitando su favor” (cf. poema hotan A24: 131). 2) *DAut*, s.v. *servirse*: “Agradarse de alguna cosa, quererla o admitirla con gusto. Úsase en el estilo cortesano, quando se suplica o pide a alguno que execute algo: como *Sírvase V.m. de dexarme entrar*”. 3) *DAut*, s.v. *servir*: “Vale también aprovechar, valer alguna cosa, ser de uso o tener alguna utilidad para algún fin”. Ondoan *jaguin* (eta *ez jaquin*) izateak esan nahi du hemen erabilera iragankorra dela; hortaz, edo lehenengo edo hirugarrena; eskuizkribuan adiera hotetako bakarra den arren (eta beste biak ugariak), testuinguruak pentsarazten digu hemen hirugarrena datekeela.

*Jagui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa aditz nagusitzat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Jri remedio emun jagui[* (AL: 1138r), *Nachaçu suplicaetan nay daquicula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguiteen* (AL: 1152r), *eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean* (AL: 1152v), *cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidoreric; / oy alcançadu daiqueano / ez artu jaguin celoric* (A14: 99-102), *Orain dama bat*

cegaiti nei traspasadu <sup>95</sup>	
amorearen leguea.	
Oraindo <sup>96</sup> beti içan nax	
oy amoradu firmea;	140
orain ez neuque errazoaric	
icenau <sup>97</sup> borraetea, <sup>98</sup>	
ez gueiago gaztaçaroau <sup>99</sup>	
ain laster ancietea.	
Claramente dacustan guero <sup>100</sup>	145
galçaiten libertadea,	
ezconduzquero <sup>101</sup> provechaetan	

---

*servietan dot, / lindea parebagaea; / oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / eguin deustan mesedeac / servidu **jaguin** artean (A24: 131-136), Jaun Cerucoac / çuri bidaldu **jaguinic**; / adietaco / badeçu miramenturic, / ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric (A28: 165-170), Aren aotí berba oa / neguianean aditu, / reberencia **jaguiteco** / belaumoc neben incadu (B14: 13-16), Apea nindin caldirean / guchi bat apartaduric; / berba neguion lurrerean, / neurau nengoan lecurean / reberencia **jaguinic** (B18: 66-70), Betti nabil casoau dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo **jaguiteco** sendoro (B18: 111-115), guztiay berba **jaguinic** (B29: 50), modu onetan / oytá berba **jaguinic** (B29: 79-80). Edozein kasutan, beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NORK-NORI-NOR) ezkutatzen dela.*

<sup>95</sup> *nei traspasadu*: ‘hautsi nezake’.

<sup>96</sup> *Oraindo*: ‘orain arte’.

<sup>97</sup> *icenau*: -au elementu deiktiko huts gisa interpretatzea, aurretik aipatutako *amoradu firmea* sintagma erreferente duelarik, ez da aukera bakarra; *icenau* sintagma *nire izena-ren* ordaintzat ere uler liteke, artikulutik hurbilago legooken erabilera. Artikulu eta erakusleen arteko muga lausoaren adierazgarri da adibide hau. Eskuizkribuan dena batuta ageri da idatzita eta horrela utzi dugu gure testuan.

<sup>98</sup> *ez neuque errazoaric / icenau borraetea*: *Errazoa (izan/eduki)* esamoldeak bi joskerak (-tzea eta -zen) onartzen ditu testuan, ohiko -tze(ra)ko daraman egituraz gainera: *onela penaetan [azpian penaeta] / ez doçu errazoaric* (A16: 7-8) eta *Errazoaric ez daucha / niri ifinten coplaric* (A23: 47-48), *ez neuque errazoaric / icenau borraetea / ez gueiago ... ancietea* (A24: 141-144).

<sup>99</sup> *gaztaçaroau*: ‘gaztarro hau’; *OEHk gaztezaro* bildu du (s.v. *gaztarro*), eta aldaera Euskal Herriko bi muturretan lekukotzen da. Badirudi adibide honek ez duela -au erakusle gisa interpretatzeko aukera askorik; dena den, artikulu argia den zenbait adibidetan ageri den disimilaziorik ere (A21: 14ko *desdichaduau* partizipio mailegatua, kasurako) ez du honek.

<sup>100</sup> *dacustan guero*: ‘ikusten baitut, ikusten dudanez’; *gero* adberbioan oinarrituriko egiturei buruz, ikusi A24: 7 lerroko oharra. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako -n *guero* eta -n *azquero* egiturak erabiltzen ditu; -n *guero* horietako bat da hau. Eskuizkribuan ugari agertzen da “aditza + -an *gero*” egitura, instrumentalik gabe: *medecinea çu çarean guero* (AL: 1152v), *Abisaetan çaitudan guero* (A10: 71), *ez dodan guero culparic* (A16: 36), *a liçan guero medicua* (A21: 9), *Claramente dacustan guero* (A24: 145), *dagoan guero gauaroau illun* (B2: 43).

<sup>101</sup> *ezconduzquero*: ‘ezkontzen garen momentutik’; *gero* adberbioan oinarrituriko egiturei buruz, ikusi A24: 7 lerroko oharra. Hemen “partizipioa + -zquero” dugu.

oy ezta damuquet[e]a.<sup>102</sup>  
 Uztarriori ezarrizquero,  
 sufridu bear goldea; 150  
 orapilagaz<sup>103</sup> lotu azquero,  
 neque daascaetae.  
 Gauça fortiça<sup>104</sup> oy dana<sup>105</sup> bacust<sup>106</sup>  
 ezconduaren carguea;  
 carga andia sufrietaco 155  
 oraindo<sup>107</sup> nax gaztea.  
 Azaiteau<sup>108</sup> galdu lerait<sup>109</sup>  
 ardura usaçaqueac;<sup>110</sup>  
 ene aguinoc ezin jan leie  
 aragui errebaguea;<sup>111</sup> 160  
 estomagoau galdu leiquet  
 bianda probaçaqueac.<sup>112</sup>  
 Oean calentureac liquet<sup>113</sup>

Honakoan, eta baita bi lerro beherago datorren *ezarrizquero* horretan ere, berezko denborazko interpretazioari balio orokorra antzematen zaio, perpauson inpertsonaltasunaren eraginez, beharbada.

<sup>102</sup> *damuquet[e]a*: Errimak eta silaba-kopuruak eskatuta zuzendu dugu.

<sup>103</sup> *orapilagaz*: ‘orapiloagaz, korapiloarekin’; Landuccik *orapin* dakar.

<sup>104</sup> *fortiça*: ‘bortitza, sendoa’; *OEH*ren arabera Gerriko dateke aldaera honen lehen agerraldia. Orain arte G eta GN-n zegoen dokumentaturik, eta ekialderago ere bai. Lazarragaren eskuizkribuan sei aldiz dago (A14: 18, A16: 81, A24: 153, A28: 50, B17: 97, B18: 9).

<sup>105</sup> *dana*: ‘dela’; -na konpletiboa.

<sup>106</sup> *bacust*: ‘badakust, ikusten dut’.

<sup>107</sup> *oraindo*: ‘oraindik’.

<sup>108</sup> *Azaiteau*: ‘hazte hau’; cf. *OEH*, s.v. *hazte*: “Alimentación, nutrición; educación”. Pasartearen zentzu nagusia argian den arren (ez du dontzeila gaztetxoarekin ezkondu nahi), hitzez hitzeko esanahia ez da hain gardena. Izan ere, eman dugun interpretazioa ez da gogo-betekoa; *azaite* hitzarentzat, adibidez, beste aukera bat ere aztertu dugu: ‘azeite, olio’ izatea, López de Guereñuren *Voces alavesas* liburuan (s.v. *azaite*) dioenari kasu eginez: “Vulg. por *aceite*. [...] (Corriente)”.

<sup>109</sup> *galdu lerait*: ‘galaraz liezadake’; *eragin* aditz laguntzailea, faktitibotasuna markatzeko. Lazarragak \*eradutsi ere erabiltzen du faktitibotasuna adierazteko (AL: 1145v eta A27: 5).

<sup>110</sup> *ardura usaçaqueac*: ‘ardura usatzekoak, ardura ez erabiltzeak, arduragabe jokatzeak’, hain zuzen ‘gazteegi ezkontzeak’.

<sup>111</sup> *aragui errebaguea*: Neska gazte dontzeilak dira, ziur aski, ‘haragi erregabea’.

<sup>112</sup> *bianda probaçaqueac*: Berriz ere neska gazte dontzeilak dira, ziur aski, ‘bianda probatugabea, janari dastatu gabea’.

lagunic baneu aldean;	
laster batean oy liracasquet <sup>114</sup>	165
beste mundura bidea.	
Gauça sacona bide <sup>115</sup> da, içan,	
isaso ondarbaguea;	
neure buruau ez nei ondo	
andratan <sup>116</sup> confiacea. <sup>117</sup>	170
Ene aideac, oy arren, au da	
neuronen respuestea:	
acordaetan <sup>118</sup> ez dodala	
ain laster ezconquetaea. <sup>119</sup>	

### Laçarraga

<sup>113</sup> *calentureac liquet*: ‘sukarrak emango lidake, joko ninduke, harrapatuko ninduke’, hots, ‘sukarra izango nuke’; *liquet* adizkia \*i(n) aditza da, euskara zaharrean maiztasun handiarekin agertzen zaiguna ‘eman’ adierarekin.

<sup>114</sup> *liracasquet*: ‘irakatsiko lidake’; poema honetan bada *irakatsi* aditzaren beste forma trinko bat: *diracasudan* (A24: 47), bakarra, honekin batera, XVI. mendeko testuetan.

<sup>115</sup> *bide*: ‘dirudienez’ esanahia duen partikula ez da ohikoa mendebaldeko testuetan. Cf. *OEH*, s.v.: “**2 bide** (G, AN, L, BN, S, R ap. A; SP, Lar, *VocCB*, Dv, H). [...] De empleo general salvo en suletino; tampoco es frecuente en textos vizcaínos”. Baina Lazarragak eta Etxeparek *bide* partikula erabiltzen dute probabilitatearen adierazteko, trinkoekin zein perifrasiakin: *Gauça sacona bide da, içan, / isaso ondarbaguea* (A24: 167-168), *jaio bide ninçan ayn temporatan* (B22: 26); *çure pena dioçunoc nonbayt handi videytuçu* (Etx IX, 30), *Ene gogoa balyaqui mayte vide nynduque* (Etx V, 13).

<sup>116</sup> *andratan*: Oro har, bizidunekin, Lazarragak -gan erabiltzen du leku-postposizioa aitzin; horrek balio du izenertzat baina baita izenordainertzat ere. Baina izen plural eta mugagabeak (hemen *andratan*) bizigabeak balira bezala tratatzen dira (hots, -gan gabe); joera hau bat dator beste testuetan aurkitzen denarekin (Etxepare, Leizarraga...).

<sup>117</sup> *Gauça sacona bide da, içan, / ... / ... / andratan confiacea*: Molde tradizionaleko kopletan bezala (ikusi eskuizkribu honetan A4: 9-12 eta A4: 17-20), bi bertso-lerrotan sarrera estilizatu gisako irudi ordezkarria eskaintzen da (A24: 167-168), eta beste bi bertso-lerro figuratibotan irudi fokala (A24: 169-170), ondoko esango balu bezala: ‘itsaso hondargabea sakona dela esatea baieztapen ukaezina den bezala, ukaezina da orobat ez litzatekeela zentzuzkoa izango nire burua andren esku uztea’.

<sup>118</sup> *acordaetan*: ‘onartzen’.

<sup>119</sup> *acordaetan [...] ezconquetaea: acordadu* ‘erabaki, onartu’ aditzak bi joskerak (-tzea eta -tzen) onartzen ditu eskuizkribuan. Bost bider aurkitu dugu osagarria -tzen forman: *acordadu eben joaten* (AL: 1146r), *acordadu eben arçai aberaspatequin jarten arçaiçat* (AL: 1146v), *acordadu eben aen esque joaten* (AL: 1151r, AL: 1151v), *acordadu dot erietan* (B18: 118). Bi bider erabili du osagarria -tzea forman: *acordaetan ez dodala / ain laster ezconquetaea* (A24: 173-174), *acorda badeçaçu ucacea* (B3: 89).

Azken bi lerroak, hiperbatonaz ohartuz gero, ondo ulertzen dira: *ez nei ondo neure buruau andratan confiacea*, ‘ez nuke ondo egingo neure buruua andren esku utzikor banu’.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

1 Aurrekoak ez bezala, poema hau aurreko poema idatzita dagoen orrialdearen ezkerreko zutabean hasten da, baina hurrengo orria osoki hartzen du (1196r eta 1196v). Letra bera izan badaiteke ere, tamaina txikiagokoa da poema guztian zehar, eta lerroartea ere estuagoak. || deustae] -tae lerro gainean idatzita, ez zelako lerroan sartzen, nonbait, aurreko tatxaduraren kariaz. **1-2** Aide ... carta] ezkerretara lerro oso bi ezabatu dira: *Arriolaric oita Larrara / jasi ei da carta*. Horien ordez idatzi dira beste bi hauek. Esku bera da, ziur aski, bi bertsioak idatzi dituena. **37** badaguit] *ba-* zerbaiten gainean idatzita, agian *azq-* (*azquero* jartzeko, hain zuzen). **79** bear] esk. *bea*. **82** arean] esk. *area*, baina azken *-a* bokalaren gainean lakioarekin. **92** faltaco] esk. *fataco*. **103** dacust] esk. *daçust*. **105** daquiona] esk. *daguiona*. **107** urten] aurrean zerbait tatxatuta. **113** dabena] badago beste letra bat ondotik, ezabatuta. **121** nitaucat] esk. *nitaucautat*. **146** galçaiten] esk. *galçaite*. **148** damuquetea] esk. *damuqueta*. Errimak eta silaba-kopuruak hala zuzentzea eskatzen du. **163** Oean] aurrean *gabea-* (*gabean* jartzeko-edo) ezabatuta. **165** liracasquet] *-cas-* beste zerbaiten gainean idatzita (ziur aski *-quet* idatzi du lehenengo, hain zuzen *liraquet*). **174** laster] *-e-* beste letra baten gainean idatzita. **175** Laçarraga] esk. *LÇRGA* monograma.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A24 – Aide andioc bidaldu deustae...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A25

### Dichabagueau joan ninçan...

Jauregi batean hasten da kontakizuna. Andre ezkonberria da narratzailea, eta Garcilaso etsai traidorearekin topo egin du; susmo txarra hartu dio eta senarraren bila joan da larriturik; senarrak esan dio Garcilasok sartu diola zagita bularraldean, eta hilotz geratu da emaztearen besoetan. Andrea sei hilekoaz haurdun dago eta, erditu denean, Garcilaso senar berriak agindu du hilabeteko umea hiltzeko, semeak aitaren izenean aitaordearen aurka mendeku hartza oztopatu nahi duelako; itsasoan hondoratzeko agindu du, eta, hil dela frogatzeko, umearen hatz txikia eta bihotza eramateko berme gisa. Agindua bete behar duen gizona errukitu egin da, eta, umea hil beharrean, bidean aurkitu duen txakurtxoa hil du; umearen hatzamarra eta txakurraren bihotza eraman dizkio Garcilaso traidoreari, semea hil duela sinestarazteko.

Hor amaitzen da kontakizuna, baina ezagun da istorioa ez dela amaitu. Are gehiago, lehenengo idatzaldian soilik lehenengo 51 lerroak idatzi dira, eta bigarren idatzaldian erantsi dira 52-56 lerroak; paperean bazegoen lekua gehiago idazteko, baina etenda geratu bide da kontakizuna, *forma onetan bervaaetan* esapide kataforikoak beste zerbaite falta dela iragartzen duen arren.

Estiloak, metrikak (eskuizkribuko beste guztietatik desberdina baita) eta edukiak erakusten dutenaren arabera, balada narratibo bat da, eta Lazarraga ez da, seguruenik, asmatzailea, biltzailea baino. Horregatik eman ditugu lerro bakarrean etenak banatzen dituen bi hemistikioak, erromantze eta baladetan eman ohi diren bezala, Lazarragaren eskuizkribuan hemistikio bakoitzak lerro batean dagoen arren.

Balada honetan agertzen diren motibo folklorikoak (andrea lortzeko senarra hiltza, aitaordeak semea etxetik kanpora bidaltza, heroiaaren heriotzearen seinale gisa hatzamarra moztea edo bihotza ateratza, heroiaaren gorputz-atal horien ordez animalia baten gorputz-atalak ematea...) Europako testu askotan agertzen dira, baina gaztelaniazko *Romance de Gaiferos y Galván* edo *Infancia de Gaiferos* erromantzearekin dituen antzekotasunek pentsarazten dute tradizio berekoak direla. Euskarazko baladako Garcilaso gaztelaniazko erromantze Galván da, eta euskarazkoan narratzailearen semea da gaztelaniazko erromantze Gaiferos. Interesgarria da, dena den, jakitea gaztelaniazkoaren kontakizuna baino lehenago hasten dela istorioa euskarazkoan, eta lehenago amaitzen; euskarazkoan senarraren hilketa hasten da, semea jaio baino lehen, eta gaztelaniazkoaren hasieran alargunak azaltzen dio seme mutil-koxkorri aitaordeak hil zuela aita; amaierari dagokionean, berriz, euskarazkoan arinago mozten da, seme jaio-berria hiltzeko agindua betetzen ez denean, eta ez da azaltzen geroko istorioa (osabarenera joatea eta mendeku hartzeko itzultzea).

Hona hemen Gaiferosen bi erromantzeak, Pan-Hispanic Ballad Project bilduman editaturiko [XVI. mendeko bertsioetan](#):

*Gaiferos y Galván I*

Estábase la condesa en su estrado asentada,  
tisericas de oro en mano, su hijo afeitando estaba.  
Palabras le está diciendo, palabras de gran pesar;  
las palabras eran tales que al niño hacen llorar.  
—Dios te dé barbas en rostro, y te haga barragán;  
déte Dios ventura en armas, como al paladín Roldán,  
porque vengases, mi hijo, la muerte de vuestro padre.  
Matáronlo a traición por casar con vuestra madre.  
Ricas bodas me hicieron en las cuales Dios no ha parte;  
ricos paños me cortaron, la reina no los ha tales.—  
Maguera pequeño el niño, bien entendido lo ha.  
Allí respondió Gaiferos, bien oiréis lo que dirá:  
—Así ruego a Dios del cielo y a Santa María su Madre.—  
Oídolo habría el conde en los palacios do está:  
¡Calles, calles, la condesa, boca mala sin verdad!,  
que yo no matara el conde, ni lo hiciera matar;  
mas tus palabras, condesa, el niño las pagará.—  
Mandó llamar escuderos, criados son de su padre,  
para que lleven al niño, que lo lleven a matar.  
La muerte que él les dijera mancilla es de la escuchar:  
—Córtenle el pie del estribo, la mano del gavilán,  
sáquenle ambos los ojos por más seguro andar  
y el dedo y el corazón traédmelo por señal.—  
Ya lo llevan a Gaiferos, ya lo llevan a matar;  
hablaban los escuderos con mancilla que d'él han:  
—¡Oh válasme Dios del cielo y Santa María su Madre!,  
si este niño matamos ¿qué galardón nos darán?—  
Ellos en aquesto estando, no sabiendo qué harán,  
vieron venir una perrita de la condesa su madre.  
Allí habló el uno de ellos, bien oiréis lo que dirá:  
—Matemos esta perrita por nuestra seguridad,  
saquémosle el corazón y llevémoslo a Galván,  
cortémosle el dedo al chico por llevar mejor señal.—  
Ya tomaban a Gaiferos, para el dedo le cortar:  
—Venid acá vos, Gaiferos, y querednos escuchar;  
vos íos de aquesta tierra y en ella no parezcáis más.—

Ya le daban entre señas el camino que hará:  
—Irvos heis de tierra en tierra a do vuestro tío está.—  
Gaiferos desconsolado por ese mundo se va;  
los escuderos se volvieron para do estaba Galván.  
Danle el dedo y el corazón y dicen que muerto lo han.  
La condesa que esto oyera empezara gritos dar;  
lloraba de los sus ojos que quería reventar.  
Dejemos a la condesa, que muy grande llanto hace,  
y digamos de Gaiferos, del camino por do va.  
Que de día ni de noche no hace sino caminar  
fasta que llegó a la tierra adonde su tío está.  
Dícele de esta manera, y empezole de hablar:  
—Manténgaos Dios, el mi tío. —Mi sobrino, bien vengáis.  
¿Qué buena venida es esta?, vos me la queráis contar.  
—La venida que yo vengo triste es y con pesar,  
que Galván con grande enojo mandado me había matar;  
mas lo que vos ruego, mi tío, y lo que vos vengo a rogar,  
vamos a vengar la muerte de vuestro hermano, mi padre.  
Matáronlo a traición por casar con la mi madre.  
—Sosegaos, el mi sobrino, vos queráis asosegar,  
que la muerte de mi hermano bien la iremos a vengar.—  
Y ellos así estuvieron dos años y aun más,  
fasta que dijo Gaiferos y empezara de hablar.

*Gaiferos y Galván II*

—Vámonos—, dijo, —mi tío, a París esa ciudad  
en figura de romeros, no nos conozca Galván,  
que si Galván nos conoce mandar nos hía matar.  
Encima ropas de seda vistamos las de sayal;  
llevemos nuestras espadas por más seguros andar;  
llevemos sendos bordones por la gente asegurar.—  
Ya se parten los romeros, ya se parten, ya se van,  
de noche por los caminos, de día por los jarales.  
Andando por sus jornadas a París llegado han;  
las puertas hallan cerradas, no hallan por donde entrar.  
Siete vueltas la rodean por ver si podrán entrar,  
y al cabo de las ocho un postigo van hallar.  
Ellos que se vieron dentro empiezan a demandar;

no preguntan por mesón, ni menos por hospital,  
preguntan por los palacios donde la condesa está.  
A las puertas del palacio allí van a demandar.  
Vieron estar la condesa, y empezaron de hablar:  
—Dios te salve, la condesa. —Los romeros, bien vengáis.  
—Mandedes nos dar limosna por honor de caridad.  
—Con Dios vades, los romeros, que no os puedo nada dar,  
que el conde me había mandado a romeros no albergar.  
—Dadnos limosna señora, qu'el conde no lo sabrá;  
así la den a Gaiferos en la tierra donde está.—  
Así como oyó Gaiferos comenzó de suspirar;  
mandábales dar del vino, mandábales dar del pan.  
Ellos en aquesto estando el conde llegado ha.  
—¿Qué es aquesto, la condesa? aquesto ¿qué puede estar?  
¿No os tenía yo mandado a romeros no albergar?—  
Y alzara la su mano, puñada le fuera a dar  
que sus dientes menudicos en tierra los fuera a echar.  
Allí hablaron los romeros, y empiezan de hablar:  
—¡Por hacer bien la condesa cierto no merece mal!  
—¡Caldeles vos, los romeros, no hayades vuestra parte!—  
Alzó Gaiferos su espada, un golpe le fue a dar  
que la cabeza de sus hombros en tierra la fuera a echar.  
Allí habló la condesa llorando con gran pesar:  
—¿Quién érades, los romeros, que al conde fuiistes matar?  
Allí respondió el romero, tal respuesta le fue a dar:  
—Yo soy Gaiferos, señora, vuestro hijo natural.  
—Aquesto no puede ser, ni era cosa de verdad,  
que el dedo y el corazón yo lo tengo por señal.  
—El corazón que vos tenéis en persona no fue a estar,  
el dedo bien es aqueste, que en esta mano me falta.—  
La condesa que esto oyera empezóle de abrazar;  
la tristesa que tenía en placer se fue a tornar.

<1197r>      Dichabagueau joan ninçan<sup>1</sup>    ecer baga escuetan;

<sup>1</sup> *Dichabagueau joan ninçan*: Emakumea da kontalaria; berehala (A25: 5-7) etsaia berari zuzenduko zaio noka.

esaiorrez topa nindin<sup>2</sup> gradaetan,<sup>3</sup>

legoala<sup>4</sup> ballesta bat armaetan.<sup>5</sup>

—Traidorea, cer da onela? Cer egun deuc<sup>6</sup> jauregietan?—<sup>7</sup>

—Eyz ona ichi dinat<sup>8</sup> menaetan.<sup>9</sup>

5

Igo egun<sup>10</sup> da<sup>11</sup> asi adi mocietan;<sup>12</sup>

<sup>2</sup> *esaiorrez topa nindin*: ‘etsai horrekin topatu nintzen’; aditza aoristo edo iraganaldi burutu zaharra da. Osagarria soziatiboan dago *OEHn* bildu diren agerraldi guzietan, bai eta eskuizkribu honetako beste agerraldi batean ere: *topadu çan arçai bigaz* (AL: 1147r); hemen, ordea, instrumentala izan behar du.

<sup>3</sup> *gradaetan*: ‘eskaileretan’; cf. Lcc “grada para subir, igaiteco gradea”.

<sup>4</sup> *legoala*: ‘zegoelarik’; XVI. mendeko autore gehienek *l-* arrizkidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emaiteaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic egun nagon / modu ascotan erregua, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 9-13), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdu* (Etx III, 17), *Fray Vicente esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

<sup>5</sup> *ballesta bat armaetan*: ‘balezta bat armatzen’.

<sup>6</sup> *deuc*: *deu-* moldeko \**edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan, eta gainera poema gutxi batzuetan bildu dira: *deut* (A16: 66, A19: 3, A19: 5, A19: 43, A19: 47, A25: 20), *deudan* (A16: 31), *badeu* (A24: 99), *deuc* (A25: 4). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *du-* moldeetakoak.

<sup>7</sup> *jauregietan*: ‘jauregian’; ez dakigu zerk eragin duen plurala, errima betetzeak ez bada. Orobatsu *sillaetan* (A25: 15), *egunetan* (A25: 30).

<sup>8</sup> *dinat*: Hikako formak ez dira gutxi eskuizkribuan, baina soilik bi pasartetan dago aditzean markaturik genero femeninoa: artzain-liburuko AL:1152v atalean eta A25 poeman. Hona hemen pasarte horiek: *cegayti ezton losaric?* (AL: 1152v), *Naguin, Sirena, remediadu* (AL: 1152v),

—*Eyz ona ichi dinat* menaetan.

*Igo eguin da asi adi mocietan;*

*ni banajoan salsearen aurquietan.—*

—*Ez al deustac bardin egua contaetan.—*

—*Igo eguin laster, ece eurc dacusquen erietan.—* (A25: 5-9).

Lazarragarenak genero femeninoaren marka daramaten lehenengo adizkietakoak bide dira, Leizaragarenekin batera.

<sup>9</sup> *menaetan*: ‘almenetan’; Landuccik, ordea, *almenea* dakar: “almena de torre, *torrean almenea*”. Gaztelaniaz, ez dago *mena* forma *DAuten*, baina *CORDEN* aurkitu ditugu zenbait adibide, gehienbat Erdi Arokoak: “Et un dia fueron a un castiello. en que auie una torre muy alta. & en cada **mena** de la torre. estaua un omne uestido de pannos blancos” (Izengabea, 1293, *Gran Conquista de Ultramar*); “¿Qu’es de Nínive, Fortuna? / ¿Qu’es de Thebas? ¿Qu’es de Athenas? / ¿Dó sus murallas e **menas**, que non paresce ninguna?” (Íñigo López de Mendoza, 1448-1453, Santillanako Markesa, *Blas contra Fortuna*).

Ezabaturiko bertsioaren arabera, *tranpaetan* ‘sabaizuloetan’ (cf. *OEH*, s.v. *tranpa*: “Trampilla, abertura practicada en el piso o tejado. “Assomar, *tranpara egin*” Lcc.”).

ni banajoan<sup>13</sup> salsearen aurquietan.—<sup>14</sup>  
 —Ez al<sup>15</sup> deustac bardin<sup>16</sup> egua contaetan.—  
 —Igo eguin<sup>17</sup> laster, ece eurc<sup>18</sup> dacusquen<sup>19</sup> erietan.—<sup>20</sup>  
 Igo neben bista baga beguietan.<sup>21</sup> 10  
 Neure jaunac baesadan:<sup>22</sup> —Nora çatoz penaetan?—  
 —Ene jauna, cer diostaçu? Cer dauçaçu bularretan?—  
 —Çaguita<sup>23</sup> bat eben<sup>24</sup> daucat; açarri ez nax<sup>25</sup> tiraetan.  
 Confesorea becardae<sup>26</sup> lasterretan.—<sup>27</sup>

<sup>10</sup> *Igo eguin*: ‘igo ezan’, bai hemen eta baita beherago A25: 9 lerroan ere; *igo* aditza beti da iragankorra Lazarragaren eskuizkribuan: *igo eben* (AL: 1143v), *igo egin* ‘igo ezan’ (A25: 6, A25: 9), *igo neben* (A25: 10).

<sup>11</sup> *da*: ‘eta’.

<sup>12</sup> *mocietan*: ‘mozten, larrutzen / lumatzen’; formari dagokionean, ikusi *mocituric* (A19: 54). Adierari dagokionean, *moztu*, *motzitu* aditzaren lehenengo esanahiarekin izango luke zerikusia (“Esquilar; rapar, cortar el pelo; “Desplumar” Lar y Añ.” *OEH*. s.v. *moztu*), larrutzea edo lumatzea baita, ehiza motaren arabera, ehizarekin egiten den lehenengo lana.

<sup>13</sup> *banajoan*: ‘banoan’; *joan* aditza da, NOR bakarreko sailekoa, noka.

<sup>14</sup> *salsearen aurquietan*: ‘saltza aurkitzen, aurkitzera’; poema osoan askotan agertzen dira *-etan* bukaera duten aditz-izenak: *aurquietan*, *contaetan*, *tiraetan*... Horietako batzuk arazorik gabe ulertzten dira *-tzen* aditz-izenaren pareko gisa, baina beste batzuetan *-tzeko*, *-tzea*, *-tzeria* espero genezakeen lekuetan ere badira; ez dakigu horietako zenbat diren XVI. mendeko erabilera desberdinaren isla, eta zenbat diren errimaren beharrak eragindakoak. Ohar honek balio beza poema honetako guztientzat.

Bestalde, TO-GEN deituriko egitura da, hots, *salsearen da aurquietan* aditz iragankorren objektua, genitiboan.

<sup>15</sup> *al*: ‘dirudienez, ziur aski’; *al* honek probabilitate handia adierazten du.

<sup>16</sup> *bardin*: ‘nonbait’; Lazarragaren eskuizkribuan 11 aldiz aurkitu dugu *bardin*. Horietako batean bakarrik (AL: 1145v) du zalantzarik gabe gaurko ‘berdin’ esanahia, ‘berdintasuna’ adierazten duena; hiru aldiz (AL: 1151r, A25: 8, A27b: 7) ‘dena den, nonbait, beharbada, seguru aski’ adierazten du, gure ustez (cf. *OEH*, s.v., “de todas maneras, en cualquier caso” eta “probablemente, quizás”); behin (A12: 11) zalantza dugu bi adiera horietako zein ote duen; eta, azkenik, sei bider adierazten du baldintza (AL: 1172r, A24: 5, B17: 82, B18: 93, B18: 98, B23: 101).

<sup>17</sup> *Igo eguin*: ‘igo ezan’.

<sup>18</sup> *eucr*: ‘heuk’, izenordainaren forma zaharrean.

<sup>19</sup> *dacusquen*: ‘ikusiko dun’; *ikusi* aditzaren geroaldi trinkoa.

<sup>20</sup> *erietan*: ‘eriturik, zauriturik’; testuan adiera burutua bide du, ‘heuk ikusiko dun zauriturik’ alegia. *Eritu, eridu* aditzaren lehenengo agerraldia dugu (cf. *OEH*, s.v. 2 *eritu*): “Documentado en textos meridionales desde principios del s. XVIII. A partir de mediados del siglo XIX sólo se encuentra en textos de carácter popular”.

<sup>21</sup> *bista baga beguietan*: ‘itsututa’; ‘larrituta’ adierazteko.

<sup>22</sup> *baesadan*: ‘esan zidan’; *esan* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa. Bestalde, *ba-*, Lazarragaren eskuizkribuan, aditz aurreko hutsa da batzuetan, eta ez du nahitaez galdegaia markatzen.

<sup>23</sup> Çaguita: ‘gezi’; cf. lat. *sagita*. Hegozaldeko lehen agerraldiak bide dira Lazarragaren eskuizkribukoak.

<sup>24</sup> *eben*: ‘hemen’.

<sup>25</sup> *açarri ez nax*: ‘ez naiz ausartu’; *azarri* formaren RS-ko adibidea baino ez zegoen bilduta XX. mendera arte (lehen eskutik behintzat): *Edozein da azarri, baia gudura doa gitxi* (RS 383).

—Ene jauna, jarri çatez<sup>28</sup> sillaetan.

15

Norc eguiān colpeori çure aragui ederretan?—

—Garcilasoc, ene andrea, nengoala menaetan,

bigueleaz<sup>29</sup> cancio baten cantaetan.<sup>30</sup>

Il banadi,<sup>31</sup> nic deusat parcaetan;

bici banax, jaquingo deut<sup>32</sup> bengaetan.—

20

Au esan da<sup>33</sup> il equidan<sup>34</sup> escuetan.

Andra dichabagueau, barriz, sei ilecoaz<sup>35</sup> maiaetan;<sup>36</sup>

<sup>26</sup> *becardae*: ‘ekar biezadate’; *ekarri* aditzaren jusibo trinkoa.

<sup>27</sup> *lasterretan*: ‘lasterrean, arin’; *OEHn*, s.v. *laster*, badago forma honen adibide bat: “LASTERRETAN. Corriendo, deprisa. v. LASTERREAN. [Su hark] *berekin eramanen tu lasterretan zikhiñak / ifernu itsusiaren ondarrera ariñak. EZ Man I 80*”.

<sup>28</sup> *jarri çatez*: ‘jarri zaitez, eseri zaitez’; testu osoan bi aldiz agertzen da *jarri çatez* (A17: 53, A25: 15) eta beste bi aldiz *çarriz* (A26: 78, A26: 113).

<sup>29</sup> *bigueleaz*: ‘bihuelagaz, bihuelarekin’; irakur bedi *bigueleaz*, -u- eta guzti; hemen -az bukaerak soziatiboaren balioa du. Gitarraren antzeko hari-instrumentua da, eta hain zuzen XVI. mendean izan zuen loraldia Iberiar Penintsulan. Cf. AL: 1139r, AL: 1140v, AL: 1141v, AL: 1143v, A24: 18 eta A25: 18.

<sup>30</sup> *cancio baten cantaetan*: ‘kantu bat kantatzen’; TO-GEN deituriko egitura da, hots, *cancio baten da cantaetan* aditz iraganorraren objektua, genitiboan.

<sup>31</sup> *Il banadi*: ‘hiltzen banaiz’.

<sup>32</sup> *deut*: *deu-* moldeko \**edun* aditzaren formei buruz, ikusi A25: 4 lerroko oharra.

<sup>33</sup> *da*: ‘eta’.

<sup>34</sup> *il equidan*: ‘hil zitzaidan’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>35</sup> *sei ilecoaz*: ‘sei hilekoagaz, sei hilekoarekin; sei hileko haurdunaldian’; hemen -az bukaerak soziatiboaren balioa du.

<sup>36</sup> *maiaetan*: ‘dotore, emaztegai gazte ezkongabea bezain dotore’, hemen agian ‘dotoreegi, barregarri’; gaztelaniazko *andar hechas mayas* edo *hechos unas mayas* esamoldeekin lotu behar dela uste dugu; horien esanahia ikusteko, bereziki adierazgarria da c. 1600eko aipu hau (*apud CORDE*): “Hay también algunas mujeres que ponen toda su felicidad en traerse y aderezarse, y paréceles que si dejan algún día de andar **hechas mayas**, andan a la vergüenza. Por éstas se podía decir: Sus arreos son tocarse; su descanso, ataviarse” (Izengabea, c. 1600, *Genealogía de los modorros*); 1632ko beste hau ere argigarria da (*apud CORDE*): “**hechos unas mayas**, con todos los díces del barrio, que es lo mismo” (Rodrigo Carvajal y Robles, 1632, *Fiestas que celebró la Ciudad de los Reyes del Pirú...*).

Esapidearen jatorrian maia-bestak (hala deitzen omen zitzaison Donezteben) bide dago; Cf. *DAut*, s.v. *maya*: “Una niña, que en los días de fiesta del mes de Mayo, por juego y divertimiento, visten bizarramente como novia, y la ponen en un asiento en la calle, y otras muchachas están pidiendo a los que passan den dinero para ella, lo que les sirve para merendar todas”. Euskal Herrian, batez ere Baztanen (cf. *Auñamendi Entziklopedia* s.v. *fiesta de las mayas*) ezagutzen da festa honen berri, eta *Erregina eta saratsak* ere deitzen zitzaison; zuririk jantzita eta burua lore-koroaz apainduta joaten ziren neska gazteak (hamabi urte ingurukoak) etxerik etxe eskean, kantuan. Betiere neskarik ederrena omen zen erregina (*la maya*).

Beraz, *maiaetan*, gure ustez, *calça-juponetan* ‘narras, lardats’ (A25: 23) esapideari kontrajartzen zaio, eta esan nahi du ‘dotore, maia-bestako erregina emaztegai gazte ezkongabea bezain dotore’, eta hemen, sei hilekoarekin haurdun dagoenez, aldi berean ‘barregarri’.

ene esai traidorea pocic calça-juponetan.<sup>37</sup>

Tristea<sup>38</sup> nengoan iru ileco egunetan,<sup>39</sup>

asecaba garraç asco oy nebela sufriean,

25

sabelecoaz ez ninçala gozaetan.

Senar baga jarri ninçan belaunetan.<sup>40</sup>

Amaeca ilabete neure jauna goza neçan.<sup>41</sup>

Ala<sup>42</sup> andrea dichabaga sortu baçan<sup>43</sup> nescaetan!<sup>44</sup>

Cerren<sup>45</sup> il ez ete ninçan jaio ninçan egunetan?

30

Seme batez erdi ninçan; digna ez ninçan gozaetan:

ilabete ez eguijan ama bereaen<sup>46</sup> ugacetan;

arrezquero<sup>47</sup> ene semea eztacust neure beguietan.

Ondo uste dot<sup>48</sup> galdu çala isasoaren ondarretan;

Garcilaso traidoreac aguindu eben undaetan;<sup>49</sup>

35

<sup>37</sup> *calça-juponetan*: ‘narras, lardats’; cf. DAut: “En *calzas* y *jubón*. Phrase que denota sin aseo, sin compostura, indecentemente vestido y ataviado”. Cf. Lcc “*jubón, jupoī*”.

<sup>38</sup> *Tristea*: -a mugatailearen erabilera honetarako, ikusi baita *lenaengoa* (A24: 49) ere. Bestalde, cf. Lcc “entristercerse, *triste egon*”.

<sup>39</sup> *iru ileco egunetan*: ‘hiru hilabetetan’; haudunaldian geratzen zitzaitzkin hiru hileetan, hain zuzen.

<sup>40</sup> *jarri ninçan belaunetan*: ‘erdi nintzen, izan nuen umea’; etnografia-ikerketek diotenez (Manterola 1998: “La posición al parir” atala, 91-93. or.), belauniko erditzen ziren emakumeak herri batzuetan; erditzeko jarrera horren berri jaso dute gutxienez Erriberagoitian eta Elgoibarren. Senarraren edo beste norbaiten belaunetan erditzearen berri ere jaso dute, gutxienez Orozkon, Nabarnizzen, Zeberion eta Tolosan. Erditzeko bi jarrera horietako bat adierazten du, dirudienez, Lazarragaren eskuizkribuko testu honek.

<sup>41</sup> *goza neçan*: ‘gozatu nuen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>42</sup> *Ala*: ‘zinez’; harridura-perpausetako partikula.

<sup>43</sup> *baçan*: *ba-* baiezkoa da.

<sup>44</sup> *Ala andrea dichabaga sortu baçan nescaetan!*: ‘zinez andrea ditxagabe sortu zen nesken artean!’.

<sup>45</sup> *Cerren*: ‘zergatik’; galdetzailea da hemen.

<sup>46</sup> *ama bereaen*: ‘bere amaren’; izenlaguna eskuinetara dago.

<sup>47</sup> *arrezquero*: ‘geroztik’; gero adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumental + -quero” eta “partizipio + azquero” egiturak erabiltzen dira. Hemen erakuslean oinarritutako forma dugu.

<sup>48</sup> *Ondo uste dot*: ‘uste dut’; gaztelaniazko *bien pensar* (eta bereziki *bien pienso*) esamoldearen itzulpena da; gaztelaniaz hain zuzen XVI-XVII. mendeetan erabili zen gehien (*CORDEn bien pienso* formaren 44 agerraldi dira 1500-1650 tartearen, soilik 15 aurretik eta bat ere ez ondotik). Lazarragaren eskuizkribuan bi bider dago (AL: 1151v eta A25: 34).

<sup>49</sup> *undaetan*: ‘hondatzeko, hondoratzeko’; OEHren arabera (s.v. *hondatu*), *u-z* hasten diren formak lekukotuta daude Hegoaldean, nahiz bakan.

Joskerari dagokionean, *-tzen (-tan, undaetan)* dago *agindu* aditzaren erregimenean, eta ez *-tzea, -tzeko* (*undaetea, undaetaco*) gaurko erabileraren arabera espero genezakeen bezala.

<1197v> az chiquirra vioçagaz<sup>50</sup> lecarroela<sup>51</sup> señaletan,  
 gumutatu<sup>52</sup> ez lequion bere ayta escaetan.<sup>53</sup>  
 Ala bada, eroan even mandamentua cunplietan.  
 Aide baga bacox<sup>54</sup> nago desdichadeau eresquetan.<sup>55</sup> 40  
 Guiçon batec or daroa inocentea besoetan;  
 isasaldea beera<sup>56</sup> doa bere buruaz<sup>57</sup> bervaetan:  
 —Il aguidala jaunac jaustac aguinquetan,<sup>58</sup>  
 bioza ta az chiquirra<sup>59</sup> daroadala<sup>60</sup> señaletan.  
 Inocentea, damu diat ain gach andia obraetan;  
 borondate jaucaat<sup>61</sup> al badaguit salbaetan.— 45

<sup>50</sup> *az chiquirra vioçagaz*: ‘hatz txikia eta bihotza’; “X Ygaz” egitura da, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko. Egitura hau berau (“X Ygaz”, *az chiquirra vioçagaz*) agertzen da 55. lerroan ere, baina ikusi, horren ondoan, gauza bera adierazteko, 43. lerroko: *bioza ta az chiquirra*.

<sup>51</sup> *lecarroela*: ‘ekar ziezaiotela’; *ekarri* aditzaren *l-* aurritzidun hipotetikoko forma trinkoa. Ikusi 3. lerroko *legoala-ri* egindako oharra.

<sup>52</sup> *gumutatu*: ‘gogoratu’; *gumuta(tu)* forma ezezaguna zen orain arte (cf. *OEH*, s.v. *gomutatu*), baina ziurra da, bi lekutan agertzen baita eskuizkribuan: *gumutatu ez lequion* (A25: 37) eta *gumuta deçun* (A26: 90). Nolanahi ere, aditz honen lehen agerraldia dugu.

<sup>53</sup> *escaetan*: ‘eskatzea’, hots ‘gogoratu ez lekion bere aitari buruz galdetzea’, esan nahi baita Gartzilasok mutikoa hiltzeko agintzen duela (eta hil dutelako seinaletzat umearen hatz txikia eta bihotza eramateko eskatzen duela), beldur delako umea handitzean bere aita erailarri buruz galdetuko duela eta mendeku hartzen saiatuko dela.

<sup>54</sup> *bacox*: ‘bakarrik’; hiru aldiz aurkitu dugu testuan <-x> grafia soinu afrikatua adierazteko: *gax* (AL: 1142v), *bacox* (A17: 62, A25: 39).

<sup>55</sup> *eresquetan*: ‘erosta jotzen, auhenez, deitorez’; *eresi* aditzaren aditz-izena da, izan, eta testu honetatik kanko adibide zahar guztiak izenarenak dira (cf. *OEH*, s.v. 1 *eresi*). Bi aldiz dago eskuizkribuan: *Aide baga bacox nago desdichadeau eresquetan* (A25: 39) eta *Neure araguioc dacustanean / cein çarden direan escuchoetan, / bert[t]a]ti jasarte nax eresquetan* (B17: 61-63).

<sup>56</sup> *isasaldea beera*: ‘itsasaldean behera, itsasertzerantz’: badira honen antzeko beste egitura batzuen agerraldiak *OEHn* (s.v. *behera*): *Kalea bera* (TAV 3.1.11), *ura behera* ‘ibaian behera’ (Ax 353), *mendija beera* (Astar), etab. Askotan agertzen da mugaturik, baita pluralean ere. *beera*: Hitz honetan jatorrizko bokal arteko kontsonantea galdu da; bitan ageri zaigu hitz hau testuan, bietan bokal bikoitza gordeta (AL: 1153r, A25: 41). Landuccik ez dakar bokal bikoitzik: “acatar abaxo, *joan bera*”, “cabeça abaxo, *buruaz bera*”. Cf. *OEH*, s.v. *behe*: “Entre los autores meridionales, la variante más empleada es *bee* (escrito *bê* en textos, sobre todo de poesía, de comienzos del s. XX). *Be* es algo más frecuente en autores guipuzcoanos (Larramendi, Cardaberaz, Guerrico, Iturriaga, etc.), aunque aparece tbn. en Añibarro (*bee-* en la 2.<sup>a</sup> ed. del *Esku-liburua*), Zavala, Uriarte, etc. No es infrecuente encontrar ambas variantes en un mismo autor”.

<sup>57</sup> *buruaz*: ‘buruagaz, buruarekin’; hemen -az bukaerak soziatiboaren balioa du.

<sup>58</sup> *jaustac aguinquetan*: ‘agintzen zidak’.

<sup>59</sup> *bioza ta az chiquirra*: Ikusi 36. lerroko oharra.

<sup>60</sup> *daroadala*: ‘eraman ditzadala’; *eroan* aditzaren subjuntivo trinkoa da; eskuizkribuko beste leku batzuetan bezala, ez du objektu pluralarekiko komunzadurarik.

Bere beguiac eraçala<sup>62</sup> negarretan,  
 giçon onau baegoan cer leiquean pensaetan.  
 Chacurcho bat an eldu çan uraldeti<sup>63</sup> eyzquetan.<sup>64</sup>  
 Guiçon onac dei eguin da<sup>65</sup> lotu eben guidaletan;<sup>66</sup>  
 atera deuso bioçori, gorde dau calça-mudoetan.<sup>67</sup> 50  
 Inocentea efini dau lau acetan;<sup>68</sup>  
 lotu deuso escuchoa, usi eztidin<sup>69</sup> odoletan;  
 estali dau seychoa<sup>70</sup> array baçuen<sup>71</sup> conchaetan.<sup>72</sup>

<sup>61</sup> *jaucaat*: ‘zeukeat’; bokal bikoitzari dagokionean, hemen alokutibotasunarekin erlazionaturik dago. Beste autore batzuetan ere aurkitzen dira *jaukaa-* (= *jauka-*) eta *zeukaa-* (= *zeukea-*) forma alokutiboak.

<sup>62</sup> *eraçala*: ‘eratzaten zituela, etzanarazten zituela, jaisten zituela, apaltzen zituela’ (gazt. ‘abaxar’); *eratzan* aditzaren forma trinkoa da; halako lau aurkitu ditugu eskuizkribuan: *naraçaçu* (A17: 48), *daraçagula* (A17: 96), *eraçala* (A25: 46) eta *daraçanean* (B17: 46).

<sup>63</sup> *uraldeti*: ‘itsasertzetik’; cf. Lcc “orilla de la mar, *uraldea*”, “ribera de río, *ur aldea*”. Adiera honetan ez dago beste adibiderik XX. mendera arte: ‘uholdea’ eta ‘ibaia’ dira ohikoenak testuetan (cf. *OEH*, s.v. *uhalde*).

<sup>64</sup> *eyzquetan*: ‘ehizean’; izatez aditz-izena da, eta, espero bezala, *-ketan* (eta *ez -etan*) forma agertzen da txistukariarekin amaitzen den aditz-oinaren ondoren (*eyz-*).

<sup>65</sup> *da*: ‘eta’.

<sup>66</sup> *guidaletan*: ‘hanketan, hanketatik’; Landuccik ere badu forma hau (“pierna, *guidala*”), bai eta Barrutiak ere: *Gidal bi, gidal gozoagorik ez dira jamas ikusi!* (Acto 344). Cf. *OEH*, s.v. 1 *gidail*.

<sup>67</sup> *calça-mudoetan*: ‘galtzeten’; ez dakigu zehazki zer diren *calça-mudo(ac)*.

<sup>68</sup> *efini dau lau acetan*: ‘utzi du lau hatzamarrekin’, Gartzilasoren agindua betetzeko bat (*az chiquerra*) moztu diolako hain zuzen.

<sup>69</sup> *usi eztidin*: ‘hustu ez dadin’; ez dakigu partizipioa *utsi* ala *utsitu* litzatekeen.

<sup>70</sup> *seychoa*: ‘seintxoa, umetxoa’; halakoetan Lazarragak *-n* gabeko formak erabiltzen ditu beti: *arçai* (*passim*), *seychoa* (A25: 53), *sei* (B3: 13, B23: 62), *array* (A25: 53) eta *arraitan* (B2: 12). Landuccik ere *-n* gabeko formak bildu zituen: “pastor, *arçaya*”, “niñerias, *seguijan gauçac*” eta “pescado, *arraya*”.

<sup>71</sup> *baçuen*: Badirudi eskuizkribuan *batzu* dela oinarrizko gisa erabiltzen den forma. Absolutibozkoetan *batzu* forma bakarrik darabil (AL: 1139v, AL: 1141v, AL: 1146v, AL: 1154v), Hegoaldeko testu zaharretan agertzen ez dena; ikusi *OEHk* zer dioen (s.v. *batzu*): “Los autores septentrionales de los ss. XVI-XVII distinguen formalmente los casos absoluto y ergativo; hay dos sistemas: *batzu / batzuk* es el de Leïçarraga (Dechepare usa *batzu* para el caso absoluto, pero no hay ej. de ergativo), y *batzuk / batzuek* el de Axular y Etcheberri de Ziburu; Povvreau utiliza ambos: *batzu, batzuk / batzuk, batzuek*. [...] Al Sur no hay diferenciación formal: en los textos guipuzcoanos, desde el s. XVIII, se encuentra *batzuek* para ambos casos, y en los vizcaínos —ya desde Capanaga— *batzuk*”. Soziatibozko forma (*baçugaz*) horren gainean eraikia dela dirudi, *-gaz* gehitura; genitiboari dagokionez, *baçuen* da darabilen forma bakarra. Hauxe dakar *OEHk*: “*Batzuen* es casi la única forma para el genitivo: *batzuren* sólo se encuentra en Leïçarraga (junto a *batzuen*), Oihenart y unos pocos autores meridionales del s. XX”.

<sup>72</sup> *array baçuen conchaetan*: ‘arrain batzuen kontxetan, molusku batzuen oskol eta maskorren azpian’ estali du umea, ezkutatzeko. Landuccik ere badakar: “concha de pescado, *arrayā conchea*”. Oskola edo maskorra batik bat mariskoekin eta moluskuekin lotu ohi dugu, baina kontuan izan behar da, *otarrain* eta halakoek salatzen dutenez, “arrain” direla mariskoak ere. Gaztelaniaz ere, XVI-XVII. mendeetan, ez zen ezohikoa *concha* eta *pescado* hitzak erlazionatzea. Cf. *CORDEn* ondoko hauek: “una burjaca de

Garcilasoc esan eusan    señaleagaz cunplietan,  
 az chirira vioçagaz<sup>73</sup>    emun deuso escuetan.                                 55  
 Utra<sup>74</sup> contenturic dago    forma onetan bervaetan:<sup>75</sup>  
 [...]

---

## OHAR PALEOGRAFIKOAK:

2 esaiorrez] aurrean letra bat, tatxatuta; ondoren *topanindin*, tatxatuta.    3 legoala] ondoren letra bat tatzaturik, ziurrenik *b-* baten hasiera, hurrengo bertso-lerroko lehenengo hitzaren hasiera, hain zuzen.    5 menaetan] lerroartean; lerroan *tranpaetan*, tatxatuta.    7 banajoa] esk. *banajoa*.    8 bardin] *-r-* idatzi da *-l-* zegoen lekuan.    9 Igo] *-o-* beste letra baten gainean idatzita.    10 bista baga beguietan] azpian *eraturic gradaetan*, tatxatuta.    15 jarri çatez] *-e-* beste letra baten gainean idatzita.    17 menaetan] lerro azpian erantsia; lerroan *tranpaetan*, tatxatuta. Lerro batzuk gorago egileak ordezkatze berbera egin du.    18 cancio] esk. *cancio*.    23 pocic] *poç-* ikusi ezin dugun zerbaiten gainean zuzenduta.    29 sortu] *-t-* beste letra baten gainean.    45 jaucaat] *-a-* eta *-u-* artean letra bat, tatxatuta.    46 eraçala] *baeraçan* tatxatu ondoren erantsi du, ziurrenik poemaren lehenengo idaztaldian.    47 cer] aurrean hiru bat letra (*bae?*), tatzaturik.    49 guidaletan] *-da-* ez da ondo ikusten.    50 atera] *a-* lauso dago.    52 lotu deuso escuchoa ... forma onetan bervaetan] letra txikitzen da, eta meheago eta etzanxeago bihurtzen; luma ezberdina da, marra zorrotzagokoa.    53 baçuen] *-n* pare bat letraren gainean zuzenduta (agian *ta*).    54 señaleagaz] esk. *senaleagaz*.

concha de pescado” (Izengabea, c. 1600, *Inventarios reales...*), “concha de una grande pescado” (Alonso de Villegas, 1594, *Fructus sanctorum...*), “conchas de un cierto pescado” (Miguel de Cervantes, 1615, *Segunda parte del ingenioso caballero don Quijote de la Mancha*). Covarrubiasen hiztegiak ere (*Tesoro de la lengua castellana o española*, 1674 [1611]), *pescado* sarreran, arrainak zerrendatzean, horien artean aipatzen ditu “cangrejo, ostión ['ostra'], camarón, rana y otros muchos” eta *concha* honela definitzen du: “la cubierta dura de algunos pescados”.

<sup>73</sup> az chirira vioçagaz: Ikusi 36. lerroko oharra.

<sup>74</sup> Utra: ‘oso’; gutxienez Kapanagari eta Oihenarten atsotitzei esker ezagutzen genuen (cf. *OEH*, s.v.).

<sup>75</sup> forma onetan bervaetan: Halako esamolde kataforikoak beste askotan agertzen dira eskuizkribuan, batez ere artzain-liburuan: *manera onetan cantaetan* (AL: 1140v), *declaraetan*, *manera onetan* (AL: 1141v), *manera onetan cantaetan ebela* (AL: 1142v), *erançun eguion*, *manera onetan* (AL: 1143r), *ası çan cantaetan*, *manera onetan* (AL: 1143v), *manera onetan cantaetan* (AL: 1144r), *erançun eusten manera onetan* (AL: 1147r), *manera onetan erançun eusten* (AL: 1147v), *verba eguin eusten*, *manera onetan* (AL: 1153r), *forma onetan berva neguion* (A7: 11). Beti iragartzen dute estilo zuzenean aipatzen den diskurtsoa, eta hori da hain zuzen hemen faltan dena; izan ere, beste 30 lerrorentzako lekua zegoen eskuizkribuan, baina eten egin da kontakizuna.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A25 – Dichabagueau joan ninçan...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A26

### **Tratado de lo que berdaderamente aconteserá antes y el día del temeroso juicio**

Azken Judizioa iragartzen duen Ebanjelioetako Mateo 25, 31-46 atalaren glosa da, funtsean, poema hau. Hona hemen Ebanjelioko testua:

Gizonaren Semea, aingeru guztiak lagun dituela, aintzaz beterik etortzean, bere erregeaulkian eseriko da. Herriak oro haren aurrean bilduko dituzte. Hark batzuk besteengandik bereizi egingo ditu, artzainak ardiak akerretatik bereizten dituen bezala, eta ardiak bere eskuinean eta akerrak ezkerrean ezarriko ditu. Orduan, erregeak eskuinekoei esango die: “Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok; hartzazue munduaren sortzetik zuentzat prestatua dagoen erreinua. Gose bainintzen eta jaten eman zenidaten; egarri, eta edaten eman; arrotz, eta etxeen hartu ninduzuen; biluzik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaixo, eta bisitatu; kartzelan, eta ikustera etorri”. Orduan, zintzoek esango diote: “Jauna, baina noiz aurkitu zintugun gosek eta jaten eman genizun, edo egarriak eta edaten eman? Noiz aurkitu zintugun arrotz eta etxeen hartu, edo larrugorri aurkitu eta jantzi? Noiz aurkitu zintugun gaixo edo kartzelan eta ikustera joan?” Eta erregeak erantzongo die: “Benetan diotsuet: Nire seniderik txikien hauetako edozeini egin zeniotena, neuri egin zenidaten”. Gero, ezkerrekoei esango die: “Alde niregandik urrutti, madarikatuok, deabruarentzat eta haren laguentzat prestatua dagoen betiko sutara. Gose bainintzen eta ez zenidaten jaten eman; egarri, eta edaten eman ez; arrotz, eta ez ninduzuen etxeen hartu; biluzik, eta ez ninduzuen jantzi; gaixo eta kartzelan, eta ez zineten ikustera etorri”. Orduan, haien ere esango diote: “Jauna, baina noiz aurkitu zintugun gose edo egarri, arrotz edo larrugorri, gaixo edo kartzelan, eta guk lagundu ez?” Hark erantzongo die: “Benetan diotsuet: Txikien hauetako edozeini egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”. Eta hauek betiko zigorretara joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizitzara.

Pasarte hori glosatzen duten poema pedagogikoen tradizioa luzea da, jakina, Mendebaldeko literatura guztietan; gogoan izan, adibidez, Gonzalo de Berceoren “Los signos del juicio final” edo Francisco de Aldanaren “Octavas sobre el Juicio Final” (ikusi González Martínez 1998), eta are euskaraz ere, Etxeparereren “Judizio jenerala”.

Lazarragaren bertsioan, errimak markatzen du poemaren egitura: Ama Birjinaren bitartekotzari dagokio lehenengo partea (1-48 lerroak, -du errimarekin, *Invocación a la Madre de Dios* izenburupean), eta

ondoren dator Azken Judizioaren kontakizuna (49-166 lerroak, -ua- errima bokalikoarekin). Kontakizun horretan, bekatarien zigorraz dihardu lehenbizi (49-142) eta ongileen sariaz gero (143-166).

Eskuizkribuan poema honetan bakarrik aurkitu dugu eredu metriko hau: bakoitza 5 silabako librea, eta bikoitza 9 silabakoa errima bokalikoarekin; honen antzekoena A28 eta B29 poemetakoa da (5+8).

<1198r> *Aquí comienza un tratado de lo que berdaderamente aconteserá antes y el día del temeroso<sup>1</sup> juicio, y el galardón y premio que los buenos y los malos an de rescevir según sus hoberas.*

*Conpuesto por Laçarraga.*

*Sometido al gremio<sup>2</sup> y corresción de la Sancta Madre Iglesia; arrimado a la fe y al mejor juicio.*

**Inbocación a la Madre de Dios.**

Oy<sup>3</sup> guiçon batec  
Erregue baleu enojadu,<sup>4</sup>  
enojadu ta  
asco maneraz<sup>5</sup> afrontadu,<sup>6</sup>

<sup>1</sup> *temeroso*: ‘beldurgarri’; *temeroso* adjektiboak gaurko erabilera nagusian ‘beldurkor, beldurti, beldurbera’ esan nahi duen arren, lehen ‘beldurgarri’ zen esanahi nagusia. Cf. *DAut*, s.v.: “Lo que pone o causa miedo, temor o rezelo de alguna cosa”.

<sup>2</sup> *Sometido al gremio*: ‘batasunari lotua’; cf. *DAut*, s.v. *gremio*: “Se llama analógicamente la unión de los fieles con sus legítimos pastores, y especialmente el Sumo Pastor, que es el Pontífice Romano; y assí, de los hereges y apóstatas se dice que están fuera del gremio de la Iglesia”.

<sup>3</sup> *Oy*: Eskuizkribuko poematan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>4</sup> *baleu enojadu*: Aditz laguntzailea aditz nagusiaren aurretik agertzen da askotan poemaren lehenengo partearen (1-48), errima (-*adu*) errazten duelako.

<sup>5</sup> *asco maneraz*: ‘manera askoz’; eskuizkribuan *asko* zenbatzailea sintagmaren aurrealdean zein atzealdean agertzen da, eta lehenengo kasuan maiz beste osagairen bat tartekaturik ere bai. Alabaina, adibide honetan izan ezik, aurrean agertzen diren *asko* guztiak partitiboak lagundurik aurkitu ditugu: “*asco + izena + -ric*”.

<sup>6</sup> *Erregue baleu enojadu, / enojadu ta / asco maneraz afrontadu*: Ahozko literaturan sarri agertzen da anadiplosia: testu-zati baten azken zatia hurrengoaren hasieran errepikatzea eta kateatzea; *bihurkia*

itaunquetan <sup>7</sup> dot	5
oy leyquean acertadu <sup>8</sup>	
atrevimentuz	
oy balequio arrimadu. <sup>9</sup>	
Nic ez neyque	
a leguiala consejadu, <sup>10</sup>	10
cerren leyque	
oyta bertati <sup>11</sup> condenadu.	
Badanic bere, <sup>12</sup>	
amea <sup>13</sup> baleu ayn onradu,	
onrada <sup>14</sup> eta	15
bere semeaz <sup>15</sup> concertadu, <sup>16</sup>	
oyta ceñari	

---

deitu zion Manuel Lekuonak ahozko euskal literatura aztertzean. Testuan behin baino gehiagotan agertzen da baliabide hori: *ene laztanac guraric, / ene laztanac guraric eta / neurc ala trabajaduric* (A14: 10-12), *Erregue baleu enojadu, / enojadu ta / asco maneraz afrontadu* (A26: 2-4), *Amea baleu ayn onradu, / onrada eta / bere semeaz concertaedu* (A26: 14-16), *cerren ecusten / even guzia galduoric, / galduoric eta / suorrec abrasaduric* (A28: 91-94), *Aurquitu eta / dey eguin deuso umilic, / umilic eta / lisonja ascoz beteric* (B29: 41-44).

*afrontadu*: ‘iraindu, haserretu’; cf. baita *afrontaduric* ‘iraindurik, haserreturik’ (A10: 30), baina *afrontadu* ‘iraindurik sentitu, lotsatu’ (B14: 26), eta *afrontua* ‘kargu-hartzea, errieta’ (A21: 13).

<sup>7</sup> *itaunquetan*: ‘itauntzen, galdetzen’.

<sup>8</sup> *Oy guiçon batec /... /oy leyquean acertadu*: A26: 1-6, A26: 7, A26: 9 eta A26: 39 lerroetan egin diren aldaketek iradokitzen dute testua kopiatzen ari zela.

<sup>9</sup> *arrimadu*: ‘norbaitengana jo babes edo laguntza bila’; cf. *DAut*, s.v. *arrimarse*: “Metáforicamente es allegarse a alguno, valerse de su patrocinio y autoridad para aprovecharse de su favor y amparo”.

<sup>10</sup> *Nic ez neyque / a leguiala consejadu*: ‘nik ez nuke aholkatuko hori (arrimatzea) egin lezala’.

<sup>11</sup> *bertati*: ‘berehala’.

<sup>12</sup> *Badanic bere*: ‘hala ere’; *badanik bere OEHn* ez dago jasota, baina cf. *badarik* ‘hala ere’: funtsean Iparraldean lekukotzen bada ere, badago GN-zko adibiderik (1609ko poesietako batean, zehazki), eta Otxoa Arinek ere erabiltzen du. Lazarragaren eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu dugu: A6: 43, A10: 61, A24: 51, A26: 13, A27a: 7, B5: 27 eta B14: 51.

<sup>13</sup> *amea*: *Aita eta ama* hitzek izen berezi gisa funtzionatzen dute gehienetan tradizioan; hartara, ez dute artikulurik hartzen. Lazarragaren eskuizkribuan, *aita* edo *ama* narrazio-hitza duenarena barik beste norbaitena baldin bada (hots, 1. pertsonarena ez bada), artikuluarekin agertzen da: *aytea* (B3: 38), *bere aytea* (B3: 47), *ayteac* (B3: 31, B3: 40), *aytearen* (B3: 39); *amea* (A26: 14), *ameac* (A26: 30). Poema honetan, ikusten denez, bi aldiz aurkitu dugu *amea*-.

<sup>14</sup> *onrada*: Biurki edo anadiplosiaz ikusi 2-4 lerroei dagokien oharra. Hemen aldaketa bat egin du (*onradu* > *onrada*), baina funtsean baliabide bera da.

<sup>15</sup> *semeaz*: ‘semeagaz, semearekin’; hemen -az bukaerak soziatiboaren balioa du.

<sup>16</sup> *concertadu*: ‘adostu, hitzartu’; adjektiboa da hemen, goiko *onradu* bezala, ez adizki perifrastiko baten aditz nagusia.

	semeac leyon otorgadu	
	esca lequion	
<1198v>	mesedea <sup>17</sup> ta confirmadu, <sup>18</sup>	20
	banerexqueo <sup>19</sup>	
	oy lequiola umilladu	
	gach egualea	
	andra oni ta suplicadu	
	bere semeari	25
	oy leguiola alcançadu <sup>20</sup>	
	parcacioa, <sup>21</sup>	
	cerren lebela enojadu. <sup>22</sup>	

<sup>17</sup> *esca lequion / mesedea*: ‘(amak semeari) eska liezazion mesedea, eskatutako mesedea’; eskuizkribuan *eskatu* aditzak NOR edo NOR-NORI erregimena du, beste euskal testu zaharretan bezala (*RS*, Leiz, Zalg).

<sup>18</sup> *otorgadu / esca lequion / mesedea ta confirmadu*: Poema honetan behin baino gehiagotan erabili du egitura berezi hau: “aditza-1 + objektua (aditza-1 eta aditza-2rena) + (e)ta + aditza-2”. Cf. *otorgadu ... ta cofirmadu* (18-20 eta 34-36); *umilladu ... ta suplicadu* (22-24); *quebrantadu ... eta traspasadu* (44-46).

*otorgadu... ta confirmadu* aditzen erabilera, hemen eta beherago 34-36. lerroetan, lotuta egon liteke nobleek eta erregeek legeak, foruak, erregaliak, etab. berresteko erabiltzen zituzten formulekin (ik., esaterako, Sanz Fuentes (1979). Hona adibide bat, hainbaten artean: “E estos heredamientos sobredichos les otorgamos e les confirmamos, e mandamos que los ayan libres por juro de heredat para siempre jamás” (*Privilegio de Juan II*, 1408).

<sup>19</sup> *banerexqueo*: ‘ondo iritziko nioke’; *erexti* aditzaren forma hipotetiko trinkoa da. Cf. *erexqueoc*: *Gatz ze erexkeok iñori* “No quieras mal a nadie” (*RS* 312). Eta cf. *OEH*, s.v. *iritzi*: “(Aux. trans. tripersonal). En ciertos contextos [...], si no se especifica otra cosa, es ‘parecer bien’”.

<sup>20</sup> *alcançadu*: ‘erdietsi’; eskuizkribuan hirutan agertzen da *alcançadu* aditza eta hiruretan adiera horrekin: cf. *alcançadu daiqueano* (A14: 101), *eta polseac ez ebena enlazadu / aoac eguala alcançadu* (B3: 5-6).

<sup>21</sup> *ta suplicadu / bere semeari / oy leguiola alcançadu / parcacioa*: Joskera bihurria bada ere, honela ulertu dugu: Gaitz-egilea umiliatzen zaio andre honi, eta (gaitz-egileak) suplikatzen dio (andre honi) (andre honek) alkanzadu edo erdietsi diezaiola bere semearengandik barkazioa (gaitz-egilearentzat).

<sup>22</sup> *cerren lebela enojadu*: ‘zeren haserretu baitzuen’; XVI. mendeko autore gehienek *l-* aurritzidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emaiteaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan erregua, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 9-13), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdatu* (Etx III, 17), Fray

Oyta bertati	
ameac leyque aceptadu	30
erreguxear, <sup>23</sup>	
ceñac <sup>24</sup> leyan procuradu	
oy leguiola	
seme jaunorrec otorgadu	
culpaduaren	35
barcacioa ta confirmadu.	
Bada, jentea,	
cerren daygun atajadu <sup>25</sup>	
esan dogunau,	
arren, daygun aclaradu:	40
Jaqin eguiçu <sup>26</sup>	
oyta dogula enojadu	
Jaun Cerucoa,	
cerren ditugu quebrantadu	
oy mandamentu	45
santuac eta traspasadu, <sup>27</sup>	

---

Vicentec esala, Fedea cina *liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

<sup>23</sup> *erreguxear*: ‘erregutxo hau’; Lazarragaren eskuizkribuan, *-txo* atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; *-xe* atzizkiak, berriz, hiru balio hartzen ditu: 1) Txikigarria (*-xe = -txo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *esecoxeo* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxear* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). 2) Izenondo eta aditzondoen intentsitate markatzalea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). 3) Indartzalea (izenordain indartuekin, eta *eben / arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

<sup>24</sup> *ceñac*: *ameak*, alegia.

<sup>25</sup> *cerren daygun atajadu*: ‘(solasa) atajadu, amaitu, laburtu dezagun; (solasa) atajatzeko, amaitzeko, laburtzeko’; helburuzko perpresa da, “*zerren + subjuntiboa*” egiturarekin. *Atajadu*-ren esanahiai dagokionean, cf. DAUT (s.v. *atajar*): “Vale también cortar, suspender, detener alguna acción; como *atajar el discurso, atajar el razonamiento*”.

<sup>26</sup> *Jaqin eguiçu*: ‘jakin ezazue’; *jentea* da aditz honi dagokion bokatiboa. Poeman gehiagotan agertzen da *zu-ri* dagokion aditz-morfema bere jatorrizko plural balioarekin.

<sup>27</sup> *quebrantadu / oy mandamentu / santuac eta traspasadu*: “aditza-1 + objektua (aditza-1 eta aditza-2rena) + (e)ta + aditza-2” egituraz, ikusi 20. bertso-lerroko oharra.

cegayti<sup>28</sup> dogun  
pena andia merescidu.

<1199r>	—Infernuetan	
	daoz <sup>29</sup> çuençat <sup>30</sup> grilluac, <sup>31</sup>	50
	cerren deustaçun	
	oy ausi <sup>32</sup> mandamentuac.	
	Oy laster çoaz, <sup>33</sup>	
	gaxto descomulgaduac!	
	Ezindan <sup>34</sup> jaaten, <sup>35</sup>	55
	oyta nengusun <sup>36</sup> orduan	
	nola nengoan	
	goseac ilic munduan.	
	Ez ceeguidan <sup>37</sup>	

---

*traspasadu*: ‘hautsi’; cf. *cegaiti nei traspasadu / amorearen leguea* (A24: 137-138). Cf. *DAut*, s.v. *traspasar*: “Vale también quebrar o violar alguna ley, estatuto o precepto, contraviniendo a su tenor o forma”.

<sup>28</sup> *cegayti*: ‘zeinarengatik, aurreko guztiagatik’; ez da kausala, erlatibozko kontsekutiboa baino; hortaz, ez da gaztelaniazko *porque*, baizik eta *por lo cual*.

<sup>29</sup> *daoz*: ‘dagoz, daude’.

<sup>30</sup> *çuençat*: Errima-aldeketaarekin batera, pertsona ere aldatu da: *gu > zu(ek)*. Horrela markatzen da poemako bi parteen arteko jauzia.

<sup>31</sup> *grilluac*: ‘girgiluak’; cf. *OEH*, s.v. 1 *grillo*: “Grillo. ‘Grillos, prisiones, oinboillak, grilloak’ Lar” eta Lcc “grillos, *griluac*”.

<sup>32</sup> *ausi*: Irakur bedi *hausi* eta ez *hautsi*.

<sup>33</sup> *çoaz*: ‘zoaz(te), joan zaitez(te)’, aginteran.

<sup>34</sup> *Ezindan*: ‘ez zindan, ez zenida(te)n eman’; \*-in- erro zaharreko adizkia da. Lehenengo bertsioan perifrastiko baliokidea zegoen: *emun ez ceustan*. Eskuizkribuan *ez yndan* (hitz-hasierako <y> grekoarekin) agertzeak pentsaraz lezake hikako forma erabili nahi zuela, baina uste dugu hitzaren mozketa okerra dela, *zu(ek)* baita gainerako adizki guztietako subjektua.

<sup>35</sup> *jaaten*: *Jan* eta *izan* aditzek aditz-izena osatzeko -te atzikia hartzen dutenean, -aa- bokal bikoitzza gertatzen da. Aditz horiek beroriek bestelako formetan (*izango, jango, izan, jan, janda*) ez dute inoiz bokal bikoitzik agertzen. Itxura guztien arabera fenomeno morfologikoa da oinarrian. Honelaxe dio *OEHk jan* aditzarentzari dagokionean (*izan* aditzari dagokionean, *OEHk* ez dakar bokal bikoitzeko adibiderik): “Documentado en todas las épocas y dialectos. La forma *jan* es general; *jaana, jaate-* (aunque no *jaan*) se documentan en Capanaga, Zuzaeta (88), Moguel (*PAb* 164), V. Moguel (12), J.J. Moguel (*BasEsc* 261) y fray Bartolomé (*Ic III* 273)”.

<sup>36</sup> *nengusun*: ‘ikusi ninduzu(e)n’; *ikusi* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu trinkoko NOR-NORK forma da. <n> ondoren izan dugu honen antzeko ahostuntzerik lehenago ere: *neongue* (A7: 58). Irakur bedi txistukari afrikatuarekin: *nengutsun*.

suric, oz ninçan orduan.	60
Oy ez ninduçun	
ay <sup>38</sup> recojidu <sup>39</sup> neguan.	
Gaxo ninçala,	
ez nenduçaçun <sup>40</sup> contuan,	
ez gueyago <sup>41</sup>	65
catigu <sup>42</sup> nençan <sup>43</sup> lecuan.—	
Esango dave	
condenaduac orduan:	
—Oy nox cenbilcen	
orrinbat <sup>44</sup> gachez munduan?	70
Eldu ez çara	
guec <sup>45</sup> gueoncen <sup>46</sup> lecuan.—	
—Exilic çaoz!— <sup>47</sup>	

<sup>37</sup> *Ez ceeguidan*: ‘ez zenida(te)n egin’; *egin* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu trinkoko NOR-NORI-NORK forma da. Eskuizkribuan aditz bat baino gehiago dira *cee-* < *cene-*. Cf. *baceequi* (AL: 1151v), *ezpaceeguit* (A7: 99), *ceeguidan* (A26: 59) eta, bilakabidea aurrerago eramanda (*ce-* <*cee-*> <*cene-*>), *cebela* ‘zenuela’ (AL: 1151v), *ceben* ‘zenuen’ (AL: 1153r), *ceguian* ‘zenegian, zenezan’ (AL: 1153v), *ceucala* ‘zeneukala’ (A26: 96, 98) eta *ceucan* ‘zeneukan’ (A26: 106).

<sup>38</sup> *ay*: ‘ai’ heiagora da; eskuizkribuan beste bitan aurkitu dugu: *Ay ay ay ay ay ay ay ay ay / ay ay ay ay ay, dardo çorroça* (B17: 25-26) eta *a[y] ay ay, ene narru çuri gazteac!* (B17: 57).

<sup>39</sup> *recojidu*: ‘babestu’; cf. *DAut*, s.v. *recoger*: “Se toma también por acoger o refugiar a alguno”.

<sup>40</sup> *ez nenduçaçun*: ‘ez ninduzu(e)n eduki’; *eduki* aditzaren lehenaldiko adizki trinkoa; eskuizkribuan ez dago besterik. Dirudienez *nindu-* idatzi du lehenengo eta gero zuzendu du: *nendu-* (agian forma perifrastikoa eta trinkoa gurutzatuta).

<sup>41</sup> *ez gueyago*: ‘ez eta ere’.

<sup>42</sup> *catigu*: ‘gatibu’.

<sup>43</sup> *nençan*: ‘nintzan’; eskuizkribuan bakarra izan arren (*ninçan* agertzen baita beti), ez dugu uste *etzan-en* lehenaldiko forma trinkoa denik; izan ere, eskuizkribuan lau aldiz dago *etzin* aditza forma jokatugabean (*ecin* AL: 1152v, *ecinic* A1: 36, *ecingo* A14: 85, *ezin* A24: 53) eta bi aldiz forma trinkoa (*naç* AL: 1152r, *çaucidenean* A16: 86), eta ez dirudi horiekin lotu behar denik.

<sup>44</sup> *orrinbat*: ‘horreinbat, horrenbeste’; hiru formatan agertzen da halako monoptongaziao testuan zehar: *orrinbat* (A26: 70), *cinbat* (A26: 79), *oninbatenaz* (A23: 33 eta 85); baina badira *oneinbat* (AL: 1152v, A3: 23, B3: 51), *oneinbatenaz* (A24: 9) eta *oneinbategaz* (B2: 7, B7: 17) ere.

<sup>45</sup> *guec*: ‘gu’; lau bider aurkitu dugu *guec* forma Lazarragaren eskuizkribuan: bitan absolutiboa da (AL: 1147r, A26: 72) eta bitan ergatiboa (AL: 1147v, AL: 1154v).

<sup>46</sup> *gueoncen*: ‘gengozan, geunden’; hona hemen eskuizkribuan aurkitu ditugun *egon* aditzaren lehenaldiko adizki trinkoak: *neongue* (A7: 58; A10: 26), *ceoncen* (A7: 64; A26: 99), *ceoncela* (A7: 67), *gueoncen* (A26: 72), *ezpaceonça* (A27a: 45). Forma jokatugabeak ere batzuetan -g- galtzen du: *eongo* (A8: 3; A8: 11; A18: 19; A12: 16; A26: 139); baina *egongo* (A23: 92), *egote-* (*passim*), *egon* (*passim*).

<sup>47</sup> *çaoz*: ‘egon zaitez(te)’, agintera; *çaoz* eta *çaoça*, bietara erabiltzen du.

	erançungo dau orduan	
	Jaun Cerucoac,	75
	oy au desoen puntuau. <sup>48</sup>	
	—Acorda çatez	
	oy eta çarriz <sup>49</sup> contuan	
<1199v>	cinbat <sup>50</sup> joacen	
	ebili <sup>51</sup> pobre munduan,	80
	goseac ilic,	
	oçac <sup>52</sup> bere bay canpuan; <sup>53</sup>	
	oy çuetara <sup>54</sup>	
	joan joacen orduan	
	limosna esque	85
	Jaungoicoaren contuan;	
	çuec oegaz <sup>55</sup>	
	oy contu guichi <sup>56</sup> orduan.	

<sup>48</sup> *au desoen puntuau*: ‘(kondenatuek Jaun Zerukoari) hau esaten dioten unean’; *esan* aditzaren NOR-NORI-NORK forma trinkoa da. Cf. *nic desodan gauçaric* (A16: 52).

<sup>49</sup> *çarriz*: ‘jar zaitez(te)’; *jarri* aditzaren agintera trinkoa da. Testu osoan bi aldiz agertzen da *jarri çatez* (A17: 53, A25: 15) eta beste bi aldiz *çarriz* (A26: 78, A26: 113).

<sup>50</sup> *cinbat*: ‘zeinbat, zenbat’; ikusi *ceinbat* (B17: 65). Monoptongazioaz cf. 70. bertso-lerroko oharra.

<sup>51</sup> *joacen / ebili*: ‘ibili ohi ziren’; *joan laguntzailea*. Orobak 84. lerroko *joan joacen* ‘joan ohi ziren’ eta 92. lerroko *egon doacen moduan* ‘egon ohi diren moduan’.

<sup>52</sup> *oçac*: ‘hotzak hilik’, hain zuzen.

<sup>53</sup> *canpuan*: ‘kanpoan’; eskuizkribuan beti dago *canpu* forma, Landuccirenean eta Gamizenean bezala (eta ez *kanpo*, beste autore guztiek erabiltzen duten bezala, *OEHk* dioenaren arabera). Esanahiari dagokionean, behin bakarrik esan nahi du ‘kanpo’ (vs ‘barru’, A26: 82), eta, ñabardurekin bada ere, bost aldiz dauka Landucciren erabilerara hurbiltzen den ‘landa’ adiera: bitan ‘landa’ (vs ‘hiria’, AL: 1145v eta B17: 67), beste bitan ‘landa zabala’ (vs ‘leku txikia, leku jakin bat, erreferentziako lekua’, AL: 1152v, AL: 1153v), eta behin ‘zelaia, jokalekua’ (zehazkiago ‘justetako zelaia’ A1: 10).

<sup>54</sup> *çuetara*: ‘zuengana’, bizidun markarik gabe. Oro har, bizidunekin, Lazarragak -gan erabiltzen du leku-postposizioa aitzin; horrek balio du hala izenentzat nola izenordainentzat. Baina eskuizkribuan bi aldiz aurkitu ditugu (salbuespen gisa) izenordainetan -gan-ik gabeko formak: *Çuetara / joan joacen orduan / limosna esque / Jaungoicoaren contuan* (A26: 83-86) eta *Dama galantac, ni ez nax digno,/ ez dot merescimenturic, / çuetan miiau ifinteraco* (A10: 5-8).

<sup>55</sup> *oegaz*: ‘hauekaz, hauekin’; eskuizkribuan lau aldiz aurkitu dugu -egaz soziatibo plurala: *çuegaz* (A10: 27), *oegaz* (A26: 87), *oriegaz* (B7: 33) eta *guiçonegaz* (B18: 128); eta bitan -ogaz soziatibo plurala: *escuogaz* (A17: 64) eta *damaogaz* (B2: 10). Plurala da orobat *baçugaz*: *urregorrizco letra baçugaz / egoan escreviduric* (A1: 11-12), *Egun batean leucala / beste baçugaz cabildu, / aen artera içan nınçan / exil-exilic coladu* (B14: 45-48), *baçugaz consultaduric* (B23: 22). Horien ondoan, bada -oçaz/-ocaç ere: *delicaduocaz* (AL: 1138r), *berbaocaç* (AL: 1151v), *beguiocaz* (AL: 1152v), *biciocaz* (AL: 1154v); eta -equin: *oequin* (A11: 2), *matalotequin* (B30: 69).

Orain çaoça <sup>57</sup>	
gumuta deçun <sup>58</sup> lecuan,	90
çuelacoac	
egon doacen moduan.	
Utra <sup>59</sup> gaxtoto <sup>60</sup>	
bici cinean <sup>61</sup> munduan,	
ataidea <sup>62</sup>	95
ez ceucala <sup>63</sup> contuan,	
ene gauçaric	
ez ceucala buruan,	
beti ceoncen <sup>64</sup>	
Satanasequin jocuan,	100

<sup>56</sup> *guichi*: Eskuizkribuan soilik bi lekutan aukitu dugu *gitxi* forma (AL: 1151v eta A26: 88), eta 17 aldiz *gutxi*.

<sup>57</sup> *çaoça*: ‘egon zaitez(te)’, agintera; *çaoz* eta *çaoça*, bietara erabiltzen du.

<sup>58</sup> *gumuta deçun*: ‘ezagun duzu(e)n, dakizu(e)n’; *gumuta(tu)* forma ezezaguna zen orain arte (cf. *OEH*, s.v. *gomutatu*: “pensar en, considerar”), baina ziurra da, bi lekutan agertzen baita eskuizkribuan: *gumutatu ez lequion* (A25: 37) eta *gumuta deçun* (A26: 90). Nolanahi ere, aditz honen lehen agerraldia dugu.

*deçun* adizkiari dagokionean, *de-* moldeko \**edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan (eta gehienak Estibaliz Sasiolakoaren poeman agertzen dira): *det* (A5: 26, B30: 12, B30: 14, B30: 20, B30: 45, B30: 60), *dedan* (B30: 82), *badeçu* (A16: 70, A28: 168), *deçun* (A26: 90). Gutxi dira, orobat, *du-* eta *deu-* moldeetakoak.

<sup>59</sup> *Utra*: ‘oso’; gutxienez Kapanagari eta Oihenarten atsotitzei esker ezagutzen genuen (cf. *OEH*, s.v.).

<sup>60</sup> *gaxtoto*: ‘txarto, gaizki’; cf. Lcc “mal, o malamente, *gaystotoro*”, “malestar, *gaystoto eguon*”, “maldezir, *gaystoto essan*”.

<sup>61</sup> *cinean*: Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatuetan ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doeán* (RS), *daroa + -an > daroeanean* (VJ) (cf. *FHV* 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138r), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B17: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B18: 31, B18: 44), *guinean* (A7: 8, B18: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B18: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *nerouala* (B18: 16). Ohar gaitezen Landuccik ez duela aldaketa horren arrastorik aditzean (“antecedente, *aurrera doana*”).

<sup>62</sup> *ataidea*: ‘hurkoa’ esan nahi duela dirudi (agian \**ate-aide*, hots, ‘teilapeko, auzokoa’), baina hapaxa da, ez baitugu aurkitu beste lekukotasunik.

<sup>63</sup> *ceucala*: ‘zeneuka(te)la’; halako hiru adizki dira elkarrengandik hurbil: *ceucala* ‘zeneukala’ (A26: 96, 98) eta *ceucan* ‘zeneukan’ (A26: 106). Eskuizkribuan aditz bat baino gehiago dira *cee- < cene-*. Cf. *baceequi* (AL: 1151v), *ezpaceeguit* (A7: 99), *ceeguidan* (A26: 59) eta, bilakabidea aurrerago eramanda (*ce- < cee- < cene-*), *cebela* ‘zenuela’ (AL: 1151v), *ceben* ‘zenuen’ (AL: 1153r), *ceguian* ‘zenegian, zenezan’ (AL: 1153v), *ceucala* ‘zeneukala’ (A26: 96, 98) eta *ceucan* ‘zeneukan’ (A26: 106).

<sup>64</sup> *ceoncen*: ‘zeunde(te)n’.

pensamentuoc	
ifini baga ceruan,	
traspasaduric <sup>65</sup>	
oy ene mandament[u]ac;	
oy debocio	105
guchi ceucan tenpluan,	
sacerdoteac	
meça esate orduan, <sup>66</sup>	
ez gueiago <sup>67</sup>	
predicaeta orduan.	110
Oy çuen gachoc	
utra dacust nic claruau:	
çoaz da <sup>68</sup> çarriz <sup>69</sup>	
infernuaren çoruan,	
finic içango	115
ez daben asientuan.— <sup>70</sup>	
Ernegaduco <sup>71</sup>	
dave gaxtoac orduan	
engendradu ta	
jaio cirean puntuaz;	120
eguingo dave	
oyta onela llantuac:	
—Ernegacen dot	

<sup>65</sup> *traspasaduric*: ‘hautsirik’; ikusi gorago 46. lerroko oharra.

<sup>66</sup> *esate orduan*: Hemen bakarrik aurkitu dugu *orduan* aditz-izenarekin: *esate orduan* (A26: 108) eta *predicaeta orduan* (A26: 110); beste guztietan aditz jokatuarekin agertzen da.

<sup>67</sup> *ez gueiago*: ‘eta are’, edo besterik gabe ‘ez gehiago’; kasu honetan ez da ‘ez eta ere’, lehenengo elementua ez delako ezezkoa, *guchi* baino.

<sup>68</sup> *da*: ‘eta’.

<sup>69</sup> *çarriz*: ‘jar zaitez(te)’; ikusi gorago 78. lerroko oharra.

<sup>70</sup> *asientuan*: ‘egonaldian, egoeran’.

<sup>71</sup> *Ernegaduco*: ‘arbuiatuko’; osagarriari dagokionean, behin soziatibo garbia erabili du (*çugaz* A26: 134) eta bitan -az bukaera (*puntuaz* A26: 120 eta *juduaz* A26: 124); -az amaiera dutenen kasuan, ezin da ziur baieztu instrumentala den ala soziatiboa -agaz > -az kontrakzioarekin. Cf. *OEH*, s.v. *ernegatu*: “Renegar, abjurar, apostatar. v. **arnegatu**. Ea [...] errenegadu dabenz Iaungoikoaz. Cap 92. [...] Ernegetan dot Jesu-Kristo eta Maria Santissimiagaz. Astar II 35”.

oy confesore juduaz, cerren ninduan oy asolbidu orduan, oy eguin baga penitencia munduan.—	125
Oy confesore condenaduac orduan erançungo dau oy au dançuan puntuau: <sup>72</sup>	130
—Ernegacen dot çugaz, madaricatua, cerren ninduçun çuc engañadu tenpluan,	135
"On içango nax" esan ceustan <sup>73</sup> orduan.—	
Eongo dira onela condenaduac secularecoz <sup>74</sup> finic ez daben lecuan.	140
Oy onac, barriz, beti contentamentuan, cerren deuste <sup>75</sup>	145
Jaunac esango orduan: —Oy çatoz, çatoz, <i>&lt;1200r&gt;</i> neuronen escojidiuac. <sup>76</sup>	

<sup>72</sup> *dançuan puntuau*: ‘entzungo duen unean, entzun dezan unean’.

<sup>73</sup> *esan ceustan*: ‘esan zenidan’; ikusi gorago 59. lerroko oharra.

<sup>74</sup> *secularecoz*: ‘sekulakotz, betirako’; cf. *OEH*, SEKULAREAN, s.v. *sekula*: “(En oraciones afirmativas).

“En larguísimo tiempo, eternamente” A. *Gurekin bearko dezu / beti sekularean*. GavS 24”.

<sup>75</sup> *deuste*: ‘die’.

<sup>76</sup> *neuronen escojidiuac*: Genitibodun izenordain honek bi interpretazio izan ditzake. Alde batetik, jabetasuna adieraz dezake, nolabait afektibotasuna edo hurbiltasuna markatzeko (‘nire eskojidiuak, nire hautatu maiteak’). Beste aldetik, egile edo agente gisa uler daiteke, *neuronen escojidiuac* egitura pasibo jokatugabetzat harturik (‘nik eskojidiuak, nik hautatuak’). Egitura pasiboko agentea genitiboan markatzea arrunta zen gaztelera zaharrean, eta erabilera horren bi adibide aurkitzen ditugu euskara

Jasarri <sup>77</sup> çatez	
Padarisuco <sup>78</sup> reñuan,	150
ceña dagoan	
çuençat asinadua, <sup>79</sup>	
oy cerren nauçun	
beti eugui contuan;	
oy ta munduan	155
bici cinean orduan	
cunplidu doçu	
oy ondo mandamentuac.	
Goça naçaçu	
neure Aytaren tronuan.	160
Oyta goacen,	
ene bedeicatuac.— <sup>80</sup>	
Joango dira	
onac nor bere contuan;	
jarrico dira	165
angueruaquin ceruan.	

Fin

---

arkaikoan: *Voto eguitēdot [...] goardaetaco erreguela tercera Sāt Frāciscuarē ordeacoa penitenciacoa ayta sanctu Nicolao laugarrenarē emona eta otorgadua eta ayta sātu sist laugarrenarē aprobadua ta cōfirmadua* (San Frantz. l. 1-6); *Gassoto yrabacia yrachoen da yracia* (RS 301) “Lo mal ganado es de la fantasma exprimido”. Lazarragaren poema honetan berean egitura mota honen beste adibide bat aurkitzen da: *ene bedeicatuac* (A 26: 162).

<sup>77</sup> *Jasarri*: ‘jesarri, eseri’; *jasarri* aditzaren esanahiari dagokionean, badirudi hala ‘eseri’ (A17: 99, A26: 149, B14: 49) nola ‘jarri’ (A10: 7, B5: 13, B17: 63) esan nahi duela eskuizkribuan, testuinguruaren arabera.

<sup>78</sup> *Padarisuco*: ‘Paradisuko’; cf. *paradisu* (B30: 93). *OEHren* arabera (s.v. *paradiso*), ez dago metatesi honen beste lekukotasunik.

<sup>79</sup> *çuençat asinadua*: ‘zuei egokitua, esleitua’.

<sup>80</sup> *ene bedeicatuac*: ‘nire bedeinkatu maiteak’ edo ‘nik bedeinkatuak’; genitibodun egiturari buruz, ikusi A26: 148 lerroko oharra.

*bedeicatuac* formari dagokionean, -n- gabeko aldaerak lekukotasun ugari ditu euskara zaharrean.

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**1-6** Hasierako sei lerroak gorago ere jarrita daude, beste *dispositio* batean: *Oy giçon [sic] batec Erregue baleu enojadu / enojadu ta / asco maneraz afrontadu / ytaunquetan dot oy leyquean acertadu.* **7** atrevimentuz] ondoren *oy ba* (hurrengo lerroaren hasiera), tatxatuta. **9** neyque] ondoren *a leguiala* (hurrengo lerroaren hasiera), tatxatuta. **34** jaunorrec] *n* gainean lakioa dago, *ñ* adierazteko erabili ohi duen diakritikoaren antzekoa. **39** dogunau] ondoren hitz bat (ziurrenik *arren*, hots, hurrengo lerroaren hasierakoa), tatxatuta. **45** oy] zutabearen ezkerretara dago; beranduago idatzi da, bertso-lerro bukaerako *-ac/-oc* ezabatuta gero. || mandamentu] bukaeran *-ac* edo *-oc*, ezabaturik. **46** traspasadu] lehenik berriz *quebrantadu* jarri zuen, eta, hori tatxatu ondoren, eskuinetara (beste zutabean sartuta) zuzendu du. **55** Ezindan] esk. *ez yndan*. Aurrean *emun ez ceustan*, tatxatuta. || jaaten] esk. *jaate*. **64** nenducaçun] *-i-* idatzi du lehenago, orain *-e-* dagoen lekuan (*ninducaçun*). **78** oy] aurrean zerbait, tatxatuta. **104** mandamentuac] esk. *mandamentac*. **105** oy] *o-* ezkerretara irtena eta *-y* zirriborro baten gainean. **124** oy] ezkerretara irtena, erantsita bezala. **139** Eongo dira] *oyta onela* tatxatu ondoren idatzi du. **142** ez] *-z* behintzat geroago txertaturik dago. **148** neuronen] aurreko lerroan zerbait (*oita?*) idazten hasi da baina ez du amaitu eta tatxatu du.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A26 – Tratado de lo que berdaderamente aconteserá antes y el día del temeroso juicio” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A27

### Mari Lopezco ederreza...

Eskuizkribuko esku nagusia ez den batek aldaketa handiak sartu ditu testuan. Horregatik, kasu honetan, bi bertsio ematea erabaki dugu: lehenengo eskuarena (A27a) eta bigarren eskuak proposaturiko aldaketak (letrakera etzanez eman ditugunak) integraturik sortzen den bertsioa (A27b). Bigarren esku horrek bi eratara jokatu du: leku batzuetan, testuaren zuzenketak proposatu ditu, lehenengo eskuaren testua tatxatuaz; beste batzuetan, ez du lehenengo testua tatxatu, eta lerroarteetan proposatu ditu aldaerak, aukeran emanak balira bezala. Edozein kasutan ere, lehenengo bertsioan argiegi ez ziren pasarteak aritzeko dira aldaketa gehienak, Mari Lopezko esamesak zabaltzen ibili dela salatzeko:

- *ederreza > atrebidea* (ez ‘ausarta’, baizik eta ‘errespetu gabea’)
- *arren çaoça exilic > ez esan seculan gaycic*
- *Oy aserratu deraustaçu, / ceurorrec ala guraric > Berbaric asco esan ey duçu, / ene ausencian eguinic*
- *an ez doğuna quilçaric > an ez doğuna freuric*
- *ene laztana > gach esalea*
- *Oyñ-escuetan muñ eguiço > Berba dollorroc gorde eguiçu*

Mari Lopezko Luzuriagan jaio eta Langarikan bizi den neska gaztea da (Luzuriaga eta Langarika biak dira Aguraingo eskualdean, zortzi kilometroko tartean); idazlearen osabaren etxearen bizi da (neskame, seguruenik, testuan ezer ez dioen arren), baina askatasun gehiegi ematen diotela iruditzen zaio idazleari, eta horregatik aritu ahal izan dela esamesak zabaltzen (lehenengo bertsioaren arabera, mehatxu gisa esaten dio bere aurka gaizki esaten segitzen badu berak ere baduela zer esanik). Poemaren gai nagusia esamesen aurrean idazleak eman nahi duen erantzuna da, hortaz, baina bada bigarren gai bat ere, horren mende: idazlea mindurik dago, eta beste irain batekin erantzun nahi du esamesen aurka, Mari Lopez neska itsusia (*ederreza*) dela nabarmenduz (Peru Errötzen seme ezkongaien kontua ere hari horri eutsita ulertu behar dela uste dugu, seguruenik ez baitziren eskualdeko mutilik ederrenak izango).

Itxura guztien arabera benetako gertakarietan oinarritua da poema hau, eta, horrela bada, berebiziko garrantzia dute 39-40. bertso-lerroek (*Juramentu eguiten jagot / obian daçan amari*), izan ere hobian datzan ama Joan Perez Lazarragakoaren ama baldin bada, datu horrek ezartzen baitu poema honen eta ziur aski eskuizkribuaren *post quem* data, 1602koa hain zuzen, ziur baitakigu urte horretan oraindik bizirik zela Elena Saez Erdoñakoa, poetaren ama.

Dena den, gogoratu behar da esamesen gaia ez dela ezohikoa XVI-XVII. mendeko literatura-lanetan; Cervantesen *El coloquio de los perros* nobelan, adibidez, horren inguruko eztabaidea azaltzen da (ikusi Illades 2007).

## A27a

<1201r>	Mari Lopezco <sup>1</sup> ederreza, <sup>2</sup> arren çaoça <sup>3</sup> exilic, oy eta <sup>4</sup> baldin gura badoçu ez difinçuen <sup>5</sup> tacharic.  Oy aserratu deraustaçu, <sup>6</sup> ceurorrec ala guraric; badanic bere, <sup>7</sup> irabacico	5
---------	---	---

<sup>1</sup> *Mari Lopezco*: Pertsona-izen berezien egiturari dagokionean, ikusi bi hauek: *Mari Lopezco* (A27: 1) eta *Joan Lopez jauna Çuaçuco* (A12: 9).

<sup>2</sup> *ederreza*: ‘batere edertasunik gabea, eder ez dena’ esan nahi du, dirudienez, hapax honek.

<sup>3</sup> *çaoça*: ‘egon zaitez’, agintera; *çaoz* eta *çaoça*, bietara erabiltzen du eskuizkribuan. Aipagarria da beste tinta batez eginiko zuzenketa: *çaoça* > *çaoçque*, beste *zaozke* bakar bat baitago eskuizkribuan, Aguraingo erreketan (A28: 23), hemen bezalaxe -q gangardunez adierazia.

Aginterazko adizkia -ke atzizkiarekin osatzean, aginduaren betetzea geroan kokatzen da, solas unetik kanpo. Geroaldiko agintera oso ohikoa da *Refranes y Sentencias* bizkaierazko atsotitzen bilduman (*ce eyquec maurtuti hoeaneâ, eder eztanic calean RS 36, Gach ce erexqueoc yñori, ta emac vereaedoceyni RS 312*), eta aztergai dugun Lazarragaren testuan: *ce eucaiqueçu* (A27a: 24), *sinis eçaqueçu ene egua* (B11: 13-14), *Jentil onbrea, ona çatozque, / gura banoçu gozadu* (B14: 11-12). Bizkitartean, ez dirudi soilik mendebaldeko euskararen ezaugarria izan denik, gipuzkera eta lapurtera zaharrean (Etxeberri Ziburukoa eta Etxeberri Sarakoa) ere biltzen baitira gisa horretako formak.

<sup>4</sup> *oy eta*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy eta oyta* betegarriak (bakanka hemengo *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>5</sup> *ez difinçuen*: ‘ipin ez diezazuten’; *ifini* aditzaren NOR-NORI-NORK subjuntibo trinkoa. Halako hamaika aurkitu ditugu Lazarragaren eskuizkribuan: *efinçu* (A16: 59), *jafindaçu* (A17: 44, B18: 34), *ce nafinçu* (A17: 60), *dafinquet* (A24: 27), *ez difinçuen* (A27: 4), *badafinçu* (A27: 41), *ifinçu* (A28: 172), *dafinela* (A28: 175), *nafinçu* (B3: 70), *nafinela* (B4: 4), *ce efinçu* (B7: 13).

<sup>6</sup> *aserratu deraustaçu*: ‘haserrarazi nauzu’; \**eradutsi* aditza balio faktitiboarekin. \**Eradutsi* aditza lau aldiz agertzen da Lazarragaren testuan, beti laguntzaile gisa. Horietatik bitan (A24: 11 eta B22: 71) aplikatibotasuna adierazteko erabiltzen da, hots, laguntzaile hirupertsonal arrunta da (*eutsi*, \**eradun*, \**i-ren* parekoa). Beste bitan (AL: 1145v eta A27: 5) faktitibotasunaren adierazteko erabiltzen da; gisa horretako faktitibozko formak ezezagunak ziren Lazarragaren testua agertu arte, baina iduri luke erabilera zabala zutela Arabako euskara zaharrean, Lazarragak indikatibotik kanpo ere faktitibotasuna laguntzailean markatzen baitu, *egin-en ordez eragin* erabiliz (*galdu lerait* A24: 157).

<sup>7</sup> *badanic bere*: ‘hala ere’; *badanik bere OEHn* ez dago jasota, baina cf. *badarik* ‘hala ere’: funtsean Iparraldean lekukotzen bada ere, badago GN-zko adibiderik (1609ko poesietako batean, zehazki), eta

ez doçu gona barriric.<sup>8</sup>  
 Oyta obato esango even  
 egon bacina exilic; 10  
 oy bada bere, berva gureac  
 ez diçu emun lecuric.<sup>9</sup>  
 Luçuriagan jaio cinean,  
 Langarican<sup>10</sup> çaoz<sup>11</sup> calteric;<sup>12</sup>  
 oy guchiago esateraco 15  
 nic ez dot pacenciaric.<sup>13</sup>  
 Berbaric asco erraz dasaquet,<sup>14</sup>  
 çuc ala meresciduric;  
 ceure aoan doçu aguirri  
 an<sup>15</sup> ez doğuna<sup>16</sup> quilçaric.<sup>17</sup> 20  
 Oy çu ederra içan ez arren,

Otxoa Arinek ere erabiltzen du. Lazarragaren eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu dugu: A6: 43, A10: 61, A24: 51, A26: 13, A27a: 7, B5: 27 eta B14: 51.

<sup>8</sup> *irabacico / ez doçu gona barriric*: ‘ez duzu berreskuratuko izen ona’ esan nahi du, gona moztea zelako izen txarreko emakumeari ezartzen zitzaison zigorra; cf. *DAut*, s.v. *falda*: “Cortar la *falda*. Especie de castigo que se da a las mugeres perdidas para avergonzarlas”. Irakurketa horren indargarri da lerroartearen erantsiriko aldaketa: *irabaci ez doçu agaz honraric* (A27b: 7-8).

<sup>9</sup> *ez diçu emun lecuric*: ‘ez dizu eman hartarako (gaizki esaka ibiltzeko) arrazoirik’; eskuizkribuan bost lekutan dago antzeko egitura: *ez dit emayten lecuric* (A10: 12, A10: 62), *eztit emaiten / iguitaiac lecuric* (A23: 87-88), *ez diçu emun lecuric* (A27a: 12), *eztit emayten lecuric* (A28: 30). cf. *OEHN LEKU(A)* EMAN, s.v. *leku*: “Dar lugar, consentir, dar consentimiento; dar ocasión, dar tiempo”.

<sup>10</sup> *Langarican*: Beherago (A27a: 45) ikusiko denaren arabera, Maria Lopezko Joan Perez Lazarragakoaren osabaren etxearen dago, neskame seguruenik. Luzuriaga gaur Donemiliagako udalerriko herria da; Langarika izeneko herria (Iruraiz-Gaunako udalerria) zortzi kilometrotara dago, oinez; baina baliteke *Langarika* hemen ez izatea herria, Arriolako langarikatarren jauregia baino, hala deitzen baitzaio Gonzalez Langarikakoena etxeari, edo are Langarika herriko Langarika jauregia, hori ere Gonzalez Langarikakoena baitzen. Luzuriaga herria eta Langarika jauregia bereiztearen alde izan liteke batean *jaio cinean* eta bestean *çaoz* (eta *ez bizi zara*) aditzak bereiztea.

<sup>11</sup> *çaoz*: ‘zagoz, zaude’.

<sup>12</sup> *calteric*: ‘denon kaltetan, zoritzarrez’; bi aldiz dago eskuizkribuan (A27: 14 eta A28: 56). Ez dugu aurkitu beste lekukotasunik, baina badirudi *damurik* esamoldearen antzekoa bide dela.

<sup>13</sup> *oy guchiago esateraco / nic ez dot pacenciaric*: Eskuizkribuan bada honen antzeko beste esaldi bat: *oy gueiago çufrietaco / eztot nic pacenciaric* (A23: 11-12).

*pacenciaric* hitzari dagokionean, euskaraz beti *pacencia-* (A23: 12, A27: 16 eta B10: 5) agertzen da eskuizkribuan; erdaraz, ordea, *paciencia* (A18: 40).

<sup>14</sup> *erraz dasaquet*: ‘erraz esan dezaket’; *esan* aditzaren ahalera trinkoa.

<sup>15</sup> *an*: Ahoan, hain zuzen.

<sup>16</sup> *doğuna*: -na konpletiboa da.

<sup>17</sup> *quilçaric*: ‘giltzarik’; cf. Lcc “llaue, *quilçea*”.

nic ez daucat bearric; <sup>18</sup> oy onegaiti, ene laztana, <sup>19</sup> ce eucaiqueçu <sup>20</sup> penaric. Cerren çu balça <sup>21</sup> içanagaiti, asco da dama galantic; <sup>22</sup> <1201v> oy Langarican egonagayti ez artu soberviaric. Ezcondu gura baldin badoçu, asco dauquezu <sup>23</sup> senarric. Peru Errochec <sup>24</sup> asco dauco esean seme galantic; areanche bat <sup>25</sup> oy al badoçu,	25  30
--	--------------

<sup>18</sup> *bearric*: ‘errurik’; ikusi baita A16: 10. Cf. *OEH*, s.v. *bear*: ““Culpa, bearra”, “culpar, bear egotzi” Lcc. *Odol bearbagea, agirtuko da egia eurea*. “Sangre sin ser necesaria [traducción incorrecta por ‘sin culpa’] descubrir se ha la tu verdad”. *RS* 208. *Ez dauko Peru Garziak bearrik / Ain gatx andia apukadua gatik*. “No tuvo culpa”. *TAV* 3.1.5, 17s. *Gu nagitzen bagera, gurea da bearra edo kulpa*. Mg CC 189 (*CO* 284 *geuria izango da erruba*)”.

<sup>19</sup> *ene laztana*: Hemen zentzu ironikoan erabilita dago, jakina.

<sup>20</sup> *ce eucaiqueçu*: ‘ez ezazu eduki (geroan)’; *eduki* aditzaren geroaldiko aginterazko forma trinkoa. Geroaldiko aginterari buruz, ikusi A27: 2 lerroko oharra. Bestalde, aditz erroaren forma aipagarria da, nahiz eta ez den bakarra, testuan *eucaiqueçu* (A27: 24, A28: 155), *eucaiteco* (A28: 119) eta *baneucaique* (B22: 15) biltzen baitira. Ohar paleografikoari jarraikiz, guztiz azpimarragarria iruditzen zaigu bigarren eskuak aditz formaren *i* bokala tatxatu izana.

<sup>21</sup> *balça*: ‘beltzarana’; edertasun-ereduaren kontrako zen beltzarana izatea, eta, hortaz, ‘itsusia’ esatea bezala da hemen.

<sup>22</sup> *asco da dama galantic*: ‘dama galant asko da(go)’.

<sup>23</sup> *dauquezu*: ‘izango dituzu’; \**edun* aditzaren geroaldi trinkoa (eskuizkribuko bakarra dateke).

<sup>24</sup> *Peru Errochec*: Peru Errortx benetako pertsonaia ezaguna izan bide zen, baina ez daukagu haren inguruko beste informazioirik. *Peru* ponte-izena badago eskuizkribuko beste leku batean ere (B29: 81), eta ezaguna da bestela ere; *Errortx* goitizena dela dirudi, baina ez dugu aurkitu beste lekukotasunik. Hiztegi arruntean ‘amildegia’ esan nahi duenez, pentsatu dugu toponimoren batekin erlazionaturik izan litekeela (Arakilen, besteak beste, bada *Errotz* izeneko kontzejua, seguruenik beste etimologia batekoa bada ere).

<sup>25</sup> *areanche bat*: ‘handik bat hain zuzen, haietatik bat hain zuzen’; Lazarragaren eskuizkribuan, *-txo atzizkia* beti erabiltzen da txikigarri moduan; *-xe atzizkiak*, berriz, hiru balio hartzen ditu: 1) Txikigarria (-*xe* = -*txo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *esecoxeoc* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxear* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). 2) Izenondo eta aditzondoen intentsitate markatzalea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). 3) Indartzailea (izenordain indartuekin, eta *eben* / *arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

<p>bila ce çatez<sup>26</sup> besteric;          uste badoçu iñon ez dala          a ta çu laco<sup>27</sup> beste bi,          ipirdietan<sup>28</sup> deyqueoçu          erraz muñ<sup>29</sup> bioc alcarri.          Juramentu eguiten jagot<sup>30</sup>          obian daçan amari,<sup>31</sup>          nigan miiric<sup>32</sup> badafinçu,<sup>33</sup>          ez egoteco exilic,          cerren çu eder içanagayti,          ez dot bapere bildurric.<sup>34</sup></p>	35 40
--	----------

<sup>26</sup> *bila ce çatez*: ‘ez ezazu bila’; Lazarragaren testuan *bilatu* aditza iragangaitza da, agertzen den hiru lekuetan: *beste amore bilatuko nax* (A4: 11), *Pensamentuac leucaela / dolorez manteniduric, / remedioa bila citecen, / eurençat gora costaric* (A11: 31-34), *bila ce çatez besteric* (A27: 34).

<sup>27</sup> *çu laco*: Lazarragak absolutiboarekin erabiltzen du gehienetan *laco* komparatzalea, pertsona-izenordainaren ondotik (*çu laco, ni laco...*); baina badira bi agerraldi genitiboarekin ere: *çure laco* (A16: 37oh), *çure lacooc* (B5: 19).

<sup>28</sup> *ipirdietan*: ‘ipurdietan’; forma ezaguna zen Landuccik (“rabo por culo, *ypirdia*”) eta RS-k (*Arrien ganean jarri dina ipirdian atera dai mina*, RS 385) ere erabili dutelako.

<sup>29</sup> *deyqueoçu / erraz muñ*: ‘erraz muin eman ahal(ko) diozue’; \*-in- erro zaharreko NOR-NORI-NORK geroaldi/ahalerako adizkia.

*muñ* hitzari dagokionean, eskuizkribuan bi bider dago, bietan poema berean, behin sudurkari sabaikaria markatuta (*muñ* A27a: 38) eta behin sabaikaritasuna markatu gabe (*mun* A27a: 51). Ikusi A27a: 51 lerroko oharra.

<sup>30</sup> *eguiten jagot*: ‘egiten diot’.

<sup>31</sup> *obian daçan amari*: Hobian datzan ama Joan Perez Lazarragakoaren ama baldin bada, 1602koa da poema honen (eta ziur aski eskuizkribuaren) *post quem* data, ziur baitakigu urte horretan bizirik zela Elena Saez Erdoñakoa, poetaren ama. Izan ere, 1602ko “AHPA.Protocolos Notariales, 2486, ff. 85-86” dokumentuan oraindik bizirik agertzen da, Gervasio Di Cesare jaunak jakinarazi digunez.

<sup>32</sup> *miiric*: Birritan bakarrik aurkitu dugu hitza eskuizkribuan eta bietan bokal bikoitza-rekin dago: *miiau* (A10: 7), *miiric* (A27: 41). Landuccirenean bokal bikoitzik gabe dago: “*lengua, mia*”. Cf. *OEH*, s.v. *mihi*: “De uso general en la tradición septentrional. Al Sur apenas se documenta en autores guipuzcoanos (hay *mi* en los refranes de Isasti (*mingañ* en C), en Cardaberaz (*Eg III 370*) y Ubillos; *mi(h)i* en Moguel (CC), Aguirre de Asteasu, Orixe y N. Etxaniz (*LBB 188*), y *mihin* en Aresti (*Tobera 287*)). Es más frecuente entre los vizcaínos, cuya forma es *mi(i)n* desde el s. XVII. En los refranes recogidos por Garibay y en RS las formas documentadas son sin *-n*, pero seguramente con nasalización de la vocal. Para el dialecto alto-navarro hay *mi* en Beriayn, Lizarraga de Elcano, en un texto de Larrasoña del s. XVIII (ETZ 58) y en Zubiri (en éste junto a *mihi*), y *mi(h)i* en Mendiburu y en un texto baztanés del s. XVIII (BOEans 799). En DFrec hay 13 ejs. de *mihi* y 1 de *miin*”.

<sup>33</sup> *nigan miiric badafinçu*: ‘nigan mihirik ipintzen baduzu, nitaz gaizki esaka aritzen bazara’; cf. *DAut*, s.v. *lengua*: “Poner *lengua* en alguno. Significa murmurar y hablar mal de él”. Ikusi baita *çuetan miiau ifinteraco* (A10: 7). Ohar bedi adibide batean bizidunaren marka erantsi diola izenordainari eta bestean ez. *Ifini* aditzaren forma trinkoei dagokienean, ikusi A27: 4 lerroko oharra.

Osaba<sup>35</sup> jaunaz<sup>36</sup> ezpaceonça,<sup>37</sup>  
jaquin eguiçu niganic,  
alogoroac<sup>38</sup> oy neucala  
çureçat ondo gorderic;  
oy aren serbiçaria<sup>39</sup> nax ta  
ez dot esango besteric.  
Oyñ-escuetan muñ<sup>40</sup> eguioçu,  
ez niri barriz burlaric.<sup>41</sup>

45

50

Fin

<sup>34</sup> *cerren çu eder içanagayti, / ez dot bapere bildurric:* Itxura batean, kontraesanean izan liteke bertso-lerro hau aurrekoarekin, aurrekoaren arabera pentsatzen baikenuen Mari Lopezko itsusia dela; horrela pentsatu du lerroarteko aldaketa egin duenak, *eder* > *eçaia* aldatu baitu. *Eder* irakurketa mantenduz gero, honela ulertu behar dela uste dugu: ‘zuk zeuk eder zarela esan arren, nik ez dut zure beldurrik, ondo baitakit ez zarela ederra’.

<sup>35</sup> *Osaba:* Ziur aski, Lazarragaren emazte Catalina Gonzalez Langarikakoaren osabaren bat bide da, horren aitonarenak (eta gero aitarenak) baitziren hala Arriolako Langarika jauregia nola Langarikako Langarika jauregia; baina ez dakigu zehazki nor izan litekeen.

<sup>36</sup> *jaunaz:* ‘jaunagaz’; hemen -az bukaerak soziatiboaren balioa du.

<sup>37</sup> *ezpaceonça:* ‘egongo ez bazina’.

<sup>38</sup> *alogoroac:* ‘ordaina’, hain zuzen Mari Lopezkoren esamesen aurkako ordaina. Ez dugu aurkitu forma honen beste lekukotasunik, baina euskarazko *alogera* (euskaraz Zaharrean ikusi Kapanaga: “Bear egin deutsaneen alogera, edo salarioa kriaduena. Cap 109”, apud OEH, s.v.) eta gaztelaniazko *aloguero-*rekin (cf. DAUT, s.v.: “Lo mismo que arrendamiento o alquiler”) erlazionaturik izan behar du.

<sup>39</sup> *serbiçaria:* ‘zerbitzari zintzoa, esanekoa’; hain zuzen gaztelaniazko *servidor*, eta ez ‘morroia’, gaztelaniazko *sirviente*.

<sup>40</sup> *muñ:* Eskuizkribuan, *muin* ‘musu’ hitzean, behin markatu da sabaikaritasuna (*muñ* ‘musu’ A27: 38) eta behin ez (*mun* ‘musu’ A27a: 51); aipatu behar da badela *muyña* ‘funtsa, aberastasuna’ (B33: 2) ere, sabaikaritasuna markaturik; *gain(e)-* hitzari dagokionean, eskuizkribuan lau aldiz agertzen da <ñ> sabaikaria markaturik (*gañe-* A4: 18, A17: 82, A24: 31, B18: 5) eta hiru bider sabaikaritasuna markatu gabe (*gane-* AL: 1141v, A11: 7, A28: 44). Uste dugu testuan *gane-* > *gañe-* eta *mun* > *muñ* aldatzea dela egokiena, jakinik eskuizkribu honetan bestelakoetan ere markatu gabe direla kontsonante sudurkari sabaikari batzuk, eta kontuan izanik Landuccirenean ere —Mitxelenak ohartarazi zuen moduan— sistematikoki *-ain* eta *-uin* bukaerak *-ayn* / *-añ* eta *-uyn* / *-uñ* idazten direla (cf. Lcc “ençima, gaynear”, “neruio, raiz, çayna”, “nuera muger; yerno, errayna”, “nauaja, labayña”, “cola de animal, vuztayña”, eta “beso, muyn”, “besar, muyn eguin”), eta ez *-an(e)* edo *-un* bizkaieraz bezala.

<sup>41</sup> *ez niri barriz burlaric:* Hemengo 49. eta 52. bertso-lerroen kideak dira beste hauek: *berorren serviçaria nax ta / ez niri barriz burlaric* (A23: 95-96).

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**1** ederreza] gainean *atrebidea*, beste letrakera batez. **2** arren çaoça exilic] lehendabizi, beste letrakera batez, çaoça zegoen etiketik *çaoçque* atera du zuzenketen egileak, -*q* gangarduna jarriaz -*a*-ren gainean; gero, lerroa tatxatu eta gainean *ez esan seculan gaycic* idatzi du. Bestalde, *seculan* tatxatutako zerbaiten gainean idatzi da (agian *ynox*). **3** oy eta] tatxatuta. || gura badoçu] beste letrakera batez *gura ezpadoçu* zuzendu da, *ez* lerro gainean erantsi, eta -*b-* zegoen lekuan -*p-* idatzita. **5** Oy aserratu deraustaçu] gainean *berbaric asco esan ey duçu*, beste letrakera batez. Bestalde, *berbaric* hitzaren aurrean *ceurc*, tatxatuta. **6** ceurorrec ala guraric] gainean *ene ausencian eguinic*, beste letrakera batez. Bestalde, *eguinic* hitzaren aurrean *ixilic*, tatxatuta. **7** badanic bere irabacico] beste tinta batez egindako zuzenketek *baya bardin irabaci* testua sortu dute: -*d-* letraren gainean -*y-* idatzi da, -*nic* bere marra batez tatxatu da eta gainean *bardin* idatzi da, eta -*co* marra batez tatxatu da. **8** gona barriric] *agaz honraric* gainean, beste letrakera batez. **9** Oyta] *cierto* gainean, beste letrakera batez, lehengoa tatxatu ondoren. || esango even] *içango çan* lerroan bertan, lehengo letren gainean, beste letrakera batez. **20** quilçaric] *freuric* gainean, beste letrakera batez. **23** ene laztana] *gach esalea* gainean, beste letrakera batez, lehengoa tatxatu ondoren. **24** euaiqueçu] tinta beltzagoz egindako goitik beherako marra batek -*i-* tatxatu du. **25** balça] *chipi* gainean, txiki-txikia, beste letrakera batez. **26** dama] *galay* gainean, beste letrakera batez. **29** Ezcondu gura baldin badoçu] *Amoraduoc egon agati* gainean, beste letrakera batez; *agati-ren* aurrean hiru bat letra (*.un* agian), tatxatuta. **30** asco dauquezu] *estao çure* gainean, beste letrakera batez. **39** Juramentu] *oy* aurrean, tatxatuta. || jagot] *deusat* gainean, beste letrakera batez. **40** obian daçan amari] *adiquetan duen guztori* gainean, beste letrakera batez, eta bi aukerak biribil batean bilduta. **41** badafinçu] *oy* aurrean, tatxatuta. **43** eder] esk. *ederr*. || eder içanagayıti] *eçay ycanagayıti* gainean, beste letrakera batez. Bestalde, *ederr* hitzari -*a* erantsi zaio hitz artean, tinta beltzagoz, eta *ederra*bihurtu da. **44** bildurric] *penaric* gainean, beste letrakera batez. **51** muñ] esk. *mun*. || Oyñ-escuetan muñ eguiçoju] *berba dollorroc gorde eguiçu* gainean, beste letrakera batez; marra batek bi aukerak besarkatzen ditu. Hasieran *gordeeguiçu* idatzi zen; gero, -*guiçu* tatxatu eta *eguiçu* idatzi da.

**A27b**

&lt;1201r&gt;

*Canción para cantar por alguna persona que a murmurado*

Mari Lopezco *atrebidea*,<sup>42</sup>

*ez esan seculan gaycic,*

*baldin gura ezpadoçu*<sup>43</sup>

*ez difinçuen tacharic.*

*Berbaric asco esan ey*<sup>44</sup> *duçu*,<sup>45</sup>

5

*ene ausencian eguinic;*

*baya bardin*<sup>46</sup> *irabaci*

*ez doçu agaz honrasic.*

*Cierto*<sup>47</sup> *obato içango çan*

*egon bacina exilic;*

10

*oy bada bere, berva gureac*

*ez diçu emun lecuric.*

*Luçuriagan jaio cinean,*

*Langarican çaoz calteric;*

<sup>42</sup> *atrebidea*: ‘errespetu gabea, lotsagabea’; cf. *Doncellacho atrevidea* (A4: 5). Ik. Urt Gram (*apud OEH*, s.v. *atrebitu* 2): “Insolent, *inpudenta, insolenta, atrebitua, ahalkegabea*”. Ik. orobat *DAut*, s.v. *atrevido*: “Se suele tomar por descompuesto, demasiadamente libre y arrojado, falto de respeto, inconsiderado y desatento”.

<sup>43</sup> *ezpadoçu*: Agian metrikak eraginda geratu dira bi ezezko (*gura ezpadoçu eta ez difinçuen*), baina bakarra balego bezala ulertu behar da esaldia.

<sup>44</sup> *ey*: ‘ei, omen’; partikula honen lehenenengo lekukotasuna *Arrasateko Erreketa* aurkitzen da (*Madalenaan an ei dauça*, TAV 3.1.7, 83), baina XIX. mendera arte oso gutxi lekukotzen da, ziur aski testu motengatik (dotrinak, otoitzak...). Cf. *OEH*, s.v.: “Documentado sólo en textos vizcaínos. Atestiguado ya en los Cantares de la quema de Mondragón, hasta la segunda mitad del s. XIX los ejemplos son, sin embargo, muy poco frecuentes”. Lazarragarenear bederatziz aldiz aurkitu dugu: A12: 2, A12: 4, A23: 25, A24: 2oh, A27b: 5, A28: 2, A28: 10, B29: 10, B29: 24.

<sup>45</sup> *duçu*: *du*- moldeko \**edun* aditzaren formak hiru baino ez dira eskuizkribuan: *dut* (AL: 1152r), *duçu* (A27b: 5), *duen* (A27 b: 40). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *deu-* moldeetakoak.

<sup>46</sup> *bardin*: ‘beharbada, seguro aski’; Lazarragaren eskuizkribuan hamaika aldiz aurkitu dugu *bardin*. Horietako batean bakarrik (AL: 1145v) du zalantzak gabe gaurko ‘berdin’ esanahia, ‘berdintasuna’ adierazten duena; hiru aldiz (AL: 1151r, A25: 8, A27b: 7) ‘dena den, nonbait, beharbada, seguro aski’adierazten du, gure ustez (cf. *OEH*, s.v., “de todas maneras, en cualquier caso” eta “probablemente, quizás”); behin (A12: 11) zalantza dugu bi adiera horietako zein ote duen; eta, azkenik, sei bider adierazten du baldintza (AL: 1172r, A24: 5, B17: 82, B18: 93, B18: 98, B23: 101).

<sup>47</sup> *Cierto*: ‘dudarik gabe, inondik ere’; adiera honetan onto lekukotzen da Hegoaldeko euskara arkaiko eta zaharrean: Landucci (“ciertamente, *zierto*”), Beriain, Mikoleta, Kapanaga eta Otxoa (*ap. OEH*, s.v. *zierto* 2).

oy guchiago esateraco nic ez dot pacenciaric. Berbaric asco erraz dasaquet, çuc ala meresciduric; ceure aoan doçu aguirri an ez doğuna <i>freuric</i> . <sup>48</sup> Oy çu ederra içan ez arren, nic ez daucat bearric; oy onegaiti, <i>gach esalea</i> , ce <i>eucaqueçu</i> penaric. Cerren çu <i>chipi</i> <sup>49</sup> içanagaiti, asco da <i>galay</i> galantic; oy Langarican egonagayti ez artu soberviaric. <i>Amoraduoc egonagati</i> , <i>eztao</i> <sup>50</sup> çure senarric. Peru Errochec asco dauco esean seme galantic; areanche bat oy al badoçu, bila ce çatez besteric. Uste badoçu iñon ez dala a ta çu laco beste bi, ipirdietan deyqueoçu erraz muñ bioc alcarri. <i>Juramentu eguiten deusat</i> <i>adiquetan duen</i> <sup>51</sup> <i>guztiorri</i> ,	15 20 25 30 35 40
--	----------------------------------

<sup>48</sup> *freuric*: ‘bridarik, aho-uhalik; geldiaraziko zaituenik’; cf. Lcc “freno para caballo, *zaldian freua*”. Astarloak ere <n> gabeko aldaera lekukotzen du (*ap. OEH*, s.v. *frenu*).

<sup>49</sup> *chipi*: Eskuizkribuan beste behin agertzen da *chipi*: *Ume chipiric* (A24: 69); gainerakoetan, eskuizkribuan *chiquer* agertzen da. Landucciren hiztegian *chipi* eta *chiquer* biak ditugu.

<sup>50</sup> *eztao*: ‘ez dago’; -g- kontsonantea bokal artean galtzea ondo lekukotuta dago eskuizkribuan, baina bakarra da indikatiboko orainaldiko hirugarren bertsona singularrean.

<sup>51</sup> *adiquetan duen*: ‘aditzen duen, entzuten duen’. *du-* moldeko \**edun* aditzaren formak hiru baino ez dira eskuizkribuan: *dut* (AL: 1152r), *duçu* (A27b: 5), *duen* (A27 b: 40). Gutxi dira, orobat, *de-* eta *deu-* moldeetakoak.

nigan miiric badafinçu,  
ez egoteco exilic,  
cerren çu *eçay*<sup>52</sup> içanagayti,  
ez dot bapere *penaric*.  
Osaba jaunaz ezpaceonça, 45  
jaquin eguiçu niganic,  
alogoroac oy neucala  
çureçat ondo gorderic.  
Oy aren serbiçaria nax ta  
ez dot esango besteric. 50  
*Berba dollorroc gorde eguiçu,*  
ez niri barriz burlaric.

Fin

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**30** eztao] esk. *estao*.    **40** guztiorri] esk. *guztiori*.    **51** dollorroc] esk. *dollarroc*.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A27 – Mari Lopezco ederreza...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

---

<sup>52</sup> *eçay*: ‘itsusi, desitxuratu’; cf. *OEH*, s.v. *ezain*: “(Aplicado a acciones) feo, sucio, deshonesto, vergonzoso; (aplicado a personas) feo, desfigurado”.



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago

## A28

### *Istoria de la quema de Salvatierra*

Eskuizkribuko gainerako euskarazko poemetan ez bezala, kasu honetan izenburu argia eta gardena daukagu eskuizkribuan bertan: “Istoria de la quema de Salvatierra, que fue a primero de agosto del año del nacimiento del Señor 1564. Compuesta por Laçarraga”. Fortunato Grandes historialariak argitaratu zituen sute horren inguruko datuak (Grandes 1923: 204), eta guk harenetik hartu ditugu. Bi dira bereziki interesgarriak. Lehena Aguraingo 1527-1568ko akta-liburutik hartua da eta 1564ko abuztuaren 14an Zuhatzuko elizan eginiko bilkurari dagokio:

... que siendo la voluntad de Dios Nuestro Señor, la dicha villa se había quemado al primero día de Agosto toda ella, excepto la iglesia de Santa María y horno de Santa María y la casilla de Pedro Díaz de Santa Cruz...

Bigarrena Aguraingo lekaime frantziskotarren komentuan dagoen XVII. mendeko kronika batetik (Izengabea: fol. 3) hartua da eta sutearen are deskripzio zehatzagoa dakar:

En el 1º de agosto de 1564, a las diez del día, prendió fuego en una casa junto al Portal de San Juan; y, con el viento recio que corría, se extendió por todas las casas de aquellos barrios, y alcanzó al tejado y campanario de la Iglesia de San Juan, y cayeron las campanas, quedando sólamente las bóvedas y paredes, y fue el fuego extendiéndose más, de manera que para las diez de la noche se quemó toda la villa, excepto la iglesia de Santa María y un horno y una casa que quedaron sin quemarse. En esta ocasión se quemó también todo el convento de las beatas, quedándose solamente la muralla por una parte y un pedazo de pared por la parte de la calle, y las dichas beatas con su hacienda y a su costa reedificaron la iglesia y casa hasta lo que alcanza ahora la puerta regular; todo lo cual se renovó y repasó después, además de los cuartos que se han añadido como se dirá adelante; y mientras se edificaba, algunos años estuvieron algunas de las dichas beatas divididas en Santa Ana de Zubietu y en Mondragón y otros conventos.

Grandesen artikuluan (Grandes 1923: 205-206) aurkitu ditugu poeman (64, 72 eta 81 lerroetan) aipatzen den izurriteari buruzko argibideak ere:

... la peste, anterior a la quema y coetánea de ella [...].

En primer término, no sabemos si la peste de que se trata fue el cólera o la peste bubónica, aunque nos inclinamos a creer que fue esta última, y únicamente hemos

averiguado de un modo oficial que el número de víctimas excedió de 600, cifra verdaderamente fabulosa, que representaba el cuarenta por ciento de la población.

[...] En aquellas difíciles y tristísimas circunstancias, nuestro Concejo se reunía para adoptar sus acuerdos, como antes indicamos, en los pueblos y sitios inmediatos, yendo de uno a otro cuando la peste aparecía en cualquiera de ellos, y de sus determinaciones hemos colegido que los barrios agrícolas de extramuros no fueron pasto de las llamas y sirvieron provisionalmente de albergue a los que como consecuencia del fuego quedaron sin viviendas.

En los pueblos circunvecinos se negaban a admitir en sus domicilios a los que de Salvatierra huían por no tener casa y para librarse del contagio, ante el temor de que llevaran este consigo, y para obligarles a recibirlas tuvo la Justicia de Salvatierra necesidad de acudir al Rey en demanda de una Real Cédula, que consiguió.

Aipagarria da datu horien eta poemak agertzen direnen arteko antzekotasuna.

Lazarragaren poemak hiru zati ditu:

1. Sarrera gisako 1-40 lerroak. Atal berezi bat osatzen dute 27-40 lerroek, narratzailearen presentzia erretoriko nabarmenarekin.
2. Gertaturikoaren kronika, 41-138 lerroetan. Zati honetan, 111-138 lerroek osatzen dute atal berezia, kalteak zehazten baitira hor (1-26 lerroetan aipaturikoei eransteke).
3. Hirugarren zatia (139-180 lerroak) erabat desberdina da: Kristau on bezala bizitzeko deia egiten du, Salbaterran gertaturiko gaitzak aitzakiatzat hartuta, Jainkoak bidaliko duen zigorraren iragarpen balira bezala.

Eskuizkribuko bi poematen (A28 eta B29) erabili du poema honestako eredu metrikoa: bakoitza 5 silabako librea, eta bikoitza 8 silabakoa errima bokalikoarekin; hauen antzekoa da A26 ere, 5+9 egitura silabikoarekin.

<1202r>      *Istoria de la quema de Salvatierra, que fue a primero de agosto del año del nacimiento del Señor 1564.*

*Conpuesta por Laçarraga.*

Salbaterra <sup>1</sup>	
egun <sup>2</sup> ey <sup>3</sup> dago tristeric,	
oyta dabela	
eguiten asco negarric,	
cerren jarri da	5
guztia destruiduric.	
Ez da gueratu	
barruan ese galantic;	
cerca <sup>4</sup> çabaloc	
jarri ey dira bacarric;	10
oy onezquero <sup>5</sup>	
ez da mercatu bearric;	
apain ce bedi	
oyta doncella galantic.	
Erraz daoque <sup>6</sup>	15

<sup>1</sup> *Salbaterra*: Gainerakoetan *Salbaterra-* dakar (A28: 21, 51 eta 161. bertsso-lerroetan), baina irakurketa gardena da. Agian zerikusia du bertsso-lerroen egiturarekin, bost silabako bertsso-lerroa behar baitzuen.

<sup>2</sup> *egun*: ‘gaur (egun)’; cf. *OEH*, s.v. 2 *egun*: “Empleado de forma general por autores septentrionales y alto-navarros; en textos más occidentales se encuentra, por un lado, como término fosilizado en la oración del Padrenuestro, desde Capanaga hasta casi nuestros días; tbn. lo hallamos en unos versos vizcaínos de 1688 y en Barrutia. En textos guipuzcoanos es algo más frecuente: lo emplean Larramendi, Mendiburu (*IArg* I 91), Iturriaga (*Fab* 194) e Iztueta, y ya en el s. XX hay testimonios de bastantes más autores, especialmente desde 1950; Aguirre de Asteasu sólo emplea la expresión *egungo egun*”.

<sup>3</sup> *ey*: ‘ei, omen’; *ey* partikulak, hemen eta 10. lerroan, distantzia markatzen du, batez ere denboran, 1564.eko gertakizunez ari den arren, ez baitakigu zehazki noiz idatziriko poema den. Lekukotua zegoen *Arrasateko Erreketa* ere: *Madalenaan an ei dauça* (*TAV* 3.1.7, 83); baina XIX. mendera arte oso gutxi agertzen da, ziur aski testu motengatik (dotrinak, otoitzak...). Cf. *OEH*, s.v.: “Documentado sólo en textos vizcaínos. Atestiguado ya en los Cantares de la quema de Mondragón, hasta la segunda mitad del s. XIX los ejemplos son, sin embargo, muy poco frecuentes”. Lazarragarenean bederatzi aldiz aurkitu dugu: A12: 2, A12: 4, A23: 25, A24: 2oh, A27b: 5, A28: 2, A28: 10, B29: 10, B29: 24.

<sup>4</sup> *cerca*: ‘harresi’; Landuccik ere erabili du: “çerca, çerquea” eta “muro de ciudad, ciudadæ çerquea”.

<sup>5</sup> *onezquero*: ‘dagoeneko’; *gero* adberbia oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoen artean, azpimultzo batek ‘jada, berehala, dagoeneko’ balioa du. Erakuslean oinarritutako formak dira.

<sup>6</sup> *Erraz daoque*: ‘ziurrenik dago’; hemen, iduri luke -ke atzizkiak, geroaldia baino gehiago, probabilitatearen balioa ematen diola aditz-formari. Gisa bereko beste adibide bat agertzen zaigu lerro batzuk beherago: *erraz zaozque* (A28: 23); baina cf. *erraz daoque* (A24: 25), geroaldiaren balioarekin. Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horien lekukotasunak ekialdeko testuetan baizik ez ziren biltzen: *Certain iuya hic vayataçac eure yzterbeguia / hartan condemnacen duquec yhaurec eure buruya*

Araba lutoz janciric;	
ez ara eroan,	
barrundiarrar, <sup>7</sup> frutaric;	
Nafarroaric	
jasi ce bidi <sup>8</sup> gararric. <sup>9</sup>	20
Salbaterrarrac,	
ez eguin barriz justaric, <sup>10</sup>	
erraz çaozque <sup>11</sup>	
oy ondo gaztigaturic, <sup>12</sup>	
Jaun Cerucoac	25
onela permitiduric. <sup>13</sup>	
Ezin esan dot;	
egon bear dot exilic;	
flaquezeonec	
eztit emayten lecuric. <sup>14</sup>	30

(Etx XIII, 88-89); *Erraiten drauquet [...] utzi denarequin ezconduren datenac, adulterio iauquiten duqueela* (Leiz Mat. XIX, 9).

<sup>7</sup> *barrundiarrar*: Barrundiarrak, hemen, Agurain inguruko nekazariak dira, hiribildutik kanpokoak. Barrundiako udalerria Aguraingo koadrillaren barruan kokatzen da eta Barrundiako ermandadean du oinarri; Barrundiako ermandadean ondoko herri hauek ziren: Ozeta (hiriburua), Audikana, Dallo, Etxabarri-Urtupiña, Heredia, Hermua, Larrea, Matura eta Zuazola. Joan Perez Lazarragakoa Barrundiako ermandadearen prokuradorea izan zen Arabako Batzar Nagusietan, 1581-1584 urteetan (cf. Di Cesare 2010).

<sup>8</sup> *jasi ce bidi*: ‘ez bedi jaitsi, ez bedi ekarri’.

<sup>9</sup> *gararric*: ‘garagarrík’; Landucciren B eskuak “ceuada, garagarra” ematen du; *OEHn* ez dugu aurkitu aldaera honen berri, baina lerroen silaba-egiturak ez du formari buruzko zalantzarako lekurik ematen.

<sup>10</sup> *justaric*: ‘zaldunen arteko borrokari’; cf. Lcc “justa, justea”. Cf., orobat, *DAut*, s.v. *justa*: “Se llama también el juego o ejercicio festivo de caballeros, armados de punta en blanco, en que a modo de alarde ejecutan las acciones del combate con lanzas”.

<sup>11</sup> *erraz çaozque*: ‘ziurrenik zaude(te)’; -ke atzizkiaren probabilitate-balioari buruz, ikusi A28: 15 lerroko oharra.

<sup>12</sup> *gaztigaturic*: ‘abisaturik, eskamentua harturik’; dirudienez, Lazarragaren eskuizkribuan *gaztigatu* aditzak beti ‘abisatu’ esan nahi du (cf. A7: 70, A10: 70, A16: 60, A28: 24 eta *gaztigu* A28: 146), eta *castigua* ‘zigorra’ da (AL: 1154r). Cf. *OEH*, s.v.: “Al Sur se da la distribución de variantes *gaztigatu* ‘avisar’ / *kastigatu* ‘castigar’; hay pocas excepciones —Refranes de Garibay, Beriayn, Iturriaga e Iza— en que *gaztigatu* se emplee para ‘castigar’.”

<sup>13</sup> *onela permitiduric*: ‘honetarako aukera emanik’, hots, Jainkoak nahi izan du herria erretzea hango biztaleentzako abisu gisa, onbideratu daitezen.

<sup>14</sup> *eztit emayten lecuric*: ‘ez dit ematen aukerarik’; eskuizkribuan bost lekutan dago antzeko egitura: *ez dit emayten lecuric* (A10: 12, A10: 62), *eztit emaiten / iguitaiac lecuric* (A23: 87-88), *ez diçu emun lecuric*

Balia bequit,	
oy badot adisquideric; <sup>15</sup>	
ifini nagui	
oy arren esporçaduric. <sup>16</sup>	
Conta deçadan	35
dolorez asco coitaric,	
ez daquienac	
daocen abisaduric.	
Asi gura dot;	
nançuçu, çaoz <sup>17</sup> exilic. <sup>18</sup>	40
Mila ta bosteun	
urte alcarri eranci, <sup>19</sup>	
irurogueta	
lau gueiago gañeti <sup>20</sup>	

(A27a: 12), *eztit emayten lecuric* (A28: 30). cf. *OEHn* LEKU(A) EMAN, s.v. *leku*: “Dar lugar, consentir, dar consentimiento; dar ocasión, dar tiempo”.

<sup>15</sup> *Balia bequit, / oy badot adisquideric*: ‘adiskiderik baldin badut, lagundu nazala’.

<sup>16</sup> *ifini nagui / oy arren esporçaduric*: ‘ipini nazala adoreturik, eman diezadala adorea’; *esporçaduric ifini* esamoldeari dagokionean, cf. A14: 74 eta *DAut*, s.v. *esforzado*: “Significa también valiente, animoso, de grande brío, corazón y espíritu valeroso y denodado”. Aditzari dagokionean, euskara historikoan, jusiboa *b-* aurrikidun (*besa, esan beza...*) edo *-la* atzizkidun (*datorrela, etor dadila...*) formen bidez adierazi ohi da. Lazarragak erabilera ezezagun baten berri ekartzen digu iragankorretan. Izan ere, subjektua 3. pertsonako duten formak, aginterazko forma arruntak bezala eratu ditzake, aurrikidu edo atzizkirkirik gehitu gabe: *il nagui* (A3: 26), *ezcondu nagui* (A19: 4), *ifini nagui* (A28: 33), *ecusi nagui* (B17: 18). Azpimarratu behar da bildutako forma guztiekin 1. pertsonako objektua dutela, eta objektua 2. pertsonako dutenekin *-la* atzizkidun formak erabiltzen dituela: *Jaun cerucoac, ene laztana, oy deguiçula parcatu* (AL: 1146r).

<sup>17</sup> *çaoz*: ‘egon zaitez(te)’, agintera; *çaoz* eta *çaoça*, bietara erabiltzen du.

<sup>18</sup> *Asi gura dot; / nançuçu, çaoz exilic*: Antzeko formula aurkitu dugu eskuizkribuko lau lekutan, ondoren datorren solasari adi izateko arreta eskatzen duen funtzio kataforikoan: *nançuçu, çaoz gueldiric* (A10: 4), *oy lenaengo abantajea / dasadan, çaoz exilic* (A14: 49-50), *Asi gura dot; / nançuçu, çaoz exilic* (A28: 39-40), *Arren, nançuçu, / Jaun Cerucoaen amorez, / conta deçadan / Pasio Santua dolorez* (B29: 17-20).

<sup>19</sup> *eranci*: ‘erantsi’; cf. *OEH*, s.v. *erantsi*: “Erantzi, documentado ya en Capanaga, aparece en algunos textos vizcaínos y, ya en el s. XX, tbn. en guipuzcoanos, alternando a menudo con *erantsi* en los mismos autores”.

<sup>20</sup> *gañeti*: Hitz honetan, eskuizkribuan lau aldiz agertzen da <ñ> sabaikaria markaturik (*gañe-* A4: 18, A17: 82, A24: 31, B18: 5) eta hiru bider sabaikaritasuna markatu gabe (*gane-* AL: 1141v, A11: 7, A28: 44); *-uin* bukaera duten hitzetan bi bider markatu da sabaikaritasuna (*muyña* ‘funtsa, aberastasuna’ B33: 2, *muñ* ‘musu’ A27: 38) eta behin ez (*mun* ‘musu’ A27a: 51). Uste dugu testuan *gane- > gañe-* eta *mun > muñ* aldatzea dela egokiena, jakinik eskuizkribu honetan bestelakoetan ere markatu gabe direla

da jaio çala	45
Jaun Cerucoe justoric, <sup>21</sup>	
abuztu ilac	
egun bat cunpliçacaric. <sup>22</sup>	
Oyta jagui çan	
suori <sup>23</sup> utra forticic, <sup>24</sup>	50
<1202v> Salbaterragaz	
andiro enojaduric,	
portaleetan	
comiençua arturic. <sup>25</sup>	
Oyta erre dau	55
Jandoneanez <sup>26</sup> calteric, <sup>27</sup>	
canpaac <sup>28</sup> bere <sup>29</sup>	

kontsonante sudurkari sabaikari batzuk, eta kontuan izanik Landuccirenean ere —Mitxelenak ohartarazi zuen moduan— sistematikoki *-ain* eta *-uin* bukaerak *-ayn / -añ* eta *-uyn / -uñ* idazten direla (cf. Lcc “ençima, gaynean”, “neruio, raiz, çayna”, “nuera muger; yerno, errayna”, “nauja, labayña”, “cola de animal, vuztayña”, eta “beso, muyn”, “besar, muyn eguin”), eta ez *-an(e)* edo *-un* bizkaierez bezala.

<sup>21</sup> *justoric*: ‘zehazki, hain justu’ esan nahi duela dirudi, *OEHn* (s.v. *justu*) adiera horretako adibideak oso berankorrik badira ere. Gainera, ez dago lekukoturik *justorik* edo *justurik*, baina, batetik, errimarako behar du *-i-* (hots *-ric*), eta, bestetik, gaztelaniazko *justamente* adberbioak ere badu adiera hori (cf. *DAut*, s.v.).

<sup>22</sup> *cunpliçacaric*: ‘kunplitzeko, kunplitu gabe, osatu gabe’; sutearen data ematen ari da: 1564.eko abuztuaren lehenetan; Aguraingo 1527-1568ko akta-liburuan ere data hori agertzen da, eta, XVII. mendeko kronikaren arabera (cf. Grandes 1923), sua egun horretako goizeko hamarretan hasi zen.

<sup>23</sup> *suori*: Eskuizkribuak *su ori* sintagma halaxe ematen badu ere, bi elementuak bereizita, guk, hemen erakusle gisa interpretatzeari zail iritzita, *suori* jarri dugu, bi elementuak batuta. Cf. *Suori* (A28: 77) eta *suorrec* (A28: 94), eskuizkribuan ere horrela idatziak.

<sup>24</sup> *forticic*: ‘bortitzik, sendorik, bortizki, sendoki’; *OEHren* arabera Gerriko dateke aldaera honen lehen agerraldia. Orain arte G eta GN-n zegoen dokumentaturik, eta ekiaderago ere bai. Lazarragaren eskuizkribuan sei aldiz dago (A14: 18, A16: 81, A24: 153, A28: 50, B17: 97, B18: 9).

<sup>25</sup> *portaleetan / comiençua arturic*: XVII. mendeko kronikaren arabera, San Juan Portalearen ondoko etxe batean hasi zen sutea: “prendió fuego en una casa junto al Portal de S. Juan” (ap. Grandes 1923: 204).

<sup>26</sup> *Jandoneanez*: ‘San Juan (eliza)’; *Jandoneanez* da izena forma absolutiboan; hala agertzen da eskuizkribuko hiru lekutan: *Jandoneanez vezpera* (A7: 2), *Jandoneanez calteric* (A28: 56), *Jandoneanez Bautista* (B25: 13). Azkoitian ere bada *Jandonianiz* toponimoa. Aguraingo hiribilduaren hegoaldean dago San Juan eliza-gotorlekua, harresien barruan.

<sup>27</sup> *calteric*: ‘denon kaltetan, zoritzarrez’; *calteric* hitza bi aldiz dago eskuizkribuan (A27: 14 eta A28: 56). Ez dugu aurkitu beste lekukotasunik, baina badirudi *damurik* esamoldearen antzekoa bide dela.

<sup>28</sup> *canpaac*: Mendebaldeko zenbait testu zaharretan (Kapanagarena eta Frai Bartolomerenak, kasurako) inesibo singularreko eta absolutibo pluraleko markak (*-an* eta *-ak*) izenari erabat asimilatu gabe geratzen dira. Lazarragaren eskuizkribuan ere hala gertatzen da, *-a* amaiera duten hitzek agerian uzten dutenez, bokal bikoitz grafikoak agertzen baitituzte. Aurkitu ditugun salbuespen bakarrak *ezpatac* (AL:

chapitelagaz <sup>30</sup> arturic;	
bobedaxeoc <sup>31</sup>	
ichi dau euroc bacarric. <sup>32</sup>	60
Cerren ez dago	
norc socorridu jenteric, <sup>33</sup>	
cerren eocen	
içurriteaz <sup>34</sup> urtenic.	
Ifini dave <sup>35</sup>	65
oy eta asco penaric <sup>36</sup>	
comarcaetan, <sup>37</sup>	
ara <sup>38</sup> balloa <sup>39</sup> g[u]liçonic,	

1153v) eta *bervac* (AL: 1154v) dira; *canpaac* (A28: 57) salbuespen den ala ez ezin da ziur baiezttatu, ez baitakigu oinarrizko forma *canpa* ala *campaa* den (Landuccik *campae* dakar: “badajo de campana, *campae mia*”).

<sup>29</sup> *bere*: ‘era’ nahiz ‘bere’ izan daiteke.

<sup>30</sup> *canpaac bere / chapitelagaz*: ‘kanpaiak eta txapitela ere’; “X Ygaz” egitura da, “Xrekin Y” egituraren aldaera, ‘X eta Y’ adierazteko.

*chapitelagaz*: OEHk s.v. 1 *txapitula* biltzen du forma hau, eta adieretan egokiena 2.a dugu, non *txapitela* (AN-araq, Sal, R) teilatu gaineko zera den, “buharda” edo “tejado más alto del mandio, donde se sale al tejado”, eta abar. Gurea zehazki ez dago han jasota. Erdaraz ere erabiltzen da adiera honetan: cf. Moliner-ek, Akademiarenetik hartuta, “Remate en punta de una torre” dakar. Argazkiak argiago ipintzen du.

<sup>31</sup> *bobedaxeoc*: ‘bobeda gaixo horiek’, balio afektiboarekin. Lazarragaren eskuizkribuan, *-txo* atzizkia beti erabiltzen da txikigarri moduan; *-xe* atzizkiak, berri, hiru balio hartzen ditu: **1)** Txikigarria (*-xe = -txo*), kutsu afektiboarekin (mespretxua, trufa...) nahiz gabe: *bervaxe* (A7: 117), *daquidancheau* (A10: 21), *gauçaxe* (A10: 23), *presentexeac* (A14: 69), *çuzpirioxo* (A14: 73), *esecoxeoc* (A19: 14), *urtexe* (A19: 16), *dozenaxe* (A24: 116), *erreguxearu* (A26: 31), *bobedaxeoc* (A28: 59). **2)** Izenondo eta aditzondoen intentsitate markatzailea: *gueldixe* (AL: 1140v), *goitixeago* (A1: 23), *claruxeago* (A7: 49), *gueixeago* (A10: 59). **3)** Indartzailea (izenordain indartuekin, eta *eben / arean-ekin*): *bercheac* (A7: 77), *gueurcheoc* (A7: 88), *neurcheau* (A10: 46), *ebenche* (B3: 42), *areanche* (A27a: 33). Kasu batean (*urteje* A14: 6), ez dakigu zehazki zein den balioa.

<sup>32</sup> *bobedaxeoc / ichi dau euroc bacarric*: XVII. mendeko kronikaren informazioa ere bat dator kontakizun honekin: “...y alcanzó al tejado y campanario de la Iglesia de San Juan y cayeron las campanas, quedando solamente las bóvedas y paredes [...]” (ap. Grandes 1923: 204).

<sup>33</sup> *ez dago / norc socorridu jenteric*: ‘ez dago lagundu lezakeen jenderik’.

<sup>34</sup> *içurriteaz*: ‘izurriteagaz, izurriteagatik’; hemen *-az* bukaerak soziatiboaren balioa du. Zaragozako 1564ko izurri bubonikoa zabaldu zen Araban eta inguruko eskualdeetan.

<sup>35</sup> *Ifini dave*: ‘agindu dute, xedatu dute; agindu da, xedatu da’.

<sup>36</sup> *asco penaric*: ‘zigor asko, zigor handia’.

<sup>37</sup> *comarcaetan*: ‘(Aguraingo) ingurumarietan’; gardena da gaztelaniazko DAut, s.v. *comarca*: “El país contiguo y cercano a una tierra o lugar, que está en contorno de ella”. Landuccik ere bildu zuen: “comarca, *comarquea*”.

<sup>38</sup> *ara*: Salbaterrara, alegia.

cerren eocen	
larrin guztiac beteric	70
persona ascoz	
içurriagaz gaxoric. <sup>40</sup>	
Oy jente asco	
egoan parebagaric <sup>41</sup>	
ara beguira,	75
oy ecin socorriduric.	
Suori, barriz,	
oy beti sobervioric,	
ez eucala	
bapere piadaderic. <sup>42</sup>	80
Içurridunac	
asco eucaen llanturic,	
norc bereari	
[o]y ezin cobru emunic. <sup>43</sup>	
Etorri dira	85
oy barri onoc <sup>44</sup> ençunic	

<sup>39</sup> *balloa*: ‘balihoa, joango balitz’, *joan* aditzaren forma hipotetiko trinkoa da. Lazarragaren testuan, hipotetikoan, hirugarren pertsonak daraman *l-* aurritzia sabaikaritzen da hurrengo *-i-* bokala asimilatuz: *ballaco* (AL: 1143r), *lloacen* (AL: 1147r), *lloaque* (AL: 1151v), *balloa* (A28: 68). Bestalde, ohar gaitezen, baldintza irrealeko protasia izan arren, apodosia errealean duela: *ifini dave ... ara balloa guiconic*.

<sup>40</sup> *cerren eocen / ... / ... / içurriagaz gaxoric*: Fortunato Grandesen kontakizunak argitzen ditu lerro hauek: “...los barrios agrícolas de extramuros no fueron pasto de las llamas y sirvieron provisionalmente de albergue a los que, como consecuencia del fuego, quedaron sin viviendas” (Grandes 1923: 205). Ingurumarietako jendea ez omen zen sobera errukitsu ibili, eta erregearen justiziak behartu behar izan zituen Aguraingoak laguntzera: “En los pueblos circunvecinos se negaban a admitir en sus domicilios a los que de Salvatierra huían por no tener casa y para librarse del contagio, ante el temor de que llevaran este consigo, y para obligarles a recibirlas tuvo la Justicia de Salvatierra necesidad de acudir al Rey en demanda de una Real Cédula, que consiguió” (Grandes 1923: 206).

<sup>41</sup> *parebagaric*: ‘izugarri (asko)’; goiko lerroko *asco* izenlagunaren graduatzalea da. Eskuizkribuko beste bi lekutan ere badago *parebagaric* erabilera adberbialean: *Dama bategaz t[o]padu ninçan, / lindea parebagaric* (A7: 5-6), *Donzellacho bat ecusi neben, / lindea parebagaric* (A14: 21-22).

<sup>42</sup> *piadaderic*: Eskuizkribuan bi aldiz agertzen da *piadade* forma (A17: 41 eta A28: 80) eta hiru aldiz *piedade* (A1: 50, A16: 6, A16: 33). Landuccik ere *piadade* (gaztelaniazko “clemencia” eta “piedad”). Gaztelaniaz ugari agertzen da CORDEN 1600 arte, eta gero nekez (azkena 1646koa).

<sup>43</sup> *cobru emunic*: ‘aurre egunik’; cf. OEH, s.v. *kobru*: “KOBRU EMAN [...] “Kobru emon (Vc), kobru eman (G-azp-bet), dar cumplimiento, dar frente, responder de algo”A.”

comarcaetan	
eocenoc recogiduric, <sup>45</sup>	
oy ta levela	
eguiten asco negarric,	90
cerren ecusten	
even guztia galduric,	
galduric eta <sup>46</sup>	
suorrec abrasaduric,	
emun al baga	95
bapere remedioric.	
Al eguienac, <sup>47</sup>	
esporçuz <sup>48</sup> animaduric,	
ateraetan	
asi cirean <sup>49</sup> tristeric	100

<sup>44</sup> *barri onoc*: Testuan ez da berariaz berri onik aipatzen, eta pentsa genezake hiribildutik kanporatuak zeuden izurridunak Salbaterrara itzuli ahal izatea izan zitekeela berri on bakarra.

<sup>45</sup> *recogiduric*: ‘babesturik’, izurritetik ihes egiteagatik (ikusi gorago 65-72 lerroak). 142. lerroan ere badago hitz hau, baina beste adiera batekin.

<sup>46</sup> *galduric, / galduric eta*: Ahozko literaturan sarri agertzen da anadiplosia: testu-zati baten azken zatia hurrengoaren hasieran errepikatzea eta kateatzea; *bihurkia* deitu zion Manuel Lekuonak ahozko euskal literatura aztertzean. Testuan behin baino gehiagotan agertzen da baliabide hori: *ene laztanac guraric, / ene laztanac guraric eta / neurec ala trabajaduric* (A14: 10-12), *Erregue baleu enojadu, / enojadu ta / asco maneraz afrontadu* (A26: 2-4), *Amea baleu ayn onradu, / onrada eta / bere semeaz concertaedu* (A26: 14-16), *cerren ecusten / even guztia galduric, / galduric eta / suorrec abrasaduric* (A28: 91-94), *Aurquitu eta / dey eguin deuso umilic, / umilic eta / lisonja ascoz beteric* (B29: 41-44).

<sup>47</sup> *Al eguienac*: ‘ahal zutenak’ edo ‘ahal izan zutenak’; iduri luke adibide honetan *egin* aditzak bi irakurketak har ditzakeela, burutua eta burutugabea. Ez da harritzeko kontuan hartzen badugu XVI. mendeko testuetan aditz telikoen iraganeko forma trinkoak bi balio aspektualak adieraz zitzakeela testuinguruaren arabera. Halere, ondoko adibidean balio burutua baizik ez diogu hautematen: *joan cirean Silveroen camarara, nun, sar citecenean, utra cortesmente Silverori berva eguin eusaen; ceñac, al eguien cortesia eta mesura guztiaz, saludadu cituan eta escatu cidin arpa bat* (AL: 1142v). Bestalde, testu zaharrenetan, *egin* aditz erabiltzen da gaur egun \**edun* erabiliko genukeen lekuaren ahalera — zentzu zabalenean— adierazteko (*al egienak = al zutenak*).

<sup>48</sup> *esporçuz*: ‘adorez’; cf. *OEH*, s.v. *esportzu*: “Ánimo, fuerza, apoyo, consuelo”.

<sup>49</sup> *cirean*: Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatuetan ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doeān* (RS), *daroa + -an > daroeanean* (VJ) (cf. *FHV* 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138r), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B17: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B18: 31, B18: 44), *guinean* (A7: 8, B18: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B18: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroala* (B18:

azienda, <sup>50</sup>	
dolorez contubagaric. <sup>51</sup>	
Andioc <sup>52</sup> barriz	
utra negociaduric, <sup>53</sup>	
euren eseac	105
oy ecin defendiduric.	
Ala galdu çan	
lecu au desastraduric,	
enparaçaca <sup>54</sup>	
ese bat <sup>55</sup> baice <sup>56</sup> besteric.	110
Asco erre da	
barruan joia galantic,	
bay gueiago <sup>57</sup>	
oy asco arca gariric. <sup>58</sup>	

16). Ohar gaitezen Landuccik ez duela aldaketa horren arrastorik aditzean (“antecedente, *aurrera doana*”).

<sup>50</sup> *azienda*: ‘ondasunak’; eskuizkribuan beti du adiera hau, eta ez ‘ganadua’; ikusi A24: 52, A28: 101, A28: 154 eta bereziki B5: 2: *Sentitu baga castacen da / andiro azienda*.

<sup>51</sup> *dolorez contubagaric*: ‘kontaezineko saminez, samin izugarritz, zeharo samindurik’; *dolorez* adberbiala da, eta *contubagaric* horren graduatzalea.

<sup>52</sup> *Andioc*: ‘handikiok’; honetan ere argigarria da Fortunato Grandesen kontakizuna: “Dentro del recinto amurallado [...] vivían los señores en sus casas solariegas, sobresaliendo con su alcurnia y sus blasones, que se destacaban del resto de la población de comerciantes, industriales, artesanos y braceros. En los cuatro extremos, fuera de muros, tenían, como hoy, sus viviendas los labradores” (Grandes 1923: 202).

<sup>53</sup> *utra negociaduric*: ‘oso lanpeturik’; honekin zeharo bat datorren *muy negociado*-ren adibide bat aurkitu dugu CORDEN: “Mira que Satanás andaba **muy negociado** para aventarlos a todos como a trigo [...]” (San Pedro de Alcántara, c. 1560, *Tratado de la oración y meditación*).

<sup>54</sup> *enparaçaca*: ‘itzuri gabe, onik atera gabe’; mendebaldean ez dago *enpara(tu)* aditzaren adiera horren lekukotasun gehiegirik, baina, *OEH*ren arabera, badago gutxienez *Arrasateko Erreketa* (*TAV 3.1.7*) eta Abendañoren kantan (*TAV 3.1.6*). Eskuizkribuan beste behin aurkitu dugu, eta hor ‘gelditu’ esan nahi du zalantzarak gabe: *Enparaetan bardin bayaçu / beste çaguita çorrocic* (B23: 101-102).

<sup>55</sup> *ese bat*: XVII. mendeko kronikaren arabera ere, etxe bat baino ez zen zutik geratu, eta Santa María eliza, eta laba bat: “...se quemó toda la villa, excepto la iglesia de Santa María y un horno y una casa que quedaron sin quemarse” (*ap.* Grandes 1923: 204).

<sup>56</sup> *baice*: ‘baizen, baizik’; eskuizkribuan *baxe* eta *baize* formak agertzen dira (bakotza zazpi aldiz, eta behin *baje*). Formari buruz, cf. *OEH*, s.v. *baizen*: “La variante *baxen* (<-ix-> a veces en fray Bartolomé) es propia de la tradición vizcaína; no se encuentra *baizen* en textos de este dialecto hasta el s. XX. Las formas sin -n se documentan en textos meridionales antiguos: *baize* en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama; *baxe* y *bixin* en Micoleta; *baizin* en *BBizk*.<sup>57</sup>”

<sup>57</sup> *bay gueiago*: ‘baita ere’; bi aldiz dago eskuizkribuan: A28: 113 eta B29: 113. Honen antzera, ikusi *ez gueiago*.

Ascoc dauco	115
bioça ondo erreric,	
<1203r> euguico bere	
secula osaça[ca]ric. <sup>59</sup>	
Eucaiteco <sup>60</sup>	
asco da errazoaric	120
cerren eguin da	
oy asco calte andiric:	
guraso asco	
jarri da ume bagaric,	
umeac bere	125
oyta guraso bagaric; <sup>61</sup>	
asco dabilça	
curelدو <sup>62</sup> desterraduric,	
norc bere ese	
apaindurean <sup>63</sup> urtenic,	130
oyta dabela	
ecusten asco penaric	
cerren ez daucae	
nun paseadu caleric,	
ez gueiago <sup>64</sup>	135
erregalozco <sup>65</sup> tendaric, <sup>66</sup>	

<sup>58</sup> *asco arca gariric*: ‘gari asko, gari-arka asko’; garia erre da, eta zenbat erre den adierazteko dago *asco arca*.

<sup>59</sup> *osaça[ca]ric*: ‘osatzekerik, osatu gaberik’.

<sup>60</sup> *Eucaiteco*: ‘hala edukitzeko’; 115. bertso-lerroko *dauco* hari egiten dio erreferentzia. Forma honekin erlazionaturik, cf. Lazarragaren eskuizkribuan, *ce beucaique* (A14: 57), *ce eucaiqueçu* (A27a: 24, A28: 155) eta *baneucaique* (B22: 15). Ikusi, orobat, Lcc “fiesta de guardar, *eguçari euchayteco*”.

<sup>61</sup> *guraso asco* / ... / *oyta guraso bagaric*: Fortunato Grandesek dioenez, izurritearen ondorioz 600 biztanle hil bide ziren, biztanleriaren ehuneko berrogei; sutearen ondorioz ez dakigu zenbat hil ziren (Grandes 1923: 205).

<sup>62</sup> *curelدو*: ‘krudelki’; Landuccik ere badakar *curela* adjektiboa, baina *kurelدو* izenondoa ez dugu aurkitu eskuizkribu honetan baino (AL: 1151r, AL: 1152r, A28: 128).

<sup>63</sup> *apaindurean*: ‘apaindutik’.

<sup>64</sup> *ez gueiago*: ‘ez eta ere’, hemen eta beherago.

<sup>65</sup> *erregalozco*: ‘guztiz fin, bikain, dotore, ez ezinbesteko’.

ez gueiago	
alcate-regimienturic. <sup>67</sup>	
Jaunac dabela <sup>68</sup>	
oy asco gueraciari, <sup>69</sup>	140
bici garean <sup>70</sup>	
guztioc recojiduric. <sup>71</sup>	
Oy ez cargadu	
norc bere conciari, <sup>72</sup>	
Jaunac ez digun <sup>73</sup>	145
oyta gaztigu besteric. <sup>74</sup>	
Ez inor[c] <sup>75</sup> eguiñ	
ezer lucuru-gauçaric,	
ez gueiago	
concenciazco traturic; <sup>76</sup>	150
ez erabili	
derecho baga auciric,	
eroan ustez <sup>77</sup>	

<sup>66</sup> *tendaric*: ‘dendarik’; Leizarragarenean baino ez dugu aurkitu, eskuizkributik kanpo (cf. orobat B7: 14), *t-* ahoskabearekin hasten den forma.

<sup>67</sup> *alcate-regimienturic*: ‘alkate eta errejimendurik, alkate-zinegotzirik, alkate eta zinegotzirik’; cf. *DAut*, s.v. *regimiento*: “Se toma asimismo por el conjunto o cuerpo de regidores, en su Concejo o Ayuntamiento, de cada ciudad, villa o lugar”.

<sup>68</sup> *dabela*: ‘izan dezala’.

<sup>69</sup> *asco gueraciari*: ‘grazia asko, onginahi handia’; cf. baita A23: 2, eta, forma bera baina beste adiera batekin, *gueraciea* ‘grazia, trebetasuna’ (A6: 30). Barrutiak eta Landuccik darabilte *gerazia* aldaera, bakoitza behin.

<sup>70</sup> *bici garean*: ‘gu bizi gaitezen, gu bizi izateko’.

<sup>71</sup> *recojiduric*: ‘nor bere baitan bildurik, ohitura gaitzo eta atseginkerietatik urrundurik’; *DAutek*, s.v. *recogerse*, honi ondo doazkion hainbat adiera ematen ditu, seguruenik azkena egokiena: “En el sentido moral, vale apartarse, abstraherse el espíritu de todo lo terreno, que le pueda impedir la meditación o contemplación”. 88. Ierroan ere badago hitz hau, baina beste adiera batekin.

<sup>72</sup> *ez cargadu / norc bere conciari*: ‘ez kargatu nork bere kontzientzia, ez egin txarkeriarik’; cf. *DAut*, s.v. *cargar*: “CARGAR LA CONCIENCIA. Executar alguna acción mala y pecaminosa, por la qual queda gravada la conciencia”.

<sup>73</sup> *ez digun*: ‘eman ez diezagun’; \*-in- erro zaharreko adizkia, subjuntivoan.

<sup>74</sup> *gaztigu besteric*: ‘beste gaztigurik, beste abisurik’; cf. gorago A28: 24.

<sup>75</sup> *inor[c]*: Ergatibo-faltari dagokionean, cf. *inor[c]* (AL: 1145r, A28: 147), *ni[c]* (A7: 38, A17: 107, B3: 34), *neur[c]* (A9: 19), eta *ar[c]* Sasiolakoarenan (B30: 86).

<sup>76</sup> *concenciazco traturic*: ‘kontzientziaren aurkako traturik’.

<sup>77</sup> *eroan ustez*: ‘kentzeko asmoz’.

inori aziendaric.	
Ce eucaiqueçu <sup>78</sup>	155
iñogaz injuriaric;	
proximoari	
ez eguin agravioric.	
Acorda çatez, <sup>79</sup>	
çaoça <sup>80</sup> iraçarric. <sup>81</sup>	160
Salbaterra,	
ez artu soberviaric,	
cerren dacusu <sup>82</sup>	
oy asco profeciaric,	
Jaun Cerucoac	165
çuri bidaldu jaguinic, <sup>83</sup>	

<sup>78</sup> *Ce eucaiqueçu*: ‘ez ezazu(e) eduki (geroan)’; *eduki* aditzaren geroaldiko aginterazko forma trinkoa. Geroaldiko agintera oso ohikoa da *Refranes y Sentencias* bizkaierazko atsotitzen bilduman (*çe eyquec maurtutu hoeaneâ, eder eztanic calean RS 36, Gach ce erexqueoc yñori, ta emac vereaedoceyni RS 312*), eta aztergai dugun Lazarragaren testuan: *ce eucaiqueçu* (A27a: 24), *sinis eçaqueçu ene egua* (B11: 13-14), *Jentil onbrea, ona çatozque, / gura banoçu gozadu* (B14: 11-12). Bizkitartean, ez dirudi soilik mendebaldeko euskararen ezaugarria izan denik, gipuzkera eta lapurtera zaharrean (Etxeberri Ziburukoa eta Etxeberri Sarakoa) ere biltzen baitira gisa horretako formak. Bestalde, aditz erroaren forma aipagarria da, nahiz eta ez den bakarra, testuan *eucaiqueçu* (A27: 24, A28: 155), *eucaiteco* (A28: 119) eta *baneucaique* (B22: 15) biltzen baitira. Ohar paleografikoari jarraikiz, guztiz azpimarragarria iruditzen zaigu bigarren eskuak aditz formaren *i* bokala tatxatu izana.

<sup>79</sup> *Acorda çatez*: ‘gogoan izan ezazu(e)’.

<sup>80</sup> *çaoça*: ‘egon zaitez(te)’, agintera; *çaoz* eta *çaoça*, bietara erabiltzen du.

<sup>81</sup> *iraçarric*: *Iratzarrik* forma XIX. mendera arte ez zegoen lekukotua (cf. *OEH, IRATZARRIRIK*, s.v. *iratzarri*), baina eskuizkribuan hiru aldiz agertzen da (A16: 72, A23: 36 eta A28: 160), eta bi aldiz *iraçarriric* (AL: 1152r, B23: 16).

<sup>82</sup> *dacusu*: ‘dakutsu’; hala irakurri behar da Lazarragarena, txistukari afrikatuarekin.

<sup>83</sup> *çuri bidaldu jaguinic*: ‘zuri bidaldu egunik, zuri bidalirik’; *jagui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa aditz nagusitzat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Jri remedio emun jagui[* (AL: 1138r), *Nachaçu suplicaetan nay daquicula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguiten* (AL: 1152r), *eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean* (AL: 1152v), *cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidoreric; / oy alcançadu daiqueano / ez artu jaguin celoric* (A14: 99-102), *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebagaea; / oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / egui deustan mesedeac / servidu jaguin artean* (A24: 131-136), *Jaun Cerucoac / çuri bidaldu jaguinic; / adietaco / badeçu miramenturic, / ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric* (A28: 165-170), *Aren aoti berba oa / neguianean aditu, / reberencia jaguiteco / belaunoc neben incadu* (B14: 13-16), *Apea nindin çaldirean / guchi bat apartaduric; / berba neguion lurrerean, / neurau nengoan lecurean / reberencia jaguinic* (B18: 66-70), *Beti nabil casoau dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo*

adietaco <sup>84</sup>	
badeçu <sup>85</sup> miramenturic, <sup>86</sup>	
ez consentidu	
ceure lurrean gaxtoric.	170
Regimentua <sup>87</sup>	
ifinçu <sup>88</sup> abisaduric, <sup>89</sup>	
ez daguiala <sup>90</sup>	
bide ez daben gauçaric, <sup>91</sup>	
oy dafinela <sup>92</sup>	175
republiquea <sup>93</sup> garbiric,	
bazterroc <sup>94</sup> bere	
oy ondo gobernaduric.	
Beguirauçu, <sup>95</sup>	

*jaguiteco* sendoro (B18: 111-115), *guztiay berba jaguinic* (B29: 50), *modu onetan / oyta berba jaguinic* (B29: 79-80). Edozein kasutan, beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian *egin* aditzaren forma hirupertsonala (NORK-NORI-NOR) ezkutatzen dela.

<sup>84</sup> *adietaco*: ‘(gaztiguak) ikusteko’; *aditu* aditzak ‘entzun’ edo ‘ulertu’ esan nahi du eskuizkribuko gainerako agerraldi guztietan, baina hemen ‘ikusi, begiratu’ esan nahi duela uste dugu, goiko *dacusus* aditzarekin eta ondoko *miramenturic* izenarekin erlazionaturik.

<sup>85</sup> *badeçu*: *de-* moldeko *\*edun* aditzaren formak ez dira asko eskuizkribuan (eta gehienak Estibaliz Sasiolakoaren poeman agertzen dira): *det* (A5: 26, B30: 12, B30: 14, B30: 20, B30: 45, B30: 60), *dedan* (B30: 82), *badeçu* (A16: 70, A28: 168), *deçün* (A26: 90). Gutxi dira, orobat, *du-* eta *deu-* moldeetakoak.

<sup>86</sup> *badeçu miramenturic*: ‘baldin baduzu begirunerik’.

<sup>87</sup> *Regimentua*: ‘Udalbatza’.

<sup>88</sup> *ifinçu*: ‘ipin ezazu’; *ifini* aditzaren agintera trinkoa. Halako hamaika aurkitu ditugu Lazarragaren eskuizkribuan: *efinçu* (A16: 59), *jafindaçu* (A17: 44, B18: 34), *ce nafinçu* (A17: 60), *dafinquet* (A24: 27), *ez difinquen* (A27: 4), *badafinçu* (A27: 41), *ifinçu* (A28: 172), *dafinela* (A28: 175), *nafinçu* (B3: 70), *nafinela* (B4: 4), *ce efinçu* (B7: 13).

<sup>89</sup> *abisaduric*: ‘jakinaren gainean’; eskuizkribuan *abisadu* hitzak ‘zuhur’ adiera ere badu: cf. *neure bician ecusi ez dot / ayn gauça abisadurik* (A7: 9-10) eta *Abisada eder parebagaea* (B17: 16).

<sup>90</sup> *ez daguiala*: ‘ez dezala egin’; *egin* aditzaren subjuntivo trinkoa.

<sup>91</sup> *bide ez daben gauçaric*: ‘bidezkoa ez duen gauzarik’. Cf. *OEH*, s.v. *bide*: “BIDE IZAN [...] (Aux. intrans. unipersonal y bipersonal con sujeto de 3.<sup>a</sup> persona). Ser (lo) justo, debido, lícito; (aux. trans.) tener obligación, deber en justicia”. Cf. *bide dodana eguinic* (A7: 14).

<sup>92</sup> *dafinela*: ‘ipin dezala’; *ifini* aditzaren subjuntivo trinkoa. Halakoez ikusi A28: 172 lerroko oharra.

<sup>93</sup> *republiquea*: ‘herriko kontuak’.

<sup>94</sup> *bazterroc*: ‘bazter horiek, Salbaterrako ingurumariak’.

<sup>95</sup> *Beguirauçu*: ‘begiratu ezazu(e), adi egon zaitez(te)’; *begira + \*edun* aditz-lokuzioa aski arrunta da testu zaharretan. Lazarragaz gain, Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa eta Axularrek ere erabiltzen dute: *begirauzue, beilla ezazue eta othoitz egizue, ezen eztakizue denborá noiz daten* (Leiz Mc. XIII, 33),

ez egun beste gauçaric.

180

Fin

---

OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** primero] esk. *pr laburdura*. || año] esk. *ano*. || nacimiento] esk. *nascimi* laburdura. **15** daoque] esk. *daoq-*, *-q-* gangardunarekin. **23** çaozque] esk. *çaozq-*, *-q-* gangardunarekin. **29** flaquezeonec] esk. *flaquezeonen*. **37** ez] aurrean bi letra tattxaturik (yr agian). **44** gañeti] esk. *ganeti*. Ez dirudi *n* letraren gainean dagoen tilde antzekoa sabaikaritasuna adierazten duen diakritikoa denik. **50** utra] hitzaren aurrean, lotuta, beste letra bat dago, zirriborratuta edo tatxatuta; beste *u-* bat izan liteke. **68** guiçonic] esk. *giçonic*. **84** oy] *o-* ez da ondo ikusten, papera hondatuta dagoelako. **116** bioça ondo erreric] Ondoren beste lerro bat dago tatxatuta: *oyta debela*. **118** osaçacaric] esk. *osaçaric*. Poema honetako bertso-lerro bikoitiak 8 silabakoak dira, eta eskuizkribukoak 7 izango lituzke osatu ezean. **120** errazoaric] Azken *-r-* letra beste letra baten gainean idatzita dago. **138** regimienturic] *-mien-* silabako *-i-* letra azkena erantsi da, *-men-* idatzi baitu lehenago. **147** inorc] esk. *inor*. **161** Salbaterra] *Salbaterrai* idatzi du lehenengo, baina *-i* zirriborratuta dago.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2010 [c. 1602], “A28 – *Istoria de la quema de Salvatierra*” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (1.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].

---

gero ordean sendatu eta erhasunetik / konfesio egitera begirauk ahantzetik (EZ Man. I, 22); 1609an Iruñean saritutako lehen poesian ere agertzen da: *Ongi ohartuz janegazu, il etzaitzan begirauzu* (TAV 3.1.20). Bestalde, \**edun* aditzaren aginterazko forma trinko bakarra da eskuizkribuan.



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago